



Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia

Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeo Fundazioa



EUSKAL ZUZENBIDE ZIBIL KONPARATUARI BURUZKO AZTERKETAK, 2016

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ ED.



EUSKAL ZUZENBIDE ZIBIL KONPARATUARI BURUZKO AZTERKETAK, 2016

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ ED.

Echegaray seriea, 5
Zuzendaria: José Manuel Castells Arteche



Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia
Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeo Fundazioa

Donostia, 2017

Zuzendaria

José Manuel CASTELLS ARTECHE. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Erredakzio Kontseilua

Itziar ALKORTA IDIAKEZ, idazkaria. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Carmen AGOUÉS MENDIZABAL. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Jean-Baptiste BUSAAL. Paris Descartes Unibertsitatea.

Josep CAPDEFERRO I PLA. Pompeu Fabra Unibertsitatea.

Ignacio FERNÁNDEZ SARASOLA. Oviedoko Unibertsitatea.

Gorka GALICIA AIZPURUA. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco.

Amane GOGORZA. Bordeleko Unibertsitatea.

Xabier IRUJO. Center for Basque Studies/Euskal Ikasketen Zentroa, Nevadako Unibertsitatea.

Javier PALAO GIL. Valenziako Unibertsitatea.

GOMENDATUTAKO FITXA BIBLIOGRAFIKOA

Euskal Zuzenbide Zibil konparatuari buruzko azterketak, 2016 ; Itziar Alkorta Idiakez ed. – Donostia: Fundación Iura Vasconiae = Iura Vasconiae Fundazioa, 2017. – 304 orr.; 24 zm. – (Echegaray; 5)

D.L.: SS-1014/2017. – ISBN: 978-84-697-5468-9

I. Euskal Zuzenbide Zibil. I. Iura Vasconiae Fundazioa II. Titulua III. Seriea

811.361 (091)

© Fundación Iura Vasconiae. Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autónomo de Vasconia / Iura Vasconiae Fundazioa. Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeke Fundazioa. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2003ko azaroaren 20ko Aginduaren bidez sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatua (2004ko urtarrilaren 22ko EHAA, 14. zenbakia, 1265-1269 or., biak barne). Helbidea: Zorroagaina 11, 1. solairua (Iura Vasconiae Fundazioaren bulegoa). 20014. Donostia (Gipuzkoa).

ISBN: 978-84-697-5468-9

Lege-gordailua: SS-1080/2017

Azala: Izenbururik gabe, Javier Valverde, olio mihise gainean, 2016.

Banatzaila: Bitarte. Berriozar industrialdea, OE, 44. nabea, 31012 Berriozar (Nafarroa). Tel.: 948302400; Faxa: 948302708, Helbide elektr.: info@bitarte.net

Eskubide guztiak gordeta. Argitalpen hau, azalaren diseinua barne, ezin da guztiz edo zati batez inola ere erreproduzitu, biltegitatu edo transmititu, edozein bitarteko baliatuz (elektrikoa, kimikoa, mekanikoa, optikoa, grabaziokoa edo fotokopia), argitaratzaileak horretarako behar den baimena idatziz eman ezean.

Iura Vasconiae Fundazioak, argitalpenak hobetzea xede, eskertu egingo du irakurleek posta elektronikoz (iura@vasconiae.eus) helarazitako iradokizun oro.

Webgunea: <https://www.iuravasconiae.eus>

AURKIBIDEA

	Orr.
HITZAURREA. Aitor Bengoetxea Alkorta	7
ESKERTZA	9
SARRERA	
Euskal Zuzenbide Zibilen arteko azterketa konparaturantz	11
ALKORTA IDIAKEZ, Itziar	
Kodifikazioaren eragina Euskal Zuzenbide Zibilen konpilazioetan	27
MONREAL ZIA, Gregorio	
Euskal Herriko Zuzenbidearen kodifikazioa (Bizkaia/Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa)	115
OSÉS ABANDO, Josu	
Euskal Zuzenbide Zibil «berria»: oraina eta etorkizuna	145
GOROSTIZA VICENTE, José Miguel	
Euskal Zuzenbide Zibilaren 5/2015 legean iturriak eta printzipio eratzailak	159
KARRERA EGIALDE, Mikel Mari	
Etxea eta ondarea	175
IMAZ ZUBIAUR, Leire	
Euskal oinordetza zuzenbidea: Erdi Aroko foruetatik XXI. mendeko Europara. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa ispiluaren aurrean	195
BELINTXON MARTIN, Unai	
Euskal Zuzenbide Zibileko legearen auzotasun zibila. Europar Zuzenbide eta nazioarteko Zuzenbide pribatuaren ikuspegiak	231
JIMENO ARANGUREN, Roldán	
Ezkontza eta izatezko bikoteak	255
PARTEHARTZAILEAK	293

HITZAURREA

Plazerra da Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko UEUren argitalpen honen hitzaurre labur hau egitea.

Gai sakona da esku artean duzun liburuan jorratzen dena, gure zuzenbide foral historikotik datorkiguna, Hego Euskal Herria egun osatzen duten Euskal Autonomi Erkidegoan nahiz Nafarroako Foru Komunitatean. Ondarea edota oinordetzaren gisako gaiak inori ez zaizkio arrotz, gure kultura juridikoan.

2015.ean eguneratze juridiko garrantzitsua gertatu denez, gaiari heltzeko aukerari heldu diote hainbat lagunek. Euskal Zuzenbide Zibilaren gaian adituak dira, gehienak unibertsitateko ikerlariak, eta baita ere abokatuak, ikuspegi teoriko eta praktikoak lantzeko aukera emanez.

Gure erro juridikoak eta oraina uztartzeko saioa dago bertan, etorkizunari buruz hausnartzeko ekimenarekin batera.

Euskal Herrian zuzenbide tradizionala gehienbat gazteleraz edo frantsez landu da. Errealitate horren aurrean, Udako Euskal Unibertsitateko Zuzenbide Sailak beti eduki du helburu gisa euskaraz landutako zuzenbidea sustatzea. Liburu honekin beste urrats bat ematen dugu ibilbide horretan.

UEUk argitaratu dituen lan juridikoen bildumak, ziur, atseginez egingo dio lekua egungo Euskal Zuzenbide Zibila bere jatorri historikoarekin lotzen duen argitalpen interesgarri honi.

Irakurleak goza dezala esku artean duen lan honekin.

AITOR BENGOETXEA ALKORTA

UEUkidea eta Zuzenbide arloko Sailburu ohia

ESKERTZA

Bilduma hau hainbat pertsona eta erakunderen lankidetzaren fruitu izanik, zor zaien aitortza egitea plazer dut atal honetan.

Lehenik eta behin, *Iura Vasconiae* Fundazioari eskertza adierazi nahi nioke, zeinaren Patronatuak eta bereziki Fundazioaren Presidente den Gregorio Monreal Ziak, eta Roldán Jimeno Aranguren, Zuzendariak, gogo onez eta ekintzailetasunez jaso baitzuten hasieratik Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Zuzenbide Zibilaren gaineko azterketa konparatua abiatzeko egin nuen proposamena. Ordutik aurrera *Iura Vasconiae*-n hezur mamitutako saio guztiak babestu eta bermatu izan dituzten moduan, laguntza zuzena eman zuten ere UEUko Jardunaldiak prestatu, eta bertan parte har zezaten Nafarroako lankideak gonbidatzen.

Xanti Goñi Zabala abokatu eta lankideari zor zaio lehen Jardunaldi hauek UEUn antolatzeko ideia eta horiek zuzentzeko ardura. Mikel Karrera Egialde, Zuzenbide Zibil Saileko irakaslearekin batera, bilduma honen oinarrian dagoen lehen saio honen antolakuntzan lan fina eginak dira biak. Haiek gabe ezingo genuke, bada, gaur bilduma hau eskuartean izan.

UEUri eskerrik beroenak emateko abagunea da hau. Izan ere, ekimena aurkeztu genien unetik zinez arduratu baitziren Jardunaldi hauek bere programan jaso eta aurrera ateratzen. Aipamena egin nahi nieke, bereziki, Yolanda Mendiola abokatu eta UEUko Zuzenbide atalaren zuzendariari, eta Irati Iciar, ikastaroen antolamendu-arduradunari: biei eskerrak gure iradokizun guztiak jasotzeagatik eta hain modu zintzo eta eraginkorrean egindako lanagatik.

Azkenik, aipatu nahi nituzke Jardunaldietan parte hartu eta, ondoren, bilduma honetarako beren kontribuzioa idatzi duten profesionalei, zeinak ordezkatzan baituten erakunde sorta oparoa: Eusko Legebiltzarra, Euskal Zuzenbidearen Akademia, Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHU. Euskal Zuzenbidearen abaroan bildu garen euskal juristen komunitate anitza islatzen duen bilduma honen autore guztiei nire esker ona eta aitortza adierazi nahi diet.

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ

SARRERA

Euskal Zuzenbide Zibilen arteko azterketa konparaturantz

Iura Vasconiae-ren Etxegarai bilduman argitara ematen dugun euskarazko lehen ale honek atariko azalpen bat merezi du irakurleak esku artean duen obraren zioa eta nondik norakoen berri emango duena. Izan ere, joan den mendeko 30. hamarkadan Bonifacio de Etxegaraik proposaturiko Euskal Zuzenbide Pribatu Konparatuaren Institutua gogoan, *Iura Vasconiae*-k Euskal Herriko lurraldeetako zuzenbide pribatu historiko eta garaikidearen inguruko monografiak bildu nahi ditu serie honetan.

Tamalez, azken urteetan galduta egon da gure artean Euskal lurraldeen Zuzenbide Zibila oro har eta bere osotasunean artatzeko egitasmoa. Alta, Euskal Herriko erakunde zibilen arteko azterketa konparatuak badu bere ibilbide xumea. Aurten betetzen dira ehun urte Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko I. Kongresuan Etxegarai anaiek abiarazi zutela Euskal Foru Zuzenbidearen gaineko ikerketa lerroa. Euskal pizkundearen ideiak zabaltzen ari ziren garai hartan, Euskal Herriko erakunde pribatuen arteko azterketa konparatua egin zedin proposatu zuen, zehazki, Bonifacio de Etxegarai jurista eta literaturazale oparoak. Eta diktadura heldu zenean ere, Eusko Ikaskuntzak eutsi egin zion borondate horri. Gogora dezagun hemen Jesús de Galíndezek, erbestean, bitartekorik gabe eta isolamenduan, paratutako Euskal Foru Zuzenbidearen oinarrien proiektu artikulatua, 1942an Biarritzeko Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresuan aurkeztutakoa... Eredu bakan batzuk dira beraz, baina esanguratsuak.

Aipatu egitasmoaren barruan lehen jardunaldi batzuk abiarazteko abagunea eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko, 5/2015 Legearen aldarrikapenak. Hiritarren bizitza zibilari dagozkion hainbat erakundeetan, oinordetzaren gaineko erabakietan, esate baterako, berrikuntza esangarriak jasotzen ditu arau horrek. Iraganarekin lotura hautsi gabe, egungo gizarteak behar dituen soluzioak eman nahi izan ditu, eta zalantzarik ez dago EAEko gizartearentzat aldaketa eta aurrerapen nabarmena izan dela. Horren adierazgarri dira, eskuarki, komunikazio bitartekoetan arauak izandako trataera zabala eta operadore juridiko nagusiek lege berriaren inguruan antolatutakoa dituzten jardunak eta azterketa saioak. Lege aldaketaren ondorioz, ordea, are na-

barmenagoa da orain Nafarroako eta EAEko legebiltzarrek erakunde zibil propioei emandako trataeraren arteko desberdintasuna. Izan ere, 1987an egin zen Konpilazioaren Konstituzio egokitzapenez landa, berri gutxi egon da erakunde zibilen alorrean Foru Erkidegoan. Nafarroak geldirik dirau, iraganari so. Gogoan izan bedi, gainera, Nafarroako zuzenbide pribatuaren eguneratze garrantzitsua izan behar zuen egitatezko bikoteen 6/2000 Legeak Konstituzio Auzitegiaren zati bateko gaitzespena jaso zuela.

Bada, azaldu beharra zegoen 5/2015 foru lege berriaren aldarrikapenak areagotu egin duela EAEko eta Nafarroako zuzenbide zibilen arteko aldea. Gogoeta horren harian, bilduma honetan jasotzen ditugu, hain zuzen, Iruñean, Uda-ko Euskal Unibertsitateko 44. ikastaroetan, 2016ko ekainaren 25ean, adituekin landu genituen EAEko eta Nafarroako foru araudia zibilen egoeraren gaineko lehen azterketa konparatuak. Euskaraz egindako lan horiek erakundeen arteko alderaketa dute ardatz eta lehen saio bati begirakoak dira; alegia, Euskal lurralde biren erakunde zibilen bilakaera historikoari eta egungo egoerari lehen errepasso bat ematea dute helburu. Horretarako, Jacinto Gil irakasleak zuzentzen duen Euskal Zuzenbide Zibilaren gaineko euskal unibertsitate-sistemako ikertalde kontsolidatuko kideak gonbidatu genituen gurera, urtetan landutako ikerketa il-
doak, euskaraz, eta bildumari begirako tenore dibulгатiboan, gurean jaso ahal izateko. Gonbidatu genituen gainera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan foru zuzenbidearen historian aditu goren diren Gregorio Monreal Zia katedraduna eta Roldán Jimeno Aranguren irakasleak. Bizkaiko Zuzenbide Zibilaren gainean lan handia egindako Zuzenbidearen Euskal Akademiaren ordezkariak azalpen baliotsuak eman zizkiguten; eta, EAEko 15/2015 lege berriaren ibilbidearen gainean izandako lehen mailako lekukotza emateko, Eusko Legebiltzarreko jurista arduraduna izan genuen gurean.

Edukiei dagokionez, bilduman jasotako atariko lanean euskal foru zuzenbide zibilen konpilazioen historia jasotzen da. Azterketa horretan, **Itziar Alkortak**, UPV/EHUko zuzenbide zibileko irakasleak gogorarazten digu, erregimen politiko laidoztatu baten produktu izanagatik ere, konpilazioen gakoak ulertzea garrantzitsua dela gaurko egoeraren aurrekari zuzen diren neurrian. Izan ere, 1978ko Konstituzioak men egiten baitio aurretik jasotako egoerari, konpilazio horietatik abiatzen delarik Foru Zuzenbidea eguneratzeko eta garatzeko esku-menaren aitortza egiteko.

Nafarroaren kasuan, 1973. urtean aldarrikaturiko Konpilazioaren testua dago oraindik indarrean, aldaketa gutxi batzuekin; Bizkaia eta Arabako Konpilazioa gehiago aldatu bada ere, hura berriztatzeko 1992, 1999ko eta 20015eko legeak gradualki zabaldu dituzte Konpilazioan jarritako oinarriak. Azken lege horri zunda bat jarri ahal izango bagenio bertan tradizioak duen pisua neurtu ahal izateko, erreparatuko genuke, «intentsitate foral» desberdineko guneak ma-

rrazten dituela lege berriak lurraldearen arabera. Tronkalekotasuna bete-betean aplikatzen den epizentroa Lur Laua izanik, zirkuluetan zabaltzen da legearen aplikazioa, borondatezko oinordetzaren arauak hartzen duten EAEko lurralde osoaren perimetroa estali arte. Bada beraz, lege berriak eragiten duen foru zuzenbidearen zabalkunde agerikorik, ordura arte aplikatu beharreko araudiaren ugaritasuna eta konplexutasunaren auzi historikoa nabarmen soiltzen eta errazten lagunduko duena.

Bizkaia-Araba eta Nafarroako Konpilazioak azaltzeko, kodifikazio prozesuari begiratzen dio lehenik aipatu lanak. Alkortak gogorarazten digunez, Espainiako kodegintza zibila bi fasetan egin zen: Kode Zibil erkidea erdietsi arteko lehen etapa, 1812tik 1889ra iraun zuena; eta zuzenbide lurraldetarrak konpilatu bitartekoa, 1973 urte-arte luzatu zena. Esan daiteke bigarren etapa hori indarrean dagoela oraindik: ikus, eskuarki, 2017an onartutako Kataluniako Kode Zibilaren obligazio eta kontratuei buruzko azken liburua.

Espainiako kodifikazio-prozesuak kodifikazio nazional handiekin bateragarriak diren ezaugarriak partekatzen baditu ere, ikur propioak izan zituen. Espainiako prozesuaren berezitasun nabarmenena, Alkortaren ustez, Estatu-kode bakarraren paradigma hautsi izanarena da. XIX. mendeko kode-eredu nagusiekin alderatuz, Frantziako kode iraultzaile eta batasun zalea; Alemaniako eredu jaso eta teknika zalea; eta XX. mendeko Suitzako zuzenbide kantonalen iturriak modu orekatuan jasotzen dituen *ZGB* delakoa, Espainiako Kode Zibila salbuespen bat izan zen. Suitzako *ZGB*ak lurralde guztien ohiturak eta lege-bildumak molde orekatuan kontuan hartu bazituen, Espainiako Estatuaren kasuan agerikoa da aniztasunaren sintesi-eredu horrek ez zuela arrakastarik izan. Batetik, nahi izanda ere, zalantzakoa zen atzerapen handia pairatzen zuen Espainiako doktrina juridikoak lurralde guztietako zuzenbideen sintesiaren eta asimilazioaren erronkari aurre egiteko mailarik ba ote zuen. Esanguratsua da, dio Alkortak, nola Espainiako Kode zibilaren aurrekari zuzena Frantziako Kode zibilean oinarritutako obra bat den, zeina haren autore nagusiak, García Goyenak, zintzo aitortzen duen moduan, Napoleon Kodearen *code suiveur* bat izan baitzen Europako beste herrialde askorekin batera. Desberdina ez ote zatekeen izango emaitza Espainian doktrina juridiko eta historiografiko indartsu bat egon izan balitz, ordenamendu zibil historikoen lanketa sakonago bat egiteko gai izango zena, Frantziako Kodearen funts izan ziren Daguessau, Bourjon nahiz Pothierren ereduari jarraiki, nahiz Alemaniako *BGB*aren oinarrian egon ziren Eskola germanista eta pandektistak, edo eta Suitzan kantoietako aniztasun aberatsa bateratzeko gai izen zen Eugen Huber bat egon izan balitz Espainian?

Kodearen elaborazioan zentroaren eta periferiaren arteko tentsioa nabarmena izan zen. Estatu-ikuspegitik Gaztelako zuzenbidearen zentraltasunaren eta *vis* hedakorraren kariaz, bertako ordenamenduak izan behar zuen zuzenbide er-

kidearen oinarri gainerako zuzenbide lurraldetar guztiak desagerraraziz. Jakinaenez, beren zuzenbidea galtzeko arriskuaren aurrean foru lurraldeek erresistentzia handia egin zuten. Alta, XIX. mendean, zuzenbide pribatu lurraldetarrek bizirautea lortu bazuten, Alkortak gogorarazten duenez, Estatuak biziraupena aitortu zielako izan zen, Estatuaren batasunari benetako mehatxu ez ziren neurrian, Espainiako Estatu-nazioaren paradigmarekiko haien esangura politikoa askoz ere urriagoa baitzen.

Edonola, 1889ko Kode Zibilak, teknikoki txukuna eta orekatua izanik ere, zuzenbide zibil lurraldetarren auzia bideratuta, baina ebatzteke utzi zuen. Bada, arau zibil propioak desemateko saioak huts eginda, eta gehiegi luzatzen ari zen kode erkidea aprobatzearen urgentziak bultzatuta, transakzio batera heldu ziren Estatuko eta lurraldeetako ordezkariak. Ondorioz, Kodeak indarrean laga zituen «behin-behinean» zuzenbide lurraldetarrak, etorkizunean asimilatzeke asmoz: idatziz jasoko ziren Kodearen atxiki moduan eta haren nagusigoari men eginez. Atxiki horiek erdiesteko, baina, beste 70 urte behar izan ziren, eta oraindik orain itxi gabeko prozesu historikoa dela aipatu izan da.

Zuzenbide lurraldetarren XX. mendeko kodifikazioak izan zituen ezauzgarriak laburbiltze aldera, esan daiteke euskal foruak jasotzeko planteamenduari dagokionez, bi eredu egon zirela. Horietako bat Eusko Ikaskuntzak 1918ko Kongresuan eta gerora ere egindako ahaleginek adierazten dute, zeinak 1936ko Estatutuan izan baitzuten beren isla. Bonifacio de Etxegarairen *Derecho Foral Privado* obran eta Jesús de Galíndezek Eusko Ikaskuntzaren 1942ko Kongresuan aurkeztu zuen *Euskal Foru Zibilari buruzko proiektu artikulatua* dira mugimendu horren lekuko nagusiak, Euskal Zuzenbide bateratuaren aldeko interesa piztu zutenak. Jakinaenez, erregimen frankistak kolpez eten zuen lau probintziak bateratuko zituen Errepublikaren bide autonomiazalea. Aurreko mendetik zetorren bigarren bide bati lotu zitzaizkion orduan Ministro tradizionalisten babespean egindako zuzenbide zibil lurraldetarren konpilazioak. Kode Zibilaren ordenamendu dependente eta murriztuak, gorputz jarraitzaileak izanik, Kode nagusiarekiko menekotasun hori hainbat mailatan antzematen da: egiturari, aukeratutako eta baztertutako erakundeetan, soluzio juridikoetan, eta, Bizkaia eta Arabako konpilazioen kasuan, arauak berritzeko iturri propioak ukatzean (konpilazioak onartzeko eta aldatzeko Estatuko parlamentura jo behar baitzen). Konpilazioen bitartez, bestalde, Erdi Arotik zetozen arau-gorputzak jasotzeko orduan hauturik kontserbadore eta historia zaleena egin zen. Gregorio Monrealek aipatuko duen moduan, foru zuzenbideen proiektuak aurrera egiteko aukera politikoa horrelakoa izan baitzen: Estatuaren aldetik, diktadura garaiko Ministro tradizionalistek bat egin zuten Foru lurraldeetako indar kontserbadoreekin. Alde bietatik historizismo militante batetik abiatuz, adostasun batera heldu zirelarik konpilazioak kontserbadore izan zitezten.

Konpilazioen onarpenak areagotu egin zituen Hegoaldeko euskal ordenamendu zibilen arteko aldeak. Izan ere, Bizkaiko foruaren berezko mugak, Gaztelako ordenamendu juridikoaren azpisistema izatetik zetozenak, azpimarratu egin zituen Konpilazioak, jasotako erakundeak murriztuz eta iturriak agortuz. Nafarroako Konpilazioa, berriz, Erreinu baten antolamendu juridikotik eratorria izanik, arau sistema zibil osotua zen jatorriz, eta horri gehitu zitzaion gainera, garaiko Erregimenarekiko gertutasunak emandako pribilegioaren ondorioz, Nafarroan bertan onartu eta Kodifikazio Batzordeak eskuilatu gabeko gorputza izan zela Konpilazioa.

1978ko Konstituzioak, Errepublika garaikoak ez bezala, Konpilazio horietara giltzatu zuen etorkizuneko zuzenbide zibilararen garapena. Estatuko lege ziren arau-gorputz horien berriztapenetik abiatu behar zuen Erkidego Autonomo sortu berrien eskumen zibilak.

Alabaina, aurrekariak jarraituz –Bizkaia-Arabako Konpilazio murriztua eta Nafarroako Konpilazio oparoa–, gerora izan duten bilakaera ez da izan espero zitekeena. Bizkaiko foruak, bere urritasunetik indarrak atera ditu eta Gipuzkoako ohituraren idazketarekin bat eginez, Erkidego Autonomo osorako lege berriztatua indarrean jartzea lortu da 2015. urtean. Aldiz, Nafarroako foruak, bere horretan jarraitzen du, benetako kode oso izanik, 1973an eman zitzaion taxuketa kontserbadore eta historizista berean, gaurko Nafarroako gizartearen beharretatik urrutiraturik.

Gregorio Monrealek bere lanean erakusten du euskal foru-zuzenbide publikoaren eta pribatuaren ibilbide eta esperientzien arteko desberdintasun nabarmena. Euskal Herriko zuzenbide publikoa landu izan dutenek aspalditik lerratu dute beren diskurtsoa Euskal Herriaren ikuspegi kulturalarekin. Iuspublizista ugari egon zen foruak suntsitu aurretik eta baita gero ere, Euskal Herri osoko zuzenbide publikoaren batasuna aldarrikatu zuena –esanguratsua da, eskuarki, euskal nazionalismoaren idearioa garatu baino lehen Marichalar eta Manrique abokatu madrildarrak izan zirela, 1858an, lau probintzien foru publikoei buruzko obraren egile, eta aldi berean 1861an autore horiek ez dute euskal foruen arteko anaitasunik ikusten beren *Historia de la Legislación y Recitaciones del Derecho Civil de España*-n, non arau gorputz desberdintzat zituzten Nafarroakoa eta Bizkaikoa, nahiz eta ordurako Le Playk publikaturik zuen 1856an bere Pirinioko zuzenbide-familiari buruzko obra sonatua–.

Canovasek eraitsitako autogobernuaren aldeko borrokan buru belarri ari zen klase politikoarentzat, dio Gregorio Monrealek, zuzenbide pribatua bigarren mailako arazo izan zen. Foruen abolizio legearen ondorengo hamarkadan, Espainia mailako 1889ko Kode Zibila erdietsi ondoren, Madrilgo gobernuak ez zuen interesik erakutsi –Durán i Basek bultzatutako ekimen bakanak salbue-

tsirik– foruak jaso eta eguneratzeko. Zuzenbide pribatua egunerokotasunari loturiko fenomeno apolitiko gisara begitantzen zuen askok, erakunde publikoek zuten prestigiorik gabea. Foru zuzenbidearen kultibatzaileek, bestalde, gutxietsi egiten zuten erakunde pribatu propioen balioa Gaztelako doktrinaren eta Kode Zibilaren modernotasunaren aurrean.

Monreal irakasleak gogorarazten duenez, XIX mendearen bigarren erdialdetik aurrera eta hurrengo gizaldiaren erdialde-arte, Euskal Herriko unibertsitate orokorrik ezean, zuzenbidearen praktikoak izan ziren foru zuzenbide zibilaren lanketa egin zutenak. Kode Zibila irakasten zen unibertsitateetan –Salamanca, Valladoliden– ikasketak egindakoak, gehienetan pentsaera tradizionalistadunak eta Euskal Herriaren dimentsio kultural eta politikoa arrotasunez ikusten zutenak. Azken buruan, Bizkaia eta Nafarroaren arteko zuzenbide publikoaren arteko komunikazioa eta haien defentsarako lurralde bien arteko solidaritatea egon izanagatik ere, ez zen gauza bera gertatu zuzenbide pribatuari zegokionean. Nafarroak eta Bizkaiak bizkar eman zioten elkarri. Bizkaiko Zuzenbidea ongi ezagutzen zuen Allende Salazar nafarraren gisako salbuespenak salbuespen, ius-pribatistek ez zuten beren zuzenbide lurraldetarra besterik lantzen.

Foru zuzenbidearen lanketa hori ikuspegi mugatuarekin egin ohi zen, bestalde. Kode Zibilaren etorrerarekin galtzeko arriskuan zeuden erakundeak gordetzea zen helburua. Kontserbazioa zen, azken finean, garai hartako Estatuak eta Gorteek eraman ahal zuten gauza bakarra. Anbizio falta horrek zinez lastatu zituen foru zuzenbideen batzorde bereziak: Kode Zibilari atxiki beharreko erakunde bakanak hautatzera jarri zituztenak, Kodearen egiturari meneratuak, berrikuntzarik egitea debekatua zutenak. Ezina zen XIX. mendeko garai haietan Hego Euskal Herriko sistemen arteko hurbilketarik saiatzea.

Hurrengo mendearen 30.eko hamarkadan, nazionalismoaren garapenak eta euskaltzaletasun kulturalaren gorakadak Euskal Foru Zuzenbidearen ideia ernetzen dute. Eusko Ikaskuntzaren abaroan eta 1931ko Lizarrako Estatuak barne-biltzen zituen lau probintzien egitura politikoan, ordenamendu zibil bateratua proiektatzen da. Ekimenok errotik isilaraziko ditu Diktadurak, nahiz eta, aipatu dugunez, esanguratsua den Francok Justizia Ministro tradizionalisten esku utzi izana foru zuzenbideen auzia. Iturmendi eta Oriolek zuzenbide lurraldetarren konpilazioa bultzatu zuten, Bizkaia izanik bere zuzenbide zibila konpilaturik ikusteko zalantzazko ohorea izan zuen lehen probintzia. Hiru hamarkada behar izango zituen oraindik Nafarroako Foru konpilazioak plazaratzeko, zeina jurista adituen batzorde pribatu baten esku utzi zen, inolako presarik gabe.

Trantsizioak ez zuen hartatik, begi bistakoa denez, Euskal Foru zuzenbideen hurbilketarik ekarri. Indarrean den Konstituzioarekin ez ziren planteamen-
duak aldatu. Lizarrako Estatutuaren Euskal Zuzenbide Zibilaren ideari baldintza

bi falta izan zaizkio gauzatu ahal izateko: batetik, euskal lurraldeetako erakunde zibilen arteko azterketa konparaturik eza, jakina baita zuzenbidearen kodifikazioak, Alkortak bere lanean aditzera ematen duen moduan, aurretiazko doktrina-lan sakona eta zaindua eskatzen duela; eta, bestetik, Euskal Herri osorako proiektu politiko eza –1931 eta 1932ko Estatutuen parentesia salbuetsirik–.

Gregorio Monrealek ondorioztatzen du XX. mendean, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilarren gaineko interesa unean uneko egoera politikoari loturik egon dela. Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Kongresuan gauzatu zen erakundeen arteko gertutasunarekin bat hauspoa jaso zuen, harik eta Lizarrako Estatutu proiektuan Euskal Herriaren aitortzarekin, Euskal Foru Zuzenbidearen proiektuak bere fruituak eman zituen arte. Aldiz, 1931ko zein 1932ko Estatuek huts egiten dutenean; lau probintziak artikulatzeko aukerak galtzen direnean, alegia, haiekin batera eraisten da ere Euskal Zuzenbidearen ideia, eta probintzialismora itzultzen da garaiko erakundeen ikuskera, Bilboko Abokatu Kolegioaren 1928ko Eranskin proposamenak argi erakusten duen moduan.

Josu Osés, Euskal Legebiltzarreko letratuak molde zorrotzean laburbiltzen du Euskal Zuzenbide Zibilarren 5/2015 Legearen *iter* parlamentarioa, eta aurretik, Bizkaia eta Arabaren Konpilazioak izandako trataera. Izan ere, 6/1988ko Legeak ekarri zituen aldaketa puntualak egin ostean –Konstituzioaren printzipioetara jarri beharra baitzeuden emakume ezkonduaren eskubideak eta seme-alaben oinordekotzari buruzkoak–, Bizkaia eta Arabako Aldundiak eguneratze sakonago bat begitانتzen zuten, eta bakoitzak bere proposamena bidali zuten Parlamentura.

Legebiltzarrak testu bateratu bat bultzatu zuen 1992an onartu zena. Adrian Celayak idatzitako legearen zioen azalpenean argiro adierazten dira lege berriak zekartzan berrikuntzak. Lehen aldiz aitortzen da legean Gipuzkoako ohi-turazko zuzenbidea, probintziaren tradizio zibil sendoak hainbatetan aldarriak eginagatik ere, ordura arte bazterturik egondakoa. Legeak, edonola ere, behin behinekotasuna islatzen zuen, Erkidego osorako zuzenbideari bideak ireki behar zitzaizkiola esaten zen, doktrina zientifikoak erakundeen ikerketa eta printzipio komunaren formulazioa paratzen zuen artean, nahiz eta etorkizunean ere lurraldeen arteko desberdintasunak gordeko zirela gaztigatzen zen. Erreforma ontzat eman zuen Estatuko Kontseiluak, probintziaz gairako zabalkunderako hautua Konstituzioarekin bat zetorrela berretsiz.

Legearen 147. artikulua irekitako aukera baliatuz, Gipuzkoako Aldundiak lege proposamena egin zuen. Proposamena 3/1999ko Lege bihurtu zen, baserriaren oinordetzari buruzko eraentza zuelarik gai nagusi.

Aipaturiko lege biek, 1992 eta 1999koak, aitortzen zuten eremu autonomikora zabaltzeko asmoa, nahiz eta lurralde bakoitzeko berezitasunak kontuan

hartuko zirela esaten zen. Bien bitartean, UPV/EHUko Zuzenbide Zibil Sailak bere ikerketa lanak zabaldu zituen, foru zuzenbidearen gaineko doktorego tesi, monografia eta artikuluz hornitutako ekoizpen zientifiko oparoa aurkeztu ahal zuelarik. Bizkaian lanek aurrera jarraitu zuten, nagusiki, Zuzenbidearen Euskal Akademiatik eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak bultzaturik. Horiek horrela, 2007an lege proiektua aurkeztu zen. Hurrengo urteko udaberrian Legebiltzarreko Justizia Batzordeak adituak deitu zituen agerraldietara beren ikuspuntua azal zezaten. Edonola, proiektua, ez aurrera ez atzera, VIII legegintzaldiarekin bat galdu zen. Hurrengo etapen beste bide bat urratzen da: 2013ko otsailean Euskal Sozialisten taldearen lege proposamena aurkezten da Gasteizko Legebiltzarrean. Legebiltzarreko Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordeak hartzen du bere gain prozedura, eta ponentziak aditu batzuk entzun ondoren, ordura arteko geldotasuna hautsiz, abiada bizian tramitatzen da proposamena, parlamentuko letratuak gidatzen duen bide-orriari jarraiki: Eusko Jaurlaritzak aldeko diktamena egin zuen eta, ondoren, Parlamentuak aztertu eta Plenora eraman zen. Testua aho batez onartu zen ehBilduren abstentzioarekin.

Eusko Legebiltzarreko 5/2015 Legeak askotariko iritzia jaso ditu. Erronka nagusia foru zuzenbidearen eremua zabaltzea izanik, auzotasun zibila bihurtzen da lege berriaren printzipio egituratzaile. **José Miguel Gorostiza** abokatu eta Zuzenbidearen Euskal Akademiaren kideak, hizpide dugun 5/2015 legean jasotako printzipio orokorren garrantzia azpimarratzen du bere hitzaldian, horiek baitira Euskal Zuzenbide Zibilararen informaziorako, interpretaziorako eta integraziorako oinarritzko tresnak.

Legegileak ez du nahi exosistema juridikoen irizpide eta printzipioek gure sistema propioa desitxuratzea. Hori dela eta, beren beregi aipatzen ditu Euskal Zuzenbide Zibilararen indargune edo printzipio orokor nagusiak, hala nola: askatasun zibilararen printzipioa, elkartasun printzipioa, jabetzaren funtzio sozialaren printzipioa edota berezko hizkuntzaren errespetuaren printzipioa.

Printzipio hauek, Gorostizak gogorarazten digunez, ordenamendu juridikoa informatzen dute eta zentzua ematen diote lege zein ohiturei, zeinak printzipio horietan baitute jatorria eta helburua. Legeen interpretazio zein integrazioa zuzena izateko printzipio horietan oinarriturik egon behar da. Hartara, printzipio hauek bihurtzen dira Zuzenbidearen lehen iturri, legea bera printzipio horietatik sortzen delako.

Legeak jasotako printzipio orokorrak familia eta ondarearen eredu historiko zehatz baten isla eta omenaldia izanagatik ere, gaur egun aldaketa eta egokitze prozesu sakon batean sartuta dagoen eredu izanik, errealitate sozial berriei moldatzeko ahalegina egin da. Badira ordea, egokitzeari buruz ari garela, Gorostizak nabarmendutako zailtasunak. Esate baterako, borondate askearen eta

harreman juridiko pribatuen auto-erregulazioaren praktika kolektiboaren aldeko adierazpena modu guttiz formalean jasotzen da Legean, eta talka egiten du tronkalitatea eta senipartea dela eta ezartzen diren besterentzeko askatasunaren kontra. Kontraesana leuntzeko azpimarratu behar dira oinordetza-erakundearen egin diren erreformak, tronkalitatearen aplikazioaren eragina gutxitzen dutenak, orobat, seniparteko kolektiboari esker, lehen ezinbesteko ziren oinordekoak baztertzeke edo beren zatia gutxitzeke aukera.

Bigarren printzipio orokor bat azpimarratzen du, ondoren, Gorostizak, jabetzaren esangura kolektiboarena, hain zuzen. Legeak, dio hark, Euskal lurraldeetan eman den jabetzaren interpretazio propioaren gaur egungo adierazpena egiten du, jatorria duena ohitura eta usadio tradizionaletan. Adierazpen horretan, interes kolektibo, sozial zein familiakoak lehenesten dira partikularren eta giza-banakoen jabetzaren eta interesen aurrean. Legearentzat, familiak zein jabetzak zeregin sozial zein ekonomikoa betetzen jarraitzen dute gaur egun, eta horiek babesten dira legearen printzipio hori ezarrita.

Mikel Karrera, UPV/EHUko zuzenbide zibileko irakasleak Nafarroako eta Euskal Erkidego Autonomoko jabetzaren eraentzari buruzko azterketa konparatua egiten du. Zuzenbide pribatu oro, dio Karrera, lurraldeari lotutako sistema juridikoa da jatorrian. Indarrean baina akiturik iritsi zaigun euskal foru-zuzenbide zibilak ere lotura horren lekukotza ematen du, hain zuzen ere, haren oinarrian sustraiturik baitaude, oraindik jabetzaren kontzepzioa eta esanahia, ondasun eta baliabide naturalen erabilera, eta famili ondarearen garrantzia. Erakunde bakoitzaren historian sartu gabe, egungo nekazaritza nahiz baserri-eremuari begirako eraentzaren deskribapen orokorra ematen digu Karrera ikuspegi konparatua erabiliz. Aurretik Gorostizak azpimarratu legez, deskribapen hori egiteko funtsezkoenetik abiatu behar da, dio Karrera, erakunde juridikoen oinarrian dauden zuzenbidearen printzipio orokorretatik, alegia.

Bigarrenik, jarraibide komun batzuk ematen ditu Karrera irakasleak Euskal Zuzenbidearen nekazaritza eremuaren araubidea zuzentzeko. Lehenik, objektuari buruz, nekazaritza eremuaz arduratu eta aprobetxatzeko dauden egiturak (ustiategiak, baserriak) berregituratu behar direla dio. Maila horretan, jabeei (baserritarrei) lagundu nahi bazaie erakunde publikoetatik, jadanik nekazal-politikari buruzko legean aurreikusita dauden laguntza publikoak abian jarri behar dira: kontzentrazio partzelarioa, hasteko eta modu urgentean; gero ustiategiak elkartzeko bideak irekitzeko, eta elkartuak babesteko. Horrela, jabetza-eskubidearen objektu diren tresna bideragarriak bultzatuko lirateke. Ondoren, subjektuari dagokionez, baserritarraz fidatzea apustu segurua da, bermatzen du Karrera, harrotasunez erakusten dugun euskal paisaiak frogatzen duenez. Horretaz aparte, erantzukizuna eman behar zaio baserritarrari; hau da, egiten duen lanean sinistu eta, askatasun zibila gauzatzuz, bere ustiapenean erabakiak hartzeko era-

bateko autonomia sustatu behar da. Beraz, Karreraren ustetan laguntza publikoak jabetza pribatua indartzera eta ez eragoztera zuzendu behar du.

Leire Imaz, UPV/EHUko Zuzenbide Zibileko irakaslearen artikulu abertsua Hegoaldeko euskal lurraldeen oinordetza sistemek duten enbor beraren adarrak aztertu eta elkarren artean alderatzen saiatuko da. Alderaketari ekin aurretik, ordea, foru-zuzenbide edo zuzenbide zibil kontzeptuen arteko gatazkaren aurrean posizioa hartzen du Leire Imazek. Gogorazten digu Batzar Nagusietan onartzen ziren foruek autonomia erkidegoko legebiltzarrak aldarrikatzen dituen lege lerruneko arauei ireki dietela bidea. Garaiak aldatu egin dira. Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan, *zuzenbide autonomiko* bat dago, estatuak lagatzen dizkion eskuduntzetatik eratorria eta erkidegoak berak sortua bere legebiltzarraren ekimena dela medio. Zuzenbide autonomiko horren barne, *zuzenbide zibila* dago, beste arlo batzuekin batera. Zuzenbide zibilaren eremuko lege-testuek ez dute, beraz, eskumen-oinarria, halabeharrez, Espainiako Konstituzioaren (EK) 149.1.8. artikuluan zertan eduki. Beste eskumen-eremu batzuetatik eratorriak izan daitezke, eta, zuzenbide zibil autonomikoa osatzen duten heinean –ez foru-zuzenbidea, ezta zuzenbide berezia ere–, kasazioan Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ezagutu beharko lituzke. Beharrezkoa da, oso, EKren 149.1.8. artikulua apropos marrazten duen foru-zuzenbidearen esparru mugatuaren orde zuzenbide zibil autonomikoa ezartzea eta, behingoz, Espainiako Konstituzio Auzitegiak emandako 88/93 epaia zalantzan jartzea eta, noski, hartatik harago jotzea, Kataluniak Autonomia Estatutuaren 129. artikuluen tankerara. Ordenamendu juridikoen pluraltasunak dakarren aberastasuna errespetatuz eta sustatuz.

Oinordetza zuzenbideari gagozkiola, dio jarraian Leire Imazek, Euskal Herria hiru esparru juridiko-politiko desberdinetan zatikatua egoteak –Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparralde– lurralde guztirako euskal oinordetza zuzenbide sistema bakarra izatea eragotzi egiten du, aipatutako lurraldeetariko bakoitzak besteengandik, *mortis causa* oinordetzari dagokionean ere, urrundu egiten diren ordenamendu juridikoak dituztelako. Hala ere, euskal oinordetza «azpisistemak» historikoki *Zuzenbide pirenaikoa* izenekoaren baitan kokatu direla azpimarratu beharra dago; latindar ereduetatik urrunduz, arbasoen ondarearen belaunaldiz belaunaldiko eta zatitu gabeko eskualdatzea eta norbanakoaz gaindiko interesen babesa ardatz nagusitzat hartzen dituena.

Erdi Arotik, euskal esparruko lege testuak, gizaldietan zehar, euskal gizartearen eskabide garrantzitsuari irtenbide kohesionatu eta osokoa eman diote: familiaren ondarearen zatiezintasunari, eta horren mende izan da ondare horren gainean ezarritako etxaldearen iraunarazpenari, alegia. Familia-gunera, XX. mendea igaro arte, ekoizpen eta kontsumorako unitate bezala azaltzen zaigu:

lurra eta beroni atxikitako elementuak dira bertan bizi den sendiaren ekonomia oinarria. Familia-ustiaketaren zatiezintasuna eta osotasuna, horretara, etxekotaldearen iraupenerako ezinbesteko berme bihurtzen da, oinordeko bakarreko sistemaren argitan jabea den pertsonarengan sortzen den mailaz mailako subrogazioaren ondorioz etxea eta ustiaketa osorik mantentzea lortuz. Hainbat gizalditan zehar euskaldunen gizarte eta banakako harremanetan kristau-moralaren geroago eta gehiagoko ezarpen nabarmenak, gainera, familia eredu bikain bezala gizonaren eta emakumearen arteko ezkontza sustatzea dakar: etxe bi euren kideetako ezkontza bitartez bateratze-helburua duten sendi-arteño hitzarmenak eta itunak ugaritu besterik ez dira egiten, jabegoaren, familiaren eta oinordetzaren arteko barne-lotura nabarmena agertuz. Edonola ere, gogorarazten digu Imazek, Euskal lurraldean indarrean dauden oinordetza ordenamenduetara etorriz, EAEkoa eta Nafarroakoa Autonomia-ordenamendu biek euren zuzenbide zibil propioaren garapenean aurrera urratsik egin dute oinordetza mailan ere ezkontideak bikote egonkorren edo izatezkoen maila berean jartzen ahalegintzen diren lege testu bi argitaratuz: Nafarroan, ezkontide egonkorren berdintasun juridikorako uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legea eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan, izatezko bikoteak arautzen dituzten maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak ditugu. Aipatutako bi testu horiek bikote egonkorren egoera Euskal Zuzenbide zibilari buruzko 5/2015 Legeak eta Nafarroako Foru Berriak ezkontide alargunarekiko aurreikusitakoarekin berdintzen dute, eta esandako horretaz gainera, 2003ko Legeak, zerrendatze zorrotza izateko asmorik ez duela, bikotekide direnek ermandadeko testamentua batera egin ahal izatearen aukera biltzen du, edo, hala balegokio, komisario-bidezko bata bestearikiko izendapenaren aukera ematen du.

Segidan, hegoaldeko bi euskal lurraldeek eskaintzen dituzten oinordetza sistemak deskribatzen ditu Imazek, euren arteko eremu komunak nabarmenduz. Ondorio moduan, azpimarratzen du, lehenik, legezko oinordetza bietan tronkaltate printzipioak bizirik dirauela, Bizkaian derrigorrezko oinordetzari dagokion araudiaren parte ere izanik. Gainera senipartea formala izateak (Nafarroan eta Aiaran) edota materiala, laburra eta kolektiboa (EAEEn), ahalbidetzen du, berriz ere, oinordeko bakarraren sistema eta, hala, familia ondareak familia barruan irautea. Kausatzaileek bere oinordetza diseinatzeko eskura ditzuen tresnen aniztasunak eta erregimenak egoera ezberdinei egokitzeko euren malgutasuna eta egokitasuna adierazten du, bestalde.

Bigarrenik, senipartean ezberdintasun gehiago egon daitekeela nabarmentzen du Imazek baina erreforma guztiak bide beretik datozela nabartuz: ezkontidearen posizio juridikoa indartzea, ondorengoen senipartea murriztea eta aurreko ahaideak senipartedun gisa baztertzea. Bestalde, oinordetza antolatzeo tresnei dagokionez, aniztasuna ageri dute ordenamendu autonomiko hauek ere.

Azkenik, Leire Imazen ustez, Espainiako Kode zibilak baino erregulazio malguagoa eta egokiagoa dute gure ordenamenduek. Etorbizuna dute, gizartearen beharrietara egokitzen diren heinean. Oraindik ere tronkalitateari buelta bat eman behar zaio; ondasunen foru-komunikazioari eta, oro har, Erdi Aroko landa gizarte bati lar lotuak dauden instituzioei, alegia. Baina argi dago gure ordenamenduak Europar finkatzen diren ildotik doazela eta, oinordetzari dago-kionez, asebetetzen dituztela biztanleriaren beharrak.

Nafarroako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko irakasle den **Unai Belintxonek** europar zuzenbide pribatuak bizitako garapenari so egiten dio bere lanean, eta azpimarratzen du bilakaera horrek Nafarroako Foru Zuzenbidearen arau garapenean izan beharreko isla, egungo gure gizartearen beharrei egokituriko erantzun bat diseinatu eta lege aplikagarri tekniko eta moderno bat zehazte aldera.

Belintxonek dio Espainiar sistemako eskualde-arteko zuzenbideak berri-tze sakon bat behar duela. Zuzenena lege aplikagarria zehaztuko duen eskualde-arteko zuzenbidearen inguruko arau bat behar da, beti ere, Europar Batasunak sustatzen duen aurreikuspen eta segurtasun juridikoaren irizpideekin bat egiten duen legea izanik. Edonola ere, Europako araudia harmonizatuari begira, zalantza sortzen da familia zuzenbidea bezalako gaietan arautzeak Estatu kideen subiranotasuna errespetatzen ote duen, eta horrek ohitura eta erakunde juridikoen galera dakarren ala ez.

Zalantza horren aurrean, dio Belintxonek, bateratze handiagoa sustatzeko aurki daitezkeen interes ezberdinen arteko oreka egoki bat lortu beharra legoke. Are gehiago, Europar Batasuneko integrazio politiko, ekonomiko, sozial eta juridikoa sustatzen duen bateratze materiala bermatu beharra dago, baina, aldi berean, Autonomia Erkidegoen forudunen egoera juridiko-pribatu guztiak kontuan hartu behar dira. Egoera oro kontuan izatearen arrazoia egun ditugun europar ordenamendu pribatu ezberdinen arautegiaren aniztasuna bermatzea da, era honetan, Nafarroako ordenamendu zibilaren garapena ahalbidetu eta babestuz.

Bilduma isteko, **Roldán Jimeno**, Nafarroako Unibertsitateko Zuzenbidearen Historiako irakasleak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako ezkontza eta izatezko bikoteen araudia du aztergai. Baieztapen faktiko batetik hasten du bere gogoeta Jimeno irakasleak, haren ustez, EAEk bere foru zuzenbide zibila pragmatismotik eguneratzen jakin duen bitartean, Nafarroako Foru Erkidegoak pairatzen duen egoera Euskal Autonomia Erkidegoak bizi duenaren erabat ezberdina da. Nafarroako Foru Berriaren bereizgarriak tradizionalismoa eta historizismoa dira, eta horiek ez dute lekuri XXI. mendean; izan ere, garapen praktikorik ez duten industria aurreko gizarteko ezkontzaren ondasun-erantzako ezarpen ugari ditu. Zaharkitze hori denuntziatzen ari da doktrina juri-

dikoa azken urteetan, baita zalantzazko konstituzionaltasuneko hainbat agindu ere, izatezko bikoteei buruzko Legea kasu, zeina presaz egin zen, eta horrek kontraste handia egiten du Euskal Autonomia Erkidegoan arauketa egin zutenen zorrotzasunarekin.

Aurrekari horiek kontuan, Roldán Jimenok xeheki aztertzen du bere lanean ezkontzaren ondasun-eraentza konparatua, foru-komunikazioa, ezkontza-itunak, propter nuptias dohaintzak, konkisten sozietatea, komunitate unibertsaleko sozietatea eta ondasun banaketa eraentza motak jarraian aztertuz. Ondoren izatezko bikoteen araudia hartzen du aztergai, dela Nafarroako araudian dela EAEn, bien arteko aldeak nabarmenduz.

ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ

**EUSKAL ZUZENBIDE ZIBIL KONPARATUARI
BURUZKO AZTERKETAK, 2016**

Kodifikazioaren eragina Euskal Zuzenbide Zibilen konpilazioetan

Itziar Alkorta Idiakez

Aurkibidea

I. SARRERA. II. KODETZE-MUGIMENDUAREN OINARRIAK. III. FRANTZIAKO, ALEMANIAKO ETA SUITZAKO KODE ZIBILAK. 1. Napoleon Kodea. 2. Alemaniako BGB eta Suitzako ZGB. IV. ESPAINIAKO KODIFIKAZIO ZIBILAREN ETAPAK ETA BERTAN EUSKAL FORU ZUZENBIDE EK HARTZEN DUTEN LEKUA. 1. Kodifikazio mugimenduaren garaian euskal zuzenbideen egoera. 2. Kode-proiektu bateratzaileak: 1821, 1836 eta 1851ko García Goyenarena. 3. Lege berezi bateratzaileak (1854-1875). 4. Kodifikazio Batzorde Orokorra, Kodearen Oinarri Lege-proiektuak (1875-1880). 5. 1880ko Álvarez Bugallalen Dekretua eta Foru Lurraldeetako Memoriak. 6. Bizkaiko Zuzenbideari buruzko Txostena. 7. Nafarroako Txostena. 8. Kode Zibilaren Oinarri Legea eta Kode Zibilaren 1888ko eta 1889ko publikazioak. V. ESPAINIAKO KODE ZIBILAREN EGITURA ETA EDUKIAK. VI. KODE ZIBILA INDARRERATZEAK FORU ZUZENBIDE ETAN IZAN ZUEN ERAGINA. VII. EUSKAL ZUZENBIDEA KODEAREN ERANSKINETAN JASOTZEKO SAIOAK. 1. 1889ko lehen Eranskin sistema: Nafarroako eta Bizkaiko Abokatu Kolegioen proiektuak. Aragoiko Batzorde bereziaren proiektua. 2. Durán i Basen 1899ko bigarren Eranskin sistema: Bizkaiko eta Arabako Kodifikazio Batzordearen proiektua, eta Nafarroako Batzorde bereziaren Eranskin proiektua. 3. Eusko Ikaskuntzaren Euskal Zuzenbide Zibilaren aldarria, 1931ko Errepublikako Konstituzioak eta Euskal Estatutuak irekitako bidea. 4. Zaragozako Kongresua eta Konpilazioak egiteko 1947ko Dekretua. VIII. 1959KO BIZKAIA ETA ARABAKO ZUZENBIDE ZIBIL FORALAREN KONPILAZIOA. IX. 1973KO NAFARROAKO ZUZENBIDE ZIBIL FORALAREN KONPILAZIOA. X. ONDORIOAK. XI. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Jardunaldi hauetan Euskal Zuzenbide Zibilen egungo egoera eta etorkizuna aztergai dugularik, egokitu zait Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioaren 1/1973 Legearen eta, indarrean dagoen Euskal Zuzenbide Zibilari

buruzko 5/2015 Legearen aurrekari den Bizkaia eta Arabako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazioaren 32/1959 Legearen bilakaera historikoa azaltzea.

Euskal Zuzenbide Zibila, edo Euskal Zuzenbide Zibilak, nahiago bada, **ordenamendu historikoak** dira. Izaera hori aitortzen diete, Hegoaldean, Euskal Erkidego Autonomoko (EAE) zein Nafarroako araei Espainiako Konstituzioak, EAEko Estatutuak eta Nafarroako Amejoramentuak, eta, baita, zeharka bada ere, 1889ko Espainiako Kode Zibilak. Iparraldean, aitzitik, 1958ko V Errepublikaren Konstituzioak ez du horrelako aitortzarik egiten; izan ere, Napoleonen Kode Zibilak albo batera utzi baitzuen Iparraldeko ohituren kodifikazioa.

Euskal Zuzenbide Zibilen historikotasunaren erroak sakonak dira. Nafarroako ohituretan zuzenbide erromatarraren eta zuzenbide kanonikoaren harrerak garrantzia izan bazuen, Bizkaia, Gipuzkoa eta Aiarako Foruetan aldiz, ez da eragin hori hainbeste nabari. Denboran atzerago eginez, historikotasun horren sakonagoko geruza nagusi bati erreparatzerakoan, Perineotako herrien ohiturazko zuzenbide-multzoa aurkituko genuke. Perineotako mendi-herrien ezaugarri sozioekonomikoak antzekoak ziren neurrian, beren zuzenbideek ere hainbat ezaugarri partekatzen zituzten; denek ere etxaldearen eta lurraren jabe-goa oinarritzko erakunde moduan ikusten zituztelarik. Bada, Euskal Zuzenbidea, Perineotako zuzenbidearen familia handiaren barruan azpimultzo bat dela esan dezakegu.

Euskal zuzenbide historikoen bilakaera modernoan, aldiz, Euskal lurraldeek ibilbide berezitua jarraitu zuten, non eta Nafarroa, Lapurdi, Zuberoa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ohiturak jasotzen direnean, enbor beretik datozen adarrak izanik ere, bakoitzak bere berezitasunak gordetzen baitituen¹. Erdi-Aroan eta Aro Modernoan Euskal Zuzenbideen taxuketan bi unek izan zuten eragin nabarmena. Biak ere Europa mailan gertatutako zibilizazio-egitate handiei lotutakoak: lehena, XV eta XVI. mendeetan, ohiturazko ordenamendu horiek lehen aldiz idatziz jaso zirenean, ohitura frogatzeko bide errazagoen bila eta errege zuzenbidearen erasoaren aurrean; eta bigarren une garrantzitsu bat, zuzenbideko iturri handien kodetze edo kodifikazioa, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar zabaldu zena, zeinak Europan bi erreferente nagusi izan baitzituen: Frantziako 1804ko Napoleon Kodea eta Alemanian 1900. urtean indarreratu zen *Bürgerliches Gesetz Buch* (BGB).

Aipatu erreferente nagusi bi horien abaroan, kodetze mugimendua desafioa izan zen euskal zuzenbide historikoentzako. Kodea egitearen ideiak, ordenamenduaren batasunaren eta berdintasunaren izenean, zuzenbide lurraldetarren

¹ CELAYA IBARRA, A., El Derecho vasco en el ámbito del Derecho europeo, *Selección de Estudios Jurídicos*, Bilbo: Universidad de Deusto, 1999, 244 or.

asimilazioa baitzekarren. Eragin hori desberdina izan zen, ordea, Euskal Herri kontinentalean eta Hegoaldeko lurralde historikoetan. Frantzian, Napoleonek guztiz baztertu zituen euskal ohiturak eta Zuzenbide idatzia.

Espainian aldiz, zuzenbide historikoek aurkitu zuten nolabait bizirauteko aukera: 1889an Kode Zibila indarreratzeaz geroztik zuzenbide lurraldetarren kodetze prozesuak irekita jarraitu zuen, non eta biziraun zuten zuzenbide historiko lurraldetarrak, oraindik orain, beren kodetze-prozesu propioa erdieste bidean baitaude².

Europa mailako kodetze mugimenduak Euskal Zuzenbide historikoetan izan zuen eragina aztergai, hiru zati edo ataletan banatu dugu gure lana. Lehenik, nazioarteko kodetze prozesuaren oinarriak eta bilakaera erreparatuko ditugu, Europako mugimendu historikoak izan zituen itsasargi nagusiak mintzagai izango ditugularik. Ondoren Espainiako Kode zibilaren eraikuntza aztertuko dugu, eta hura egiterakoan euskal zuzenbide lurraldetarrek jasan zuten trataera, eta bide batez, kodeak ordenamendu horietan izan zuen ondorioa deskribatuko dugu. Aski ezaguna den prozesua izanik ere, kontuan hartuko ditugu azken hamarkadan, Espainiako Kode Zibilaren ehungarren urteurrenaren kariaz eta Napoleon Kodearen berrehungarren urteurrena dela eta, kodetze prozesuaren ulerkeran doktrina juridikoak argitara emandako ideia berriak. Eta, azkenik, hirugarren atalean, saiatuko gara Espainiako Kode Zibila onartu ostean eta Nafarroako Konpilazioa onartu bitartean, foru zuzenbideen auziari eman zitzaion irtenbide korapilatsua aztertzen.

Erregimen politiko laidoztatu baten produktu izanagatik ere, konpilazioen gakoak ulertzea garrantzitsua da gaurko egoeraren aurrekari zuzena diren neurrian. Izan ere, 1978ko Konstituzioak men egiten dio aurretik jasotako egoerari, Konpilazio horietatik abiatzen baita Foru Zuzenbidea eguneratu eta garatu ahal izateko konpetentzia. Nafarroaren kasuan, 1973. urtean aldarrikaturiko testu bera dago oraindik indarrean, aldaketa gutxi batzuekin; alta, Bizkaia eta Arabako Foruak gehiago aldatu badira ere, hura berriztatzeko 1992 eta 20015eko legeak gertutik jarraitu zataizkie Konpilazioan jarritako oinarriei.

II. KODETZE-MUGIMENDUAREN OINARRIAK

Kodeak egunero erabiltzen ditugun juristak, eta zuzenbidearen aplikatzaileak oro bat, hain barneraturik dugu haien erabilera non ez garen konturatzen

² Ikus, 1978ko Konstituzioaz geroztik EAEko zuzenbidearen eguneratze-molde foral eta autonomikoaren arteko ereduaren talkari buruz, GIL RODRÍGUEZ, J., *Del Derecho Foral al Derecho Civil Vasco. Código versus Fueros*, GIL RODRÍGUEZ, J. (Zuz.) eta GALICIA AIZPURUA, G. (koord.), *Manual de Derecho Civil Vasco*, Barcelona: Atelier, 2016, 26 or. Baita, Nafarroako eta Bizkaiko Konpi-

horiek ere garai historiko baten produktu izan zirela³. Europa kontinentaleko Ilustrazio edo *Aufklärung* mugimenduaren ondorio edo ekoizkin nagusia izan zen, alta, Kodea⁴. Milurteko luzean zehar batutako uren azaleratze eta sorburu, arau-iturri berri horrek ureztatu zituen XIX. mendean zehar, eta baita harago ere, Europako eta Europaz kanpoko *Civil Law* tradiziodun herrialde gehientsuenak⁵.

Zuzenbidearen kodetze-teknika denbora luzez garatutako pentsamolde desberdinen arteko konfluentziak ekarri zuen. Zein izan ziren, bada, kodetze-mugimenduaren oinarriak?

Ilustrazioak landutako dogma sorta bat dago kodetze-mugimenduaren oinarrian. Dogma horiek jarri ziren zuzenbidea ordenatzeko, eta hein handi batean, zuzenbidea ulertzeko molde berriaren zerbitzura: Kodifikazioaren zerbitzura, alegia. Azpimarragarrienak izan ziren (a) zuzenbide berriaren xerka; (b) zuzenbide komunaren eta zuzenbide lurraldetarren arteko sintesia; (c) zuzenbidearen iturrien teoria eta kalifikazio juridikoaren teknika; (d) zuzenbidearen interpretaziozko eta prozedurazko arau bateratuak; eta (e) arauen irisgarritasuna eta berdintasuna. Kodetze mugimenduaren gakoak ulertze aldera, azter ditza-gun, labur bada ere, aipatutako bost ezaugarriak.

Ilustrazioak irudikatu zuen gizarte berria erdiesteko, zuzenbide berri bat sortu behar zela aldarrikatzen zuen. Zuzenbidearen berfundazioarekin batera, Estatu-nazioaren batasun politikoa jotzen zen zuzenbide berriaren baldintza nagusizat. Antzinako Erregimenetik jasotako lurraldeen zuzenbideek beren

lazioen eguneratze-ereduari buruz 1993an antolatutako jardunaldietan sorturiko eztabaida: El Sistema Jurídico vasco-navarro de Derecho Privado en la Actualidad, *Azpilicueta. Cuadernos de Sección de Derecho*, Eusko Ikaskuntza, 8 (I. Jornadas de Derecho Privado Vasco. Homenaje a Álvaro Navajas Laporte), 93-120 orr.

³ Kodifikazio mugimenduari buruzko atal orokor hau eta hurrengoa honoko eskuliburuetan oinarriturik daude nagusiki: COING, H. (arg.), *Handbuch der Quellen und Literatur der Neueren Europäischen Privatrechtsgeschichte. II Neuere Zeit (1500-1800)*, München, 1977; WIEACKER, F. *Storia del Diritto Privato*, Milan: Giuffrè, 1980; TOMÁS Y VALIENTE, F., *Códigos y constituciones, 1808-1978*, Madrid: Alianza Universidad, 1989; ROBINSON, FERGUS, G. *European Legal History*, London-Dublin-Edinburgh: Butterworths, 1994; TARELLO, G. *Cultura jurídica y Política del Derecho. Ideologías del siglo XVIII sobre la codificación y estructura de los códigos*, Comares, 2002; COLLECTIF PARIS II (arg.) *1804-2004 : Le Code civil, un passé un présent un avenir*, Paris: Dalloz, 2004; WIJFFELS, A. (arg.) *Le code civil entre ius commune et droit privé européen*, Bruxelles: Bruylant, 2005.

⁴ CARBONNIER, J., *op. cit.*, 1045 or.

⁵ *Common Law*-ko lege tradizioak ez zuen Kodetze mugimendua ezagutu; ez eta XVIII. mendeko Eskoziak ere. Ilustrazioaren pentsamentuaren jatorri seinalatuenetakoa izan bazen ere, Grocio-ren Zuzenbide Naturalean eta Stair-en erakundearen teoriarik errotzen baitu, besteak beste, bere tradizioa, hala ere, Eskoziak ez zuen Kodearen beharrik aldarrikatu, kontinenteko Europar egin zen moduan, aldiz, bere bide propioari ekin zion. Ikus Eskoziako tradizioaren laburpena, ROBINSON, FERGUS, GORDON, *op. cit.*, 242-262 orr.

partikularitasun juridikoak gordetzen zituzten⁶. Aro Modernoan aldiz, nazio-estatuaren batasun politikoa lortze aldera, desberdintasun horiek asimilatu eta desagertu arazi behar zirela uste zen. Horretarako Zuzenbide berria eraikitzea ezinbestekotzat jotzen zen, aurrekoa desemanetz⁷.

Zuzenbidearen berfundazioaren onurak aldarrikatzen lehena Zuzenbide Naturalaren Eskola izan zen. Europa kontinentalean erro sakonak zituen Eskola horrek *ius naturale* zelakoaren printzipioak positibatuz zuzenbide unibertsal berria kode bihurtu ahal zela predikatzen zuen. Hala baina, arau horiek formulatze-ara jartzen zirenean, *ius constituendum* berri bat baino, Zuzenbide erromatarretik hartutako formula ezagunak ateratzen zitzaizkien. Hala nola, Zuzenbide Naturalaren eskuliburuetan aurki zitezkeen adibideak Gaio eta Justinianoren *Instituta* delakotik harturikoak ziren gehienak. Eta Zuzenbide erromatarretik aldentzen zirenean ere, salerosketaren ondoriozko jabego eskualdaketaren teoriaren kasuan, Zuzenbide erromatar horren emendio hutsa ematen zuen proposamenak. Azkenean, aurreko araudiarekin haustura deklaritzen bazen ere, zuzenbide berria sortu baino, zuzenbide komunaren arauetara itzuli ziren⁸.

Alabaina, Zuzenbide Naturalaren aldarriak garrantzitsuak izan ziren, juristen hezkuntzan izan zuten eraginagatik, Zuzenbidearen filosofiako ikasgai bihurturik, XIX. mendean zehar eta XX.aren lehen erdian zehar, ikasketa planetan irmoki txertatu baitziren, ikasle-belaunaldi askok bereganatu zituztelarik kategoria eta printzipio orokor horiek.

Kodearen arauak aukeratzeko orduan, beraz, arau arrazional berrietan oinarritutako zuzenbide berria asmatu ordez, Estatu bakoitzean bizirik zeuden erakundeen eta ohituren sintesia egitera jo zen. Mendetan zehar pixkana metatzen eta sedimentatzen joan zen alubioizko material juridikoaren sintesia egin zen. Errezeptzioarekin jasotako zuzenbide erromatarra, erregearen legeak, zuzenbide kanonikoa, ohiturazko zuzenbidea eta abar... lagin historiko desberdinetan metaturik zegoen araudia multzoa sistematizatuz eta ordenatuz, itxuraz berria zen zuzenbide bat erdietsi zen⁹.

Sintesiaren perimetroa Estatua izan zen. Kodea batasunaren sinboloa da, tradizio frantsesean, eta baita germanikoan, batasunaren esanahia desberdinak erabiliko badituzte ere. Tradizio klasiko frantsesa, XVII. mendean ideien alo-

⁶ Ikus, euskaraz, MONREAL ZIA, G. *Munduko Zuzenbidearen testu-bilduma*, Haritz Monrealek itzulia, Klasikoak, Bilbo: BBK, 2007, 99 eta hurrengo orr.

⁷ GÉNY, F., La technique législative dans la codification civile moderne, *Le Code civil 1804-1904, livre du centenaire*, Paris, 1904, 987 or.

⁸ WIJFFELS, A., Qu'est-ce que le *ius commune*?, Wijffels, *op. cit.*, 2005, 643-667 orr.

⁹ WIEACKER, F., *op. cit.*, 296 or.

rrean matematikak agintea hartu zuenean hozitua, arrazionalismo geometrikoak maite duen ordena arrazional hierarkizatuaren grinaz taxutu da. Tradizio hori Descartesekin hasi, Voltaire eta Diderot ilustratuekin jarraitu eta Iraultza jakobinora iritsiko litzateke: uniformismoa ezberdintasunen aurka. Ilustrazio eta klasi-zismo alemana, aldiz, Herder eta Humboldt kasu, ondorengo garapena litzateke baina aurreko eredu matematikoaren ordez eredu biologikoan bilakatua: ezberdintasunek unibertsoaren aberastasuna erakusten dute¹⁰.

Paradoxikoa bada ere, zuzenbide arrazional eta unibertsalaren aldeko mugimenduak arazorik gabe onartu zuen Estatu berrien mugen barruan egin behar zela sintesi hura¹¹. Estatuaren botere kontzentrazioaren zerbitzura jarri zen, bada, jarraian aipatuko dugun zuzenbidearen iturrien batasunaren dogma¹². Ondorioak nabarmenak izan ziren. Frantziako kodearen kasuan, Hegoaldeko ohitura erromanizatu eta Iparraldeko zuzenbide germanikoa hartu ziren kontuan, eskualde txikien ohitura propioak, Euskal zuzenbidearena kasu, guztiz bazterturik geratu zirelarik. Aldiz, kodifikazioak ekarri behar zuen sintesiaren interpretazioa eta emaitzak desberdinak izan ziren beste herrialde batzuetan, Suitzan kasu, non aurrerago ikusiko dugunez, berezko zuzenbide guztien arteko elaborazio integratzailea lortu zen Eugen Huberren aurretiazko lan historiko sakonari eskerrak.

Kodetze-teknikaren hirugarren dogma nagusia zuzenbidearen batasunarena izan zen. Erdi Arotik datozen zuzenbide desberdinen masa gaika sistematizatzen ari den neurrian, *Ius commune* edo Errezepeziozko zuzenbide jantzia lantzen dutenak, pixkana, mendeetan zehar, zuzenbideko printzipio orokorren teoriara heldu ziren. Arau edo printzipio metajuridiko hauetatik abiatuta sortzen dute, besteak beste, zuzenbidearen iturrien teoria. Jakina denez, teoria horren arabera, Estatu-nazioaren baitan legea izango da iturri nagusia¹³. Nazio-estatuak nazio-mailako zuzenbidea bakarrik aitortzen zuen eta beste iturri guztiak nazio

¹⁰ Nazionalismo zibikoaren paradigma gisa aurkeztu ohi den heinean, Frantziako Estatu-nazioari eta bertan erabili izan diren nazio kontzeptuaren historiari errepaso bat egiten dio Joxe Azurmendik, in AZURMENDI, J., *Historia, arraza, nazioa*, Donostia: Elkar, 2014. 485 or.

¹¹ John LOKINEk nabarmentzen du Ilustrazioaren paradoxa: Zuzenbide Naturealean oinarrituriko kode unibertsalak aldarrikatu zituzten Rousseau, Voltaire eta baita Montesquieu-k ere, eta hara non aldakarrikapen horiek kode nazionalak bihurtu ziren. Galdetzen du Lokinek, «Why did eighteenth century intellectual lawyers and philosophers abandon their cosmopolitan common laws toward national arrangements? How did rationalist natural law in the end turn into national –yet roman law oriented-codifications?». LOKIN, J.H.A., Two Paradoxes on Codification, *Comparative Historical Essays on Developments in Civil Law, Ius commune europeum*, n. 128, Cambridge: Intersentia, 12 or.

¹² Esan izan da XIX. mendeko nazio subiranoak botere gehiago kontzentratzen zuela monarkia absolutuaren paradigma izan daitekeen Luis XIV.ak baino –nahiz eta berak uste izan «Estatua ni neu naiz»–. WIJFFELS, A., *op.cit.*, 643 or.

¹³ MOLFESSIS, N. (arg.), *Le Code Civil: une leçon de légistique?*, Economica, 2006, 39-58 orr.

-zuzenbide horrekin identifikatu beharra zegoen. Boterearen zentraltasunaren dogma nabarmena da nazioarteko zuzenbide publikoan. XIX. mendeko kodegileek oso garbi zuten, nazioarteko zuzenbidearen iturrien hierarkiak estatuaren boterearen baitakoak zirela. Gauza bera nazioarteko zuzenbide pribatuarekin, izan ere, oraindik ere, estatu bakoitzeko Kode Zibilak arautzen baitu nazioarteko zuzenbide konkurrenteen artean zein izango den zuzenbide aplikagarria. Ondorioz, XVIII. eta XIX. mendeko nazio-estatuaren eraikuntzan lurraldeen batasun politikoa lortzeko tresna politiko nagusi izan ziren kodeak.

Aipatu dogma nagusiez gain, XVI. eta XVII. mendeen artean, konpilazioen eredura egindako bildumetatik harago, egungo kodifikazio modernoari bidea ireki zioten bi aurkikuntza aipatu behar dira: kalifikazioa (*Subsumption*) eta sistematizazioa¹⁴. Erdi Aroan, zuzenbide aplikagarria zein zen erabakitzeko metodo konbinazioa erabiltzen zen; hala nola: aurrekariak, kalifikazio suzesiboak, aplikazio analogikoa, prozedurazko zuzenbidearen printzipioak eta abar. Aro Modernoan, aldiz, esan dugunez doktrina Erdi Arotik jasotako zuzenbide-masa desberdinen arteko harremanei buruzko teoriak sortzen hasten da. Denborarekin, zuzenbide aplikagarria zein den erabakitzeko kalifikazioaren metodoa hobesten da, teknika horrek eskatzen duelarik zuzenbide masa horiek, edozein delarik ere bere jatorria (erregea, zuzenbide erromatarra, edo ohitura idatzia), aurretik ez bezala, materiaren arabera ordenaturik egon behar dutela¹⁵.

Garaiko obrak eta lege-bildumak erkatuta nabarmena da XVI. mende-arteak kolekzioak irizpide multzo baten arabera ordenatzen zirela –kronologikoa, gaikakoa, iturrien araberakoa, alfabetikoa, eta abar–. Aldiz, Justinianoren *Instituta* delakoek *ratione materiae* ordenatzen zuten Zuzenbide erromatarra. Bada, XVI. mendetik aurrera, jurista batzuk Justinianoren metodotik abiatuz, gaikako ordena hobetu ahal dutela proposatzen dute. Frantziako adibidea hartuz, Colberten ordenantzak, XVII. mendean gaiaren araberako ordenarekin egin ziren (prozedura zibila, prozedura penala, merkataritza zuzenbidea, eta abar). Bide horretan, gaikako sistematizazioaren bigarren bultzada aipatu Zuzenbide Naturalaren Eskolak eman zuen. Arrazionalismoaren filosofia oinarri zuelarik, zuzenbidearen gaikako sistematizazioan lagundu zuen, batez ere, XVIII. mendean¹⁶. Bada, doktrina zientifikoak asmatutako gaikako sistematizazio teknika berriei eskerrak hasten da zuzenbide guztia gaika ordenaturiko bilduma handie-

¹⁴ WIJFFELS, A., *op. cit.*, 643 or.

¹⁵ DUNAND, J. P., Entre tradition et innovation : analyse historique du concept de code, WINIGER, Bénédicte, DUAND, Jean-Philippe (arg.), *Le Code civil français dans le droit européen: actes du colloque sur le bicentenaire du Code civil français*, Bruxelles, 2005, 10 or.

¹⁶ LEFEBVRE-TEILLARD, A., Les différents facteurs d'unification dans l'ancien droit, 1804-2004, *Le Code Civil. Un passé, un présent, un avenir*, Dalloz, 2004, 77-85 orr.

tara ekartzen. Sistematizazio teknika berria izan zen, hain zuzen, konpilazioetarik kodeetara bitarteko trantsizioan lehen pausoa¹⁷.

Aurrerago, Pandektistek zuzenbide erromatarraren kontzeptuzko lanketa sofistikatu batetik abiatuz, erakundeak arautzeko teknika garatuagoa sortzen dituzte. Eskola horrek asmatuko du, hain zuzen ere, kalifikazio juridikorako metodo positibista, *Subsumption* delakoa, aplikagarri den araua zehazteko teknika, alegia. Pandektistek, garatzen dituzte halaber beste teknika depuratu batzuk, hala nola, arauen interpretazioari buruzko teoria, edo eta prozedurazko printzipio orokorrak. Alegia, zuzenbidearen arau positiboak aplikatzeko balio duten printzipio abstraktu sorta bat –analogia, interpretazio hertsia eta irekia, interpretazio autentikoa eta soziologikoa, eta abar–, zeinak biziki eragingo duten XX. mendeko zuzenbide kontinentalaren itxuraketa berrian¹⁸.

Aipatu ditugu zuzenbidearen berfundazioaren eta batasunaren dogmak, baita gaikako egitura berriarena ere; bosgarren dogma irisgarritasunarena izan zen, zeinaren bitartez zuzenbidea sinpletzeko eta hiritarrak bere eskubide eta betekizunak erraz ulertzeko zioa lortu nahi baitzen. Arau gutxi, argiak, sinpleak eta laburrak. Eta horrelaxe zuzendu zitzaion kodea jabe burges txikiari, hitz lauz, berak ulertzeko moduko hizkera xume eta dotorean¹⁹. Arauak sinpletzeko ez zen nahikoa, ordea, hizkera erraztea eta zuzenbidea sistematizatzea; beharrezkoa zen, aldi berean, Erdi Arotik jasotako gizakien arteko klase eta estatutu anitzen erredukzio batera heltzea. Kodeak irtenbidea eman behar izan zion pertsonen estatus juridikoen arteko aniztasunari. Ezinezkoa baitzen egitura sinpletzea subjektuen gizarte-maila, erlijio, arraza, familiako egoera, eta horrelako beste ezaugarrien arabera aplikagarri ziren erregimen juridiko desberdin guztiak kontuan hartu behar baldin baziren. Frantziar Iraultzaren ideologiak zuzenbideko subjektu bakar baten identifikazioa ekarri zuen ere –Napoleonen Kode Zibilak «*bon père de famille*» esaten dion gizonezko hiritar burgesa egiten du arauen protagonista nagusi; Kodean ez ziren kontuan hartu emakumeak, jabe gorik gabeko hiritarrak, atzerritarrak, beste erlijioetakoak, eta abar–. Bada, subjektu bakarrari zuzentzen zitzaion Kodea, baina desberdintasunak predikatueta gorde ziren: subjektu orok du gaitasun juridiko berdina, baina jarduteko gaitasunean desberdinak dira emakumeak eta gizonak, haurrak eta helduak, atzerritarrak eta nazionalak, erlijio bat edo beste dutenak, eroak eta osasuntsuak, eta abar²⁰.

¹⁷ OPPETIT, B., *Essai sur la codification*, Paris: PUF, 1998, 61 or.

¹⁸ TROHE, H. E., Die Literatur Des Gemeinen Recht unter dem Einfluss des Humanismus, in Coing, H. *Handbuch der Quellen und Literatur der Neueren Europäischen Privatrechtsgeschichte, II Neuere Zeit (1500-1800)*, II. T., C.H. München: Beck, 1977, 615. or.

¹⁹ CARBONNIER, J., *op. cit.*, 1038 or.

²⁰ TARELLO, G., *op. cit.*, 39-56 orr.

Zuzenbidearen sinplifikazioa erdieste aldera, berdintasunaren paradigmak bezain beste eragin izan zuen jabegoaren kontzeptu berriak. Ezaguna da feudalismoak luraren antolamenduaren ondorioz biderkatu egin zituela ondasun higiezinaren gaineko eskubide errealak, geruza desberdinetan, bata bestearen gainean gainjarriak. Lur beraren gainean bazen urteko errenta jasotzeko eskubidea zuen bat, uzta bereganatzeko eskubidea zuen beste bat, ereiteko eskubidea zuenik beste bat, abereak bazkatzera eramateko aukera zuenik ere bai, zura eba- kitzeko eskubidea zuena... ustiapeneko eskubide gainjarri guzti horien ondorio- rik nabarmenena zen lurra ezin zela merkaturatu; luraren bahiketa, finean. Fi- siokratek defendatzen zuten gauzen gaineko eskubide errealean metaketa ebatzi beharra zegoela: subjektu bakar bati emango zitzaion eskubide kategoria gorena edo indartsuena, beste ezein eskubide errealean gainerik jarriko zena, alegia, ja- bego absolutua, mugatu ezina eta abstraktua. Jabegoaren ulerkera berri horren arabera, gainerako eskubide erreal guztiak, jabegoari meneraturik egoteaz gain, behin behinekoak izan behar zuten, alegia, ezin zituzten ondasunak betirako lotu edo binkulatu. Hein handi batean, subjektuan eta objektu nagusiaren gainean eragindako eskubideen erredukzio drastiko horri esker lortu zen, bada, zuzenbi- de zibilaren sinplifikazioa²¹.

Ondorioz, XVIII. mendean nazio-estatuaren doktrina nagusitu zenerako prest zegoen zuzenbidea proiektu politiko horrek eskatzen zuen paradigma uni- taristari teknikoki aurre egiteko. Kodea zen lege-iturri nagusi eta bakar, aurreko masa juridiko guztia asimilatu zuena, hiritarrari zuzendua eta jabegoaren prin- tzipio abstraktuan oinarritua. Kodea izan zen, ezberrik gabe, Nazio-estatuaren botere metaketa baldintzatu zuen tresna politiko-juridiko nagusia.

III. FRANTZIAKO, ALEMANIAKO ETA SUITZAKO KODE ZIBILAK

Bavaria (1754), Prusia (1794) eta Austriakoa (1811) izan ziren kodifika- zio-teknika berriei eskerrak antolatutako lehenengo arau-bildumak. Hiru kode hauen bultzatzaileak despota ilustratuak izan ziren, zuzenbidea arrazionalizatu eta argitzeaz gain, aurrekoa desemateko agindua eman zutenak. Baina, kodi- fikazio formalak izan ziren, gizakien eskubideen aldarrikapenaren aurrekoak, despota ilustratuaren boterea zalantzan jarri ez zutenak, alegia. Gizarte mailako ekarpen eraldatzailea 1789ko Frantziako iraultzak eskaini zuen: *Code civil des Françaises* delakoak aitzinaldean jartzen ditu *liberté* eta *égalité* printzipioak. Kodetze-ereduan lehen pauso erabakigarria emana zegoen. Ehun urte berandua- go, Alemanian, Napoleonen kodetik aldentzen zen eredu berri bat erdietsi zen: *Bürgerliches Gesetz Buch (BGB)*.

²¹ TARELLO, G., *op. cit.*, 54 orr.

XIX. mendearen hasieran eta bukaeran sortu ziren, beraz, kodifikazioaren historia markatuko zuten bi eredu nagusiak: Frantziakoa eta Alemaniakoa. Kode hauei Kode-gidari ezizena eman zaie, bakoitzak bere eragin-eremua izan zuelako²²; haien ereduari jarraiki egin ziren beste Kode-jarraitzaile asko, Espainiakoa kasu. Frantziakoak eragina izan zuen tradizio erromanista zuten herrialdeetan, eta BGBak berriz, tradizio germanikodunetan. XIX. mendean zehar Napoleon Kodea izan zen Europako eta Europaz kanpoko kodifikazio prozesuen itsasargia. Hurrengo mendean, Alemaniak hartu zuen lekukoa. Indarrean zeuden kodeen berriztatze-lanak BGBaren eredura egin ziren, ordurako *Code civil des Françaises* agurgarria zaharkiturik zegoen eta.

Kode ereduak aztertzerakoan ordea, gure zuzenbidearen ikuspegitik interesgarria da **Suitzako kodea**, *Zivil Gesetz Buch* (ZGB) delakoa, aztertzea. BGBaren familiaren barruan kokatzen bada ere, esan liteke eredu propioa sortu zuen bilduma izan zela. Kalitateko tekniko handiaz gain, Suitzako kantoietan eta lurralde desberdinen arau eta ohitura zibilen arteko sintesi orekatua zor diogu Eugen Huberrek paratutako Kodeari²³. Espainiako kodetze prozesuarekin alderatuz, sintesi orekatuaren helburua erdiesteko, ZGBan zein prozedura erabili zen aztertuko dugu atal honetan²⁴.

1. Napoleon Kodea

Has gaitzen, bada, *Code Napoleon* delakoarekin. Zuzenbide frantziarren batasunaren ideiak soka luzea du. Frantziako Kode Zibilar buruz azpimarragarriak dira bi ezaugarri. Batetik, XIX. mendeko produktu politikoa izan zela; bestetik, denbora luzez ondutako obra intelektual edo zientifikoa ere badela. Wijffels-ek adierazten du historiografia ofiziala zuzenbidearen ikuskera unitarista edo batasun-zalearekin sakonki konprometiturik egon dela²⁵. Frantzian eskuliburu nagusiek Antzinako Erregimenaren zuzenbidearen iturri desberdinak

²² VOGEL, L., *Le Monde des Codes Civiles, 1804-2004, Le Code Civil. Un passé, un présent, un avenir*, Dalloz, 2004, 790 or.

²³ HUBER, E., *Code civil suisse : exposé des motifs*, Berne 1901, 5 or., eta DUNAND, J. P., *Le code civil de Eugen Huber: une loi conçue dans l'esprit de la démocratie?*, in TSCHANNEN, P. (arg.), *La démocratie comme idée directrice de l'ordre juridique suisse*, Genève, Zurich, Bâle, 2005, 55 or.

²⁴ Espainia, kode bateratzailearen paradigma hautsiz, sintesi hori erdietsi ez zuen Europako estatu bakarra izanik, kontuan hartzeak dira ere zenbait eredu bakan. Aztertuko ez baditugu ere, interesgarria da, eskuarki, kontuan izatea, Amerikan, *Common Law* delako testuinguru arrotzean, Quebec eta Louisiana bezalako lurraldeek beren zuzenbide propio *erromanistikoa* mantendu izan dutela kode zibil propioak sortuz.

²⁵ WIJFFELS, A., *op. cit.*, 648 orr.

azaltzerakoan, bereziki azpimarratzen dituzte erregeak emandako arauak, eta baita Errezepeziozko zuzenbidearen arauak –biak ere, gaur egungo zuzenbide positiboaren antzekoak–. Zuzenbide Fakultateetan erabiltzen diren eskuliburu horietan esaten da, adibidez, zuzenbide erromatarra bigarren mailako zuzenbide subsidiarioa zela, honekin aditzera eman nahi baita zuzenbideko iturrien hierarkia bat bazela, eta sistema juridikoa ikuspegi eboluzionista eta bateratu batetik ikusi zitekeela garai hartan ere. Wijffels-ek historiografia ofiziala zuzenbidearen ikuskera unitarista edo batasun-zalearekin sakonki konprometiturik egon dela adierazten du²⁶.

Ezaguna denez, Dumoulin, Coquille eta Loysel-ek egiten dituzte zuzenbide konpilatzeko lehen saioak XVI²⁷. mendean; hurrengo gizaldian, 1692an, publikatuko da «*Institution au droit français*», Argou eta Fleury-ren eskutik. Zuzenbide masa desberdinen arteko sintesi edo asimilazio horretan, kodea egiteko giltzarri izan ziren aipatu XVII. mendeko Colbert-en Ordenantzak, zeinak dagoeneko gaika ordenaturiko kode txikiak ziren: Prozedura zibila, 1667; Urak eta Basoak, 1669; Prozedura kriminala, 1670; Lurreko merkataritza, 1673; Itsasoko merkataritza, 1681. Haien hitzaurreetan esaten zenez, Frantziako batasun politikoari eragin nahi izan ziotenak²⁸.

Zuzenbide pribatuari gagozkiola, XVIII.ean berebiziko garrantzia izango zuten hiru juristek: Daguessau, Bourjon eta Pothier-ek. Daguessau Kantzilerrak sortu zituen dohaintza, testamentu eta ordezkarietzi buruzko hiru Ordenantza nagusiak, zeinak beranduago *Code Civil*-a osatzeko balio izan zuten. Bourjonon ekarpena ere oso esanguratsua izan zen, «*Coutume de Paris*» delakoa egituratzeko erabili zuen plan bera erabili baitzuten gerora *Code Civil*-aren egileek. Gero-eta etorri ziren unibertsitateetako profesoreek egindako obra juridikoak, zeinen artean Portalis eta Pothier-en lanak nabarmendu ahal diren.

Pothierrek «*Traité des Obligations*» (1761) lan nagusian laburtu zituen Frantzia Iparraldeko ohiturazko zuzenbidea eta Hegoaldeko tradizio erromanista. Iraultza aurretiko zuzenbidearen adierazgarri zen bere obra, eta ondorioz, hark ezarritako erakunde asko ez ziren kodean jaso, alabaina, Code Napoleonek araututako obligazioak eta jabegoa hari zor dizkiogu neurri handi batean, jakingarri izanik Pothierrek Zuzenbide Erromatarraren antolakuntzari erreparatu ziola gai horietan.

²⁶ *Ibid.*

²⁷ Ikus, Napoleondar kodifikazioari eta haren aurrekarietzi buruz, euskaraz, MONREAL, G., *Munduko Zuzenbidearen... op. cit.*, 250 eta hurrengo orr.

²⁸ BEIGNER, B., *Le Code civil et la conscience collective française, Le code civil une leçon de légistique?*, *Etudes Juridiques Economica*, 24, 207-219 orr.

Frantziako Iraultzak eztanda egin zuenean, Giza Eskubideen Deklarazioak eta 1791ko Konstituzioek ez zuten kodea egiteko agindurik eman. Eze-gonkortasun eta zatiketa politikoen garaian ezina zen Kodea egiteak eskatzen duen adostasun maila zabala erdieste. Horretaz, lege berezien bitartez gauzatu zen Iraultzaren erreforma-nagusien programa abolitu ziren karga feudalak, hiritartu ziren frantses guztiak eta berrantolatu ziren departamentuetan (gure probintziak) lehengo seneskalak.

Handik hamar urtera, Iraultzaren fruitu onduak Napoleonen kotsulatu-garaiko erregimenak jasoko zituen. Kotsulatuan, 1800eko abuztuan, lau kidek osaturiko batzorde batek kodetze proiektua prestatu zuen lau hilabetetan. Jurista adituak ziren: erromatar zuzenbidea, zuzenbide naturaleko eskolako filosofoak eta ohiturazko zuzenbide frantseseko literatura ezagutzen zituzten. Ohiturazko zuzenbidean aditua zen Tronchet, «droit écrit»-ean Maleville, Promenau bretoiak eta hegoaldeko Portalisek euren jakituria eta moderazioa gehitu zuten. Proiektuak kontuan izan zituen agintari judizialen oharrak²⁹. Lehen Kotsul izendatu zutenetik, Napoleon izan zen Kode Zibilaren bultzatzaile politiko nagusia. Kodea egiteko Batzordeko saioak presiditzen zituen: 102 saioetatik 52etan egon zen. Berari zor zaio Kodearen bultzada. Gogora dezagun nola, Napoleonek esan zuen 1818an: «Ma gloire n'est pas d'avoir gagné quarante batailles ; ce que rien n'effacera, ce qui vivra éternellement, c'est mon code civil et les procès verbaux au Conseil d'Etat».³⁰

Frantziako Kodearen egiturak ingeles legeriaren tradizioa jarraitzen du; *Corpus Iuris Civilis*-eko *Instituta* delakoetan jasotako Gayoren Planean oinarritzen da. *Instituta*-k lau liburutan banatzen dira: pertsonak; gauzen sailkapena, jabegoa, eskubide errealak eta testamentua; testamenturik gabeko oinordetza eta kontratuetatik eratorritako obligazioak; eta, obligazioak eta akzioak. Kotsulatu frantziarreko juristek eskema hori erabili zuten inspirazio iturri kodea antolatzekoan. Kodea lau zatitan banatu zuten: Atariko Tituluak eta hiru Liburu, *Instituta*-tan bezala, Liburuak, Tituluak eta Kapituluak bereiziz. Atariko Tituluak arauen aldarrikapena, indarra eta interpretazioa arautzen du; I. liburuak, pertsonak; II. Liburuak, ondasunak eta jabegoaren modifikazioa; III. Liburuak jabegoa eskuratzeko moduak, zeinaren baitan arautzen diren kontratuak eta obligazioak, ezkontzaren eraentza ekonomikoa eta oinordetza. Plan hori izan zen, hain zuzen, Bourjon-ek «*Coutume de Paris*» aipatu bere obraren lehen hiru liburukietan erabili zuena (sei liburuki zituen tratatuak). Pothier-en eraginari zor zaio, esan

²⁹ MONREAL, G., *Munduko Zuzenbidearen testu-bilduma...*, op. cit., 250 orr.

³⁰ PEROUSE, H., *Napoléon Ier et les lois civiles du Consulat et de l'Empire*, 1866, 327 or.

dugenez, obligazioei buruzko azken liburukia, Bourjon-ek ez baitzuen ohiturari buruzko bere obran horrelako atalik garatu.

Esan izan da Frantziako Kode Zibilaren arrakastaren arrazoietakoa bat bere egitura eta edukiak *Instituta*-n oinarriturik egotea izan dela, Merkataritza arauak kanpo utziz. Horrez gain, haren estiloa miresten da. Giza-eskubideen deklarazioari jarraiki, hiritarrari zuzentzen zaio Kodea, modu zuzen eta ulerterrazean, kontzeptualizazio mailako gehiegikeriarik gabe, garai hartako mundu-ikuskeraren indibidualista, utilitario eta burgesean.

Jakina denez, zuzenbidearen iturri «berri» horrek eragin handia izan zuen Europako herrialde askotan, nahiz Europaz kanpokoetan. Mendebaldeko Europan nahiz independizatu berri ziren Iberoamerikako Hego-amerikako kolonietan, XIX. mendeko kodifikazio-mugimendua, Napoleon Kodearen eredupean egin zen. Kasu batzuetan *Code*-aren eragin hori Napoleonen indarrek herria armen bitartez hartu izanaren ondorio izan zen, Belgikan, adibidez; baina beste askotan, Espainia eta Italian esate baterako, Frantziako Kode Zibilaren prestigioa eta eredugarritasuna izan ziren Napoleonen kodea eredutzat hartzeko arrazoi nagusiak. Europatik kanpo, Frantziako kolonietan zabaldu zen Kodea XX. mendean. Alta, Amerika Hegoaldeko herrien deskolonizazioak eta erakundetzeak ekarri zituen beharrak Napoleon kodea eredutzat hartzera eraman zituen herrialde asko, dela Txile, Argentina, Peru eta beste.

2. Alemaniako BGB eta Suitzako ZGB

XIX.aren azken zatian Suitzako kodea eta batez ere Alemaniako BGBa sortu ziren arte, Frantziako Kodeak ez zuen bere pareko beste lehiakiderik izan. Eredu berriek, ordea, denbora behar izaten dute gauzatzeko. Alemaniako Kode Zibila egin behar zen ala ez, polemika handia piztu zen XIX. mendean zehar. Frantzian ez bezala, Iusnaturalismo germanikoaren korrante teorikoenak eragin handia izan zuen. Aurretik, Thomasius eta Wolff bezalako autoreek, Zuzenbide Naturalaren printzipioak metodo arrazional zorrotz baten bitartez formulatu behar zirela defendatu zuten. Haien teoriak arras abstraktuak ziren, Wolff-entzat garrantzitsuagoa zen sistema juridikoaren logika finkatzea zuzenbidea gizarte jakin baten beharretara lotzea baino³¹.

XVII eta XVIII. mendeetan zehar nagusi izan zen Iusnaturalismo zorrotzari kontrajarri zitzaion Eskola Historikoa, zeinaren jarraitzaileek uste baitzuten zuzenbidea aldakorra zela; denborak eta gizarteak eragina zuela balioetan

³¹ VALJAVEC, F., *Historia de la Ilustración en Occidente*, Madrid, 1964, 67 or.

eta arauetan, alegia. Aurreko berrehun urtetan nagusi izan zen Iusnaturalismoaren metodo eskematikoa eta unibertsala gaitzetsi zuten eta, zuzenbidearen iturri gisa, arrazoi abstraktuaren ordeztu, Herrien historiari erreparatu zioten, aurretik Montesquieu-k eta Burke-k predikatu bezala. Eskola Historikoaren ordezkari nagusia Friedrich Carl von Savigny printzea izan zen. Zuzenbide Erromatarrari buruzko *Geschichte des römischen Rechts im Mittelalter* (Zuzenbide Erromatarraren Historia Erdi Aroan)-en defendatzen du erromatar zuzenbide klasikoaren printzipioak, Erdi Aroan egin ziren sasiko interpretazioak baino interesgarriagoak zirela. Alemanian eragin nabaria izan zuten Savigny-ren ideiek, Zuzenbide zibila haren *System des heutigen römischen Rechts* (*Egungo zuzenbide erromatarraren sistema*, 1840-1849) eskuliburuaren bitartez azaltzen baitzen unibertsitatean.

Aski ezaguna da Kodearen alde Heidelbergeko Unibertsitateko profesore zen Anton Friedrich Justus Thibautek 1814an idatzitako artikulua³². Frantziako okupazioaren kontrako gerraren esperientzia, eta horrek ekarri zuen nazionalismo germaniarraren pizkundea batetik, eta Frantziako Kode Zibila emulatzeko gogoia bestetik, erabakigarriak izango ziren Savigny-ren eta Thibaut-en arteko eztabaida horretan. Esan izan da bataren eta bestearen posizioak ez zirela benetan kontrajarriak³³. Thibaut-en proposamena juridiko-politikoa zen. Aldiz, Savigny-ren postura teoria legislatiboari buruzkoa zen.

Thibautek inperio germaniarrarentzako Kode Zibila eskatzen zuen, Estatu germaniarretan aplikagarri izango zen kode zibil bateratua aldarrikatzen zuelarik³⁴. Frantziar Kode Zibila zuzenbidearen batasun ereduia zen garai hartan; gauza bera egin zitekeen Alemanian ere, Thibaut-en ustez, bospasei urtetan zuzenbide lurraldearen zatikatzea gaindituz. Erromanizaturiko zuzenbide historikoaren ereduia ez zuen gogoko, eta horren ordeztu zuzenbide germaniarraren modernizazioa eskatzen zuen. Kode berriak zuzenbide erromatarraren eta tokian tokiko ohiturazko zuzenbideen lekua hartu behar zuen, Napoleonen kodeak Frantzian aurretik egin legez. Orduko zuzenbidearen anabasa gogoan, zuzenbidea eta epailetza eguneratzea zen bere kezka nagusia, zuzenbidea bate-ratzearen gaindi. Horretarako balio zezakeen Kode Zibilak, ez ordea Zuzenbide Erromatarrak.

³² THIBAUT, A. F. J., *Über die Notwendigkeit eines allgemeinen bürgerlichen Rechts für Deutschland*, 1814.

³³ HATTENHAUER, H., *Thibaut und Savigny. Ihre programmatischen Schriften*, München, 2002, 876 or.

³⁴ Thibaut-en arabera, «zuzenbidea ez da aldatzen lurraldearen edo denboraren arabera, zuzenbidearen helburua betierakoa baita; alegia, gizakiaren joerak eta ohiturak zuzentzea, gizartea zuzentzea, justiziaren bidetik joan dadin», THIBAUT, A. F. J., *op. cit.*, 13 or.

Alderantzizkora, Savigny, kodetzearen kontra agertu zen irmoki. Haren ustez Alemaniako doktrina juridikoa ez zegoen getu kodeari ekiteko, maila teknikorik ez zuelako eta zuzenbide sistema historiko ugarien arteko gerturatzea falta zelako. Savigny-ren ustez aurrebaldintza bat bete behar zen kodea egiteko, alegia, doktrina eta praktika juridikoa ados jartzea kodean jaso beharreko arauen eta erakundeen gainean. Zuzenbide erromatarren errezeptzioak, ohiturazko zuzenbide historikoarekin batera, osatzen zuten zuzenbide germaniarra, eta biak izan behar zuten etorkizuneko lege-sistema berriaren oinarri³⁵.

Eskola Historikoaren enborretik bi adar desberdin sortu ziren. Savigny-ren ondorengoetako batzuk, Von Gierke eta Von Beseler profesoreek, uste zuten Zuzenbide Erromatarrean zentratuegia zegoela, eta 1840ko hamarkadan Eskola germanikoaren mugimendua sortu zuten. Ohiturazko zuzenbideen printzipio orokorrak landu zituzten Eskola Germanikoan, unibertsitatean zabalkundea izan zutelarik beren ideiak. Aldiz, Pandektistek zuzenbide erromatarren aplikazio zientifikoa landu zuten. Puchta-ren eskutik, Pandektistek eskuratu zuten nagusigo argia zuzenbide erromatarra sistematizatu eta zuzenbide zibil osotu eta koherente bihurtzen zuten neurrian. Finean, zuzenbide lurraldetarrek ez zuten Pandektisten abstrakzio mailarik lortu, eta eragina ere urriagoa izan zuten. XIX. mende erdialderako gertu zegoen *Begriffsjurisprudenz*, kontzeptuen jurisprudentzia delakoa, kodearen elaborazioak zekarren erronka kontzeptual eta sistematikoei aurre egiteko. Eskola honek aldarrikatzen zuen zuzenbideak arau sistema harmonikoa izan behar zuela, non zuzenbidearen printzipio eta kontzeptu orokorretatik abiatuz, arau konkretu bakoitzera hel zitekeen logikaren arauak erabiliz. Kontzeptuen lanketan ekarpen eskerga egin zuten Pandektistek, zuzenbidearen batasunaren alde egiten zuten bitartean. Haien ideologia liberala zen, *laissez faire*-en aldekoa, jabego pribatua eta kontratazio askatasuna aldarrikatzen zituztelarik³⁶.

Eskola historikoaren itzal handiak gerarazi egin zuen Alemanian kodegintza denbora luzean, baina, azkenik, aipatu eztabaida sortu eta ehun urteren buruan, Alemaniak ere bere kodea onartu zuen. Izan ere, egoera politikoa aldatu egin zen 1870. urtean, Frantzia garaitu eta II Reich-a ezarri zenean. Espainiako XIX. mendeko kodegintzan ez bezala, 1871ko Alemaniako konstituzioak ez zuen kode zibil bateratua aurreikusten, aldiz, Dietaren gehiengoa zuten liberalek, auzitan zegoen Alemaniako probintzien batasuna lortze aldera, nazio

³⁵ SAVIGNY, F. K., *Vom Beruf unserer Zeit für Gesetzgebung und Rechtswissenschaft*, Heidelberg, 1814.

³⁶ WIEACKER, F., *Privatrechtsgeschichte der Neuzeit unter besonderer Berücksichtigung der deutschen Entwicklung*, 1967, 78 or.

osoarentzako kode zibil bakar bat aldarrika zedin eskatzen zuten. Kode Zibila federazioaren eragile moduan aurkeztu zen, erakunde jakinei eta zuzenbidearen jatorriari baino, batasun beharrari erreparatzen baitzioten liberalek. Horien aurrean, oposizio kontserbadore federalista eta alderdi katolikoa kodearen aurka zeuden, kodearen abaroan ezkontzaren eta beste familia erakunde batzuen sekularizazioaren arriskua bait sekusatzen³⁷.

Bada, 1874. urtean artikulua bakarreko lege batek Alemaniako Zuzenbide Zibilaren batasuna ahalbidera zedin agindu zuen, eta ataza horretarako adituek osatutako Batzorde bat sortu zen. Lehen zirriborroa paratzeko hamairu urte behar izan zituzten, ez zen ordea onartua izan. Zuzenbide Erromatarraren eragin handiegia zuela egotzi zitzaion eta kontzeptualegia zela, ulertzen zailegia. Beste Batzorde bat eratu zuten orduan zeinak aurreko zirriborroaren gainean beste proposamen bat aurkezteko enkargua jaso zuen. Batzordeak 1895ean amaitu zuen lana eta Kodea 1896an publikatu zen, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko lege zabal batekin batera.

Kodea bost liburutan banatzen da, lehen liburuan, Zati Orokorra (pertsanak, gauzen definizioa, ekintza legalak, preskripzio epea, eta abar); bigarrenean, Obligazioak; hurrengoan, gauzak (edukitza, jabeagoa, zortasunak, berme errealak); laugarren liburuan arautzen da Familia eta azken liburukian Oinordetza. Egitura hori sistema Pandektistak erabili zuenetik hartua da, baina edukiak oinarri germaniarreko arauetan dute sorburua, batez ere familia eta oinordetzaren erakundeei dagokienean; gutxiago aldiz, obligazioetan, non Zuzenbide Erromatarraren arrastoa handia den. Aipagarria da, BGBaren elaborazioarekin bat zuzenbidea gizartera egokitu eta eguneratzeko ahalegina egin zela, ezkontzaren araudia, eskuarki. Hizkerari dagokionez, tekniko izan arren, ez da aurreko zirriborroa bezain iluna. Pandektisten kontzeptuen jurisprudentziak aldarrikaturiko sisteman oinarritzen denez, soluzioak aurkitzeko Kodearen zati desberdinetan kokaturiko arauak lotu behar dira, horrek kodearen erabilera mailako zailtasun handia ekarri zuelarik.

Pandektistikak ondutako kontzeptu eta kategoriez hornitutako kode tekniko izan zen, maila zientifiko handia zuena. Napoleon kodea ez bezala, BGB-a operadore juridikoari zuzentzen zaio eta ez hiritar arruntari: estiloa tekniko da, lehorra; bestalde, atal orokorrak Pandektistikak landutako arau metajuridikoak jasotzen ditu, zuzenbidearen interpretazioari, egitate eta ekintza juridikoen printzipio orokorrei eta abarrei dagozkienak.

BGB-a aldarrikatu zenean kontserbadoreegi zela leporatu zitoten. Idatzi zutenak ez ziren agi denez gehiegi arduratu erakunde zibilak eguneratzeaz. Ba-

³⁷ WIEACKER, F., *op. cit.*, 34 or.

tzordearen eztabaidak jasotzen dituen aktetan agerian geratzen da haien kezka nagusia erakundeak bateratzearena zela. Erakunde bat lantzerakoan ez zen kontuan hartzen zuzenbide erromatarretik ote zetorren edo ohitura zuzenbidetik, helburua erakunde horri araudia bateratua ematea baitzen, eta horretarako iturriek baino etorkizunerako aurreikusten zitzaion ibilbideak zuen pisurik handiena.

Alemaniko eredia Frantziakoari egindako emendioa edo hari planteatutako aukera bezala aurkeztu zen³⁸. 1896an onartu zuen Reichstag-ak eta 1900. urtean jarri zen indarrean, mende berria argizta zezan. BGBak eragin nabarmena izan zuen XX. mendean zehar egin edo errebisatu ziren kodeetan. Hala nola, Grezian (1946), Austriako kodearen obligazio liburuaren eguneratze lanetan, Suitzako kodean eta Hungarian. Europaz beste, Japoniako 1898ko kodean eragin zuen, eta baita Txina eta Brasilgoetan ere.

Frantzia eta Alemaniako bi eredu nagusiez gain, bada Euskal Zuzenbidearen ikuspegitik guretzat interes berezia duen beste kode bat; izan ere, suitzarrek ordenamendu tradizionaletako ezaugarri orijinalak mantendu baituzte zuzenbide pribatuaren eremuan, halaber, kantoietako aniztasun juridikoa islatzen saiatuz³⁹. 1815. urtean Konfederazio sortu berria zen, 32 kantoit independentek osatua. 1848an, Estatu federal modernoaren forma hartzen duenean, hasten da Kode Zibil bateratuaren beharra azaltzen. Garai horretan, legebiltzar federalak, 1874an lehen aldiz, merkataritza zuzenbideari eta obligazioei buruzko kompetentzia eskuratzen duenean, Obligazioen Kodea indarreratzen dute. 1898az geroztik, zuzenbide zibilar buruzko eskumena ematen zaio Parlamentuari; eta ordurako Eugen Huber profesorea ari zen enkarguz Kode Zibil bateratua prestatzen, zeinak 1900 urtean ikusi zuen argia lehen aldiz zirriborro moduan. Batzorde bat izendatu zen orduan argitaratutako testuaren iruzkinak jaso eta bertsio berria egiteko. Azkenik, 1907an indarreratu zen *Schweizerisches Zivilgesetzbuch* (ZGB) delakoa.

Kodearen lehen bertsioa egin zen garaian zuzenbide zibil anitz zegoen kantoietan indarrean. Bernan eta Luzernan Austriako Kodea erabiltzen zen, Zürich-en Pandektisten eragina nabarmena zen bere kode pribatuan, frantsesez hiztun ziren kantoietan berriz *Code Civil* aplikatzen zen. Bada, sistema guztiak kontuan izanik, eragin eta tradizio guztien errespetuz sortu zen Suitzako kode nazionala. Izan ere, Huber-ek ongi ezagutzen zuen kantoietako zuzenbidea, bere *System und Geschichte des schweizerischen Privatrechts* obran argi erakusten duenez. Bertan jasotzen dira jurisprudentziazko printzipio komunak, ohiturazko

³⁸ SPELLENBERG, U., Les expériences allemandes du Code civil français, in MOLFESSIS, N. (arg.), *Le Code Civil: une leçon de légistique?*, Economica, 2006, 167-185 orr.

³⁹ MONREAL, G., *Munduko zuzenbidea...op. cit.*, 349 or.

zuzenbide bakoitzak urtetan garatutako arauetan emanak⁴⁰. Aurrez egindako lan horrek ireki zion bidea hizkera, tradizio eta hizkuntza desberdinetan adierazita-ko tradizio juridiko desberdinen arteko fusioari.

Pandektisten eskema klasikoa jarraiki ordenatzen da kodeko edukia. ZGBa lau liburukitan dago banatua: Pertsonak, Familia, Oinordetza eta Jabe-
goa. Gerora txertatu zen ere azken liburukia, Obligazioei buruzkoa, kodearen aurretik argitaratua izan zena. Bestalde, BGBa ez bezala, hizkera ulerterraza era-
biltzen du ZGBak, eta teknikoki asko zor badie Pandektistei, ez da Alemaniako
kodearen abstrakzio mailara iristen. Arauak orokorrak dira, estiloa laua da, eta
ez daude kontzeptuen definizio xeheak; horren ordez, kasuismotik aldentzen da
eta arau orokorrak ezartzen ditu, ondoren jurisprudentziak garatuko dituenak.
Xede horien adierazpide, ZGBko lehen artikulua epaileen interpretazioari es-
keintzen dion araugintzaren garapena.

ZGBak aditzera ematen digu, finean, maila tekniko goreneko kodea er-
dietsi daitekeela zuzenbide sistema desberdinak modu orekatuan sintetizatuz.
Kode helbetikoaren originaltasunak, bestalde, ez du oztopatu Alemanian edo
Frantzian, edo ekialdeko Europako zenbait sistema juridikotan –Polonian, Txe-
kian, Hungarian edo Errusian- eragina izatea. Ia hitzez hitz hartu zuten Turkian
1926an.

XIX. mendean zehar eredu izan ziren kodeen ezaugarri nagusiak adierazi
ostean: Frantziako kode iraultzaile eta batasun-zalea; Alemaniako eredu jaso eta
teknika-zalea; eta XX. mendeko Suitzako zuzenbide kantonalen iturriak modu
orekatuan jasotzen dituen *ZGB* delakoa kontuan izanik, hiru kodifikazio eredu
horiekin alderatuz non kokatzen da Espainiako Kode Zibila?

Azter dezagun bada jarraian Espainiako kodetze prozesua, eta ostean on-
dorioztatu ahal izango dugu penintsulan egin zen kodetze-prozesuaren ezaugarri
nagusiak zein izan ziren eta aipatu kodetze ereduak non kokatzen den hura.

IV. ESPAINIAKO KODIFIKAZIO ZIBILAREN ETAPAK ETA BERTAN EUSKAL FORU ZUZENBIDEEK HARTZEN DUTEN LEKUA

XVIII. mendearan amaieran, Gaspar Melchor de Jovellanos pentsalari
ilustratuak zuzenbideko arau anabasa modernizatu, modernizatu eta kode be-

⁴⁰ Basileako irakasleak ongi ezagutzen zuen kantoietako aniztasun juridikoa, ordurako idatzirik
baitzuen bere sistematizazio obra nagusia: HUBER, E. *System und Geschichte des schweizerischen Pri-
vatrechts*, 1886. Kantoietako ohiturazko zuzenbidea deskribatzerakoan, diferentziak eta antzekotasunak
jaso, eta printzipio komunak atera zituen, nahiz eta kantoietako jurisprudentzia printzipio horietaz jada
ohartua egon. Zibilisten eta zuzenbide naturaleko autoreen teknikak eta ezagutzak erabiliz, Suitzako

rrietan sistematizatu beharra aldarrikatzen du⁴¹. Aldiz, Espainiako kodifikazio prozesuak topo egin zuen hasieratik zailtasun larriekin. 1821. urtean lehen Kode Zibil proiektua aurkeztu zenetik, bost kode-proiektu ofizial eta beste hainbeste proiektu pribatu behar izan ziren Espainiako Kode Zibila erdietsi arte: 70 urteko ibilaldia. Eta, orduan ere, 1889ko Kodeak ez zuen lortu foru zuzenbideen auzia konpontzea, non eta beste hainbeste urte behar izango ziren Konpilazioetan jasotako erakunde zibil propioak publikatzen hasten diren arte.

Ikus dezagun, bada jarraian, prozesu luze eta konplexu honen gakoak zein izan ziren eta nolakoa izan zen foru zuzenbideetan izan zuen inpaktua. Hasteko, XIX. mende hasieran Espainiako zuzenbide lurraldetarren egoera nolakoa zen deskribatetik abiatuko gara, ondoren Kode Zibilaren eta zuzenbide lurraldetarren konpilazio lanak arakatzeko.

1. Kodifikazio mugimenduaren garaian euskal zuzenbide pribatuen egoera

Kodearen gaineko eztabaida XIX. mendeko gorabehera politiko handiei loturik egon zen Espainian; Konstituzioen joan-etorriei, zehazkiago esateko. Garai hartako Konstituzioak iraunkortasun gutxikoak izanik, zaila zen adostasun egonkorra eskatzen dituen ataza horri heltzea. Ezegonkortasun politikoak eragotzi zuen neurri handi batean ataza, non eta 1876ko Errestaurazioarekin, kodea bideratzea lortzen den arte.

Alta, gutxi jarri zuen zalantzan garai hartan Espainiak Kode Zibila behar zuenik, XIX mendean Espainiako arauen egoera ez baitzen egokia, eta horretan bat zetozen gutxiak. Lege anabasa barreiatu eta sistematizaziorik gabea aplikatu behar zuen epaileak, askotan Alfontso X. Partidetara jo behar izaten zelaririk erantzun juridiko bila. Ordenamendu juridikoa sistematizatu eta normalizatu beharra egonda ere, doktrina juridikoaren atzerapenak kode propio edo orijinala sortzeko ezintasuna ekarri zuen. Ezina zen obra intelektual hark eskatzen zuen urteetako analisisa eta sintesia urte gutxitan inprobisatzea. Espainian ordura arte egindako konpilazioek eta lege-bildumek Gaztelako zuzenbidea zuten oinarri, eta ez ziren altura zientifiko handikoak. Horren erakusgarri bedi 1805ean, Carlos IV.enaren garian, argitaratu zen *Novísima Recopilación de las Leyes de España* bildumari Martínez Marinak 1808an egiten dizkion kritika latzak: «*Vasta mole levantada de escombros y ruinas antiguas; edificio monstruoso, compuesto de*

ohiturazko zuzenbidea formulatu zuen obran zehar, eta beranduago kode berrira eramango zuen. MONREAL, G., *Munduko zuzenbidearen...* op. cit., 349 or.

⁴¹ JOVELLANOS, M. G., *Apuntamientos y deducciones relativos al Derecho Público de España*. Sevilla, 1774.

partes heterogéneas y órdenes inconciliables; hacinamiento de leyes antiguas y modernas».

Foru zuzenbideei dagokienean, zein zen Euskal lurraldeetako zuzenbide zibilen egoera kodifikazio mugimendua abiatu zen garaian? Ezaguna denez, Behe Erdi Aroan Europan zabaldu zen konpilazio prozesuari jarraiki, euskal lurralde batzuk, ez denak, idatziz jaso zituzten beren ohiturak. Horrela, goizdanik, 1452ean idatziz jaso zen Bizkaiko eta Aiarako ohituren lehen bilduma (1526.ean argitasun eta berrikuntzak erantsi zirelarik). Zuzenbideko iturriei gagozkiolarik, kontuan izan behar da, Bizkaia eta Arabako Forua ez zirela, Nafarroakoa zen bezala, ordenamendu oso bat, Gaztelaren barruan autonomia zuen azpisistema bat baizik. Ondorioz, Gaztelako zuzenbidea izango da 1200. urtetik aurrera, Bizkaikoaren ordezeko iturri.

Lapurdiko ohiturak 1514. urtean eta, Zuberoakoak, 1520an jaso ziren idatziz. Nafarroa Behereari dagokionez, Nafarroako Erreinuaren parte zenez, haren foruak ez ziren argitara eman 1611 arte, eta zati batean baino ez dute islatzen lurraldearen ohitura-zuzenbide aberatsa. Napoleonen kodeak baztertu egin bazituen ere, praktika notarialak aditzera ematen duenez, sakon erroturik zeuden erakunde zibil propioek bizirik jarraitu zuten Iparraldean, Antoine D'Abbadiek nabarmendu zuen moduan, baserriaren ohiturazko oinordetzari loturikoak, batez ere.

Gipuzkoan berezko zuzenbidea gordez egiten da Gaztelarako inkorporazioa 1200. urtean; baina, Bizkaian ez bezala, erakunde zibilei buruzko bilduma idatzirik ezean (1180ko Donostiako Foruak oinordetzari jasotako apurrak salbu) Errege-zuzenbideak eragin sakona izan zuen lurraldean. Hala ere, Iparraldean gertatu legez, ohiturazko familia eta oinordetza erakundeek baserriaren transmisioa erregulatzen jarraitu zuten Gipuzkoan.

Nafarroako Erreinuari dagokionean, esan behar da, Bizkaiko zuzenbidearen soiltasunaren parean, XIX. mende arteko Nafarroako sistema juridikoaren adierazgarri nagusia iturri idatzien aniztasunarena dela. Ohituraz gain, Foru Orokorra eta haren Amejoramentuak, Gorteek emandako Legeak, eta haiek jasotako Errege-zuzenbidea ziren, hurrenkera horretan, Antzinako Erregimenetik jasotako iturriak. XVI. mendean *Ius Commune*-a bihurtzen da ordezeko zuzenbide, zeinari gehitu behar zaizkion Kontseiluaren autoak eta bisita Kapituluak. Material hauek guztiak Joaquín de Elizondo-k jasotzen ditu bilduma pribatu batean 1735. urtean. Tradizio historiko horri atxikimendua gorde nahirik, 1973ko Konpilazioak erreferentzia egiten die aipatu iturriei.

Hegoaldeko Euskal lurraldeetako zuzenbide pribatuen egoera nabarmen okertu zen XIX. mendearen hirugarren zatian, sistema foralaren eraispenaren ondorioz. Lehen Karlistadaren ondoren, 1839 eta 1841eko legeek indarrean utzi

zituzten Bizkaia eta Nafarroako foru zibilak, baina beren iturburu ziren erakunde publikoak desagerraraziz eta Espainiako epaitegien antolamendu zentralista ezarriz. Planta Legearen ondoren, Espainiako Epaitegi Gorena foru erakunde zibilak baztertzen eta zuzenbide erkidea inposatzen saiatuko da, estatuko lege zibil orokorrak aplikatuz, lehenik, eta Kode Zibila dela medio, ondoren.

Nafarroako Zuzenbidearen kasuan erakunde foralek biziraun zuten bitartean Gaztelako zuzenbideak aplikazio mugatua izan zuen. Nafarroako Diputazioaren jarraipenak ahalbideratu zuen zuzenbidearen berriztapena eta doktrina zientifiko xume baina eraginkor baten laguntza preziatua. Bizkaiko Foruak aldiz, Gaztelako zuzenbide orokorra aitortzen zuen lehen mailako ordezkari zuzenbide, eta Nafarroakoarekin erkatuz, ez zen doktrinalki garatu Aro Modernoan zehar. Epaille eta abokatuek ezagutzen bazuten ere, ez zen zuzenbide doktrinal edo jaso izatera inoiz heldu, ezta beranduago ere, Oñatiko Unibertsitatea sortu zenean. Bizkaiko Foruaren gaineko lehenengo obra jakintsuak edo jasoak XIX. mendearen bigarren erdialdean idatzi ziren. Izan ere, Bizkaiak 1844 eta 1871 urte bitartean bakea izan baitzuen, Narvaez-en estatu kolpearen ondoren, Batzar Nagusiak eta Aldundiak berrosatu zirenean –beren organikotasuna gora-behera–. Garai hartako Bilbo hiriaren indar ekonomikoak bideratu zuen neurri batean Bizkaiko Foruaren gaineko azterketa berria. Edonola ere, Bizkaian Espainiako lurralde guztietako kodifikazioaren prozesu historikoan zehar aipagarria den faktore garrantzitsu bat partekatzen da, Unibertsitateen eta garaiko zientzia juridikoaren atzerapena, alegia.

Kodea lehen mailako obra intelektual bat izaki, Espainiako doktrina juridikoa ez zegoen garai hartan horrelako sintesi, sistematizazio eta kontzeptualizazio beharrei aurre egiteko gertu. Eskola Historiko katalanaren ordezkari nagusi izan zen Durán i Basek nabarmendu zuen Kodea egiteko denbora gehiago behar zela⁴². Jurista kataluniar ospetsuak uste zuen penintsulako doktrina juridikoa ez zegoela gertu nazioaren erakunde zibilen sintesia egiteko. Haren ustetan, Espainia ez zegoen gertu kode zibil bateratu bat aprobatzeko, bere doktrinaren heldutasun ezagatik, eta lurraldeetako erakunde zibilak bateratzeko ahaleginak huts egin zutelako. Savigny-k Alemanian defendatu bezala, aldarrikatu zuen itxaron egin behar zela kodeak erakunde horiek modu orekatuan jasotzeko maila zientifikoa eta sintesi egokia egiteko aukerak gertu zeuden arte⁴³. Durán i Ba-

⁴² DURÁN I BAS, M., *Memoria acerca de las instituciones del derecho civil de Cataluña*, 1883, 4 or.

⁴³ Gogora dezagun hemen Antoine D'ABBADIEK, 1880an Bugallal Justizia Ministroari zuzentzen dion gutuna, esanez Frantziako Kodeak nabarmen kaltetu duela Frantziako zuzenbidearen aplikazioa eta haren ondorio lazarri izan dela Iparraldeko zuzenbidearen murrizdura. D'ABBADIE, A., *Carta acerca de la legislación euskara*, *Revista Euskara*, III alea, 1880, 193-197 orr.

sen argumentazio erudituan nabarmentzen zen Kataluniako foru zuzenbidearen defentsa, gizarte zibilak erakunde propioei zien atxikipeena. Erakutsi nahi izan zuen erakundeok bazter batera uzteak protesta handiak eragingo zituela Katalunian –eta neurri handi batean horrela izan zen– kodearen kontra. Bestalde, ez zen Frantziako kodea besterik gabe mailegatzearen aldekoa, Alemaniako Eskola Historikoarekin bat zetorren horretan ere, esaten zuenean herri bakoitzak berezko zituela bere erakunde zibilak eta horiek inportatzeak ez zuela emaitza onik emanen.

Nafarroan, Euskaroen mugimenduak antzeko posizio bat adierazi zuen Kode Zibilaren gainean. Euskarok mugimendu abertzalea izanik ere, Estatuaren batasuna ez zuten auzitan jartzen. Horrela bada, 1880an Nafarroako Euskaroen elkartearen *Euskara* aldizkarian argitaratzen da Allende Salazar abokatuaren Espainiako kodifikazioaren kontrako lana⁴⁴. Jurista nafarraren ustez Kodifikazioa beharrezkoa da Espainiako zuzenbide pribatuak sistematizatu eta eguneratzeko, baina ez dago ados kodifikazio lan hori egiteko Gobernuak proposatzen duen ereduarekin. Salatzen du, lehenik, uniformizazioaren borondatea. Europa mailan garaian bizi zen botereen zentraltasuna eta «estataltria» kaltegarriak iruditzen zaizkio herrien biziraupenerako. Espainiaren kasuan zuzenbide pribatua eguneratzeko eta ordenatzeko proposatzen den eredu uniformizatzailea da, foru zuzenbideak albo batera uzten dituen, dela kanpoko eredu bat hobesten duelako, Napoleon kodea kasu, edo eta Gaztelako zuzenbidea ezarri nahi duelako lurralde guztietan. Zergatik hobetsi behar ditugu Frantziako zuzenbidearen erakundeak gureen gainetik Europa osoan zuzenbide pirenaiakoaren aitortza bizia egiten denean? Zergatik baztertu lurraldeetako zuzenbideak Gaztelako zuzenbidearen aurrean? Ez zaio egokia iruditzen 1851ko Kode Zibil proiektuaren egile izan ziren García Goyenaren eta Luzuriagaren ahotsetan jartzen duen irtenbidea, «eklektikoa», zeinaren arabera kode bat egingo den Gaztelako zuzenbidearen erakundeak Estatu osora zabalduz non foru zuzenbideetako erakunde bakan batzuk ere kontuan izango ei diren. Arbitrarioa iruditzen zaio irtenbide hori eta foru zuzenbideen biziraupenaren kontrakoa. Azkenik beraz, bere proposamena egiten du: osa daitezela bost kode, Espainiako foru zuzenbide bakoitza jasotzen duena⁴⁵.

⁴⁴ ALLENDE SALAZAR, A., La codificación civil y las legislaciones forales, *Revista Euskara*, II alea, 1879, 33- 54 eta 65-77 orr.

⁴⁵ «Fórmense cinco códigos en lugar de uno solo... cierto es que no tendrá España un solo Código civil sino cinco... pero tendrá que reconocerse que mas valen cinco buenos Códigos civiles que un millon de leyes visigóticas, romanas, feudales, francesas, indígenas, anticuadas unas, vigentes otras, dudosas muchas, contradictorias bastantes, que hoy causan la desesperación de los litigantes y hasta de los letrados, especialmente de Castilla y de Cataluña, cuyas legislaciones mas restrictivas menos

Baziren ordea, kode bakarraren aldeko ordezkari lurraldetarrak, Aragoiko ordezkariak kasu. Joaquín Gil Berges, Zaragozako Abokatu kolegioaren dekanoa eta 1880ko *Congreso de Jurisconsultos aragoneses* delakoaren bultzatzaileak uste zuen Espainiako Kode Zibila atzeratzen ari zenez, Aragoik bere kodea egin behar zuela 1851eko proiektuaren artikulua jaso, Aragoiko zuzenbidearekin bateragarri ziren neurrian, baina erakunde propioei uko egin gabe. Etor-kizunerako defendatzen zuen Aragoiko erakunde zibilak jaso behar zirela Kode orokorrean, horiek Espainiar guztien kode zibil nazionalean jasotzeko homologaturik egon zitezten. Jarraian ikusiko dugunez, 1880ko Martínez Bugallal Ministroaren dekretuak bertan behera utzi zuen asmo hori, egitasmo zaila zelarik edonola ere⁴⁶.

2. Proiektu bateratzaileak: 1821, 1836 eta 1851ko García Goyenarena

Kodea onartu zen garaiko autore batek, Felipe Sánchez Román Madrilgo Unibertsitateko irakasleak, gerora klasiko bihurtuko zen periodifikazio bat proposatu zuen Espainiako Kode Zibilaren elaborazioaren historia azaltze aldera⁴⁷. Madrilgo Unibertsitateko profesorearen aburuz lehen etapa 1812. urtetik 1880. urtera luzatzen da, non Espainia osorako kode bakar baten ideiak porrot egiten duen. Kode Zibila egiteko 1880. urteko Oinarri Legeari esker zuzenbide lurraldetarren auzia bideratzen denean sartzen da kodifikazioa «gauzatze-etapan» (*etapa de consumación*), ordu-artekeo proiektu guztiek huts egiteko arrazoi nagusizat hartzen duelarik foru zuzenbidearen arazoa ezin bideratu izana.

Kodifikazio ibilbide luzearen lehen etapa 1812ko Cadiz-ko Konstituzioak (José Deunaren egunean onartu zelako «La Pepa» ezinenez ezagutzen zenak) abiatu zuen. Espainiako lehen Konstituzio liberalaren 258. artikulua honokoa ezartzen zuen: «El Código civil y criminal, y el de Comercio serán unos mismos para toda la Monarquía, sin perjuicio de las variaciones que por particulares circunstancias podrán hacer las Cortes».

Testuak aipatzen dituen «moldaketak» (*variaciones*) Amerikako kolonien independentzia-aurreko egoera begiztatzen zuten, ez ordea Foru lurral-

expansivas (sic), mas formularias, menos liberales que las de Vizcaya, Navarra y Aragon, cansan al que las cultiva y al que las estudia por la prodigalidad y por la minuciosidad de sus estrechas y rutinarias leyes». ALLENDE SALAZAR, A., *op. cit.*, 77 or.

⁴⁶ GIL BERGES, J., *Discurso pronunciado en el Congreso de los Diputados, sobre el Proyecto de Ley de Bases para la formación de un Código civil*, Zaragoza, 1885.

⁴⁷ SÁNCHEZ ROMÁN, F., *La codificación civil en España en sus dos periodos de preparación y de consumación*, Madrid, 1890.

deena⁴⁸. Edonola ere, Gorte Konstituziogileek laburki eztabaidatu zuten Espiga Gadea diputatuak proposaturiko artikulua hori. Eztabaida horretan agertzen da lehen aldiz Lázaro Dou Kataluniako diputatuaren Foru zuzenbideen aldeko aldarria⁴⁹. Gehiengoak artikulua alde eman zuen botoa, uste baitzuen Kodeak egitea aurretik indarrean zeuden lege multzoak ordenatu eta sistematizatzea besterik ez zela⁵⁰.

Erreakzio absolutistak eten egiten du 1812ko Konstituzioaren aplikazioa, zeina ez baita indarrean sartuko 1820an Fernando VII. horretara behartzen duten arte. Batzorde berezi bat izendatu zen orduan, Nicolás Garelly eta beste diputatu batzuk osatua, zeinak kodearen lehen proiektu proposamena egiten duen 1821. urtean. Kode-proiektu horrek 476 artikulua zituen eta lehen liburuak besterik ez zituen garatzen. Egituraren ikuspegitik, garai hartan hegemonikoa zen Napoleon kodearen ordenatik aldetzen da, Bentham-en doktrinari jarraiki, zuzenbide zibil eta penaleko arauak jasotzen dituelarik. Edukiari dagokionez, nabarmen agertzen da Gaztelako zuzenbidearen erakunde tradizionalak besterik ez jasotzeko asmoa⁵¹. Garelly-k berak Gorteei proiektua azaltzen dienean adierazten du *Fuero Juzgo*-an eta *Partidas*-etan jasotako erakundeak hautatu dituztela, izan ere bi testu horietan arau klasikoak baitaude, zeinak erabilgarri diren orain eta beti, modak eta azaleko berrikuntza beharrak alde batera utziz gero⁵².

Gaztelako zuzenbidearen arau masa heterogeneoa sistematizatzea zen helburu nagusia, ez ordea gizarte-ordena berri bat sortzea. Horregatik, hizpide dugun lehen 1821eko kode-proiektuari buruz esaten dute Ana Barrero-k eta Adela Mora-k «oinaztura handi eta euri gutxi»-ko aldarrikapenak egin zirela

⁴⁸ LACRUZ BERDEJO, J. L., *Elementos de Derecho Civil. Tomo I. Parte general. Volumen I. Introducción*, Dykinson, 2006, 45 or.

⁴⁹ ESPIGA GADEA diputatuak Espainia osorako kode bakar baten aldeko aldarrikapena egin zuen saioan bertan, egiten du LÁZARO DOU-k Zuzenbide lurraldetarren defentsa: «no prosperará la empresa si no se tienen en cuenta todos los códigos de nuestra legislación [...]. En dónde están las Constituciones de Cataluña? En dónde los Fueros de Aragón? En dónde las leyes de las Provincias Vascongadas», *Diario de Sesiones de las Cortes Generales y Extraordinarias*, Sesión de 5 de febrero de 1811, T.I, Madrid, 1870, 500-501 orr. Aurrekoari jarraiki Kataluniako beste diputatu baten hitzaldia, ANDER DE ESTEVE, *Ibid.* 503 ot.

⁵⁰ BARÓ PAZOS, J., *La codificación del Derecho civil en España (1808-1889)*, Santander: Servicio de publicaciones de la Universidad de Cantabria, 1992, 54 or.

⁵¹ PESET REIG, M., Análisis y concordancias del proyecto de Código Civil de 1821, *Anuario de Derecho Civil*, 28, 1975, 29-100 orr.

⁵² Honela mintzatuko zen Garelly Gorteen aurrean: «en ambos se hallan muchísimas decisiones de justicia y de utilidad tan notoria e inalterable, que no podrían ser desanteadidas sino por la frivolidad o por el espíritu inquieto de innovarlo todo». GARELLY, N., *Discurso Preliminar al Proyecto del Código Civil que presenta la Comisión especial de Cortes, nombrada el 22 de agosto de 1820*.

bertan⁵³. Izan ere, Espainian ez baitzen egon, Frantzian gertatu zen bezala, kodearen bitartez pribatuen arteko harremanen eta familiako erakundeen sakoneko eraldatze bat aurrera eramateko asmorik; kodearen ideia aurreko zuzenbidearen errebisio soilean oinarritu zen penintsulan⁵⁴.

Hirurteko liberalaren amaierako krisiak eragotzi zuen 1821eko proiektuaren garapena eta aprobazioa. Gerora etorri ziren 1933ko Gorosabel-en proiektu pribatua⁵⁵, eta 1834an Cambronerok zuzenduriko kodifikazio batzordeak proposaturiko⁵⁶.

Cambroneroren proiektu amaitu gabe horretan oinarritu ziren Ayuso, Tapia eta Vizmanos 1836ko Kode proiektua sortzeko⁵⁷, zeinean lehen aldiz Kode Zibil osotu bat proposatzen den, Espainiako zuzenbide zibilaren bateratzea helburu zuena⁵⁸. Garaiko turbulenzia politikoek galarazi zuten baina aipatu proiektu kodifikatzaileak emaitzarik izan zezan⁵⁹, harik eta 1843. urtean Kodifikazio Batzorde Orokorra sortu zen arte⁶⁰. Kodifikazio zibil eta penalaren oinarriak eta proze-

⁵³ BARRERO, A. eta MORA, A., Algunas reflexiones en torno a la codificación civil (mucho ruido y pocas nueces), *Anuario de Historia del Derecho Español*, (Ejemplar dedicado a: En memoria de Francisco Tomás y Valiente), 67, 1997, 243-260 orr.

⁵⁴ Carlos Petiten ustez baldintza horiekin, azken emaitza, «kode hutsala» izan zen «el código inexistente». PETIT, C., El código inexistente. Por una historia conceptual de la cultura jurídica en la España del siglo XIX, *Historia Contemporánea*, 12, 1995, 49-90 orr.

⁵⁵ Gorosabelek ongi ezagutzen zuen Forua, halabaina bereizketa bat egiten du zeinaren arabera zuzenbide publikoari zegozkion arauen berezitasunak gorde behar zirela aldarrikatzen zuen bitartean, Espainiako erakunde pribatu guztien batasuna eta uniformitatea defendatu zuen. Tolosako juristak publikatu zuen *Examen de los principios del Derecho civil español* (1934) obran esango du «donde la identidad de religión, semejanza de costumbres y poca diferencia de clima une a diversas provincias, pueden dictarse disposiciones igualmente buenas para la generalidad de ellas, y las que convengan a las Castillas ser útiles a la Navarra». Ikus, autore honi buruz, SORIA SESÉ, L., Del primer Código Civil a la Historia del Derecho Público. Pablo de Gorosábel (1803-1868), *Notitia vasconiae*, 1, 2002, 321-342 orr.

⁵⁶ Fernando VII.aren gobernu absolutistaren garaian, Manuel María de Cambronero jurista frantses-tua, aurretik Merkataritza Kodearen batzordean izandakoa, izendatu zuten Kode Zibila egiteko 1832ko maiatzaren 27ko Errege Aginduz. 1834ko urtarrilaren 5ean hil zen proiektua amaitu gabe utzi zuelarik.

⁵⁷ Fernando VII.a hil eta gero, 1834ko urtarrilaren 14an, Nicolas Garely, 1821eko proiektuaren autorea, izendatu zuten Justizia Ministro, baztertze politiko luze baten ondoren. Martínez de la Rosak zuzentzen zuen Gobernu berrian. Urte betez izan zen Ministro eta epe horretan Batzorde bat izendatu zuen, Parlamentuz kanpoko jurista adituekin osatua, Kode Zibilaren proiektua egiteko, zeinak 1836ko irailaren 15ean aurkeztu zuen Kodearen lehen proiektu osotua.

⁵⁸ Gorteen aurrean aurkeztu zen egitasmoa 1836ko azaroaren 16an, baina, Martínez de la Rosaren gobernuaren eroriz geroztik, Gorte konstituziogile berriek ezin izan zuten proiektua tramitatu.

⁵⁹ Berrogehigarren hamarkadan zabalkunde urria izan zuen proiektu pribatu bat aipatu behar da, 1843ko José María Fernández De la Hoz Justizia Ministro izandako ordezkari politiko kontserbadorearena. FERNÁNDEZ DE LA HOZ, J. M., *Código civil redactado de acuerdo con la legislación*, Madrid, 1843.

⁶⁰ Errege Dekretua, 1843ko abuztuaren 19koa.

duren batasunerako arauak idaztea zen Grazia eta Justizia Ministerioaren baitan sortu zen organo horren zeregin nagusia. Ataza horri erantzuteko, lau ataletan banatu zuten Batzordea: Kode Zibilarena, lehena; Kode Penalarena, bigarrena; hirugarrena, Prozedura zibilarena eta azkena zigor prozedurarena. Batzordea 18 bokalek osatzen zuten, eta Presidente Manuel Cortina izan zen, nahiz eta hurrengo urtean Bravo Murillok hartu zuen aurrekoaren lekua. Kode Zibilak ordea, ez zuen aurrera egiten. 1846an, Batzordeari eraginkortasuna eman nahian bokalen kopurua murriztu beharra zegoela eta osaketa berria eman zitzaion. Ordurako Kode Penala egina zegoenez, bi ataletara ekarri zen Batzordea: Kode Zibilarena, lehena, Florencio García Goyena nafarrak zuzendua, zeinean parte izan zen Anton de Luzuriaga donostiarra; eta bigarrena prozedura zibil eta kriminalarena⁶¹.

Aipatu Batzordearen lehen atalak aurkeztu zuen 1851ko Kode Zibil espainiarraren proiektua, García Goyenaren proiektu bezala ezagunagoa dena. García Goyena diputatu liberala izan zen Cadizko Gorteetan, eta horren ondorioz Frantziara erbesteratua⁶². Gobernu isabeldar liberalaren garaian, Kodifikazio Batzordea zuzendu zuen eta bere ikuspegi ilustratu eta frantsestua inposatu zuen proiektuaren idazketan. Napoleon kodean oinarritzen zen bete-betean dela edukiei eta baita egiturari dagokionean. Frantziakoaren epigonotzat jo zitekeen forma eta funts aldetik⁶³. Atariko Titulua eta hiru Liburutan banatua, dibortzioa bezalako erakundeak jasotzen zituen eta Elizari kentzen zion erroldaren kontrola, Erregistro Zibil berria sortuz. Frantziakoaren eragina nabarmena zen beraz lehen Liburuan. Aldiz, jabetzaren eskualdaketa buruzko tituluan eta oinordeztan desberdintasun ugari atzematen dira bi kodeen artean.

García Goyenaren proiektua frantsestuegitzat jo zen Espainian, baita garaiko liberalen begitan ere⁶⁴. Horrez gain, lurralde ordezkarien iritziz, gaztela-zalea eta foruen kontrako zen⁶⁵, izan ere, azken artikulua, 1992.ak, zuzen-

⁶¹ LASSO GAITE, J. F., *Crónica de la codificación española, vol. I*, Ministerio de Justicia, 1998, 67 or.

⁶² REPÁRAZ PADRÓS, M., García Goyena: biografía de un jurista liberal (una aportación al estudio de la codificación civil española), *Anuario de Historia del Derecho Español*, 66, 1996, 689-827 orr.

⁶³ Lacruz Berdejok García Goyenaren obraren edizioan jasotzen ditu taula baten bitartez 1851ko proiektuaren eta 1889ko Kodearen arteko korrespondentziak. Lacruz-ek demostratuko du onartutako kodearen 65% aurretiazko 1851ko proiektutik zuzenean hartua zela. LACRUZ BERDEJO, José Luis. Las «Concordancias» de García Goyena y su valor para la interpretación del Código Civil, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*. 1974, 289-302 orr.

⁶⁴ Federico de Castro y Bravo autorearen esanetan proiektua halakoa zen: «*Moderadamente progresista, decididamente liberal y excesivamente afrancesada*». DE CASTRO Y BRAVO, F., *Derecho civil de España, Parte General*, I, 3. a., Madrid, 1955, 210 or.

⁶⁵ Autore garaikideen artean, SÁNCHEZ ROMÁN, F., *op. cit.*, 35 or; gure artean, SALINAS QUIJADA, F., *Navarra en el proyecto isabelino de Código Civil de 1851 y en las concordancias de García*

bide zibil propio guztiak desematzen baitzuten kolpe batez araudia zibil bakar uniforme bat ezarriz lurralde guztian. Alta, Florencio García Goyena nafarra bera ez omen zen foruen kontrakoa⁶⁶. Bestalde, jakina da Anton de Luzuriaga, 1839ko legealdian Diputatu izan zena, Gipuzkoako Foruen alde mintzatu zela Parlamentuan.

Allende Salazarrek eklektikotzat hartzen du 1851ko proiektua, alegia, ez guztiz uniformizatailea baina ezta ere foru lurraldeen sistema propioak errespetatuko dituen. Praktikan, erakunde bakan batzuk salbu uzten baditu ere, nabarmen adierazten du jurista nafarrak Kode bakar horren promulgazioak foru lurraldeetako familia, oinordetza eta ondasunen antolamenduan izango zukeen eragin suntsizatailea⁶⁷.

Gobernuaren aldaketak albo batera utzi arazi zuen 1851ko proiektua, González Romero, Grazia eta Justizia Ministro moderatuak ez baitzuen Gorreetan aurkeztu. Horren ordez, *El Derecho Moderno* aldizkaria sortu berria publikatu zen. Ministroaren azalpena foru-legeen bazterreratzeak ekarri zuen haserrea izan bazen ere, izatez, Eliza katolikoarekin jarduneko negoziazioak hasiak zeuden ordurako, non eta hilabete batzuk geroago sinatu baitzuen Espainiako Estatuak Vatikanorekin Konkordatu, ezkontza zibilaren hautua bazterturik geratu zelarik.

Goyena, Pamplona: Principe Viana, 1984, eta NAGORE YÁRNOZ, J. J., *Compilación de Derecho Navarro*, 1965, 357 or.

⁶⁶ Salvador Coderchek erakutsi du 1851ko proiektuaren egileek gogoan izan zituztela beren delibrazioetan foru lurraldeetako hainbat erakunde, zenbaitetan zuzenean txertatu zituztenak (*testamento nuncupativo* eta *rabassa morta*, direlakoak kasu), bestetan behin behineko biziraupena aitortu zietenak (ezkontzatatiko kapitulazioak kasu, zeintzuri kodea onartuz geroztik 10 urteko epea ematen zaien), eta badira ere esanbidez aipatu eta baztertzen diren erakundeak ahokadura egokirik ez dutelakoan «por su imposible ubicacion en el sistema como ocurre con las instituciones de derecho sucesorio: testamento sacramental catalan o de hermandad en Navarra, o cuando al tratars de las formas de testamento se prescinde de derecho foral «para no introducir novedad en nuestra legislacion». SALVADOR CODERCH, P., El proyecto de Código de Derecho Civil de 1851 y el Derecho Civil Catalán, *Revista jurídica de Cataluña*, Vol. 79, 1, 1980, 98 or. Ikus halaber, MALUQUER DE MOTES, C., El Código civil o la codificación del derecho castellano, *Centenario del Código civil (1889-1989)*, II, 1989, 1205-1229 orr.

⁶⁷ Angel Allende Salazarek «jarrera eklektikoa» esaten dion honi buruz zera irizten du 1881ean: con vistas a un solo Código, tomar de cada uno de los cinco sistemas las instituciones mas extensibles a toda España. «este sistema mixto y contemporizador, que representaron por ejemplo en nuestra Comisión de Códigos los insignes juriscultos García Goyena, Luzuriaga y algunos otros es tan despótico como todos los que aspiran a la uniformidad, pues destruye todas las legislaciones existentes en nuestra patria, tolerando cuando mas algunas instituciones, innovando de todos modos el derecho privativo de cada provincia, introduciendo una espantosa confusion en todo orden jurídico de nuestra patria, y abriendo camino para que los legisladores del día de mañana den preponderancia a la legislacion aragonesa como los de hoy se la dan a la castellana, y los de pasado mañana pueden darse a la catalana, a la navarra o a la vizcaina» ALLENDE SALAZAR, A., *op. cit.*, 72 or.

Edonola ere, 1851ko proiektuak garrantzia esangarria izan zuen gerora indarreratu zen Kode Zibilaren aurrekari zuzena izan baitzen. Mendearen azken laurdeneko Ministroek, liberal zein kontserbadoreek –Bugallal, Silvela, Alonso Martínez– proiektu hura hartu zuten erreferentzia nagusitzat, eta hori agindu zuen eskuarki 1888ko Kode Zibilaren Oinarri legearen lehen oinarriak.

Proiektua aurkeztu zen unean ordea kritika latzak egin zitzaizkion ez bakarrik esan dugunez, garaiko politikarien aldetik, baita doktrinaren aldetik ere⁶⁸. Hortaz, kode-proiektua azaldu eta jasotako gaitzespena gainditze aldera, García Goyenak doktrinazko obra bat argitara eman zuen hurrengo urtean: *Concordancias, motivos y comentarios del Código civil español*⁶⁹, non proiektuaren artikuluen nondik norakoak komentatzen zituen, beren jatorria –hein handi batean Code Napoleonetik hartuak zirela, bada– eta esanahia azalduz. Obra hura garrantzia handikoa izan zen Espainiako juristen artean, harekin hasi baitzen garatzen indarrez unibertsitateetan doktrina zientifikoa, zuzenbideko ikasketa plan berrien abaroan. *Concordancias* obrari esker betirako García Goyenaren izenari loturik geratu da 1851ko proiektua, ikusi dugunez, batzorde baten lana izan bazen ere.

Alta, esanguratsua da nola Espainiako Kode zibilaren aurrekari zuzena Frantziako Kode zibilean oinarritutako obra bat den, haren autore nagusiak zintzo aitortzen duen moduan. Desberdina ez ote zatekeen izango emaitza Espainian doktrina juridiko eta historiografiko indartsu bat egon izan balitz, ordenamendu zibil historikoen lanketa sakonago bat egiteko gai izango zena, Frantzian *Codearen* funts izan ziren aipatu Daguessau, Bourjon nahiz Pothierren ereduari jarraiki, nahiz Alemaniako BGBaren oinarrian egon ziren Eskola germanista eta pandektistak, edo eta Suitzan kantoietako aniztasun aberatsa bateratzeko gai izen zen Eugen Huber bat egon izan balitz?

3. Lege berezi bateratzaileak (1854-1875)

García Goyenaren kode-proiektuak hutsegín ostean, Kodifikazio lanak bazter batera utzi ziren. Kode Zibilaren egitasmoa alboratu eta zuzenbidearen modernizazioa eta batasuna erdiesteko beste estrategia xumeago batera jarri zen kodifikazio batzordea. Garai horretan Kodifikazio Batzorde Orokorren presi-

⁶⁸ Doktrina garaikidearen kritikaren ikuspegi zabal bat ematen du REPÁRAZ PADRÓS, M., *La crítica contemporánea al proyecto de Código civil de 1851*, *Anuario de Derecho Civil*, 1997, 1015-1220 orr.

⁶⁹ GARCÍA GOYENA, F., *Concordancias, motivos y comentarios del Código civil español*, Madrid, 1852.

dente zen Juan Bravo Murillok esana omen da: «Kolpe batean ezin bada, egin dezagun Kode Zibila zatika». Hartara, hurrengo hogeit urtetan, lege sektorial bateratuak aprobatu ziren behar premiazkoenei erantzuteko⁷⁰.

Kodifikazio Batzorde Orokorren baitan 1854. urtean batzorde berezi bat izendatzen da Prozedura Zibilaren Legea osatuko duena. Lege horrek segida ematen dio aurretik plazaratutako beste hainbat arau orokorrei: jaurerri legeak 1811, 1823, 1837; ondasun mostrenekoen legea, 1835; desbinkulazio legeak 1820, 1836; ehiza eta arrantza legeak, 1834, eta abar. Eduki zibilen ikuspegitik, berriz, eragin nabarmena aipatu Judiziamendu Zibileko 1855eko arauak izan zuen, zeinak zuzenbide foraletan jasotako hainbat gai erregulatu zituen, hala nola, Bizkaiko eta Nafarroako foruek onibarrak familian gordetzeko atzera-eskuratzeko edo foru-saka eskubidea, zeinaren bitartez jatorrian urte beteko epean baliatu ahal zena, bederatzi egunetara mugatu baitzuen Judiziamendu Zibileko Legeak⁷¹.

1856tik aurrera eta 1868ko iraultza arte, Manuel Cortina, Kodifikazio Batzordeko presidentearen agintepean⁷², hipoteka legea, 1861; notaritzakoa, 1862; eta ur legea, 1866 promulgatzen dira. Aipatu lege berezien gaineko jurisprudentziak, bestalde, eragin uniformizatzaile nabarmena izan zuen. Auzitegi Gorenaren interpretazioaren arabera Espainiako lurralde osoari zabaldu behar zitzaion lege hauen eragina, foru zuzenbideetan araututa zeuden xedapenak eta erakundeak bazter batera uzten baziren ere.

Seiurteko demokratikoaren garaian arau zibiletara ekartzen ditu Gobernuak 1868ko iraultza sozialaren lorpen ugari. Eugenio Montero Ríos Ministro liberalaren eskuetatik irteten dira, garai horretan, Erregistro Zibilaren Legea, Ezkontzaren zibilaren Legea, Kode Penal, Judiziamendu Kriminalaren Legea eta beste. Ezkontza Zibilaren legea 1870eko ekainaren 18an indarreratu zen. Lege horren ondorioz erakunde zibil izatera pasa zen ezkontza, Elizaren esku-menetik atera eta, 1869ko Konstituzioak aitortutako kultu askatasunari jarraiki, esku sekularretara ekarriz. Legeak ez zuen ordea dibortzioa onartzen, zioen

⁷⁰ TOMÁS Y VALIENTE, F., *Códigos y constituciones, 1808-1978*, Madrid: Alianza Universidad, 1989, 91 or.

⁷¹ Obanos eta beste jurista nafar batzuk sinatzen duten txostenean galdegiten dute, Judiziamendu Zibileko Legea egokia al zen, ordea, foru erakunde bat suntsitzeko. OBANOS, Esteban *et al.* Dictamen relativo a las instituciones forales que deben conservarse en el Código Civil español, *Revista Euskara*, T.III, 1880, 167 or.

⁷² 1856ko urriaren 1eko Errege Dekretuak Kodifikazio Batzorde Orokorra berrantolatu ondoren, Manuel Cortinaren presidentziapen, bertako kide izan ziren Pedro Gómez de la Serna, Pedro José Pidal, Manuel Seijas Lozano, Pascual Bayarri, Juan Manuel González Acevedo, José Ibarra, Manuel García Gallardo eta Francisco de Cárdenas.

azalpenak esaten zuen moduan, «ondorio kaltegarriak ekarri baitzituen onartzen zen herrietan»⁷³, baina, posible zen ezkontideak banandurik bizitzea, banatzeak ezkontzaren efektuak eteten zituelarik⁷⁴.

Ezkontza Legea promulgatu aurreko egunean, 1870eko ekainaren 17an publikatu zen Erregistro Zibileko legea. Ezkontzaren lege-testuarekin gertatu bezala, Erregistro zibileko legea ez zen Kodifikazio Batzordean landu, Montero Ríos-en langintza pertsonala izan zen. Legearen helburua zen, zioen azalpenak esaten zuen moduan, «ordura arteko eliza-erregistroen eta Erregistro Zibilaren arteko konpetentziak bereiztea, egoera zibilaren frogara egingo zuen benetako Erregistro bat sortuz, egitateen kalifikaziorako eta inskripzioetarako epailetzaren bermea izango zuena»⁷⁵. Legeak azpimarratzen zuen XIX. mendeko gizarte hiritartu eta konplexuago batek horrelako bermea eskatzen zuela⁷⁶. Epailetzaren esku uzten zen Erregistro Zibilaren funtzionamendua, antolakuntza hierarkiako bat ezarri, zeinaren buru egiteko Justizia Ministerioren barruan Erregistro eta Notaritzako Zuzendaritza Orokorra sortu zen.

Montero Ríos-en bi lege zibilen kontrako Elizaren erreakzioa hainbeste-koa izan zen, non Errestaurazioaren Gobernu berriak deseman egin zuen ezkontza zibilaren sistema. Cánovas del Castillo Erregeordetzaren Ministro zelarik, Francisco de Cárdenas Justizia Ministroak ezkontza zibil subsidiarioaren sistema ezarri zuen 1875eko otsailaren 9ko Dekretu bitartez. Horrez gain, balioa aitortu zien atzera-eraginkortasunez 1870az geroztik Elizaren aurrean ospatutako ezkontza kanonikoei⁷⁷. Orduetik dator oraindik ere indarrean den ezkontzaren eraentza bikoitza, kanonikoa eta sekularra, ondoren 1889ko Kode Zibileko V. Kapituluari jasoko dena.

⁷³ Legea 1870ko ekainaren 18koa, Ezkontza Zibilari buruzkoa, Hitzaurrea.

⁷⁴ Legea 1870ko ekainaren 18koa, Ezkontza Zibilari buruzkoa, 84. artikulua: «El divorcio no disuelve el matrimonio, suspendiendo tan solo la vida común de los cónyuges y sus efectos».

⁷⁵ *Ibid.*

⁷⁶ Ministroak Parlamentuaren aurrean azaldu zuenean, horrela adierazi zuen legearen zioa: «*Esta Ley procurará la necesaria institucionalización de un mecanismo de publicidad oficial acerca del estado civil de las personas... para la coordinación de los derechos que concurren en la materia, la prueba de estado civil de los ciudadanos, y su conocimiento ante las instancias jurídicas oportunas*». DURÁN RIVACOBÁ, R., Codificación y Registro Civil, ASOCIACIÓN DE DERECHO CIVIL (arg.), *Centenario del Código Civil (1889-1999)*, T.I, 1990, 746 or.

⁷⁷ Dekretua, 1875ko otsailaren 9koa, 6 art.: «El matrimonio contraído o que se contrajese con arreglo a los sagrados cánones, producirá en España todos los efectos civiles que le reconocían las leyes vigentes hasta la promulgación de la provisional de 18 de junio de 1870». 5. artikulua indarrean uzten zuen aldi berean Erregistro zibilaren aurreko ezkontza.

4. Kodifikazio Batzorde Orokorra, Kodearen Oinarri Lege-proiektuak (1875-1880)

Errestaurazioaren garaian, Gobernu kontserbadore eta liberalen alternantzia oinarritutako sistema politiko ustela dela medio, Alfontso XII.aren monarkia konstituzionalaren erregimenak egonkortasuna ekartzen du Espainiara. Aipatu Antonio Cánovas Del Castillo historialaria eta politikari kontserbadorea izan zen erregimen berriaren inspiratzaile nagusia. Berak eta Práxides Mateo Sagasta liberalak adostutako «turno»-etan oinarrituriko gobernuen segida bakesua zuen oinarri, emaitzak bermatzeko kazikeek erositako botoez baliatzen bazen ere. Erregimen berriaren legitimitatea 1876ko Konstituzioak ematen du, zeinak, formalki bada ere, Estatu modernoaren botere banaketa ezartzen duen: botere legegileari dagokionez, Diputatuen Ganbera eta Senatua bereizten ditu; Diputatuen Ganbera errolda-sufragio bitartez aukeratuko delarik eta, Senatua, Erregeak zuzenean aukeratua. Erregea da Estaburu eta haren esku geratzen dira exekutiboaren funtzio gehienak.

1876ko Konstituzioak ez zuen jasotzen Kodea egiteko prozedura berezirik. Metodoaren aukera Gobernuaren esku uzten zen, zeinak ikusiko dugunez Oinarri legearen bitartez bideratuko duen prozedura. Alfontso XII. heriotza goiztiarrak, María Crisínaren erregeordetza ekarri zuen. Pardoko Akordioaren ostean, Sagasta liberala izan zen Gobernu buru bost urtez. Etapa horretan onartuko da Kode Zibila, eta baita elkartzeko eskubidea, prentsa askatasuna, zinpekoen epaimahaia, eta beste lege aurrerakoi batzuk ere.

Errestaurazioko sistema politiko ustelaren mugek baldintzatutako produktua izan zen Kodea, Tomás y Valientek azpimarratu zuenez, ez hainbeste XIX. mendeko gobernu segida baten kate luzea, baizik eta Errestaurazioaren produktu berezitu eta tipikoa⁷⁸. eta baita gizakume gogotsu baten borondatearen fruitua: Manuel Alonso Martínez politikari liberala izan baitzen Kodearen azken bultzatzaile, 1876ko Konstituzioaren egile material izan zen moduan. Laurogeigarren hamarkadan berak aitortzen zuen argiro: «Nire ametsa Kode Zibilaren publikazioa da»⁷⁹. Zela Ministro moduan bere lagunak Kodifikazio Batzordearen buru jarri zituelako, zela Batzordearen Presidente izan zen garaian, proiektua osatzen joan, eta azkenean, zatika bada ere, proiektua aprobatazea lortu zuen.

Aipa dezagun jarraian, kodifikazio zibilaren azken etapa honetako zedarrrien berri.

⁷⁸ TOMÁS Y VALIENTE, F., *op. cit.*, 83 or.

⁷⁹ TOMÁS Y VALIENTE, F., *op. cit.*, 89 or.

5. 1880ko Álvarez Bugallalen Dekretua eta Foru Lurraldeetako Memoriak (1880-1887)

Esan dugu Kodifikazio zibileko lanen eten luze baten ondoren, Errestaurazioarekin sortzen dela berriro ere, Kode Zibilaren proiektua berrartzeko grina. Lanei lehenetsua emate aldera, 1875eko maiatzaren 10eko Dekretuaren aginduz, berriro ere heltzen dio Batzordeak Kode Zibila egitearen zereginari, nahiz eta helburua erdiesteko hamarkada luze bat behar izango duen oraindik. Errestaurazio garaiko Dekretuak atzera, bi ataletan bereizten du Kodifikazio Batzorde Orokorra: Atal Zibila⁸⁰ eta Kriminala.

Une hartan Kodearen gaineko adostasuna eragozten zuten auziak ezagunak dira: ezkontza zibilarena eta zuzenbide lurraldeetarrena. Ikusi dugu nola Elizarekin 1851an sinatu zen Konkordatuak arras leundu zuela lehen auzia, nahiz eta oraindik ere azpi-lan handia egingo zuen Vatikanok Errestaurazioko Gobernu kontserbadore zein liberalek ezkontzaren gaineko elizaren eskumena zabaldu zezaten. Bigarren gaiari dagokionez, lurralde tar zuzenbideei, alegia, bultzada bat jaso zuen Cánovas del Castillo-ren hirugarren Gobernu kontserbadorearen garaian Justizia Ministro izan zen Saturnino Álvarez Bugallalen eskutik.

Ministroak ikusmolde berriz planteatu zuen foru zuzenbideen auzia. Hala nola, 1880ko otsailaren 2ko Dekretua plazaratu zuen, zeinak 1876ko Konstituzioaren aginduari jarraiki, zuzenbide lurraldeetarrak kontuan hartu behar zirela agintzen baitzuen. Hitzaurrean aitortzen duenez:

«Es hora de iniciar una política de transacción generosa que permita codificar el derecho civil... sin que sobre las instituciones de los derechos civiles forales pasara caprichosa y arbitrariamente, la segur niveladora de una igualdad quimérica».

Lehenik, agindu zuen Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Baskongadetako Probintziak, Balear Uharteak eta Galiziako lurraldeetako jurista bana inkorporatu behar zela Kodifikazio Batzordearen Lehen Atalera. Ondoren, aurreikusten zuen ordezkari horietako bakoitzak bere lurraldearen erakunde zibilei zegokien «Txosten» (*Memoria*) bat idatzi eta aurkeztu behar zuela Kodifikazio Batzordearen aurrean. Sei hilabeteko epean foru lurraldeetako ordezkariak Kodifikazio Batzordearen Plenoan edo «Junta Magna»-ren aurrean aurkeztu beharreko txosten horietan jaso ahal zena, honokoa: Lurralde Foral bakoitzean

⁸⁰ Atal zibilaren buru Florencio Rodríguez Vahamonde jarri zen hasiera batean, nahiz eta handik gutxira, 1878ko irailean, Alonso Martínezek hartu zuen, irmoki hartu ere, ataza hori. LASSO GAITE, J. F., *Crónica de la codificación española 1970-1980*, IV-1. alea, 334 or.

arras erroturik egoteagatik salbuespen moduan gorde behar ziren erakunde zibil nagusiak⁸¹. Azkenik, aipatu Dekretuak aurreikusten zuen etorkizunean erakunde horiek Kode zibil erkidean txertatuko zirela erakunde orokorren salbuespen gisara. Inflexio-puntu nabarmena ekarri zuen Dekretuak foru zuzenbidearen ordu-arteko trataerari zegokionean, ordutik aurrera kodearen prozedura bideratuko zuten arau guztiek Bugallal-en dekretuaren oinarriak jarraituko dituztelarik.

Garaian Kodifikazio Batzordearen buru zen aipatu Manuel Alonso Martínezek hartu zuen bere gain 1880. urteko dekretua osatzearen ataza. Alta, berrantolatatu berri zen Batzordearen «Junta Magna»-n deliberazioak hasi bezain pronto, ohartu zen eztabaida horiek ez zutela espero zen fruiturik emango, eta planak aldatu zituen: Kode Zibilaren oinarri lege bat aurkeztuko zuen Parlamentuaren aurrean.

Gobernuak prestatutako oinarriak aurkeztu zituen Alonso Martínez-ek Kodifikazio Batzordeko Lehen Atalaren aurrean 1881eko irailaren 9an. Bertan agertzen zen planaren arabera eta Bugallal-en dekretuan jasotakoari segida emanez, 1851ko proiektuan oinarriturik lan egingo zuen Kodifikazio Batzordeak, asmoa ei zelarik Batzordeak «irizpide askatasunarekin» egin zitzaizkion 1851ko kode proiektuak behar zituen egokitzapenak.

Foru zuzenbideei zegokionez, batetik, Kodera ekarri beharreko erakunde propioak hautatu behar ziren, espainiar guztiei aplikagarri izan zitezkeen; eta bestetik, lege berezi batean jasoko ziren behin-behineko biziraupena emanaz eskualde bakoitzean erroturik zeuden eta momentuz asimilatzerik ez zegoen jabe goari eta familiari buruzko erakundeak⁸². Formari dagokionez, erakunde propioak Eranskin (*Apéndice*) moduan gehituko ziren kodera. Horrez gain, Kodea

⁸¹ «En el término de seis meses, contados desde la fecha de su nombramiento, redactarán dichos Letrados una Memoria acerca de los principios e instituciones de derecho foral que por su vital importancia sea, a su juicio, indispensable introducir como excepción para sus respectivas provincias en el Código general; y también de aquellos otros de que por innecesarios o desusados pueda y deba prescindirse, concluyendo por formular su pensamiento en artículos. Llegado el caso de la discusión de las materias, como también de cualesquiera otras en que quieran tomar parte, podrán asistir a la Sección primera con voz y voto, a cuyo efecto serán convocados por su Presidente». Errege Dekretua, 1880ko otsaiaren 2koa, 4 art.

⁸² Horrela esaten zuen Legetasmoaren hitzaurreak: «para aproximarse a la uniformidad de la legislación en todo el Reino, se trasladarán al Código Civil en su esencia, las instituciones forales que por su índole pueden y deben constituir con ventaja común, el derecho general de los ciudadanos españoles [...]. En consecuencia con lo dispuesto en párrafos anteriores, con la publicación del Código civil quedarán derogados los Códigos romanos y las Decretales en las provincias donde hoy se aplican como derecho supletorio». *Proyecto de Ley de Bases para la redacción del Código civil*, de 22 de octubre de 1881, *Diario de las Sesiones de Cortes. Senado*, 1881ko urriaren 24ko saioa, 24 zkia.

lehen mailako iturri supletorioa izango zen, espresuki desematzen zituelarik Zuzenbide erromatarra eta Zuzenbide kanonikoaren indar supletorioak.

Alonso Martínezek Parlamentuaren aurrean Oinarri lege-asmoa azaldu zuenean, aldarrikatu zuen foru zuzenbideak errespetatuko zirela⁸³. Alabaina, Lege-asmoak harrera eskasa izan zuen Parlamentuaren eskumena nabarmen murrizten zuelakoan. Oinarriak eztabaidatzeko Ponentzia bat izendatu zuten Senatuan eta bertara jurista adituak gonbidatu zituzten. Ponentziak ez zuen ordea bere diktamena bideratzen.

Atzerapenaren aurrean, Alonso Martínezek legealdia amaitu aurretik Kodearen lehen bi liburuak bidali zituen Parlamentura⁸⁴. Liburu biak, 1880ko Dekretuan agintzen zen moduan, García Goyenaren kode proiektuari lotzen zitzaizkien estuki. Ezkontzaren auzian antzematen zen María Cristina errege-nordeak eta León XIII. Aita-santuak sinatutako Konkordatuak, zeinaren poderioz ezkontzaren gorabeherak Elizaren esku jarraitzen zuten. Parlamentuan erregistraturik geratu ziren, beraz, Kodifikazio Batzordearen presidenteak nahi zuen moduan Kode Zibilaren I. eta II. Liburuak. Ondoren, ikusiko dugunez, berriz ere sortu zen Ezkontzaren gaineko eztabaida, I. Liburuaren IV Titulua hainbatetan aldatu zelarik 1888ko Kode Zibilaren bertsiora heldu zen arte. Aldiz, III. eta IV. Liburuak foru zuzenbidearen erakundeekin egiten zuten talka, eta horien gaineko adostasun falta nabarmena zen Parlamentuan.

6. Bizkaiko Zuzenbideari buruzko Memoria

Lehen bi liburuak bideratu ostean, azken bien auzia bideratzeko Kodifikazio Batzordearen osaketa eta metodoa aldatzea erabakitzen du behin berriro Saturnino Álvarez Bugallal, Justizia Ministroak. 1882ko irailaren 23ko Errege Dekretuaren 1. artikulua ezartzen zuen aipatu liburuen eztabaida Batzordearen zuzenbide zibileko Atalean egin ordez, zuzenean Plenoan egingo zela⁸⁵, 3.

⁸³ *Ibid.*

⁸⁴ *Diario de las Sesiones de Cortes. Senado.* 1882ko maiatzaren 9ko saioa, 95 zkia. Ikus halaber, LASSO GAITE, J. F., *Crónica de la Codificación...*, 4-II. alea, 545-607 orr.

⁸⁵ Errege Dekretua, 1882ko irailaren 23koa, 1 art.: «... el calado de los trabajos de la comisión hace inútil su división en secciones. Para completar el programa de las reformas legislativas anunciadas por el gobierno de VM conviene apresurar el examen y aprobación de los dos últimos libros del proyectado código civil, y siendo precisamente en estos donde han de resolverse los problemas jurídicos que se relacionan con el régimen foral de varias provincias españolas, menester es que el gobierno, si ha de procurar el acierto en materia tan grave y trascendental, oiga a la comisión en pleno, dando entrada en ella, no solo a los representantes de esas provincias forales sino también a otras personas importantes que a su calidad de jurisconsultos reúnan la investidura de Senador o Diputado, a fin de llevar el proyecto al espíritu dominante en ambos cuerpos colegisladores».

xedapenean Plenoaren osaketa aldatzen zelarik, lurraldeetako ordezkariak boto eskubidedun bokal izendatuz, batetik, eta paritarioki, beste hainbat Diputatu eta Senatari, kondizio berean, boza eta bozka eskubidearekin, alegia⁸⁶.

Kodifikazio Batzordeari buruzko 1880.ko aurreko dekretua desematen zuen osaketa berri honekin, Ministroak izendatutako ordezkari foralek beren Memoriak egin zituzten. Dekretuak aipatzen zituen «Baskongadak» direlakoei buruzko txostena egitea Manuel de Lecanda bizkaitarrari egokitu zitzaion. Mungiako semea zen Lecanda, Valladoliden zuzenbidea ikasia, Bizkaiko Abokatu Kolegioaren Dekanoa, eta 1865.etik aurrera Bilboko alkate izango zena. Lecandak, Kodifikazio Batzordearen lehen ataleko bokal izendatu eta, 1881eko urtarrilaren 30ean, bertan aurkeztu zuen bere Txosten xumea, «*Sobre las instituciones civiles que deben quedar vigentes en las Provincias Vascongadas*» titulua zuena, 7 orrialdez osatua.

Aipatu Memoria labur horrek Bizkaia eta Arabako lurralde aforatuak besterik ez ditu begiztatzeko, «Enkartazioak, Lur Laua eta Arabako udalerrri txiki batzuetan bizirik dirauten berezitasun bakan batzuk», gainerako probintzietan ez omen zegoelako erakunde propio esanguratsurik⁸⁷. Txostenak Foruaren 1761eko edizioaren arabera 20, 21 eta 23 Tituluetako 16 Lege besterik ez ditu jasotzen. Foruan jasotako gainerako gutzia ez ei zen araudia zibila edo ez zegoen indarrean. Eta aukeratutako erakundeak ere aipatu baino ez ditu egiten, artikulatu berri batean jaso gabe -1889ko Dekretuaren 4. artikulatuak agintzen zuenari entzungor eginez. Lecandak bere herriaren erakundeekiko atxikipeena adierazten du lehenik, eta ondoren esaten du Txostena aukera bat dela erakunde horiek bermatzeko, Kode orokorrean txertatuz. Edonola, hasieratik gaztigatzen gaitu, bertan jasotakoa iritzi partikular bat besterik ez dela. Praktikan Lecandaren txostena ez zen gehiegi zabaldu Bizkaian, eta eragin eskasa izan zuen gerora etorri ziren lege-asmo eta proiektuetan. Lecanda-ren txostena ez zen gehiegi zabaldu Bizkaian, eta eragin eskasa izan zuen gerora etorri ziren lege-asmo eta proiektuetan⁸⁸.

⁸⁶ Errege Dekretua, 1882ko irailaren 23ko, 3 art. : «Miembros correspondientes, con voz y voto», Manuel Durán i Bas, Luis Franco y López, Antonio Morales Gómez, Manuel Lecanda y Mendieta, Pedro Ripoll y Palau, Rafael López Lago, Eduardo García Goyena, Letrado auxiliando sección primera; «Senadores», Eduardo Alonso y Colmenares, Telesforo Montejo y Robledo, Justo Pelayo Cuesta, Augusto Comas Arques; «Diputados», Santos Isasa, Antonio María Fable, Trinitario Ruiz Caodepon, Francisco de la Pisa y Pajares.

⁸⁷ LECANDA, M., *Sobre las instituciones civiles que deben quedar vigentes en las Provincias Vascongadas*, Madrid: Imprenta del Ministerio de Gracia y Justicia, 1889.

⁸⁸ MONREAL ZIA, G., Codificación civil y legislación foral de Vizcaya, *Anuario de Historia del Derecho español*, 83, 2012, 201 or.

Alonso Martínezek «*El Código civil en relación a las legislaciones forales*»⁸⁹ bere obran ondorioztatzen du, Lecandaren Memoriari jarraiki, hiru dira Bizkaian, oraingoz, gorde behar diren erakunde juridikoak: tronkalitatearen printzipioa bere forma propioekin; gurasoek beren oinordekoa aukeratzeko eskubidea, gainerako seme-alabak lur zati bat emanda apartatuz; eta ezkontideen arteko ondasun komunikazioa⁹⁰. Erakunde horiek lege berezi batean jasoko ziren, Kodearen Eranskin modura, Enkartazioetan eta Lur lauan aplikagarri izango zena; hiribilduetan, orain arte bezala, Gaztelako zuzenbidea eta etorkizunean Kodea aplikatuko zen. Bizkaiko araudiaren dualtasun horren gainean interesgarria da, garai horretan, Nafarroatik, Allende Salazar jurista gazteak *Revista General de Legislación y Jurisprudencia* aldizkarian argitaraturiko lana, hiribilduak Lur Lauaren araudira erakartzeko bitartekoak sustatuz⁹¹. Besteak beste, lan horrek aditzera ematen du foru lurraldeetako ordezkariak Euskal Zuzenbide Zibil desberdinen arteko interesa eta ezagutza ere izan zutela Kodea egiten ari ziren garaian.

7. Nafarroako Zuzenbideari buruzko Memoria

Nafarroako foru zuzenbideari buruzko Txostena egiteko, Kodifikazio Batzordearen Atal zibileko bokal Antonio Morales y Gómez abokatua izendatu zuten. Saturnino Álvarez Justizia Ministroaren laguna zen. 1884an aurkeztu zuen bere txostena, ostean Nafarroako Diputazioaren baimenarekin Iruñean argitara emango zena⁹². Obra horretan Moralesek aitortzen du enkarguaren zioa ez zela

⁸⁹ ALONSO MARTÍNEZ, M., *El Código civil en relación a las legislaciones forales*, Igo eta II. aleak, Madrid, 1884 eta 1885.

⁹⁰ *Ibid.*, 487 or.

⁹¹ Horrela dio jurista nafarrak: «Esta anarquía jurídica esta diversidad de legislación, estas dudas e incertidumbres que hoy preocupan a los letrados vizcaínos, tiene, sin embargo, facilísima solución adoptando un procedimiento que, basándose en elevado espíritu de patriotismo, respondiese al criterio de libertad, verdadero regulador, como hemos afirmado en la legislación privada. Las villas de Vizcaya, después de estudiar detenidamente este capital asunto, que a nuestro modo de ver, es por lo menos de tanta trascendencia como el importantísimo problema de derecho político que hoy se agita en dicho país, deben decidirse a pedir en las Juntas General de Vizcaya, y si necesario fuese al Gobierno Supremo de la Nación, el que se les permita equipararse a las Anteglesias y el que se les permita regirse en adelante por el Fuero de Vizcaya de 1526. Es este, en efecto, mucho más liberal, más expansivo, y sobre todo más vascongado que el rutinario y artificioso derecho castellano. Sus tres principios de comunicación foral, libertad de testar y troncalidad colocan a este Código muy por encima de la incoherente legislación de Castilla, que tan injusta es para la madre, y aún más, si cabe para el jefe de familia». ALLENDE SALAZAR, Ángel: El dualismo en la legislación civil de Vizcaya, *Revista General de Legislación y Jurisprudencia*, 54, 1879, 64 or.

⁹² MORALES Y GÓMEZ, A., *Memoria que comprende los principios é instituciones del derecho civil de navarra, que deben quedar subsistentes como excepción del código general; y los que pueden*

izan bere ezagutza, ez baitzen bere esanetan Nafarroako zuzenbidean aditua, Ministroarekiko gertukotasuna baizik⁹³.

Enkarguari izaera formalagoa ematearren bi txosten eskatu zituen Moralesek, Nafarroako Euskaroei, bata, eta Iruñeko Abokatu Kolegioari, bestea, esan zezaten zein erakunde gorde behar ziren Nafarroan etorkizunean Kode orokorrean txertatu asmoz⁹⁴. Euskaroen txostena Euskara Aldizkarian argitaratu zen 1881. urtean. Bertan aipatzen dute Obanos eta beste zazpi jurista nafarrek eskatu zaien lana gehiegizkoa dela, baina, edonola ere Nafarroako erakunde propio bazterrezintzat jotzen dituzte testamentua egiteko askatasuna, ezkontideen arteko foru-komunikazioa eta lurraren gaineko jabetzaren berezitasunak⁹⁵. Aipatzen dituzte erakunde hauen bizi-gogoia eta erabilpen handia eta salatzen dute Kode berdintzaile bakar batek eta Auzitegi Gorenaren jurisprudenzia uniformizatzaileak eragiten dituzten kalteak.

Informeak ez ziren Moralesen gustuko izan, Nafarroako erakunde propioen aitortza zabala egiten baitzuten. Txostenean beraz, ez zituen aipatu ere egin, eta, kritikei aurre hartuz, adierazi zuen agindu zitzaion Txostena erudizio akademikotik aldentzeko autua egin zuela, eta izaera praktikoa besterik ez zuela⁹⁶. Diputazioak publikatutako Memoriaren hitzaurrean aipatzen zuen halaber, Nafarroako zuzenbide zibil propioaren iturriek bizirik zirautela berak txostena egiten duen unean⁹⁷. Iturriak izendatzerakoan tradizio foralistari jarraitzen zion Moralesek, zeinaren arabera, 1841eko abuztuaren 16ko legeaz geroztik⁹⁸, Nafarroak ez baitzion inoiz zuzenbide zibil propioa aplikatzeari utzi⁹⁹.

desaparecer viniendo la unificación redactada con arreglo al RD de 2 de febrero de 1880, Pamplona: Imprenta provincial, 1884.

⁹³ *Ibid.*, II or.

⁹⁴ JIMENO ARANGUREN, R., Derecho civil navarro y codificación general española, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 83, 2012, 292 or.

⁹⁵ OBANOS, E. *et al.* Dictamen relativo a las instituciones forales que deben conservarse en el Código Civil español, *Revista Euskara*, III. alea, 1880, 167 or.

⁹⁶ MORALES, A., *op. cit.*, 5-6 orr.

⁹⁷ «A pesar de lo que decían las constituciones y estos mismos proyectos de apéndice, nunca, nunca se rigió Navarra, ni un día, ni una hora, por un Derecho que no fuera el suyo propio». MORALES, *op. cit.*, 11 or.

⁹⁸ Lege itundua, 1841eko abuztuaren 16koa. 2 art. «La Administración de justicia seguirá en Navarra con arreglo a su legislación especial, en los mismos términos que en la actualidad, hasta que, teniéndose en consideración las diversas leyes privativas de todas las provincias del Reino, se formen los códigos generales que deban regir en la Monarquía».

⁹⁹ Roldán Jimenok azpimarratu duenez, iturri propioen gaineko baieztapen hanpatu horri ñabardura ugari egin dakizkioke; izan ere, XIX. mendeko seigarren hamarkadatik aurrera nabarmena da Auzitegi Gorenak eta Iruñako Probintzi Auzitegiak nafarren auzietan Gaztelako zuzenbidea (*Leyes de Toro* nahiz *Novísima Recopilación* delakoak) aplikatzen duten epai ugari dagoela. JIMENO ARANGUREN,

Egitura aldetik, Lecandarenak ez bezala, 1851ko Kode proiektuaren artikulatua erabiltzen du erreferentziatzat txostenak. Moralesen ustez proiektuan jasotako zuzenbide erkidean Nafarroako erakunde propioak jasotzeko egin behar ziren «salbuespenak» honokoak ziren: testamentua egiteko eta ondasunak xedatzeko askatasuna, alargunaren usufruktua, ezkontzaren kontratua eraentza ekonomikoari dagokionean.

Moralesen txostenak oihartzun eskasa izan zuen, Lecandarenak bezala. Izan ere, hain zen handia etorkizuneko Kode Zibilak zuzenbide propio guztia desamango zuenari beldurra, non Memoria labur hori ongietorria izan zela Nafarroako erakundeen aldetik¹⁰⁰, eta zer esanik ez Kodifikazio Batzordearen ikuspuntutik¹⁰¹.

Edonola, guztiz murriztaileak eta laburrak izanda ere, Lecandaren eta Morales-en txostenak ez ziren, agi denez, Alonso Martínez, Batzordearen presidentearen begikoak izan, ez baitzuten Dekretuan aipatzen zen agindua betetzen, eta horren ordez bakoitzak bereari eusten zion¹⁰².

Roldán. *Derecho civil navarro y Codificación general española*, AHDE, 2012, 83 or. Moralesek berak Kode Zibila argitara eman baino hilabete batzuk lehenago, publikatzen duen obran aitortzen du Nafarroa indarrean dirauten iturri bakarrak Foru Orokorra, *Novísima Recopilación* delakoa eta 1829 arteko Gorteetako Kuadernoak direla. MORALES Y GÓMEZ, A., *Legislación foral de España. Derecho civil vigente en Navarra*, Madrid: Biblioteca judicial, 1888.

¹⁰⁰ Morales berak aipatzen du Memoria-ren hitzaurrean: «La Provincia de Navarra ve desaparecer el temor de imprudentes y radicales reformas que constantemente le han venido amenazando y llevada de su espíritu de unión a la madre patria en cuanto no se destruyese lo que aquélla necesitaba para su propia y especial existencia convino y consintió en el art. 2 de la ley pactada de 16 agosto de 1841 en someterse a los Códigos generales que se formasen y debiesen regir en la monarquía, y así lo hizo en los términos prudentes que contiene dicho artículo en armonía con el plan adoptado en los Reales Decretos de 2 y 16 Febrero 1880», MORALES, A., *op. cit.*, 7 or.

¹⁰¹ José María Antequera, idazkariak goraiatu egin zuen lana egitura eta eduki aldetik «un trabajo especial en su clase, un detenido y razonado estudio del proyecto de 1851 desde el punto de vista que interesa a la región navarra», JIMENO, R., *op. cit.*, 293 or.

¹⁰² Alonso Martínez-ek horrela hitz egin zuen Kongresuan Txostenei buruz, «... lo que se deducía de aquellas memorias presentadas por los vocales forales era que los catalanes querían regirse por la legislación catalane, los navarros por la legislación de Navarra, los aragoneses por la legislación aragonesa, y que por lo menos tenía que haber cuatro Códigos en España... la lectura de esas Memorias redactadas por los vocales forales me convenció de que por aquel procedimiento no llegaríamos nunca a una concordia... Entonces me pareció que debía aconsejar al Rey un Decreto en virtud del cual se mandaba reunir la comisión de códigos en pleno, reforzándola con cuatro diputados y con cuatro senadores que pudieran llevar a esta misma comisión el espíritu dominante en ambos cuerpos colegisladores», *Diario de Sesiones Cortes*, 1889ko apirilaren 17ko saioa, 2613 or.

8. Kode Zibilaren Oinarri Legea eta Kode Zibilaren 1888ko eta 1889ko publikazioak

Txostenen porrotaren aurrean beste bide bat asmatu zuen orduan Alonso Martínezek: kodifikazio batzordeak zuzendutako galdeketa bat iragarri zuen zehaztu asmoz zein ziren Gaztelako zuzenbidearen eta gainerako zuzenbide lurraldetarren arteko alde nagusiak¹⁰³.

Txostenak eta galdeketa errebisatu eta gero, Alonso Martínezek Kodifikazio Batzordearen Plenoa («Junta Magna»-ra) deitu zuen III. eta IV. Liburuaren oinarrien gaineko eztabaida burutu asmoz. Guztira 27 saio egin zituzten, 1882ko urriaren 14tik azaroaren 22ra. Eztabaida horien ondorioz akordio batzuk jaso ziren Plenoaren aktan non Gaztelako eta gainerako zuzenbideen arteko talka bideratzea zen helburu. Balio loteslerik ez bazuten ere, «Junta Magna»-k hartutako erabaki horiek Kode Zibilaren bigarren zatiaren artikulatua jaso ziren gerora.

Gobernu aldaketaren ondoriozko geldialdi berri baten ostean, 1884ko otsailaren 29an Francisco de Silvela Justizia Ministro berriak kodifikazioarekin aurrera egin dezan eskatzen dion Batzordearen Presidenteari ohar bidez. Alonso Martínezek bi azpiataletan banatzen du orduan Zuzenbide Zibileko sekzioa, III. Liburuari buruzkoa, Manresa eta Gutiérrez bokalei egokitzen zaiena; eta IV. Liburua, Gamazo, Igón eta Albacete ordezkarien esku utziko dena, lehenak zein bigarrenak Gaztelako zuzenbidean letratu-adituak.

Bestalde, Silvelak, aurreko legealdian Parlamentuan aurkeztutako Kode Zibilaren Oinarri lege-asmoa errekuperatu zuen¹⁰⁴. Ministro kontserbadorea, tradizionalisten ideietatik gertu zegoena, lurraldeetako erakunde zibilen auzia ebaztera deliberaturik zegoen. Horretarako Kodeari gehituko zaizkion Eranskin

¹⁰³ Gerora Alonso Martínezek foru zuzenbideen gainean idatzitako obran aditzera ematen duenez, Batzordeko Presidenteari aburuz bost baino ez ziren Gaztelako zuzenbidearen eta gainerako zuzenbide lurraldetarren arteko alde nagusiak: senipartekoak, oinordetza-askatasuna, Kataluniako fideicomisoa, seme-alaba naturalen eskubideak, alargunaren eskubideak eta «propter nuptias» kontratuak, ALONSO MARTÍNEZ, M., *El Código civil...*, I. alea, pp. 46-47.

¹⁰⁴ Silvelak 1885eko urtarrilaren 7an aurkezten du Legetasmoa, zeina Senatuan eztabaidatu baitzen otsailaren 19tik maiatzaren 4ra bitartean, ondoren Kongresura bidali zelarik 10 artikuluko batzorde mixtoa sortzeko, zeina 1885eko maiatzaren 8an izendatu zuten, Alonso Martínez buru zelarik. Debattea ekainaren 9an hasi zen, baina bigarren oinarria onartu eta gero bertan behera geratu zen ekimena, aurrekontuen legea eztabaidatu behar zela eta. Legetasmoaren zioen azalpenean esaten zenez: «... el trabajo que presenta ante las cortes es una sencilla continuación de sus trabajos y reproducción de sus principales propósitos en tal materia, si bien modificados en algún punto por virtud de los principios un tanto diversos que la escuela conservadora representa... lo verdaderamente útil es tomar la obra en el punto que la encontramos y seguirla, variando poco su plan, hasta conseguir su remate...», *Gaceta de Madrid*, 1885eko urtarriaren 24koa.

sistema bat asmatzen du non foru zuzenbideen erakunde nagusiak jasoko ziren. Alabaina, soluzio horren kontra agertu zen, Romualdo Cesáreo Sanz y Escartín Iruñeko Diputatua, foru zuzenbideen iturri sistema propioa ez baitzuen errespetatzen¹⁰⁵.

Silvelaren oinarrien lege-asmoak ere ez zuen aurrera egin. Foru zuzenbideaz gain, aspalditik zetorren beste arazo batekin egin zuen topo: ezkontzari buruzko hirugarren oinarriaren eztabaida hasi eta gerarazi egin zen tramitazioa. Alfontso XII. are heriotzaren eta Pardoko Hitzarmenaren ondoren, 1885eko azaroaren 27an, Alonso Martínez izendatu zuten laugarren aldiz Justizia Ministro Sagastaren Kabinetean. Kargua hartu eta berehala Vatikanoko ezkontzaren erregulazioari buruz zituen eskakizunak negoziatzera jarri zen Ministroa, Parlamentuko kodetze ponentziaren lanek etenda jarraitu zuten artean. Kode Zibilarren oinarri lege-asmoaren hirugarren xedapenaz landa, jarraitu zuten eztabaidatzen I Liburuaren IV Tituluaren idazketa, Batzordearen Junta Magnoak 1882an adostu zuena aldatuz.

Hurrango legealdian (1886-1888) lortu zuen azkenik Alonso Martínez keimentsuak Kode Zibilar buruzko eztabaida bideratzea. Gogora dezagun, aurreko legealdian Silvelak aurkeztutako Oinarri lege-asmoa bertan behera geratu zela Gorteak desegin zirenean. Alonso Martíñezek, Justizia Ministeriotik, Oinarri lege-asmo beraren tramitazioa bultzatu zuen, prozedura eztabaidagarria izanda ere, osaketa politiko desberdina zuen legegintzaldi berrian aurreko lege-asmoa besterik gabe berrartu zitekeen. Alabaina, Alonso Martíñezek bultzadaz, eta

¹⁰⁵ Oinarri legetasmoa Senatuan aurkeztu zenean, Marqués de Seoane senatariak foru zuzenbideak deseman egin behar zirela defendatu zuen. Silvela ministroak erantzuten dio Konstituzioaren 75. artikulua bi etapetan bete behar zela: «... la primera relativa al Código civil, en el cual no hay variación, sino la más absoluta unidad, formado en el cumplimiento de la primera parte del precepto, para que sea ley en 49 provincias españolas, que están dispuestas a recibirlo como tal. Segunda etapa: cuando tratemos de las provincias forales, si hay que introducir una o varias modificaciones en el Código perfectamente uniforme que hoy se discute, entonces será oportuno que invoque el Gobierno la facultad que le concede el artículo de la Constitución en su segunda parte. No se trata, pues, señor Marqués de Seoane, de la variación que hagamos en el Derecho castellano: todo el código ha de contener las reformas que en un momento dado sean necesarias para las instituciones. Antes era preciso que todas, absolutamente todas las instituciones rigieran de igual suerte en las 49 provincias de España y esto mismo ha dicho la Constitución de 1876 al disponer que unos mismos Códigos regirán en toda la Monarquía. Pero añade: salvo las variaciones que en algunas instituciones determinan las leyes. Así, cuando vengamos aquí con las reformas necesarias en la legislación foral; cuando hagamos uso de la segunda parte de este artículo constitucional (porque lo que presentamos ahora es un Código que ha regir únicamente en 40 provincias hemos establecido el cumplimiento de la primera parte de este artículo), si vemos que hay una, dos o tres instituciones que en esas provincias forales deben conservarse, entonces, habrá llegado la hora de invocar, repito, la segunda parte del precepto constitucional». *Diario de Sesiones Senado*, 1885eko otsailaren 26ko saioa, 72, 1380-1381 orr.

prozedura eztabaidagarri harekin onartu zuen azkenik Parlamentuak, 1888ko maiatzaren 11ean, María Cristina erregeordeak santzionaturiko Kode Zibilaren Oinarrizko legea, 8 artikulua eta 27 oinarriz osatua, zeinak agintzen zion Gobernuari Kode Zibila publikatzeko oinarrizko legeetan jasotakoa jarraiki.

Foru zuzenbideei buruz, erakunde lurraldetarren biziraupena onartzen zuen etorkizunean Kodeari atxikiko zitzaizkion Eranskinen bitartez eta aurreko Oinarrizko lege-asmoan ez bezala, bigarren mailako iturri supletorio kontsideratzen zuen Kode Zibila. Hala nola esaten zuen 5. artikulua:

«Las provincias y territorios en que subsisten derecho foral, lo conservarán por ahora en toda su integridad, sin que sufra alteración su actual régimen jurídico por la publicación del Código, que regirá tan solo como supletorio en defecto del que lo sea en cada una de aquellas por sus leyes especiales. El título preliminar del Código, en cuanto establezca los efectos de las leyes y de los estatutos y las reglas generales para su aplicación, será obligatorio para todas las provincias del Reino. También lo serán las disposiciones que se dicten para el desarrollo de la base 3ª, relativa a las formas de matrimonio».

Xedapen horrek ireki zuen bada Kode Zibilaren onarpenaren atea, eta hura jasoko du ia hitzez hitz urte bete beranduago onartu zen Kode Zibilak 12. artikulua. Oinarrizko legearen 6. xedapenean berriz, agintzen zen Gobernuak Gorteei aurkeztuko zuela lurralde bakoitzean biziraun behar zuten erakundeak jasoko zituen Lege-asmo edo Eranskin multzoa¹⁰⁶.

Oinarrizko legea onartu zenetik aurrera hartu zuen Kode Zibilaren *iter* parlamentarioak. Izan ere, Alonso Martínezek 1888ko udazkeneko gobernu krisia ezin gaindituko zuela ohartu zenean, Kodearen onarpena azkartu nahi izan baitzuen. Irailaren 13an, banatu zitzaizkion Diputatuei ezkontzari buruzko eraentzaren artikulatu adostua. Irailetik aurrerako hilabete horietan Kodifikazio Batzordearen Atal Zibilaren bere lagunak ziztu bizian lan egin arazi zituen Alonso Martínezek, testua sortuz eta inprentan zegoela testua zuzentzera iristeraino. Kodea Madrilgo *Gazetan* publikatu zen zatika 1888ko Kode Zibila, urriaren 9tik aurrera, abenduaren 8ra bitartean. Tarte horretan Kodifikazio Batzordeak oraindik ere aldaketak sartu zituen, testua inprentan zegoela. Emendio horiek Errege Dekretua urratzen zuten, bertan esaten baitzen «atxekita» publikatzen zela onartutako testua dela. Bestalde, Parlamentuak azken orduan egindako

¹⁰⁶ *Ley 11 de mayo de 1888, autorizando al Gobierno para publicar un Código Civil con arreglo a las condiciones y bases establecidas en la misma*, 6 art.: «El Gobierno, oyendo a la Comisión de Códigos, presentará a las Cortes, en uno o varios proyectos de ley, los Apéndices del Código civil, en los que se contengan las instituciones forales que conviene conservar en cada una de las provincias o territorios donde hoy existen».

oharrak eta emendioak, denbora faltaz, ez zituen kontuan izan Kode Zibilaren publikazioak.

Jarraitutako prozedura ustelaren ondorioz Kodearen lehen publikazioak eztabaida sutua piztu zuen Gorteetan, Oinarri lege-asmoaren aurkezpenak eragindakoa baina arras gordinagoa. Indarreratzea 1889ko maiatzaren 1ean gertatu zen, nahiz eta biziraupen laburra izan zuen testuak, aipatu hutsegiteek Parlamentuaren eskariz behartu baitzuten Gobernu emendioak kontuan hartuko zituen Kodearen bigarren argitalpen bat egitera. Argitalpen horretan ere, Ganberek Kodeari egindako oharrak ez ziren zuzenean jaso; Kodifikazio Batzordearen esku utzi zituen Parlamentuak, Batzordeak berak aztertu eta egokitzen jotzen zirenak bakarrik gehitu zirelarik. Azkenik, 1889ko uztailaren 24an egin zen Madrilgo Gazetan Kodearen bigarren argitarapenera¹⁰⁷.

Kode Zibilaren aprobazioaren *iter* luzea ixteko, María Cristina erregeordeak Alonso XIII. izenean eskerrak ematen dizkie Agindu bidez, Alonso Martínez eta Kodifikazio Batzordearen Zibileko Atalaren gainerako ordezkariari, Kodearen elaborazioan eta azken emendioen zuzenketa egindako lanagatik. Agindu horretan bertan, Canalejas Ministroak azaltzen du Kodearen lehen argitalpenari egindako emendioak nola artatu zituen Kodifikazio Batzordeak eta bertan latsa gutxiz azaltzen du Parlamentuak egindako zein ohar izan ziren onartuak, zein baztertuak, eta zergatik. Aginduak aitortzen du beraz Parlamentuko oharrak iradokizun gisara hartu zituela Batzordeak bien arteko funtzioak inbertituz; Batzordea izanik Parlamentuaren gainetik Kodearen edukia berrikusi eta erabakiak hartuko dituen!

Kode Zibilaren onarpen prozedurari egin zitzaizkion kritika garaikideen artean Augusto Comas Senatariarenak har daitezke erakusgarritzat. Salatzen du 1888ko maiatza eta uztaila bitartean Alonso Martínezek, Ministro kargua uztera behartuko zutela aurreikusiz, Kodearen erredakzioa amaitzera behartu zuela Kode Zibileko atala, Batzordearen Plenoak ez zuelarik inolako parterik izan. Atala osatzen zuten Ministroaren zortzi lagunek hartu zituzten erabakiak, Batzorde legegile gisara jokatu. 1888ko urriaren 6ko Dekretuak Kodea publikatzeko baimena ematen badu ere, Kodea ez zegoen artean bukatuta; Zibileko Atalaren aktek aditzera ematen dutenez, urriaren 6az geroztik, beste 20 saio egin baitziren, azaroaren 29 arte, non Kodearen artikulua mordera eztabaidatu, aldatu eta berritzen den.

¹⁰⁷ *Ley de 26 de mayo de 1889, por la que se autoriza al Gobierno a hacer una segunda edición del Código civil con las enmiendas y adiciones que, a juicio de la Sección de lo Civil de la Comisión General de Codificación, fueran necesarias o convenientes, habida cuenta del resultado de las discusiones parlamentarias.*

1888ko Kode Zibilaren Oinarri legean ezarritako delegazio sistemari buruz Tomás y Valientek esango du:

«Alonso Martínez-ek prozedura kontrolatu nahi izan zuen, eta horrela izan zen azkenik, Kodea bere obra baita. Kodifikazio Batzordearen atal zibilaren kargu ilun horretatik maisuki baliatu zituen boterearen hariak, Parlamentuaren ordez bera aritzeko... Esanguratsua da Kode Zibila ez dela Espainiako Gorteen obra, Alonso Martínezek zuzendutako Atal zibilarena baizik... Garaiko sistema politikoaren autentikotasun eza gora-behera, oro har, esan daiteke, Kode on bat egin zela, nahiz eta prozedura aldetik ez zen Parlamentuaren eskumena aintzatetsi, Alonso Martínez eta bere lagunek ez baitzuten Gorteen ordezkartzan sinesten»¹⁰⁸.

V. ESPAINIAKO KODE ZIBILAREN EGITURA ETA EDUKIAK

Alonso Martínezek, 1882ko apirilaren 24an, Kodearen proiektua Gorteen aurrean azaldu zuenean 1851ko testuan egindako aldaketak azaltzen ditu. Haren esanetan, lehen liburuak gertutik jarraitzen du García Goyenaren proiektuaren egitura, bietan 12 titulutan biltzen direlarik erakundeak. Aldaketa nabarmen bakarra adopzioaren erregulazioarena da, zeina Napoleon Kodeak baztertu ondoren, ez baitzen 1851ko proiektuan jaso. II. Liburuari dagokionez, aurreko proiektuan agertzen ez ziren bi titulu gehitzen dira: ondasun erkidegoaren eraentzari buruzkoa (III. Titulua) eta Jabegoaren Erregistroa (VIII. Titulua), nahiz eta 1869ko Hipoteka Legearen erregulazioari dei egiten dion eraentza xumea besterik ez den II. Liburuaren azken titulu berri horretan jasotzen dena. Kodeak, 1851ko proiektuan bezala, atal berezitetan arautzen ditu jabegoa (II-IV. tituluak) eta edukitza (V titulua), Napoleon kodean modu nahasian arautzen diren bi erakundeak emendio eginez. Jabegoari dagokionez, 606 artikulua *traditioa* eskatzen du jabegoa eskuratzeko, non eta Napoleon kodetik hartutako 1851ko proiektuan eskualdatze fisikorik ez baitzen eskatzen eskualdaketa formalizatzeke.

Aipatu dugunez, azken bi Liburuek, oinordetza eta jabetza eskubideak arautzen zituztenak, eztabaidagai handia ekarri zuten Kodifikazio Batzordean foru lurraldeetako ordezkariekin. Hain zuzen ere, liburu hauek dira 1851ko proiektutik, eta beraz, Napoleon Kodearen eredutik, gehien aldentzen direnak. García Goyenaren saioan ez bezala, 1889ko Kode Zibilak Napoleon kodetik nabarmen aldentzen den oinordetza eraentza propioa ezartzen baitu, Gaztelako zuzenbidean oinarritzen dena. Horren erakusgarri, seniparteko zabalak ezartzen ditu Gaztelako zuzenbideari jarraiki (806. eta hurrengo artikulua), eta alargu-

¹⁰⁸ TOMÁS Y VALIENTE, F., *op. cit.*, 106 or.

naren eskubideak arautzeko (834. artikulua), Nafarroako eta Aragoiko ereduari lotu ordez, Italiako Kodearen 753. artikulutik hartzen du erregulazioa; mankomunitateko testamentua edo elkarpoderosoa eta komisario bidezko testamentua debekatzen ditu (664. eta 675. artikulua), fideikomisoa mugatzen du eta «cuarta Tribeliánica» erromatarra desagerrarazten du (784. artikulua). Bestalde, soka luzea zuen erabakia hartzen du seme-alaba naturalei oinordetza eskubideak aitortuz zenduak beste ondorengo edo aurreko bizirik ez badu (948. artikulua).

Azken liburuari dagokionez, Napoleon kodean eta 1851ko proiektuan ez bezala, obligazioak arautzen ditu kontratuen aurretik, Alemaniako eta Suitzako ereduari jarraiki. Horrez gain, ezkontzaren eraentza ekonomikoari dagokionez, doteari buruzko araudia xeheagoa ezartzen du, eta ondasun parafernalen eredia Partidetatik eta Aragoiko zuzenbidetik hartzen du, ezkontideen arteko paktu askatasuna gordez. Hipoteka eta prenda erakundeak, azkenik, Alemaniako kode proiektutik hartzen ditu, erregulazio desberdina emanez, eta eskubide errealeen tituluan bertan, mugakideen atzera-eskuratzea hobesten du erregeraktu gentilizioa baztertuz.

VI. KODE ZIBILA INDARRERATZEAK FORU ZUZENBIDEETAN IZAN ZUEN ERAGINA

Foru zuzenbideen auziari irtenbidea ematearren Kode Zibilak indarren laga zituen 1888ko Oinarri Legearen 5. eta 6. artikulua. Halaber, Kodearen 12. artikulua biziraupena bermatzen zien Foru zuzenbideetako erakundeei, baina, artikulua horretan bertan, biziraupen hori «behin behinekoa» zela gehitzen zen. Izan ere, legegilearen asmoa baitzen denboraren poderioz Espainiako zuzenbide zibilaren batasuna lortzea, zuzenbide lurraldearen erakundearen sintesia eta integrazioa zela medio, eta Auzitegi Gorenaren jurisprudenzia berdintzailearen poderioz. Bestalde, Kodeak bezala, Eranskinek ere lege maila zuten, eta lege berri batek deseman zitzakeen, 1943ko adin nagusitasunaren legea kasu, zeinaren arabera adin bera ezartzen den lurralde guztietan foru zuzenbideek ezarritakoa desemanen.

Aldi berean, 1889ko Kodearen azken artikulua 1976.ak deseman egiten zituen «Kode honetan araututako zuzenbide erkidea osatzen duten lege, usadio eta ohitura guztiak». Hortaz, testuaren 12. eta 1976. artikulua batera irakurriz gero, zalantza sortzen zen indarren iraun behar zuten foru zuzenbideak zein ote ziren. Biziraupena aitortzen zitzairen autore gehienek ustetan aurrekariek behin baino gehiagotan aipaturiko ordenamenduei, alegia, Katalunia, Nafarroa, Bizkaia eta Mallorkako foruei. Baina, Galiziako Foruak, Valentziakoak edo eta Bayliokoak, esate baterako, Gaztelako lurralde izaki, indarrean jarraitzen al zuten Kodearen publikazio ostean edo desemanatzen jo behar ziren? Nagusitu zen

interpretazioan 1889ko otsailaren 2ko Dekretuaren 4. artikuluan jasotako foruak ziren jaso beharrekoak Katalunia, Nafarroa, Bizkaia, Aragoi, Mallorkako eta Galiziako Foruak, eskuarki.

Aipatu 12. artikulua bigarren eztabaidagai bat piztu zuen: Gaztelako zuzenbide erkidea lehen zein bigarren iturri supletoriotzat zuten foru zuzenbideetan, zein arau aplikatu behar zen, ordura arteko Gaztelako zuzenbide historikoa edo Kodeak araututako zuzenbide erkidea? Autore gehienen ustez Kodeak aurreko Gaztelako zuzenbidea ordeztu zuen efektu eta gune guztietan, baita Foru zuzenbideetan ere. Auzitegi Gorenak horrela ulertu zuen eta, supletoriotasuna aitzakiatzat erabiliz, Kodearen araudia aplikatu zuen arlo desberdin askotan. Neurri gabeko «nibelazio» horrek doktrinaren zati baten kritikak jaso zituen. Delgado Echeverriak azaltzen du Auzitegi Gorenaren joera gehiegizko hori garaiko epaile eta letratuen hezkuntzari zor zaiola, izan ere, Unibertsitatean irakasten zen zuzenbide erkidea teknikoki hobea eta eguneratuagoa jotzen baitzen, zaharkitutako eta askotan zatikatutako foru zuzenbideen arau multzoen aurrean¹⁰⁹.

Bizkaiko eta Galiziako zuzenbideetan izan zuen Auzitegi Gorenaren doktrinak eragin nagusia, Kodea kontsideratzen zelako ordenamendu haie-tan lehen mailako ordeztu iturri. Aldiz, Nafarroan zein Aragoi eta Katalunian zuzenbide kanonikoa edo erromatarra mantendu ziren indarrean Kodearen publikazio ostean eta Kodearen alboko supletoriotasunari eskerrak, hark ez zuen hain eragin handirik izan zuzenbide propioetan, ez bazen erabat berriak ziren erakunde juridikoak aplikatu behar zirenean, edo eta arautu gabeko hutsune berriak betetzeko, zeinetan Kodea aplikatzen jo zuen Auzitegi Gorenak, baldin eta foru zuzenbidearen izpirituekin bat baldin bazetozen Kodearen arau berriak.

Aipatu aurreikuspen orokor hauez gain, Atariko Tituluan Kodeak esanbidez jasotzen zituen «bizkaitarrak» 10.3. artikuluan, zeinaren arabera,

«Ondasun higigarriak jabearen lege pertsonalari meneratzen zaizkio; higiezi-nak, dauden lekuko legeari¹¹⁰. Aldiz, oinordetza legitimoa eta testamentu bi-dezkoa, dela oinordetza hurrenkerari dagokionez, dela oinordetza eskubideak eraentzeko, oinordetuaren lege pertsonalari egokituko zaie, edozein delarik

¹⁰⁹ DELGADO ECHEVERRÍA, J., Las Comisiones de Derecho civil. La experiencia aragonesa, *Revista de derecho civil aragonés*, 21-22, 2015-2016, 31 or.

¹¹⁰ 1889ko Kode Zibila, 10 art.: «Los bienes muebles están sujetos a la Ley de la nación del propietario; los bienes inmuebles, a las Leyes del país en que están sitios. Sin embargo, las sucesiones legítimas y las testamentarias, así respecto al orden de suceder como a la cuantía de los derechos sucesorios y a la validez intrínseca de sus disposiciones, se regularán por la Ley nacional de la persona de cuya sucesión se trate, cualesquiera que sean la naturaleza de los bienes y el país en que se encuentren. Los vizcaínos, aunque residan en las villas, seguirán sometidos, en cuanto a los bienes que posean en la tierra llana, a la Ley 15, título XX del Fuero de Vizcaya».

ondasunen izaera eta dauden lekua. Bizkaitar guztiei, hirietan bizi badira ere, Bizkaiko Foruaren XX. Tituluaren 15. Legea aplikatuko zaie lur lauan dituzten ondasunak eraentzeko orduan».

Jaurerriko diputatu eta senatarien insistentziaren ondorioz, kodeak Forua bizirik uzten du Lur lauan dauden onibar guztietan, dela oinordetza arau propioak dela tronkalekotasunaren arauak aplikatzeko orduan. Xedapen berezi honen jatorria Bizkaiko ordezkarien zuzenketa batzuen ondorio da. 1888ko Oinarri Legearen Gorteetako eztabaidan Martín de Zavala Andirengoechea senatariak ohartarazi zuen Lur lauan kokatutako onibarrei Bizkaiko Forua aplikatu behar zitzaie eta ez jabearen lege pertsonala. Juan De Ibargoitia eta Manuel de Allende Salazar diputatuek zuzenketa bera erregistratu zuten Gorteetan. Aurrerago, Kodearen lehen publikazio ostean, Luis Landecho diputatuak gauza bera eskatu zuen behin berriro. Azkenik, bizkaitarren insistentziaz, Kodearen 10.3 artikuluan jaso zen lur lauan kokaturiko onibar guztiak eraentzeko Bizkaiko Foruaren XX Tituluaren 15. Legea aplikatuko zela¹¹¹.

Bizkaiko foruari egindako erreferentziaz gain, bi arau berezi jaso zituen Aragoi eta Balear Uharteetako foruei eta Bizkaiko foruari erreferentzia eginez. Kode Zibileko 13. artikulua eraentza berezi bat aurreikusten zuen Aragoi eta Balear Uharten foru zuzenbideetarako. Aipatu xedapenaren arabera Kodea zuzenean sartuko zen indarrean Aragoi eta Balear Uharteetan, haietan ezarritakoaren kontra ez zihoan guztian. 1885 urtean Silvelaren Oinarri lege-asmoari egindako Gil Berges diputatu aragoiarrak egindako zuzenketa batean dago 13. artikulua jatorria, handik 1888ko Oinarri legera eta Kode zibilera iragan zelarik. Kodeak izan behar zuen harrera zuzenaren zioa zen, Gil Bergesek azaldu bezala, «beti nahi izan zutela eskualde horiek Espainiako zuzenbidearen batasunaren alde egin ahal zen guztian zuzenbide lurraldetarrak hurbildu araziz»¹¹². Edonola ere, 13. artikulua ondorio zuzen bakarra Aragoi eta Mallorcako zuzenbide supletorioen ordezkapena izan zen, Kodea aplikatzen zelarik ordezeko bezala eta ez berezkoa.

VII. EUSKAL ZUZENBIDEA KODEAREN ERANSKINETAN JASOTZEKO SAIOAK

Aipatu dugu Kodearen publikazio ostean indarrean jarraitu zutela 1888ko Oinarri legearen 5., 6. eta 7. artikuluek, zeinak ñabardura esanguratsuak egiten baitzituzten Foru Zuzenbideen Eranskinak sortzeko prozedurari buruz. 6. arti-

¹¹¹ MONREAL, G., *op. cit.*, 203 or.

¹¹² DELGADO, J., *op. cit.*, 23 or.

kuluaren arabera, Gobernuak aurkeztu behar zuen Gorteen aurrean, aurretik Kodifikazio Batzordea entzunda, Kode Zibilaren Eranskin izango ziren Foru zuzenbideen lege-asmoa edo lege-asmoak. Alabaina, 7. artikulua desberdintasun nabarmen bat egiten zuen foru lurraldeen artean; beren beregi aipatzen zituen Zaragoza, Huesca, Teruel eta Balear Uharteak. Nabarmendutako probintzietako Diputazioek eta Abokatu Kolegioek txosten bat aurkeztuko zioten Gobernuari, azken honek, Kodifikazio Batzordea entzunez, Gorteetan lege proiektua aurkeztean, «ahalik eta epe laburrean, Kode berriaren argitalpenetik aurrera». Hurrengo atalak aipatzen zuen gainerako lurraldeetan prozedura bera jarraituko zela, alegia, Gobernuari zegokiola Diputazio eta Abokatu Kolegioei lurralde bakoitzeko foru zuzenbidearen Eranskin proposamena aurkeztea, haiek ondoren informazatzen. Prozedura bera zen funtsean, baina probintzia batzuei besteei baino lehentasun eta protagonismo handiagoa aitortzen zitzaizkien, agienez, horiek botere zentralarekiko eta Kodea zibil erkidearekiko erakutsitako adikortasunaren ordainsari. Izan ere, Aragoi eta Balearretako ordezkari politikoei Oinarri Legearen eztabaidan Gobernuarekiko gertutasun politikoa erakutsi zuten, Espainia osorako Kode zibil bateratu baten aldarria egin baitzuten eta foruen biziraupenean negoziatzeak jarrera otzana erakutsi zuten. Hain zuzen, berehala ikusiko dugunez, Aragoikoa izan zen azkenik onartu zen Gobernuaren Eranskin bakarra.

1. 1889ko lehen Eranskin sistema: Nafarroako eta Bizkaiko Abokatu Kolegioen proiektuak. Aragoiko Batzorde bereziaren proiektua.

Esandakoagatik zaila da ulertzen 1889ko maiatzaren 17ko Agindua, Canalejas Justizia Ministroak sinatua, zeinak dei egiten dien probintzia forudun guztiei «aspaldi eskatutako txostenak aurkez zitzaizkien» horien gainean Gobernuak lehen bailen Eranskin proiektuak egin zitzaizkien. Ez zuen Bizkaia aipatzen baina bazen Aginduan erreferentzia orokor bat zeinaren arabera hari ere zuzendutako deia zela aditzera ematen zuena. Edonola ere, omisioaz konturaturik, 1889ko urriaren 15eko beste Agindu baten bitartez, beren beregi zuzentzen zaio Ministerioa Bizkaiko Diputazioari eta Abokatu Kolegioari. Zeren gainean egin, ordea, txosten horiek Gobernuaren proiekturik ezean?

Aurrekariari jarraiki, abian jarri zen lehen ekimena Aragoiko izan zen. Kodea publikatu eta berehala, 1890ko azaroan, sortu zen Batzorde ofizioso bat, Aragoikoa Diputazioa, Abokatu Kolegioa eta Zaragozako Zuzenbide Fakultatea bildu zituena¹¹³. Ekimen ez-ofiziala zen, Gobernuak hasi behar baitzuen prozedu-

¹¹³ LACRUZek esaten digu kideak Ripollés, Gil Bergés, Casajús, Isabál eta beste zazpi jurista izan zirela. Elkarren artean banatu zituzten gaiak eta RIPOLLÉSen esku geratu zen ponentzia guztiak bate-

ra, baita Aragoiren kasuan ere, baina, bertako erakundeek Gobernuarekiko gertutasunaz baliatuz bere alde interpretatu zuten Dekretua. Aragoiko Batzordeak Foru Zuzenbideari buruzko Eranskin proposamen bat aurkeztu zuen, 1899an publikatu zena¹¹⁴. Alabaina, Kodea onartu ostean nabarmena zen Madrilgo autoritateen foru zuzenbideekiko gogo-eza. Justizia Ministerioaren utzikeria eta interes faltaren ondorioz, 1904. urtera arte ez zuen ofizialki jaso Aragoiko Batzordearen proposamena Madrilgo Gobernuak¹¹⁵. Ustekaberik gabe, paratutako Eranskin lege-asmo bakarra izan zen, hurrengo hamarkadan «Batzorde bereziak» izendatu ziren arte.

Nafarroaren kasuan, Kode Zibila publikatzearekin bat, Iruñeko Abokatu Kolegioak Nafarroako Diputazioari diktamen bat galdatzen dio lurraldean indarrean jarraitzen duten zuzenbide zibilaren iturriei buruz. 1889 urtean bertan, Kolegioak 35 orrialdeko txostena aurkeztu zuen zeinean, historia-zaletasun handia erakusten zuen eta zazpi ataletan jasotzen zituen, Kodearen publikazioaz geroztik, Nafarroan indarrean zirauten lege-gorputz historikoak, eta horien hurrenkerak¹¹⁶. Ez zen, beraz, Eranskin proiektu bat baizik eta Kodeak Nafarroan zuen bigentziari buruzko txosten xume eta labur bat. Kode Zibilari Nafarroako iturri sistemaren barruan aitortzen zitzaion indarra azken iturri supletorioarena zen, Zuzenbide erromatarraren atzetik.

Txosten txiro horren parean, aldiz, Bizkaiko Aldundiak, Canalejasen Aginduari jarraiki, Abokatu Kolegioari galde egin zion 1899an «gorde behar ziren erakundeei buruz txosten bat egin bedi, argituz Foru Zuzenbidearen puntu ilunak, eta baita Gernikako Batzar Nagusiek horrela baimenduta Forua aplikatzen den hiribilduetan eta auzoetan ezinbestekoa edo hautazkoa ote den Forua, eta horren barruan sartzen ote den ondasun-komunikazioa»¹¹⁷. Abokatu Kolegioa prestu eta gogoz, berehala jarri zen lanera: Batzorde bat sortu zuen, Carlos De la Plaza Salazar presidente zuelarik, errioxarra sortez, baina Bilbon bizi eta

ratzearen ataza. LACRUZ, J. L., Objetivos y método de la codificación aragonesa, *Estudios de Derecho Privado común y foral*, I. alea, 91 or.

¹¹⁴ *Apéndice Primero al Código Civil General. Proyecto de Código Civil de Aragón*, Zaragoza, Imprenta del Hospicio, 1899.

¹¹⁵ *Proyecto de ley en el cual se contienen como Apéndice del Código civil general las instituciones forales y consuetudinarias que conviene conservar en concepto de excepción del mismo Código para el territorio de Aragón*.

¹¹⁶ COLEGIO DE ABOGADOS DE PAMPLONA, *Dictámen formulado por el Ilustre Colegio de Abogados de la M:N: Ciudad de Pamplona acerca del Código Civil*, Pamplona: Imprenta provincial, 1889.

¹¹⁷ MONREAL, G., *op. cit.*, 105 or. Ikus halaber, URRUTIA BADIOLA, A., *Código, Compilación y Fuero Civil. Elementos para una historia del Derecho civil foral vasco (1876-1992)*, Bilbao: Zuzenbidearen Euskal Akademia-Academia Vasca de Derecho, 2013, 12 or.

zuzenbide bizkaitarrean aditu zena. Batzordeak zortzi atal edo gai nagusitan banatu zuen Bizkaiko zuzenbidearen proiektua¹¹⁸. Ondoren, atal bakoitza lantzeko azpi-batzarrak antolatu ziren. De la Plazaren esanetan, batzorde bakoitzean itzal handiko juristak zeudelarik.

Zoritxarrez, ataletako idazle biren txostenak besterik ez dira ezagutzen, De la Plaza Salazar beraren lana, 1899an argitaratu zena, eta Chalbaud-ena, gainerako batzordeen lanik jaso ezean proiektua osatu gabe geratu zelarik¹¹⁹.

2. Durán i Basen 1899ko bigarren Eranskin sistema: Bizkaiko eta Arabako Kodifikazio Batzordearen proiektua, eta Nafarroako Batzorde bereziaren Eranskin proiektua

Aipatu dugu, Kode Zibila onartuz geroztik Gobernu zentralak ez zuela interes handirik agertu lurralde zuzenbideen gainean. Canalejas Ministroaren aginduaz geroztik, hamar urte igaro ziren Madrilgo Gobernuak inongo ekimenik hartu bitartean. Hain zuzen ere, 1899an, Durán i Bas jurista katalana ministro izendatzen dutenean, saiatzten da albo batera utziak ziren foru lurraldeen erakunde zibilen proiektuak bideratzen.

Ministro foruzaleak, Kode Zibilaren Oinarri legeak lagatzen zuen manio-bra eremuaren barruan, Eranskin proiektuak egiteko Batzorde Bereziak sortzea erabakitzen du, zeinetan delegatuko baitzuen Gobernuak bere esku zegoen foru zuzenbideen aurretiazko txostena egitearen ataza. Irizpide horri jarraiki bi arau garrantzitsu aprobatzen ditu Ministro Kontseiluak.

Lehenak, 1899ko apirilaren 17ko Dekretuak, berezko zuzenbideen aitortza bat egiten du: egoera larritzat hartzen du foru zuzenbideen auzia, eta beren beregi aipatzen du arau-gorputz horiek eguneratzeko Kodeak hartutako konpro-

¹¹⁸ Honokoak ziren Abokatu Kolegioak aipatu atalak: «1. Puntos o lugares donde rige el Fuero. Puntos en que es potestativa su aplicación; otros en que es obligatoria y aquéllos en que solo rige en parte. 2. La troncalidad y su importancia en Bizkaia. Las leyes del Fuero inspiradas en este principio. 3. La facultad de los parientes de reclamar contra las ventas realizadas sin las formalidades que exige el Fuero. Su derecho a adquirir los bienes raíces vendidos, así como los permutados o empeñados. Las leyes que se ocupan de esos derechos y resolución de las dudas que en su interpretación se ofrecen. 4. La comunicación de bienes en la familia. Las leyes del Fuero que desarrollan esta institución. Puntos oscuros que contienen y su aclaración. Viudedad foral. 5. Libertad de testar. Su extensión con arreglo a Fuero y leyes que regulan este principio. 6. Testamento mancomunado y por comisario. 7. Sucesión intestada. La troncalidad aplicada a esta sucesión. Leyes que de ella se ocupan. Aclaración de sus dudas. 8. Conservación de otras leyes además de las mencionadas. Ejemplos de cuestiones dudosas por deficiencias del Fuero. Su resolución.» MONREAL, G., *op. cit.*, 106 or.

¹¹⁹ MONREAL, G., *op. cit.* 107 or.

misoak betetzeko urgentzia¹²⁰. Horretarako, lehenik eta behin, Kodifikazio Batzorde Orokorren osaketa aldatzen du, foru lurraldeetako ordezkariari sarrera emanik –1880ko Bugallal-en Dekretuak agintzen zuenari jarraiki–¹²¹. Bigarrenik, Eranskin proiektuak egiteko aipatu «foru lurraldeetako letratuen Batzorde Bereziak» izendatuko ditu Gobernuak, organikoki Batzorde orokorren baitan kokaturik badaude ere, praktikan lurraldeetatik hautatu eta bertan lan egingo dutelarik. Dekretuari jarraiki, Batzorde horiek landutako proiektuak Batzorde Orokorra onetsi ondoren, Gobernuak lege-asmo gisara aurkeztuko zituen Gortean¹²².

Zalantza zegoen, ordea, Aragoi eta Balear Uharten prozedurari jarraiki, lekuan lekuko Diputazio eta Abokatu Kolegioek aurretiazko txostenik egin behar ote zuten. Prozedura argitzeko, lehen Dekretua argitara eman eta egun gutxi batzuen buruan, apirilaren 24an bigarren Dekretu bat onartu zuen, zeinean zehazten den aurreko Dekretuan aipatu Batzorde berezien osaera, bertan sarrazten direlarik Abokatu Kolegioetako eta Aldundietako ordezkariak¹²³.

¹²⁰ Honela zioen Dekretuaren hitzaurreak: «no resuelta todavía, ni aun en principio, de un modo satisfactorio la grave cuestión planteada por el respeto a las legislaciones forales, reconocido y proclamado por nuestra actual Constitución política, a semejanza de lo que hizo la de 1812, legislaciones también necesitadas de reforma, es preciso preparar una solución que, por un lado, dé cumplimiento al precepto constitucional, y lleve por otro la pacificación a los espíritus en extensas porciones de nuestro territorio, que aman con razón las antiguas leyes que han dado carácter a las manifestaciones todas de su vida, y valor histórico a su personalidad, sin quebranto ni peligro de la unidad de la Nación española». Dekretua 1899ko apirilaren 17koa.

¹²¹ Dekretuaren 3. artikulua dio: «se crea una Sección de Derecho Civil dentro de la Comisión General de Codificación»; eta 7. art.ak: «la sección 1ª de la Comisión General, la dedicada al Derecho civil, se compondrá de un Presidente, 7 vocales procedentes dicha Comisión, y otros tres procedentes de las otras 3 secciones. Además se incorporarán los vocales correspondientes creados por el artículo 4 del Real Decreto de 20 de febrero de 1880 como Letrados elegidos por el Gobierno».

¹²² Dekretuaren 5 artikulua arabera «con el objeto de formar los proyectos de ley en que se contengan las instituciones forales que conviene conservar en cada una de las provincias o territorios donde hoy existan, en conformidad a lo prevenido en los artículos 6.º y 7.º de la ley de 11 de mayo de 1888, se nombrarán por el Gobierno Comisiones especiales compuestas por Letrados de aquellas provincias o territorios. Estos proyectos se remitirán al Gobierno en la forma en que se establece en los dos citados artículos o en aquella otra que leyes posteriores establezcan, para someterlos a la aprobación de Poder Legislativo».

¹²³ Errege Dekretua, 1899ko apirilaren 24koa, zeinaren zioen azalpenean prozedura azaltzen duen Durán i Bas Ministroak. Lehenik legetasmoak egingo dira; gero Diputazioen txostenak etorriko dira; ostean Abokatu Kolegioen txostenak, eta azkenik Gobernuak Gortean auzalduko ditu Eranskinak aurretik Kodifikazio Batzordea entzunaz. Ministroak aipatzen du hamar urte igaro direla Kodearen 12. artikuluari men egin gabe. Egoera larria dela adierazten du, ez baitago argi zein den foru lurraldeetan aplikagarri den zuzenbidea, eta auzia lehen bailen konpontzeko txostenak egin ditezten agintzen du; izan ere, dio Ministroak, foruek ez baitute zalatzen jartzen Espainiako nazioaren batasuna eta haren zuzenbideen aberastasuna.

Eranskinak egiteko prozedura bateratu egiten du, beraz, Durán i Bas-ek. Laburbilduz, Batzorde bereziak sortu behar ziren Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Bizkaia, Mallorca eta Galizian, bakoitzari osaera berezitua emanaz. Kide guztiak Letratuak izan behar zuten eta presidentea Batzorde Orokorreko lehen ataleko bokal izango zen, 1880ko Bugallal-en Dekretuak ezarritako aurrekariari jarraiki. Batzorde horiek ez ziren Madrilen bilduko, foru lurraldeetako hiriburuetan baizik, eta sei hilabeteren buruan aurkeztu beharko zuten beren lanaren emaitza.

Aipatu dugu nola Aragoik aurreraturik zuen lana 1889ko Ripollesek zuzenduriko batzorde ofiziosoaren proiektuari eskerrak. Ministroaren Aginduari jarraiki, Batzorde berezia izendatu zutenean aipatu proiektuaren berrikuspena zuten gogoan. Batzordeburu Jaime Gil Berges jurista aragoiar ospetsua izendatu zuten, aurreko proiektuan parte hartu zuten Isabal eta Casajús letratuak berreskuratu zituztelarik. Proiektu sendoa eraiki zuen batzorde ofizialak, 370 artikuluz osatua, Aragoiko erakunde zibil idatzi eta ohiturazko nagusiak eraentzen zituen, sistematika propioz hornitua.

Durán i Basen Dekretuak epe laburrak ezartzen zituen proiektuak aurkezteko, baina, hala eta guztiz ere, Aragoik lehen egitasmoa aurkezten duenerako Ministro katalana Silvelaren Gobernuua uztera behaturik ikusten da, 1899ko urrian, *Tancament des Caixes* delako aferak Katalunian sortzen duen krisia dela eta.

Hurrengo Ministroak, Conde de Torre Arnaz-ek, bertan behera uzten du Durán i Basen inpultsoa. Ondorioz, Aragoiko zuzenbidearen Eranskin proiektua Justizia Ministerioaren kaxoi batean geratu zen, harik eta, 1923. urtean, Primo de Riveraren diktadura garaian, Kodifikazio Batzorde Orokorrak berreskuratu zuen arte. Aipagarria da, 1904an, Antonio Maurak zuzentzen zuen Batzorde Orokorretik pasa ondoren, bere artikulatuaren hiru laurden galdu zuela Proiektuak¹²⁴. Horrez gain, proposaturiko egitura aldatu, eta Kodifikazio Batzordearen aginduz, Kode Zibilaren egitura jarraitu zen erakundeak ordenatzeko. Kodifikazio Batzordeak gogoz eskuilatutako proiektua, Gobernuak publikatu, eta Gorteetara bidali zen lege-asmo moduan, nahiz eta 1925eko abendua bitarte ez zuten onartu. Eranskinaren aurkako iritziz ugari sortu zen foruzaleen

¹²⁴ Antonio MAURaren hitzaurrean esaten da: «Este Apéndice tiene por objeto recopilar el Derecho aragonés, pero con el propósito de eliminar en todo lo posible lo que suponga diferencias, aun a costa de costumbres locales respetabilísimas, inspirándose en un noble espíritu de transigencia». 78 artikuluz osatutako testu honetan Gaztelako zuzenbidetik hartu ziren hainbat erakunde, Aragoi jurisprudentziak satu ei zituelakoan, hala nola, testamentu olografoa, Kodearen testamentu bereziak, xedapen libreko herena, tutoretzaren eraentza eta Familia Kontseilua. *Apéndice al Código civil correspondiente al Derecho civil de Aragón*, Madrid, 1904.

¹²⁵ Honela dio Hernández Gilek: «si la concepción legislativa adolecía de esta gran quiebra, no puede extrañar que la realización práctica fuese poco afortunada. Y de este juicio no escapa el Apéndice foral

aldetik¹²⁵. Erredukzionista, kasuistiko eta sistemikotasunik gabea zela esan zuten¹²⁶; egitura propiorik gabeko bilduma horretatik ez zegoen printzipio orokorrik eratortzerik¹²⁷. Aragoikoa izan zen, beraz, onartu zen Kode Zibilaren Eranskin bakarra.

Bizkaiaren kasuan, Duran Ministroaren Aginduak honela osatu zuen Batzorde berezia: Aldundiak izendaturiko 3 letratu, letratu bana Abokatu kolegioaren Gobernu Juntak eta Burgoseko Notario Kolegioak¹²⁸. Arabarrak falta ziren ordea. Arabako Diputazioak Gobernuari horrela eskatuta, 1899ko maiatzaren 15eko Dekretuak hiru kide gehitu zituen, horietako bakoitza Arabako Diputazioak, Abokatu Kolegioak eta Notario Kolegioak Letratu bana aukeratuko zutelarik¹²⁹. Bizkaiko Kolegioak aurreko Memoriaren egilea, Lecanda jurista adinduna izendatu zuen presidente, nahiz eta Proiektua amaitu aurretik zendu eta gero, Carlos De la Plaza, 1889ko proiektua koordinatu zuen letratuak hartu zuen bere lekua.

Esan izan da aipatu Batzordeak lan bikaina egin zuela¹³⁰, nahiz eta ikusiko dugunez erasoak jasan zituen alde bietatik: Bonifacio de Echegarayk salatuko du Kode zibilari utzitako lekua handiegia zela¹³¹, eta, beste ikuspegitik, Balpar-

de Aragón, único que ha llegado a tener vigencia, del que se ha dicho que es un cuerpo fragmentario en el que se han recibido instituciones del Derecho antiguo con algunas reformas, no siempre acertadas, y con tal espíritu de mezquindad y pobreza que hace difícil encuadrarlo dentro del sistema del Código», HERNÁNDEZ GIL, A., Reflexiones sobre el Derecho foral y la unificación del Derecho, *Revista General de Legislación y Jurisprudencia*, T. XXX, 1955, 12 or.

¹²⁶ LACRUZek dio «El Apéndice mereció la repulsa general de los juristas aragoneses, y entre los de fuera, solo templadas alabanzas de un civilista tan eminente como poco favorable a los Derechos forales: mi gran amigo el profesor Federico De Castro», LACRUZ, Objetivos y método de la codificación aragonesa, *Revista crítica de Derecho inmobiliario*. 465, 1968, 310 or.

¹²⁷ CASTÁN-ek esango du Eranskinak ez duela «sistema zientifikoa» jarraitzen. CASTÁN TOBEÑAS, Jose, *Derecho civil español*, comun y foral, t. I, Introduccion y parte general, vol. I, Madrid, 1984, 258 or.

¹²⁸ Diputazioaren aldetik, Aureliano de Galarza, Bartolomé de Bolívar eta Nicasio de Veriztáin, hiruak diputatu probintzialak. Abokatu Kolegioak izendaturik, Carlos de la Plaza; Burgoseko Notario Kolegioak, Francisco de Quintana.

¹²⁹ Diputazio arabarrak izendatu zuen Eliodoro Ramírez de Olano, eta Kolegioak Tomás Salazar y Petralanda.

¹³⁰ MONREAL, G., *op. cit.*, 123 or.

¹³¹ Eusko Ikaskuntzaren 1918ko Oñatiko Kongresuan Eranskinari egindako emendio nagusi bat onartzen da. Gizarte eta zuzenbidearen gaien Atalak, bere ondorioetan onartzen du Bizkaiko Diputazioari eskatzea Eranskinaren berrikuspene egiteko ikasketa edo azterketa batzuk enkarga ditzan, Atalaren ondorioetan jasotzen diren oinarrien arabera. Oinarri horietan bosgarrena aipagarria da gerora izan zuen ohiartzunarengatik: «Regirán las disposiciones forales en todo el territorio foral sin distinción, de acuerdo con el espíritu de Concordia de 1630». Libro del Primer Congreso de Estudios Vascos, 308-309 orr., in *Congresos de Estudios Vascos : 1918-1995. Eusko Ikaskuntzaren Kongresuen Aktak*, Donostia,

dak proiektua gerarazteko ahalegin guztiak egingo ditu «integratzaileago» nahi zuelako berak Forua.

Azpmarratzekoa da, aurreproiektu hura lege bihurtuko ez bazen ere, gerora egin ziren saio guztien oinarri bihurtu zela. Horrela, 1928ko Abokatu Kolegioak egindako bertsioak aldaketa gutxi batzuk egiten dizkio 1900. urtekoari, eta 1959ko Konpilazioa bera gertuki jarraitzen zaio De la Plazaren testuari¹³².

Aztergai dugun Eranskin Proiektua osatzeko zuzentarau gisara erabaki zen 1526ko Foru berriaren legeak aztertuko zituela banan bana, mantendu behar ziren erakundeak jaso eta erabilerarik ez zuen hura baztertuz. Osatutako testua bi liburutan banatzen da, Bizkaia eta Arabari dagozkionak. Guztira 135 artikulua, hiru azken xedapen eta lau iragankor ditu testuak. De la Plazak egindako Memorian azaltzen du zergatik antolatu dituen gaiak zortzi multzotan, 1890ko Abokatu Kolegioaren enkarguari jarraiki, Bizkaiko Foru zuzenbidearen arabera, alegia, Kode Zibilaren egiturari men egin gabe¹³³.

Edukiei erreparatuz, Bizkaiko liburuan, Lehen Tituluak Lur Laua edo foruaren ezarpen eremua zehazten du. Aipagarria da tronkalekotasunaren araubidea (II. titulu), eta testamentua egiteko askatasunari ematen zaion eraentza xehea (sei titulu, 36 artikulutik 59.enera). Bizkaiko testamentu bereziak jasotzen dira bertan, hil-burukoa ezik (erabilera ezagatik 1900eko proiektuan jaso ez zena, eta 1928ko Abokatu kolegioaren proposamenak berreskuratuko duena). Titulu luze batean jasotzen da, bestalde, ezkontideen arteko foru-komunikazioa.

Arabari dagokion Liburuan, Lur lauaren eraentza aitortzen zaie Lodio eta Aramaioko udalerriei. Aiarako forua aplikatuko da, berriz, dio Proiektuak, Aia-ra, Lezama, Amurrio, Okendo eta Artziniegako hainbat herrialdeetan, bertako biztanleei oinordetza askatasun osoa aitortuz. Azken xedapen batek Bizkaia eta Arabako foruaren arau zibil oro desematzen du.

1997. Gerora eztabaidagai nagusi bihurtuko den Zuzenbide aplikagarrien aniztasunak paralizatuko du Eranskina urtetan.

¹³² *Apéndice del Código Civil que comprende las disposiciones aplicables en Vizcaya y en Álava. Proyecto redactado por D. Carlos de la Plaza Salazar del I. Colegio de Abogados de Bilbao en vista de los acuerdos tomados por la comisión especial de codificación.* Imprenta de la Casa de Misericordia, Bilbao, 1899. Ikus halaber, *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya (1899-1900)*. Introducción y edición de URRUTIA BADIOLA, A., Bilbao: Academia Vasca de Derecho. Zuzenbidearen Euskal Akademia, Clásicos de Derecho vasco, 2004, reproducción facsímil de la edición de: Bilbao: Imprenta Provincial, 1902.

¹³³ Honela azaltzen du De la Plazak bere hautua: «Comencé a realizar mi trabajo sobre el plan del Código, pero me resultaba el proyecto a modo de esqueleto gigante con cuatro trocitos de carne, que dejaban al descubierto casi todos los huesos de aquel», PLAZA SALAZAR, C., *Actas de las sesiones...*, 119 or.

Batzordeak epe barruan bete zuen enkargua: 1900. urtearen otsailaren 10ean bidali zuten proiektua Kodifikazio Batzordera¹³⁴. Bizkaiko Abokatu Kolegioak eta Diputazioak ordea ez zuten proiektuari buruzko bere txostena izapidetzen, 1899ko Dekretuak galdatzen zuen moduan. Erakundeen erabakitasun ezaren iturria Gregorio de Balparda y Herrerías juristaren beso luzeari zor zaio neurri handi batean, zeina Liga Monarkikoaren fundatzaile, Bizkaiko Kolegioko dekanok, Bilboko alkate eta Errestaurazio garaiko diputatu izan baitzen. Bere burua liberal eta monarkikotzat zuen, eta euskal nazionalismoaren kontrako jarrera erakutsi zuen; Bizkaiko oligarkiaren intelektual organiko bihurtu zen laster¹³⁵. Balparda gazteak hiru konferentzia eman zituen Bilboko Zuzenbidearen Akademian 1903 urtean zehar Batzorde bereziak landutako proiektua kritikatzeko. Garaiko tradizionalismoaren tesiei jarraiki, Balpardarentzako Bizkaiko Forua Baskoniaren «espainiaratasunaren» frogagiri nabarmena zen¹³⁶. Balpardaren tesuaren zabalkundea galga izan zen Bizkaiko zuzenbidearen konpilatze-prozeduran.

Ez zitzaion egoki iruditzen, lehenik, proiektuaren egitura: hobe zatekeen Kode Zibilarren ordena jarraitu izan balitz¹³⁷. Kalitate tekniko eskasa salatzen du, ondoren. Vicario eta Lecandarekin batera, ados dago gorde beharreko erakunde nagusiak hiru zirela: tronkalekotasuna, oinordea aukeratzeko askatasuna, ondatsunen foru komunikazioa baina hiruen aplikazioan mugak ezarri behar direla uste du. Ez dago ados proiektuak tronkalekotasunaz, atzera-eskuratze eskubi-deaz eta preskripzioez ezartzen duenarekin. Biziki salatzen du arau bikoiztasuna, eta Bizkaia osoari forua zabaltzeko aldarria egiten du, baina, tronkalekotasuna baserriarentzat gordez.

¹³⁴ *Urte horretan bertan, Abokatu Kolegioak Bizkaia eta Arabako Foruaren Eranskin aurreproiektuaren 1000 ale argitaratu zituen.*

¹³⁵ Ibilbide luzea dago, ikuspegi ideologikotik 1900. urtean bere doktorego tesitik *La región, sus derechos y su valor dentro de los Estados nacionales modernos* heldutasunezko bere obra ezagunera, *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros*, Diputación de Vizcaya, Madrid, 1924-1945.

¹³⁶ ESTORNÉS LASA, I., *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos, 1983, 136 or.

¹³⁷ De la Plazaren hitzei oihartzun eginez, esaten du Balpardak: «... fácilmente se comprende que aquel plan siendo muy conveniente para discutir ordenadamente el fuero, puede no serlo y de hecho no lo es para un Código y mucho menos para facilitar el conocimiento de las especialidades que a otro código ya escrito añade el Apéndice. De colocar los escasos y especiales preceptos forales al lado de los comunes –como ocurre con los libros en una biblioteca–, se accedería mejor a ellos». BALPARDA, G., *El Fuero de Vizcaya en lo civil. Estudio Crítico del Proyecto de Apéndice del Código Civil que comprende las disposiciones aplicables en Vizcaya y en Alava*, Bilbao: Imprenta de la Casa de Misericordia, 1903, 20 or.

Gregorio de Balpardaren eraginez desadostasunak hartu zuen Abokatu Elkargoa, zeinak ez zuen bada bere txostena kaleratzen. Eranskin proiektua ez aurrera ez atzera, Antonio Arceche diputatuak, geldialdia gainditu gogoz, proiektu bat aurkezten du Gorteetan Balpardak salatutako Bizkaiko lege bikoiztasuna gainditze aldera. Gako hori bideratuz gero, agian proiektua bideratuko ote zelakoan. Diputazioak Arcecheren proposamenari buruzko txostena eskatu zuen 1913. urtean. Abokatu Kolegioak bere aldetik iritzia biltzeko batzorde berezitu bat izendatu zuen. Gregorio Balpardak Kolegioari zuzendutako idazki baten bitartez gerarazi egin zuen oraingoa ere ekimena¹³⁸.

Ordezkarri arabarrak, aitzitik, Bizkaiko Kolegioaren jarrera gaitzetsiz, erantzun egin zioten Justizia Ministerioak 1916. urtean egindako erreklamazioari¹³⁹. Bizkaiko eta Arabako Eranskin proiektuaren Batzordekide zen Rodrigo Jado y Ventades letratu bizkaitarrak hala eskatuta, Arabako Diputazioak Eranskin proiektuaren II. Liburuari buruzko txostena egin arazi zien Diputatu letratuak eta foru zuzenbideari buruzko Idazkariari. Txostena aldeko zela ikusi zutenean, Arabako batzordeak proiektua bidali zion Ministerioari.

Bien bitartean, Bizkaiari zegokion zatiak geldirik jarraitu zuen, harik eta, 1925eko abenduaren 7an, Aragoiko Eranskina indarreratu eta handik gutxira, Primo de Riveraren garaian Diputazioa ordeztu zuen Bizkaiko Batzorde probintzialaren Presidenteordeak gogorazten dion Bizkaiko Abokatu Kolegioari 1889ko Dekretuak aipatu txostena gauzatu zezan¹⁴⁰.

Kolegioak batzorde berri bat izendatu zuen orduan, Ponentzia izena hartu zuena aurreko Batzorde bereziarengandik bereizi asmoz, honako letratuak osatua: Plácido Careaga, Juan Migoya, José Horn, Esteban de Bilbo, Darío de Areitio eta José de Solano, erregimenetik gertukoak guztiak. Bi urtez lan egin ondoren, 1928ko otsailaren 1ean, aurkeztu zion Ponentziak bere txostena Abokatu Kolegioaren Junta Nagusiari. Proiektuak gertutik jarraitzen zion 1900.eko Eranskinari. Ponentziaren esanetan, Eranskinean gorde beharreko erakundeak antolatzea dagokie ez ordea erakundeak desematea; ondorioz, berreskuratzen delarik aurreko proiektuetan baztertutako hil buruko testamentua¹⁴¹.

¹³⁸ BALPARDA, G., *El Fuero y el caserío: informe elevado a la Junta general del Ilustre Colegio de Abogados de Bilbao*, Bilbao, 1913.

¹³⁹ Orden de 22 de enero de 1916 instando a las Diputaciones de las dos provincias y a los Colegios de Abogados a evacuar «los informes referentes al Apéndice del Código civil».

¹⁴⁰ Socias Gradoli diputatuak eskatu zion Ministroari 1922. urtean Diputazioaren txostena galdatzeko, Kodifikazio Batzorde Orokorrak proiektua ikuska zezan. LASSO GAITE, J. F., *op. cit.*, 656.

¹⁴¹ *Informe de la Ponencia del Colegio de Abogados de 1928*. ACGC, leg. 1ª, doc. 8, 9 or.

Ordea, Bizkaiko Diputazioaren txostena onartu zenerako, Diktaduraren azken urteetan sartua zen Espainiako Gobernuak. Behin berritua, beraz, zailtasun politikoak zirela eta ezin izan zen tramitatu txostena Kodifikazio Batzorde Orokorrean, eta berehala, II. Errepublikaren etorrerarekin Eranskinen sistema etenda geratu zen, beste politika batzuk jarri nahi izan zirelarik indarrean.

Nafarroan antzeko jardunbidea jarraitu zen. 1899ko Dekretuari jarraiki, Batzorde berezia izendatu zuen Elkargoak. Zortzi letratu osatzen zuten: Antonio Morales y Gómez de Segura zen buru eta Enrique Ochoa, Joaquín García y Echarri, Carlos Isaba, Fernando Morales, Fermín Iñarra Echenique, Arturo Campión eta Salvador Echaide Belarra ziren gainerako kideak, azken hiruak eta presidentea bera, Nafarroako Euskaroak. Berehala, 1899an bertan, amaitua zegoen jada txostena, *Proyecto de Apéndice de Navarra al Código Civil*, Batzordeak aurkeztu zuena Ministerioan 1900eko uztailaren 14an, 1904an publikatuko zena. Edukiari dagokionez, Kode Zibilaren egitura jarraitzen zuten jasotako erakunde propioek.

Proiektuaren onarpena bitxia izan zen; izan ere, Batzordearen presidentek, Antonio Morales jaunak, ez zuen bertan jasotakoa begi onez ikusten. Batzorde bereziaren proiektuaren artikulua gehienetan bere boto partikularra gehitu zuen, Batzordearen «gehiegikeriak» zuzendu asmo zuen testu aldizkako bat gehituz. Agi denez, Batzordeak proiektua onartu zuenean, Moralesek Batzordetik kanpo, nafar jurista guztiei zuzendu zien proiektua beren iritzia jasotzeko. Eskakizun horrek ordea bi erantzun baino ez zituen jaso¹⁴². Horrez gain, proiektuarekiko bere desadostasuna argi utzi nahian, Moralesek bere iritzia kaleratu zuen *Leyes especiales de Navarra* obran, zeinak 1880ko Dekretuari jarraiki egindako bere 1884ko Memoriari jarraipena ematen baitzion, Kode Zibilari estuki lotzen zitzaizolarik.

Salinas Quijada-k deskribatzen du nola, ordutik aurrera, geraldian sartu zen Eranskina egitearen prozesua bultzada bakan batzuk salbuetsirik, Víctor Covián y Junco abokatu eta Batzorde Orokorreko kideak 1917an aurkeztutako proiektu partikularra kasu: *Anteproyecto de Apéndice para Navarra*, 1899koa, gerora etorri ziren proiektuen oinarri izan zena. Garai horretakoak dira, halaber, sakontasun urriko zenbait obra pribatu, Manuel Monreal abokatuarena, adibidez¹⁴³.

¹⁴² Jabegoaren erregistratzaile ez nafar batek eta letratu batek besterik ez zuen erantzun. LASSO GAITE, J. F., *op. cit.*, 657 or.

¹⁴³ SALINAS QUIJADAren esanetan, lan ahula zen: «no sobrepasa la categoría de ensayo», SALINAS QUIJADA, F., *Derecho Civil de Navarra, T. I. Introduccion*, Pamplona: Aranzadi, 1971, 326 or.

Esan dugunez, Primo de Riveraren Diktadura garaian, Aragoiko Eranskin indarreratzearekin batera, berriz ere aktibatzen dira Diputazio probintzialak; Ministerioak, Bizkaikoari egin legez, Nafarroako Abokatu kolegioari txostena eskatzen diolarik 1926. urtean. Eskakizunari erantzunez, Iruñeko Elkargoak Rafael Aizpún Santafé eta Fernando Arvizu Aguado letratuei enkargatzen die lana, zeina 1930ean inprimatu zen *Anteproyecto de Apéndice de Navarra al Código civil* izenarekin¹⁴⁴. Erregistratzaileen Kolegioak bere aldetik beste proiektu bat enkargatu zuen, eta urte berean, abenduaren 3an, Eranskin Proiektua argitara ematen du notaritzaren elkargoen konferentzia sorta baten ondorio izango dena¹⁴⁵.

Salinas-i jarraiki azken bi testu horietan Nafarroako Foru zuzenbidearen egitura propioa jarraitzen da, 1889ko Abokatu Kolegioaren proiektuari men eginez; bietan, 144 artikulutan jasotzen dira erakunde propioak, bakoitzean xedapen gehigarri eta iragankor desberdinak gehituz. Ez bata eta ez bestea, ez dira ordea kalitate handiko proiektuak.

Kalitate urrikoak izanagatik ere, Nafarroan proiektu kopuru handia sortu zen, beste lurraldeetan baino handiagoa, baina, Bizkaian gertatu legez, ez zen proiektu horien gaineko adostasunik erdietsi¹⁴⁶. Gerra Zibila tarteko, eten egiten dira lan guztiak, harik eta ikusiko dugunez, 1943an Principe de Viana erakunde sortu berriaren bultzadaz lanak berrartzen diren arte.

Euskal lurraldeen Eranskin proiektu nagusiak alderatuz, Bizkaiko Abokatu Kolegioaren 1900 urteko proiektua eta Iruñeko Abokatu Kolegioak agindutako Aizpún eta Arbizuren 1929ko proiektua, nabarmena da, lehenik eta behin, Bizkaiaren kasuan iturri bakan batetik aritzeak ematen dion abantaila. Nafarroako foruaren zabaltasunarekin alderatuz, Bizkaiko foruaren erakunde multzoa askoz ere urriagoa bada ere, 1526ko konpilazioaren modernotasun eta txukuntasunak asko erraztu zuen gerora ataza. Aldiz, Nafarroaren kasuan iturrien aniztasun eta antzinasunak zaildu egiten du indarrean dauden erakundearen sintesia eta eraentza argia egitea. Azken lurralde horretan bizirik zirauten erakundeak jaso baino, erabakigarriagoa izan zen garaiko arduradunentzat iturriak sistematizatu eta jasotzea, ez baitzen onartzen Kode Zibila izan zedin ordezkoko zuzenbide supletorio. Foruzale nafarrentzat hobe zen zuzenbide erromatar zein kanonikora

¹⁴⁴ AIZPÚN SANTAFÉ, F. eta ARVIZU AGUADO, R. *Anteproyecto de Apéndice de Navarra al Código civil*, Pamplona, 1930.

¹⁴⁵ ILUSTRE COLEGIO NOTARIAL DE PAMPLONA, *Apéndice de Derecho navarro al Código civil*, Pamplona, 1930.

¹⁴⁶ BLANCO GONZÁLEZ, A., *La evolución de los derechos forales desde la Codificación hasta la Constitución de 1978. Especial referencia al Derecho gallego*, Santiago: Tórculo Ediciones, 142 or.

jotzea, iturri zinez zaharkituak izanagatik ere, Kode zibilera jotzea baino. Eskakizun horrek baina ez zuen errazten Gobernuaren aldeko jarrera ez eta garaiko operadore juridiko gehientsuenena ere, zeinak iturriak errazte aldera egin nahi zuten¹⁴⁷.

Bestalde, Bizkaia eta Arabako txostenetan ez bezala, Nafarroako proiektuak Kodearen egitura jarraitzen du, 1889ko testuaren artikulatuari dagokion erakunde propioa txertatuz. Hori dela eta, Salinasek azpimarratu legez, Erreinuaren foru zuzenbidearen hondarrak baino ez dituzte jasoko Eranskin proiektuek. Edonola, Euskal lurraldeetako foru zuzenbideen Eranskin Proiektuen balorazioa egin zuten autore garaikideek, Salinasek kasu, Nafarroari dagokionez eta De la Quadra Salcedo Enkarterrietako jurista ospetsuak Bizkaia eta Arabaren zuzenbidearen gainekoetan, biek azpimarratzen dute konpilaturiko zuzenbidea osatu gabea eta zatikatua zela, proiektuek hutsune handiak zituztela, dela egituran dela jasotako erakundeetan, alegia.

Foruen aurkariek defendatu zuten «hain gauza urriak» ez zuela pena mezezi mantentzea¹⁴⁸. Izan ere, Eranskinen prozedura eta helburua ez baitzen Foru Zuzenbideak kode batean jasotzea, beren iturri sistema eta interpretazio arau propioak gordez, baizik eta Kode orokorraren etorrerarekin Foru Lurraldeetan desagertzeko arriskuan zeuden erakunde nagusien inbentarioa egitea¹⁴⁹. Foru zuzenbideak ez dira beraz bere baitako sistema oso kontsideratzen, Kodean txertatutako erakunde metaketa bat baizik, zeinak zenbait lurraldeetako salbuespen bezala iraungo duten probisionalki¹⁵⁰. Ulertzekoa da beraz, garaiko foru zaleen kontrako jarrera, foru lurraldeen iturri material propioak agorturik, Eranskinetik ez zutelako foru ordenamenduak osoki berritzeko aukerarik ematen, horren ordez, erakunde multzo mugatu baten biziraupena baino ez zitzaien eskaintzen. Aipatu dugunez, Proiektuen kalitate eskasa eta errealitatearekiko alde handia salatzen dute Salinas Quijadak Nafarroan Eranskin proiektu guztiak alderatuz osatutako lanean¹⁵¹, eta De la Quadra eta Bizkaiko proiektuei buruz ari direlarik, baina akats horiek garaiko proiektu guztiei egozgarri dira¹⁵². Aurretik 1880ko

¹⁴⁷ *Ibid.*, 154 or.

¹⁴⁸ JIMENO, R., *op. cit.*, 125 or.

¹⁴⁹ SALINAS QUIJADA, F., *op. cit.*, 329 or.

¹⁵⁰ SALVADOR CODERCHek Eranskinen ezaugarriak azaltzeko orduan zera dio: «conjunto de normas materiales que se coloca junto al Código civil, como un mero grupo de reglas especiales sobre instituciones concretas, sin proponer un sistema de fuentes autónomo, ni reglas sobre interpretación y autointegración», SALVADOR, P., *op. cit.*, 34 or.

¹⁵¹ SALINAS QUIJADA, F., *op. cit.*, 319 or.

¹⁵² BLANCO, A., *op. cit.*, 144 or.

Dekretuaren Txostenekin jazo bezala, Foruak Eranskinetara ekartzeko saioak ere huts egin zuen.

Eranskin sistemaren porrotak zerikusi handia du 1888ko Oinarri Legeak eta ondoren aldarrikatu ziren Dekretuek foru zuzenbideak jasotzeko ezarritako prozeduraren lausotasun eta definizio ezarekin¹⁵³. Izan ere, inork ez zekien zehazki zer esan nahi zen «gordetzea komeni den erakundeak» esamoldearekin. Foru lurraldeetako batzordeek 1880ko Dekretuaren eredia jarraitu zuten, Kodeari «atxiki» batzuk egin behar zituztela usteari eutsiz. Bestalde, XX. mendearen lehen laurdenean Auzitegi Gorenak oso jarrera murriztailea adierazi zuen foru zuzenbideekiko, ahal zen guztian eta arrazonamendu pobrez foru erakunde sendoak baztertu eta horien ordezkari Kodea aplikatuz. Asmo bateratzaile gordin horrek gogo-eza eta zalantza eragiten zuen lurralde batzordeetan, beren lana alferrikakoa zela sinestearino. Durán i Bas bezalako salbuespen izan ziren Ministro batzuen kasua albo batera utzita, Gobernuaren jarrera, ez zen irekiagoa, ezta Kodifikazio Batzordearena ere. Erakunde horiek zikoizkeriaz jokatu zuten foru zuzenbideekin, ahal zuten guztian proiektuak geratu edo egindako proposamenak moztuz eta murriztuz. Esanguratsua izan zen, eskuarki, Aragoiko Eranskinarekin gertatutakoa, zeina, esan dugunez, Maurak zuzendutako Batzorde Orokorretik pasa eta gero ikaragarri urriturik suertatu zen. Aragoikoari gertatua ez zitzaizen bada besteei ere jazoko?

Azpimarratu behar da, aipatu faktore exogenoek landa, bazela foru zuzenbidearen biziraupenaren gainean zalantza handia pizten zuen beste barne faktore larri bat. Garaiko zientzia juridikoaren azpigarapenaz ari gara. Gorago aipatu ditugun Europako beste herrietan ez bezala, gure foruek ez zuten lanketa sakonik ezagutu. Kode Zibilaren publikazioak piztu zuen Bizkaiko zuzenbide pribatuaren azterketa, Vicario, Chalbaud eta Jado bezalako autore saiatuei esker, eta beranduago etorri ziren Balparda eta De la Quadra, kasu¹⁵⁴. Nafarroan berriz, Kodifikazio garaian sortu ziren obrak historizismo astun batek lastatzen zituen. Yanguas y Miranda-ren *Diccionario de la legislación de Navarra*-tik hasi, José Alonso, Morales eta Covian y Junco bezalako autoreek Nafarroako iturri historikoen bindikazioa egiten jarraituko dute zuzenbide sistema bateratu eta modernoa egin ordezkari¹⁵⁵. Gerora etorriko dira Salinas Quijada eta Nagore Yáñez-en lanak, Nafarroako zuzenbidearen sistematizazio sakonagoa egiten

¹⁵³ Castanek dio, «queriendo armonizar el criterio de la unidad con el de la variedad y dar gusto a todos, ha creado una situación confusa y, en definitiva, no ha podido satisfacer a nadie», CASTÁN, *op. cit.*, 229 or.

¹⁵⁴ MONREAL, R., *op. cit.*, 234 or.

¹⁵⁵ JIMENO, G., *op. cit.*, 292 or.

duinak¹⁵⁶. Aitortu beharra dago, baina, Baskoniako zuzenbide pribatuen gaineko doktrina juridikoaren neurria ez zela heldu Katalunian eta baita Aragoian egindako lanketaren mailara.

3. Eusko Ikaskuntzaren Euskal Zuzenbide Zibilaren aldarria, 1931ko Errepublikako Konstituzioak eta Euskal Estatutuak irekitako bidea

Kode Zibila onartu osteko foru lurraldeetako erakundeen lan saiatuak aipatu baditugu ere, ikusi dugunez, interes gutxi egon zen Estatuko gobernua- ren aldetik –Durán i Basen agintaldi laburrean ezik– Kodearen 12. artikulua agintzen zuen foruen bilketa eta eguneratzea bultzatzeko. Eranskin proiektuak ilaundurik, Auzitegi Gorenak eta gainerako epaitegiek beren lan nibelatzaileare- kin jarraitu zuten, foru lurraldeen erakunde zibil propioak baztertu eta ahal zen eta ez zen guztietan Zuzenbide erkide «berria» aplikatuz. Egoera ilun horren aurrean Eusko Ikaskuntzak bere lehen Kongresua ospatu zuen, 1918. urtean, Oñatiko Unibertsitate zaharrean.

Sasoi horretarako sortua zuen Kataluniako Mancomunitat delakoak *Instititut d'Estudis Catalans* zientzia eta kultura elkarte. Euskal Herrian uniber- tsitate publikorik ez zegoen artean, eta zenbaitek eredutzat hartu zuten elkarte hura, besteak beste Ramon de la Sotak –Bizkaiko Diputazioako presidente jeltza- leak–. Enpresari bizkaitarrak katalanismoaren ildoari eutsi zion eta horregatik, Francesc Cambó Ministro katalanaren laguntza jaso zuen hauteskunde aurreko ekitaldietan. Baina garai hartan katalanismoak mesfidantza eragiten zuen kato- likoen artean eta ez zen erraza izan proiektuaren inguruan indarrak batzea. Hala ere, Kongresua antolatze aldera hiru aldundik –Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak- bat egin zuten, eta gutxieneko egitasmo politikoa adostu zuten Gasteizen ospa- tutako bilkuran: Foruen berreskurapenaren alde lan egingo zuten eta, besterik ezean, autonomia estatutua lortzeko borrokatuko ziren. Bilera hura Iruñan egi- tekoa zen, baina, Nafarroako Diputazioak ez zuen aldeko jarrerarik agertu, eta Gasteizko bilerara begirale gisara baino ez zen joan. 1918ko lehen hilabeteetan autonomiaren aldeko ekimena moteldu zen bitartean, zientziaren aldeko alda- rriak indarra hartu zuen ekimen politiko komunaren aurrean. Aldundietako lau presidenteeK Kongresua antolatzeko Patronatua sortu zuten, eta Iruña, Baiona eta Gasteizko apezpikuei ere gonbidapena luzatu zieten.

Azkenik, zazpi sail nagusitan banatu zituzten kongresuaren gaiak: Eus- kal Herriko zientzia juridiko eta sozialak, arraza –ikuspegi antropologikotik–,

¹⁵⁶ SALINAS QUIJADA, F., *Derecho civil de Navarra*, Pamplona: Aranzadi, 1971-1973.

hizkuntza, historia, artea, irakaskuntza eta eusko ikaskuntzak. Sail bakoitzean mahai-inguruak antolatu ziren eta ondorioak onartu zituzten bozketa bitartez¹⁵⁷. Zuzenbideko atalak aintzat hartu zuen Zuzenbide pribatuaren abandonua. Kode zibilak zirrikitu guztiak baliatzen ditu zuzenbide erkidea zabaltzeko, euskal zuzenbidearen ohiturazko erakundeak zein foru idatzi zaharkituak iraungitzen ari diren bitartean. Argi adierazten dute esandakoa Luis Chalbaudek eta batez ere, Carmelo de Echegarayk, biak ere zuzenbide atalaren arduradun eta ponenteak¹⁵⁸. Lege idatziaz gain, ohituraz ere arduratu behar da eta ohiturak interpretatzeko moduaz, horregatik funtsezkoa irizten diote biek lehen mailako epaitegiek ohituraren interpretazioaren gainean emandako ebazpenak jasotzeari, eta baita Auzitegi Gorenak sententzia horien apelazioan esandakoari. Horrez gain, Auzientzia lurraldetar bakar bat galdatzen dute, kasaziorako sala zibil goren bat izango duena, eta baita Euskal Jurisprudentziaren Akademiaren sorrera.

Baina, Kongresuaren ondorioetan jasotako ekimen nagusia **Euskal Herriko lurraldeen erakunde zibilen ikerketa konparatua bultzatzeko proiektuarena** izango da. Bonifacio de Echegarayk hartuko du bere gain ataza hori, lehiaketa publikoan eskainitako hainbat ekimenek huts egin ostean¹⁵⁹. Carmelo de Echegaray-ren anaia gaztea, preparazio handiko legelaria eta literatoa, Auzitegi Gorenaren Idazkari izan zen 1916tik aurrera, Madrilgo giroa zuzenean ezagutzen zuelarik. Ez zuen baina gutxiago ezagutzen Baskonia: sortzez gipuzkoarra, 1926 eta 1927an Nafarroa, Bizkaia, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa arakatzen ditu, Eusko Ikaskuntzarentzat paratzen ari den Euskal Zuzenbide Pribatuari buruzko obra osatze aldera. Irismen handiko obra hori erdietsi ez bazuen ere, foruari buruzko bere bibliografia ugaria eta sakona izan

¹⁵⁷ AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, J., *Eusko Ikaskuntzaren sorrera: ikertzaileen ernamuni-nera bidaia*, Argia, 2007.

¹⁵⁸ ECHEGARAY, C., «Derecho político vasco», *I Congreso de Estudios Vascos, Sección de Ciencias políticas y sociales.. op. cit.*, 65 eta 66 orr. CHALBAUD, L., Puntos esenciales y culminantes del derecho privado vasco: Libertad de testar, troncalidad, comunicación foral, eta La organización de la familia como forma típica y trascendental de la Constitución social vasca, *I Congreso... Conclusiones*, 306-311 orr.

¹⁵⁹ Erakunde zibilak alderatzeko ikerketaren lehiaketa publikoa 1920an egiten da, 5000 pezetan, baina hutsik geratzen da. *Convocatoria BSEV*, 5, 1920, 10 or. Ondoren, 1924an, hainbat ekimen xumego eskeintzen dira, bata Nafarroa, Bizkaia eta Amurrioko epaitegietako sententziak bildu eta sistematizatzeko –erakunde zibil propioak gehien artatzen zituzten lekuetakoak, hain zuzen-; eta aurrekoaz gain, beste bi sari: Nafarroa, Bizkaia eta Aiarako erakunde erkide bati buruzko ikerketa saritzeko, eta bestea Euskal Herriko ohiturazko zuzenbideari buruzko monografiari saria. Azken saio horiek ere esleitu gabe utzi ziren. *Moción sobre Derecho Vasco en BSEV*, 17, 1922, 7 or. eta *Junta Permanente*, 1924-III-3, ESTORNÉS, I., *La Sociedad de Estudios Vascos...*, 138 or.

¹⁶⁰ Ikus, Eusko Ikaskuntzan argitaratu emandakoen artean: La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas, *RIEV*, 14, 1923, 27-60 orr.; Moción sobre Derecho Vasco, *Boletín*

zen¹⁶⁰. Aipagarria da, edonola ere, bere «Derecho foral privado» obra, 1950ean Donostian argitara emango zuena, non Baskoniako foru erakunde pribatuen arteko konparaketa egiten duen¹⁶¹. Halaber, 1932an, *Instituto de Derecho Vasco* ikerketa zentroaren proiektua aurkezten du *Eusko Ikaskuntzan*, egitasmoa gauzatuko ez bada ere¹⁶².

1930ean, Bonifacio de Echegarayk bultzatuta, Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorrek foru zuenbidearen gaineko mozio bat onartzen du zeinean hiru galdakizun egiten diren: batetik, Bizkaia eta Arabako 1928ko Eranskin proiektua berrikusteko batzorde bat sortzea, Eusko Ikaskuntzaren aipatu Kongresuak hamar urte lehenago eskatu legez; bigarrenik, Aiarako Foruari dagokionez, kontuan hartu zitezen Bizkaiko Abokatu Kolegioaren 1900. urteko proiektuak eta 1928ko eranskinak albo batera utzitako hainbat erakunde berraztertze-
-usufruktu poderosoa, nahiz *abintestato* alargunaren eskubideak kasu-; eta azkenik Gipuzkoako ohiturazko zuzenbidea jasotzeko lege berezi bat sustatzeko gestioak egin daitezten¹⁶³.

Jakina denez, 1931. urtean autonomiarako aldarria egin zen Euskal Herrian, II. Errepublikaren etorrerarekin bat egin zuena. Eusko Ikaskuntzak behala ekin zion lanari. Elkarreak paratutako 1931ko Lizarrako Estatutuak zuzenbide zibilarren gainean eskumen osoa ematen zion Euskadiko Estatuari euskal auzotasun zibilarren eremuaren barruan. Hasieran lurraldeka abiatu ziren lanak. Bizkaiko Autonomiarako proiektuaren idazketa Nazario de Oleaga abokatuak hartu zuen, eskatzen zuelarik lurralde-entzutegia Bilbon kokatzea; foru zuzen-

de la Sociedad de estudios Vascos. 1923, núm. 17, 34-38 orr; Significación jurídica de algunos ritos funerarios del País Vasco, Tirada aparte de la *RIEV*, 66, 1925; Estudio jurídico de los contratos entre copropietarios, patrones, tripulantes y fogoneros. Comunicación a I Asamblea de Pesca, *Eusko Ikaskuntza*, 1925; Las donaciones inter vivos al hogar indivisible, 1930; La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco, Tirada aparte de la *RIEV*, 1933, 73 orr; La legislación civil común. Pirineoen alde bietan banatzeko Euskal Zuzenbideari buruzko galdeketa abiatzen du Eusko Ikaskuntzan 1935ean, *Carta de 5 de diciembre de 1935 a diversas personalidades de las siete provincias en ASEV, Leg.*; Cuestionario de Derecho popular vasco, *Yakintza*, 1934, 2, 336-368 orr.; Argitaratzen ditu: Errore sen la interpretación del Derecho civil vasco, *Yakintza*, 1933, 2, 118-123 orr.; eta RSBApeko Boletinean La libertad de testar lan laburra, 1950n, eta *Los ritos en el Derecho consuetudinario de Navarra*, Iruña, 1951.

¹⁶¹ ECHEGARAY, B., *Derecho foral privado*, Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 1950, 110 or.

¹⁶² Institutuan partaide izango ziren, R. Madariaga, Bizkaitik; R. Aizpún, Nafarroatik; I. Pérez Arregui, Gipuzkoatik; F. Javier de Landáburu, Arabatik. ESTORNÉS, I., *La Sociedad de Estudios Vascos...*, 139 or.

¹⁶³ *Moción sobre el Apéndice del Código Civil presentada por el representante de la Sección de Derecho Vasco*, D. Bonifacio de Echegaray, a la Junta Permanente de la Sociedad y aprobada por ésta en su sesión de 8 de setiembre de 1930, San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, 1930.

bide gaietan Auzitegi Gorena Bizkaian izatea, eta auzitegi-tako epaile, fiskal, idazkari eta langile, notario eta antzeko funtzionarioek euskara jakin beharra¹⁶⁴.

Gerora, 1931ko Konstituzioak men egin zion Lizarran bozkaturiko soluzio autonomiazaleari, zeinaren kariaz Estatutuek jaso ahal zuten araudia zibila garatzeko eskumena, 15. artikuluan jasotako erreserba salbu utziz (ezkontza-ren formak eta lurralde-arte-ko zuzenbide aplikatzeko arauak). Hori dela eta, 1931koak huts egin ondoren, Euskal Diputazioetako Batzorde Gestorek 1932an aurkeztutako Estatutuak, aurretik Lizarrakoak adostutako idazketa gorde zuen hitzez hitz zuzenbide zibilari zegokion eskumenen erregulazioan.

Euskadiko Autonomia Estatutua 1936ko urriaren 1eko Errepublikaren lege bitartez onartu zen, Gerra Zibila hasi eta hiru hilabetera. Estatutuaren bigarren artikulua zuzenbide zibilarekiko eskuduntza eksklusiboa aitortzen zion eskualde autonomikoari: «Foru zuzenbide idatzi zein ohiturazkoak araututako gaien gainean eta erregistro zibilarekiko. Konstituzioaren 15. artikulua mugen barruan.» Halaber, egozten zitzaizkion eskualde autonomiko berriari, «notaritzaren gaineko araudia, notarioen izendapena barne, Espainiako lurralde guztietan ezarritako probisio arau erkideei jarraiki». Estatutuak zortzi hilabete-ko biziraupena izan zuen, ordea, eta Gerra Zibilaren erdian ez zen egon haren xedapenak garatzeko astirik. 1937ko ekainean sartu zen Francoren armada Bilbon Estatutua indargabe geratu zelarik, Bizkaia eta Gipuzkoako Itun Ekonomikoekin batera.

Galdetu izan da zer jazoko zen, 1936ko Estatutua garatu izan balitz. Ja-kingarria da 1945. urtean galdera horri erantzunez Javier Galíndezek *Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresuan* aurkeztutako Euskal Foru Zibilaren proiektua. 1936ko urriaren 9an Dekretuz Euskal Autonomia Estatutuaren abaroan sortuta-ko Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoak enkargua egiten dio Galín-dez jaunari Baskoniako zuzenbide pribatuaren gaineko proiektua aurkez dezan. Republica Dominicanan erbesteraturik dagoen Galíndezek erantzun egingo dio enkarguari urte bete beranduago proiektua aurkeztuz. Horrela dio Euskal Foru Zibilaren egitasmoari buruz Kongresuan irakurritako memoriak:

«Paralizados primero nuestros órganos legislativos, y anulados posterior-mente, hace sesenta años que el Código Civil español va penetrando en la vida jurídica de las cuatro provincias vascas meridionales, pese al reconocimiento nominal de nuestro Derecho Civil por el art. 12 de ese Código; vehículo eficaz de esa penetración es la parquedad de nuestros Fueros escritos, que lleva fácil-mente a la conclusión de que sólo están vigentes sus preceptos expresos y por

¹⁶⁴ URRUTIA, A., *Nazario de Oleaga. Bidegileak*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2004, 17. or.

tanto el Código Civil español debe regir todas las demás instituciones, con olvido inconsciente o deliberado de la costumbre y del espíritu de nuestro Derecho nacional. En más de una ocasión se ha tratado de preparar apéndices al Código Civil español, que recojan en moderna redacción estos preceptos escritos de los Fueros Vascos; así tenemos la Memoria del Sr. Lecanda en 1888, y el proyecto de apéndice sobre Bizcaya en 1901; y la Memoria del Sr. Morales en 1884, y el proyecto de apéndice sobre Nabarra en 1901; en la actualidad tengo entendido que también trabaja sobre este propósito una comisión de juristas vascos afectos al régimen franquista. Todos estos proyectos han sido parciales, cuando no son mal intencionados. Han prescindido de Gipuzkoa y Araba, considerando que la ausencia de preceptos civiles escritos prueba la vigencia del derecho español, con olvido del derecho consuetudinario que reconoce el propio art. 12 del Código Civil; y en Vizcaya y Nabarra se limitan a las instituciones concretas que regula el Fuero escrito, dejando las demás abiertas a la incesante invasión de los preceptos y sobre todo del espíritu del derecho latino, tan distinto del derecho tradicional vasco. En cuanto a las tres provinciales vascas septentrionales, rige oficialmente en ellas el Código Civil francés desde su promulgación en 1804, y sólo la recia voluntad de sus moradores ha permitido mantener algunas instituciones vitales de nuestro pueblo, utilizando una costumbre contra legem que no ampara precepto vigente alguno. En esas condiciones, ningún proyecto moderno de legislación civil vasca ha sido redactado»¹⁶⁵.

Galіндеzen Euskal Foru Zibilaren proiektuak bost liburuki zituen –I. Liburua, giza-pertsona; II. Familia; III. Ondasunak; IV. Obligazioak; V. Dohaintzak eta Oinordetza–, eta Aurretiazko Titulu bat. Guztira 492 artikulua. Proiektuak proposatzen du oinarri batzuk ipintzea lurralde guztietako erakundeak, idatzizkoak zein ohiturazkoak, komunean dituzten printzipioak azaleratuz, eta ondoren euskal gizarteak dituen beharretara printzipio horiek egokitzuz.

Egungo ikuspegitik, Gregorio Monrealen ustetan pentsatzekoa da 1978ko Konstituzioak eta Gernikako Autonomia Estatutuaren antzeko ildoak jorratu ahal izango zela orduan; 1931ko Konstituzioaren irtenbide autonomista eta 1978ko ikuspuntu foralista desberdinak izan arren, ez baita ahaztu behar Errepublikak garaiko lurralde antolamenduak Katalunia eta Euskal Herriaren garapena besterik ez zituela gogoan¹⁶⁶. Edonola, Gerra Zibilak eta Nafarroa Estatututik kanpo geratu izanak, zapuztu zuen, ezaguna denez, Euskal Zuzenbide zibil bateratuaren proiektua.

¹⁶⁵ GALÍNDEZ SUÁREZ, J., Proyecto de bases para la redacción de un Fuero Civil Vasco. (Biarritz, 1942). *VII Congreso de Estudios Vascos / Eusko Ikaskuntzaren VII. kongresua*. Donostia, 2007, 571-615 orr.

¹⁶⁶ MONREAL, G., *op. cit.*, 225 orr.

4. Zaragozako Kongresua eta Konpilazioak egiteko 1947ko Dekretua

Errepublikako Konstituzioaren ostean, Franco-ren erregimena Eranskinen sistemara itzuli zen berehala. Hala nola, 1938ko martxoaren 25eko Dekretuak desegin egin zuen Errepublikak sorturiko «Comisión Jurídica Asesora» zelakoa, eta horren ordez Justizia Ministerioren egiturapeko Kodifikazio Batzorde Orokorra berpiztu zuen. Aldi berean, Primo de Riveraren diktadurapean gertatu bezala, foru zuzenbideen gaineko interesa piztu zen Gobernuak izendatu zituen hainbat Ministro erregionalisten aldetik. Edonola ere, formak ez ziren demokratikoak. Batzordearen osaketari buruz 1940ko urtarrilaren 12ko Dekretuak esaten zuen Ministerioak lurraldeen ordezkari izango zen bokal bat izendatuko zuela, zeina aurkeztutako txostenaren gainean baino ezingo zen aritu. Agi denez, 1880ko Bugallal-en Dekretuaren irizpide zaharkituetara itzuli zen Erregimena.

Madrilen antzinako irizpideetara itzultzen zen aldi berean, ikusi dugu Nafarroan zuzenbideari buruzko saila sortu zuela Diputazioak *Príncipe de Viana* erakunde berriaren baitan. Zuzenbide batzorde horretako kide izendatu zituzten foruzale aditu ziren Rafael Aizpún Santafé, Luis Arellano, Luis Iribarren, Juan San Juan eta Luis Oroz; beranduago Abokatu Kolegioaren ordezkari bat gehitu zitzaielarik.

Batzorde horrek osatu zuen, bada, 1944 eta 1945 urte bitartean *Anteproyecto de Apéndice de Navarra al Código Civil* izendatu zuten proiektua. Aurreko Eranskinen egitura eta edukia errepikatzen zituen testu berriak (156 artikulua, bost xedapen iragankor eta bi xedapen gehigarri; aurreko proiektu ofizialak baino 12 gehiago), aurrekoek ez bezala, azken xedapenak desematen zituelarik Nafarroan indarrean zeuden aurreko arau guztiak. Proiektu hura Diputazioak onartu egin zuen, nahiz eta ez zen azkenik Gobernura bidali. Ordurako hasiak baitziren foru zuzenbideari irtenbidea emateko beste bide bat urratzeko saioak.

Bien bitartean, Francoren diktaduraren garairik gogorrean, 1946. urtean, Zaragozan gertakari garrantzitsu bat jaso zen: Zuzenbide Zibileko Nazio Kongresua. Bi urte lehenago Eduardo Aunós Justizia Ministro leridarrak baimendua zuen *Consejo de Estudios de Derecho aragonés* zelakoa zuzenbide lurraldetarren egoera eta irtenbidea aztertzeko Kongresua dei zezan. Izan ere, Aragoiko Eranskinak ez zituen foruzaleak asetzen, eta aipatu *Consejoaren* abaroen *Anuario de Derecho Aragonés* aldizkarian publikatu ziren lan baliotsuek eta monografiak lege hura hobetzeko parada begitantzen zuten. Bestalde, aragoiarrak kode bateratuaren aldekoak ziren, bertan foru lurralde bakoitzak bere tokia izan behar zuela aldarrikatzen bazuten ere. Jaca-ko udako unibertsitategian 1942 eta 1943an ospatu ziren Aragoiko Zuzenbidearen asteetatik eratorri zen Eranskinak

gainditu behar zireneko ideia¹⁶⁷. Hori guztia kontuan izanik, Ministerioak egoki ikusi zuen 1946an Zaragozan, Kongresua egitea.

Kongresuaren prestakuntza atal lurraldetarren bitartez antolatu zen, eta Junta exekutiboa atal horien ordezkariak batek eta lurralde guztietako Audientzien ordezkariak osatzen zuten, Auzitegi Goreneko Presidentea buru zutelarik. Juntaren lehen zeregina foru zuzenbideen egoera ezagutzea izan zen galdeketa zehatz baten bitartez¹⁶⁸; emaitzeekin antolatzaileek ponentzia bat proposatu zuten zeinaren gainean antolatu zen Kongresuaren programa.

José Castán Tobeñas, Auzitegi Gorenaren Presidentea buru zuen Juntak ondorioztatu zuen Eranskinen saioak agorturik zeudela, eta bizirik zirauten Foru Zuzenbideei irtenbide bat eman behar zitzaizela. Ez hori bakarrik, aldarrikatzen zen Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia hedakorrari mugak jarri beharra zegoela eta zuzenbide horiek berrizatzeko aukera ireki behar zela. Irtenbide moduan Kode Zibilean jasotako zuzentaraua proposatzen zen: Estatu osoarentzako Kode bakarra egin behar zela zeinean, artikulua edo atalen bitartez, Foru Zuzenbideetan indarrean zeuden erakundeak txertatu behar ziren.

Nafarroako atalak gogor kritikatu zuen Ponentziaren proposamena. Nafarroako ordezkarien ustez, Foru zuzenbideak sistema juridiko osoak ei baitziren, izaera sozio-ekonomiko berezituaren adierazpen, eta hargatik, Kodean txertatu ordez Foru zuzenbideak arau-gorputz propioetan jaso behar ziren, eguneraturik eta eguneko beharretara egokiturik¹⁶⁹. Aldiz, Bizkaia eta Arabako ordezkariak, Eranskinen berrikuspena besterik ez zela behar defendatu zuten, Kode Zibilaren egokitzapenarekin batera, zeina iturri supletorio izatera deiturik baitzegoen. Ez zen agi denez txarra ordezkari horiek Bizkaiko Kolegioaren 1928ko Eranskin proiektuari buruz zuten iritzia, Nafarroako ordezkariak beren proiektuekiko zutenaren aldean.

Lurraldeetako atalen iritzia jaso ondoren Ponentziak beste idazkera bat eman zion hasierako proposamenari, zeinean azpimarratzen zen helburua Kode bateratua izanik ere aurretik Zuzenbide Foralak jaso eta eguneratu beharra zegoela, erakundeak jasotzeko kodifikazio egitura eta metodo modernoak baliatuz. Nafarroako atalak horrela iradokita gehitu zen, Foru lurraldetarrak jaso ondoren,

¹⁶⁷ LORENTE SANZ, J., *Idea de una encuesta sobre la observancia actual del Derecho aragonés, Primera semana de Derecho aragonés*, Jaca, 1942, 15-18 orr.

¹⁶⁸ Galdeketa jasotzen ditu galdeketa 18 item-ak zeinen artean nabarmen daitezkeen Eranskin sistemaren egokitasunari buruzko iritzia; Kode Zibilaren gaineko iritzia; Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia bateratzailearen gaineko auzia; Foru zuzenbide idatzi eta ohiturazkoaren bigentzia, eta beste. LASSO GAITE, *op. cit.*, 663 or.

¹⁶⁹ BLANCO, A., *op. cit.*, 164 or.

berriz ere bildu zedin Kongresua bertan erabakitzeko nola egin zitekeen Kode bateratuaren bidea. Adostasun batera heldu ziren azkenik, foru zaleak eta Gobernuak: Eranskinen sistema gainditurik zegoela eta dekretuetara ekarri zuen azken honek berehala Kongresuan aprobaturakoa.

Hala nola, Eduardo Aunós Ministroak 1947ko maiatzaren 23ko Dekretuaren bitartez agindu zuen, Espainiako Kode Zibil orokorraren bidea egiteko, lehen urratsa erakunde foralak jasoko zituzten Konpilazioak izango zirela. Ondoren, ezaguna zen leloari jarraiki, konpilazio horietatik abiatuz erakunde juridikoen arteko komunikazioa bilatzen zen, haien printzipio orokorrak azaleraziz lortuko baitzen Espainiako espiritu kristau eta nazionala oinarritzen zen batasuna, askatasuna eta handitasuna irauraraztea¹⁷⁰. Helburu horrekin ezartzen ditu Aunós-en dekretuak hainbat neurri berri.

Lehenik agintzen zen Ministerioak izendatuko zituela Konpilazioen aurreproiektuak egiteko eskualde bakoitzeko Batzorde bereziak. Batzordearen Presidente, eskualde bakoitzeko Lurralde Audientziaren Presidentea izango zen. Batzordekideak aukeratze aldera, Abokatu Kolegioek eta Notaritzako Kolegioak hiru izen proposatuko zioten Gobernuari, Erregistratzaileen Kolegioak letratu bat, Unibertsitateak beste bat, eta Diputazioek letratu bi proposatuko zituztelarik. Horrez gain, uztailaren 23ko Agindu batek aurreikusten zuen Foru Zuzenbidearen ikerketarako erakundeak, zeuden tokietan, Nafarroan (*Principe de Viana*) eta Aragoin (*Consejo de Estudios de Derecho aragonés*) kasu, kide bana jesarri ahal zutela Batzordean. Honekin, berriz ere, Durán i Bas-en 1899ko sistemara itzultzen zen Gobernuak, baina oraingoan epailetzaren ordezkariari sarrera ematen zitzaielarik. Ondoren, aipatu Aginduaren hirugarren artikulua, Foru Zuzenbideen Konpilazioak nola egingo ziren argitzen zuen; batetik, aurretiazko Eranskinak erabiltzeko aukera irekitzen zuen, bertan jasotako erakundeak eguneratuz; eta, bestetik, Kode Zibilaren egiturari men egiteko agintzen zuen: «adaptándose a la sistemática del Código Civil y evitando coincidencias y reiteraciones». Konpilazioen aurreproiektuak egiteko sei hilabeteko epea ematen zuen Dekretuak, hortik aurrera behin behineko biziraupena izango zutelarik, Kode Zibil erkidera inkorporatu bitartean.

Sistema hori ordea ongi ezagutzen zuten lurraldeetako ordezkariak, eta arras gogo txarrez hartua izan zen Zaragozako Kongresuan esandakoari muzin

¹⁷⁰ Dekretua, 1949ko maiatzaren 23ko, Zioen azalpena, «En el Congreso de Zaragoza acertadamente se llegó por unanimidad, a aconsejar la solución de un Código civil general para toda España...» para lo cual el primer paso es la elaboración de unas compilaciones en las que se recojan las instituciones forales «lo que dará lugar a la comunicación de los distintos Derechos hispánicos, en busca de aquéllos principios comunes en que se asentó el espíritu cristiano y nacional de nuestra unidad, nuestra libertad y nuestra grandeza».

egiten ziolakoan. Hori dela eta, Eranskinen sistema desblokeatzeko azken bultzada Antonio Iturmendi Bañales Ministroak eman zuen, 1953ko urriaren 23ko Errege Dekretuaren bitartez, Kodifikazio Batzorde Orokorren lehen atalean foru lurralde bakoitzeko ordezkari bana izendatuz. Aurreko dekretuan ez bezala, Foru Aldundien esku uzten zen Batzorde Orokorreko atal territorialetako ordezkarien proposamena, nahiz eta izendapena Ministroak onartu beharrekoa zen. Bestalde, berresten zuen Iturmendik batzordekide foralen ataza Konpilazioen aurreproiektuen elaboraziora mugatzen zela, Plenoan ez zutelarik beste gaitan ahotsik izango. Ez zen hautu berria: xedapen horrekin, dakigunez, 1880ko Bugallal Ministroaren sistemara itzultzen zen Gobernuua.

VIII. 1959KO BIZKAIA ETA ARABAKO ZUZENBIDE ZIBIL FORALAREN KONPILAZIOA

Praktikan ez ziren, beraz, gauzak hainbeste aldatu. Kodearen 12. artikulua ezartzen zuen foru zuzenbideen behin behineko biziraupenari buruzko xedapena ez zen aldatu, Zaragozako Kongresuak ezartzen zuen moduan. Izan ere, 1974ko Kodearen erreforma arte itxaron behar zen aurreikuspen hura («seguirán vigentes por ahora») ezabarazteko. 1948ko Dekretuak argi adierazten zuen Foru zuzenbide lurraldetarren behin behinekotasuna eta horiek etorkizunean Kode bakar batean desegiteko asmoa. Aurreko lepotik zuen beraz, sistema berriak burua. Alta, itxuraz bederen, foru zuzenbideentzako aukera berria irekitzen zen, Eranskinaren eta Kodearen arteko formatu hibrido horrek eskaintzen zuena, zeinaren arabera erakunde hautatuak eguneratu ahal ziren, mugapen ezagun batekin: indarren zegoen Kode Zibilaren egiturara egokitu behar ziren «ahal zen neurrian» proposamenak.

Deigarria bada ere, Frankoren Diktadurak aukera eman zuen Foru Zuzenbideen bildumak indarreratzeko. Kontuan izan behar da, Gerra Zibilaren ondoren helburu independentista edo autonomista guztiak zapuzturik, foruen aldarrikapenak ez zuela oihartzun politikorik sorrarazten. Espainiaren batasun ezbairik gabeko hartan, foru zuzenbideen auziak eduki errebindikatzaile guztiak galduta, garrantzia gabekoak jotzen ziren; eta horrela, zilegi zen foru zuzenbideen berezitasunak eta balioak goraiapatzea, batasun nazionalaren kalterik gabe; Espainiako eskualdeetako kostunbrismoaren adierazpen moduan besterik ez baitziren ikusten. Esan izan da, metodo aldaketa bera baino, faktore garrantzitsuago bat izan zela 1951ean Antonio Iturmendi bizkaitar tradizionalista, Justizia Ministroaren izendapena, zeinak bultzada definitiboa eman baitzien lurraldeetako proiektuei¹⁷¹.

¹⁷¹ MONREAL, G., *op. cit.*, 304 or.

Testuinguru honetan, aurrera egin zuten Konpilazio proiektuek. Edonola ere, garaiko dogmatika zibilistak ozta onartu zuen Iturmendi Ministroaren erabakia. De Castro batek, esate baterako, gogor kritikatu zuen Eranskin sistema; haren ustetan foru Batzordeek erakundeen arteko desberdintasunak azpimarratzen jotzen baitzuten, eta aipatu Dekretuek aurreikusitako urrats biek (Konpilazioak eta ondoren, Kode Zibil Erkidea) ziurtasun juridikoa kaltetzen zuten. De Castroren aburuz, lurraldeetako zuzenbidearen auziarekin amaitzeko erakunde multzo bakoitzarekiko lege bateratzaile bat egin behar zen Estatu osoan indarreratuko litzatekeena¹⁷². Are muturrekoagoa zen oraindik Guilarte Gonzálezen iritzia, zeinak uste zuen atzera pausoa eman zela, Kodearen promulgazioaren ondoren, berriz ere foru zuzenbideen auzia azaleratzen. Haren ustetan erabilerarik ez zuten erakundeak berpiztu baino, hobe zen behingoz kode bateratu bakarra ezartzea, gorde beharreko erakunde lurraldetar apurkak bertara ekarriz. Ataza hori erdiesteko, zioen Gilartek, sei hilabetez lanean ziharduen zibilista talde bat nahikoa zen¹⁷³.

Iturmendiren Dekretuaz geroztik, Bizkaia eta Arabako lurralde foraletan jurista batzorde bana osatu zen, lurralde bakoitzeko Entzutegien presidentek zuzendurik, 1948ko otsailaren 10eko Aginduari jarraiki. Zehazki, Bizkaiko Batzordea osatzen zuten letratuak honokoak ziren: Fernando Echegaray, Miguel Loredó, Plácido de Careaga, Nazario de Oleaga, Darío de Areitio, José María de Migoya, César de Olaortúa, Luis Pérez Ordoño eta Mario de Zubiaga. Arabako berriz, Antonio Echave-Sustaeta Peciña y Antonio Echave-Sustaeta Pedrosa, José Luis de la Peña, Pedro Ortiz, Ignacio Íñiguez eta Gregorio Altube Echave-Sustaeta.

Arabako Batzordeak 1950eko uztailaren 20an amaitu zuen bere lana. Beranduago, Justizia Ministerioak galdatu ostean, bidali zuen Bizkaiko Batzorde bereziak bere proposamena, zeina Ministroari helarazi zitzaion 1953ko otsailan. Testu biak 1928ko Eranskin proiektuan oinarritzen ziren, aldaketa gutxi batzuekin. Urte horretan bertan Kodifikazio Batzorde Orokorrak jaso zuen ofizialki, Iturmendi Ministroaren eskutik, Bizkaia eta Arabako Eranskinen proiektuak.

¹⁷² DE CASTRO Y BRAVO, F., *op. cit.*, 244-245 orr.

¹⁷³ Honela dio Guilartek: «Nostros entendemos que la unificación es posible. Sobre la base de que los hombres que nos gobiernan captan la trascendencia de la obra y calibren sus posibilidades, seis meses son suficientes para que don José Castán... con los cuatro colaboradores no más que él elija, un Profesor, un Magistrado, un Notario y un Registrador. ¿Foralistas? ¿Madrileños?, es lo mismo, Españoles. Recogiendo nuestra tradición jurídica y acoplándola a las exigencias del momento, con la experiencia que representan los Códigos extranjeros modernos, que ya el profesor merítísimo Señor Castán sabe cuáles son, llevarán a feliz término su tarea podremos lograr un Código perfecto y único en una España también única». GUILARTE GONZÁLEZ, V., *La unificación del Derecho Civil en España. Estado actual del problema*, AAMN, 1957, 18 or.

tu errebisatua, zeinak eskatzen zion Batzordeari zegokion txostena egin zezan, ahalik eta denbora laburrenean.

Hurrengo urteko lehen hilabetean, Iturmendi Ministroaren eskakizunei men eginez, Batzorde Orokorren lehen atalak lehentasuna eman zion Bizkaiko Eranskinari. Garaian Batzordearen Presidente zen Castán-ek, Leonardo Cimiano bizkaitarra izendatu zuen txostengile. Hilabete batzuk beranduago, 1953ko urrian, Iturmendik foru zuzenbideetako adituak sarrarazten ditu Batzordean, aipatu dugun moduan. Adituen bide honetatik sartu ziren, hain zuzen, gerora Bizkaiko eta Arabako Konpilazioan zeresan handia izan zuten German Chacartegui Sanz notario bizkaitarrak eta Ramiro Gómez Casas abokatu gasteiztarrak.

Bizkaia eta Arabako Konpilazioaren elaborazioak bi fase izan zituen. Lehen atalean, 1954ko urtarrilaren eta maiatzaren artean Batzorde Orokorrean egin zen lanketa. Leonardo Cimianok egindako txostena aztertzeko 1954ko urtarrilaren 20an bildu zen lehen aldiz Batzorde Orokorreko lehen atala. Saio hartan, Cimianok aipatzen du aztertutako testua 1928an Bizkaiko Abokatu Kolegioak egindakoa dela, bertan jasotakoaren gaineko iritzi oso eskasa adierazten duelarik. Nuñez Lagos bokala lagun duelarik, martxoaren 3ra bitartean aipatu Lehen atalak egin zituen bost saioetan, Cimianok aurkeztutako ponentziaren 17 artikulua onartzen dituzte, Eranskinaren testua nabarmen murriztuz. Egun horretatik aurrera, aldiz, eten egiten da proiektuaren eztabaida eta lehen atalak ez du berriz bilerarik egingo Bizkaiko foruaren gainean.

Bigarren fasea 1956ko apirilaren 13an abiatuko da. Egun horretan deitzen du Castanek Bizkaia eta Arabako saio berezia. Saio horretan Presidenteak bi azpibatzerde egitea proposatu zuen, Bizkaikoa, Cimiano eta Chacartegui-rekin, eta Arabakoa, Gómez Casas eta Cimiano bera kide zituelarik. Bietan Marcelino Cabanas bokala izendatu zuen Idazkari. Apirilaren 13ko saio horren aktan jasotzen da Castanen alokuzioa zeinaren arabera, «Batzordearen lana izango den orain arte egindako aurreproiektuak aztertzea, ondoren Gobernuak eta Gortek aztertu ahal izateko». Edonola, zioen Presidenteak, onartzen dena «froga-epe batean» jarriko da indarrean. Hitz horietatik erator liteke aurreko fasean Lehen atalak egindako lana bertan behera geratzen zela. Gregorio Monrealen esanetan, litekeena da Iturmendi Ministroak, Chacartegi eta Gómez Casas batzordekideek horretara bultzatuta, Konpilazioak aurreko fasean hartutako norabidea zuzendu nahiak eragindako erabakia izatea¹⁷⁴.

Hilabete bi beranduago, 1956ko ekainaren 19an, Cimiano eta Chacartegik bere ponentzia aurkezten dute, Konpilazio-aurreproiektu oso moduan. Beste

¹⁷⁴ MONREAL, G., *op. cit.*, 241 or.

bi saio egingo zituen Batzorde bereziak, 1957ko otsailean Cabanas Idazkariak proiektua aurkeztu arte¹⁷⁵. Onartutako testuak nabarmen murriztu zituen Eranskinak jasotako erakundeak. Proiektuaren Zioen Azalpenean esaten da Espainiar-tasunaren adierazpen bat besterik ez zela Bizkaia eta Arabako Forua, «aniztasuna batasunaren giltzarri», Espainiako zuzenbide zibil bateratua izan daitekeenaren adierazgarri. Eta gehitzen du, Eranskinean jasotako Foru zuzenbideak 1947ko Dekretuak agindutakoa duela helmuga, alegia, jasotako erakundeek «integrazio nazionala erdiesteko pausoak eman beharra modu lagunkor eta aldi berean zientifikoan»¹⁷⁶.

Batzorde bereziak onartutako Konpilazioaren Aurreproiektua Batzorde Orokorrean aztertu zen 1957ko martxoaren 25ean, egunean bertan inolako emendiorik gabe onartu zelarik. Edonola ere, onarpena eta gero, Gobernura bidali aurretik, oraindik ere aldaketak egin zitzaizkion testuari Chacartegiren aldetik. Azkenean, Konpilazioaren egiturak eta edukiak Bizkaiko Abokatu Kolegioaren 1900 nahiz 1928ko proiektuez oso urruti geratzen dira: XV. titulutik VIII. titulutara ekartzen da testua, artikulatua 135tik 63 xedapenetara igarotzen delarik.

Aurreproiektua 1957ko ekainaren 12an erregistratu zen Justizia Ministerioan. Gobernuak Gorteetara bidali zuen jarraian, Kongresuko Justizia Batzordean ponentzia sortu zelarik Proiektua aztertzeko. Bertan aurkeztu ziren emendioetatik hiru besterik ez ziren onartu, guztiak ere garrantzia urrikoak, 8.3 artikulua, zeinaren bitartez laugarren gradura mugatzen zen tronkaleko ahaide-tasuna; 9.3 artikuluari zegokion beste bat, tronkaleko ondasunak eskualdatzeari buruzkoa; eta 43.2 xedapena ezabatu zen inkongruentea ei zelako tronkaleko-tasuna determinatzen zuen 6. artikuluekiko. Baztertu egin zen komisario bidezko testamentuaren aldaketak eskatzen zituen zuzenketa, baina neurri batean onartu zen tronkaleko ondasunak atzera eskuratzeko akzioaren epea luzatzea, 57. artikuluari zegokiona, hain zuzen.

Proiektua Batzordean onartu ondoren, Plenotik igaro zen kontrako irizirik jaso gabe, Fernández Hernando Gorteetako Prokuradorearen hitzaldiak lagundurik¹⁷⁷. Bere alokuzioan azpimarratu zuen familiako ondarearen batasuna gordetzea zela Foruaren ardatza, eta irizpide horren arabera xedatu zirela foruaren aplikazioa eta irauarazi behar ziren erakundeak. Iturmendi Ministroak

¹⁷⁵ Batzorde horretan egon ziren Castán, Cimiano, Chacartegui, Gómez Casas, Cabanas, Alonso Fernández, *ACGC, Leg 7, acta n 9*.

¹⁷⁶ Gregorio Monreal-ek galdegiten dut: Chacartegi tradizionalistak kutsu nazionalista guztiez garbitu nahi izan ote zuen Konpilazioa? *MONREAL, G., op. cit., 243 or.*

¹⁷⁷ *BOCE*, n. 638, 13.228 or.

bere interbentzioan esan zuen 1900. urtean abiatu zen egitasmoa bere bultzadaz gauzatu zela azkenik. Egun batzuk lehenago Madrilgo prentsan adierazia zuen «Espainiaren batasuna» lortzeko ezinbestekoa zela zuzenbide pribatu propioak Kode Zibil erkidean jasotzea, orduan erdietsiko baitzen benetako arau-batasuna. «Araba eta Bizkaia izan dira beren erakundeak eguneratzen lehenak baina aurrki beste Konpilazio batzuk etorriko dira»¹⁷⁸. Horrela onartu zen beraz, 1959ko uztailaren 30ean, Bizkaia eta Arabako Foru Zuzenbide Zibilaren 32/1959 Legea¹⁷⁹.

Konpilazioak, esan den moduan, bi arazo nagusi konpondu nahi izan zituen. 1526ko testutik zetorren aplikazio eremu bikoitzarena, batetik eta gorde beharreko erakundeena, bestetik. Foruaren lurralde aplikazio eremuari buruz, esaten da, foruak ez duela indarrrik aforatu gabeko 12 hiribilduen hirigunean, baserriaren kontserbaziora zuzendutako arauak ez baitzuten zentzurik hiriguneetan, eta etorkizuneko hirien garapena kontuan hartuko zela esaten zuen gainera 3. artikulua, eremu horietatik forua baztertu eta Kodea aplikarazteko. Zioen azalpenean argiro esaten da, hiriguneak hazten doazen neurrian, Kode Zibilak aplikazio gero eta zabalagoa izango duela. Forua aplikatuko zaie ordea, nahiz eta hirigunean egon baserriari eta haren eranskinei, ez ordea industria guneei, hiribildutik kanpo egonda ere. Bilboko udalerrri osoan Kode Zibila aplikatuko da, nahiz eta urbanizatu gabeko lurra izan. Bigarrenik, berrogeita hamar urte aurretik adierazitako Balparda eta Chalbaud-en iritzia jarraiki, Konpilazioaren Zioen Azalpenak Bizkaiko foruaren oinarriari buruzko interpretazio bat egiten du: Foruak familiako onibarren batasuna ei du helburu eta printzipio nagusi. Gorde behar diren arauak, agi denez, printzipio hori gauzatzen dutenak dira, familia ondarearen zatiezintasunaren alde egiten dutenak, eskuarki; baztertu egin behar dira gainerakoak, testamentu mankomunatua kasu, edo *mortis causa* dohaintzen errebokazioa, preskripzioak eta onibarren arteko distantziak¹⁸⁰. Guztira 63 artikulua, azken xedapen bi eta iragankor bi dituen testu labur bat egin zen, zortzi titulutan banatua, non jasotzen ziren: tronkalitatea (II. Titulua), testamentua egiteko formak (III. Titulua), testamentu bidezko oinordetza (IV. titulua), ab intestato oinordetza (V. Titulua), foru komunitatea eta ezkontzaren eraentza ekonomikoa (VI. Titulua), tronkaleko ondasunak besterentzea (VIII. Titulua).

¹⁷⁸ MONREAL, G., *op. cit.*, 245-246 orr.

¹⁷⁹ *Ley 32/1959, de 30 de julio, sobre Compilación de Derecho Civil Foral de Vizcaya y Álava* (BOE 182, 1959ko uztailaren 31koa)

¹⁸⁰ Zioen azalpenak dioen moduan: «por aplicación del mismo criterio se abandonan aquellas instituciones que no responden a los principios inspiradores del Fuero, en base a lo cual se prescinde del testamento mancomunado y se someten a las normas del Código civil la revocación de las donaciones, la prescripción y las distancias fundiarias».

Aiarako Liburuari dagokionez, bi titulutan jasotzen dira testamentua egiteko askatasunari buruzko arauak, baina legezko oinordekoen izendapenerako Kode Zibilaren araudiari erreferentzia eginaz. Azken bi xedapenek argiro desematen dute aurreko Foru Zuzenbide guztia, eta Kode Zibila ezartzen dute lehen mailako ordezkotzako iturri. Ikusiko dugunez, gerora onartu ziren Konpilazioek zuzenbidearen jokatu zuten, aurreko zuzenbidea kolpe desemanordez, arauak interpretatzeko balio bat eman baitzitzaion.

Balorazioa egiteko orduan nabarmentzekoa da Foruaren idazkera eguneratu zela, 1526tik aldatu gabe zegoena. Forua oso gutxiturik geratu zen ordea. Eranskin proiektuen XV Tituluak VIIIra ekartzen dira; 135 artikulua 63ra. Baserriaren zatiezintasunaren abarokan dauden arauak bakarrik jasotzeko aitzakia-rekin bazter batera uzten dira indarrean zeuden erakunde garrantzitsuak, ermandadeko testamentuarena kasu, edo 1526ko Foruan jasotzen ziren preskripzio epeak eta dohaintzen desemate arauak. Eta batez ere, arauen lurralde aplikazioa oso modu kaskarrean arautzen da, nahasmendu handiz. Baina, hutsunerik nabarmenena, Foruaren iturriari buruzkoa da. Foruak ez du lehen tituluan Bizkaia eta Arabako zuzenbidearen iturriari eta arauen interpretazioari buruzko xedapenik ezartzen, ondoren etorriko diren testuek egingo duten legez.

Arrazoi horiengatik, 1959ko Konpilazioak garaiko doktrina batasun-zalearen laudorioak jaso zituen. Castánek, esate baterako, Konpilazioaren kalitate teknikoa goraiapatuko du, gorde behar ziren erakundeak hautatzeko moduari zinez egokia irizten dio, eta batasunaren bidea argi eta zintzo hasteko modua dela esango du¹⁸¹. Aldiz, Lacruzek, Konpilazioaren arteko alderaketa egiten ari denean, argiro aitortzen du Bizkaiko eta Arabako dela murriztaileena. Haren ustez, Bizkaia eta Arabako Batzordeen lana eskasa izan zen, zuzenbide lurraldetarraren arauak eguneko hizkuntzara ekarri eta erakundeak murriztera mugatu zena¹⁸². Azkenik, Konpilazioa sakon ezagutzen zuen Adrian Celaya Ibarra jurista bizkaitarrak biziki salatzen ditu bildumaren akatsak: erakunde murrizketa, garaiko gizarteari egokitu gabeko erakundeak jaso izana eta aldiz, erabilera nabarmena zuten beste erakunde garrantzitsu batzuk albo batera utzi izana¹⁸³.

Bizkaia eta Arabako Konpilazioa izan zen lehena eta baita murriztaileena ere: Francoren diktaduraren garairik gogorrean onartua, ez zegoen erregime-

¹⁸¹ Castánek dio: «constituye un avance decisivo en los propósitos de conciliación con el Derecho general, al haber suprimido algunas instituciones que se hallaban en desuso... y aquéllas cuya razón de especialidad carecía de sentido». CASTÁN, *op. cit.*, 368 or. Zentzu berean, DE LOS MOZOS, M. *Derecho civil español*, I-1, Salamanca, 1977, 371-372 orr.

¹⁸² LACRUZ BERDEJO, J. L., *Elementos de Derecho Civil*, I. alea vol. I, Madrid, 98 or.

¹⁸³ CELAYA IBARRA, A., *Selección de Estudios Jurídicos*, Bilbao: Universidad de Deusto, 1999, 311 or.

naren aldetik foru lurralde traidoreei amore emateko inolako asmorik. Bestalde, 1526ko testuaren bi erronka nagusiak ez zituen konpondu, hala nola, arau aplikagarrien bikoiztasuna eta iturri idatzien mugapena. Gogoan izan behar baita, Bizkaiko Forua, Nafarroakoa ez bezala, Gaztelako legediaren azpisistema izanik, haren barruan salbuespen moduan aplikatzen zela¹⁸⁴.

IX. 1973KO NAFARROAKO ZUZENBIDE ZIBIL FORALAREN KONPILAZIOA

Aipatu dugu 1947ko ekainaren 24ko Agindu bidez izendatu zituztela Bizkaiko eta gainerako Foru Batzorde berezietako kideak; Nafarroari zegokionez, ordea, prozedura berezi bat ezarri zen. Izan ere, Foru Aldundia 1841eko Lege Itunduari heldu zitzaion Konpilazioa egiteko, eta onartzeko prozedura propioa eskatzeko¹⁸⁵. Nafarroako eliteak Franco Jeneralaren estatu-kolpean lagundu izanakin zeresanik izango zuen, ezbairik gabe, pribilegio hori aitortzeko orduan¹⁸⁶. Azkenik, Nafarroako Diputazioari Batzorde berezia izendatzeko eskumena aitortu zion 1948ko otsailaren 10eko Justizia Ministerioaren Aginduak. Bi hila-

¹⁸⁴ MONREAL, G., *op. cit.*, 236 or.

¹⁸⁵ 1947ko uztailaren 19an, Batzorde berezien izendapen prozeduraren Agindua argitaratu eta hila-bete beranduago, Nafarroako Foru Aldundia horrela zuzentzen zaio Justizia Ministroari: «En Navarra, la Diputación foral, por la representación que tradicionalmente ostenta, en su calidad de sucesora de las instituciones públicas de este antiguo Reino, vincula cuantas facultades –salvo aquellas pertenecientes a la soberanía estatal, claro está– son inherentes a la existencia y desenvolvimiento necesario de los modos peculiares de la vida colectiva de la provincia, lo mismo en su aspecto u organización civil que administrativa o económica. Son tan varias, antiguas unas y modernas otras, las disposiciones del Estado aludiendo a este hecho inconsuso, que se impone aquí la omisión de su reseña, salvo la cita de la clásica Ley Paccionada de 1841. Consecuentemente inguna innovación que afecte a intereses o modos peculiares de Navarra debe hacerse sin el asentimiento e intervención de la Diputación. Más aún, solamente la Diputación es el organismo adecuado dentro de Navarra, para efectuar esas mutaciones cuando se consideren convenientes... si se tratara de modificar nuestro Derecho privado es evidente que ello no se podría llevar a cabo sino de acuerdo con esta Diputación... Y si se trata de realizar la compilación de nuestro Derecho foral, todavía parece más claro que sólo nuestros organismos privativos y neustros juristas pueden llevarla a cabo con la exigible garantía de acierto, porque son los que conocen, viven y practican las variadas instituciones que integran aquél Derecho... encomendar la labor de la Compilación a personas ajenas específicamente a todo lo que es peculiar de nuestra vida civil tiene el riesgo de que ésta sea desconocida o perturbada, cuando precisamente la razón de las compilaciones estriba en el respeto de los derechos privativos, que son expresión siempre de aquella vida civil», SALINAS, *op. cit.*, 346-348 orr.

¹⁸⁶ 1973ko Konpilazioaren Zioen Azalpenean bertan jasotzen da izaera hau, esaten denean, «no deja de ser significativo que precisamente una región que ha sentido y defendido la unidad política de España haya sabido presentar sin timideces una formulación de su propio Derecho civil, afirmando con ello la vitalidad de todos los ordenamientos forales como vía para un concertado progreso del Derecho de nuestra patria».

bete ostean, Diputazioak sortu berri zen Nafarroako Zuzenbidearen Ikasketen Kontseiluaren Plenoari egotzi zion Konpilazioa paratzeko enkargua. Justizia Ministerioaren Agindua ezarritako Iruñeko Entzutegi Lurraldetarraren Presidentearekin batera, parte hartu zuten erredakzioan honoko letratuek: Marcos Joaquín Abadía, Rafael Aizpún Santafé, Rafael Aizpún Tuero, Luis Arellano, José Miguel Arriaga Sagarra, Eugenio Fernández Asiáin, Martín Galán, Juan García Granero, Jesús Luis Iribarren, José Javier López Jacoiste, Pedro Maiza, José Joaquín Montoro Sagasti, Javier Pueyo Bonet, Francisco Salinas Quijada eta Juan Santamaría Ansa.

Hamar urte behar izan zituen Erredakzio Batzordeak, eten luzeak tarteko, Juan Santamaría Ansa epailearen gidaritzapean, 1959ko urriaren 9an, bere lana amaitzeko: «Anteproyecto de Fuero Recopilado de Navarra». Testuak 300 Lege ditu, Proemia eta zortzi liburutan multzokatuak.

Informazio publikorako 15 eguneko epe labur baten ostean, zuzenketarako hiru txosten jaso ziren¹⁸⁷. Batzordeak, 102 Legetan proposaturiko zuzenketa batzuk eta 25 Lege berri txertatu ondoren, Foru Diputazioari bidali zion, urte bereko abenduaren 3an, *Proyecto de Fuero Recopilado* delako testua. Hala eta guztiz ere, protesta ugari egon zen proiektuaren kontra, Erredakzio Batzordekide batzuen aldetik ere¹⁸⁸.

Erantzunaren aurrean, Diputazioak erabaki zuen zuzenketa epea luzatzea; saio horretan berriz ere txosten ugari jaso zuelarik, horien artean Diputazioak onartu ez zuen Manuel de Irujoren txostena, 1960ko apirilaren 30ean bidalia. Horietako txosten batzuk eskatzen zioten moduan, Diputazioak Batzorde berezi bat izendatu zuen, aurreko Erredakzio Batzordeari Abokatu Kolegioaren eta Notaritzakoaren zenbait kide gehitzen zizkiona. Batzorde berriari zeregin bi agintzen zitzaizkion: Konpilazioa onartzeko prozedura egokia zein izan zitekeen gomenda zezan, eta Konpilazio proiektuaren behin betiko erredakzioa proposa zezan. Aipatu ataza betetzeko *ad hoc* sorturiko Batzordea bitan baina ez zen bilduko, ordurako prestatzen ari baitzen Konpilazioa egiteko Diputazioaz kanpoko beste bide ofizioso bat.

Zer jazo zen bada Diputazioak sorturiko Konpilazio Batzordean? Nabarmena da garaiko autoreek esaten digutenez Nafarroako Kontseiluaren baitan

¹⁸⁷ Txostenak Jesús Aizpún Tuero abokatuak, Iruñako Notaritzako Kolegioak eta Nagore Yámoz-ek sinatzen zituzten. LASSO GAITE, J. F., *op. cit.*, 683 or.

¹⁸⁸ Consideraciones sobre el Proyecto de Fuero Recopilado de Navarra, *Diario de Navarra*, 1960ko martxoaren 1, San Juan Otermin, Aizpún-Tuero, Salamero, Arbizu, Lacarra, Lecumberri, Granero, Galarreta, Nagore-Yámoz, Apesteguía, Guelbenzu, Usechi, Erdozain eta Arreguik sinatua. Ikusten denez, sinatzaileetako batzuk Erredakzio Batzordean bertan parte hartutakoak ziren.

desadostasunak azaleratu zirela Forua jasotzeko moduari buruz, eta baita, jaso behar ote zenari buruz. Jose Javier Nagore Yáñez Notarioak, zeina ez baitzen Erredakzio Batzordeko kide, esaten digu Batzordeak metodoa falta izan zuela, eta praktikoen iritzia jasotzea falta izan zitzaiola, hala nola, Notarioena. Arellano bokalak, Diputazioko Presidente-orde izandakoak esango du beste lurraldeekin batera Eranskin arrunt batean jaso zitezkeen erakundeak ez zutela Foru Zuzenbidea ordezkatu ahal; izan ere, hori egin eta gero, lege arau hutsez aldatu ahal izango baitzen Nafarroako Forua, itun bidez egin behar ostean¹⁸⁹. Bestalde, Aurreproiektuari zuzendutako txosten ugaritan azpimarratzen da Foru Zuzenbidearen arazoen aurrean irtenbide eskasak ematen dituela Konpilazio egitasmoak, bere bat, legearen aurkako ohiturari eta, batez ere, Zuzenbide Erromatarraren iturriei dagokien guztian. Izan ere, testu hartan *kontra legen* ohitura Foru Arauei mugatzen baitzaie, eta ez beste arau erkideei, Kode Zibilari kasu. Arriskua zegoelarik, txostengileen esanetan, berezko arauen kontrako ohitura orokorra sor zedin, Forua bera desagertzeko kinkan jarritz. Desadostasun nagusia Zuzenbide Erromatarraren gaiari lotzen zitzaion, ordea. Hauek dira txostengileen aldarri nagusiak, alabaina, ikertzeke dago oraindik, Roldán Jimenok aitortzen duen moduan, Batzordearen dinamikan sortu bide ziren bestelako arazoak zein izan ziren.

Aipatu Zuzenbide Erromatarraren auzia soka luzekoa zen Nafarroan, izan ere, aspalditik joera bi zeuden juristen artean, ordezeko zuzenbide gisara gordezearen aldekoak (Alonso, Castejón, Vicario-Junco, Nagore-Yáñez), eta, argi esan gabe bada ere, zuzenbide erromatarra desematearen aldekoak (Morales, Lacarra eta Eranskin proiektu gehienak). Konpilazio proiektuak aldiz, ez zuen Nafarroako iturri supletorioen hurrenkera nominatiborik ezartzen, Zuzenbide Erromatarra esanbidez aipatzeke uzten zuelarik.

Jakina denez, iturrien auzia kezka nagusi zen zuzenbide lurraldetarrak jasotzeko orduan. Indar legegile propioak agorturik, zuzenbide foralaren berriztatzea ezina izanik, lege hutsuneak betetzeko arau supletorioen ezarpena funtsezkoa bilakatu zen. Kode Zibilaren arabera, zuzenbide erkideak bigarren mailako iturri supletorio izan behar zuen. Ondorioz, lehen mailako ordezeko iturrien finkapena ezinbestekoa zen Kodearen indar uniformizatzailerak amatatzeko. Aldiz, ordura arteko Txosten eta Eranskinetan ez zen iturrien finkapena ezarri ahal. Kodifikazio Batzorde Orokorraren buru izan ziren Alonso Martínez-ek, txostenen garaian, eta Antonio Maurak, ostean, iturririk gabeko foru bilduma desegituratu eta iturririk gabeak nahi zituzten. Egoera horren aurrean, Manuel Durán i Bas-ek bere *Memoria acerca de las instituciones del derecho civil de Cataluña*

¹⁸⁹ NAGORE-YÁÑEZ, J. J., *op. cit.*, 367 or. eta baita, ikus, *Informe D. José María Arellano-Igea*, 8 de Marzo de 1960, 1 or.

(1883) delakoan, *continuatio iuris historici* delako teoria sortu zuen Kataluniako foruaren zuzenbide supletorio propioak, Zuzenbide erromatarra eta Zuzenbide kanonikoa, alegia, erreibindikatzeko asmoz. Kataluniako Eskola Historikoaren ordezkari nagusiaren esanetan, atxikiak nahiz eranskinak ez ziren kodeak, haien zeregin nagusia ordu-arte zuzenbidea jaso eta sistematizatzea baitzen, ez beste. Hargatik, aurreko zuzenbidearen iturriak desesan ordeztu, egokiagoa ei zen Zuzenbide historiko legeztatu, jasotako zuzenbidea interpretatzeko eta integratzeko funtzioa ematea. Horrek ez du esan nahi zuzenbide historiko hura indarrean dagoenik eta zuzenean aplikagarria denik, esan nahi du, konpilaturiko zuzenbide historikoa egungoa integratzeko eta interpretatzeko erabiliko dela¹⁹⁰. Bada, *iuris continuatio* delakoari men eginez, 1960an onartu berri zen Kataluniako Foru Konpilazioak lehen artikuluan zuzenbide historikoaren funtzio interpretatzailea jasotzen zuen¹⁹¹.

Kataluniako aurrekaria kontuan izanik, Nafarroako Batzordeak egindako proposamenaren aurrean ebazpen argiago bat eskatzen zioten hainbat txostenek proposamenari. Lehenik eta behin, Zuzenbide Erromatarra lehen iturri supletorio bezala jaso zezan, esanbidez, eta Kodifikazio Batzordeak, Kataluniako Konpilazioarekin gertatu legeztatu, hori eragotziko balu, irtenbide moduan, Nafarroan indarrean zeuden erakundeak zuzenbide erromatarreko arauekin osatzeko galdatzen zitzaion zehazki. Auzi hori izan zen, Nagore Yáñez-en esanetan Konpilazio Egitasmoa bertan behera geratzeko arrazoi nagusi¹⁹². Modu aski adierazgarrian, Iruñeko Notarioak berak, Diputazioari zuzendutako zuzenketa-txosten luzean eskatzen du Erredakzio Batzordeak Zuzenbide erromatarreko mutur-muturreko adituren bat gehitu zezan.

Esandakoagatik, erraz ulertzen da Nafarroako Unibertsitate pribatuan irakasle zen Álvaro D'Ors erromatar zuzenbideko aditu ospetsuak zeresan handia

¹⁹⁰ SALVADOR CODERCH, P., El Derecho civil de Cataluña. Comentario al art. 1 de la Compilación catalana, *Revista Jurídica de Catalunya*, 83, 1984, 793 or.

¹⁹¹ Konpilazioaren 1.2 artikulua dio «... para interpretar los preceptos de esta Compilación se tomará en consideración la tradición jurídica catalana, encarnada en las antiguas leyes, costumbres y doctrina de que aquéllos se derivan». El Código Civil español tenía el carácter de derecho supletorio, conforme a la disposición final segunda: «En lo no previsto en la presente Compilación regirán los preceptos del Código Civil que no se opongan a ella y las fuentes jurídicas de aplicación general». Y según establecía la disposición final primera, «[l]as normas del Derecho Civil especial de Cataluña, escrito o consuetudinario, principal o supletorio, vigentes a la promulgación de esta Compilación, quedan sustituidas por las contenidas en ella». Erredakzio hori Castán Tobeñas, Kodifikazio Batzordearen buruak emana zen, Konpilazio proiektuan jasotako «integrazio» funtzioa bertan behera utzi zuelarik. Kataluniako Konpilazioaren proiektuaren 5. artikulua hirugarren mailako iturri supletorio kontsideratzen zuen *Corpus Iuris Civilis* delakoa.

¹⁹² NAGORE YÁÑEZ, J. J., *op. cit.*, 370 or.

izan zuela, ez ausaz, Diputazioaren Batzordetik at sortu zen jurista nafarren arteko batzorde pribatuan. Jurista foruzaleen batzorde ofiziosoa Nagore Yánoz berak, aipatu Álvaro D'Ors-ek, García Granero, Aizpún Tuero, López Jacoiste eta Arregui Gil-ek osatzen zuten, gerora batu zirelarik Santamaría Ansa eta Salinas Quijada. Talde honen lana ere patxadatsua izan zen. Lehen emaitzak 1967 urtean jaso zituzten «*Recopilación privada del Derecho Foral de Navarra*» obran. Azken bertsioa Diputazioak argitaratu zuen 1970. urtean «Derecho foral de Navarra. Derecho privado (Recopilación privada)» izenburupean. Guztira 615 lege zituen proiektuak, hiru liburutan banatuak –pertsonek eta familia (Igo Liburukia); oinordetza eta dohaintzak (II. Liburukia), eta Ondasunak (III. Liburukia). Eranskinaren egiturak berak aditzera ematen duenez, iturri erromatarrek eragin handia zuten bertan.

Diputazioak bere egin zuen aipatu proiektu pribatua, nahiz eta Batzordeak, formalki bederen, ez zuen bere lana proiektu moduan aurkeztu¹⁹³. Hain zuzen ere, proiektu hori eskuan bidali zuten Nagore Yánoz notarioa Nafarroako Diputazioaren ordezkari gisara Madrilera, Justizia Ministerioarekin onarpen prozedura negoziatzera. Bileran gutxi batzuen ostean erabaki zen, 1971ko urtarrilaren 28an, Nafarroako konpilazioak Diputazioaren eta Ministerioaren artean itundua behar zuela izan, gero, Lege nahiz Lege-Dekretu moduan onartuko zelarik. Aurretik, Ministerioak izendatua zuen formalki Nafarroako Batzorde Konpilatzailea (1971ko ekainaren 30ean) zeinak aurreproiektu bilakatu zuen batzorde ofiziosoren testua, eta Kodifikazio Batzorde Orokorren Atal bereziak aztertua zuen hura. Urte betez egin zituzten bi batzordeetako ordezkariak bilkurak, azkenik, heldu zirelarik testu adostu batera: 596 Lege, bost xedapen iragankor eta azken xedapen bi zituena. Azkenik, Konpilazioa 1973an onartu zuen Estatuburuak, prerrogatiba lege moduan, Lege 1/1973, martxoaren lekoa, Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioari buruzkoa izenez¹⁹⁴.

Nafarroako Foru berriak Kode Zibilarenetik nabarmen aldentzen den egitura jarraitzen du. Aurrekari erromatarrei jarraituz, hiru zati edo liburutan banatzen dira gaiak, eta obligazioak ondasunen liburuan barneratzen dira. Aurretiazko Titulu luze eta osotuan (1-74 Legeak), Nafarroako zuzenbideren itu-

¹⁹³ Rekopilazioaren hitzaurrean esaten denez, «no competía a este grupo de juristas elaborar un anteproyecto más, sino que fue su idea y guía recoger simplemente el Derecho privado vigente en Navarra, actualizando sus antiguas leyes y costumbres, eliminando las leyes romanas caídas en desuso, adaptando su antiguo derecho a las exigencias de la vida y la ciencia jurídica de hoy... Este es el fin de nuestro trabajo, que tiene así el carácter de recopilación privada, pero no por ello menos útil y fidedigna para el conocimiento del Derecho propio de Navarra.»

¹⁹⁴ *Ley 1/1973, de 1 de marzo (Jefatura del Estado, BBOO 7 a 10 y 12 a 14), sobre la Compilación de Derecho Civil de Navarra.*

rriak jasotzen dira, lehen mailakoak eta ordezkoak. Esanbidez izendatzen dira iturri supletorioak, eta Zuzenbide Erromatarra ordezko zuzenbidetzat hartzen da Konpilazioan aipatzen diren harengandik jasotako ohitura eta erakundeetan. Kode Zibila eta Espainiako lege orokorrak, Konpilazioaren 6. Legearen arabera, iturri supletorio izango dira, beti ere Nafarroako zuzenbidea eta haren tradizio juridikoa eta hedapen analogikoa errespetatzen badituzte. Izan ere, Durán i Basken hasitako doktrinari jarraituz esanbidez jasotzen baita Nafarroako tradizio juridikoa interpretatu eta osatuko duela Nafarroako zuzenbide zibila¹⁹⁵. Horrez gain, auzotar-tasun zibila, eskubideen egikaritzea eta akzioen preskripzioa eraentzen dira.

Lehen liburua (42-147 Legeak) dohaintza eta oinordetzari buruzkoa da, bertan jasotzen delarik xedapen askatasunaren printzipioa, dela mortis causa dela inter vivos negozioen bitartez. Eta Hirugarren Liburua (346-596 Legeak), eskubide errealak, obligazio eta kontratuak eraentzeko da, bertan, zuzenbide propioaz gain, Kodearekiko berdintsu erakunde ugari jasotzen direlarik, eguneraturik eta kodegintza garaikidearen soluzio aurreratuenetan oinarriturik, Suitzako obligazio kodearena kasu, eta baita Italiako Kode Zibilaren erreforma begitanduz.

Esan izan da, teknikoki, Konpilazio osatuena eta modernoena dela, Kode baten pareko. Aurreko Konpilazioekin eta batez ere Bizkaia eta Arabako 1959koarekin erkatuta, estiloa erabat aldatzen da, arauak ez daude hain kondentsatu eta laburturik eta araututako erakundeak ez dira zuhurtziaz jasotzen, eguneratu egiten dira aitzitik. Iturri sistema propioa jasotzen da.

Edukiei buruz ezaugarri bi azaleratzen dira: haren historizismo nabarmena eta eragin erromanista handia. Eguneko ohitura eta tradizio propioa baztertuz, askotan, iturri erromatarretara joaten da, kontratuen arloan eskuarki. Deigarria egiten da, Roldán Jimeno Arangurenek adierazi duenez Batzordearen hautua, «litekeena da, Foru Berria osatu zuten batzordekideak hobeto ezagutu izan balituzte Nafarroako zuzenbide propioaren berezko testuak eta literatura historiografikoa garatuagoa izan balitz, Konpilazioak erabat bestelako taxuketa izatea»¹⁹⁶. Nabarmena baita Konpilazioak oso hautu kontserbadoreak egin zituela fami-

¹⁹⁵ Konpilazioaren Lege 1.2: «Tradición jurídica navarra. Como expresión del sentido histórico y de la continuidad del Derecho Privado Foral de Navarra, conservan rango preferente para la interpretación e integración de las Leyes de la Compilación, y por este orden: las leyes de cortes posteriores a la Novísima Recopilación; la Novísima Recopilación; los Amejoramientos del Fuero; el Fuero General de Navarra; los demás textos legales, como los fueros locales y el Fuero Reducido, y el Derecho Romano para las instituciones o preceptos que la costumbre o la presente Compilación hayan recibido del mismo».

¹⁹⁶ JIMENO, R., *op. cit.*, 302 or.

lia zuzenbidean eta huts egin zuela erakunde batean baino gehiagotan, Nafarroako gizarte garaikideak behar zituen soluzio egokiak emateko orduan.

Konpilazioak garaiko zuzenbidearen aplikatzaileen oniritzia jaso zuen, argitu eta erraztu egiten zuelako jarduera juridikoan erabili behar zen zuzenbidea. Politikoki, garai hartako errepresio giroa gogoan, ahots kritiko bakarra Manuel de Irujorena izan zen¹⁹⁷, zeinak erbestetik telegrama bat bidali zuen Foru Diputazioa Konpilazioaren onarpen prozedura gaitzetsiz¹⁹⁸. Doktrina foralistak berriz, nola jaso zuen Nafarroako Konpilazioa? Batasun zaleek, Castanek kasu nabarmentzen du Foru Berria erabat aldentu zela Zaragozako Kongresuan dostatutako irizpideetatik, «lo más significativo de la compilación es su celo por mantener y ensanchar el Derecho Navarro, quedando relegado a segundo término cualquier otro propósito, como se manifiesta de forma patente en el sistema de fuentes que establece y en las cautelas que se toman de cara a futuras reformas»¹⁹⁹. Santos Brizek salatzen du Konpilazioan Kode Zibilaren pareko diren arau andana jasotzen dela, eta baita zuzenbide erkidean jaso gabeko erakunde orokorrak, foruari arrotzak zaizkionak, ziorik gabeko aberastea edo rebus sic stantibus klausularen eraentza kasu²⁰⁰. Lacruzek aldiz, goraiatu egiten du Konpilazioa ikuspegi teknikitik, Kode Zibila baino idazkera eta metodo depuratuagoa erabiltzen duena eta alderdi askotan hura gainditzen duena dela esango du²⁰¹.

Nafarroako Konpilazioa izan zen jasotzen azkena 1973an. Hogeita bost urte lehenago Zaragozako Kongresuan adostutako programa jarraituz gero, Kode Zibil erkiderantz eman behar ziren handik aurrera urratsak; aitzitik, Erregimena erortzeko urte bi baino ez ziren geratzen, eta 1978ko Konstituzioak beste modu batera ikusi zituen gauzak.

X. ONDORIOAK

Espainiako kodifikazio-prozesuak kodifikazio nazional handiekin bateagarriak diren ezaugarriak partekatzen baditu ere, ikur propioak izan zituen. Frantzian eta Alemanian, Kode-nagusiak garatu ziren herrialdeetan gertatuta-

¹⁹⁷ *Diario de Navarra*-k inkesta bat argitaratu zuen Konpilazioaren onarpen mailari buzuz 1973ko martxoaren 11 eta 18an. JIMENO, R., *op. cit.*, 304 or.

¹⁹⁸ «APROBACIÓN APÉNDICE CÓDIGO NAVARRA PIERDE SOBERANÍA CIVIL POR GESTIÓN INDIGNA STOP CUANDO NAVARRA RECOBRE LIBERTAD EXIGIREMOS RESPONSABILIDADES». JIMENO, R., *op. cit.*, 304 or.

¹⁹⁹ CASTÁN TOBEÑAS, J., *op. cit.*, 382 or.

²⁰⁰ SANTOS BRIZ, J., La codificación del Derecho foral de Navarra (Anteproyecto de 1971), *Revista de Derecho Privado*, 1971, 239 or.

²⁰¹ LACRUZ BERDEJO, J. L., *Elementos de derecho civil*, I, 1, 101 or.

koaren parean, Espainiako prozesuaren berezitasun nabarmenena kode bakararren paradigma hautsi izanarena da.

Espainiako kodegintza zibila **bi fasetan** egin zen: kode zibil erkidea erdietsi arteko lehen etapa, 1812tik 1889ra iraun zuena; eta zuzenbide lurraldetarrak konpilatu bitartekoa, 1973 urte-arte luzatu zena. Esan daiteke bigarren etapa hori indarrean dagoela oraindik: ikus, eskuarki, 2017an onartutako Kataluniako Kode Zibilaren obligazio eta kontratuei buruzko azken liburua.

Lehen fasearen emaitza izan zen 1889ko Kode Zibilaren ezaugarri propioak laburbiltzeko, aipatu behar dira honakoak:

Frantzia eta Alemaniako kode-eredu nazionalekin batera, Espainiako kodea, **kode nazionala** izan zen; Estatu modernoaren oinarri nagusietako bat kontsideratua, Gobernu guztiek, bakoitzaren kolore politikoak gora-behera, erdietsi nahi izan zuten obra.

1889ko Kode Zibila ez zen obra originala izan; **Napoleon Kodearen eragina** nabarmena da bertan. Alta, Napoleon Kodearen besoetakoa izanda ere, bere garaian Txile, Argentina edo Peruko kodeek egin bezala, Kode zibil espainiarrak *code civil* delakoaren egokitzapen sakon bat egin zuten.

Frantzian ez bezala, Espainian Kodea ez zen iraultzaren ondorio izan. Garaiko gobernu liberal guztiek huts egin zuten kodearen bideratze-saioetan, harik eta Errestaurazioak aurrera ateratzea lortzen duen arte. Ilustrazio liberalari eta laikotasunari loturiko hautu ideologiko bat baino gehiago, **erronka tekniko bat** izan zen, garaiko zuzenbideen materialak ordenatu, homogeneizatu eta Estatuari batasun itxura modernoa emateko saioa.

XIX. mendeko kode-eredu nagusiekin alderatuz, Frantziako kode iraultzaile eta batasun-zalea; Alemaniako eredu jaso eta teknika-zalea; eta XX. mendeko Suitzako zuzenbide kantonalen iturriak modu orekatuan jasotzen dituen *ZGB* delakoa, Espainiako Kode Zibila Napoleon kodearen *code suiveur* bat izan zen Europako beste herrialde askorekin batera. Suitzako *ZGB*ak lurralde guztien ohiturak eta lege-bildumak kontuan hartu bazituen, Espainiako Estatuaren kasuan agerikoa da aniztasunaren sintesi-eredu horrek ez zuela arrakastarik izan. Batetik, nahi izanda ere, zalantzakoa zen **atzerapen handia pairatzen zuen Espainiako doktrina juridikoak** lurralde guztietako zuzenbideen sintesiaren eta asimilazioaren erronkari aurre egiteko mailarik ba ote zuten. Esanguratsua da nola Espainiako Kode zibilaren aurrekari zuzena Frantziako Kode zibilean oinarritutako obra bat den, haren autore nagusiak zintzo aitortzen duen moduan. Desberdina ez ote zatekeen izango emaitza Espainian doktrina juridiko eta historiografiko indartsu bat egon izan balitz, ordenamendu zibil historikoen lanketa sakonago bat egiteko gai izango zena, Frantzian *Codearen* funts izan ziren Daguessau, Bourjon nahiz Pothierren ereduari jarraiki, nahiz Alemaniako *BGB*-

ren oinarrian egon ziren Eskola germanista eta pandektistak, edo eta Suitzan kantoietakoa aniztasun aberatsa bateratzeko gai izen zen Eugen Huber bat egon izan balitz?

Bestetik, kodearen elaborazioan zentroaren eta periferiaren arteko tentsioa nabarmena izan zen. Estatu-ikuspegitik Gaztelako zuzenbidearen zentraltasunaren eta *vis* hedakorraren kariaz, Gaztelako ordenamenduak izan behar zuten zuzenbide erkidearen oinarri, gainerako zuzenbide lurraldetar guztiak desagerraraziz. Beren zuzenbidea galtzeko arriskuaren aurrean **foru lurraldeek erresistentzia** handia egin zuten.

XIX. mendean, zuzenbide pribatu lurraldetarrek bizirautea lortu zuten, erresistentzia handia egin zutelako, eta Estatuak ez zituelako benetako mehatxutzat hartzen, Espainiako Estatu-nazioaren paradigmatikoko haien esangura politikoa askoz ere urriagoa baitzen. 1889ko Kode Zibilak, teknikoki txukuna eta orekatua izanik ere, zuzenbide zibil lurraldetarren auzia ebazteke utzi zuen. Bada, arau zibil propioak desemateko saioak huts eginda, eta gehiegi luzatzen ari zen Kode erkidea aprobatazaren urgentziak bultzatuta, transakzio batera heldu ziren Estatu eta lurraldeetako ordezkariak. Ondorioz, Kodeak indarrean utzi zituen «behin-behinean» zuzenbide lurraldetarrak, etorkizunean asimilatze-ko asmoz: idatziz jasoko ziren Kodearen atxiki moduan eta haren nagusigoari men eginez. Atxeki horiek erdiesteko, baina, beste 70 urte behar izan ziren, eta oraindik orain itxi gabeko prozesu historikoa dela esan daiteke.

Zuzenbide lurraldetarren kodifikazioak izan zituen ezaugarriak laburbiltze aldera, esan daiteke:

Euskal Zuzenbide pribatuari dagokionez, **Eusko Ikaskuntzak 1918ko Kongresuan** eta gerora egindako ahaleginak, zeinak 1936ko Estatutuan izan zuten beren isla, Euskal Zuzenbide bateratuaren aldeko interesa piztu zuen. Bonifacio de Echegarayren *Derecho Foral Privado* eta Jesús de Galíndezek Eusko Ikaskuntzaren 1942ko Kongresuan aurkeztu zuen *Euskal Foru Zibilari buruzko proiektu artikulatua* dira mugimendu horren lekuko nagusiak.

Erregimen frankistak kolpez eten zuen bide autonomiazalea. Ministro tradizionalisten babespean egindako zuzenbide zibil lurraldetarren konpilazioak Kode Zibilaren **ordenamendu dependiente eta murriztuak** dira. Kode nagusiarekiko gorputz jarraitzaileak izanik, dependentsia edo menekotasun hori hainbat mailatan antzematen da: egiturari, aukeratutako eta baztertutako erakundeetan, soluzio juridikoetan, eta, Bizkaia eta Arabako konpilazioen kasuan, arauak berritzeko iturri propioak ukatzean (konpilazioak onartzeko eta aldatzeko Estatu parlamenturara jo behar zen).

Erdi Arotik zetozen arau-gorputz horiek jasotzeko orduan hauturik **kon-tserbadore eta historia zaleena** egin zen. Foru zuzenbideen proiektuak aurrera

egiteko aukera politikoa horrelakoa izan baitzen: Estatuaren aldetik, diktadura garaiko Ministro tradizionalistek bat egin zuten Foru lurraldeetako indar kontserbadoreekin. Alde bietatik historizismo militante batetik abiatuz, adostasun batera heldu zirelarik konpilazioak kontserbadore izan zitezten.

Konpilazioen onarpenak areagotu egin zituen **Hegoaldeko euskal ordenamendu zibilen arteko aldeak**. Izan ere, Bizkaiko foruaren berezko mugak, Gaztelako ordenamendu juridikoaren azpisistema izatetik zetozenak, azpimarratu egin zituen Konpilazioak: erakundeak murriztuz eta iturriak agortuz. Nafarroako Konpilazioa, Erreinu baten ordenamendu juridiko propiotik eratorria izanik, arau sistema zibil osotua zen jatorriz, eta horri gehitu zitzaion gainera, garaiko Erregimenarekiko gertutasunak emandako pribilegioaren ondorioz, Nafarroan bertan onartu eta Kodifikazio Batzordeak eskuilatu gabeko gorputza izan zela, jasotako iturriak eta erakundeak historikotasun nabarmena gorde zutela.

1978ko Konstituzioak, Errepublikara garaikoak ez bezala, Konpilazio horietan oinarritu zuen etorkizuneko zuzenbide zibilararen garapena. Estatuko lege horien berriztapenetik abiatu behar zuen Erkidego Autonomo sortu berrien eskumen zibilak. Alta, Bizkaia-Arabako eta Nafarroako Konpilazioak guztiz desberdinak izanik, gerora izan duten bilakaera ez da izan espero zitekeena. Bizkaiko foruak, bere urritasunetik indarrak atera ditu eta Gipuzkoako ohituraren idazketarekin bat eginez, Erkidego Autonomo osorako lege berriztatua indarrean jartzea lortu da 2015. urtean. Aldiz, Nafarroako foruak, bere horretan jarraitzen du, benetako Kode oso izanik, 1973an eman zitzaion taxukera kontserbadore eta historizista berean, gaurko Nafarroako gizartearen beharretatik urrutiraturik.

Sakoneko iturriak partekatzen dituzten Euskal zuzenbide pribatuko ordenamenduek, bakoitzak bere aldetik, beren bidea egin duten bada. Egungo marko konstituzionalak aukera gutxi uzten du epe motzean bien arteko konfluentzia bat egin ahal izateko, baina, etorkizunera begira, Euskal zuzenbide zibilen kodetze prozesuak irekita jarraitzen duenez, intereseko jotzen dugu elkarri begira jar gaitzen, erakunde zibilen azterketa eta lanketa konparatua egiteko aukera ematen diguten abaguneak sortuz eta partekatuz.

XI. BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba, *Eusko Ikaskuntzaren sorrera: ikertzaileen ernamuinera bidaia*, Argia, 2007.
- AIZPÚN SANTAFÉ, F. eta ARVIZU AGUADO, R., *Anteproyecto de Apéndice de Navarra al Código civil*, Pamplona, 1930
- ALLENDE SALAZAR, Ángel, La codificación civil y las legislaciones forales, *Revista Euskara*, T. II, 1879.

- El dualismo en la legislación civil de Vizcaya. *Revista General de Legislación y Jurisprudencia*, 54, 1879.
- ALONSO MARTÍNEZ, Manuel, *El Código civil en relación a las legislaciones forales*, Igo eta II. aleak, Madrid, 1884 eta 1885.
- AZURMENDI, Joxe, *Historia, arraza, nazioa*, Donostia: Elkar, 2014.
- BALPARDA, Gregorio, *El Fuero de Vizcaya en lo civil. Estudio Critico del Proyecto de Apéndice del Código Civil que comprende las disposiciones aplicables en Vizcaya y en Alava*, Bilbao: Imprenta de la Casa de Misericordia, 1903, 20 or.
- El Fuero y el caserío: informe elevado a la Junta general del Ilustre Colegio de Abogados de Bilbao*, Bilbao, 1913.
- BARÓ PAZOS, Juan, *La codificación del Derecho civil en España (1808-1889)*, Santander: Servicio de publicaciones de la Universidad de Cantabria, 1992, 54 or.
- BARRERO, Ana; MORA, Adela, Algunas reflexiones en torno a la codificación civil (mucho ruido y pocas nueces), *Anuario de Historia del Derecho Español*, (Ejemplar dedicado a: En memoria de Francisco Tomás y Valiente), 67, 1997.
- BEIGNER, Bernard, Le Code civil et la conscience collective française, *Le code civil une leçon de légistique?*, *Etudes Juridiques Economica*, 24, 2006.
- BLANCO GONZÁLEZ, Aurelia, *La evolución de los derechos forales desde la Codificación hasta la Constitución de 1978. Especial referencia al Derecho gallego*, Santiago: Tórculo Edicions, 2002.
- CASTÁN TOBEÑAS, José, *Derecho civil español, comun y foral*, t. I, *Introducción y parte general*, vol. I, Madrid, 1984.
- CELAYA IBARRA, Adrián, El Derecho vasco en el ámbito del Derecho europeo, *Selección de Estudios Jurídicos*, Bilbao: Universidad de Deusto, 1999.
- Selección de Estudios Jurídicos*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1999.
- COING, Helmut (arg.), *Handbuch der Quellen und Literatur der Neueren Europäischen Privatrechtsgeschichte, II Neuere Zeit (1500-1800)*, München, 1977.
- COLEGIO DE ABOGADOS DE PAMPLONA, *Dictámen formulado por el Ilustre Colegio de Abogados de la M. N. Ciudad de Pamplona acerca del Código Civil*, Pamplona: Imprenta provincial, 1889.
- COLLECTIF PARIS II (arg.), *1804-2004 : Le Code civil, un passé un présent un avenir*, Paris: Dalloz, 2004.
- D'ABBADIE, Antoine, Carta acerca de la legislación euskara, *Revista Euskara*, III. alea, 1880.

- DE CASTRO Y BRAVO, Federico, *Derecho civil de España, Parte General*, T I, vol 3.a., Madrid, 1955.
- DELGADO ECHEVERRÍA, Jesús, Las Comisiones de Derecho civil. La experiencia aragonesa, *Revista de derecho civil aragonés*, 21-22, 2015-2016.
- DUNAND, Jean-Philippe, Le code civil de Eugen Huber: une loi conçue dans l'esprit de la démocratie?, TSCHANNEN, Pierre (arg.), *La démocratie comme idée directrice de l'ordre juridique suisse*, Genève, Zurich, Bâle, 2005.
- Entre tradition et innovation : analyse historique du concept de code, WINIGER, Bénédicte eta DUAND, Jean-Philippe (arg.), *Le Code civil français dans le droit européen: actes du colloque sur le bicentenaire du Code civil français*, Bruxelles, 2005.
- DURÁN I BAS, Manuel, *Memoria acerca de las instituciones del derecho civil de Cataluña*, 1883.
- DURAN RIVACOBA, Ramón, Codificación y Registro Civil, ASOCIACIÓN DE DERECHO CIVIL (arg.) *Centenario del Código Civil (1889-1999)*, I. alea, 1990.
- ECHEGARAY, Bonifacio, *Derecho foral privado*, Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 1950.
- ESTORNÉS LASA, Idoia, *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, 1983.
- FERNÁNDEZ DE LA HOZ, José María, *Código civil redactado de acuerdo con la legislación*, Madrid, 1843.
- GALÍNDEZ SUÁREZ, Javier, Proyecto de bases para la redacción de un Fuero Civil Vasco (Biarritz, 1942). *VII Congreso de Estudios Vascos / Eusko Ikaskuntzaren VII. kongresua*. Donostia, 2007.
- GARCÍA GOYENA, Florencio, *Concordancias, motivos y comentarios del Código civil español*, Madrid, 1852.
- GÉNY, François, La technique législative dans la codification civile moderne, *Le Code civil 1804-1904, livre du centenaire*, Paris, 1904.
- GIL BERGES, Joaquín, *Discurso pronunciado en el Congreso de los Diputados, sobre el Proyecto de Ley de Bases para la formación de un Código civil*, Zaragoza, 1885.
- GIL RODRÍGUEZ, Jacinto, Del Derecho Foral al Derecho Civil Vasco. Código versus Fueros, GIL RODRÍGUEZ, Jacinto (Zuz.) eta GALICIA AIZPURUA, Gorka (koord.) *Manual de Derecho Civil Vasco*. Barcelona: Atelier, 2016.
- GUILARTE GONZÁLEZ, Vicente, La unificación del Derecho Civil en España. Estado actual del problema, *AAMN*, 1957.

- HATTENHAUER, Hans, *Thibaut und Savigny. Ihre programmatischen Schriften*, München, 2002.
- HERNÁNDEZ GIL, Antonio. Reflexiones sobre el Derecho foral y la unificación del Derecho, *Revista General de Legislación y Jurisprudencia*, XXX. alea, 1955.
- HUBER, Eugène, *Code civil suisse : exposé des motifs*, Berne 1901.
- ILUSTRE COLEGIO NOTARIAL DE PAMPLONA, *Apéndice de Derecho navarro al Código civil*, Pamplona, 1930.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán, Derecho civil navarro y codificación general española, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 83, 2012.
- JOVELLANOS, Melchor Gaspar, *Apuntamientos y deducciones relativos al Derecho Público de España*. Sevilla, 1774.
- LACRUZ BERDEJO, José Luis, *Elementos de Derecho Civil. Tomo I. Parte general. Volumen I. Introducción*, Dykinson, 2006.
- Las «Concordancias» de García Goyena y su valor para la interpretación del Código Civil, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 1974.
- Objetivos y método de la codificación aragonesa, *Revista crítica de Derecho inmobiliario*. 465, 1968, 310 or.
- LASSO GAITE, Juan Francisco, *Crónica de la codificación española 1970-1980*, IV-1. alea, 1998.
- LECANDA, Manuel, *Sobre las instituciones civiles que deben quedar vigentes en las Provincias Vascongadas*, Madrid, Imprenta del Ministerio de Gracia y Justicia, 1889.
- LEFEBVRE-TEILLARD, Anne, Les différents facteurs d'unification dans l'ancien droit, 1804-2004, *Le Code Civil. Un passé, un présent, un avenir*, Paris: Dalloz, 2004.
- LOKIN, J.H.A., Two Paradoxes on Codification, *Comparative Historical Essays on Developments in Civil Law, Ius commune europeum*, Cambridge: Intersentia, 128, 2014.
- LORENTE SANZ, José, Idea de una encuesta sobre la observancia actual del Derecho aragonés, *Primera semana de Derecho aragonés*, Jaca, 1942.
- MALUQUER DE MOTES, Carlos, El Código civil o la codificación del derecho castellano, *Centenario del Código civil (1889-1989)*, II. alea, 1989.
- MOLFESSIS, Nicolas (arg.), *Le Code Civil: une leçon de légistique?*, Economica, 2006.
- MONREAL ZIA, Gregorio, *Munduko Zuzenbidearen testu-bilduma*, Haritz Monrealek itzulia, Klasikoak, Bilbo: BBK, 2007.

- Codificación civil y legislación foral de Vizcaya, *Anuario de Historia del Derecho español*, 83, 2012.
- MORALES Y GÓMEZ, Antonio, *Legislación foral de España. Derecho civil vigente en Navarra*, Madrid: Biblioteca judicial, 1888.
- NAGORE YÁRNOZ, José Javier, *Compilación de Derecho Navarro*, Pamplona, 1965.
- OBANOS, Esteban *et al.*, Dictamen relativo a las instituciones forales que deben conservarse en el Código Civil español, *Revista Euskara*, III. alea, 1880.
- OPPETIT, Bruno, *Essai sur la codification*, Paris: PUF, 1998.
- PEROUSE, Honoré, *Napoléon Ier et les lois civiles du Consulat et de l'Empire*, Paris, 1866.
- PESET REIG, Mariano, Análisis y concordancias del proyecto de Código Civil de 1821, *Anuario de Derecho Civil*, 28, 1975.
- PETIT, Calos, El código inexistente. Por una historia conceptual de la cultura jurídica en la España del siglo XIX, *Historia Contemporánea*, 12, 1995.
- REPÁRAZ PADRÓS, María, García Goyena: biografía de un jurista liberal (una aportación al estudio de la codificación civil española), *Anuario de Historia del Derecho Español*, 66, 1996.
- La crítica contemporánea al proyecto de Código civil de 1851, *Anuario de Derecho Civil*, 1997.
- ROBINSON, FERGUS, GORDON, *European Legal History*, London-Dublin-Edinburgh: Butterworths, 1994
- SALINAS QUIJADA, Francisco, *Navarra en el proyecto isabelino de Código Civil de 1851 y en las concordancias de García Goyena*, Pamplona: Príncipe Viana, 1984,
- Derecho civil de Navarra*, Pamplona: Aranzadi, 1971-1973.
- SALVADOR CODERCH, Pablo, El Derecho civil de Cataluña. Comentario al art. 1 de la Compilación catalana, *Revista Jurídica de Catalunya*, 83, 1984.
- El proyecto de Código de Derecho Civil de 1851 y el Derecho Civil Catalán, *Revista jurídica de Cataluña*, 79, 1, 1980.
- SÁNCHEZ ROMÁN, Felipe, *La codificación civil en España en sus dos periodos de preparación y de consumación*, Madrid, 1890.
- SANTOS BRIZ, Jaime, La codificación del Derecho foral de Navarra (Anteproyecto de 1971), *Revista de Derecho Privado*, 1971.
- SAVIGNY, Friedrich Karl, *Vom Beruf unserer Zeit für Gesetzgebung und Rechtswissenschaft*, Heidelberg, 1814.

- SORIA SESÉ, Lourdes, Del primer Código Civil a la Historia del Derecho Público. Pablo de Gorosábel (1803-1868), *Notitia Vasconiae*, 1, 2002.
- SPELLENBERG, Ulrich, Les expériences allemandes du Code civil français, MOLFOSSIS, Nicolas (arg.), *Le Code Civil: une leçon de légistique?*, Economica, 2006.
- TARELLO, Giovanni, *Cultura jurídica y Política del Derecho. Ideologías del siglo XVIII sobre la codificación y estructura de los códigos*, Comares, 2002.
- THIBAUT, A. F. J., *Über die Notwendigkeit eines allgemeinen bürgerlichen Rechts für Deutschland*, 1814.
- TOMÁS Y VALIENTE, Francisco, *Códigos y constituciones, 1808-1978*, Madrid: Alianza Universidad, 1989
- TROHE, H. E., Die Literatur Des Gemeinen Recht unter dem Einfluss des Humanismus, COING, H. *Handbuch der Quellen und Literatur der Neueren Europäischen Privatrechtsgeschichte, II Neuere Zeit (1500-1800)*, II. T., München: Beck, 1977.
- URRUTIA BADIOLA, A. (arg.), *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya (1899-1900)*. Bilbao: Academia Vasca de Derecho. Zuzenbidearen Euskal Akademia, Clásicos de Derecho vasco, 2004, reproducción facsímil de la edición de: Bilbao: Imprenta Provincial, 1902.
- URRUTIA BADIOLA, Andrés, *Código, Compilación y Fuero Civil. Elementos para una historia del Derecho civil foral vasco (1876-1992)*, Bilbao: Zuzenbidearen Euskal Akademia-Academia Vasca de Derecho, 2013.
- Nazario de Oleaga. Bidegileak*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2004.
- VALJAVEC, Fritz, *Historia de la Ilustración en Occidente*, Madrid, 1964.
- VOGEL, Louis, Le Monde des Codes Civils, 1804-2004, *Le Code Civil. Un passé, un present, un avenir*, Paris: Dalloz, 2004.
- WIEACKER, Franz, *Privatrechtsgeschichte der Neuzeit unter besonderer Berücksichtigung der deutschen Entwicklung*, 1967.
- Storia del Diritto Privato*, Milan: Giuffré, 1980.
- WIJFFELS, Alain (arg.), *Le code civil entre ius commune et droit privé européen*, Bruxelles: Bruylant, 2005.

Euskal Herriko Zuzenbidearen kodifikazioa (Bizkaia/Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa)

Gregorio Monreal Zia

Aurkibidea

I. BEREZKO ZUZENBIDE ZIBILAREKIKO BERTAKO JURISTEN INTERESAREN HASTAPENAK. II. ITURRI BIZKAITAR SINPLEAK ETA NAFAR KONPLEXUAK. III. ESTATUKO KODE ZIBILAREN KODIFIKAZIOAREN ETA BIZKAIA ETA NAFARROAKO ZUZENBIDE ZIBIL PROPIOAREN ARTEKO HARREMANA LEHEN KONSTITUZIONALISMOAN ZEHAR. IV. ZUZENBIDE ZIBIL OROKORRAREN KODETZE A ET ALE C ANDAREN ETA MORALESEN BEREZKO ZUZENBIDE ZIBIL BIZKAITAR ETA NAFARRARI BURUZKO «MEMORIAK». V. 1888KO OINARRIEN LEGEA ETA KODE ZIBILAREN ARGITALPENA. VI. NAFAR KORRELATURIK GABEKO 1889KO SAI AKERA KODETZAILE BIZKAITARRA. LITERATURA JURIDIKOA JAURRERRIAN ZABALTZEA. NAFARROAKO OINARRIZKO BI LAN JURIDIKOAK. VII. DURÁN I BAS JUSTIZIA MINISTROAREN 1899-1900 KODETZE SAI AKERA ETA BIZKAIAN ETA NAFARROAN IZAN ZUEN ERAGINA. VIII. BLOKEOA GAINDITZEKO SAI AKERAK XX. MENDEKO BIGARREN HAMARKADAN. COVIÁN ETA JUNCOREN LANA NAFARROAN. IX. FORU ZUZENBIDE ZIBILAREN KODIFIKAZIOA PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURAPEAN. X. PARADIGMA ALDAKETA BIGARREN ERREPUBLIKAN: ESKUALDE AUTONOMIKOEN KONPETENTZIA ZIBILA ETA PROZESUA GELDITZEA. XI. FRANCOREN MINISTRO TRADIZIOZALEEK BILDUMA ZIBILAK BULTZATU ZITUZTEN. XII. NAFARROAKO BILTZAILE BATZORDE OFIZIALA ALBO BATERA UTZIKO DUTEN JURISTA TALDE PRIBATUAREN ESKU HARTZEA... XIII. 1978KO ESTATUKO KONSTITUZIO BERRIAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZUZENBIDE ZIBILA BERRITU ETA EGUNERATU BEHARRA ERAGITEN DU... XIV. ... ETA NAFAR NORABIDE ZIBILA KASIK EZ DA ALDATZEN. XV. NAFARROAN FALTA DEN KODIFIKAZIOA: ARDO BERRIA ZAHAGI ZAHARRETAN. XVI. EUSKAL ESKUBIDEEN BATERATZEA EDO DESBERDINTASUNA. XVII. BIBLIOGRAFIA.

I. BEREZKO ZUZENBIDE ZIBILAREKIKO BERTAKO JURISTEN INTERESAREN HASTAPENAK

Kanpotik eta berandu etorri zen gizarteak ordenamendu pribatua preziazteko pizgarria. Zehazki, XIX. mendeko hirurogeigarren eta hirurogeita hamargarren hamarkadetan, Frédéric Le Play filosofo sozial normandiarraren lanak ekarri zuen suspergarri hori, joera berriak markatzen ari baitzen Europako soziologian eta zuzenbidean. Gure artean, familia trinko piriniotarrarekiko interes handiaren ideia sartu zuen barruraino. Izan ere, arrazionalismo ilustratuak inspiratutako kodetze napoleonikoaren aurrean, gizartearen beharrei hobeto egokitzen zitzairen zuzenbide bizi bat zegoen. Ildo horretan, erabakigarria izan zen Antonio de Truebak Pariseko 1867ko Erakusketa Unibertsalerako egin zuen memoria ahul samarra. Zuzenbideari berari proiektzio europarra emateaz gain, herrialdean ere eragina izan zuen. Garai hartan, Ángel Allende Salazar poli-fazetikoak estatolatariaren aurka eta *self-government*-aren alde adierazi zuenak oihartzun handia izan zuen harreman pribatuen eremuan.

Erreinu zaharrean, Nafarroako Asociacion Euskarako kideek Alemaniako Zuzenbide Eskola Historikoko postulatuak aztertu zituzten. Alemaniarren us-tez kodetze prozesuak herri Zuzenbidea sortzearen kontrakoak ziren, ohituraren sortze-prozesuak adierazten duen bezala.

II. ITURRI BIZKAITAR SINPLEAK ETA NAFAR KONPLEXUAK

Gaur egungo Zuzenbideko Bildumen aurreko iturri historikoen inguruko datu batzuk. Bizkaitarrarena eta nafarrarena¹.

Hasteko, bi ohar. Bizkaiak eta Arabaren zati batek 1527an berretsitako zuzenbide-gorputza zuten, Aro Modernoan zazpi aldiz editatu zena. Alonso Martínezen ustez, forua hizkera soil eta argiak ezaugarritzen zuen, zehaztugabetasunik eta ziurgabetasunik gabeak. Gainera, legez baimenduta zegoen. Aipatu beharreko bigarren ezaugarri ezaguna lur lauaren eta hiribilduen arteko bitasunaren iraunkortasuna da. Erdi Aroan zuen jatorria bitasun horrek, eta oztopo handiena izan zen hori kodifikazioari aurre egiteko orduan. Bizkaiko 1527ko Foruari Bizkaiko «Juez Mayor» delakoaren Valladolideko Kantzelaritzarako eta Gaztelako Kontseiluko zenbait kasutarako jurisprudenzia ia eksklusiboa gehitu

¹ Nafar kodetzearen inguruko erreferentziak bereziki Roldán JIMENO ARANGURENen lanetan, *Derecho civil navarro y codificación general española*, *Anuario de Historia del Derecho Español* LXXXII (2012), 267-312. or.; *El régimen económico matrimonial en el Derecho navarro (1839-2015)*. *Hacia una revisión legislativa*, Cizur Menor: Thomson Reuters-Aranzadi, 2015. Ikerketa hauetan gaiari buruzko bibliografia esanguratsuenak biltzen da.

behar zaio. Kantzularitza eta Gaztelako Kontseilua abolitu ondoren, XIX. eta XX. mendeetan Kode zibilaren aurretik eta ondoren ezarritako Gaztelar Zuzenbideari –zeina gainera Jaurerriaren Zuzenbide osagarria zen– Auzitegi Goren zentralaren erabakiak gehitu behar zaizkio.

Iturriei dagokienez, Nafarroaren kasuan zailagoa da, izan ere, Bizkaia bezalako egitura politiko menekoa izan beharrean, eremu zibilean legegintza gaitasun osoko Erreinua baitzen.

Batetik, Nafar Zuzenbidean –Jaurerrian ikusi dugun sinpletasunari kontrajarriz– Antzinako Erregimenetik eratorritako iturri sistemaren nahastea da aipagarria. Ohitura, Foru Orokorra (Fuero General) eta Foru Hobekuntza (Amejoramiento), Gorteetako legeak eta hauetatik jasotako berezko legedia biltzen ziren Erreinuan. Era beran, XVI. mendetik aurrera *Ius Commune* delakoa ere gehitu zen Zuzenbide osagarri gisa. Nafarroako Kontseiluko adostutako autoak eta bisita kapituluak ere gehitu behar dira. Material hauetako asko Joaquín Elizondok 1735ean osatutako azken Bilduman gorde ziren. Oraindik, 1973ko Foru Berriak, Nafar Zuzenbidearen bilduma garaikideak, Erdi Aroko iturri eta iturri garaikideak aipatu zituen Nafarroako Ordenamenduaren arau gisara.

XIX. eta XX. mendeetako doktrinak aipatu ditugun iturrien zerrenda eta tradiziozko lehentasun ordena onartzen zituen. Honen aldeko agertu ziren zenbait aditu: Covián eta Junco, Castán, Yaben, Victoriano Lacarra, Salinas Quijada edo Santamaría Ansa. Guztiek onartzen dute legearen aurkako ohituraren hatsarre harrigarria, eta antzina ezarritako aplikazio ordena jarraitzen dute; hau da, lehenik Elizondoko Bildumaren ondorengo legeak, ondoren Novísima Recopilación delakoa, Amejoramiento delakoa eta Foru Orokorra.

Edozein modutara, Nafarroako Legearen tradiziozko iturrien zerrenda ezartzerakoan, Estatuko Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia gehitu behar zaio, 1841ean erreinua desagertu ondorengo aldiari jarraiki. 1841eko Nafarroako Foruak Eraldatzeko Legeak ezarritakoa gorabehera, Espainiako Auzitegi Gorenak Gaztelar Zuzenbidea izan zuen kontuan Nafarroako ordenamendua baliatzerakoan. Epailleak ez ziren erreinukoak eta Zuzenbide gaztelarra ikasi zuten unibertsitate gaztelarretan hezitakoak ziren.

III. ESTATUKO KODE ZIBILAREN KODIFIKAZIOAREN ETA BIZKAIA ETA NAFARROAKO ZUZENBIDE ZIBIL PROPIOAREN ARTEKO HARREMANA LEHEN KONSTITUZIONALISMOAN ZE HAR

Espainiako liberalismoaren bultzada kodifikatzailea eta beteratzailea existitu arren, **Cadizko Konstituzioaren 258. artikulua** zirrikitu bat zabaldu zion foru-lurraldean Zuzenbide zibilaren biziraupenari. Kodeen bateratzea al-

darrikatzearekin batera, *egoeraren arabera*, *Gortee* egin ditzaketen aldaketak *oztopatu gabe* gauzatuko zela aitortu zuen.

Nafarroari dagokionez, ezaguna da Bizkaian bezalatsu, Erreinuko Zuzenbide pribatua mantendu zela 1889an Kode Zibila aldarrikatu zen arte. 1834 eta 1835 bitartean Nafarroako Errege Kontseilua desagertzeak ez zion zuzenean Erreinuko lege organo nagusiari, nafar ordenamendu pribatuari, eragin. Auzitegi Goren zentralak edo auzitegi planta edo antolaketa arauak Nafarroarako ezarritako oinarri konstituzionalak ordezkatu baitzuten. Ezta Nafarroa Erreinu gisa 1841ean desagertzeak ere.

Hain zuzen, **1837ko Konstituzioa** Kodeen bateragarritasunaren aldeko agertu arren, Kode Zibilaren sorrera bertan behera geratu zen eta ondorioz, **1841eko Nafarroako Foruak Eraldatzeko Legeak** aitortutakoari jarraiki, Kode bakarraren sorrera gauzatu artean auzitegiek Nafarroako lege bereziak ezarriko zituztela onartu zen. Are gehiago, kodetze prozesu orokorrari nabarmen eragin zion 1851ko Kodearen proiektu nagusian *foru auzi*-aren trataera eskasak. Ekimenaren zati nagusia egokitu zitzaion Florencio García Goyena nafarrari.

Koderik ezean, **legeak zibil bereziak** sortu ziren premiazko beharrei erantzuteko. Horien interpretazioak Auzitegi Gorenari eta Nafar Zuzenbideari eragin zien. **1869ko Konstituzio iraultzaileak** Cadizko ereduko kodeen bateratasuna berreskuratu zuen, «legeak zehazten dituzten berariazko baldintzei eragin gabe». Ondoko Konstituzioak, hau da, **1876ko Berrezarpenekoak**, araua onartu zuen. Aurreko aitopenek ez zuten berez Foru Zuzenbidea mantentzea onartzen, baina ofizialtzerako bidea erraztu zuten.

Bizirauteko aukera Bizkaiko zuzenbidearen errotze eta egonkortasunak berezkoa zuen sistema judiziala –«Juez Mayor» delakoa, Ahaldun nagusiak eta Foru alkateak– desagertarazi bazen ere. Baina planta konstituzionaleko auzitegien oldar bateratzailea jasan behar izan zuen.

IV. ZUZENBIDE ZIBIL OROKORRAREN KODETZEAREN ETA LECANDAREN ETA MORALESAREN BEREZKO ZUZENBIDE ZIBIL BIZKAITAR ETA NAFARRARI BURUZKO «MEMORIAK»

Berrezarpen garaian zehar, Madrilgo Gobernuako legegintza botereek onartutakoaren arabera, zeina batzuetan irekiagoa eta besteetan itxiagoa zen, nafar eta bizkaitar kodetzeek, gainerako foru lurraldeetakoek bezala, bide zaila egin behar izan zuten. Emaizta lortu aurretik mendea pasa zen.

Gerra Karlista amaitu zenean, Fermín de Lasala Justizia ministro donostiarrak bultzada berria eman zion kodetze-prozesu orokorrari. Hain zuzen ere,

Kodifikazio Batzorde Nagusia berrantolatu zuen 1880an, eta, bertan, abokatu foruzale entzutetsuak sartu zituen, memoria bat idatz zezaten, foru zuzenbideko printzipio eta erakunde garrantzitsuenak jasotzeko. Bizkaian, Manuel Lecanda Bilboko Abokatuen Elkargoko dekanok izan zuen betekizun hori. Sei orrialdeko testu baten bidez, Foruko lege eta titulu ugari baztertu zituen Lecandak. Ezkontideen artean ondasunen komunikazioari eustearen alde egin zuen, bai eta, seme-alabarik izan gabe, bizirik dagoen ezkontidearen gozamenaren eta ezkonsari-ondasunak edo dohaintzan emandakoak gordetzearen alde egin ere. Funtsezkotzat jo zuen testamentua egiteko askatasuna, jaraunsle legitimoen artean eginez gero. Baita jaraunslea hautatzeko boterea ere. Ez dakigu zer-nolako eragina izan zuen memoria horrek Bizkaian. Gainera, ondorengo autoreek ez dute ia aipatzen.

Kodifikazio Batzorde Nagusian memoria horri buruzko eztabaida egin zen 1882an, eta Alonso Martínezek ondorioztatu zuen hauek zirela Bizkaiko zuzenbidearen hiru instituzio nuklearrak: tronkalitatea bere adierazpen anitzetan, testamentua egiteko askatasuna eta ezkontideen arteko ondasunen komunikazioa, seme-alabak edukiz gero.

Nafarroan enkargua Justizia ministroaren konfiantzazko **Antonio Morales Gómez** iruindarrak jaso zuen. Moralesek bere kabuz egin zuen lan, aholkularitza alde batera utziz. Prestatutako testua **Diputazioak editatu zuen 1883an**. Lanak nafar doktrinaren gaitzespena jaso du. Oinarri gisa Kode zibila hartu eta nafar berezitasunak bazterretan osatuz joan zen. Horien artean ondasunak izateko eta testamentua egiteko askatasuna, alargun usufuktua eta ekonomia egoerari dagokionez, ezkontza kontratuaren ingurukoak.

V. 1888KO OINARRIEN LEGEA ETA KODE ZIBILAREN ARGITALPENA

Sobera ezagutzen denez, alde batera utziko dut guztiena egin zen eta 1889an amaitu zen zuzenbide gatzelauaren kodetze-prozesuaren azalpena. Eragiten diguten bi puntu bakarrik nabarmenduko ditugu. Lehenik eta behin, bizkaitar parlamentarien esku-hartzeari esker, Infanzonaduan kokatutako ondasunen estatutuari buruzko hitz-tartea erantsi ahal izan zitzaion Kode Zibileko behin betiko testuko 10. artikuluari. Bigarrenik, 1888ko Oinarrien Legearen 7. artikuluari eutsi zitzaion. Horren bidez, Kodea onartu ondoren, lurraldeko eskubide zibilak kodetze aldera jarraitu beharreko prozedura ezartzen zen. Gobernuari zegokion lurralde bakoitzeko zuzenbidea jasoko zuen lege proiektua aurkeztea Gorteei. Aurretik, foru aldundiek eta probintzietako hiriburuetako Abokatuen Elkargoek txostena egin behar zuten. Bestalde, Kodeaketa Batzorde Nagusiari

entzungo zion. Gogoan atxiki behar dira hirurogeita hamar urtez indarrean egon zen prozedura horren urratsak.

Baina azkenerako, **Kode zibila** osatu zen: **12. artikulua** araua aintzat hartu eta foru eranskinak sortzeko beharra aldarrikatu zuen.

VI. NAFAR KORRELATURIK GABEKO 1889KO SAIKERA KODE-TZAILE BIZKAITARRA. LITERATURA JURIDIKOA JAURRERRIAN ZABALTZEA. NAFARROAKO OINARRIZKO BI LAN JURIDIKOAK

Hain zuzen, 1889ko urrian, Kodea onartu eta bost hilabetera, txostenen eskaera iritsi zen Bizkaiko Foru Aldundira. Bilera jendetsu eta gogoangarri batean, Abokatuen Elkargoko Batzar Nagusiak lanari ekitea erabaki zuen, eta aipatu batzarrari txostena aurkeztu beharko zion batzordea izendatu zuen. Batzordeak zortzi bloke edo gaitan zatitu edo sailkatu zuen foruaren gaineko proposamena. Azpibatzerde batzuk arduratuko ziren gai horietako bakoitzaz, gorde edo baztertu beharrekoa zehazteko. De la Plazaren esanetan, abokatu oso adituek osatu zituzten batzorde horiek. Zoritxarrez, De la Plazak berak eta Chalbaudek egindako ikerketak baino ez dauzkagu gaur.

Gobernu zentralak kodifikazioa osatzeko interesik izan ez zuenez, konpilazio-prozesua eten egin zen lurralde ezberdinetan, baita Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Abokatuen Elkargoaren ekimena ere, jada abian zena. Legelariak, ordea, ez zuten bat egiten gobernuaren ahulezia horrekin. Jada aipatutako lanei, **Ramón de Hormaech**e gaineratu behar zaie, Bizkaiko zuzenbide zibileko lehenengo tratatua egin baitzuen horrek. Baita **Miguel de Unamuno** bera ere, 32 besterik ez zituela egin baitzuen etnografia juridikoari buruzko lan bat, jaurrerrian zeuden ohiturak azalduz.

90. hamarkada amaierako literatura bizkaitar zibilistaren urrezko aro labur baina bikaina hasi zen, eta, XIX. mende hasieran, hauek izan ziren hiru izen giltzarriak: **Nicolás Vicario**, **Luis Chalbaud** eta **Ramón de Jado**.

Nafarroari dagokionez, erakundeen eta juristen ahultasuna gailendu zen XIX. mendearen azken hamarkadan. Mendeko 30eko eta 40ko hamarkadetan lortutako lan esanguratsuetako errentetatik bizi ziren. José María Zuaznavar donostiar epaile errealista ilustratuaren eta Yanguas y Miranda tuterar liberalaren arteko eztabaidak XIX. mendeko lehen hamarkadetan nafar historiografia juridiko, bai publiko bai pribatuan izan zuen izaera sortzailea nabarmendu behar da. Azken honen lana oinarritzkoa izan zen: *Nafarroako Foruen Hiztegia (Diccionario de los Fueros de Navarra)* (1828) edo *Antigoalekoena (Antigüedades)* (1840). Aipatu lanetan, Nafar Zuzenbidearen iturri nagusiak kontzeptualizatu

zituen, Foru Orokorra eta Elizondoko Bilduma. Yanguas Nafarroako Zuzenbide historikoaren inguruko oinarrizko erreferentzia izan zen. 1873ko Foru Berria argitaratu arte, autore guztiek erabili dute haren lana.

Aipatzen genuen bigarren autore esanguratsua Yanguasen garaikide José Alonso jurista zen eta Justizia Ministro izatera iritsi zen. Yanguasek aipatutako arauen baitan, indarrekoak jotzen zituenak zedarrizteko lana hartu zuen bere gain. Azken finean, García Goyena tafallarrak gaztelar legeekin egindako lan bera gauzatu zuen. Alonsok nafar araudia sistematikoki ezarri zuen. Ondoren, jarraipen handia izango zuen *Antzinako Nafarroako Erreinuko Foruen inguruko iruzkinen eta arauen bilduma (Recopilación y comentarios de los Fueros y Leyes del Antiguo Reino de Navarra)* (1848-1849). Lan honek Yanguasen hiztegiek adina eragin izan zuen².

VII. DURÁN I BAS JUSTIZIA MINISTROAREN 1899-1900 KODETZE SAIAKERA ETA BIZKAIAN ETA NAFARROAN IZAN ZUEN ERAGINA

1889. urtea erabakigarria izan zen foruak kodetzeko orduan. Durán i Bas Justizia Ministro kataluniarrak, Eskola Historiko alemaniarraren doktrinan sartuta zegoenak, prozedurari aldaketa garrantzitsu bat erantsiz erabaki zuen prozesuari ekitea. Jakitun zenez lurraldeek ez zuela organo zentrali eman nahi konpilazioak egiteko ardura, herrialdeko abokatuek osatutako batzorde berezi batzuei esleitu zien horretarako ardura. Horiek eratu zituzten foru zuzenbideari buruzko lege proiektuak, Foru Aldundiak eta Abokatuen Elkargoak baztertu gabe, eta Kodifikazio Batzorde Nagusiari entzuteari eutsiz. Gainera, 1888an aurreikusitako batzordekide-lurraldetarra sartu zen Kodifikazio Batzorde Nagusian. Lanerako epe labur samarrak ezarri zituen.

Araua aplikatuz, gobernuak batzorde bat izendatu zuen Bizkairako eta Arabarako, eta Foru Aldundiak izendatutako hiru abokatuk, Abokatuen Elkargoaren Gobernu Batzarrak izendatutako beste bi abokatuk eta Burgosko Notarioen Elkargoak izendatutako beste abokatu batek osatu zuten hori. Hiru arabar ere batzorde horretako partaide izan ziren, Arabako erakundeek izendatutakoak horiek. Bada, Arabako erakunde horiek bigarren denbora batean jardun zuten, batzordearen zati handienak txostena eginda zuela jada.

² Erreinuko Zuzenbide pribatuaren jarraipenari dagokionez, eta gaur egunera begiratuz, adierazi behar da zibilistak izan direla gaia landu dutenak, bereziki indarrean den 1973ko Bilduma idatzi zutenak. Zehazki Salinas Quijada eta Nagore aipatzen ditugu. Lasso Gaitte ere gehitu behar zaie; izan ere, nahiz eta ez den bertakoa, espainiar prozesu orokorraren baitan, nafar Zuzenbidearen kodetzea jarraitu baitu. Ikerlariei dagokienez, Martínez de Aguirre eta Pedro de Pablo iuspribatistak sartu behar ditugu.

Benetan miresgarria da 1999ko ekainaren eta abenduaren artean Bilbon gertatu zena. Arreta berezia eman behar diogu gertatutakoari, izan ere, batzorde horretatik atera zen aurreko mendeko hirurogeigarren hamarkadara arteko zuzenbidearen bilakaera baldintzatu zuen testua.

Batzorde bereziak 21 saio egin zituen aipatu aldian. Hasiera batean, Manuel de Lecanda beteranoa izan zen buru, baina, gaixorik zegoenez, Aureliano de Galarzak ordezkatu zuen gutxira. Alabaina, Carlos de la Plaza izan zen protagonista goren. Hiribilduan bizi zen legelari errioxarra izan zen hori, prestigio handia zuena. Bera arduratu zen hartzen ziren erabakiak idazteaz, aldi berean, bere formulazio teknikoa doitu zuelarik. Batzordeak kontuan hartu zituen bere proposamen asko. Baten bat garrantzi handikoa izan zen; hala nola, arauen lurralde-indarraldia. Eta bere ardurapean utzi zen hitzartu gabe geratu ziren kontu txikiagoak ebatzea, bai eta corpusaren antolaketa sistematikoa egi-tea ere.

Kontu garrantzitsuen inguruan mintzatu behar izan zen batzordea. Kontu nuklear batzuen gaineko ohar bat baino ez dugu egingo, zerrendatze hutsa.

Ordezkariek albo batera utzi zuten, lehenengo eta behin, zuzenbide publikoa; indargabetu edo eten egin baitzen, foruak ezeztatzeko 1839ko urriaren 25eko eta 1876ko uztailaren 21eko legeen ondoren. Foru publikoen erreforma ez zen inoiz gauzatu. Eta, bigarrenik, erakunde zibil tradizionalak alboratu zituzten, zaharkituztat eta ez oso baliagarritzat jo baitzituzten une hartan.

Zalantzarik gabe, legediaren bitasunari buruzko kontua izan zen sakonena. Ezaguna zen jada De la Plazak eginda zuen proposamena, eta batzordeak besterik gabe onartu zuen Bizkaiko herrien izendegia, bakoitzean aplikatu beharreko legedia adierazten zuena. Era berean, udalerrri batzuetan arauen aplikagarritasunaren arazoa konpontzeko hiru jarduera-arauak edo -jarraibideak hartu zituen bere gain. Herri batek beste herri bat zati batean beretu zuen kasuez, udalerrietako bat desagertu osteko erabateko beretzeez eta bat-egiteen osteko erabateko beretzeez ari gara. Auzia konpontzeko, «xedapen soil-soila» deitu zuten iritsi zirela pentsatu zuten, hau da, foru zuzenbidearen lurraldetasunera iritsi zirela, zuzenbide gaztelarra zuten hamahiru udalerrien salbuespenarekin. Inolako zailtasunik gabe hitzartu zuten estatusa aldatzeko prozedura modernizatzea, izan ere, 1630eko elkartasun-ituna ezin zitekeen ezar gobernua Batzar Nagusiak eten ostean.

Zuzenbidearen mamira etorritz, ondasun higiezin salmentari buruzko erabakiak hartu zituen batzordeak, ahaideen deia eta beste alderdi batzuk eguneratuz. Ezkontideen artean ondasunak komunikatzeko erdibideko formulara iritsi zen, komunikazioa eratzeko uneari eta horren izaerari buruzko desadostasunak albo batera utzita; izan ere, erakunde horrek tronkalitate printzipioari aurka

egiten ziola adierazi zuten batzuek. Bestetik, komunikazioa mugatzea hitzartu zuten; higieziinei, foru legeari atxikitako udal-mugarteetan kokatutako funts-ondasunei zegokienez. Eta, Lur Lauko ondasunen estatutu errealarari dagokionez, hiribilduko herritarrei zein atzerritarrei eragingo zien, Kode Zibilean xedatutakoa kontuan hartuta.

Eztabaidak sortu zituen ermandadeko testamentuaren formak, baina aho batez eta gogo handiz hartu zuten komisario bidezko testamentua. Testamenturik gabeko oinordetzan, batzordeak luze eztabaidatu zuen aurreko ahaideen ordezkartzarako eskubidea.

De la Plazak XV titulutan ordenatu zituen Eranskinen 128 artikulua. Zuela hamar urteko Abokatuen Elkargoaren irizpideari jarraituz, foruari buruzko gaia zortzi gaitan zatitzea erabaki zen funtsean. Erakunde batzuei titulu bakarra eman zien: hala nola, lurraldeko eremuari, tronkalitateari, ondasunen foru komunikazioari, zuzkidura-ondasunei edota tronkaleko jaraunleek atzera eskuratzeko eskubideari. Bi titulu tronkaleko ondasunen erregulazioari, testamenturik gabeko oinordetoketan eta dohaintzetan, eta sei titulu arte testamentuei eta testamentua egiteko askatasunari. Kide arabarren lana titulu bakarrean sartu zen. Laudion eta Aramaion aplikatuko zen Eranskina, eta testamentua egiteko erabateko askatasuna ezarri zen Aiaraldean.

Eranskinen testua finkatzean, Durán i Basen legearen exijentzia garrantzitsuena bete zuen batzordeak. Debateetako aktak eranskinen arrazoien azalpen moduko bat izatea nahi izan zuten. Handik sei hilabetera, Foru Aldundiak testua onartu zuen eta 1.000 ale inprimatzea agindu.

Arrakasta erabatekoa izan zen, baina gauzak okertzen hasi ziren gutxira, izan ere, hurrengo urratsa, hots, Abokatuen Elkargoaren nahitaezko aldeko txostena, 28 urtez atzeratu zen. Azalpena behar duen anomalia garrantzitsua izan zen hori.

Kodifikazio lurralde guztietan moteltzeko arrazoi orokorrak orain aztertzeari ekin gabe, Bizkaiaren kasuan konnotazio pertsonala izan zuen atzerapenak. Gregorio Balpardaren esku-hartzeari buruz ari gara. Doktore gradua eskuratu berri zuen abokatu gaztea zen hori. Bilboko alkatea izan zen gutxira, eta Bizkaiako buruzagi klaseko intelektual organiko-mailara erdietsi zuen. Abertzaleei eta neoforzaleei oldartu zitzaizkien, eta 1936an hil zen, modu lazarrian eraila. Eduki zuten eragina dela-eta, Balpardak Zuzenbidearen Akademia bilbotarrean 1903an eranskinaren inguruan idatzi zituen hiru hitzaldien gaineko iruzkina egin behar dugu. Bilboko Abokatuen Elkargoko alde batek hainbat hamarkadaz atxiki zuen Balpardak bere opuskulua amaitzeko adierazpenean esandakoa. Zera adierazi zuen: «Kosta ala kosta, erreforma erradikalik egin gabe, gauzatu den eranskin proiektua lege izatea saihestu behar da». Oso kontuan hartzeko baieztapena da

hori, izan ere, botere faktiko moduko zerbait bihurtu zen Balparda, zuen koka-leku politikoa zela-eta.

Balpardak arrazoi asko azaldu zituen eranskinarekin ados ez egoteko. Alderdi formalekin hasiz: ez zuen bat egiten jarraitutako ordenarekin, nahiago baitzuen Kode Zibileko sistematika. Bestetik, eranskinak titulu gehiegi zituela argudiatu zuen, idazketa zehaztugabea zuela eta akatsak zeudela formulazio teorikoan.

Mamiari dagokionez, Balpardak eranskinaren gainean egin zuen azterketa xehearen puntu batzuk baino ez ditugu nabarmenduko; geroko prozesua gehien baldintzatu zuten horiexek. Bere ustez, jabetzak duen familia-izaeraren ondoriozkoa da baserriaren erabateko transmisioa, eta ez testamentua egiteko askatasunaren ondoriozkoa. Eta jabetzaren banakako izaera onartzen bada, orduko testuinguru sozioekonomikoan ez dauka zentzurik kostu bidezko transmisioetan tronkalitateari eusteak. Ez zegoen tronkalitateari ematen zitzaion irismenarekin ados. Beste alde batetik, bere ustean ez zen zuzena atzera eskuratzeko foru eskubidea Kode Zibileko jentilizioarekin parekatzea.

Balpardak, eranskina baino, nahiago zuen Forua, testamentuan ezarrirako ondorengotzan senipartedun jaraunsleei ematen zitzaien tratuari zegokionez. Bere iritziz, eranskina ez zen oso eskuzabala ezkontide alargunarekin, eta, 1900 inguruan, ezin zitekeen onar nahitaezko jaraunsle izaera kentzea aitortutako seme-alaba naturalei. Era berean, ez zegoen konforme senar-emazteek baterako testamentua egitearekin, eta gehiegizkotzat jotzen zuen komisario bidezko testamentuaren hedapena. Hil-buruko testamentua desagertu izana deitoratu zuen.

Balpardak erreparo gogorak egin zizkion ezkontza barruko ondasunen araubideari. Zioenez, nahikoa litzateke Bizkaian ondasunen komunikazioa eraentzeko aplikatzen zen presuntzioa, eranskinak ezartzen zuen derrigortasunik gabea. Ezkontzako kapitulazioetan ondasunen araubidea edukitzeko askatasuna aitortu beharko litzateke. Beste alde batetik, ez zegoen ados komunikazioaren hasierako uneko arazoari emandako irtenbidearekin.

Aurreko hamarkadako jarduerarik ezari **Durán Ministro**aren foru kode-tzea bultzatuz erantzun zion Nafarroak. Moralesek berriz zuzendu zuen 1899an Eranskina osatzeko egitekoa esleitu zitzaion Probintzia batzordea. Iñarra, Campi6n eta Echaide euskaldunen presentzia nabarmena izan zen. **Proiektua hurrengo urtean publikatu** zen. Kode Zibilaren arauak aipatu eta Zuzenbide berezia gordetzea ahalbidetzen zuen aldaketa bat zehazten zuen. Idazki horrek nafar kodetzean garai bereko bizkaitarrak izandako garrantzia bera izan ote zuen neurtzea komenigarria litzateke. Idazki horrek nafar kodetzean 1900eko proiektu bizkaitar berdina izandako eragina izan ote zuen neurtzea komenigarria litzateke.

VIII. BLOKEOA GAINDITZEKO SAIAKERAK XX. MENDEKO BIGARRREN HAMARKADAN. COVIÁN ETA JUNCOREN LANA NAFA- RROAN

Gregorio Balpardak ahuldu egin zuen elkargokideek proiektuaren balioan zuten fedea, eta hegoak eman zizkien foru zuzenbidea egotearekin ados ez zedenei. 1908an eta 1910ean egiaztatu ahal izan zen Abokatuen Elkargoan adostasuna zegoela Gortetan eranskin bat bideratzeko beharraren inguruan, baina ez batzordeak egindako testuaren gainean. 1913an, beste batzorde bat izendatu zen, Eranskineko artikulu batzuen gaineko aldeko txostena egiteko. Txostena aldekoa bazen ere, Balpardak, bizitza publikoan haziz zihon bere eragina baliatuz, esku hartu zuen berriro ere, ekimena ezeztatzeko.

Justizia Ministerioak ekarri zuen hamarkadako desblokeo-saiakera garrantzitsuena. 1916an, Eranskinari buruzko nahitaezko txostenak bideratzea agindu zien Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiei eta Abokatuen Elkargoei. Bilboko abokatuak izendatutako batzordeak ez zuen bere txostena ezagutarazi, Arabako Foru Aldundiaren jokoaren oso bestela, azken horrek berretsi egin baitzuen 1900eko eranskinarekiko atxikimendu gogotsua, eta Gortetan aurkeztea eskatu zion Gobernuari.

Agerikoa zenez, Abokatuen Elkargoko gutxiengo bat gai izan zen nahi-taezko txostena igortzea saihesteko, baina agintari bizkaitarren eta abokatuen artean lege zibilak eraberritzeko, argitzeko eta sistematizatzeko gogo handia zegoen. Jakina, prozesuaren une hil hori ezin zitzaien Gobernuari edo Gorteei egotzi.

Mendeko bigarren hamarkadan Gobernu zentralaren kodifikazio lan berriak aipatu ditugu. Horien baitan kokatuko genuke Nafarroan **Víctor Covián y Juncok 1917an** antolatutako **Txostena**. Testuak ondoko lanei eragin zien.

IX. FORU ZUZENBIDE ZIBILAREN KODIFIKAZIOA PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURAPEAN

Primo de Riveraren diktaduran zehar eskuinak eduki zuen erabateko hegemoniak desblokeatu zuen egoera. Probintziako Batzorde batek ordezkatu zuen Foru Aldundia, eta aipatu erregimenak izendatu zuen batzordea. Aragoiko eranskina aldarrikatzean, eskatutako txostena igortzea eskatu zion batzorde horrek Bizkaiko Abokatuen Elkargoari, eta, hortaz, atzeratu egin zen. 1927ko abenduan, diktadorearen erregimenak zekarrenarekin bat egiten zuten sei pertsonen osatutako batzorde berezia eratu zen. Legeak agintzen zuen txostena eman zion Elkargoak Gobernu Batzarrari, eta, jasotako oharrei erreparatuta, beste proiektu bat idatzi zuten. Egiazki, ordea, ez zen aurrekoaren ezberdina izan.

Izendatuek erabat onartu zuten 1900eko eranskina, lanaren sakontasuna eta zehaztasuna baloratzen baitzuten; bai eta tradizioaren eta garai berriekiko egokitzapenaren konbinazioa ere. Beren ustez, berrikuspenaren ondoren, proiektu berria eta 1900ekoa, funtsean, gauza bera ziren. Gregorio Balpardak salatu zituen hutsuneetako batzuei arreta emateko borondatea islatu zuten sartu zituzten berrikuntza urri horiek. Agerikoa ez bada ere, baliteke aurretiko akordio zuhurra egin izana harekin.

Elkargoko batzorde bereziak izateko arrazoia zuten erakundeei eutsi. Horrela, hilobien ondasun tronkalaren izaera berreskuratu zen, eta tronkaleko jaraunsle izaera eman zitzaien legitimotzat hartutako seme-alaba. Hil-buruko testamentua ere berreskuratu zen, eta bazterketari eutsi zioten seme-alaben eta ondorengoen kasuan. Ondasunen komunikazioari dagokionez, aldeko presuntzioa ezarri zen, ezkontza-kapitulazioetan beste zerbaite hitzartu ezean. Berriro ere, balpardiar oihartzuna ageri da ezkontide alargunaren tratua hobetzean. Eta «Salerosketa eta trukea» titulua jarri zen «Kostu bidezko transmisioak» tituluaren ordean, uste baitzuten salerosketa zela jabetza transmititzeko oinarriko bitartekoa, eta, beren ustean, tronkalitate printzipioak ondasunak esku arrotzei ematea saihestu beharko lukeelako.

Primo de Riveraren Diktaturako lege ekimenak Nafarroako Abokatu eta Notariotza Eskoletako mugimenduak abiarazi zituen. Lehena Diputazioak bultzatu eta **Rafael Aizpún eta Fernando Arvizuk** gauzatu zuten eta Aurreproiektua **1929an** amaitu zen. Notarioek eskainitako iruzkin eta zuzenketak gehituz, 143 artikulua eta zenbait xedapen gehigarri eta iragankorrez osatutako *Eranskinaren Aurreproiektua* gerturatu zuten.

Hiru hamarkadako atzerapena egon arren, aldeko txostena egin zen. Hala ere, berandu iritsi zen, izan ere, Primo de Riveraren Diktadura krisian zegoen jada, eta ezin zitekeen pentsa proiektua Gorteetara eraman zitekeenik.

X. PARADIGMAALDAKETA BIGARREN ERREPUBLIKAN: ESKUALDE AUTONOMIKOEN KONPETENTZIA ZIBILA ETA PROZESUA GELDITZEA

II. Errepublika sortu berriak beste marko batean kokatu zuen foru zuzenbidearen auzia, eskualde autonomoei esleitu baitziren legegintza-ahalmena gai zibiletan. Orduan sortutako arazoak bestelakoak izan ziren. Hasteko, zalantza egiten zen, arazoiz, autonomia egongo zen ala ez. Zalantzazko kontua zen hori, errepublikarrak ez baitziren fio Estatuko gehiengo politiko ezberdinak zituen Euskadi batez. Gainera Euskal Herriko arazo iraunkor eta berariazkoa zegoen, hau da, eskualde autonomiko berriaren eremuari zegokiona; hiru ala lau pro-

bintziak osatuko ote zuten, alegia. Eta, hirugarrenik, eta zuzenbide pribatuari zegokionean, lurraldeen arteko aniztasun bitxi eta zaugarria zegoen, areagotu egingo zena Nafarroa sartzearekin, ordenamendu pribatu osoa baitzuen. Eta, hein batean aurrekoaren ondorioz, legegintza-ahalmena erabiltzea zegokion subjektuaren gaineko kontua zegoen, azkenik. Errepublikaren Konstituzioaren arabera, eskualde autonomoari zegokion eskumena, zehaztasun gehiago eman gabe, baina Autonomia Estatuetatik presezki ondoriozta zitekeen entitate berriko legebiltzar berriari zegokiola legegintza-ahalmena erabiltzeko eskumena.

Eta, hori esan ostean, azpimarratu egin behar da gai zibiletan zegoen legegintza-eskumenaren hedapena, Eusko Ikaskuntzaren proiektuan jada bazegoena, hau da, Euskal Ikasketen Elkartearena. Azkenak, 1936ko urriaren 6an Errepublikako lege-maila eskuratu zuenak, Euskadiri aitortu zion legegintza zibilaren eskumen eskusiboa oro har, baita berori zuzenean betearaztekoa ere, are ordura arte foru zuzenbideak, idatzizkoak zein ohiturazkoak, gidatzen zituen gaietan ere.

Matxinatuen garaipenak aurretik eraman zituen, 1937an, Estatutua eta Kontzertuak. Ez dakigu zer gertatuko zatekeen Errepublikako legezko markoak eskaintzen zituen aukerak erabili izan balira. Agian, 1978ko Konstituzioa eta Gernikako Estatutua onartu ondoren jarraitu zenaren antzeko ibilbidea irudika dezakegu.

XI. FRANCOREN MINISTRO TRADIZIOZALEEK BILDUMA ZIBILAK BULTZATU ZITUZTEN

Franco jeneralaren Diktadura garaiko kodetze zibilaren gaia berrartu aurretik, Nafarroan gauzatutako berrikuntza baten inguruko aipamen bat egingo dugu lehenik. Gerraondoan Zuzenbide Saila sortu zen Vianako Printzea Erakundearen baitan. Rafael Aizpún Santafé eskarmentu handiko jurista horien artean zegoen. Hortaz, Zuzenbide Sailak *Kode Zibileko Nafarroako Eranskinaren Proiektua (Proyecto de Apéndice de Navarra al Código Civil)* gauzatu zuen **1944 eta 1945** bitartean. Oinarrian aurreko proiektuak jarraitu zituen, baita eduki eta formari dagozkion akatsetan ere. Salinas Quijada Tuterako juristak gauzatu zuen urte batzuk beranduago, 1955ean, argitaratutako zuen Nafarroan gauzatutako proiektu guztietako testuen edukien azterketa konparatibo esanguratsua (aipatutako azken testua barne). Ikerketan nafar ordenamendua ezaugarritzen duten eta estatuarenetik³ desberdintzen duten erakundeen berri ere eman zuen.

³ Deskripzio garrantzitsu honen inguruan ikusi Roldán JIMENOren artikulua: Derecho civil navarro y codificación general española, *op. cit.*, 299. or.

Itzul gaitezen prozesu orokorrera. Aragoi sortutako berreskuratze prozesu baten ondorioz, 1946an Zuzenbide zibilaren inguruko Kongresua egin zen. Bertan, Zuzenbide zibil bakarra sortzeko azken helburuz Konpilazioen sorkuntza berriz bultzatzeko proposamena egin zen. Hurrengo bi urteetan, ministerioko Dekretu eta Aginduak Foru eskualdeetako jurista Batzordeak sortzeko 1888ko prozedura berreskuratu zuten. Gobernuak izendatu behar zituen hainbat erakundek osatutako zerrendetan oinarrituz.

Bizkaiaren kasuan, izendatutako bederatzietatik bik –Plácido Careagak eta Darío de Areitiok– parte hartu zuten 1928ko batzordean. Arabako seiak, ordea, izendapen berriak izan ziren. Batzuek zein besteez berena balitz bezala onartu zuten 1928ko proiektua, funtsean 1900eko proiektua zena; Guadiana bezalaxe, agertzen baitzen beti une erabakigarrietan.

Prozesua azkartu egin zen 1951n Justizia Ministeriora Antonio Iturmendi bizkaitarra iritsi zenean. Bere arbaso nafarren berezko irmotasunarekin, eta Frankorengandik hurbil egoteak ematen zion aginpidearekin, ministro berriak erabakitaz jorratu zuen kodetze-eginkizuna, planteamendu tradizionalista eta foralistetan errota. Lehenetasun handia eman zion Bizkaiko konpilazioari, hari esker bultzatu zena. Beraz, ez litzateke gehiegikeria izango **Iturmendiren Konpilazioa** deitzea. Era berean, ordea, beste batzuei ere lehenetasuna eman zien bere legegintza-programan; hala nola, Kataluniakoari, Balear Irlletakoari eta Galiziakoari.

Kodifikazio Batzorde Nagusia atalka berregituratzean, batzordekide iraunkorrek sartu zituen lehenengoan, zuzenbide zibilari buruzkoan, foru zuzenbideko aditu gisara. Bada, Germán Chacartegui bizkaitarra eta Ramiro Gómez Casas arabarra izendatu zituen, bere konfiantzazkoak baitziren eta, seguru asko, Iturmendiren antzeko ideia politikoak zituztenak.

Bizkaiko konpilazioaren eraketan bi fase egon ziren. Lehena aurreneko atalaren barruan garatu zen, **1954ko urtarrilaren eta martxoaren artean**. Une zehatz batean, debateak eten egin ziren; Iturmendi ministroak eraginda seguruenik, ez baitzegoen ados eztabaidak hartu zuen norabidearekin. Ponen- teek argudio gogorrek erabili zituzten foru zuzenbidearen aurka. Adierazten zutenaren arabera, pentsamolde oso jakobinoa zuten, eta agerian zeuden ohiko dogmatika zibilari atxikitako legelarien aurreiritziak. Hargatik, 17 xedapen baino ez zituzten hitzartu. Kontua da, urtea amaitu zenean, ministerioak batzorde berezi batzuk izendatu zituela lehenengo atalaren barruan, Bizkaiko eta Kataluniako konpilazioez arduratu zitezten. Iturmendik oso serio hartu zuen gaia, eta aipatu ataletako presidente izendatu zuen José Castán Tobeñas, Auzitegi Goreneko presidentea. Urteak ziren mundu akademikoan gailendu zela, *Espainiako zuzenbide zibila, erkidea eta forala (Derecho civil español, común*

y *foral*) izenburua zuen eskuliburuagatik. Baina, antolakuntzako erreforma horren ostean, bi urtez eten zen lana, baina ez dakigu zein izan zen horretarako arrazoia.

1956ko apirilaren eta abenduaren artean egin ziren prozesuaren bigarren faseko hiru saioak. Orduan nabarmendu ziren Castánen egite ona eta aginpidea, ministroaren xedeak betearazteko pertsona egokiena izaki. 1928ko proiektutik abiatu zen atal berezia, lehenengo fasean egindakoari indarra kenduz. Testu horri dagokionez, aurreproiektu osoa aurkeztu zuten Cimiano ponenteak eta Chacartegui. Debateak ez zuen karrankarik izan. Ataleko idazkari eta Justizia Ministerioko abokatu Marcelino Cabanasek idatzi zuen arrazoienez azalpena. Bikain kalifikatu zen azalpen-testua, baina, hala ere, eta seguruenik Iturmendiren inguruko iradokizunen bat zabalduz, izaera aberkoia zuen aldaketaren bat sartu zuen Chacartegui, beharbada, proiektua Kodifikazio Batzorde Nagusiko Osoko Bilkuratik eta Gorteetatik igarotzea errazte aldera, edo, agian, emaitza euskal abertzaletasunaren aurrean errentagarri egiteko xedez, klandestino baten ere adi-adi baitzegoen hori. Forua ezar zitekeen lurralde-oinarriaren zehaztugabetasuna konpondu izana azpimarratu zuen azalpenak; izan ere, forupekoak ez ziren hamabi hiribilduen hiri-kontzentrazioaren perimetroaraino preskribatu zen horren ezarpena, eta industria-ustiaketei eta hirigintza planek eragindako lursailei hedatu zitzaie zuzenbide komuna. Era berean nabarmendu zuen konpilazioak bere egin zuela Chalbauden eta Balpardaren doktrina; foruak ondare-kontzentrazioa jarraitzen duelako doktrina, alegia.

1959ko konpilazioak aldaketa sakona ekarri zuen 1900eko eta 1928ko proiektuari dagokionez, bai edukian, erakundeak eta xedapenak kimatu baitzitu, bai egituran. Aurreko hamabost tituluak zortzi izatera igaro ziren, eta 135 xedapenak 63 izatera.

Aurreproiektua Justizia Ministerioan sartu bezain laster, Antonio Iturmendi arduratu zen izapidez. **1957ko urriaren 3an** Ministroen Kontseilutik pasatu zuen, eta Gorteetako Justizia Batzordeari bidali zion gero. Azken horrek ez zuen aldaketarik egin apenas. Batzordearen irizpenak ordea, urtebete behar izan zuen Gorteetako Osoko Bilkurara igotzeko, aurkako inguruabar politikoengatik. Ministro bizkaitarrak konpilazioa sustatzeko orduan eta horren emaitzan izan zuen protagonismoa nabarmendu zuen Ganberan. San Ignazio egunean argitaratu zen testua, eta Iturmendiren lana nabarmendu zuen erregimeneko prentsak, aditu foralista eta ministro arduratsutzat joaz. Urtebetera, Kataluniako Konpilazioari iritsi zitzaion txanda, balearrari 1961ean, eta galiziarrari 1963an. Justizia ministro tradizionalistak arduratu ziren geroko konpilazio aragoiarraz eta nafarraz.

Nafarroan ere Iturmendi eta Oriol tradiziozaleek zuzendutako Ministeriotik eratorritako bultzada kodetzailea hauteman zen.

Aurrez aipatutako berrikuntzez gain, fase honetan sortu zen Nafarroako kodetze prozesu berezitu zuen beste auzi bat ere. Foru Diputazioak kolpe militarra babesteagatik eta beren kontserbadurismoari jarraiki sortutako konfiantzagatik, erregimen frankistak bertako eliteekin zuen zor politikoa aprobetxatu zuen. Nafarroako foru korporazioak Nafarroako bilduma osatzeko eta onartzeko prozedura berezia eskatu zuen. Batzordeko juristak nafarrak izango ziren eta testuaren onarpena hitzarmen bidez egingo zen. Foru Diputazioak, eta ez Gobernu Zentralak, izendatu beharko zituen Batzordeko kideak. Hargatik, sortu berri zen Nafar Zuzenbide Kontseiluko hamasei kideei egokitu zitzaizen izendapena.

1959ko urriaren 9an, hau da, Bizkaiko bilduma onartu eta argitaratu ondorengo bi hilabeteetan, Juan Santamaría Ansa epailea gidari zuen Nafarroako Kontseiluak *Bildumatutako Foru Aurreproiektua* (*Anteproyecto de Fuero recopilado*) amaitu zuen eta *Proiektu* bilakatu zuen urte amaierarako.

Hamarkada betea zen Kontseilua lanean hasi zenez geroztik. Baina proiektuaren tramitea oztopatu egin zen eta ez ditugu arrazoiak ezagutzen. Bertan behera geratutako proiektu nafar honen azken fasean Iturmendi Ministroak izandako eragina ezagutzea interesgarria litzateke, are gehiago Batzordeak jarraitu zuen lan eredia. Badirudi, hasteko, proiektua atzeratu egin zela, zuzenketa aro bat hasi zelako, azkenean izaera mugagabea izan zuena, talde pribatu batek osoko zuzenketa aurkeztu baitzuen. Diputazio frankistaren funtzionamendu iluna eta Unibertsitate pribatu berriari lotutako eta probintziako botere faktikoetan eragina zuen jurista taldea izan daiteke horren arrazoia.

XII. NAFARROAKO BILTZAILE BATZORDE OFIZIALA ALBO BATERA UTZIKO DUTEN JURISTA TALDE PRIBATUAREN ESKU HARTZEA...

Esan bezala, bi une desberdinetan osatutako jurista talde batek, eta eskaera ofizialik gabe, bere gain hartu zuen idazketa pribatua gauzatzeko lana 1960an. Bi notariok, abokatu batek, zibilista batek (López Jacoiste), erromanista batek (D'Ors) eta epaile batek osatu zuten. 1967an, jadanik amaierako fasean, taldetik kanpo egondako Santamaría Ansa epailea eta Tuterako Salinas Quijada abokatua batu zitzaizkien. Zaila zen ekintza honi aurka egingo zion Batzorde Biltzaile Ofizialaren erantzunik sortzea, izan ere, talde pribatuko bost kide batzorde hartako kide ere baziren.

Taldea ez zen larritu. Hamarkada bat beranduago, 1970eko apirilean, *Nafarroako Foru Zuzenbidea* izeneko lan amaitua argitaratu zuten: *Derecho Foral de Navarra. Derecho Privado (Recopilación Privada)*. Bere garaian Batzorde ofizialak egindako eta honek Foru Diputaziora Aurreproiektu gisa aurkeztuta-

ko Osoko zuzenketa hartzen du. Foru Korporazioak ofizial egin eta Gobernu zentralak legea prozesu-hitzartu bidez tramitatzea lortu zuen. Hau da, Nafarroako Batzorde ofizialaren eta Kodifikazio Batzorde Orokorreko Zibil saileko ordezkarien artean osatutako testu batean oinarritutako debate baten bidez. Testu moldatua lortzea zen helburua. Bigarrenik, Nafarroaren eta Estatuaren artean erabakitakoa Hitzarmen gisa osatu behar zen, Gorteetatik pasa gabe. Franko jeneralaren eskumen legearen bidez testua onartuko zen 1973ko martxoaren 1ean (1/1973 Legea).

Azalpenaren erretorika aberkoia idazleen eta momentuko egoeraren ondorio gisa uler daiteke. Oraindik bi urte falta ziren Diktadorea desagertzeko. Zuzenbidearen inguruko indar biziak emaitzarekin asebeterik agertu ziren.

XIII. 1978KO ESTATUKO KONSTITUZIO BERRIAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZUZENBIDE ZIBILA BERRITU ETA EGUNERATU BEHARRA ERAGITEN DU

1978ko Espainiako Konstituzioko 149.1.8 artikulua Errepublika garaiko auzi zibiletako lege eskumena itzuli zien lurralde autonomoei. Erakunde berriek beren ohiturazko eta Berrezarpenaren garaiko idatzizko Zuzenbide zibil eta forala mantendu, aldatu eta garatu ahal izango zuten. Gaitasun hori berreskuratuz, Berrezarpena eta Primo de Riveraren eta Francoren Diktadura garaietako egoera erabat aldatuko zen. Honela, Errepublika garaiko auzi zibiletarako eredu berrezartzen zuen. Atzerago joz, aipatu gaitasuna garai foral klasikoan zehar dudarik gabekoa zen Nafarroaren kasuan eta zalantzazkoagoa Bizkaia eta Arabarenean.

Gaitasuna gauzatu emaitzak lortzea nahiko zaila izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroan, ikusiko dugun bezala, aro frankistaren amaieran, 1973an, argitaratutako Foru Berria aldatzeko borondatea falta zitzaien buruzagiei.

Bizkaian mantendu beharreko erakundeei zegozkien eta indarrean zegoen lurraldeko betiko zailtasunak irauten zuten. Horri, auzi zibiletarako konpetentzia autonomikoaren gaitasun berritzailearekiko ziurgabetasuna gehitu behar zitzaion; gainera, Estatutuaren bidez lurralde historikoetan banatzen zen Elkarrean, subjektu legegilearen inguruko zalantzak ere sortzen ziren. Tradizioari jarraiki, probintzietako Batzar Nagusiek sortzen zituzten arauak, orain aldiz, subjektu legegilea Eusko Legebiltzarra zen. Bestalde, nahiz eta aurrerapauso handia izan, kodifikazio egokia ahalbidetuko zukeen literatura juridiko egonkorra falta zen. 1983 eta 1986an antolatutako Ponentzietan informazio gutxitasuna nabarmena zen. Kontuak aurrerabide handiagoa izango zukeen Zuzenbide zibil bizkaitar-arabarra lantzen zuten Bilbo eta Donostiako eskolen arteko elkarlana estuagoa izan balitz.

Bizkaiaren kasuan, Zuzenbide zibila Adrián Celaya Ibarra juristak gidatzen zuen 60az gerotik, hau da, Konpilazioa agertuz gerotik. Deustuko Unibertsitatean irakasle izateaz gain, hurrengo hamarkadetan ikerketa lan pertsonal handia egin zuen. Celayak Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen parte hartu zuen, eta aurrerago, Zuzenbidearen Euskal Akademian ere bai, inguruko artean berezko Zuzenbidea gauzatzeko zaletasuna bultzatuz. Ez genuke ahaztu behar, mendeetan zehar berezko Zuzenbidea gauzatzeko joera naturala Bizkaia eta Arabari egokitu zitzaioela euskal mendebaldean. Gipuzkoan Zuzenbide fakultatea ikerlari talde baten eskutik osatuz joan zen 80ko hamarkadan zehar, Jacinto Gil irakaslearen zuzendaritzapean. Taldearen baitan hainbat monografia eta artikulu osatu ziren Foru Zuzenbidea gai nagusi izanik.

Josu Osés, Eusko Legebiltzarreko letradunak era sintetiko eta zehatzean deskribatu du garaiko Kodetze bizkaitarraren garapena (Konstituzio ondorengo Erkidego Autonomoaren kodifikazioa, alegia)⁴.

Konstituzioa onartu ondoren, Konpilazioa bizkaitarraren zuzenketarako aukera hautematen zen, baina behin ere ez zen guztiz gauzatzen. Prestaketarako ikerketa ekintzak (1979ko Foru Zuzenbideko astea, 1982ko Zuzenbide Fakultateko jardunaldiak, 1986ko Celayaren txostena) garatu ziren. Egia esan, lehen zehaztapenak, Eusko Legebiltzarreko 6/1988 Legeak, handinahienak desengainatu zituen, izan ere, ezkontideen erregimen ekonomikoaren inguruko zenbait oztopo kendu eta oinordetzarako haurrak berdintzea besterik ez zuen egin.

Bizkaia eta Arabako Batzar Nagusiek Eusko Legebiltzarrera testuak bidaliz erantzun zuten, testu bateratua osatu behar izateraino.

1992ko Legea onartu zen. Adrián Celayak osatutako Zioen Azalpenak Zuzenbide pribatu bizkaitarrari eragiten zioten arazo aurrekonstituzionalak eta Euskal Lege zibil berriak eragindako berrikuntzak azaldu zituen. Iragankortasuna, Elkarte Autonomorako Zuzenbidea gauzatzeko ikerketaren aurrerabidea osatzeko borondatea (are lurralde berezitasunak baztertuz), antzematen zaio. Aldi berean, arauaren testuak aurrerapena izan zuen hainbat gaietan: iturri, aplikazio eremu, zurruntasun, borondatezko eta behartutako ondorengotza, Aiarako Forua, etab. Estatu Kontseiluak arauaren lurraldetasuna onartu zuenean erabat egonkortu zen. Probintziaz gaindiko araudia zibiletarako oztoporik nagusia gainditua zen, beraz.

⁴ OSES ABANDO, J., Parlamento Vasco y Derecho Civil Foral. Balances y perspectivas, en *Jado Aldizkaria*, Bilbo, X Urtea, 21 zk, 2011 maiatza, 21-38 or.; Autogobierno y Derecho Civil Vasco: el rol del Parlamento, en el *Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz, 2016, 111-134. or.

Legeak, tradizio zibilista zuen eta aurrez ahaztua izana zen Gipuzkoa ere kontuan izan zuen. Aro Moderno eta Garaikidean, Zuzenbide propioa aintzates- teko hainbat eskaera eginak zituen. Foru Diputazioak Lege Zibilaren 147. arti- kulan agertzen zen aitortza baliatu zuen, 3/1999 Legea bilakatuko zen proiektua Legebiltzarrari proposatzeko. Baseri banatu gabea eskualdatzea ahalbidetu zuen, ziurrenik lorpen eskasa.

1992ko eta 1999ko legeetako garapenak Euskal Autonomia Erkidegora- ko Zuzenbide zibila lortzea zuen helburu, nahiz eta lurraldetasunaren arabera indarren banaketa desberdina izan. Bizkaian aurreko aroan hasitako mugimendu sortzaileak jarraitu zuen batetik, Euskalerriko Adiskideen Elkarteak (2001ean eta 2002an) prestatutako proiektuan eta bestetik, *Jado* Zuzenbidearen Euskal Akademiako aldizkariaren inguruan egituratutako taldean. 2007an Euskal Lege Zibilerako proiektua aurkeztu zen.

Hamarkada horretan zehar, aipatutako Akademiaren zuzendariorde An- dres Urrutiak Lege Proiektuaren garapenean izandako gidaritzza nabarmendu zen. Bien bitartean, Donostiako Zuzenbide Fakultateko ikerlari taldeak aurreko hamarkadetakoa lana garatzen jarraitu zuen, 23 monografia eta egiletasun kolek- tiboko liburuak eta 60 artikulua osatuz guztira.

Lege prozesua amaitzea falta zen. Horretarako, 2008ko maiatzean Eusko Legebiltzarrean adituen hitzaldiak tartekatuz proiektua era zehatzagoan defini- tzen hasi zen.

2006-2008ko kodetze saiakeraren porrotak eragindako uzkurduraren on- doren, 2013ko otsailean Euskal Sozialisten taldeak Legebiltzarrean egindako Lege proposamena onartu zen. Erakunde Segurtasun eta Justizia Batzordeak Zu- zenbide foraleko adituak entzun zituen eta hilabete batzuen buruan, irailean hain zuzen, Josu Osés letratuari lege-prozedurarako proposamena aurkeztea egokitu zitzaion. Oraingo moduan esanda, ibilbide-orria diseinatzea egokitu zitzaion.

Auzotasun zibilaren egituraketa oinarriari jarraiki, Eusko Legebiltzarrak lege proposamena gauzatu beharra zuen. Emaidza, hedapen gutxiko lan zuhurra- ren ondorioa izan zen. 2014ko uztailaren 18az geroztik, parlamentariak ados- tasunera gerturutzen hasi ziren. Ibilbide-orrian aurreikusitako pausuak jarraitu ziren ondoren: Eusko Jaurilaritzak ontzat eman eta Parlamentuak lege proposa- mena eta testuaren babesa aintzat hartu zituen batzarrean EAJren, PSEren eta Alderdi Popularraren aldeko botoen bidez eta EHBilduren eta UPyDren absten- tzioarekin.

Ekainaren 25ean 5/2015 Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legea argita- ratu zen. 1992koa ordezkatu zuen. Atariko titulua eta lehen hiru tituluak ondare zuzenbideari, ondorengotzei eta ezkontza erregimen ekonomikoari buruzkoak ziren. Askatasun zibilean oinarriturik eta auzotasun zibilari loturik aplikatu zitez-

keen (gurasoen auzotasun zibiletik edo jaiotza lekuetatik eratorria). Lege berriak ezin zuen Erkidego Autonomoaren iragan juridikoa alde batera utzi, beraz, bereizketa egiten zen lurraldeen artean: Bizkaia eta Arabako udalerrietatik, Aiarako lurraldera, ohiturazko jatorriko Zuzenbidea neurri batean berreskuratzen zuen Gipuzkoara eta azkenik, Gaztelar Zuzenbidera asimilatutako Arabako zaitira. Zuzenbide komunaren oinarri den testamentu egiteko askatasuna lurralde osora zabaltzea da Legearen ezaugarri nagusia, eta Tronkalekotasuna, legearen muin gogorra.

XIV. ... ETA NAFAR ZERUMUGA ZIBILA KASIK EZ DA ALDATZEN

Nafarroan ere, auzi zibiletarako eskumen konstituzionalak (149, 1, 8 paragrafoa) legeak egiteko nahia piztu zuen. Baina, marko juridiko berriak eskutatokora egokitzea besterik ez zen egin azkenean.

Gainerako Foru lurraldeetakoarekin alderatuz, nafar immobilismoa bi arrazoiren ondorio izan zitekeen. Batetik, Nafarroako Konpilazioa izan zen Francoren garaian agertu zen azkena, eta soilik bost urte ziren igaroak aldaketa politikoa eta konstituzionala gertatu zenerako. Esan dezakegu Zuzenbide pribatua oraindik barneratu gabea zela eta Lehen Trantsizio politiko ezegonkorrean lehentasunezko auziak zeudela, bereziki Zuzenbide publikoari zegokionean. Bereziki, gainerako Elkarte Autonomikoekin alderatuz, atzerapena zeraman erregimen autonomikoa ezartzeari edo eguneratzeari zegokionean. Eta, bestalde, Trantsizioak ez zuen Nafarroako elite tradizionalengan aldaketa gehiegirik sortu: boterea eskuratu zuten sozialistek ez zuten Zuzenbide zibilarekiko ardurarik, salbu Estatuako Konstituzioa ezeztatzen zuten auzien kasuan. Egia esan, Espainian Diktaduratik Demokraziarako Trantsizioan jarraitu zen aldaketa metodoak, Estatuaren politika hausturarik ezak, Nafarroako botere faktikoei gizarte kontrolerako baliabideak mantentzeko aukera eman zien. Zuzenbidearen ezarleen inguruan. Aldaketa oso laua izan zen. Jarraikortasuna gailendu zen unibertsitatean, magistraturan, lanbide juridikoetan. Hedabide hegemonikoek ordena zaharra babestu zuten. Berezkoa zuten erregimen zaharraren garaipenetakoa izan zena ez berrikusteko interesik izatea.

Hala ere, saihestezinezko zenbait aldaketa egin ziren. Are Konstituzio aurreko garaian ere, Konpilazioaren bi aldaketa onartu ziren. 1975eko eta 1978ko Errege Dekretuek ezkonduetako emakumearen gaitasun juridikoa onartu eta adin-nagusitasuna 18 urtetik gora ezarri zuten. Azkena, erreferendum konstituzionalako parte hartzea areagotzeko beharrezko aldaketa zen. Onartu behar da Konstituzioaren eta bertako zenbait eskakizunen aldarrikapenak, adibidez, 1981eko Dibortzioaren Legearenak, Foru Berriaren bultzatzaileek aztoratu zituela.

Kode Zibil orokorra Konstituziora egokitu zen filiazio, guraso-aginte eta ondasun erregimen ekonomiko gisa eta jarduera bera Foru Berrian gauzatu beharra zegoen. Baina Batzorde Biltzaileak ezin izan zuen hori egiteko Diputazioaren eskaera bete eta nafar gobernu sozialistak, auzi honi zegokion aurre-
tiazko prozedurara lotzen ez zuen LORAFNaren babesean, 1985ean juristen Batzordea sortu zuen. Egituraketan indarren *statu quo*a onartu zen, nahiz eta aniztasunari bidea egin zitzaion. Egia da zenbait zibilista gailenek parte hartu zutela (Pablo Contreras, Fernández Urzainqui, Lacarra Lanz, Rubio Torrano...) baina Batzordean ez zen gizarte nafarraren errealitatea egoki islatzen eta ez ziren Zuzenbidearen ezarleen korporazioak kontuan izan. Genero kontuak ez ziren aipatu ere egiten.

Bi urteren buruan Legea (5/1987 Foru Legea, apirilaren 1ekoa) argitaratu zen. Foru Berriko 91 artikuluri eragiten zien. UPNko erregionalistek eta Batzorde zaharreko zenbait kideren oposizioak aldaketa sakonak egiteko zailtasuna azaleratu zuen. Familia legitimoari eta filiazioari lotutako aldaketak esanguratsuak izan ziren, baina ia ez zioten ezkontza ekonomia erregimenari eragin.

Ondoren, eragin gutxiagoko aldaketa pare bat (1990 eta 1996) eta esangura handiko beste bat ere izan dira Bilduman. Esanguratsua da izatezko bikoteei dagokiena hain zuzen: Nafarroan nahiz mendebalde osoan Behe Erdi Aroan ezarri zen familia Zuzenbidearekin alderatuz gero, aldaketa esanguratsua.

XV. NAFARROAN FALTA DEN KODIFIKAZIOA: ARDO BERRIA ZAHAGI ZAHARRETAN

Nafarroako Zuzenbide zibila aldatu eta bildu dutenen ezaugarri bereizgarria da tradizio juridikoaren ondare sakratuarekin lan egiteko eskubide eskusiboa dutela uste izatea. Baina tradizio horri eragiten dioten arazoetako bat da identifikazio historikoa, daukagun ezagutza mugatua baita. Aro garaikidean ez baitira iturri historiko guztiak baliatu, Yanguasen bilduma baizik.

Bestalde, harrigarria da nafar immobilismoak ez ikustea ordenamenduen egoera garaikideak mugimenduak eskatzen dizkiola. Batez ere hutsunez, zahartasunaz eta zenbait koherentzia akatsez ari gara, hau da, akats teknikoetz. Azken berrogei urteotan ez du aldaketarako ekimenik hasi beharrik ikusi. Doktrinak Konpilazioari obligazio eta eskubideen modernotasunean egozten dizkion lorpenek ez dute inhibizioa justifikatzen. Badirudi erreformisten ikuspegitik, iritzi negatiboa eragiten duten auziak pisuzkoak beharko luketela.

Landa gizartearen baitan garatu zen zuzenbidearen eta gaur egungo egoera post-industrialera lortu duen gizartearen errealitatearen artean zenbait desadostasun nabari dira. Nafar nekazaritzari dagokionean, non geratzen da Gizarte Se-

gurantzako pentsiodunak bizi diren haranetako etxearen eta familia ondarearen mantenua. Non, Nafarroa garai eta Erdialde gehiengo hartzen zuten hedapen txiki eta ertaineko familia esplotazio tradizionalen laborantzaren markoa. Geure erakunde juridikoen zati esanguratsua, gaur egungo garapen ekonomiko eta sozialak ezabatu duen «etxearen» inguruan egituratzen ziren. Gauzatzen zituen muinak, oraindik nafar landako zein industrialdeko gizartean bizirik dirauten balioek iraungo badute, formulazio berriak behar ditu.

Beraz, gaur egun nekazaritzari lotutako biztanleria urriaren datua kontuan izan behar da, nahiz eta duela mende erdi hain ugaria izan. Gure Zuzenbideak orotara urbanoa den gizarte nafarraren beharrei jaramon egin behar die, baina mendeetan zehar kontuan izan duen eta oraindik mantentzen den landa mundua ahaztu gabe.

Bada kontuan izan beharreko beste erronka bat ere. Familiaren beraren garapenaz ari gara. Gerraondoan jaiotakooi, azken hamarkadetan gertatua barneratzea kosta egiten zaigu. Ezkontza kanoniko eta antzinakoaren dekadentzia ikusi dugu, gaur egun ia hegemonikoa den ezkontza zibilak zokoratua. Bikoteen izatezko bizikidetzaren egonkortzen ikusi dugu, Zuzenbideak onartu eta banatzen eta dibortzioen bidez, hartzen diren loturen egonkortasun urria egiaztatu dugu (marko instituzionala edozein delarik ere). Bizikidetzaren arauak bermatzen dituen Zuzenbidearen egonkortasunaren gainetik, gainbehera datorren munduko errealtatea gaindituz, zuzenbide kodetuak erantzuna eman behar dio errealtate berriari.

Noski, berezko Zuzenbideak ere biztanleriaren mugikortasunari lotutako beste kanpo erronkei erantzun behar die. Nafarroan sail honekiko esperientzia zabala da. Hiri eta hiribilduen sorreraren garaian, herrialdeak herritar gaskoi eta okzitaniar askoren etorrera jasan zuen. Ondoren, mendeetan zehar, lur honetako seme askok penintsulako beste lurralde batzuetan eta ozeanoaz gaindiko lurretan bizimodua aurrera ateratzeko modua bilatu behar izan zuten. Industrializazioaren eraginez gertakari bikoitza areagotu egin zen, eta gaur egun Europa barneko eta kanpoko immigrazioaren berpiztea bizi dugu. Bestalde, kodetze saiakerak kontuan izan behar du Europar zabaldu den kupula instituzionala, eta Europa zaharreko herrietako zenbait erakunde zibil homogeneotasunez hornitzeko saiakerak.

XVI. EUSKAL ESKUBIDEEN BATERATZEA EDO DESBERDINTASUNA

1.- Kultura naziotasunaren ikuspegitik, ez dirudi egokia euskal Zuzenbidea esamoldea –ez behintzat «Euskal Zuzenbidea»– erabiltzea Euskal Herriaren zati bati dagokionari, izan Euskal Autonomia Erkidegoari, Nafarroari edo Frantziako euskal lurraldeei.

Orokorrean, foru literatura zibilista euskal izaera kulturalaz asko arduratzen ez ziren ikuspegi tradizionalistako pertsonak landu zuten XX. mendearren bigarren erdira arte. Bizkaiko edo Nafarroako edo Lapurdiko Zuzenbidea aipatzen dute haiek. Baina auzi etnikoa existitzen da eta ez da Bizkaiko Jaurerriaren mugen edo Nafarroako Erreinuko inguruen baitan biltzen. Lurralde hauek guztiek dituzte sistema edo azpi-sistema juridikoak, baina, oinarrian antzekotasunak lotzen ditu. Hau guztia Frantziako euskal lurraldeak gogoan izanik. Bertan, *Napoleonen kodeak* bertako tradiziozko eta idatzitako Zuzenbidea ezabatu zuen, Abadiak adierazi bezala, gizarteak aurre egin bazion ere. Beraz, oinarrian «Euskal Zuzenbidea» ondare komuna da eta Euskal Herriko lurralde jakin bateko ordenamendua aipatzean adjektiboren batek zehaztu beharko luke.

2.- Alderdi pribatuarekin gertatu ez bezala, Euskal Herriko Zuzenbide publikoko sortzaileek «dimentsio etnikoa» oso kontuan izan zuten, eremu anglosaxoiko Giza Zientzietan esaten den bezala. Eta hori guztia, euskal nazionalismoak herrialdean eragin nabaria izan aurretik. Gogoratu Marichalar eta Manrique madrildarren 1858ko lana, lau probintzietako Foruei buruzkoa. Izan ere, herrialdea era juridiko-publikoan egituratzeko ideia 1876ko foruen krisia iritsi baino lehenago indartua zen jadanik eta ibilbide hori egin zuten zenbaiten ideia politiko eta intelektualek, uste baitzuten oinarrizkoa berezko botere politikoa berreskuratzea zela. Askok gaur egun atzera erabiltzea erabaki duten XVIII. mendeko *Irurak-bat* goiburua, XIX. mendeko azken hamarkadetan Ortiz de Zárate, Sagarmínaga eta beste batzuen *Laurak-Bat* ikurrak ordezkatu zuen. Iruñeko Asociación Euskara delakoak muturrerago eraman zuen *Zazpirak-Bat* erabiliz. Autogobernua lortzea ondoko pausuetarako, adibidez, berezko Zuzenbide zibila sortzeko, oinarrizkoa zen. Iuspublizistek Euskal Herriko hainbat lurraldetako erakunde publikoak aztertzen jakin zuten.

Zuzenbide pribatuarekin ez zen gauza bera egin. Cánovasek deuseztatutako autogobernua berreskuratze bidean, erakunde pribatuetakoz auziak espainiar Zuzenbide zibileko kodifikazioaren tartekako bultzaden menpe geratu ziren eta badakigu hura Gobernu zentralak zuzentzen zuela. Herrialdean unibertsitatea falta zenez, eragile lana Zuzenbide adituek egin zuten. Jakinik horiek, arau juridikoen aplikazioak eguneroko jardunean izaten dituen arazoak konponduz indarrean dena errespetatzeko eta mantentzeko joera dutela. Nabarmendu behar da gure juristek XIX. mendeko bigarren zatiko Zuzenbide Fakultateetako ikasketa-planak bereganatu eta barneratu zituztela eta auzi zibilari dagokionez, 1889az geroztik Kode zibilean oinarritutako eskuliburuak zituztela gidari. Herrialdeko Zuzenbidearen ezagutza praktikatik zetorkien. Hau da, berezko Zuzenbidea notaritzetan eta bulego profesionaletan erabiltzetik. Foru bizkaitarraren kasua zen: bertako arauak Bizkaiko zati batean baliatzen ziren. Eta Nafarroan ere, soilik

erreinu zaharreko eremu menditar eta erdialdekoan erabiltzen ziren nafar Zuzenbide zibileko iturrietan oinarritutako formularioak.

Zuzenbide pribatua eguneroko jarduneko gertakari soil gisa hautematen zen eta ez zuen gure artean erakunde publikoek zuten prestigioaren zantzurik. Le Play soziologo frantsesaren doktrinak jaso eta zabaldu ondoren, horien inguruko balorazioa eta kontzientzia aldatu zen. Egia esan Kode Zibileko Zuzenbidearekiko sentitzen zen konplexua gainditzen lagundu zuten eta berezko erakunde propioekiko estimua indartu zen. Baina ez zegoen Le Playren eta bere eskolakoen ikuspegi konparatistak zekartzan ondorioak aztertze baldintza politiko eta kultural egokirik, ez behintzat Bizkaia eta Nafarroako erakunde zibilei zegokienean, nahiz eta euren artean komunikazioa eta Zuzenbide publikoaren defentsarako nolabaiteko elkartasuna zeuden. Ikus bestela XIX. mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetan argitaratutako Zuzenbide pribatuko lanak. Ez zegoen Jaurerriaz haratagoko ikuspeirik. Egiaz, irudipen zabaldua da jurista bizkaitarrek ez zutela ongi ezagutzen nafar Zuzenbidea, eta alderantziz. Laburtuz, Euskal Herriko eremu juridikoetako autore iusprivatistek ez zutela elkar kontuan izan. Honela hasi zen bata bestea baztertearen nolabaiteko tradizioa. Bertako literatura juridikoaren egoerarik hobereanean ere ez zen bi sistemak ikertze ahaleginik egin, ez eta euskal ordenamendu pribatuak konparatze korik ere. Beste sail batzuetan ikusi den elkarte kulturalaren heldutasun faltaren eta desartikulazioaren erakusgarria hau ere. Hala ere, alderdi hau gehiago lantzea komeni da garaiko aldizkariak begiratzuz, adibidez Iruñeko *Revista Euskara* edo Donostiako *Euskal Erria*.

Deigarria baita, adibidez, euskal eremu juridikoan, inoren lurretan kokatutako lurraldeak izan direla eta borondatezko konponbideek ezin dute gehiago luzatu. Zuzenbidean adituek ohartarazi dute Gipuzkoa –eta ziurrenik, Araba–Nafarroatik gertuago daudela juridikoki. Tradiziozko zuzenbide gipuzkoarrean eragina izango zuen gipuzkoarrek mendeetan zehar, Goi Erdi Arotik hasiz, Iruñeko diozesiaren auzitegi eliztarrak partekatu izanak, edo ia gaur egunera arte bertako lurralde Entzutegiaren barnean kokatu izana. Honi dagokionez, 1978ko Konstituzio espainolari jarraiki sortutako muga politiko eta administratibo berriek ondorio desegituratzaileak izan dituzte hemen. Zehazki, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko mende askotako loturak hautsi dituzte.

3.- Eta hala ere, euskazaletasunaren kultura eta politikaren baitan, bereziki nazionalismo sortu berrian, lau probintziak kabituko ziratekeen izate autonomiko baten baitako Zuzenbide zibil komuna erdietsi nahi zen. Eta hemen gomendagarria litzateke *Revista Internacional para los Estudios Vasco*seko 1918 eta 1936 bitarteko ibilbidea jarraitzea. Ideia Oñatiko Euskal Ikasketetako Kongresuan eztabaidatu zen eta II. Errepublika garaiko Euskal Estatuaren egileen artean ere bogan izan zen. Gertakari hau zehatzago aztertzea komeni

da. 1931n Eusko Ikaskuntzaren baitan gauzatu zen Estatutua hainbat inguru politikotako pertsonen artean adostu zen, beraz, idazleek harreman pribatuen auziaren ikuspegi orokorra zuten. Artean oraindik ez zen onartu Konstituzio errepublikarra, hortaz, ez zuen kanpo baldintzapenik jasan. Arestian aipatu den bezala, Estatutu hartako 15. artikuluari jarraiki, Euskal Estatuak legegintza zibila, hipotekaduna, prozesala eta notariotzakoa lantzeko gaitasuna izango luke. Horretarako eskumena izaera orokorreko erakundeek eta probintzia bakoitzeko Estatutu bereziek izango lukete. Estatutua onartu eta ezarri balitz, ziurrenik legegile autonomikoak euskal legegintza zibil orokorra hautatuko zukeen, baina, berezitasun bizkaitar eta nafarrak nahiz idatzi gabeko tradiziozko erakunde gipuzkoarrak gehiago edo gutxiago errespetatuz. Hurrengo Estatutuan, Gestorek 1932ko martxoan aurkeztutakoan –eta orain bai, Konstituzio errepublikarrak baldintzaturik–; lau probintzietako euskal– nafar erakunde orokorren gaitasun legegilea onartu zuen. Gainerako Estatutuen aipamenik ez dugu egingo (1936korik ere ez), aintzat hartu baitzuten 1932ko ekainean Iruñeko Gayarre Antzokian izandako batzar polemikoaren ondorioz huts egindako euskal- nafar elkarrearen porrota.

Aurrez esan bezala, ez dirudi gaur egun erabilgarritasunik duenik Euskal Herrian Errepublika garaian lau probintzietako autonomia egonkortu eta euskal Zuzenbide zibil orokorra gauzatu balitz gretatu zitekeenaz gehiegi hausnartzea. Bistakoa da Zuzenbide pribatua ez dela izan ideia nazionala garatze eta gauzatzeko bidean jarri duena. Euskal nazionalismoaren ikurrak erbesteratu egin ziren Francoren garaipenaren ondoren, baina ez zuten sistema politikoa eta Euskal Herriko bi aldeetako Zuzenbide pribatua bateratzeko nahia alde batera utzi: Irujok Londres eta Parisen, Agirrek New Yorken, Galíndezek Dominikar Errepublikan atseginez aztertu zituzten euskal Zuzenbide publiko eta pribatua. Helburua erakunde publiko eta pribatuen oinarri komuna bilatzea zen, mendeetan zehar hartu duten ausazko forma bereizleaz haragokoa.

4.- Francoren diktadurak ekarri zuena ezaguna da. Iraun zuen bitartean, Euskal Herrian esperientzia bikoitza izan zen Foru Zuzenbide pribatuaren alorrean. Batetik, eta zenbait salbuespen ezagun kontuan izanik, zibilista espainiar gehienek Foru Zuzenbidea gorroto zutela egiazta zitekeen. Diktaduraren lagunen nahiz liberalen aldeko eskuliburuen eta lan juridikoen egileen ustez, foraltasun zibila antzinako errealitatearen hondarra zen eta beren uste politiko eta doktrina zientifikoa iraintzen zituen. Estatuaren batasuna kontuan izanik, ez zen oso gomendagarria. Bestetik, kontraesankorra dirudi Francok Justizia Ministerioa Foruaren defentsa oinarri zuten, behintzat erretorikoki, ministro tradizionalisten esku utzi izana. Iturmendi eta Oriol ikusi ditugu lurralde foral guztietako Konpilazioak babesten, mende erdiz baino gehiago geldiarazi ziren, Kode Zibilaren 12. artikulua proposatzen zuen eranskin batzuk saihesteko.

Gogora dezagun, Iturmendi Ministroak Zuzenbide bizkaitarra kodetze-ko eskaini zuen laguntza, lehenik Jaurerriaren Konpilazioa eta udalerrri arabar mugakideak kokatuz. Eta herrikideei egiaz tradizionalista zirela erakutsi nahia, Espainiaren batasunarekin bat zetorren probintzietako foraltasuna defendatuz. Bestalde, nafar kontserbadurismoari askatasuna eman zioten lurraldearen tradiziozko Zuzenbidearen Bilduma osatu eta garatu zezan. Askatasun horren zabalatasuna eta onarpena nabaria izan zen, ministro karlistek lanari ekin zioten grinaz aparte, Bizkaiko bildumak baino ia hiru bosturteko gehiago behar izan baitzituen Nafarroako Foru Berriak argitaratua izateko. Noski, ez zegoen ekin-tza garatu zuten Ministroaren eta inguruko juristen, nahiz Nafarroako Zuzenbide pribatuko adituen asmoen baitan bi lurraldeetako ordenamendu zibilen arteko lotura edo gerturatzea ezartzerik. Pentsaezina zen horrelakorik Diktadura garaian. Bistakoa da Batzordeen eta ministroen lanak ez zuela kontrakarrik izan: klandestinitatean edo erbestean erregimenari aurre egiten ziotenen ustez «beraien» kontua zen, Zuzenbide Pribatua. Esanguratsua denez, erantzunetako bat aipatuko dugu: Manuel de Irujok 1973ko martxoan Foru Diputaziora bidalitako telegramaz ari gara. Nafarroari burujabetza zibila galarazten zion Konpilazioaren kudeaketa erdeinagarriaz kexu zen. Une demokratikoa iristean ardurak aitortuko zirela aldarrikatzen zuen. Baina, zein eragin izango zuen Nafarroa frankistatik iritzi publikoak ezagutuko ez zuen erbesteratutako politikari nazionalista eta errepublikazalearen gaitzespenak? Ezin irudika zezakeen politikari lizarratarrak erregimen demokratiko berriak erakutsiko zuen utzikeria frankismoak onartutako gertakariak deuseztatzekeo garaian.

5.- 30eko hamarkadako politika euskaltzaleak euskal Zuzenbide zibila ezartzeko erakutsitako helburuari buruz 1978ko Konstituzioaren eta Trantsizioaren ondorioz etorritakoa ulertzeko, azalpen behartuak kontuan izan behar dira. Zioa Espainian jarraitutako Trantsizio metodo erreformistan dagoela aurreratuko dugu. Aldaketa esanguratsurik egin gabe, Diktadura garaiko gizarte botereak mantendu baitzituen. Hau bereziki esanguratsua da Nafarroan, azken hamarkadetako botere hegemonikoek gidatu baitzuten Trantsizioa eta 1973a onartutako ordenamendu pribatuarekiko jarrera berezia izan zuten. Hura berri-tzeko, Konstituzioaren eskumena aprobeztatuz hauteskunde legegileen bidez aukeratutako klase politikoaren berrezarpen partziala baino gehiago behar zen. Aurreko ordenarekiko haustura sakonagoa behar zen garaian, indarren arteko harremanaren aldaketa erabat beharrezkoa zenean, arestian aipatutakoa gertatu zen: Erreformak ziurtatutako jarraikortasuna.

Bizi dugun garaian, 1876eko Foruen galeraren ondorioz gertatu bezala, bi baldintza falta izan zaizkio euskal Zuzenbide zibil orokorra sortzeko nahiari. Biak oso esanguratsuak. Batetik, euskal lurraldeetako Zuzenbide pribatuari buruzko ikerketa konparatisten falta, kodifikazioa lortzeko bidea erraztuko zuen

literatura juridikoaren falta, eta honenbestez, ordenamenduen bateratzerako proposamenen falta. Bestetik, baldintza politikorik eza, hau da, Euskal Herriarentzako proiektu politikoaren falta.

Luze eta zabal aipatu dugu Nafarroako eta Bizkaiko sistema juridikoen inguruko ikerketa konparatistak falta direla, Gipuzkoako tradiziozko hondarrez gain. Foru legedien kodetzea gauzatzeko legegile orokorraren helburua XIX. mendeko azken herenean hasi zen. Jasotako irizpideen arabera, banakoek nahiz batzordeek gauzatutako ikerketek soilik lurralde izaera izan zuten. Zehazki, Gobernu zentralak Bizkaiko juristei batetik, eta Nafarrei bestetik, konpilatzeko agindua ematen zienean, beren lurraldeetako tradiziozko Zuzenbidea ikertzeko eta azaltzeko konpromisoa hartu zuten. Helburua pragmatikoa zen, Kode Zibilararen hedapenaren eraginez desager zitezkeen berezko erakunde zibilak mantentzea, alegia. Estatuak baimentzen zuen aukera bakarra baitzen. Berezko Zuzenbidearen idazle ziren Batzordeek sormena erabili zuten erakunde propioak kodifikatzerakoan (nahiz eta Kode Zibilararen berezko egituraketak indar handia zuen) eta baita formulazio terminologikoan ere, baina ez ziren egoeraren arabera berrikuntzak txertatu, gure kasuan, bi sistemak bateratzeko beharrezko izango zena.

Bestalde beste behin diogu, ikerketa konparatistarik gabe ez zitezkeen bateratze proposamen sendorik egin, ezta XX. mendean zehar bi eremu juridikoetako Zuzenbidea era bateratuan landuko zuten monografiarik edo traktaturik gabe. Kontua bestelakoa zatekeen Euskal Herrian bi ordenamenduetako ondasun, familia eta ondorengotza erakundeen arteko berdintasun eta aldeak nabarmenduko zituzkeen lanik egin izan balitz. Euskal Zuzenbidearen oinarriak aztertu eta formulatuko zituzkeen lanik egin balitz, alegia. Kodifikazioaren historiak aipatzen du material zientifikoen eta biltzaileen emaitzen arteko harremana. Horiek beharrezkoak dira legegintza abentura gauzatzeko: gogora dezagun Frantzian Daguesseau, Bourjon eta Pothier egileen lanek izan zuten eragina Napoleonen *Codea* gauzatzerakoan, edo BGB alemaniarra sortzerakoan eskola germanista eta erromanistek aurrez izandako eragina. Hau da, Savigny, Puchta, Windscheid, Bruns, Lenel edo Ihering egileen lanek. Edo geure kasuan esanguratsuagoa dena, Suitzian Eugen Huber-ek izan zuen eragina. «Suitzako Zuzenbide pribatuen Sistema eta Historia» lanean, kantonamenduetako tradiziozko aniztasuna sintetizatzen jakin zuen (ez dezagun ahaztu, Euskal Herrian duguna baino aniztasun handiagoa zela bertan). Espainian, García Goyenak 1852an idatzitako «Espainiako Kode zibilarren bat etortzeak, arrazoiak eta iruzkinak» lana oinarritzkoa izan zela 1889ko Kodea osatzeko.

Ez dirudi gure artean bateratzerako oinarritzko baldintza hau bete denik. Jurista nafarrek Zuzenbide bizkaitarrarekiko duten azaleko ezagutza, eta alderantziz, ziurtatzen dute azken hamarkadetan geure Zuzenbide pribatuari buruz

gauzatutako ikerketek. Izan ere, Euskal Herriko Unibertsitateetako Fakultateek ez dute euskal Zuzenbide zibil konparatua lantzeko erronka onartu.

Esan bezala, bigarren oinarritzko baldintzak izaera politikoa dauka. Honi dagokionez, Kode espainiarra argitaratu ondorengo juristek aitortu zuten ordenamendu zibila gizarte kohesiorako elementu esanguratsua dela, nazio egituraketarako faktorea, hortik Foru Zuzenbideek bizirauteko tema. Orain, aipatu nahi genuke, ordenamendu zibil erkidea ezartzeak edo gauzatzeak, ezarri beharreko eremuan bateratasun baldintzek izatea eskatzen duela, herrialde ideia bateratua izatea. Are, egitura politiko komuna izatea. Noski, lortu nahi dena bi sistema edo gehiagoren arteko bateratzea soilik baldin bada, baldintza ahulagoa da.

Euskal Herria batasunerako oinarri kultural eta politikoaren gaineko proba -lekua izan da. XX. mendean, interes gehiagoz edo gutxiagoz, euskal Zuzenbide zibil orokorra gauzatzeko nahia soilik bateratze politikorako prozesuak ekitean aldarrikatu da. 1918az geroztik gertatua gogoratu behar da, Eusko Ikaskuntzaren eta horrek eremu guztietarako nazio ikuspegia izateko (Primo de Riveraren Diktaduraren etena eta 1928ko probintzietako erreformaren etena albo batera utzita) interesa erakutsi ondoren, 1931 eta 1932an Autonomia bateratuko Estatutu proiektuak deuseztatu ziren arte, bai Lizarrakoa, bai Gestorena. Biek ala biek euskal- nafar lurralderako edo Estaturako legedia zibil bateratua bultzatzen zuten. Bestalde, bateratze zibilerako nahia lau lurraldeak politikoki egituratzeko esperantza galtzarekin bat deuseztatzen da, foraltasun probintzialista berrezarritik. Honen adibide, 1928ko Abokatuen Elkargoa edo 1959ko Bizkaiko Konpilazioa.

Bigarren baldintza politikoa Trantsizioan zehar zedarritzeko modua aztertzean, gertakari esanguratsua antzematen dugu. Trantsizioako metodo erreformistak aurreko aldiko botere juridiko eta gizarte indarren arteko harremana mantendu zuen Nafarroan, bi eremu politiko (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa) sortzeko datu esanguratsua lekuko. Eta hauekin batera, Nafarroaren kasuan immobilismo juridiko harrigarria, izan ere, gaur egun eta nahiz eta akatsak aitortuak izan zaizkion, Foru Berriak indarrean dirau, Francok Foru Berria lege eskumen bidez onartu eta 44 urtera. Aro frankistako ondare juridikoak pisu nabaria du eta 1978ko Konstituzioak Nafarroari esleitutako legegintza eskumenak baliatuko dituen berrikuntza gauzatzea ezinezkoa izatea eragiten du. Erreinu zaharra Diktadura garaiko jarraikortasun zibilistaren barruti nagusia da. Hori guztia, foru Zuzenbide zibila gidatzen duten botere faktikoen hegemonia, ikusgarri nahiz ez horren ikusgarriaren eraginez.

6. 2015ean amaitu zen Euskal Autonomia Erkidegoko konstituzio ondorengo Zuzenbide zibilaren bigarren reforma eta 2016ko udaberrian, Nafarroako Parlamentuak berezko araubide zibila abiatzeko lehen urratsak eman ditu.

Egoeraren argitan, gomendagarria da bi aipu nabarmentzea, ez agian guztiz egokiak, baina euskal Zuzenbide zibil anitzaren bateratzerako pentsaturik eta aipatutako helburua nahi eta posible dela onarturik.

Lehen aipuak mundu akademikoan lan eta ikerketa konparatisten garapena bultzatzeko proposamena dakar, oraindik orain egoera proteikoan daudenak. Bigarrenak, Euskal Autonomia Erkidegoko klase politikoaren, euskaltzalearen eta ez euskaltzalearen, utzikeria salatu nahi du. Nafarroaren inguruko aipamenak egitea ere egokia litzateke.

Hona azken bi iruzkin:

Bi Autonomi Elkarteen inguruko kupula politiko-instituzionalik ez zatekeen oztopo izan beharko akademikoek ikerketa konparatista eta juristen talentu edo interesak besterik mugatzen ez dituzten proposamenak egiteko. Akademiaren bertute edo aukera –are helburu– esanguratsuenetakoa aurreratzea da, egonkortutako errealitateetako oztopoak gainditzeko gaitasuna. Arrazionala ez da beti gailentzen dena. Hala eta guztiz ere, ez dagokie politikariei lan akademikoak gauzatzeko ataza. Beraz, akats nagusia komunitate akademikoan datza, eta zehazki, herriaren ikuspegi integratua aldarrikatzen duen akademiaren sentibiltate horretan.

Egitateei jarraiki, ez dirudi nafar eta bizkaitar Zuzenbidearen bateratze formala gertu dagoenik. Batzuek esango dute, are nahiko dute, inoiz irits ez dadin. Hala ere, gaur egun penintsulako Euskal Herria banatzen den bi autonomien artean eta horien ordenamenduen arteko desberdintasunen artean posible da erakundeen antzekotasunen bidez egiazko bateratzea gauzatzea. Bateratze esperientzia anitz izan dira testuinguru europarraren baitan, eta hori guztia Erdi Aroko eta Aro Modernoko sistema nazional europarrerako Zuzenbide komuna kontuan izan gabe. Adibidez, Zuzenbide erromatar-germaniararen artean gertatuaz ari gara, Erdi Aroko eta Berpizkundeko Estatu berrien ordenamenduan eragin baitzuen. Horri, Italian, Espainian eta Portugalen Napoleonen Kodeak izandako zabaltzea gehi geniezaioke. Kode horiek Napoleonen Kodetik hartutako agindu asko onartzen baitituzte. Edota Kode alemaniar eta suitzarrak izandako zabalkundeak. Geure kasuan ez litzateke ezin lortuzko helburua Euskal Herriko organo legegile batek bestearen ordenamendu oso edo partziala «jasotzea» edo are errazagoa, legegileek bi araudietako konponbideak kontuan izatea. Hau da, bakoitzaren ordenamendua moldatu daiteke ondokoarena sistema kontuan izanik. Ez da ameskeria hutsa. Ezagutza eta borondate politikoa besterik ez da behar.

Euskal Herriko egoera kontuan izanik, euskal Zuzenbidea osotasunean ezagutuz hasi beharko ginateke. Lurralde erkideetako erakunde zibilen ikerketa konparatista bultzatuz lehenik, bigarren urratsa, azterketa lan juridiko batera-

tuak gauzatzea eta azkenik legegintza proposamenak abiatzea. Funtsean mundu akademikoari dagokion lana da. Epe luzerako pentsatutako lana da eta ikerketa planak edo planek eta ondorioz etorriko diren tesina nahiz tesiek, monografiak, mintegi eta jardunaldiek edo unibertsitate sail edo institutuak bultzatuko dituzten argitalpenek gauzatu beharrekoa.

Ea egunen batean, klasikoen erara «*debile principium, melior fortuna sequatur*» esan dezakegun. Honenbestez, geure burua zoriondu behar genuke UEUko lehen udako ikastaro apal hau antolatze hutsagatik. Bereziki Iruñean, *caput Vasconiae* baitugu, eraiki beharreko zubiaren buruetako bat.

XVII. BIBLIOGRAFIA

JIMENO ARANGUREN, Roldán, Derecho civil navarro y codificación general española, *Anuario de Historia del Derecho Español* LXXXII (2012), 267-312. or.

-*El régimen económico matrimonial en el Derecho navarro (1839-2015). Hacia una revisión legislativa*, Cizur Menor: Thomson Reuters-Aranzadi, 2015.

MONREAL ZIA, Gregorio, Codificación civil y legislación foral de Bizkaia, *Anuario de Historia del Derecho español*, 83 (2013), 185-251. or.

-La codificación contemporánea del Derecho vizcaíno hasta la Compilación de 1959. *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz: Parlamento Vasco, 2016, 39-55. or.

OSES ABANDO, Josu, Parlamento Vasco y Derecho Civil Foral. Balances y perspectivas, en *Jado Aldizkaria*, Bilbo, X Urtea, 21 zk, 2011 maiatza, 21-38 or.

-Autogobierno y Derecho Civil Vasco: el rol del Parlamento, en el *Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz, 2016, 111-134. or.

Maria Luisa-enea. Donostia

Euskal Zuzenbide Zibil «berria»: oraina eta etorkizuna

Josu Osés Abando

Aurkibidea

I. INSTITUZIO ESPARRUA ETA FUNTSEZKO GALDERAK. II. FASE AITZINDARIA: ARGITU BEHARREKOAK ARGITZEA ETA LEHEN LEGEAK. III. EUSKAL ZUZUZE BIDE ZIBILA SENDOTZEKO FASEA (I): LEGEBILTZARRAREN 2013/01/28KO EBAZPENA LEGEGINTZARAKO IBILBIDE ORRI. IV. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILA FINKATZEA (II): EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN 5/2015 LEGEA. V. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN ETORKIZUNA. VI. EPILOGOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEAGOAN ETA NAFARROAN ZUZENBIDE ZIBILA EGUNERATZEKO PARLAMENTUKO BIDEAK. VII. BIBLIOGRAFIA.

I. INSTITUZIO ESPARRUA ETA FUNTSEZKO GALDERAK

Euskal Zuzenbide Zibilaren (EZZ) faserik berriena 1959ko Konpilazioaz geroztikakoa da. Frankismo bete-betean sortu zen eta aipatu behar da, ikuspegi globaletik epaituz gero, hasierako foru sortatik bizirik iraundako hondakinen zati mugatu baten bilketa partziala besterik ez zela izan.

Konstituzioa (149.1.18. art.) eta Autonomia Estatutua (10.5. art.) dira abiapuntu berria legitimitasun demokratikoaren ikuspegitik. Estatutuak aukera ematen du «Autonomia Erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetako zuzenbide zibil forala eta berezia, idatzia edo ohiturazkoa kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko» eta funtsezko ondorio gisa «indarren zer lurralde-eremutan egongo den finkatzeko».

Zalantzarik gabe, erkidegoaren ibilbidea, hasieran, Zuzenbide Publikoaren ikuspegitik erakunde berriak eraikitzen bideratu zuten eta hortik egin zituen Eusko Legebiltzarrak, besteak beste, Gobernu Legea (1981), Eusko Legebiltzarraren Erregelamendua (1983), Lurralde Historikoen Legea (1984), Arartekoaren sorrera (1985) eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiarena (1988).

EZZren ibilbide berrian bi baldintzatzaile argitu beharra zegoen:

- Zer hedapen zuten eskubide zibil, foral eta bereziei lotutako eskumenek? Bestela esanda, EZZren birtualtasuna orduan zeuden konpilazioen edukietara zegoen mugatuta edo joan zitekeen harago?
- Zer erakundek zuen EZZren aro berrian buru izateko eskumena? Zuzenbide Zibil Foraletik Euskal Zuzenbide Zibil berrira igarotzea pentsa al zitekeen?

Azken hori euskal «uhartedi juridikoa» esan izan zaionaren jatorri zonaletik zetorren, eta adierazten zuen Zuzenbide propioa zuten eremuak estankoak zirela eta ez zirela inoiz lurralde historikoa erabat mugatzera ere iritsi.

Abiapuntu erabakigarri horiek pixkanaka definitu ahala, EZZek araudia berritzeko bideari ekin ahal izan zion.

II. FASE AITZINDARIA: ARGITU BEHARREKOAK ARGITZEA ETA LEHEN LEGEAK

Eskubide zibil, foral edo berezi guztien eremu materialaren birtualtasunari dagokionez, horiek eguneratzeko, konpilazioen denboraren mende zeudenez, airean zeuden zalantzak argitu egin ziren Auzitegi Konstituzionalak urratsez urrats eginiko interpretazioan. Aitortu beharrekoa da Auzitegi Konstituzionalak doktrina hori hedatzean erakutsi zuen irekitasuna. Labur-labur azalduko dugu hemen nola aritu zen:

- 149.1.8 Konstituzioaren artikulua Estatuari legegintza zibilean eskumen eskusiboa esleitzeaz gain, foraltasun zibilarren bermea ere ezartzen du eta ez datza eskubide zibil berezi edo foralen «ukiezintasunean edo legeaz haragoko izaeran», baizik Konstituzioa indarrean jarritakoan estatutuak zituzten autonomia-erkidegoei estatutu horiek kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko eskumena esleitu ahal izatea.
- Ildo horretan, erkidegoko Zuzenbide zibila ez da konplikazioetan jasotzeko erakundeetara mugatzen, baizik, harago ere heda daiteke eta ohiturazko Zuzenbide ez-idatzirantz hedatzen da. Horren adibide da, adibidez, Valentziako Erkidegoaren kasua, Auzitegi Konstituzionalaren 21/1992 epai nagusian jasotakoaren arabera.
- Auzitegi Konstituzionalak historikotasunari lotutako ohar bat eskatu zuen erakunde zibil bat *Kode Zibiletik kanpoko Zuzenbide Zibil* dei geniezaiokeen horren baitan kokatzeko modukotzat hartzeko.

Abiapuntu horretatik abiatuta, ondo egokitu ziren lege eguneratzaileak, betiere, arlo bakoitzari dagozkion gaietarako Estatuarenak bakarrik diren esku-

menak errespetatzeko Konstituzioak ezarritako betebeharra kontuan hartuta, eta kasu honetan, ikuspegi integratzaileari eutsita (adibide gisa, legedi prozesalaren eskumen-eremua).

Era berean, Legebiltzarra egoitza legegile eskumendun bakarra izatearen ideia pixkanaka egonkortu egin zen, Konpilazioa ordezteko lege formal maila zuen arau baten bidez bakarrik egin zitekeela argi ikusita. Hala ere, testu legegileen jatorriaren eta egileen inguruko oroitzapen foral-zonalek hor jarraitzen zuten. Hori guztia prozedurazko hitzetara ekarrita: Legebiltzarrak itxaron egin behar al zuen instantzia foralek (Batzar Nagusiak) testuak haien baitan onartu eta Ganberari aurkeztu arte? Edo sor al zitezkeen zuzenean egoitza parlamentarioan (gobernuek, orain arte, zain egotearen alde egin dute, zuhurtziaz)?

Behean ikusiko dugu nola zalantza hori argi azaleratu zen 3/1992 eta 3/1999 legeen inguruan. Ekimenak elkarri gainjarri zitzaizkien eta atzerapenak izan ziren epeetan.

Gai horretan Legebiltzarrak eginiko lehen ekimena Euskal Foru Zuzenbidea eguneratzearen inguruko lege besteko proposamena egitea izan zen. Euskadiko Ezkerrak aurkeztu zuen 1982/06/17an eta behin betiko testua onartu zuten proposamengileak eta Euzko Abertzaleak taldeak ados jarrita. Testuak Gobernuari eskatzen zion igor zezela Zuzenbide zibil foralaren batzordea sortzeko lege-proiektu bat 09/30 baino lehen. Komunikazio baten bidez erantzun zion Gobernuak Legebiltzarraren eskaera hari. Lehendakaritzako sailburu eta, aldi berean, zibilista entzutetsua zen Xabier Cañok igorri zuen komunikazioa ezarritako epea luzatzea eskatzeko hiru arrazoi emanez: «eztabaida sortu da hedapen materiala eta lurralde-hedapena interpretatzeko arazoengatik inguruan; araudiek eta aldagai kultural eta sozio-ekonomikoen elkarrekin duten interakzioa, aurretik deskribatzea eta kualifikatu beharrekoa eta, azkenik, Zuzenbidearen arloko baliabide instituzionalen eta zientifikoen falta konplexutasun tekniko eta garrantzi sozial handiko lan hau berehala egiteko.» Egoera hori ikusita, Legebiltzarrak *Euskal Zuzenbidearen Lehen Biltzarra: Zuzenbide Zibilaren eguneratzea* izango zena sustatzea erabaki zuen. Urte hartako abenduan antolatu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Zibila Sailak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Legebiltzarraren jardueraren historia kontatzen jarraituz, 1983an, 1986an eta 2006an batzorde txostengileak eratzeko eginiko saiakerak aipatuko ditugu. Lehen biei buruz esango dugu lehen azaldutako baldintzengatik eta euskal doktrina zibilista, artean, behar bezain finko eta uniforme ez zegoelako egin zutela porrot.

2006ko batzorde txostengilea bai, sortu zen, 3/1992 Legea onartu eta handik hamalau urtera eta Lege haren erreformari ekiteko helburua izan zuten.

2007ko ekainean eta 2008ko martxoan eta maiatzean sei saio egin eta 18 ageralditan legebiltzarkideei orduan zeuden jarrera guztiak erakutsi ondoren, VIII. legegintzaldia amaitu egin zenez, ez zen izan, tamalez, erabakitze-faseari ekiteko aukerarik.

Legebiltzarraren produktu nagusi diren horiei erreparatzen badiegu, legeei, alegia, honako araudi sorta hau sortu zen EZZren bidearen lehen zati hartan:

- Lehen, 6/1988 Legea, martxoaren 18koa, Zuzenbide zibil foralaren aldaketa partziala egitekoa. Araututakoaren garrantziari, inolaz ere, baliarik kendu nahi ez badiogu ere, aitortu behar da ez zela sortu barneko bultzadaz, baizik kanpoko mehatxuak eraginda: «eskuratu berri ditugun datuak ez atzeratzera behartzen gaituzte, ebazpen judizialen bidez zeharka gauza ez dadin». Hala dago adierazita zioen azalpenean ere. Era berean, honako hau ere badio: ikerketa- eta hausnarketa-prozesua egin behar da erakunde zibilen sistemari eta haien oinarriari buruz, gaur egungo gizartearen errealitatera nola egokitzen diren eta zer lurralde-eremutan ezarri behar diren pentsatzeko. Prozesu horri ekin dio Eusko Legebiltzarrak, zuzenbide foral bizkaitarraren inguruan, baina luzatu egingo da gaia oso konplexua delako». Azken datu gisa aipatuko dugu lege haren jatorria Legebiltzarreko talde guztiek elkarrekin aurkeztutako lege-proposamena izan zela eta urgentziazko prozedura bidez izapidetu zutela.
- Garai hartako bigarren lege-sorta lege hauek osatzen dute: 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide zibil foralari buruzkoa eta haren ondorioa, 3/1999 Legea, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide zibilarren Legea Gipuzkoako Foru zibilarri dagokion zatian aldatzekoa.

Esan daiteke lege haietan *EZZren erreformatzat* har daitezkeen testuak sartzea lortu zutela azkenean.

Euskal diskurtso politikoa hartara iritsita, nahiko finkatuta zegoen jada Legebiltzarrak gai hartan zuen titulartasuna, baina hala ere, han zirauten oraindik goian behin baino gehiagotan aipatu ditugun faktore baldintzatzaileen aztarnek. Hala, Bizkaiko Batzar Nagusien lehenengo legegintzako ekinbidea 1991/04/09an aurkeztu zuten eta Legebiltzarraren lanak itzarote-denboran egon ziren urtebe-tez, Arabak gai beraren inguruan igorritako testua jaso arte. Gipuzkoak uko egin zion aukera hari, baina 1999ko apirilean aurkeztu zuen berea (hortik atera zen 3/1996 Legea, 11/26koa eta 3/1992 ez bezala, aho batez onartu zuten).

Adierazgarria izan zen, halaber, batzordean (1992/05/20an, jatorri foraleko bi proposamenak eztabaidatzen ari ziren garai berean) Euzko Abertzaleak taldeak aurkeztutako legez besteko proposamena onartu izana ere. Haren bidez

erabaki zuten foru-batzorde idazleei testu bategin bat aurkez zezatela eskatzea eta testu hartan Arabako eta Bizkaiko Foru zibiletarako Zuzenbide-iturri komunak izatea. Gipuzkoaren egoera eta Gipuzkoa sartzeari aipatuko zuen beste testu bat eskatzea ere erabaki zuten.

Nabarmendu beharrekoa da 3/1992 eta 3/1999 Legeetan EZZren *uhartedi* juridikoaren lurralde-eskema erabili zutela.

Lehenengoari konstituzio-kontrakotasuneko 2685/1992 helegitea ezarri zion Gobernu zentralerako presidentek 6, 10-14, 30, 94, 102.2, 123.2-3 eta 132. artikuluen aurka. Estatu Kontseiluari kontsulta eginda, 93/07/13ko 1537/1992 irizpena eman zuen eta beste funtsezko mugarrietako bat izan da hori, helegitea (ondoren, kendu egin zuten) eraisteko gaitasun erabakigarria izan duelako eta, aldi berean, ikuspegi orokorragoa ekarri duelako, EZZ garatzeko aukerak zabal-tzen dituen.

Irizpen hark EZZ ordura arte inoiz iritsi gabeko eremuetara hedatzeko aukera bermatu zuen honetan oinarrituta: «Foru Zuzenbidearen lurralde-eremuari dagokionez, adierazpen konstituzionalak ez dio foru-erakunde baten lurralde-eremu zehatzari erreferentzia egiten, baizik erkidego-lurralde osoari». Izan ere, euskal Legearekin lortu nahi zena «bi legedi zibilen lurralde-bizikidetzaren arrazionalizazioa eta antolaketa logikoagoa izatea» zen.

EZZren hedapen-tesiak, hala, eraginkor izateko *nihil obstat* jaso zuen Estatuko organo aholku-emaile gorenaren eskutik, nahiz eta 23 urte behar izan Eusko Legebiltzarrak behin betiko onspena eman arte.

Lehen fase hura balantze positibo baina mugatuarekin amaitu zen: finkatuta gelditu zen Legebiltzarraren legitimitatea, bai, baina airean gelditu zen EZZren erreforma irekiaren norainoko material eta espazialaren betiereko aukera.

III. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILA SENDOTZEKO FASEA (I): LEGEBILTZARRAREN 2013/01/28KO EBAZPENA LEGEGINTZARAKO IBILBIDE ORRI

Agerikoa zen 2006-2008ko batzorde txostengilearen porrotak Legebiltzarreko taldeei sortutako adoregabetasuna eta frustrazioak hor jarraitzen zuela. Sektore profesional eta lurralde-sektore guztiek ere ez zuten ikuspegi berdina eta partekatua. Hala ere, X. legegintzaldiak EZZren erreforma nola berpiztu zen ikusi zuen. Kontuan izan behar da isiltasun instituzionalak ez zuela eragotzi gaia aztertzekeo biltzarrak, jardunaldiak eta antzekoak egitea eta haietan, ordezkaritza politikoei operadore juridikoei eguneroko lanetik behin eta berriro eskatzen zutenari, gehiago luzatu gabe, heltzeko beharra zegoela barneratu zuten.

Ezkutuko inpresio haren isla gisa eta operadore horiekin zein taldeek haien artean izandako harremanaren emaitza gisa ere bai, ekitza parlamentarioei ekin zieten berriro Euskal Sozialistak taldeak 2013/01/16an Euskal Zuzenbide Zibila eguneratzearen inguruko legez besteko proposamen bat aurkeztuta. Azkenean, aurrera atera zen proposamen hura xedapen iragankor bati esker, Euzko Aberzaleak taldearekin 2013/02/21eko osoko bilkuran.

Honako hau zioen onartutako testuak: «Eusko Legebiltzarrak Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordean batzorde txostengile bat eratzea erabaki du 6 hileko epean gai honetako aditu nagusiek parte hartu eta, aurtengo urtea amaitu baino lehen Euskal Zuzenbide Zibilaren erreforma onartzeko dagokion araudi-prozedura aktiba dadin».

2013/03/12an eratu zen eta taldeek batzordean izango ziren agerraldiak adostu zituzten, oso kontuan hartuta ez zirela hutsetik abiatzen; izan ere, 2006ko batzorde txostengilean entzundakoaren eta eztabaidatutakoaren gaineko interesak, neurri handi batean, han jarraitzen zuen. Bi informazio-saio bakarrik egin zituzten eta haiek amaitzean, batzorde txostengileko kideek hausnarketarako denbora hartu zuten eta, era berean, letradunari ebazpen-testuaren proposamena prestatzeko eskatu zioten. Proposamen hura 2013/09/20an igorri zioten, eztabaidatu eta zenbait ekarpenekin aberastu zuten eta, azkenean, onartu egin zuten txosten batzorde txostengilearen azken bileran (2013/11/04) eta berehala aurkeztu zioten batzordeari hark irizpena eman ziezaion (2013/11/12), eta azkenean, osoko bilkurako erabaki bihurtu zen (2013/11/28, berriro ere Talde mistoa-UPyD abstenitu egin ziren eta gainerako talde guztiek babestu egin zuten).

Onartutako edukiak ez du balio juridiko loteslerik, baina horrek ez dio Legebiltzarrari emandako aginduaren esanahi politikoa batere lausotzen. Hona-ko hauek dira jarraitu beharreko jarraibideak:

- EZZ zaharkitua XXI. mendeko ordenamendu juridikoaren kategoriara eramateko politika legegilea ezartzeko ibilbide-orri bat finkatzea proposatu zuten.
- Legebiltzarrak jatorria eskusiboki Legebiltzarrean izango zuen lege-proposamena prestatzeko dei egin zion bere buruari; hau da, zegokion protagonismoari batere uko egin gabe.
- EZZ EAEko herritarren ondare iuspribatista zela aitortu zuten; hain zuzen, arlo juridikoko askotariko operadoreek eta euskal gizarteak egini-ko ahaleginari esker historikoki zaindutako ondarea.
- Euskarazko ondare juridikoa onartu eta errespetatu egin zuten eta lexiko juridikoa eguneratzearen beharra nabarmendu zuten.

- Aurrez, 90eko hamarkadan, legegintzan eginiko lana aitortu zuten, baina nabarmendu zuten behin-behinekoak eta abiapuntuko legeak zirela orduan egindakoak.
- Aukera guztien artetik –haietako batzuk agerraldietan azaldu zituzten– lanerako metodologia zehatz bat aukeratu eta helburu garbi bat finkatu zuten: EZZren bizkarrezur izango zen lege bat onartzea oinarritzko funts orokor gisa, auzotasun zibilean oinarrituta, eduki berriak hartzera irekia eta *uhartedi juridikoa* gainditzeko bidean jarria, profesionalekin eta adituekin zuzenean eta berehala hitz eginda.

Erabaki hura praktikan jartzeko, testuak prestatzeko harremanak landu zituzten Legebiltzarreko taldeen artean lan diskretua baina handia eginda.

IV. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILA FINKATZEA (II): EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN 5/2015 LEGEA

Legea egin aurreko agiri gisa onartu zuten ibilbide-orriaren amaierara lege-proposamen bat aurkeztuta iritsi beharra zegoen nahitaez. Lege-proposamena adosteko lortu beharreko akordioetarako zenbat denbora beharko zuten eta zer akordio maila lortuko zuten ezbaian zegoen, baina 2015/03/10ean aurkeztu zuten Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialista eta Euskal Talde Popularra taldeek sinatutako lege-proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatutako urratsak betez, hurrengo izapidea Eusko Jaurlaritzaren aldeko irizpena jasotzea izan zen eta irizpen horretan, Jaurlaritzak adierazi zuen konpromiso irmoa zuela EZZ «gure autogobernuaren oinarritzko adierazpide» gisa kontserbatu, aldatu eta garatzearekin.

Aho batez hartu zuten proposamena aintzat 2015/04/23an osoko bilkurara bertaratutako 74 legebiltzarkideek.

Ordutik aurrera, bata bestearen jarraian egin zituzten gainerako izapideak eta 5 zuzenketa bakarrik aurkeztu zituzten, EH Bildu taldeak jarriak. Haietako bi trantsakzionatu egin zituzten (zioen azalpeneko I. ataleko bederatzigarren paragrafora eta 1. xedapen gehigarrira) eta gainerakoak baztertu egin zituzten batzordean eta ondoren osoko bilkuran.

Azkenik, osoko bilkurara igorri zuten irizpena (06/25) eta han behin betiko onartu zuten 5/2015 Lege gisa, bat ere aurkako botorik gabe. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zuten 07/03ko datarekin eta 10/03an jarri zen indarrean hiru hileko *vacatio legis* betez.

Legearen prozedura-bilakaeraren laburpen honi amaiera emateko, aipatu beharra dago, Gobernu Zentralak iragarri duela balitekeela 117. artikulua

aurka konstituzio-kontrakotasuneko helegitea aurkeztea. Huts egitearen oinarria zera zen, testamenturik gabeko oinordetzak EAEko Administrazio Orokorrari bideratzen ziola jaraunspeneko ondasuna Administrazio zentralari bideratu beharrean (Kode Zibilaren 956 artikulua eta Estatuaren Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 20. artikulua betez. Azken hori aldatu berria da Borondatezko Jurisdikzioaren 15/2015 Legearen 8. xedapen gehigarriaren bidez). Inpugnazioak Ondare Lege horren 24. xedapen gehigarriarekin –testamenturik gabeko oinordetza aurreikusten du euskal foru-aldundien alde– zuen hitzezko inkongruentzia agerikoaz gain, EZZri zegokionez, kezkagarriena zera zen, mekanismoa Bizkairako onartzen zela, baina beste bi lurraldeetarako ez, historikoki Bizkaiko Foruan bakarrik jasotakoa bidegabe hedatzea zelakoan.

Ez da azpimarratu behar interpretazio hark aurrera egin izan balu, duela 20 urte baino lehenago bake juridikoarekin argitutako zalantza eta ziurgabetasunera itzultzeko arriskua zegoela. Zalantza haiek goian azaldu dugun prozesuan argitu ziren; hain zuzen, EZZ euskal lurralde historiko osora zabaltzeari *versus* petrifikazio territorialari lotuta sortutako zalantzak argitzeko prozesuan.

Azkenean, Gobernu zentralak atzera egin zuen inpugnazioaren bidean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarien eta Estatuako Aldizkari Ofizialean 2016/01/25ean argitaratutako akordioaren bidez.

Lege berriak zenbait oinarriko enuntziatu ditu zioen azalpenean *voluntas legislatoris* zehazteko.

- Aurreko baldintzatzaileak gainditzea: legearen jatorria Legebiltzarrari dagokio soil-soilik, eta legebiltzarreko taldeen protagonismoa izan du hasieratik.
- Legearen lurralde-eremua. Euskal legegileak, legea egitean, oso kontuan izan du eremuz gaindiko norainokoa duen lege-testua bat izatearen beharra, aplikazio-mugak ezartzeko estatutuak ematen dion eskumena erabilita. Hala, argituta gelditu da, eta espero dezagun behin betiko izatea, aplikazio-eremuaren ezarpena.
- Legearen izaera *historikoa*: legegileak ezagueraz hartu du Zuzenbide zibil foraletik EZZra igarotzeko konpromisoa.
- Legearen eremu materiala: zalantzetan bigarrena, goian behin eta berriro aipatu eta urte hauetan guztietan argitu gabe egon dena, hau da, EZZ garatzeko tarteari dagokiona, zalantzarik gabe esan daiteke aukuratutako aukera legegile-materiala zuhurra dela. Legean erabakitasunez eguneratu dira erakunde prototipiko batzuk (adibidez, legitimoa) eta ez da hainbeste nabarmendu alderdi erabat berritzaileen ezarpena; hori bai, etorkizunean urratu ahal izango diren bideak itxi gabe.

- Koexistentzia Kode Zibilarekin eta erkidegotik datorren araudi zibil berriarekin (adibidez, oinordetza-ziurtagiria).
- Garapenerako erakundeetan eginiko bidearen izaera *irekia*, hitzaren oinarrizko zentzuan, ez itxia eta *harago* joateko asmoa. «Gure Zuzenbide zibila hedatu eta sakondu egin behar dugu orain beste autonomia-erkidegoek egin duten bezalaxe, eta epe egokian lortu behar dugu Euskal Zuzenbide Zibila ahalik eta modurik osoenean formulatzea (I. ataleko azken paragrafoa).
- EAE osoko aplikazioan bateragarritasuna eta oreka, euskal auzotasun zibilaren bidez, eta eremu bakoitzari dagozkion espezifikotasunak kontuan hartuta (tronkalekotasuna, testamentua egiteko askatasuna Aiaran).

V. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN ETORKIZUNA

Euskal *corpus* zibilista kronologikoki adieraziko ditugun lege hauek osatzen dute gaur egun:

- Izatezko bikoteei buruzko 2/2003 Legea.
- Euskal Zuzenbide Zibilaren 5/2015 Legea.
- Gurasoen banantze edo haustura-kasuetako familia-harremani buruzko 7/2015 Legea.
- Fundazioen 9/2016 Legea.

Lege sorta hau egitea ekarri duen prozesuari buruz oso balantze positiboa egiten dugu, zalantzarik gabe. Eta baieztapen hori ez dugu alferreko autokonplazentzian oinarritzen, baizik, batez ere, 5/2015 Legeari lotutako datu hauetan:

- Parte-hartzean oinarritutako prozedura. Legeak egitean, ez da ohikoa langile juridikoen parte-hartzea hain handia izatea eta parte-hartze hori hain sakona izatea. Seguru asko, inork ezingo du esan legea % 100ean *berea* denik, eta hor dago denek onartzeko moduko legea izatearen ezaugarria.

Ez dezagun ahaztu, aipatutakoez gain, 7/2015 Legearen jatorria («zaintza partekatua legea» esaten zaio) 51.227 herritarrek sinatutako lege-gintzako herri-ekimenak emandako bermea dela.

- Ikuspegi estrategikoa eta irekitasunean oinarritutako ikuspegia. Seguru esan daiteke Legeak ez duela ezer ixten, ez eta harri bihurtzen ere, euskal legegileak badakielako –hala esan zuen Adrián Celayak, 1992an

hasita behin eta berriro, paper-sorten artean ikertu behar zela, ohiturak arakatu eta gure arbasoek denboraren poderioz adierazitako arauak eta ohitura berpiztu-, bidean errealitate berriek euskal erakunde zibilei eskatzen dieten erritmoan egingo direla urratsak.

Eusko Legebiltzarrak konplexurik gabe hartu du zeregina bere gain. 5/2015 Legeak prozesu instituzional eta partekatu baten hasiera ezartzen du eta presarik gabe, baina geldialdirik gabe, sakondu egiten du XXI. mendeko EZZ eraikitzeke prozesua. Horretarako, funtsezkoak izango dira, batetik, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea abian jartzea eta, bestetik, batzorde horrek egingo dituen lanak.

Berriro diogu, elkar elikatzea izan dela burututako prozesu legegile honen balio erantsi garrantzitsuenetako bat. Goian aipatutako harreman hori zaindu egin behar da eta irautea lortzen den neurrian, aukera emango du doktrina zientifikoan egiten diren urratsek isla izatea legeak egitea eskatzen duten arlo berriak zehazten eta legislatutakoa erreformatzen.

Legearen 1. xedapen gehigarriak Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea sortu du euskal arlo juridikoko operadoreen eta erakundeen arteko lankidetzara oparoa instituzionalizatzeko kontsulta-organo gisa. Organo berri horrek egin beharreko lanaren garrantzia dela eta, hasierako arautzearen alderdi garrantzitsuenak xehe azalduko ditugu:

- EZZ garatzeko etengabeko motorra, erakundeek haien gain hartutako prozesu gisa ulertuta, hamarkada hauetan erakunde pribatuek garatu dituzten unean uneko ekimenak merezidun baina isolatuz harago. Ez dago zalantzarik ekimen horiek (Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, Zuzenbidearen Euskal Akademia eta abarrek sustatutakoak) eta unibertsitate mundutik sortutako ekimenak izan ez balira, pentsaezina izango zela orain dugun egoerara iristea. Baina positiboa bezain eztabaidaezina den errealitate honek ez du EZZ lan jarraitu gisa eta botere publikoek sustatu eta babestutako lantzat hartzearen beharra arintzen.
- Dugunari buruzko ebaluazioa: EEZBk 5/2015 Legearen eraginkortasuna aztertu behar luke, eta horretarako, aztertu egin behar lituzke lortu nahi diren ondorioak –eta, hala badagokio, aurrez ikusi gabekoak ere bai–, aplikazio praktikoaren auzipekotasuna, sortutako kostuak, zalan-tza hermeneutikoak eta abar.
- Gauza berrien sustatzaile: lanerako proposamenak landu eta eztabaidatuko ditu, bai gaiak lantzeko epeak ezartzeko egutegiak eginez, bai araudi-testuak zehaztu eta proposatzeko.

- Erregelamenduan zehazteke daude EZZBren antolaketari lotutako alderdi garrantzitsu batzuk. Hori bai, Legeak lan horiengatik ez dela ordainsaririk izango ezartzen du, legegilea jabetzen baita diru publikoak zorrotasunez erabili behar direla (Aragoiko Dekretuaren 3.5 artikulua-ren antzeko araua).

Legebiltzarrak Gobernuari eskainitako aukera-tarte eskuzabal horrekiko begirune osoz, izendapenei lotuta, legebiltzarrean nolabaiteko esku-hartzea izateko proposamena aurreratzea ausartuko nintzateke. Ez dut irtenbide bakar gisa Legebiltzarreko talde bakoitzaren eskariei jarraituz eginiko izendapen-txanda bat proposatu nahi. Gisa horretako irtenbide batek sendotu egingo luke sona handiko babes instituzionala, baina albo ondorio gisa gerta liteke EZZB *ab initio* politizatzea.

Proposamen bat besterik ez dugu egingo: izenda daitezela gutxienez batzordekide batzuk elkarrekin, Legebiltzarrean bozketa eginda. Bozketa hori, hala badagokio, indartua izan daiteke; hau da, gehiengo osoa lortu beharrekoa.

Ohar hori egiteaz harago, seguru nago behin betiko osaeran iritzi batzuk eta besteak eta euskal eragile juridikoen arlo profesionalak txertatuko direla.

Eta, azkenik, baina funtsezkoa hau ere, EZZBren eta Legebiltzarraren arteko harremanetarako prozedura ezarri behar lirateke, ez baita ahaztu behar Legeak legegileari esleitzen diola aholkularitza funtzioa ere. Alde horretatik, zenbait mekanismo iradoki daitezke; adibidez, Legebiltzarreko batzordera urtean behin 5/2015 Legearen aplikazioaren garapenari buruzko txostena bidaltzeko betebeharra, Legebiltzarraren egoitzan agerraldiak egitea eta antzeko beste neurri batzuk.

VI. EPILOGOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEAGOAN ETA NAFARROAN ZUZENBIDE ZIBILA EGUNERATZEKO PARLAMENTUKO BIDEAK

Azken galdera bat gelditzen zaigu plazaratzeko: esan al liteke Eusko Legebiltzarrak eta Nafarroako Parlamentuak eginiko bideen artean alde nabarmenak edo elkarren aurkakoak daudela?

Galdera hori erantzuteko, kontuan izan behar da, nahitaez, EAEko Zuzenbide Zibil Foralak eta Nafarroako Foru Berriak oso egoera ezberdinak izan dituztela abiapuntu.

Beti iruditu zait deigarria azken horren garapena eta edukien indarra. Ohiturazko elementuaren nagusitasunean oinarrituta eta Bizkaiko eta Arabako Konpilazioa egin eta handik hamalau urtera kodetuta, beti harritzen ninduen,

gertutasun topografiko zein emozionaletik, nola Nafarroa zen bere Zuzenbide propioa eguneratzeari ekin ez zion erkidego bakarra. Eta horrela izaten jarraitzen du. Tradizioaren eta botere-eremuetan hainbeste urtez nagusi izan diren bektore ideologikoen pisua zela-eta, petrifikatu egin zen Foru Berria eta ez zuten gizarte garaikidera egokitu. Legegintzako berritasun gisa bikote egonkorren berdintasun juridikorako 6/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, bakarrik aipa daiteke. Lege horren zenbait artikulua baliogabetu egin zituen Auzitegi Konstituzionalak 2013ko apirilaren 23an emandako 93/2013 epaiaren bidez.

Hala ere, entzun berriak ditugu gai honi lotutako albiste onak. 2015/03/15ena, Nafarroako Parlamentuko Foru Araubidearen Batzordeak ebazpen bat onartu zuen eta haren bidez Foru Berria osorik berraztertu eta Nafarroako errealitate sozialera egokitzeko txosten bat sortu zuten.

Geroa Bai, EH-Bildu, Ahal dugu-Podemos, Partido Socialista de Navarra eta Ezkerra-Izquierda parlamentuko taldeek aurkeztu zuten testua eta Unión del Pueblo Navarro eta Alderdi Popularraren botoak ere eskuratu dute; aho batez onartu dute, beraz.

Erabaki horren harira, Parlamentuak konpromisoa hartu du «arlo juridikoko operadoreei, ikertzaileei, elkargo profesionaleri eta gizarte-ehuneko entitatei» dei egiteko, txosten bat egin dezaten, ondoren Nafarroako Gobernuari eta Zuzenbide Zibil Foralaren Aholku Kontseiluari igortzeko. Gobernuak, txosten hori jasotzen duenetik zenbatzen hasita, urtebete izango du ganberari Foru Berrriaren testu artikuludun bat duen lege-proiektua bidaltzeko. Batzorde txostengileak hiru hileko epea izango du txosten hori igortzeko; hori bai, epea luzatu ahal izango da.

Ezarrizko epe labur horrez harago, gure buruari zorionak eman behar dizkiogu ekimen honengatik; izan ere, Eusko Legebiltzarrak hartutako bidearen parekoari ekinda, herritarrak ordezkatzeko dituen erakundearen protagonismoa berresten du. Espero dugu, eta hala nahi genuke, lana ondo burutzea, ahal bada, lehen fase honetan lortutako adostasunari eutsita.

Beraz, eta lurraldeen desberdintasun historikoen gainetik, bi erakundeek bat egin dute Zuzenbidea XXI. mendeko behar sozialetara egokitzeko lana zuzenean haien gain hartzearekin.

VII. BIBLIOGRAFIA

Lan honek ez du osoa izateko xederik, baina 5/2015 Legeari buruzko kontsultarako saihetsezinak diren bi erreferentzia bibliografiko aipatuko ditut. Bi lan horietan, beste egile batzuekin batera, legea aztertzei aukera izan dugu:

URRUTIA BADIOLA, Andrés M., (Zuz.). *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco. Comentarios breves, texto de la Ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Madril: Dikynson, 2016.

ZENBAIT EGILE. *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros (jornadas celebradas en Bilbao los días 2 y 3 de noviembre de 2015)*, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra - Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea, 2016.

Euskal Zuzenbide Zibilaren 5/2015 legean iturriak eta printzipio eratzailleak

José Miguel Gorostiza Vicente

Aurkibidea

I. LEGEAREN ZIOEN AZALPENA. II. LEGEAREN ATARIKO TITULUA – EZZL 1-7. ARTIKULUAK. III. ITURRI JURIDIKOAK. IV. JURISPRUDENTZIA. V. ORDEZKO ZUZENBIDEA. VI. ASKATASUN ZIBILAREN PRINTZPIOA. VII. SOLIDARITATE-PRINTZPIOA ETA JABETZAREN FUNTZIO SOZIALA. VIII. PERTSONENGANAKO ERRESPETUA ETA BEGIRUNE PRINTZPIOA. IX. HIZKUNTZA KOOFIZIALAK ETA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILA EUSKAL ERKIDEGO AUTONOMOAN. X. NAFARROAKO FORU BERRIA: ITURRIAK ETA PRINTZPIO ERATZAILLEAK. 1. Ohitura. 2. Konpilazio honetako legeak eta Nafarroako Tradizio Juridikoa. 3. Zuzenbidearen printzipio orokorrak. 4. Zuzenbide osagarria. XI. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK. XII. BIBLIOGRAFIA. XIII. ERABILITAKO HIZTEGI JURIDIKOA.

I. LEGEAREN ZIOEN AZALPENA

Legeetan, Zioen Azalpenak edo Atarikoak edukiaren helburu hermeneutikoa du, *vox legislatoris* delakotzat hartzen da, bertan agertzen diren arauak interpretatzeko irizpideak topatzen direlarik. Horrela esan izan du Auzitegi Gorenak 1982-12-16 eta 2003-03-12 Sententzietan. Eta horrela dio ere Auzitegi Konstituzionalak 36/1981 Sententzian, alegia... «*ni las rúbricas de los títulos de las leyes ni los preámbulos tienen valor normativo*».

Gure kasuan, Legearen Zioen Azalpenak legegilearen borondatea argi adierazten du, esaten duenean:

«... lege honen asmoa ez da agortzea orain Euskal Foru Zuzenbide Zibilak izan dezakeen garapen-eremu guztia.

Zuzenbide hori poliki-poliki hedatuko da eremu berri batzuetara Legebiltzar honek onesten dituen beste lege batzuen bidez, une bakoitzeko beharriaz eta eskaera sozialei erantzute aldera gorago azaldutako eskumen-esparruaren

barruan, eta baita, gorago esan den bezala, ohituraren bidez eta Foru Zuzenbide Zibilaren printzipio orokorren bidez ere, Zuzenbidearen iturri diren heinean.

Orain gure Zuzenbide Zibila zabaldu eta sakondu beharra daukagu, beste autonomia erkidego batzuek egin duten bezala, eta Euskal Zuzenbide Zibilaren formulazio ahalik eta osatuena lortu, epe egoki batean».

Helburua izan da, beti, bizirik mantentzea eta aprobetxatzea tradiziozko eta ohiturazko zuzenbidearen legatua, baina aldi berean begirada jartzea gaurko munduan eta egungo Euskal Herrian, non merkataritzak eta industriak pisu handia daukaten eta zein ezin den identifikatu duela mende batzuetako landa-gizartearekin, zuzenbide honen jatorrizko formulazioak erantzuten zion gizarte harekin.

II. LEGEAREN ATARIKO TITULUA - EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO LEGEAREN 1. - 7. ART.

Eusko Legebiltzarra izan da Legea onartu duena, Estatuko Konstituzioaren 149.1.8garren artikulua zein Lehenengo Xedapen gehigarriak, baita Autonomi Estatutuaren 10.5garren artikulua eta Kode Zibilaren Atariko Titulua-ren 13.2 artikulua ahalmen hori ematen diotelako. Arau hauetan oinarritzen da Euskal Autonomia Erkidegoak Euskal Lurralde Historikoen Zuzenbide Zibil Foralaren, idatzitakoaren zein ohiturakoaren, kontserbaziorako, aldaketarako eta garapenerako duen ahalmena. Baita ere Zuzenbide foral edota berezi horren iturriak zein lurralde aplikagarritasuna zehazteko.

Eskuduntza beregaina hau Auzitegi Konstituzionalak berretsi du, honako sententzian:

- 1982/07/27koa
- 121/1992 irailaren 28koan, Valencian Errentamendu historikoen Legeari buruzkoa
- 182/1992 azaroaren 16koan, Galizian Landa Errentamenduen Legeari buruzkoa
- 1993/03/15koa, Aragoiri buruzkoa
- 1993/05/06, Balear Irleeri buruzkoa

Hori bera berretsi zuen Estatu Kontseiluak bere 1993.05.27ko Irizpenean, atzera bota zuenean Gobernuak, 3/1992, uztailaren 1eko Euskal Herriko Zuzenbide Zibilaren Foru legearen kontra jarritako helegitea, eta 2015era arte indarrean egon dena.

Gauzak horrela, Lege berria ez da helegin eta indarrean dago 2015eko urriaren hiruz geroztik.

Legea hasten da Zioen Azalpen eta Atariko Titulu batekin, non Euskal Zuzenbide Zibilaren Iturriak, Printzipio Eratzaileak eta Lurralde zein Pertsona Aplikazio-Eremua zehazten den.

Ondoren, beste hiru Tituluetan eta Xedapen gehigarri, iragankor, indargabetzaile eta bukaerakoetan honako materiak arautzen dira: Ondare Zuzenbidea, Oinordetza Zuzenbidea, Ezkonduen arteko ondare errejimena, egitatezko bikoteak, Tributu-Arautegia, lege erregimen iragankorra eta abar. Osozara 146 artikulua dira eta 12 Xedapen gehigarri, iragankor, indargabetzaile eta bukaerakoak, pasa den 2015etik indarrean daudenak.

Atariko Tituluak Euskal Zuzenbide Zibilaren Iturrien gaia tratatzen du, indarrean dagoen berezko iturrien eskematik aldendu gabe. Titulu honen helburua da aplikatu behar diren arauen interpretazio zein aplikagarritasunaren inguruan segurtasun juridikoak eskatzen dituen beharrak asetzea, beti ere gaurkotasunetik eta indarrean dauden Egituraketa legeak eta lege prozesalak.

Zuzenbidearen Iturrien sistema honi buruz esan dezakegu:

- Legearen helburua Euskal Zuzenbide Zibila dela, ez bestea
- Hiru Lurralde Historikoen Euskal Zuzenbide Zibila, hain zuzen ere
- Iturrien hurrenkera argia da: legea, ohitura, zuzenbidearen printzipio orokorrak, jurisprudentzia eta ordezkoko zuzenbidea
- Berezko iturriak agortu ezker, ordezkoko zuzenbidera igorketa

Ondoren, oinarrizko printzipio batzuk zehazten dira, azpimarratzen dutenak gure lege zaharretako jabetzaren esanahi solidarioa eta askatasun zibilarena, ulertarazten duena lege guztiak dispositiboak direla.

III. ITURRI JURIDIKOAK

Legearen 1. Artikuluak, Iturri juridikoen izenburu azpian adierazten du:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibila osatzen dute lege honen xedapenek, ohiturak eta zuzenbide hori eratzen duten printzipio orokorrek.
2. Ohitura, nabaria ez bada, frogatu egin beharko da.

Lege hau da Zuzenbide Zibil propio baten lehendabiziko formulazio positiboa eta interlurraldetasunean eta izaera kolektiboan lagundu nahi du. Aldi berean, konpromisoa agertzen du Instituzio Zibilen garapen komunarekin, lurralde batzuen berezitasunarekin batera, direla Bizkaia, Aramaio edota Laudioko tronkalitate eta ondasunen foru-komunikazioa edo dela Aialako ondarea xedatzeko erabateko askatasuna.

Gainera, ahalmen legislatibo autonomikoaren interpretazio mugatua gainditu nahi du, orain bere iturrien inguruan.

Ez dago Zuzenbide Positiborik bere ustiaketa ahalmena ez duena eta horregatik Estatuko Konstituzioak errespetatu egiten du Zuzenbide Foral edota bezeziak bere Iturriak zehazteko ahalmena.

Baina, bakarrik **Lege honen arauak** osatzen dute Euskal Autonomi Erki-degoaren Zuzenbide Zibila?

EHBilduko legebiltzarkide taldeak artikulu honi Aldaketarako zuzenketa bat aurkeztu zion Gasteizko Parlamentuan, erredakzioan honako esaldi bat jaso zezan:... *eta zibileko edukia duten beste legeen xedapenek.*

Zuzenketa honek aurrera egin ez bazuen ere, nire ustez gaur egungo erre-dakzioak norabide horretan interpretatu behar da eta aldi berean ulertzen dut Gasteizko Parlamentuak onartutako gainontzeko legeek ere osatu beharko luke-tela Euskal Zuzenbide Zibilaren gorputz juridikoa. Adibidez, Izatezko Bikoteen Legea, Bikote hauen Erregistroko Reglamentua, Euskal Herriko Fundazioen Le-gea edota Gurasoen banaketan egoeran harreman familiarren Legea.

Beste aldetik, gure Zuzenbide Zibil osoko sustraia edo erroa **ohitura** da. Foruak adierazten zuen:

«Otrosoi, dixeron: que habían de Fuero, uso y costumbre, y establecían por Ley...».

Bizkaian ez ezik, gainontzeko Lurralde Historikoetan ere (kenduta Aia-lako Foroa eta Bizkaiko, Aramaioko eta Laudioko tronkalitate arauak) jatorria ohiturazkoa da, eta horixe adierazten du gure arbasoen egintza, kontratu edo oinordetza xedapen orok.

Gizabanako zein familietako praktikan iraun dute, askotan idatzitako legeen edota beste kultura juridikotik etorritako legeen kontra. Zuzenbidearen aurreneko Iturria da, gaur egun legea. Baina zenbait foralisten ohitura forala zuzenbide iturrien gainetik zegoela mantendu zuten.

Batzuetan, ohiturak legea interpretatzeko balio izan du eta beste batzuetan legea bera aldatu egin du eta zituen hutsuneak bete. Baina kontrakoa aipatzen duten ebazpen judizialak ere topatu ditugu. Besteak beste, 1960ko maiatzaren 19ko Auzitegi Goreneko Sententzia:

«En Bizkaia el Derecho consuetudinario no tiene la prevalencia que en otras regiones forales y no podrá ser invocado como texto vivo en que puedan fundarse las resoluciones judiciales».

Edozein kasutan, ondorengo jurisprudentziak iritsi judizial hau guztiz gainditu du eta gauza bera egin du indarrean dagoen legedia.

Lege berriak, Aragoikoak eta Nafarroakoak egiten duten moduan, ahalbidetzen du epaile batek ohitura ezarri ahal izatea, beti ere, ohitura hau nabarmena denean eta epaileak ezagutzen badu bere eskarmentu propioarengatik edota doktrinarengatik. Bestela, ez duenez ezagutu beharrik, ohitura horren aplikazioa nahi duenak frogatu egin beharko du ohitura bera.

Auzitegi Gorenaren hitzetan, ulertu behar dugu ohitura helburu juridikoarekin egintzen errepikapenaren bidez, giza kontzientziak sortutako lege baten moduan.

Bere aldetik, Euskal Autonomi Elkargoko Auzitegi Gorenak, 2001eko urtarrilaren 23ko sententziak, honako hau esaten du:

«... la costumbre es una conducta generalizada, repetida y uniforme en un medio social determinado territorialmente o por otra cualificación, cuyos miembros consideran tal conducta jurídicamente obligada, es decir, que la observan, en la idea de estar ajustándose a una norma jurídica».

Izaera ematen dioten elementuak bezala, hauexek azpimarratzen ahal ditugu:

- Erabilpen errepikatu, iraunkorra eta etengabea
- Egiteko modu hori zuzena denaren uste sendoa
- Legearen edota ordena publikoaren kontrakoa ez dadila izan
- Nabarmena ez bada, frogatua izan behar da
- Nabarmena bada, ez da frogatu behar
- Lege batek aipatzen badu, ez da frogatu behar

Praeter Legem edota *contra legem* diren giza praktikak ezagutu izan ditugu, baina gaur egun jarduera legegilea da eskaera sozialei erantzuten diona, eta oso zaila da gaur egungo ohitura berrien sorrera irudikatzea. Baina ezinezkoa ere ez.

Zuzenbide propioaren Printzipio Orokorrei dagokionez, hauek dira Euskal Zuzenbide Zibilaren informaziorako, interpretaziorako eta integrazioarako oinarritzko tresnak. Horrela dio Legeak eta horrela adierazten du ere Atariko Tituluak.

Legegileak ez du nahi sistema juridiko desberdinen irizpide eta printzipioek gure sistema propio desitxuratzea. Hori dela eta, gure Askatasun zibilaren printzipioa, Elkartasun printzipioa, Jabetzaren giza funtzioaren printzipioa edota hizkuntza koofizialen errespetuaren printzipioa erregulatzen ditu.

Zuzenbideko printzipio orokor hauek ez dira inongo legean zehazten eta horiek direla eta, Auzitegi Konstituzionalak honako hau dio, urriaren 29ko 349/2003 Autoan:

«Mediante estas normas se trata de garantizar la coherencia del ordenamiento propio, que pudiera quedar en entredicho en el caso de que rigieran normas abiertamente contradictorias, con evidente riesgo para la seguridad jurídica».

Printzipio hauek ordenamendu juridikoa informatzen dute eta zentzua ematen diote lege zein ohiturei, horiek printzipio horietan jatorria, helburua eta zentzu guztia dutelarik. Legeen interpretazio zein integrazioa bakarrik izango da zuzena baldin eta sortzen duten printzipioetan oinarritzen bada, eta horrela printzipio hauek bihurtzen dira Zuzenbidearen aurreneko Iturria, legea bera printzipio horietatik sortzen delako.

Idea hauek direla eta, Federiko De Castrok zera dio:

La eficacia de los principios generales es indudablemente superior al de la norma subsidiaria, puesto que son en primer término la base de las normas jurídicas o consuetudinarias. [...] Son como el aire en que jurídicamente se vive, cuya existencia no se advierte mientras no está en cuestión.

Eta horien harira honako hau azpimarratu behar da:

- Lege eta ohiturazko arau juridikoen oinarria dira
- Legeak interpretatzeko tresnak eskaintzen dituzte
- Zuzenbidearen iturri ordezkokoak dira, legea edota ohitura ez daudenean, batzuetan zuzen aplikatzen direnak, baina iturrien sailkapena aldatzea ahalbideratzen ez dutenak, Konstituzioaren 9garren artikuluaen ziurtasun juridikoa printzipio horrela araututa: *La interpretación finalista no puede nunca llegar a autorizar al intérprete para modificar o inaplicar una norma*. Eta Auzitegi Goreneko 1992.06.05 sententzian: *La utilización de los principios generales del derecho como criterios de interpretación (carácter informador del ordenamiento jurídico) no cabe admitirla como sustitutivo de toda la valoración legal del caso, si no como elemento de contraste, con la interpretación concreta de una determinada norma*.
- Beraien aplikagarritasun orokorra zein kasukoa frogatu egin behar da, Ordenamendu Juridikoak onartzen duela demostratuz, ezartzen duen agindua edo jasotzen duen jurisprudentzia aipatuz.

IV. JURISPRUDENTZIA

2. Artikuluak adierazten du:

1. Jurisprudentziak argituko du Euskal Zuzenbide Zibilaren interpretazioa eta integratuko ditu bere aginduak.

2. Euskal Zuzenbide Zibilaren ondoreetarako, jurisprudentziatzat ulertuko da Euskal Herrian jurisdikzioa duten epaile eta auzitegiek zuzenbide horren aplikazioan emandako ebazpen arrazoituek ezartzen duten doktrina.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Zibil arloko Sala arduratuko da aipatutako epaile eta auzitegietatik sortzen den doktrina bateratzeko, legeria prozesalak une bakoitzean hartarako ezartzen dituen baliabideen bitartez.

Erredakzio honetan, 1992ko erredakzioarekin aldaketa nabarmena suposatzen duten, hiru ideei azpimarratu daitezke:

- Zuzenbide Forala osatzeko lehen zuen funtzioaren ordez, orain bere funtzioa da **Euskal Zuzenbide Zibilaren aginduen interpretazioa zein integrazioa**. Horrela, ematen du legeak onartzen duela jurisprudentzia ez dela zuzenbidearen iturria, baizik eta zuzenbidearen esanahi egokia marrazten duena, kasuz-kasu interpretatuz eta aplikatuz. Horrela, arauen aplikagarritasun eta interpretazioa direla eta, ziurtasun juridikoak ezartzen dituen beharrak asetzera lortzen du, baita legearen aurreko berdintasun zein benetako babes judizialerako oinarritzko eskubideena. Legearen 1 eta 2 artikuluetatik ulertzen da jurisprudentziak ez duela Euskal Zuzenbide Zibila sortzen baizik eta zuzenbide horretatik jarduten duela, iturrien arabera eta iturrietatik sortuta.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Areto Zibilaren doktrinak zehazten duten moduan, gaur egun Jurisprudentziatzat honako hau ulertu egin behar da: **Euskal Herriko jurisdikzioan aritzen diren epaileek zein epaimahaiek bere aplikazioan behin eta berriro errepikatzen duten doktrina**. Jurisprudentzia ez da honez gero goreneko organo judizial horren monopolioa, baizik eta gaurko Legea da Euskal Herriko jurisdikzioan aritzen diren epaile eta epaimahai guztien afera, behin eta berriro ezarritako doktrinaren kasuetan.
- Eta orain, Auzitegi Nagusiko Areto Zibila izango da **doktrina batuko duena**, aurreko Legean zehazten ez zena, Estatuko Konstituzioak, LOPJ delakoak, LEC delakoak eta Autonomi Estatutuaren arabera. Horrela bilatzen dena da ziurtasun juridikoa eta aurreikusi daitezken ebazpen judizialak, ziurtatzea, baita legearen aplikazio kontraesankorra edota berdintasunaren kontrakoa ekiditea ere.

Auzitegi Nagusiaren Areto Zibilak egingo du hau guztia, momentu bakoitzean arau legeak aurreikusten dituen helegiteen bidez, batez ere, Areto horren aurrean aurkeztu daiteken Kasazio helegitearen bidez, Zuzenbide Zibileko

arauen urraketarengatik edota Zuzenbide Zibileko zein Arrunteko arauen urraketarengatik.

Hala ere, egin diren erreforma prozesalak direla medio, gaur egun oso zaila eta konplexua da kasazio helegitea hau jarri ahal izatea. Horrela bakarrik ulertzen da Areto honek, jaio zenetik 1990an, 43 sententzia eta 5 auto ebatzi izana, eta Auzitegi Gorenak 5 sententzia ebatzi duelarik epe beran.

Gauzak horrela, legegileak egokitzen hartu du edozein epailek behin eta berriro ezarritako doktrinarekin jurisprudenzia ere sortzea, eskarmentua ikusita eta 3/1992 Legeak ezartzen zuena zabalduz.

V. ORDEZKO ZUZENBIDEA

3. Artikuluak adierazten du:

1. Legerik edo foru-ohitura aplikagarriak izan ezean, ordezkot moduan aplikatuko dira Kode Zibila eta indarrean dauden gainerako xedapen orokorrak.
2. Lege horien etorkizuneko aldaketak aplikatuko dira, Euskal Zuzenbide Zibila zein printzipioek eratu eta printzipio horien aurkakoak ez diren neurrian.

Hemen berri da, **foru-ohitura** kontzeptuari bereziki egiten zaion aipamena.

Ordezko Zuzenbidearen aipamen hau **modu dinamikoan** egiten duela ulertu behar da, alegia, edozein garai historikoan indarrean dauden arauak egiten die aipua, arau horiek bizi dituzten aldaketak direna direlakoak. Horrela aipatzen du Bizkaiko Lurraldetako Auzitegiaren 4. atalak, 2010eko irailaren 30eko ebazpenean. Arau horien artean, sartzen dira ere bai, **Estatu mailako edota Europa mailako reglamentuak eta legeak**.

Kultura eta sistema juridiko arrotzen irizpide zein printzipioen arabera interpretazio honek kontraesan bat baino gehiago ekarri du eta Zuzenbide Zibileko nolabaiteko desnaturalizazio bat. Horrela Auzitegi Goreneko zenbait ebazpen ezagutu izan ditugu, oso eztabaidagarriak direnak egiten duten interpretazio eta ateratzen dituzten ondorioengatik:

- 1960ko maiatzaren 19ko ebazpena, ohituraren nagusitasun falta dela eta, Bizkaian lehen aipatu dugun bezala
- 1965ko martxoaren 6koa, tronkalitatearen konexio puntu hirukoitza dela eta

- 1994ko apirilaren 5ekoa, auzotasun zibilaren aldaketarengatiko lege iruzurra dela eta

1992an EAEko Auzitegi Nagusia jaio zenetik eta 3/1992 Legea onartu zenetik, ondorio kaltegarri hauek ekidin egin dira neurri handi batez, eta aldi berean, lortu da Euskal Zuzenbide Zibilaren printzipioekiko errespetu handiago bat eta baita ere sistema juridiko osoago eta auto-integratuago bat, ordenamendu osoko koherentzia bermatuz.

VI. ASKATASUN ZIBILAREN PRINTZIPIOA

4. artikulua adierazten du:

«Askatasun zibilaren printzipioa, Euskal Zuzenbide Zibilean tradiziozkoa dena, aintzakotzat harturik, legeak esku-emaileak direla uste izango da, eta legeok eratortzen dituzten eskubideei uko egitea baliozkoa izango da, interes edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada eta hirugarrenari kalterik egiten ez badio».

Esaten ohi da, askatasun zibila Euskal Zuzenbide Zibilaren oinarritzko printzipio bat dela, pertsonen borondatea legearen aurretik jartzen duena, gutxion ongia, ordena publikoa edota hirugarren pertsonak kaltetzen ez dituzten egintzak edo kontratuak ez diren bitartean.

Horrela jaso izan dute ere beste Foru-lege batzuek: Nafarroan, *paramien-to fuero vienze*, edo Aragoian, *standum est chartae*.

Aldebakarrez edo aldebikotasunez adierazitako borondatea edozein Zuzenbidearen Iturriaren gainera jartzen da, eta hau gertatzen da ordezko zuzenbidearen aplikazio geroz eta handiagoaren eta jatorri erromatar edo gaztelar duten debekuen ondorioz, bertako Foru usadio eta ohituren defentsan eta borondatearen autonomiaren eta askatasun zibilaren defentsan.

1526ko Foru Berriko adierazpenaren isla da:

«... el Fuero es más de albedrio que de sotileza é rigor de derecho».

Hala ere, borondate askearen eta harreman juridiko-pribatuen auto-erregulazioaren praktika kolektiboaren aldeko adierazpena, modu guttiz formalean jasotzen da Legean, eta talka egiten du tronkalitatea eta senipartea dela eta ezartzen diren muga garrantzitsuen kontra. Hori horrela izan ez dadin, azpimarratu behar dira instituzio hauetan egin diren lege erreformak, legitima erabat gutxitzen dutenak, aurrekoak saihesten dutena, oinorde legitimarioaren baztertzea eta hautua mantentzen dutenak, eta tronkalitatearen aplikazioaren eraginak gutxitzen dutenak.

Badaude ere kontsideratzen dutenak iraganeko *contra-legem* diren ohituraren aterpea dela hau, ordezko Zuzenbide arrotzen aplikazioaren defentsa izateaz gain.

VII. SOLIDARITATE-PRINTZIBIOA ETA JABETZAREN FUNTZIO SOZIALA

5. artikulua adierazten du:

1. Jabetzaren euskal kontzepzioa jabetzaren funtzio sozialak eta solidaritate-printzipioak modulatu dute.
2. Banakako jabetzaz gainera, legeek Euskal Zuzenbide Zibileko jabetza forma berezi desberdinak babestuko dituzte, hots, auzo-jabetza, familia-jabetza eta gizarte-jabetza, betiere aplikatu beharreko aldiko errealitate sozialera egokitu daitezela.

3/1992 Legean jasotzen ez zen nobedadea da honako hau.

Euskal lurraldeetan eman den jabetzaren interpretazio propioaren gaur egungo adierazpena egiten da, jatorria duena ohitura eta usadio tradizionaletan. Adierazpen honetan, interes kolektibo, sozial zein familiarak lehenesten dira jabetza eta interes partikularren eta gizabanakoen aurrean.

Familia eta ondarearen eredu historiko zehatz baten isla eta omenaldia da honako hau, gaur egun aldaketa eta egokitze prozesu sakon batean sartuta dagoen eredu, errealitate sozial berriei moldatzeko. Horrela adierazten dute zenbait instituzioek: tronkalitatea, baserria osotasunean eskualdatzea, legitima kolektiboaren arautzea, ondasunen foru-komunikazioa.

Legearentzat, bai familiak baita jabetzak ere zeregin sozial zein ekonomikoa betetzen jarraitzen dute gaur egun, eta babesten ditu legearen printzipio hau ezarrita.

Gauzak horrela, jabetzaren beste forma desberdin batzuen babesa ziurtatzeko konpromisoa hartzen da: jabetza komunala, familiarra eta soziala, baita beharrezkoak diren lege erreformak egitearen konpromisoa, jabeari eta jabetzari elkartasunezko zeregin sozial eta kolektiboak bete ahal izateko.

VIII. PERTSONENGANAKO ERRESPETUA ETA BEGIRUNE PRINTZIBIOA

6. artikulua adierazten du:

«Pertsonenganako errespetua eta begirunea euskal legeriaren oinarri dira».

Berriz ere topatzen dugu adierazpen programatiko bat, aurreko legean jasotzen ez zena, eta saiatu nahi duena pertsona nagusitzea gainontzeko edozein balore, potere edo interesen aurrean, harreman juridiko-pribatuak erregulatzerakoan.

Aurrekariak, nazioarteko giza eskubideen adierazpenetan, Estatuko Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomi Estatutuan aurkitu daitezke, baina baita ere gure Foru eta ohitura zaharretan.

Eta inspiratzen duen printzipioa den heinean, kasuan kasuko aplikazioa eta interpretazioa izango da adieraziko duena noraino garatzen ahal izango den, bere edukia eta bere baloreak eraginkorrak izateko.

IX. HIZKUNTZA KOOFIZIALAK ETA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

7. artikulua adierazten du:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan formalizatu ahal izango dira lege honek araututako egintzak eta kontratuak.
2. Egilesleek egilespen-tokiko hizkuntza ofizialetatik zein hitzartu eta hizkuntza horretan idatziko dira agiri publikoak; eta hizkuntza ofizialak bat baino gehiago izanez gero, alderdiek aukeratutakoa erabiliko da. Alderdien artean desadostasuna gertatuz gero, agerkai publikoa bertako hizkuntza ofizial guztietan idatzi beharko da. Tokiko...

Legearen printzipio inspiratzaileen artean sartu izana, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen hizkuntza koofizialtasuna eta Legean positiboki egintzak, kontratuak eta dokumentu publikoak egilespen lekuko edozein hizkuntza ofizialean burutzeko aukera islatzeko borondatearen ondorioa da.

Legeak gaurkoratu eta hobetzen du 3/1992 aurreko Legearen 1go Liburuaren 15garren artikulua, euskararen aipamena hizkuntza koofizialaren aipamenarengatik ordezkatzuz.

Legeak berak bi bertsio izango ditu, biak ofizialak eta balore berdinekoak, bata bestearen itzulpena izan gabe.

X. NAFARROAKO FORU BERRIAN, ITURRIAK ETA PRINTZIPIO ERATZAILEAK

Zaragozan, 1946ko urrian burututako Zuzenbide Zibileko Kongresu Nazionalean parte hartu zuen Nafarroako Sekzioa, Nafarroako Zuzenbide Pribatua horrela definitu zuen:

«... aquél que representa un tipo específico de organización de la familia y de la propiedad, que entraña también una concepción peculiar del Derecho civil enraizada en una tradición secular que se armoniza a través de sus normas con un *modus essendi* que matiza las instituciones con singularidades que no pueden reflejarse siempre y exactamente en las normas escritas».

Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren bilduma, Nafarroako Foru Berria ere ezagutua, onartzen duen martxoaren 1eko 1/1973 Legea, 596 lege jasotzen dituen lau Liburu, bere Atariko Liburuan Nafarroako Zuzenbidearen Iturriak arautzen ditu, Lehenengo Tituloko 1. eta 10. legeen artean.

Lau dira Iturriak, eta bere hurrenkera 2. Legean adierazten da:

1. Ohitura.
2. Konpilazio honetako legeak.
3. Nafarroako zuzenbidearen printzipio orokorrak.
4. Zuzenbide osagarria.

Rubio Torranoren iritziz, 2. Legeak ez ditu iturrien sistema definitzen baizik eta deskribatu, ordenatu eta beraien arteko lehentasun zerrendatze bat egiten du. Gainera, bere helburua, usadioa beste Iturrien gaineko nagusitasuna adierazi nahi du eta, bereziki, legearen gainekoa.

Bere aldetik, Foru Berriaren zioen azalpenak adierazten du:

«Itxuraz, aitorpen horren eraginez, Konpilazioaren beraren indarra ahuldu egiten da. Hala ere, Nafarroako berezko zuzenbideak ezartzen du hori hala izateko beharra, eta horrek agerian jartzen du Nafarroako antolamendua, etorkizunearn, praktikak agindutako moduan garatuko dela».

1. Ohitura

3. Legean arautua agertzen da:

«Ohitura moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada, Legearen aurkakoa izan arren, lehentasuna du zuzenbide idatziaren aurretik. Tokiko ohi-turak lehenespena du ohitura orokorrari begira.

Ohitura nabaria ez bada, alegatu eta frogatu beharko da auzitegietan».

2. Konpilazio honetako legeak eta Nafarroako Tradizio Juridikoa

1. Legean arautuak:

«Konpilazioa

Foru Zuzenbide Pribatuari buruzko Konpilazio edo Nafarroako Foru Berri honek bere barnean hartzen du antzinako erresumaren zuzenbidetik egun inda-

rean dagoen zuzenbide zibila, betiere, tradizioarekin eta bertako ohitura, foru eta legeen praktikarekin bat etorritz.

Nafarroako tradizio juridikoa

Nafarroako foru zuzenbide pribatuaren esangura historikoaren eta zuzenbide horren iraupenaren adierazpen gisa, Konpilazioko legeen interpretazio eta integrazioa egiteko lehenespena dute, jarraiko hurrenkeraren arabera, honako hauek: Bilduma Berri-berriaz geroztik, Gorteetan emandako legeek; Bilduma Berri-berriak; Foruaren hobetze izenekoek; Nafarroako Foru Orokorrak; gainerako legeek, besteak beste, toki foruek eta Foru Laburrak; bai eta zuzenbide erromatarrek ere, ohiturak edo konpilazio honek zuzenbide horretatik jasotako erakunde edo manuei dagokienez».

3. Zuzenbidearen printzipio orokorrak

4. Legean arautuak:

«Printzipio orokorrak dira zuzenbide natural edo historikoak eratorri eta Nafarroako antolamendu zibil osoa eratzen dutenak, bai eta antolamendu horren xedapenetatik datozenak ere».

Francisco Salinas Quijadaren ustez, bere *Compendio de Derecho civil navarro*:

«Son aquellos en los que debe inspirarse el Derecho, a los que han de acomodarse todos los actos del hombre y toda interpretación de las normas que los rigen. Se basan en aquello de: vivir honestamente, no causar daño a otro y dar a cada uno lo suyo».

Eta sistemaren izaera informatzailea eta inspiratzailea zenbatzeko aukera ematen digute hurrengo zazpi legeak eta printzipioak:

- 7. Legearen arabera: Paramiento

«“Paramiento fuero vienze” edo “paramiento ley vienze” printzipioarekin bat etorritz, alde bakarreko edo kontratuzko borondateak lehentasuna du, zuzenbidearen iturri guztien aurretik, salbu eta borondate hori moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa denean, hirugarrenari kalte egiten dionean, edota konpilazio honetako debekuzko manuen aurkakoa izan eta manu horiek deuseztasun-zehapena dakartenean».

- 8. Legearen arabera: Askatasun zibilaren printzipioa

«Askatasun zibila oinarritzkoa da Nafarroako zuzenbidean; askatasun horren uste da legeak esku-emaileak direla».

- Eta 9. Legean: Eskubideei uko egitea

«Eskubideei uko egitea baliozkoa da, salbu eta horrekin ordena publikoa hausten denean edo lege-maulaz egiten denean».

- Egokitasunaren printzipioa, borondate ona eta karitate betebeharra
- Fede ona, leialtasuna eta emandako hitzari errespetu printzipioa
- Batasun familiarra eta Etxearen iraunkortasun printzipioa: belaunaldiz belaunaldiaren iraunkortasuna eta mendeen zehar jarraikortasuna
- Eta tradizioaren printzipioa, familiarekin batera askatasuna esanahi due-la, eta arruntasuna, Zuzenbide argia eta herrikoia izateagatik.

4. Zuzenbide osagarria

6. Legean arautua, eta 5. eta 10. Legean ere bai:

«6. Legea: Zuzenbide osagarria. Espainiako Kode Zibila eta lege orokorrak zuzenbide osagarri izanen dira, konpilazio honi eta 1. Legeak adierazitako tradizio juridiko nafarrari begira, eta ez dira aplikatuko beraietan esanbidez arauturiko kasuetatik kanpo.

5. Legea: Analogia. Zuzenbide osagarria aplikatu baino lehen, berezko zuzenbidea integratu beharko da, berorren xedapenen hedatze analogikoa zentzuz eginez.

10. Legea: Estatutuak. Konpilazio honek arautzen ez dituen kontuetan, Kode Zibilaren xedapenek eraenduko dituzte estatutu pertsonal, erreal eta formalaren zehaztapena eta ondoreak, betiere, elkarrekikotasun-printzipioarekin bat etorri».

Bere aplikaziorako, arautegi forala, bere tradizio juridikoa eta bere hedatze analogikoa zentzuz egina informatzen duten printzipio orokorrak erantzun eta errespetatu ditzala beharrezkoa da, bestela ez zen Zuzenbide osagarria izango iraungitzailea baino.

Azterketa eta hitzaldia bukatu baino lehen, bildu nahi ditut ondorio eta proposamen batzuk:

XI. LEHEN, ONDORIOAK

1. Lege-Bloke Konstituzionalak Autonomia Erkidegoei Zuzenbidearen Iturrien sistema propioa zehazteko eskuduntza esleitzen die.

2. Lege zibil eta foral guztietan Iturrien sisteman komuna den substratu juridiko bat aurkitzen dugu.

3. Ohiturak, erabilerak eta tradizio juridikoak lehentasuneko lekua dute lege zibil eta foral guztietan, baina legea egun sistema lehentasuna da guzti hauetan eta zaila izaten da ohitura juridiko berrien formazioan pentsatzea.

4. Euskal Zuzenbide Zibilaren 5/2015 Legeak Zuzenbide propioaren Iturrien sistema arautzen du osatua izateko eta bere auto-integrazio eta barne koherentziari laguntzeko asmoa duela.

5. Nafarroako Foru Berriak 1973an egin zuen berea eta orain, legegileak legeak eguneratzen dituztenean, bere eskuduntza legislatiboa eta bere borondate politiko-juridikoa erakutsi behar dute.

Eta orain, proposamenak:

1. Euskal Herriko Lurralde Historiko guztietako Zuzenbide Zibilaren ikasketa, zabalketa eta ikerketa jarraitzea gaurkoa bezalako Ikastaro eta Jardunaldietan.

2. Norbere inizatibatik ikuskera hau gure jardun profesional garatzen dugun instituzio eta legegileak elkarbanatu: unibertsitateak, elkarteak, akademiak, irakasleak, abokatuak, epaileak, notarioak, erregistradoreak, administrazio publikoa, eta abar.

3. Gure Lurraldeetako araudi ezberdinetan Zuzenbidearen Iturrien eta Printzipio Eratzaileen gaitan aurki ditzakegun identitate eta balore komunak definitu eta bateratu.

4. Euskal Herriko Lurralde Historiko guztientzako Zuzenbide Zibil propioen Sistema Juridiko baterantz pausoak eman.

5. Helburu hauekin, Nafarroako Foru Erkidegoaren Zuzenbide Zibil eta Foral Aholkulari Kontseiluari eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeari gure ideiak, zalantzak eta proposamenak igorri egin Ikastaro eta Jardunaldi hauetan plazaratu eta bildu ondoren.

XII. BIBLIOGRAFIA

EUSKO LEGEBILTZARRA, RSBAP-EAE, (arg.), *El Derecho civil vasco del siglo XXI. De la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz, 2016.

FERNÁNDEZ DE BILBAO Y PAZ, Jesús-Javier, *Manual Práctico de Derecho Civil Vasco*, (arg.), Bilbao: Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2014.

URRUTIA BADIOLA, Andrés (koord.) *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco. Comentarios breves, texto de la Ley, antecedentes legislativos, y formulario notarial*, Bilbao: Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia eta Dykinson, 2016.

Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren Antzinako Fondoa eta Euskal Zuzenbide Zibila Ikertzeko Taldeak egin dituzten *Jardunaldiak*.

Deustuko Unibertsitatearen Liburutegiaren Fondo Bibliografikoa, www.biblioteca.deusto.es

Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Argitalpenak, www.forulege.es

EHU/UPV – Zuzenbide Fakultatearen web orrian: tesiak, liburuak, txostenak eta ikertzeko ildoak.

XIII. ERABILITAKO HIZTEGI JURIDIKOA

Askatasun zibilaren printzipioa, *Lege esku-emaileak, Eskubideei uko egitea, Ordena publikoa - Hirugarrenak.*

Hizkuntza koofizialak, *Araututako egintzak eta kontratuak, Agiri publikoak, Egilesleak.*

Iturri juridikoak, *Legea, Ohitura, Printzipio orokorrak, Printzipio eratzailleak.*

Jurisprudentzia, *Interpretatu - Integratu, Jarraituzko edo berrekor doktrina, Ebazpen arrazoituak, Epailleak - Auzitegiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Zibil arloko Sala, Bateratzeko doktrina, Auzi helegiteak.*

Ordezko zuzenbidea.

Pertsonenganako errespetua eta begirunea.

Solidaritate edo elkartasun printzipioa, *Jabetzaren funtzio soziala, Jabetzaren euskal kontzepzioa, Norbanakako-jabetza, Familia-jabetza - Auzo-jabetza - Gizarte-jabetza, Errealitate soziala.*

Etxea eta ondarea*

Mikel Mari Karrera Egialde

Aurkibidea

I. SARRERA. II. NAFARROAKO LEGEDIA. III. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEDIA. IV. IPARRALDEKO OHITURAK. V. ALDERAKETAREN ONDORIOZKO GOGOETAK. VI. OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Euskal Herriko zuzenbidearen historian, zuzenbide publiko nahiz pribatua, dauden ikerketa-hutsuneak betetzeko, EHUko Euskal Herriko Zuzenbide Historikoaren Institutuak hasi zuen bidea 2000. urtean, *Notitia Vasconiae* aldizkarian ikerketa-emaizak argitaratuz, eta gero, 2004. urtean, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeke Fundazioak jarraitu zuen haren lana *Iura Vasconiae* aldizkari bidez (www.fedhav.eus). Besteak beste, indarrean den eta garatu daitekeen zuzenbide autonomikoa lantzea du hark helburu: «gauza jakina da Euskal Herrian ditugun bi autonomia erkidegoetako Autonomia Estatutuetan aurreikusten diren eskuduntza jakin batzuren funtsa Zuzenbide historikoa dela, eta, bere izaeraren gainean interpretazio aski zabala eginez gero, gaitasun konstituziogile automugatu ere ikusi nahi da foru sisteman»¹, zuzenbide historikoa eta autonomia oso estu lotuta baitaude.

Jabetza eta, oro har, eskubide errealeen eremuari dagokionez, hau antolatua zuen Fundazioak: *III. Sinposioa: Euskal Herriko lurraldeetako jabetza publikoa eta pribatua*, Donostia, 2003ko abenduaren 11 eta 12a. Jarduera aurkezteko afixak edo iragarkiak ondo asko laburtzen du jabetzaren interesa eta garrantzia historian eta etorkizunerantz:

«El III Symposium pretende estudiar la normativa en materia de propiedad colectiva y familiar, describir las instituciones más características y examinar

* Lan hau, GIC IT-727-13 (Eusko Jaurlaritza) ikerketa-taldearen barruan egin da (ikertzaile nagusia: Dre. Jaun Jacinto GIL RODRÍGUEZ); eta DER 2014-57298-P Proiektuaren baitan (Ministerio de Economía y Competitividad; ikertzaile nagusia: Dre. Jaun Gorka GALICIA AIZPURUA).

¹ MONREAL ZIA, G., FEDHAVEN eta *Iura Vasconiae* aldizkariaren edukiaren aurkezpena, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 15. or.

las grandes transformaciones del sistema tradicional en las dos últimas centurias tras la implantación del Estado constitucional y la codificación. En Vasconia la **propiedad comunal** constituye un elemento distintivo de especial incidencia y peso en las diversas instituciones civiles que aseguran la transmisión íntegra del patrimonio familiar, tanto por vía de capitulaciones matrimoniales como mortis causa. Una parte importante de la tierra pertenecía y sigue perteneciendo a los habitantes de los valles, Ayuntamientos y Concejos. En los últimos años se viene prestando una atención creciente al patrimonio público, entre otras razones, por la elaboración de normativas autonómicas sobre la propiedad comunal que sustituyan o consoliden el régimen consuetudinario tradicional, así como por el interés por preservar el medio ambiente, etc. Han aparecido estudios parciales, pero no tenemos todavía una visión de conjunto –aunque sea provisional– sobre un fenómeno que ha condicionado tanto las estructuras de la vida colectiva.

Por otra parte, merece especial atención la **propiedad familiar**. El círculo doméstico se presenta entre nosotros como un grupo de consanguíneos fuertemente identificados con una casa y un patrimonio, con una pretensión de continuidad, que puede llegar a ser multiseccular. El objetivo que persiguen las instituciones civiles es el mantenimiento de la unidad del patrimonio familiar, con el fin de evitar su fragmentación y división. El mecanismo básico utilizado es la transmisión a un único heredero, que es instituido por los padres en testamento o en contrato sucesorio. En las últimas décadas del siglo XX diversos autores –Salinas Quijada, Celaya, Lafourcade, Uriarte, Navajas, etc.– se han ocupado de describir el elenco de instituciones familiares y sucesorias que integran el Derecho autóctono (troncalidad, sucesiones, testamento por comisario, libertad de testar y legítimas, sucesión contractual, régimen de bienes del matrimonio, etc.). Las síntesis siempre son necesarias, aunque ahora conviene dar importancia a la relación Propiedad privada/Propiedad pública, a la participación de los vecinos y particulares en el patrimonio colectivo».

Ikerketa bikainak eta analisi zorrotzak jaso ziren aipatu berri den *Iura Vasconiae* aldizkariko lehen zenbakian (2004). Abiapuntuan dagoen ideia hone-laburtzen du ZABALZAK²:

«Las estructuras de la propiedad de la tierra ponen de manifiesto que existe una verdadera relación patrimonial e identitaria entre el valor de la tierra y la concepción jurídica y política del hombre en esta tierra... Fuente patrimonial y jurídica de una forma de identidad personal y colectiva de toda una cultura en su tierra» (da jabetza).

Antzeko ideia azpimarratu zuten Nafarroako ordezkariak Espainiako zuzenbide zibilaren etorkizuna erabakitzeke 1946ean Zaragozan egindako bilkuran:

² ZABALZA, A., Tierra y propiedad, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 41-42. or.

«Así, la sección de Derecho navarro, reproduciendo actitudes adoptadas antes del Congreso, afirmó que los Derechos forales o territoriales no se reducen a instituciones aisladas, sino que representan un tipo específico de la familia y de la propiedad y una concepción peculiar y privativa del Derecho civil enraizada en una tradición secular, de tal modo que en estos Derechos peculiares son tanto o más fundamentales que las normas escritas la tradición sentida y la costumbre guardada, por lo cual el Derecho civil navarro no podía plasmarse íntegramente en un articulado más o menos amplio y, por consiguiente, mucho menos en secciones o artículos intercalados en un Código. En consecuencia, propuso que el Congreso se limitase a acordar la recopilación sistemática de las Leyes y costumbres territoriales, procurando adaptar su espíritu a las necesidades actuales de cada pueblo y a determinar la forma en que esa recopilación podía obtener fuerza de Ley»³.

Zuzenbide pribatu oro, jatorriz, lurraldeari lotutako sistema juridikoa da. Indarrean eta bizi-bizirik iritsi zaigun foru-zuzenbide zibilak ere lotura horren lekukotza ematen du, hain zuzen ere haren oinarrian sustraiturik baitaude, oraindik, jabetzaren kontzepzioa eta esanahia, ondasun eta baliabide naturalen erabilera, eta famili ondarearen garrantzia. Errealitate horren aitortzarik esanguratsuena, Bizkaiko eta Arabako konpilazioak (1959) jaso zuen bere hitzurrean:

«El estudio de la vigencia y aplicabilidad de las normas reguladoras de las instituciones en los territorios aforados no plantea problema sustancial en Vizcaya y Álava, por cuanto su derecho privado conserva el más profundo arraigo en la entraña económica, familiar y social del país. Es más, el Derecho Foral vizcaíno, verdadero estatuto agrario, es una anticipación a las novísimas tendencias de ordenación jurídica del agro español mediante una concentración patrimonial familiar y, al servicio de esa única preocupación, el derecho especial de Vizcaya es un instrumento de tan sorprendente perfección técnica en el armónico equilibrio de sus instituciones, que, aun con todo su arcaico sabor, puede servir de modelo al legislador actual».

Nafarroako konpilazioaren proiektua, artean, mamitzetik urrun zegoen eta ematear dauden gainerako en referentzia-puntu ere bihurtzen da baieztapen hura.

Gerora, ondare-zuzenbideari buruz, AIZPÚN SANTAFÉ autoreak hau dio Nafarroako praktikari buruz:

«Obsesionados casi todos con las instituciones más clásicas del Derecho navarro, no se ha parado lo suficiente en el estudio de nuestro Derecho patrimonial. Y, sin embargo, yo puedo decir, que en mis 45 años largos de ejercicio

³ LACRUZ BERDEJO, J. L., El Congreso Nacional de Derecho Civil, *Anuario de Derecho Civil*, I (1948), pp. 145-155.

profesional, los pleitos de más volumen económico y de más trascendencia social que he tenido en Navarra, se han referido al derecho de propiedad y su naturaleza y derivaciones»⁴.

Berez, inguruko beste ordenamendu juridikoez bezala, euskal sistema zibilaren oinarrian ezarrita daude norbanakoaren askatasuna eta jabetza pribatua, biak gero elkartzen direlarik oinordetzaren antolaketan. Askatasun zibilaria buruz, hau diote indarrean diren legeak:

1. Nafarroako Foru Berriko hitzaurrean: «*Hay que tener en cuenta, por lo demás, que las mismas Leyes de esta Compilación, como todas las Leyes vigentes en Navarra, tienen normalmente carácter dispositivo (Ley ocho), ya que el primer principio y fundamento de todo el Derecho navarro es la primacía de la voluntad privada, como se expresa en la antigua regla “paramiento fuero vienze” (Ley siete)*» / (Itzulpena) «Gainerakoan, gogoan izan behar da orokorrean esku-emaileak direla Konpilazio honetako legeak eta Nafarroan indarrean dauden beste guztiak ere (8. legea). Borondate pribatuaren lehentasuna Nafarroako zuzenbidearen printzipio eta oinarri nagusia da, «paramiento fuero vienze» antzinako erregelari adierazten den moduan (7. legea)».
2. Euskal Zuzenbide Zibilaria buruzko Legeko hitzaurrean: «Kategorikoki baieztatzen da askatasun zibila, zeinak pentsarazten duen lege guztiak esku-emaileak direla».

Jabetzari, berriz, Nafarroako Foru Berriak ez dio ezaugarri berezirik erantzen; bai ordea Euskal Autonomia Erkidegoko legeak: «agerian uzten da jabetza-eskubideak izaera solidarioa zeukala gure lege zaharretan».

Erakundearen historian eta, hura ezagutu ostean, exegesi zorrotzean sartzea ezinezkoa izanik gune honetan, deskribapen orokorra ematera mugatuko dira ondoko epigrafeak.

II. NAFARROAKO LEGEDIA

Lehen idazketan, Nafarroako Foru Aldundiko argitalpen ofizialak izen hau eman zion (1971): *Fuero Nuevo o Compilación de Derecho Privado Foral de Navarra*. Gero Franco Jeneralak emandako legearen izen ofiziala, ordea, hau da: *Compilación del Derecho Civil Foral de Navarra*. Bertan, ondareari buruzko leerroalde esanguratsuenak hauek dira:

⁴ SALINAS QUIJADA, F., Elementos de derecho civil de Navarra, *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Derecho*, 8 (1993), 43-62. or.

Testu ofiziala

Trata el libro primero de las personas y de la familia, asociando así lo que es esencial para la tradicional concepción navarra, según la cual la estructura y la legitimidad familiar, así como la unidad de la casa, son el fundamento mismo de la personalidad y de todo el orden social...

Los principios fundamentales del régimen de bienes en la familia (VII), por el que se regula la donación y los contratos entre cónyuges; luego, a las capitulaciones matrimoniales (VIII), que, en Derecho navarro pueden ser modificadas en cualquier momento: al régimen de bienes en el matrimonio (IX), en especial al supletorio de «conquistas» (capítulo I), que puede existir como Sociedad familiar (capítulo II), y a la comunidad universal (capítulo III), así como al régimen de separación de bienes (capítulo IV). Especial importancia tiene para el Derecho navarro el régimen de bienes en segundas o posteriores nupcias (título X), dada la enérgica defensa que establece aquel Derecho a favor de los hijos de anteriores nupcias, verdadera limitación de la libertad de disponer reconocida como principio fundamental del Derecho sucesorio...

El Libro III es el más amplio, porque abarca toda la materia de los derechos reales (títulos I-VII) y las obligaciones (títulos VIII-XI). En cuanto a la propiedad y posesión de los bienes (título I), es interesante destacar el régimen singular de adquisición de los frutos de las heredades desde que son manifestadas (Ley trescientos cincuenta y cuatro), y en el título II, «De las Comunidades de bienes y derechos», se expone con claridad el régimen de modalidades especiales muy frecuentes, pero que no siempre se interpretan convenientemente, como son las corralizas (capítulo IV), facerías, helechales, el dominio concellar y las vecindades foranas (capítulo V); la errónea configuración que a

Itzulpena

Lehenengo liburuan, pertsonak eta familia arautzen dira. Horrekin, Nafarroan betidanik izan den ulerkeraren oinarria antzematen da; horren arabera, familiaren egitura eta lege-oinarria, bai eta etxearen batasuna ere, nortasunaren eta gizarte antolamenduaren euskarri dira...

Familiako ondasun-eraentzari buruz, oinarrizko printzipioak aipatzen dira (VII), ezkontideen arteko dohaintza eta kontratuak arautuz. Horren ondotik, ezkontzako itunak jorratzen dira (VIII); horiek, Nafarroako zuzenbidean, edonoz aldaraz daitezke. Ondoren, ezkontzako ondasun-eraentza (IX) arautu da; bereziki «konkistak» izeneko eraentza, osagarria dena (I. kapitulua) eta familia-sozietate izan daitekeena (II. kapitulua), eta erkidego unibertsala (III. kapitulua), eta ondasunen banantze-eraentza ere (IV. kapitulua).

Nafarroako zuzenbidean, garrantzi berezia du bigarrenez edo gehiagogarrenez ezkondukoen ondasun-eraentzak (X. titulua), zuzenbide horrek defentsa gogorra ezartzen baitu aurreko ezkontzako seme-alaben mesederako, oinordetza zuzenbidearen oinarrizko printzipio den xedatze-askatasuna mugatuz...

III. liburua luzeena da, eskubide erreal (I-VII, tituluak) eta betebeharrei (VIII-XI, tituluak) buruzko kontu guztiak arautzen baititu. Ondasunen gaineko jabetza eta edukitzari dagokionez (I. titulua), azpimarratzekoa da landetatik fruituak eskuratzeko araubide berezia, horiek agerikoak direnetik (354. legea). II. tituluari, ondasun eta eskubideen erkidegoak arautzen dira; arauketa horretan, argiro-argiro azaltzen da aldaera berezien araubidea. Nafarroan, sarritan sortzen dira halako erkidegoak, eta horien gaineko interpretazioak ez dira beti modu egokian egiten. Erkidego horien antean ditugu, besteak beste, bazkalekuak (IV. kapitulua), fazeriak, iralekuak, kontzeju-jabaria eta kanpoko au-

veces se ha insinuado en la jurisprudencia, de tales derechos como servidumbres «personales» desfiguraba su propia naturaleza impidiendo la redención.

Conforme a la más depurada doctrina, se consideran como servidumbres (título III) tan solo las prediales, de las que se recogen algunas particularidades siempre vigentes en Navarra, y como derechos reales especiales los de usufructo, habitación, uso y otros similares (título IV).

De gran utilidad resulta la regulación «Del Derecho de superficie y otros similares» (título V), que han cobrado renovada aplicación en el desarrollo urbano y la Compilación presenta una ordenación nueva, fiel reflejo de la práctica vigente, en materia de sobreedificación y subedificación (capítulo III).

El título VI ordena todo lo relativo al derecho de retracto y otros derechos de adquisición preferente, que presenta una mayor complejidad por la incidencia de tipos especiales de derechos concurrentes.

Finalmente, a las garantías reales se dedica el título VII, incluyendo la venta con pacto de retro en función de garantía (capítulo IV) las prohibiciones de disponer (capítulo V), la venta con reserva de dominio (capítulo VI) y la venta con pacto comisorio (capítulo VII)».

Jabetza antolatzeko moduari dagokionez, Foru Berriak tradiziotik datozen egiturak eta erakundeak biltzen ditu, bereziki:

- A. Ondasun komunalak aprobeztatzeko modu zibilak, *inter vivos* edo *mortis causa* egintza bidez eskualdatzeko ahalmenarekin (*cfr.* 346.1 legea, eta 42 eta 43 legeak).

zotartasunak (V. kapitulua). Horiei buruz, jurisprudentziak okerreko moduan adierazi du eskubideok zortasun «pertsonalak» direla; horrek erakundeon izaera desitxuratu du, horien askatzea eragotziz.

Doktrinarik garbienarekin bat etorritik, zortasun dira (III. titulua) lurraren gainekoak bakarrik, eta horiei buruz zenbait berezitasun jaso dira, Nafarroan betidanik indarrean egon direlako. Eskubide erreal berezien antean, gozamina, biztantzua, erabiltzea eta horien antzekoak aipatzekoak dira (IV. titulua).

Azalera-eskubidearen eta antzeko beste eskubide batzuen arauketa (V. titulua) oso erabilgarria da, hiriaren garapenarekin eskubideok berriro aplikatu izan baitira. Eta Konpilazioak antolaketa berria ematen du, inoren eraikinaren gainean edo azpian eraikitzeari buruzko kontuetan, egunean-egunean gauzaturiko egineraren adierazgarri gisa (III. kapitulua).

VI. titulan, atzera-eskuratzeo eskubideari eta lehenespenez eskuratzeo beste eskubideei buruzko kontuak barneratu dira. Horietan, konplexutasuna areagotzen da, mota bereziak agertzen baitira elkarrekin pilaturiko eskubideen antean.

Azkenik, VII. titulua berme errealez arduratzen da. Horren barman jaso dira, besteak beste, berme gisa eta atzera-eskuratzeo itunarekin egindako salmenta (IV. kapitulua), xedatzeko debekuak (V. kapitulua), jabari-erreserbarekin egindako salmenta (VI. kapitulua) eta komiso-itunarekin egindako salmenta (VII. kapitulua).

- B. Ondasun edo eskubideen titulartasuna duten gizatalde tradizionalak, erakunde publiko gisa funtzionatu arren izaeraz zibilak izan eta familiarekin edo etxearekin lotuta daudenak.
- C. Etxearen kontzepzio juridikoa, familiari buruzko eraentzaren barruan eduki funtzionala nagusiaraziz, jaurgio edo jabari hutsaren gainetik.

Foru Berriko 48. legeak *etxearen* balio juridikoa honela zehazten du:

Testu ofiziala

La casa, sin constituir persona jurídica, tiene su propio nombre y es sujeto de derechos y obligaciones respecto a las relaciones de vecindad, prestaciones de servicios, aprovechamientos comunales, identificación y deslinde de fincas, y otras relaciones establecidas por la costumbre y usos locales. Corresponde a los amos el gobierno de la Casa, el mantenimiento de su unidad y la conservación y defensa de su patrimonio y nombre

Itzulpena

Etxea ez da pertsona juridikoa, baina izen berezia du, eta eskubide eta betebeharren subjektu da auzotartasun-harremanetan, zerbitzu-egiteetan, herri-aprobetxamenduetan, finken identifikazio eta mugaketetan, eta tokiko ohitura eta usadioek ezarritako bestelako harremanetan ere. Etxeko jaun-andreei dagozkie etxea gobernatzea, horren batasunari eustea, eta etxearen ondarea eta izena iraunarazi eta defendatzea

Familia-ondasunak elkarretartzeko eta etxea iraunarazteko printzipioak eragina du, nagusiki, familiari eta oinordetzari buruzko araudian (konkista-eraentza, ezkontz hitzarmenak, tronkalekotasuna, odoleko atzeraeskuratzea, edo atzera erosteko itunarekin –grazia-gutunarekin– egindako salerosketak). Bestalde, auzo-lurren erabileran, etxea bera da auzoko, ez pertsona zuzenean; eta horregatik etxe berriak taldean sartzeko kontrolatu izan da, auziak sorraraziz askotan.

Ondareari buruzko araudian, nabarmentzekoa da, lehenik, eskubide erreal atipikoak sortzeko aukera aurreikusten dela, hau da, legean arautu gabeko eskubide erreal berriak antolatu eta era ditzakete partikularrek, askatasun zibilaren printzipioa baliaraziz. Aukera horrekin bat, gainera, legeak berak arautzen dituen eskubide erreal guztietan lehentasuna ematen zaio borondateari erlazio juridikoaren iturri nagusi gisa eta, horren ezean, iturri-sistema orokorraren arabera, usadioei eta ohiturari. Hain zuzen ere, gizarteko praktikan agertzen zirelako arautu dira, legedia historikoan agertu ez arren, esate baterako azalera-eskubidea, gaineraikuntza, akzioen usufruktua, jabetza horizontala, eta abar.

Ondasun-zuzenbidearen ondoan, obligazio-zuzenbideak trataera zabala eta berria jaso zuen Foru Berrian:

«El ejercicio de voluntad que supuso la creación de un régimen propio, no ajustado a la práctica vivida, constituye una de las claves de la actual situación de nuestro Derecho civil foral»⁵.

III. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEGEDIA

Euskal Autonomia Erkidegoko araudi berritik, aurreko araudiekin alderatuz, bi ezaugarri azpimarratu behar dira: legearen edukian, batetik, nekazal eremuaren presentzia asko lausotu da; eta, bestetik, oinordetzari buruzko legedia indartu da, bereziki biztanle guztientzat arau komunak emanez. Horrekin batera, ondare-zuzenbideari buruzko arauak, halabeharrez, sakabanatuta agertzen dira hainbat legetan. Zuzenbide zibilari buruzko legeak ez du osatzen, berak hala badio ere, zuzenbide zibil osatua eta osoa. Auzitegi Gorenak esanbidez argi adierazi du, esate baterako hemen:

«La Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, no puede ser excluida del concepto de Derecho civil especial propio de dicha Comunidad Autónoma... La sentencia que se pretende recurrir en casación fue dictada por un órgano jurisdiccional civil con sede en una Comunidad Autónoma con Derecho civil propio foral o especial y se cita como infringido el artículo 147.3º de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, la Sala de lo Civil y Penal del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco es la competente para conocer del recurso de casación, competencia que le viene atribuida por el artículo 14 del Estatuto de Autonomía del País Vasco» (ROJ: ATS 6357/2013).

Ondare-zuzenbidean, obligazioekin eta oinordetzarekin dituen loturak alde batera utzirik, hiru erakunde nagusi arautzen dira bereziki:

1. Nekazaritzako famili ustiategi tradizionala: baserria

Zehazki baserriaren inguruko arau bereziak Lege 3/1992ak aipatzen ditu, Gipuzkoa eremuari buruz bakarrik ari bada ere: «*Baserriaren eta familiaren ondasunen antolaketari buruzko ohitura zibilen indarra aitortzen da*» (FZZL 147).

Nahiz eta foru-zuzenbide zibilaren helburu nagusia, hala jatorrian baina bereziki kodeketaz geroztik, baserria zatitu gabe ondorengoei uztea izanik, Bizkaiko zuzenbide zibilean ez da baserriaren definizio argirik ematen. Gero, Gipuzkoako Foruan baserriak definitzen dira eta, azkenik, erkidego osokoak egungo lege autonomikoan.

⁵ EGUSQUIZA BALMASEDA, M. Á., El Derecho patrimonial: ese gran desconocido, *Revista Jurídica de Navarra*, 33.2 (2002), 40. or.

Bizkaia	Lege 3/1992	<p>Baserria gainerantzekoekin dohain eskualdatzerakoan, besterik esan ezean, altzariak, abereak, lanabesak eta ustiapen-ezarkinak sartuko dira.</p> <p>Baserria enparaduakaz duban eskualdatzerakoan, besterik esan ezean, altzariak, abereak, lanabesak eta ustiapen-ezarkinak sartuko dira (bizkaieraz).</p>
	Lege 5/2015	<p>Baserria horri lotutako lurrekin batera doan eskualdatzean, eskualdaketa horrek bere baitara bilduko ditu, kontrakoa xedatu ezean, baserrian bertan hura ustiatzeko dauden altzariak, abelburuak, ustiatze-eskubideak, makineria eta instalazioak.</p>
Gipuzkoa	Lege 3/1999	<p>Baserria etxebizitzak berak eta hari lotutako gainerako eraikin, areto, lursail eta ondazilegiek osatzen dute, bai eta, baserriaren ustiaketari, ustiatzen bada, atxikitako ondasun higigarriek, aziendek eta makinek ere.</p> <p>Baserriaren eta hari lotutako ondasunen doako eskualdaketak aurreko atalean adierazitako guztiak hartuko ditu barruan, aurkako xedapenik ezean.</p>
	Lege 5/2015	<p>Baserria, izatez, familiaren ustiategia da, nekazaritzaren arlokoa nahiz abeltzaintzaren arlokoa; ustiategi hori eratzen du landetxeak berak, eta, horrekin batera, osagai higigarri desberdinek, abelburuek, ustiatze-eskubideek, makineriak, instalazioek, eta, orobat, landa, lursail, baso edo mendi batek edo batzuek. Lursail edo landa horiek landetxearen ondoan egon daitezke edo horretatik aparte, eta, halakoak izendatzeko, baserriari dagozkion lurak direla esan ohi da.</p> <p>Baserriaren osagaietan, ondazilegiak diren lursailak barruraturik daudela ulertuko da.</p> <p>Baserria eta bere lursailen eskualdaketan, dohaineko titularen bidez egiten denean, eta aurkakoa hitzartu ezean, aurreko artikuluetan zehaztutako multzoa barruratuko da.</p>
Erkidegoa	Lege 5/2015	<p>Baserria, izatez, familiaren ustiategia da, nekazaritzaren arlokoa nahiz abeltzaintzaren arlokoa; ustiategi hori eratzen dute landetxeak berak, eta, horrekin batera, osagai higigarri desberdinek, abelburuek, ustiatze-eskubideek, makineriak, instalazioek, eta, orobat, landa, lursail edo mendi batek edo batzuek. Lursail edo landa horiek landetxearen ondoan egon daitezke edo horretatik aparte, eta, halakoak izendatzeko, baserriari dagozkion lurak direla esan ohi da.</p>

Baserriaren osagaietan, elementu material eta tradizional bat ez da zereñdan jaso eta, bere berri, aparte ematen da: lursail ondazilegia. Izaeraz ondazilegiak ere materialak dira, eta baserriaren beste elementu higiezinaren ondoan agertu beharko lukete. Baserrira finka erregistratzen moduan inskribatu izan denean Jabetza Erregistroan, ondazilegirik balego barneratuta agertzen dira beti, inoiz ez aparte; hala egiten zen tradizioz eskribauen agirietan ere. Ez da hori izan legelariaren aukera, eta artikulua propioan ematen da ondazilegien erreferentzia, Gipuzkoarako bakarrik.

2. Jabetza-eskubidea, bere mugak eta hari txertatutako eskubide errealak

Ondareari buruzko eraentza orokorraren alorrean, baserriaren definizioa 12. artikuluan zehaztu ostean, hurrengo mamizko xedapenak 14. artikuluan jasotzen dira: *1.- Bide-zorra eskuratzen da, tituluaren bidez edo hogeituroko preskripzioaren bidez. 2.- Lur nagusiaren jabeak galdatu ahal izango du, kalte-ordain egokiaren bitartez, bide-zorrari zabalera handiagoa ematea, lur horren beharritan asetzeko beharrezkoa den neurrian. 3.- Lur nagusiaren jabeak ahalmena du, orobat, bere kontura zoruan sendotze-lanak egiteko, baldin eta lan horiei komenigarri baderitze lurra hobeto erabiltzeko, eta lanekin ez bazaio kalterik egiten zorpeko lurraren ustiatzeari; horretarako, aldezturik jakinarazpena egin behar zaio zorpeko lurraren jabeari.*

Bide-zorrari buruzko eraentza hori Bizkaiko foru zibilean 3/1992 legeak indarrean jarri zuen eta orain erkidego osora zabaldu da, aplikagarri bestalde bai nekazareremuan, bai hiriguneetan. Zerbitzuta (*servidumbres*) arautzeko aukerari baliatu gabe, bide-zorra arautzen da, baina ez modu osatu eta sistematizatuan. Bide-zorraren hainbat alderdi bakarrik arautzen ziren Bizkaian eta, inolako aldaketarik eta garapenik gabe, bere horretan jarraituko du eraentzak autonomia-eremu guztian:

1. Berezitasun nagusia da sortzeko modua: preskripzioz ere eskuratu daiteke pasabide-zerbitzuta. Gogorarazi, besterik gabe, Kode Zibilean agerikoak eta jarraituak diren zerbitzutzak bakarrik eskura daitezkeela preskripzio bidez eta bide-zorra berez ez dela ez agerikoa ez jarraitua. Legeko bigarren xedapen iragankorraren arabera, *bide-zorraren gaineko edukitza hasi bada lege hau indarrean jarri baino lehen, edukitza horretatik probetxua aterako du edukitzaileak, preskripzio bidez hura eskuratzeko ondoretarako.*
2. Edukiaren ikuspegitik, eta bide-zor guztiei aplikagarri izanik, arau hauek ere zabaldu dira autonomia-erkidego osora:

- A. Batetik, zerbitzuzaren zabalera dagokionez. Kode Zibileko 566. artikulua hau agintzen du: «*la anchura de la servidumbre de paso será la que baste a las necesidades del predio dominante*»; hau da, edozein garaitan zabalera erabakitzeke (ezartzeko bezala) irizpidea izango da finkaren (objektuaren) beharra (izaeraren arabera zehaztua). Sistema komunean, behar hori, honek neurtzen du: «*depende del destino económico variable en función del estado y aprovechamiento del mismo*» (AGE 1995.09.16). Euskal legedi zibilean, orain, *beharri-zabalerak* izan behar dira kontuan; baina gazteleraz modu zabalagoan ezartzen da irizpidea: «*todas las necesidades*». Beraz, beharrian guztiak kontuan hartuko dira zerbitzuzaren luze-zabalera zehazten joateko garaian, zerbitzuzaren titularrak sorrarazi badu ere; abusuzkoa ez den heinean, noski.
- B. Zoruan sendotze-lanak edo, argiago eta zehatzago, bidezorua emateko obrak (*obras de afirmado*). Kode Zibileko sisteman ez dira aipatzen eta horrelako ahalmenik ez zeukan Gipuzkoan zerbitzuzaren titularrak. Orain berriz, horrek bere «komententzia» baliatuz (*komenigarri baderitze*), halako obrarik egin dezake, luraren jabeari jakinarazi ostean, besterik gabe.
- C. Zorua zabaltzeaz eta sendotzeaz arduratzen da legegilea eta zerbitzuzaren titularraren alde egiten du gehienbat; baina, jabearen alderdian jarrita, zerbitzuzta kentzeko edo arintzeko aukerari hark ez dio ekiten.

Artikulu horren jarraian xedapen bikoitzeko artikulu hau ezartzen da: *Ja-beak eskubidea du bere edukitzapeko landa ixteko, baina ezin du eragotzi gizabanakoek bertatik igarotzea irabazirik gabeko erabilera dela eta, gizabanako horiek ez badute inongo ibilgailurik baliatzen. Norbaitek eskubide hori erabiltzen badu, landaketak errespetatu beharko ditu, eta, kalteak eraginez gero, kalte-ordaina eman beharko du.*

Aurreko artikulu hura espreski bide-zorrari buruzko bada ere, izenburuaren arabera (*landak ixteko eskubidea eta bide-zorra*) badirudi horren eraentza ez zela han amaitzen eta hemen jarraitzen duela, baina beste ahalmen baten (landak ixteko ahalmenaren) atzetik. Posizioz aurreneko lekuan jartzen den eskubide hura (egokiago esanez, jabearen ahalmena) aspaldian ezarri eta onartutako araua da. Ondoren datorren *baina* horrek ezartzen du arau berri bat, tradizioan agertzen ez dena. Beraz, horri buruzko azalpen batzuk ematea halabeharrezkoa suertatzen da:

- A. Badirudi 5. artikuluan aipatzen den jabetza-eskubidearen solidaritate printzipioa baliatzen dela hemen: *Jabetzaren euskal kontzeptioa ja-*

betzaren funtzio sozialak eta solidaritate-printzipioak modulatzan du. Solidaritatea, berez eta izatez, gizakiaren izaerari dagokion balorea da; horregatik pertsonen (fisiko nahiz juridikoen) harremanek (besteekin atxikitzeak) duten izaeraren ezaugarri bat da. Hemen ordea legeak eskubide baten izaeraren ezaugarri bezala jarri du: eskubidearen titularrak solidario izatera behartzen da. Kontzeptzio hori ez dator bat Konstituzioak 45.1 artikuluan agintzen duenarekin: *Los poderes públicos velarán por la utilización racional de todos los recursos naturales, con el fin de proteger y mejorar la calidad de la vida y defender y restaurar el medio ambiente, apoyándose en la indispensable solidaridad colectiva.* Solidaritatea gizarteko kide guztien arteko lotura da, zeinaren arabera ingurune osoaren babesa eta babesteko erabakien kostua guztien artean ordaindu behar den; ikuspegi horretatik zehaztu behar da jabetza-eskubidearen funtzio ekonomikoa (jabearentzat eta gizartearentzat) eta soziokulturala.

B. Legeak «bide-zorra» deitzen dio baina, izaeraz, jabetza-eskubidearen muga bat da. Jabetzaren edukia modu horretan mugatzea erabateko berrikuntza da. Egituraren ikuspegitik, *ius usus inoqui* delakoaren antzekoa, baina ahalmen hura ezein gauzaren jabetza-eskubideari buruzkoa den bitartean, legeko 15. artikulua finken gaineko jabetza-eskubidea bakarrik mugatzen du.

C. Xedapenaren aplikaziorako, hainbat arazo agertzen dira:

- a) Objektuari dagokionez, euskaraz «landa» eta «lursaila» terminoak, eta gazteleraz «*heredad*» terminoa erabiltzen dira; hori dela eta, objektua zehazteko arazoak sortzen dira. Ereku berbera arautzeko termino horiek jasotzen dituzten beste bi lege hauekin ez dator bat: lur-legean ez da «*heredad*» terminoa erabiltzen, ez definitzen, eta gainera landa terminoa lurraren izaera adierazteko bakarrik erabiltzen da («*rústico*»); nekazal-politikari buruzko legean, bestalde, landa-finkak aipatzen dira («*finca rústica*»). Gaztelerazko terminoaren esanahia jakin nahi bada, areagotu egiten da zalantza: «*heredad*» terminoa izan daiteke «*terreno cultivado*» edo «*bien raíz*»; azken hori Bizkairako esanbidez definitzen da eta euskaraz «onibar» deitzen zaio (64. art.). Dena den, badirudi legegileak finken gaineko eraentza ezarri nahi duela, izaera kontuan izan gabe (hiri-koia edo nekazal eremukoia izan).
- b) Araua jabetzaz ari da oro har, bereizi gabe jabetza pribatua eta jabetza publikoa. Ondorioz, Administrazio publikoen lursailei ere

aplikatzen zaie eta finka horiek erabiltzeko araudiak (gehienean erregelamendu mailakoak) lege-arau hau errespetatu beharko du.

- c) Arauak izan dezakeen funtsa eta helburua ez dira argitzen. Konstituzioaren arabera, jabetza-eskubidea mugatzeko funtzio soziala mamiarazi behar da, eta hori egiteko, beti, funtsezko edukia errespetatu behar da eta, gainera, funtzio hura zein den justifikatzen saiatzen da normalean legegilea. Azken batean, legegileak funtzio soziala baliarazi dezake jabetza-eskubidea mugatzeko, baina azaldu behar du zergatik eta, kasu honetan, ez du inolako azalpenik eman. Ildo horretan, badakigu nor ez duen babesten: nekazal-eremuaz arduratu eta jabetza-eskubidearen titular direnak (baseritarrak). Babestu nahi den interesari buruz zera esan daiteke: aisialdirako lekuak jartzea ideia ona da, gizarte-interes agerikoa eta komenigarria baita, baina, lurra erabiltzeari eta aprobetxatzeari buruzko ordenamenduan egin beharko litzateke. Araudi hori garatzeko, beste faktore batzuk ere kontuan hartu behar dira, gizartearentzat ere interesgarriak: ingurugiroa, baliabide naturalak, basoa, ura, landareria, paisaia. Ikuspegi horretatik, ez dirudi lege hau denik lekurik egokiena interes hura arautzeko, izan ere beste moduak eta araudi-aukerak bai baitaude (aisialdirako lekuak zehaztea, nekazal-bideak arautzea...). Azken batean, lurra mugatzen duen araua den aldetik, sistematikoki egokiena litzateke lur-legean jasotzea eta hor arautzea eskubide berri hori.
- d) Ahalmenaren edukari dagokionez ere ez da oso argi uzten materialki zertan datzan: igaro puntu batetik bestera gelditu gabe, edo finkan bertan geratu edo egoteko aukera ere barnebiltzen ote den. Hala eta guztiz ere, ahalmena baliatzeko garaian muga hauek beti izanen dute indarra: pertsonen oinarrizko eskubideek (irudia, intimitatea), eta eskubidea abusuz ez baliatzea.

3. Oinetzeko ondasunak (tronkalitatea) Bizkaian

Onibarrak (ondasun higiezinak) beren jabetza-eskubidedun den titularraren familiara lotzen dituen printzipioa da tronkalitatea, familiako kideen esku egon dadin hura, ez bakarrik titularra hiltzen denean, baita ere horrek bizi bitartean egin ditzakeen besterentze-egintzetan. Hau dio legeak:

«Bizkaiko lur lauan, eta Arabako Aramaio eta Laudioko udal-mugarteetan, onibarren gaineko jabetza tronkala da. Tronkalitateak ondarearen familia-izara babesten du» (EZZL 62).

Legearen zioen adierazpenean, honela aurkezten du erakunde hori lege-gileak:

«Bizkaiko erakunderik esanguratsuen, zuzenbide pribatuari dagokionez, tronkalitatea da. Horren lorratza ere begien bistakoa da Nafarroan eta Lapurdiko ohituretan. Aldiz, Gipuzkoan eta Araban ez dago araututa, herrialde horiek inoiz ere ez baitzituzten euren legeak idatzi. Bizkaian bilduta dago Foruan eta zabal garatuta 1992. urteko legean. XX. mende hasieran, tronkalitatea zen erakunderik bereizgarriena eta estimatuena, bizkaitar legelarien aldetik. Egungo gizartearen bilakaera, ostera, mota honetako erakundeen aldekoa ez da. Nolanahi ere, erakunde horrek Bizkaian dituen sustraiak aintzat hartuta, zuhertasunak aholkatzen du gordetzea. Testuak bizirik gordetzen du Bizkaian tronkalitatearen erakundea eta foru-sakaren egikaritzea ondasun tronkalak besterentzen direnean. Testuak eskubide horren egikaritzea argitu eta erraztu egin nahi du eta, modu batean zein bestean, horren aplikazioetan gerta daitezkeen gehiegikeriak arindu. Hartara, berrikuntzarik irtenena da aspaldiko deuseztasun erabatekoa, tronkalitatekanpo diren arrotzen mesederako egindako ekintzetan, deuseztasun erlatibo edo deseztagarritasun mugatu bihurtzen dela, Jabetza Erregistroan noiz inskribatu eta hurrengo lau urtetan egikaritu behar baita. Saka-eskubidearen egikaritzeari dagokionez, ondasun tronkal bat arrotz bati besterentzen zaionean, testuak mugatu egiten du hori, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarri sektorizatuan badaude ondasun horiek. Eskubidea egikaritzeko moduak ere, bitarikoak proposatzen ditu testuak, bata, zuzenetik egitekoa eta bestea, iragarkien bidez, bi-biak notarioen fedepekoak, tronkaleko senideei deia egiteko».

Tronkalitateak dakartzan eraginetarako, onibarrak dira jabetza eta gaineko gozatze-eskubide errealeak, eskubide hori lurzorua gainekoa edo bertan eraiki, landatu eta ereiten denaren gainekoa bada. Halaber, onibartzat joko dira ondasun higigarriak, aipatutako ondasun higiezinen haietarako destinatzen badira edo haiei lotuta baldin badaude, beti ere kalterik eragin gabe banantzeko modurik ez badago modu independentean eskualdatzeko; horien artean, bereziki, fruituak, landareak eta zuhaitzak ez daude tronkalitate-printzipioaren itzalean berezita eskualdatzen badira.

Tronkalitatearen eremuan baserria zer den zehazteko interpretazio-arau hau ezartzen da:

«Baserria horri lotutako lurrekin batera doan eskualdatzean, eskualdaketa horrek bere baitara bilduko ditu, kontrakoa xedatu ezean, baserrian bertan hura ustiatzeko dauden altzariak, abelburuak, ustiatze-eskubideak, makineria eta instalazioak» (EZZL 71).

Hala eta guztiz ere, «*ez da lehenespenez eskuratzeko eskubiderik gertatuko, besterendutako finkak hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarri sektorizatuan badaude*» (EZZL 74; alderatu Lege 2/2006). Alegia, ondasunak familiarekin lotura izatea nekazal-eremura mugatu da, arrazoi sendorik adierazi gabe.

IV. IPARRALDEKO OHITURAK

Iparraldeko hiru euskal lurraldeetako bakoitzak bere historia juridiko pribatua bizi izan du:

1. Lapurdi: lurralde horrek, bai Ingalaterraren mende egon zen bitartean eta gerora Frantziako Iraultza bitartean ere, bizirik izan zituen bere erakunde zibilak. Lapurdiko ohiturak, Baionako Batzarrak 1514. urteko testu zabalean bildu zituen (*Les coutumes generales gardées et observées au pays et baillage de la Bourt*), oinarrian printzipio hauek jarrita: jabetza kolektiboa, landetxeak gobernatzeko jabetzaren tronkalekotasuna eta sexuen arteko berdintasuna.
2. Zuberoa: ohiturak lehenagotik baldin bazetozten ere, idatziz 1520. urtean jarri zituen Lextarreko Batzarrak (*Les coutumes generales du pays et vicomté de Sole*). Printzipio nagusietan, aipatzekoak dira tronkalekotasuna eta baserria zatitu gabe ondorengoei emateko ohitura.
3. Nafarroa Beherea: lurralde hori Nafarroako koroari lotuta egon da eta, 1611. urtean, Nafarroako Foru Orokorra gainditzeko asmoz, lege-bilduma egin zen (*Les Fors et costumes du Royaume de Navarre de çà ports*). Beste lurraldeetan bezala, printzipio nagusietan, tronkalekotasuna jartzen da eta eskuratutako ondasunak askatasunez xedatzeko aukera ere bai.

Frantziako Iraultza ostean, *Code de Napoléon* aldarrikatuz gero, indarrrik gabe utzi ziren. Hala eta guztiz ere, bertako euskal familiek beren ohiturei, bereziki landetxeak ondorengoei zatitu gabe transmititzeko ohiturari eusteko, egin izan dituzten ahaleginen berri eman izan dute legelariek:

«Mais, la conservation des patrimoines familiaux a survécu aux lois unificatrices de la Révolution française. En dépit du dogmatisme du législateur révolutionnaire qui, pour détruire tout particularisme provincial, divisa la France en départements, en dépit de l'unification du Droit français par le Code Civil de Napoléon en 1804 qui imposa á tous les français un droit individualiste et bourgeois aux antipodes du droit basque, les coutumes basques survivent encore»⁶.

V. ALDERAKETAREN ONDORIOZKO GOGOETAK

Horrenbestez, ondorioak egokien zehazteko, funtsezkoenetik abiatu behar da, hau da, erakunde juridikoen oinarrian dauden zuzenbidearen printzipio oro-

⁶ LAFOURCADE, M., La conception basque du droit de propriété. L'exemple d'Iparralde, *Euskonews*, 458 (2008).

korrak kontuan harturik ea zer nolako egitura topatzen den mamiaren hezur egiten duena.

1. Euskal Zuzenbide Zibileko Legeak eta Nafarroako Foru Konpilazioak zein irizpide partekatzen dituzte

1.1. Ohituraren presentzia eta garrantzia: bereziki lurraren jaurgoa, jaberia edo jabetza antolatzeko.

Bereziki idatziz jaso zituen Foru Berriak ohiturazko erakunde asko, eguneroko praktikan konponbide juridikoak ematen aritu direnak. Berez, gainerako foru-zuzenbide guztiak bezala, familiari eta oinordetzari buruzko zuzenbidea da Nafarroakoa ere, ondare-zuzenbideari dagokionez praktikan, obligazioen eremuan nagusiki, Kodeko egituraketak aplikatu izan baitira abokatu-jardunean eta epaitegietan. Ohituraren eremu nagusia, ordea, ondasunei dagokienez eta, funtsean, lurrari buruzko eraentzan egon izan ohi da.

Horregatik, jabetza pribatukoak dira norbanakoen edo pertsona juridikoen ondarearen barruan dauden ondasunak, bai eta estatuari edo 42 eta 43. legeetan ezarritako korporazioei dagozkien bakarreko ondasunak ere. Artikulu horietan aipatzen diren titularrak ohituraz egundaino iritsi direnak dira: kontzejuak, Nafarroako udal, barruti, haran, zendea eta almiradioak osatzen dituztenak; Baztango Haran eta Unibertsitate nobleak, eta Erronkari eta Zaraitzuko haranetako Batzarreak ere, horiek osatzen dituzten udalen nortasun juridikoari kalterik egin gabe; Errege Bardeako Batzarrak, beren ordenantzek eraenduta; santutegi, baseliza, kofradia eta horien antzeko erakundeen batzarrek edo «mere legos patronatuek», zuzenbide kanonikoak horiei ematen dien izaerari kalterik egin gabe; baserriarren kutxek, ermandadeek eta gizarte-nekazaritzako elkarteek, legez debekaturik ez badaude; fundazio pribatuek.

1.2. Etxea eta baserria: garrantzitsuena ez da eraikuntza, edo etxebizitza, jarduerarako dauden elementuak baizik. Noski, eskubide errealeen titulartasuna zehazteko orduan, tradiziozko ordenamenduan bereizten dira etxea eta etxeko lurak, eta auzoko edo herriko lurak (ez udalarenak). Azken horietan, jabetza tradizionalaren arabera onartzen dira gauza berberaren gainean hainbat eskubide erreal batera baliaraztea; hori ez da gertatzen jabetza liberalean, jaurgoa norbanako baten gain bateratua baitago, eta mugarik gabe gainera (ez denboran ez ahalmenetan).

Zehazki, Gipuzkoako ondazilegien egoera edo suposatu berberari erantzuna ematen dio Nafarroako 427 legeak: lurrari modu banaezinean batutakoa horren jabetzapean sartzen dela uste izanen da, baina inoren lurrean eraikitakoaren edo landatutakoaren gainean izan daiteke eskubide errealean bat. Eskubide erreala egoteak ez du esan nahi eskubide erreal mugatua denik; horregatik,

besteak beste, Jabetza Erregistroan inskriba daitezke, nahiz eta aldiari aldiko osagaiak zehaztu ez, hala nola egiteke dagoen obra hasi edo amaitzeko epeak, horren berezitasunak, aurrekontuak, hobekuntzak, erabilerak, ustiapena, xedea edo artapena; eta titular berberak eskuratzen baditu lurraren jabetza eta horren gaineko eskubide berezietatik batzuk, batari eta besteei eragiten dieten eskubideek modu bananduan kargatzen jarraituko dute.

1.3. Finkak ixteko aukera: Foru Berrian jabe orok eskubidea du bere finkak ixteko, baina errespetatu beharko du finka horien gaineko eskubide errealeen egikaritza. Finka itxita dagoela ulertuko da, hori pezo-horma edo hormaz, alandun sarez, palaxu edo oholesiz nahiz beste modu batera inguraturik badago, eta horretan atea, langa edo kereta jarri bada, tokiko usadio edo ohiturarekin bat etorritik. Bat dator Kodeketako eraentzarekin eta orain euskal autonomia erkidegoan ezarri berri den araudiarekin.

1.4. Zerbitzutzak: zortasunak eskuratzen dira, ondasun higiezinaren gaineko preskripzio arruntaren bidez edo preskripzio bereziaren bitartez. Gero, eraentza berezia aurreikusten du zerbitzutzaren preskripzioarentzat. Usukapioz eskuratzeko aukeraren arabera, gertatzen da erabilgarritasunik gabeko zerbitzutzak ere sortu daitezkeela.

1.5. Obligazio-zuzenbidea: askatasun zibila edo borondatearen autonomia da erregela nagusia. Foru Berrian araudi osaturik badago, beti ere kontratuko obligazioen oinarriak ezartzeko estatuak duen eskuduntza errespetatuz; aldiz, euskal autonomia erkidegoan irizpide programatikoak besterik ez dira jasotzen, esanbidez nekazal errentamenduei buruz eta sozietate zibilak sortzei buruz.

2. Inguruko beste zuzenbide zibilek badute antzekotasunik gai honetan

Aragoan, ondare zuzenbidea osatzen duten erakunde nagusiak hauek dira: auzotasun harremanak; zerbitzutzak; abolorio edo saka-eskubidea; eta abeltzaintzari buruzko kontratuak.

Katalunian eskubide errealei buruzko araudia erabat osatua eta sistematizatua dago, ondasunak sailkatzetik abiatu eta behin behineko nahiz behin betiko eskubide erreal guztiak (osoak eta mugatuak) arautuz.

3. Zein etorkizun aurreikusi Euskal Zuzenbide Zibileko eta Nafarroako Konpilazioen legeei

Aipamen moduan besterik ez bada ere, aipatutako gaiez aparte badira beste lotura-puntuak araudia garatzeko, bereziki kontuan izan beharrekoak euskal autonomia erkidegoan, historia juridiko-pribatuan agertzen direlako:

1. Auzotasun-harremanen eremuan, landaketen arteko distantziak.
2. Bazkideen mendiak: herri-ondasunen desamortizazio aldian auzokoek, hainbat kasutan, lurak beren eskutan eusteko erosketa egin eta erki-dego edo sozietate zibilak sortu zituzten, mendien aprobetxamendua bermatzeko herrikoentzat.
3. Gasaila (*aparcería*): eskribauen lanari esker, nekazaritza eremuko erlazio asko arautu ziren eta, horien artean, garrantzia praktikoa izan zuen gasailak, animalienak bereziki. Gaur egun praktika horiek integrazio-kontratuak burutuz bideratzen dira eta bide hori landu behar da.
4. Auzokoen lankidetzak: autonomia pribatuaren printzipioa eta itunak egiteko askatasuna baliaraziz, formalizatu izan dira, betidanik, erlazio eta kontratu-mota ugari, nekazaritzan elkar-hartu eta laguntzekoak asko.

Zehazki, nekazal/baserri-eremuari begira, zein behar eta erronka dauzkan kontuan izanik, gida-bide batzuk aurreratu daitezke. Horretarako ordenamendu zibileko printzipioetatik abiatu behar da:

1. Objektuari buruz, nekazaritza eremuaz arduratu eta aprobetxatzeko dauden egiturak (ustiategiak, baserriak) berregituratu behar dira. Maila horretan, jabeek (baserritarrei) lagundu nahi bazaie erakunde publikoetatik, jadanik nekazale-politikari buruzko legean aurreikusita dauden laguntza publikoak abian jarri behar dira: kontzentrazio partzelarioa, hasteko eta modu urgentean; gero ustiategiak elkartzeko bideak irekitzeko, eta elkartuak babesteko. Horrela, jabetza-eskubidearen objektu diren tresna bideragarriak bultzatuko lirateke.
2. Subjektuari dagokionez, berriz, baserritarraz fidatzea apustu segurua da, harrotasunez erakusten dugun euskal paisaiak frogatzen duenez. Horretaz aparte, erantzukizuna eman behar zaio; hau da, egiten duen lanean sinistu eta, askatasun zibila mamituz, bere ustiapenean erabakiak hartzeko erabateko autonomia sustatu behar da. Beraz, kasu honetan, laguntza publikoak jabetza pribatua indartzera eta ez eragoztera zuzendu behar du.

Horretarako, kontuan izan behar da ondasun-zuzenbideko eta eskubide errealei buruzko sistemaren ardatza jabetza-eskubidea dela, eta horren funtzioa eta edukia ulertzeko, baliabide bakoitzak duen izaerari erreparatu behar zaiola: (a) ondasuna materiala bada, erabilera eta aprobetxamendua mugatzera jotzen da, bereziki baliabide naturalak baldin badira; (b) aldiz, ondasuna izaeraz ez-materiala bada –kapitala eta sormena (jabetza intelektuala eta industriala)–, bere eraentzak askatasuna du oinarri. Azken horiek garatzeko eskumena, dena den, estatuarena da esklusiban.

VI. OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- ALLI ARANGUREN, Juan Cruz, Las corralizas en Navarra. Historia, naturaleza y régimen; eta El dominio concellar, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 315-402. or.
- ARCOS VIEIRA, María Luisa, Aproximación al estudio de la usucapión en Derecho Civil Navarro, *Revista Jurídica de Navarra*, 24 (1997), 59-115. or.
- ARIZKUN CELA, Alejandro, Las facerías en el Pirineo Navarro: una perspectiva histórico-económica, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 299-314. or.
- EGUSQUIZA BALMASEDA, María Ángeles, El Derecho patrimonial: ese gran desconocido, *Revista Jurídica de Navarra*, 33.2 (2002), 39-48. or.
- GALÁN LORDA, Mercedes, El régimen de la propiedad en el Fuero General de Navarra, Fuero Reducido y disposiciones de Cortes, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 45-102. or.
- GALILEA SALVATIERRA, Pedro, Los conflictos en torno a los derechos de propiedad en la revolución liberal: algunas particularidades del Régimen Foral Navarro. Una aproximación económica, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 127-160. or.
- LACRUZ BERDEJO, José Luis, El Congreso Nacional de Derecho Civil, *Anuario de Derecho Civil*, I (1948), pp. 145-155.
- LAFOURCADE, Maité, El Derecho privado de Iparralde en el Antiguo Régimen: la organización de la familia. *Los derechos históricos vascos*, Oñati: HAAE/IVAP, 1988, 213.
- La conception du droit de propriété en Vasconie Continentale sous l'Ancien Régime, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 161-184. or.
- La conception basque du droit de propriété. L'exemple d'Iparralde, *Eusko-news*, 458 (2008).
- MONREAL ZIA, Gregorio, FEDHAVen eta *Iura Vasconiae* aldizkariaren edukien aurkezpena, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 13-15. or.
- SALINAS QUIJADA, Francisco, Elementos de derecho civil de Navarra, *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Derecho*, 8 (1993), 43-62. or.
- SANTAMARÍA ANSA, Juan, El Derecho civil de Navarra, *Revista Príncipe de Viana*, 62 (1956), 95-101. or.
- SORIA SESÉ, Lourdes, La recepción en Vasconia Occidental de la normativa castellana sobre propiedad, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 103-126. or.
- ZABALZA, Alexandre, Tierra y propiedad, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 25-42. or.
- ZUBIRI JAURRIETA, Amparo, Facerías y faceros: una perspectiva histórico-jurídica, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 253-298. or.

Euskal oinordetza zuzenbidea: Erdi Aroko foruetatik XXI. mendeko Europara. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa ispiluaren aurrean

Leire Imaz Zubiaur

Aurkibidea

I. SARRERA: EUSKAL OINORDETZA SISTEMA ZUZENBIDE PIRENAIKOAREN EREDU. II. EGUNGO MARKO JURIDIKOA: ESPAINIAKO KONSTITUZIOA (1978), NAFARROAKO FORU BERRIA (1973) ETA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO LEGEA (2015). III. HEGOALDEKO EUSKAL LURRALDEEN OINORDETZA SISTEMAK: ELEMENTU KOMUNAK. 1. Hausnarketa orokorra. 2. Oinordetza antolatzeke tresnak: euskal sistemen malgutasuna agerian. 3. Derrigorrezko oinordetza. 3.1. Aiara. 3.2. Nafarroa. 3.3. Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba. IV. ONDORIO GISA. V. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA: EUSKAL OINORDETZA SISTEMA ZUZENBIDE PIRENAIKOAREN EREDU

Oinordetza zuzenbidea pertsona fisiko bat hil eta ondorengo gertaera juridikoak arautzeaz arduratzen da. Nortzuk izango diren hildakoaren oinordekoak, zein gaitasun izan behar duten pertsona horiek oinordeko izateko, noiz izan behar duten oinordetzeko gaitasun hori, zenbat jasoko duen bakoitzak, zein baldintzetan jasoko duen... Fenomeno guzti hori da oinordetza zuzenbidearen eremua, kasuaren arabera nazioarteko zuzenbide pribatuarekin edota zerga zuzenbidearekin partekatzen duena, alegia. Gure esparrua, zibila, araudi substantiboari dagokiona da; hots, *mortis causa* oinordetzaren muina, esentzia arautzea. Pertsona baten ondarearen hil osteko eszenatokia argitzea, ondasun, eskubide eta betebeharren titulartasunaren inguruan suerta daitezkeen gatazkak ebatziz.

Oinordetza zuzenbideak *gizartea*, *ondarea* eta *familia* ulertzeko modu jakin bat barnebiltzen du. Horregatik, gure inguruan, oinordetza zuzenbide eredu ugari eta ezberdinak daude. Espainiako Estatuan, esaterako, zazpi oinordetza zuzenbide daude, zazpi araudi ezberdin *mortis causa* oinordetza erregulatzen

dutenak. Bat, zabalduena, ‘komuna’ deritzona, ESPAINIAKO KODE ZIBILA-k eskaintzen duena da; Zuzenbide erromatarren eta Gaztelako tradiziozko zuzenbidearen batura dena, hain zuzen ere. Hau da ordenamendu aplikagarria ia Estatu osoan, pertsona kopuruari erreparatuz gero. Beste seiak, eredu ‘zentralizatu’ horretatik aldentzen diren ‘sistema periferikoak’ dira, hots, sei autonomia erki-degoren berezko araudiak: GALIZIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA, NAFARROA, ARAGOI, KATALUNIA eta BALEAR UHARTEAK. Lurralde hauen orografiak garrantzia izan du erromanizazio mailan (denek ez dute jasan eragin maila bera, hala ere: Araba, Nafarroa, Katalunia eta Balear Uharteak dira erromanizazio maila altuena jasan dutenak); baita, alderantziz ere, germaniar herrialdeekiko nahastura mailan ere (Bizkaia, Gipuzkoa eta Aragoi izango dira, ziurrenik, ‘germanizatuenak’, oinordetzaren esparruan). Oro har, penintsulako iparraldeko lurraldeak dira aipatutako gehienak, menditsuagoak, familia ondarearen ikuspegi jakin bat mantendu dutenak, alegia. Mendetan zehar bizirik egon diren zibilizazio, kultura eta ordenamendu ezberdinen nahastura dira denak, baina komunean hainbat ezaugarri mantentzen dituztenak, alegia.

Pirinioetako mendikatearekin nolabait lerrotuak, lurralde hauen oinordetza sistemaren esentzia, mendetan zehar, familiaren ondarea belaunaldiz belaunaldi bateratua transmititzea izan da, biziraupenak hala galdatuta. Kontuan hartu behar da lehenengo legezko testu substantiboak, herri baten berezko oinordetza sistema islatzen dutenak, XIII. mendetik aurrera sortzen direla. Erdi Aroan hiribilduak sortzen dituzte Nafarroako, Aragoiko eta Gaztelako erregeek, pribilegioz jositako *hiri gutunak* eskainiz hiritar berriei, hots, *foru frankoak* deiturikoak. Kontzesio hauek desoreka garrantzitsua sorrarazten dute hiri lurraren eta landa lurraren artean eta azken honek, bere ohiturazko zuzenbidea mantentzeko eta finkatzeko, batzar nagusien bitartez, berezko foruak idatzi eta onartzen ditu, gerora errege ezberdinek zin egingo dituztenak. Berezko foru hauen adibide dira, besteak beste, honakoak, gure lurraldeari dagokionez: Nafarroako Foru Zaharra eta, gerora, Orokorra (1238-XIV. mendea¹; 1330ean eta 1418an ‘hobe-

¹ «Cuando en 1234 ocupa el trono de Navarra el rey Teobaldo I, de la casa de Champagne, apoyado por una clase nobiliaria deseosa de ver satisfechos sus intereses, lo primero que el monarca se ve obligado a hacer es jurar los fueros y costumbres del reino. Pero las disensiones comenzarían pronto al enfrentarse, de un lado, el interés monárquico por hacer valer preeminencias, y de otro, la nobleza, decidida a defender particulares intereses encubiertos en el mantenimiento de unos fueros que el rey había jurado guardar el día de su entronización. Se hacía necesario, pues, tanto para uno como los otros conocer el contenido de tales fueros para deducir las obligaciones recíprocas. Como consecuencia de ello, el rey nombró el día 25 de enero de 1238 una comisión compuesta de nobles, caballeros y miembros del clero para que, bajo la dirección del rey y el obispo de Pamplona, redactaran “*aqueillos fueros que son e deven seer nos et eillos*”.

El resultado de la labor realizada por la comisión fue lo que se ha llamado Fuero Antiguo, reducida compilación de doce artículos, acompañada de un discutido prólogo sobre la “pérdida de España” por

tua’); Aiarako Forua (1373²); Durangoko Forua (XIV. mendea³); Avellanedako Forua (1394); Bizkaiko Foru Zaharra (1452); Enkarterrietako Forua (1505) eta Bizkaiko Foru Berria (1526), azken hau indarrean 1959ko Bizkaiko eta Arabako Konpilazioa onartu arte, Bizkaia osoan 1574. urtetik aurrera. Gipuzkoa izango da euskal lurraldeetatik berezko foru idatzirik izango ez duena, nahiz eta bere landa lurean egunerokoan ohiturazko berezko zuzenbideari eutsiko dion. Araban, berriz, Aiara, Audio eta Aramaio kenduta (azken bi hauek Bizkaiko Forupean geratuko direlako) Gaztelako zuzenbidearen araudia gailenduko da. Iparaldeko euskal lurraldeek euren ohiturazko zuzenbideak eratutako instituzioei eutsi zieten –ingelesez eta, aurrerago, frantsesez mende–, 1789an Frantziako Iraultzak ezabatu zituen arte. Lapurdin aipagarriak dira 1215eko Baionako Hiri Forua eta 1514ko bi bilduma –indarrean zeuden ohitura orokorre dagokienez, bata Lapurdirentzat eta bestea Baionarentzat (Lapurdiren eta Baionaren arteko bereizketa argi erakusten dute hainbat testuk)–. Zuberoari bagagozkio, berriz, aipagarria da 1520ko Ohituren Bilduma; eta Behe Nafarroari dagokionez, azkenik, 1611ko Foru eta Ohituren Bilduma⁴. Hala, Erdi Aroko panorama juridikoa argi marrazten duen mapa bat sortzen da berezko foruak onartzen direnean, batez ere Hego Euskal Herriko lurraldeetan: alde batetik, hiribilduak daude, foru

causa de la invasión musulmana, y que a juicio del Profesor Lacarra constituye la base de lo que luego se llamará Fuero General de Navarra. Lógicamente, el contenido del Fuero Antiguo tiene mucho que ver con los problemas y tensiones originados entre la nobleza y la monarquía. Lentamente, a lo largo del siglo XIV se irán añadiendo a este núcleo básico fueros generales del reino y normas de diverso tipo que conformarán el texto calificado a fines de esa centuria como Fuero General de Navarra», GACTO FERNÁNDEZ, E., ALEJANDRE GARCÍA, J. A., GARCÍA MARÍN, J. M., *Manual Básico de Historia del Derecho*, Madril: Dykinson, 2013, 38 eta hurrengo orrialdeak.

² Aiarako Foruan aditua, URIARTE LEBARIO, L. M., *El Fuero de Ayala*, Madril: M. G. Hernández Semeen Inprenta, 1912.

³ XI. eta XII. mendeetan kokatzen dute Durangoko Forua honako egile hauek: VICENTE ZAVALA, S. J., *La Villa de Durango*, «Temas vizcaínos» bilduma, XX. urtea, 235.-236. zk., uztaila-abuztua, Bilbo, 1994, 14. eta 15. or.; ITURRIZA Y ZABALA, J. R., *Historia de Vizcaya: general de todo el Señorío y particular de cada una de las anteiglesias, villas, ciudad, concejos y valles, desde su fundación hasta 1885* (1897. urtera arte J. R. de Iturriza y Zabalak idatzia eta, gaur egun arte, Manuel de Azcárraga y Régilek zabaldua), Bilbo, 1885, 180. or.; LABAYRU Y GOICOECHEA, E. J., *Historia General del Señorío de Bizcaya*, II. liburukia, Bilbo: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, 1968, 147. or.

Forua XIV. mendean kokatzen dute, aldiz, beste hauek: ZAMÁCOLA, J. A., *Historia de las Naciones Vasas de una y otra parte del Pirineo Septentrional y cosas del mar Cantábrico desde los primeros pobladores hasta nuestros días*, III. liburukia, Auch, 1818, 113. or.; ARGUINZONIZ, A. M., *Sinopsis histórica de la Villa de Durango y noticia biográfica de sus hombres más célebres*, Durango: Museo de Arte e Historia, 1989, 43. or.; GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A., ARIZAGA BOLUMBURU, B., RÍOS RODRÍGUEZ, M. L. eta DEL VAL VALDIVIESO, I., *Bizcaya en la Edad Media*, IV. liburukia, Donostia, 1985, 64. or.; DÍEZ DE UNZUETA, I., Comentario jurídico al Fuero Antiguo de la Merindad de Durango, *Cuaderno de Historia Duranguesa*, Bilbo: Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1983, 46. eta 47. or.

⁴ Ezinbesteko ikerketa da LARRAZABAL BASAÑEZ, S., *Derecho público de los territorios forales*, Oñati: IVAP, 2004, 15.-26. or.

frankoen bidez Gaztelako zuzenbidea jasotzen dutenak (1348ko Alcalako Ordenamenduaren eta Partiden eskutik)⁵. Bestetik, Lur Laua –Gipuzkoan eta, Aiara kenduta, Arabako lurralde ia osoan izan ezik–, berezko foruek arautua⁶. Euskal instituzio publikoen eremuan, ordea, lurralde bakoitzeko Batzar Nagusietara ordezkari guztiak joaten ziren, bai hiribilduetakoak baita Lur Laukoak ere, gai komunez aritzeko. Batzar partikularrak ere egiten ziren, haiez gain, hiribilduen artean nahiz Lur Lauko ordezkarien artean, batzuei eta besteei zegozkien gaiez aritzeko⁷.

Zuzenbide pirenaikoaren eremupean, beraz, Ertaroko Foru hauek landa lurreko biztanleen beharrian ekonomikoei aurre egiteko erantzun bateratu eta koherente bat eskainiko dute. Oinarrian, familiaren ondarearen zatiezintasuna aldarrikatuko dute, nekazaritzako, abeltzaintzako edo artisau ustiapena baita lur lauko familia gehienek bizibide bakarra. Izatez, lur lauan, baserriak produkzio eta kontsumo zelula bat osatu izan du XX. mendeko azken hamarkadak heldu bitartean: ustiapenak ematen duena bilakatzen da baserrian bizi den familia zabalara aurrera ateratzeko tresna nagusia, bakarra ez denean. Horregatik, arbasoengandik jasotako ustiapenaren zatiezintasuna bertan bizi den familiaren biziraupena bermatuko duen elementua izango da, mendetan zehar. Moral kristauaren eraginez, gizona eta emakumearen arteko ezkontza izango da familia eredu hedatuena: bere itzalpean ezkontideen familien arteko itun eta aliantzak ugalduko dira, adostutako ezkontzak, alegia, sendi bakoitzaren ondarearen banaketa orekatua gauzatzea bilatuko dutenak. Eszenatoki honetan, Foruen araudiek *jabetza*, *familia* eta *oinordetzaren* arteko lotura argia islatzen dute. Hau da, beraz, gure

⁵ MARTÍN OSANTE, L. C., *El régimen económico matrimonial en el Derecho vizcaíno*, Madril: Marcial Pons, 1996, 157. or.; NAVAJAS LAPORTE, A., Aproximación a la historia de la formación del Derecho territorial del País Vasco, *Saileko Koadernoak. Zuzenbidea*, 1 (1984), Donostia: Eusko Ikaskuntza, 17.-32. or.; ALLENDE SALAZAR, A., El dualismo en la legislación civil de Vizcaya, *RGLJ*, 54 (1879), 60. eta hurrengo orrialdeak.

⁶ Ezinbesteko ikerketa klasikoak dira LECANDA MENDIETA, M., *Memoria de las instituciones civiles de Vizcaya*, Madril: Liburutegi Judizialean Bizkaiari dagokion liburukian argitaratua, 1888; HORMAECHE, R., *Leyes civiles de Vizcaya*, Bilbo: Tipografía Católica de José de Astuy, 1891; CHALBAUD Y ERRAZQUIN, L., *La troncalidad en el Fuero de Bizcaya*, Bilbo, 1898; JADO Y VENTADES, R., *Derecho civil de Vizcaya*, Bilbo, 1900 (2. edizioa, Bilbo, 1923); VICARIO DE LA PEÑA, N., *Derecho consuetudinario de Vizcaya*, Madril, 1901 (1995ean Bizkaiko Foru Aldundiak berargitaratua); PLAZA Y SALAZAR, C., *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1902; BALPARDA Y DE LAS HERRERÍAS, G., *El Fuero de Vizcaya en lo civil*, Bilbo, 1903; ANGULO LAGUNA, D., *Derecho privado de Vizcaya*, Bilbo, 1903; eta SOLANO Y POLANCO, J., *Estudios jurídicos del Fuero de Bizcaya*, Bilbo: Casa de misericordia, 1918.

⁷ MONREAL ZIA, G., Desarrollo histórico de las Juntas Generales del Señorío de Bizkaia hasta 1841. ZENBAITEN ARTEAN, *Las Juntas Generales de Bizkaia*, Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1986, 36. eta hurrengo orrialdeak.

abiapuntua. Hegoaldeko euskal lurraldeen oinordetza sistemek duten enbor beraren lehenengo marrazkia.

II. EGUNGO MARKO JURIDIKOA: ESPAINIAKO KONSTITUZIOA (1978), NAFARROAKO FORU BERRIA (1973) ETA EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO LEGEA (2015)

Erdi Aroko berezko foruak mendetan zehar indarrean egon ondoren eta Espainiako Kode zibilari egin ‘behar’ zitzaizkion Eranskinen faseak porrot egin ostean, Konpilazioen garaia gaudituz (Nafarroak eta Balear Uharteek oraindik ere Frankismoaren garaian onartutako testu haiekin dihardute), Espainiako Konstituzioak aro berri bat irekitzen du. Bere 149.1. artikulua estatuen eskumen eksklusiboak adierazten ditu, horien artean zuzenbide zibileko legeak egiteko ahalmena (zortzigarren azpitala). Hala ere, zuzenbide zibilaren eremuan, atal honek estatuen eskumen orokor haren gainetik jartzen du –lehentasuneko baita– berezko foru-zuzenbidea duten lurraldeen eskumena, euren zuzenbidea *kontserbatzeari, aldatzeari eta garatzeari* dagokionez, zehazki. Eskumen hori onartzea, ordea, ez da beharrezkoa, hautazkoa baizik. Autonomia-erkidego bakoitzaren esku geratzen da, orduan, eskumen hura bere egitea, betiere, ezinbestez errespetatuta EKko 149.1.8. artikulua zerrendatutako estatuen eskumen eksklusiboak.

EKren 149.1.8. artikulua, orduan, berezko zuzenbide zibila duten autonomia-erkidegoei hura *kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko* aitortzen dien eskumena dela eta, ordea, eztabaida handia sortu da azken urteotan doktrinan, *garatu* terminoaren zentzuari buruz. Izan ere, ez da gai makala: zenbateraino *garatu* dezake autonomia-erkidego batek bere zuzenbide zibila? Ba al du horretarako mugarik? Galdera horiei erantzun dieten adituen artean hiru ildo edo iritzi bereizten dira⁸: zabala, murriztailea eta erdibidekoa, azken hau Espainiako

⁸ GETE-ALONSO Y CALERA, M^a. C., La Codificación civil, *Manual de Derecho Civil*, I, *Introducción y Derecho de la persona*, 3. edizioa, Madril: Marcial Pons, 2001, 46. eta 47. or.: «La explicación e interpretación de la palabra “desarrollo” del artículo 149.1.8 CE ha originado distintas posiciones doctrinales: 1^a. La interpretación amplia entiende que las Comunidades Autónomas pueden legislar, respecto de su Derecho civil sobre cualquier materia, sin más restricciones que la reserva de aquellas materias que ha hecho el Estado para sí mismo (PUIG I FERRIOL/ROCA TRIAS y la mayor parte de los juristas catalanes). Es ésta la que se acomoda mejor a los postulados constitucionales, si bien fue rechazada por la STC 88/1993 de 12 de marzo. 2^a. La posición intermedia considera que el límite de la competencia se encuentra en los principios contenidos en las Compilaciones. Esto, sin embargo, no impide que el legislador autonómico pueda regular «materias conexas» con el Derecho civil no comprendidas en las Compilaciones (DELGADO ECHEVERRÍA, BERCOVITZ Y RODRÍGUEZ CANO y la STC 88/1993 de 12 de marzo). 3^a. Las teorías restrictivas entienden que el límite de la competencia viene determinado por el contenido de las respectivas Compilaciones, más allá del cual no puede legis-

Konstituzio Auzitegiak 88/93 epaian berretsia. Ikuspegi zabalak, EKren 149.1.8. artikulua zerrendatzen dituen estatuaren eskumen eksklusiboak jotzen ditu muga bakartzat; murriztaileak, berriz, Konstituzioa aldarrikatu aurreko konpilazioen araudia hartzen du derrigorrezko helmugatzat, erdibidekoa, bere aldetik, araudi konpilatu horiekin erlazio zuzena duten instituzioak ere garatzeari lotuz.

Badira zenbait autonomia-erkidego, EKren 149.1.8. artikulua babestean eta 88/93 epaiak ezarritako mugaren baitan, autonomia-estatutuan beren zuzenbide zibila *kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko* eskumena jaso dutenak. Gogora dezagun, berez, eskumen hori ez dela ezinbestean bete beharrekoa, hautazkoa baizik. Eskumena bere egin arren, ordea, autonomia-erkidego guzti horiek ez dute foru-zuzenbidea deritzonaren gaineko lege autonomikorik egin, honako hauek baizik: Katalunia, Aragoi, Balear Uharteak, Galizia, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa. Gurean, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, zuzenbidearen leku Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko 3/1992 Legea derogatua jada, egun 5/2015, ekainak 25eko Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legea jasota dago bizirik dirauen euskal foru-zuzenbidea; Nafarroak, bere aldetik, 1973ko Foru Berria indarrean du, oraindik. Bi lege horiek arautzen ez dituzten esparruetan, ordezko araudia Espainiako Kode Zibila da, jakina denez.

Hala ere, ezin aipatzeke utzi, puntu honetan bertan, *Valentziaren* kasua. Bitxia da Espainiako Konstituzioak autonomia-erkidegoak gai bakar batean diskriminatzea, hain zuzen ere, zuzenbide zibilean, edo, hobeto esanda, legegintza zibilean. Izan ere, Espainiako Konstituzioak *foralismoa* hartzen du irizpide nagusitzat, 149.1.8. artikuluan ageri den eskumena aitortzeko. Eskumen hori *bide azkarra* erabili zuten erkidegoentzat zen, berez, haien estatutuetan eskumen hori aitortzen eta onartzen zutenentzat, alegia. Baina Aragoiren eta Balear Uharten kasuan, *bide azkarreko* autonomiak izan ez arren eta beren estatutuetan 149.1.8. artikuluko eskumena jaso ez arren, estatuak ez du horien legeen aurka jo, historikoki lurralde forudunak izan baitira. Valentziak ere luzaroan izan zuen indarrean bere ordenamendu propioa, eta, gainera, haren estatutuaren 31.2. artikuluan bere egiten du EKren 149.1.8. artikuluko eskumena. Hala ere, bere *Errendamendu Historikoen Legearen* aurka egin zuen estatuak, antza Valentziako foru-zuzen-

larse (DÍEZ-PICAZO/GULLÓN BALLESTEROS, LASARTE, GARCÍA AMIGO). El desarrollo, por tanto, se ve notablemente restringido».

Ikus, orobat: DELGADO ECHEVERRÍA, J., Los derechos Civiles Forales en la Constitución, *RJC*, 3 (1979), 145 eta hurrengo orrialdeak, eta Doctrina del Tribunal Supremo sobre la competencia legislativa autonómica en materia de Derecho Civil, *Revista Aragonesa de Administración Pública*, 4 (1994), 361. eta hurrengo orrialdeak; eta BELLO JANEIRO, D., *El ejercicio de la competencia en materia civil por la Comunidad Autónoma Gallega: La Ley 4/1995, de 24 de mayo*, Madril: Montecorvo, 1999.

bidea ez zegoelako bizirik Konstituzioa aldarrikatu zenean (bai aldiz aurreko bi erkidegoetan). Hala ere, estatuak onartu egin behar izan du, 121/1992 sententziaz geroztik, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak (EAK) hala ezarririk, EKren 149.1.8. artikulua aurreikusten duen foru-zuzenbidea edo zuzenbide berezia garatzeko eskumena ez dagokiela konpilazioa izan zuten lurraldeei bakarrik, baita Konstituzioa aldarrikatu zenean *berezko ohitura pribatua* bizirik zutenei ere. Eremu horretan (mugatua, hala ere) kokatu da Valentziako legea; bere ohituraren garapen konstituzionalaren barnean, alegia.

Nolanahi ere, Espainiako Konstituzio Auzitegiak 88/93 epaian bere egini-ko erdibideko garapen-irizpideak berezko zuzenbide zibila duten autonomia-erkidegoetako legebiltzarrei ezartzen dien muga hori ez da uste bezain argia. Are gutxiago, ikuspegi politikotik aztertuta, estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumenen banaketan edo eta banaketa horren exekuzioan adostasunik ez badago. Esan nahi baita EKren 149.1.8. artikuluan oinarrituta eskumena duten autonomia-erkidegoak maiz saiatu direla EAKren 88/93 epaiak jarritako muga gainditzen edo urratzen. Eta estatuak erantzun egin duela: batzuetan, garapenok Konstituzioaren kontrakoak direla eta helegiteak aurkeztuz, eta beste batzuetan –inguruabar politikoen arabera–, berriz, berak jarritako muga gainditzeari aurre ez eginez. Kontua ez da azalekoa. Eta horren adibide garbia dira berezko zuzenbide zibila duten autonomia-erkidegoek gauzatu dituzten legedi-ibilbide arraz ezberdinak. Batetik, eta garapen mailarik gorena islatuz, *Katalunia* dago; nolabaiteko eredu ‘federalari’ jarraiki bere Kode zibil propioa aldarrikatuz, estatuaren eskumen eskusiboetan eskua sartu gabe [nahiz eta Kataluniako Autonomia Estatutuari buruzko Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 31/2010 epaiak, testu katalanaren 129. artikulua interpretatuz, autonomia-erkidegoen zuzenbide zibilen neurririk gabeko garapena oztopatzen saiatu, ‘materia konexuak’, ‘berrikuntza’ edo ‘hazkunde organikoa’ bezalako termino lausoak erabiliz]. Bigarren lerroan *Aragoi* legoke, bere orotariko lege zibilak kodetzeko nahiak bultzatuta, erritmo mantsoagoan eredu katalanerantz luzatuz begirada. Hirugarren kate-mailan *Galizia* jarri beharko genuke, izan duenaren eta egun duenaren arteko jauzia kontutan hartuz, Espainiako Konstituzio Auzitegian aurkeztutako konstituziokontrakotasun arazoek arnasa lasai hartzen uzten ez badiote ere. Hain justuki, *Nafarroaren* kontrako kasua: hain zuzenbide zibila oparoa izan du mendetan zehar ezen haren garapenaren beharra urriagoa izan baita. Hala ere, Nafarroako Legebiltzarrak eratu berri du (2016ko martxoak 15ean), Foru Erregimenaren Batzordearen onospena dela medio, Nafarroako Foru Berria eguneratzeko eta XXI. mendeko errealiterata egokitzeko Ponentzia; kontuan hartuta, gainera, 2013ko apirilak 23ko epaian, Konstituzio Auzitegiak bikote egonkorren 2000ko Nafarroako Legearen zenbait atal konstituzio kontraktatzat hartu dituela. *Balear Uharteak* eta *Euskal Autonomia Erkidegoa*, bere aldetik, kokatu

izan dira, duela gutxi arte, egoera kaxkarragoan; bi erkidegoek jasaten baitzuten gehiegizko barne-zatiketak zailagotzen baitzuen, zoritxarrez, euren legeriaren garapen sendoa. Gure autonomia erkidegoak, EAEk, aurrera pausu bat eman du 2015eko Legearekin. *Valentziak*, finean, atea nahiko itxiak dauzkala ematen duen arren, 2009tik geldituta daukan oinordetzari buruzko legearen aldarrikapenarekin ‘mehatxu’ egiten dio EKren 149.1.8. artikulua interpretazio fosilizatuari. Konstituzio Auzitegiak erantzun berri dio enbiteari 2016ko apirilak 28ko epaiarekin, 2008ko ezkontzaren erregimen ekonomikoari buruzko legea bertan behera utziz, eskumen faltagatik. Antza, Valentziak ez du frogatu gai horri buruz Konstituzio aurreko araurik zuenik eta, horregatik, eskumen eremua gainditzeagatik, ez du lege zibil autonomikorik egiteko aukerarik izango ez bada Errentamendu historikoei dagokionez.

Gauzak horrela, egun zabal-zabalik dago lerro hauetan zuzenean jorratzen ari garen gaiarekin zeharo loturiko dikotomiaren gaineko eztabaida: **foru-zuzenbidea versus zuzenbide zibil autonomikoa**. Zer da, bada, zuzenbide zibil autonomikoa eta zer foru-zuzenbidea? Luze hitz egin dute adituek gai honi buruz eta posizio juridikoak ugariak dira, batera edo bestera⁹. Argi dago eztabaidatutakoa ez dela, bederen, gako terminologiko hutsa: badu, atzetik, esangura juridiko eta politiko bat, eta, beraz, halako edo bestelako ondorio juridikoak zein politikoak. Edozelan ere, oinarritzko arazo terminologikoari eutsiz, honako esamolde hauek topatzen ditugu aztergai diren testu garrantzitsuetan. Esaterako: (1) Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikuluan *derechos civiles, forales o especiales* esamoldea; (2) Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.5. artikuluan, ostera, *derecho civil foral y especial*. Azken batean, arazoa terminologikoa dela dirudien arren, eskumenaren oinarri bat ala bestea hautatzeak ondorio jakin batzuk ditu.

Zuzenbide zibilean, lehenengo atalean azaldu dugunez, foruak eta pribilegioak berdintzeko joera gaindituta, foru-zuzenbidea aipatzen denean, ez da adierazi nahi egoera berezi eta pribilegiatua edo irizpide bereizlea dagoenik. As-

⁹ Adjektibo horiek aztertzen dituzte, besteak beste, honako hauek: GARCÍA CANTERO, G., Por una interpretación del artículo 10.5 del Estatuto Vasco, *Primer Congreso de Derecho Vasco: Actualización del Derecho civil, celebrado de 16 al 19 de diciembre de 1982*, Oñati, 1983, 289-291. or.; ASÚA GONZÁLEZ, C. I., GIL RODRÍGUEZ, J. eta HUALDE SÁNCHEZ, J. J., Situación actual y perspectivas de futuro del Derecho civil vasco, *Derechos Civiles de España*, I, Rodrigo BERCOVITZek eta Julián MARTÍNEZ-SIMANCAsek zuzendua, Iruña: Aranzadi, 1999, 141-143. or., Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.5. artikulua dimentsioa eta esamoldeak sakon aztertzen dituena. Esamolde horiek aztertzen ditu honako honek ere: BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, R., Derecho Civil Foral, *Aranzadi Civil*, 18/2001, 11. eta 12. or. Eta hausnarketa interesgarriak biltzen ditu, halaber, beste honek: GIL RODRÍGUEZ, J., Qué son los Derechos civiles forales, *La Tierra de Ayala, Actas de las Jornadas de Estudios Históricos en conmemoración del 600 Aniversario de la construcción de la Torre de Quejana*, Arabako Foru Aldundia, 2001, 285. eta hurrengo orrialdeak.

katasunean oinarritutako ohituretatik sortu eta pilatu diren arau juridikoek osatzen dute foru-zuzenbidea; berezitasunen bat aipatzekotan, bilakaera historikoak hala eraginda, kodetze-prozesurik jasan ez duen zuzenbidea dela esan daiteke. Sortu diren lurraldeetan lege orokorrak dira foru-arauak, legeak egiteko gaitasuna zutenean garatu ziren tokian tokiko arauak. Foru-zuzenbideak, berez, lurralde bateko foru-arauak eta erakunde propioak biltzen ditu, eta, hortaz, lurralde jakin batzuetako zuzenbide osoa hartzen du bere baitan. Baina, azken bi mendeetan foru-jatorria duen zuzenbide pribatuarekin berdindu izan da foru-zuzenbidea. Horregatik, euskal foru-ondaretik bizirik iraun duten bertako erakunde zibilek osatutako multzoari deritzo foru-zuzenbidea¹⁰. Ildo honetan, Espainiako Konstituzioak foru-zuzenbide hori berezia dela esatea formazko akatsa edo erredundantzia soila dela diote aditu batzuek¹¹.

Espainiako Konstituzioak 149.1.8. artikuluan zenbait autonomia-erkidegori haien *zuzenbide zibila, forala edo berezia kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko* eskuduntza edo ahalmena ematen die, betiere Konstituzioa aldarrikatu zen unean zuzenbide horiek bizirik bazituzten («*allí donde exista*»). Eta bitxia da, gainera, kompetentzia hori *legedi zibilari* dagokiola, foru-zuzenbideak zuzenbide zibil osoa bilduko balu bezala; hau da, foru-zuzenbiderik ez duten autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilari loturiko legerik egin izango ez balute bezala. Hori egia ez dela frogatu da; hots, tradizioz foru-zuzenbidearen barne sartu izan dena ez dela zuzenbide zibil osoa. Beste hainbat esparru zuzenbide zibilaren baitan kokatzen dira eta autonomia-erkidegoek legeak egin dituzte horiei buruz, 149.1.8. artikulua eskuduntzatik at. Eta ez bakarrik berezko foru-zuzenbidea ez duten erkidegoek, badutenek ere egin dituzte zuzenbide zibilari buruzko legeak.

Argi ikus daiteke aurreko paragrafoan baieztatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluan. Bertan jasotzen dira esklusiboki Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskuduntzak, eta, egia esan,

¹⁰ ALKORTA IDIAKEZ, I. eta KARRERA EGIALDE, M., *Euskal Zuzenbide zibilaren oinarriak*, EHU, 2007 (argitalpen elektronikoa).

¹¹ GIL RODRÍGUEZ, J. eta HUALDE SÁNCHEZ, J. J., Prólogo a la *Ley del Derecho civil foral del País Vasco*, 2. argitalpena, Madril: Tecnos, 1999, 41. or. Beste iritzi batekoak dira hauek: BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, R., La conservación, modificación y desarrollo de los derechos civiles forales o especiales allí donde existan, *Derecho Privado y Constitución*, 1 (1993), 15-82. or.; PUIG I FERRIOL, L., El denominado problema foral desde la perspectiva de un Centenario, *Centenario del Código Civil* (Asociación de Profesores de Derecho Civil), II, Madril, 1990, 1.205-1.229. or. Baita hau ere: MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, C., Notas para la interpretación del inciso «...allí donde existan» del artículo 149.1.8 de la Constitución, *Primer Congreso de Derecho Vasco: Actualización del Derecho Civil*, celebrado de 16 al 19 de diciembre de 1982, Oñati, 1983, 238. or. Zentzu berean, ikus: ARECHEDERRA ARANZADI, L. I., Testar a la Navarra; Derecho consuetudinario guipuzcoano o descodificación, *RJNav*, 1 (1986), 97. eta 98. or.

horietariko asko zuzenbide zibilarekin zuzenki erlazionatuta daude eta legeak sortuz gauzatu dira. Alor ugari sartzen dira zuzenbide zibilaren esparruan, nahiz eta beste eremu batzuetako araudiarekin bateratua egon, administrazio-zuzenbidearekin, adibidez: 1. Mendi-basoak, oihanen erabilera eta zerbitzuak, abelbi-deak eta bazka-larreak; 2. Barne-uretako arrantza, itsaski-bilketa eta arrain-hazkuntza, ehiza eta ibai-aintziretako arrantza; 3. Irakaskuntzari, kulturari, artetari, ongintzari, ardura sozialari eta antzekoei laguntzeko fundazio eta elkarteak, baldin eta beren funtzioak ia erabat Euskal Herrian betetzen badituzte; 4. Adingabeen babes eta tutoretza, haiek kartzelatzeko eta birgizarteratzeko erakunde eta etxeen antolaketa; 5. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa; 6. Jabego intelektuala eta industrial. Askotariko legeak egin dira, zuzenbide zibilaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoaren baitan, Eusko Legebiltzarrak onartuak, alegia. Adibide gisa, hauek: Fundazioen 3/1998 Legea, otsailaren 12koa, Elkarleen 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Kooperatiben 1/2000 Legea, ekainaren 29koa (4/1993 Legea, ekainaren 24koa, aldatzen duena), edo Izatezko Bikoteei buruzko 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa. Nafarroan ere, 1973ko Foru Berriak barnebiltzen badu bere ‘foru-zuzenbidea’, hots, Erdi Aroko foruetan jasotzen zen zuzenbide zibila, badira bere zuzenbide zibilaren otzara betetzen duten beste hainbat lege testu, Foru Berritik at kokatzen direnak, baina: 6/2000 Legea, uztaileak 3koa, bikote egonkorren berdintasun juridikorako; 15/2005 Legea, abenduak 5koa, haurtzaroaren eta nerabezeroaren promozioa, atentzioa eta babesari buruzkoa; eta 3/2011 Legea, martxoak 17koa, gurasoen elkarbizitza haustean seme-alaben zaintzari buruzkoa.

Aurreko lerroetan esandakoak, beraz, iradokitzen digu, nolabait, Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan –eta, noski, ‘foru-zuzenbidea’ duten bestetan ere–, *zuzenbide autonomiko* bat dagoela, erkidegoak berak sortua bere legebiltzarraren ekimena dela medio; estatuak lagatzen dizkion eskuduntzetatik eratorria, alegia. Zuzenbide autonomiko horren barne, *zuzenbide zibila* dago, beste arlo batzuekin batera. Zuzenbide zibil hori, ordea, EKren 149.1.8. artikuluko eskuduntzatik etor daiteke (2015eko Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legea edo eta 2003ko EAEko Izatezko Bikoteei buruzko Legea zein 2000ko Nafarroako bikote egonkorren berdintasunerako Legea, adibidez) edo beste eskuduntza-tituluetan oinarritua, EKren 148. artikuluan aipatzen diren eta autonomia-estatutu bakoitzak eskusiboki bere egiten dituenetan oinarritua. Batzar Nagusietan onartzen ziren foruek autonomia erkidegoko legebiltzarrak aldarrikatzen dituen lege lerruneko arauak ireki diete bidea. Garaiak aldatu egin dira. Legezko testuen formatuak ere bai, halaberharrez. Eta arautzeko premia duten gaiak, ere. Zer da, bestela, lurralde baten zuzenbidea *garatzea*?

Orain arte azaldutakoak, esan bezala, badu ondorio praktikorik. Adibide gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2004ko abenduaren

10ean emandako autoa aipa daiteke. Auzitegiak bere eskumena aztertzen du auto horretan, kasazio-helegitea onartu ez izanagatik prozedurako alde batek aurkeztutako kexa-helegiteari erantzunez. Helegitea Kooperatibei buruzko Euskal Legean oinarritzen da, ekainaren 29ko 1/2000 Legean. Auzitegiak kasazioa ezagutzeko eskumena ezeztatzen du, kasu honetan, organo eskumenduna Espainiako Auzitegi Gorena dela eta. Erabaki hori arrazoitzeko emandako argudioen artean bereziki aipatzekoak dira honako hauek:

«La competencia de la Sala de lo Civil y Penal del Tribunal Superior de Justicia para conocer, como Sala de lo civil, del recurso de casación, queda ceñida, según resulta de lo dispuesto por el artículo 73.1.a) de la Ley Orgánica del Poder Judicial, al «que establezca la ley contra resoluciones de órganos jurisdiccionales del orden civil con sede en la comunidad autónoma, siempre que el recurso se funde en infracción de normas del derecho civil, foral o especial, propio de la comunidad, y cuando el correspondiente Estatuto de Autonomía haya previsto esta atribución».

«No dudamos que a los términos foral y especial no cabe atribuirles, en todo caso, una misma significación. Pero tampoco nos ofrece duda, ya sea lo infringido derecho foral o derecho especial, que debe tratarse, en todo caso, de derecho civil propio de la comunidad, pues la competencia tan sólo corresponde a la Sala de lo Civil y Penal del Tribunal Superior de Justicia, como Sala de lo Civil, cuando de tal derecho se trata, ya sea la infracción de norma de derecho civil foral o de norma de derecho civil especial».

Lehenago esandakoari utsiz, arestian aztertutako arazo terminologikoaren ondorioen dimentsioa nabarmendu daiteke auto horretan. Kooperatibei buruzko Euskal Legeak ez du zuzenbide zibilaren eremua bakarrik ukitzen, merkataritza-zuzenbidearen esparruan ere sartzen da. Baina, Kooperatibei buruzko Euskal Legea Euskal Autonomia Erkidegoan sortutakoa da, eta, beraz, hemengo berezko zuzenbidea. Eta gainera, hein batean, zibila. Zuzenbide zibilaren eremuko lege-testuek ez dute eskumen-oinarria, halabeharrez, EKren 149.1.8. artikuluan zertan eduki. Beste eskumen-eremu batzuetatik eratorriak izan daitezke, eta, zuzenbide zibil autonomikoa osatzen duten heinean –ez foru-zuzenbidea, ezta zuzenbide berezia ere–, kasazioan Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ezagutu beharko lituzke, orain eta etorkizunean. Gauza bera gerta daiteke denbora gutxi barru, Izatezko Bikoteen 2003ko Legeari buruzko auziei buruz Auzitegi Nagusiak kasazioan aritu beharko duenean, eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bere eremuko lege zibiletan ere. Lege horiek ez dute zuzenbide zibila soilik jorratzen, baina zuzenbide zibilarekin zerikusia duten hainbat eta hainbat elementu biltzen dituzte, eta zuzenean foru-zuzenbidearen eremuan sartzen ez badira ere, bada zuzenbide zibila eta, gainera, autonomikoa. Arriskua, beraz, argia da. Kasazio-helegitea dela medio, Justizia Auzitegi Nagusiak badu berezko zuzenbide zibila berrindartzeko aukera, baldin eta hori bada

helburua. Orain arte Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako jurisprudentzia oso urria da (2014 arte, 43 auto zein epai soilik). Epai horiek aztertu dituztenen arabera, foru-kutsu nabarmena dute, eta ez dira autonomia-erkidego osoan komuna izan behar duen ordenamendu zibila sortu eta indartzera bideratuak. Gainera, oro har, Kode Zibilera jotzen dute epaiok, auziak ebazteko. Hala ere, nondik hasi ordenamendu zibil komuna sortzen, duela hilabete gutxi arte ez bada egon EAeko lurralde osora hedatuta berezko araudi zibila? Kontuan izanik, EAeko Legebiltzarrak horretarako eskumena bazuela, Autonomia Estatutuaren 10.5. artikulua dela medio. Orain dela oso gutxi indarrean jarri den 5/2015 Legeak egin du aurrera pausua eremu horretan, zatikatuta zegoena ‘biltzeko’ asmoz. Hona hemen, pixkanaka, komuna dena batzeko saiareraren abiapuntua!

Beharrezkoa da, oso, EKren 149.1.8. artikulua apropos marrazten duen foru-zuzenbidearen esparru mugatuaren orde zuzenbide zibil autonomikoa ezartzea eta, behingoz, Espainiako Konstituzio Auzitegiak emandako 88/93 epaia zalantzan jartzea eta, noski, hartatik harago jotzea, Kataluniak Autonomia Estatutuaren 129. artikulua tankerara. Ordenamendu juridikoen pluraltasunak dakarren aberastasuna errespetatuz eta sustatuz. Bestela ere, inguruabar politikoek hala eskatu izan dutenean ere egin izan da, isilbidez. Hala erakusten du, esaterako, Espainiako Gobernuak, EKren 149.1.8. artikulua zehazten duen eskumen-antolaketa gainditzen zuela eta Izatezko Bikoteei buruzko Euskal Legearen kontra aurkeztutako konstituzio-kontrakotasuneko helegitea gerora Espainiako Gobernuak berak bertan behera utzi izanak, Nafarroaren kontrakoa ez bezala, era honetako arrazoiak argudiatuta: «*La decisión cuenta con el criterio favorable del Ministerio de Justicia y se enmarca dentro del objetivo del Gobierno de reducir la alta conflictividad acumulada entre el Estado y las comunidades autónomas, en un «nuevo entorno de cooperación y normalidad institucional» entre las Administraciones*». Argudio berak susta lezake beste edozein aldaketa juridiko-politiko. Eta erronka horretan kokatuta daude, egun, gure ordenamendu zibilak. Baita beste sistema autonomikoak ere.

III. HEGOALDEKO EUSKAL LURRALDEEN OINORDETZA SISTEMAK: ELEMENTU KOMUNAK

1. Hausnarketa orokorra

Heriotza orduan pertsonak dituzten harreman juridikoen norabidea eta gertaera horren ondorioz sorrarazitakoena ere arautzen duten araubide-sortaz osatutako Zuzenbide pribatuaren atal bezala definitzen baldin badugu Oinordetza zuzenbidea, oinordetza zuzenbideari ‘euskal’ bezalako adjetibazioak ter-

minoaren kontzeptu-esentziari bereizgarritasun bi ematen dizkio. Alde batetik, Euskal Herria hiru esparru juridiko-politiko desberdinetan zatikatua egoteak –Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparralde– lurralde guztirako euskal oinordetza zuzenbide sistema bakarra izatea eragotzi egiten du, aipatutako lurraldeetariko bakoitzak besteengandik, *mortis causa* oinordetzari dagokionean ere, urrundu egiten diren ordenamendu juridikoak dituztelako. Bestetik, hala ere, euskal oinordetza «azpisistemak» historikoki *Zuzenbide pirenaikoa* izenekoaren baitan kokatu direla azpimarratu beharra dago; latindar eruedetatik urrunduz, arbasoen ondarearen belaunaldiz belaunaldiko eta zatitu gabeko eskualdatzea eta norbanakoaz gaindiko interesen babesa ardatz nagusitzat hartzen dituen.

Erdi arotik, euskal esparruko lege testuak, gizaldietan zehar, euskal gizartearen eskabide garrantzitsuari irtenbide kohesionatu eta osokoa eman diote: *familiaren ondarearen zatiezintasuna*, eta horren mende izan da, jakina, ondare horren gainean ezarritako etxaldearen iraunarazpena. Familia-gunea, XX. mendea ondo igaro arte, ekoizpen eta kontsumorako unitate bezala azaltzen zaigu: lurra eta beroni atxikitako elementuak dira bertan bizi den sendiaren ekonomia oinarria. Familia-baserria bere inguruan bizi den gizarte bereziaren eragiketa-gune bezala eratzen da, eragiketa-gune dela aipatzerakoan sendia osatzen duten guztien mantenua lortzera bideratutako nekazaritza-, abeltzaintza- edo eskulangintza-ustiaketaren esparrutzat aintzat hartuz. Familia-ustiaketaren zatiezintasuna eta osotasuna, horretara, etxeko-taldearen iraupenerako ezinbesteko berme bihurtzen da, *oinordeko bakarreko* sistemaren argitan jabea den pertsonarengan sortzen den mailaz mailako subrogazioaren ondorioz etxea eta ustiaketa osorik mantentzea lortuz. Hainbat gizalditan zehar euskaldunen gizarte eta banakako harremanetan kristau-moralaren geroago eta gehiagoko ezarpen nabarmenak, gainera, familia eredu bikain bezala gizonaren eta emakumearen arteko ezkontza sustatzea dakar: etxe bi euren kideetako biren ezkontza bitartez bateratzearekiko helburua duten sendi-arteko hitzarmenak eta itunak ugaritu besterik ez dira egiten, *jabegoaren*, *familiaren* eta *oinordetzaren* arteko barne-zerikusi nabarmena agertuz.

Zerbait eguneratuagoak ditugun parametroetan baina erdi aroko araudi haiek izan zuten *esentziari* eutsiz Euskal Autonomia Erkidegoko 5/2015, ekainaren 25eko zuzenbide zibilar buruzko Legea eta Nafarroako Foru Erkidegoko 1973ko Nafarroako Foru Berria egungo ordenamendu juridikoan mantendu egiten dira, Iparraldeko euskal lurraldeetan 1789ko iraultzak frantziar Estatua osatzen duten lurraldeetan zegoen narotasun juridiko guztia deuseztatu eta zentralitatea ezarri zuenetik zuzenbide pribatuaren eremuan ez baitu sistema juridiko propiorik. Espainiako estatuari politikoki «atxikitako» bi autonomia erkidegoek, hala ere, 1978ko Konstituzioaren 149.1.8. artikulutik jasotzen dute,

bakoitzari dagokion Legebiltzarren bitartez erkidegoei dagozkien oinordetza sistemak dituzten lege testuak onartzeko beharrezko eskumena, *zuzenbide zibila gorde, aldatu edo garatzeko* zeregina bereganatzerakoan, beti ere Estatuaren bakarrekoak diren «esparru» jakin batzuk errespetatuz.

Euskal lurraldean indarrean dauden oinordetza ordenamenduetara etorriz, EAEkoa eta nafarra, euren pertsona-ezarpenerako erabilitako lokarri-gunea *auzotasun zibila* besterik ez dela adierazi beharra dago, auzotasun horren lorpena eta galtzea Espainiako Kode zibilak arautu arren, Espainiako Konstituzioko 149.1.8. artikulua eskumen eskusibo lez estatuari egozten baitio. Nafarroako Foru Berria (NFB), 1973koa, hasieratik da aplikagarria nafar auzotasun zibila duten biztanle guztiei (16. legea); EAEn, aldiz, berri-berria da auzotasun autonomiko bateratua. Euskal Legebiltzarrak 5/2015 Legea onartu arte (2015eko urriak 3an indarrean jarri dena), Euskal Autonomia Erkidegoan bost oinordetza estatutu juridiko ezberdin zeuden, auzotasun zibilaren arabera (Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko 3/1992, uztailak 1eko legearen bertutez). Gipuzkoako biztanleei, azaroaren 16ko 3/1999 Legea argitaratu zenetik arau horretan bertan bildutako baserriaren oinordetza eskualdatzeari dagozkion xedepanak bakarrik ezarri ahal zitzaizkien; bizkaitarrek, aldi berean, «forudunak» izan behar zuten, hau da, bizkaitar Lur Lauari «auzotasunez» atxikitakoak [*«todo el Territorio Histórico de Bizkaia, con excepción de la parte no aforada de las Villas de Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugaleta y Plentzia, de la ciudad de Orduña y el actual término municipal de Bilbao»*] 1992ko testuan araututako oinordetza sistema bere osotasunean erabiltzerik nahi bazuten (bizkaitar guztiei, forudun zein forugabe izan, aitortutako komisario bidezko testamentua eta ermandadeko testamentua ematearen aukera eta tronkalitatearen printzipiotik eratorritako lege ondorioak izan ezik); eta, arabar lurraldeari dago-kionez, aiatarrek besterik ez zituzten Oinordetza zuzenbideari dagozkion xedapen propioak, ondorio horietarako Audio eta Aramaioko herritarrak bizkaitar Foruari atxikitzen zaizkielako. Zatikatutako eszenatoki hau gainditu da, hein handi batean, 5/2015 Legearekin. Orain, euskal Legebiltzarrak auzotasun autonomiko bateratua zabaldu du autonomia erkidegorako. EAEn auzotasun zibila duen biztanle oro egongo da, oinordetza sistemari dagokionez, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legearen mende (EZZL). Hala ere, bi gune ‘azpi-autonomiko’ mantendu dira arau berrian: Aiarako erabateko xedatzeko askatasuna eta, Bizkaiko eremu forudunean, tronkalitatearen printzipioa eta ondasunen foru-komunikazioari dagokion bikotearen erregimen ekonomikoa. Nafarroak ez dauka halako bereizketarik bere lurraldean. Edozelan ere, bi kasuetan, bi ordenamenduetan, Espainiako Kode zibila da ordezkio zuzenbide, lege testu bi horietan adierazitako iturburu-sistemaren interpretazio eta integrazioarako garrantzia

eta, hala balegokio, bere garapenik bikainenerako ohikotasunez ezartzen diren klausulak kentzeko aukera baztertu gabe.

Autonomia-ordenamendu biek euren zuzenbide zibil propioaren garapean aurrera urratsik egin dute oinordetza mailan ere ezkontideak bikote egonkorren edo izatezkoen maila berean jartzen ahalegintzen diren lege testu bi argitaratuz: Nafarroan, ezkontide egonkorren berdintasun juridikorako uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legea eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan, izatezko bikoteak arautzen dituzten maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak ditugu. Aipatutako bi testu horiek bikote egonkorren egoera Euskal Zuzenbide zibilari buruzko 5/2015 Legeak eta Nafarroako Foru Berriak ezkontide alargunarekiko aurreikusitakoarekin berdintzen dute, eta esandako horretaz gainera, 2003ko Legeak, zerrendatze zorrotza izateko asmorik ez duela, bikotekide direnek ermandadeko testamentua batera eman ahal izatearen aukera biltzen du, edo, hala balegokio, komisario-bidezko bata bestearikiko izendapena egin ahal izatearen aukera ematen du. Testu bi horien arteko berdinketa horri aurre egitean dagoen desberdintasuna, funtsean, araudi nafarrak bikoteko kideek, edo bietako batek, arauan aitortutako eskubideak gauzaterakoan, bikotea existitzen denaren egiaztagiria eskatzean datza, euskal autonomiako Legeak izatezko bikoteen bereziki horretarako sortutako administrazio-eroldan bikotea alde aurretik erroldatu izanaren baldintza eskatzen duen bitartean. Azken eratze-baldintza horrek, bateratzearen alde aurretiko erroldatzeak, tamalez, proposatutako berdinketatik izatezko bikote asko alboratu egin ditu, benetan 'izatezkoak' diren bikoteak, alegia, erroldaren arduradunaren aurrean euren bateratzea 'formalizatzea' erabaki ez dutenak. Azken hauek ez dute, oinordetzaren eremuan, inolako berdintasunik ezkontideen eta erroldatutako bikoteen parean, hirugarren bikote maila 'alegala' sortuz eta 2003ko euskal Legearen 1 artikuluan aldarrikatutako bazterkeriarik ezaren printzipiotik nabarmen urrunduz. Hala ere, nahiz eta Nafarroako 2000ko legeak erroldaz kanpoko legezko bikote egonkorrak onartu izan, Espainiako Konstituzio Auzitegiak 2013ko apirilak 23ko epaiaren bidez, esparru honetan zenbait berrikuntza ezarri ditu, Estatuko izatezko bikoteei buruzko legezko testu guztiei aplikagarri: epaia ematen den datatik aurrera, bi adostasun galdutako zaizkio bikoteari lege autonomiko jakin batek onartzen dituen eskubideez gozatu ahal izateko. Lehenengo adostasuna bikotea bera eratzera bideratua egongo da; bigarrena, aldiz, lege jakin horrek aurreikusten dituen eskubideetatik bikote zehatz horri aplikagarriak izango direnak zehaztera, alegia¹².

¹² BERRIÁIN FLORES, I., Las uniones no matrimoniales y el derecho al libre desarrollo de la personalidad (A propósito de la Sentencia del Tribunal Constitucional 93/2013, de 23 de abril), *Derecho Privado y Constitución*, 28 (urtarrila-abendua 2014), 137 eta hurrengo orrialdeak. Baita ere, SOLÉ RESINA, J., La convivencia estable en pareja tras la STC 93/2013: de vuelta a la «unión libre», *La Ley. Derecho de Familia*, 2014ko maiatzak 12.

Segidan, beraz, hegoaldeko bi euskal lurraldeek eskaintzen dituzten oinordetza sistemak aztertuko ditugu, euren arteko eremu komunak nabarmenduz. Enbor beretik datoz, marko juridiko orokor beraren mende daude eta, esentzian, printzipio berberak dituzte ardatz. Oinordetza antolatzekeo tresnak gainbegiratzaren hasiko gara eta derrigorrezko oinordetzarekin bukatuko dugu, hainbat eta hainbat elementu komun dagoela azpimarratuz.

2. Oinordetza antolatzekeo tresnak: euskal sistemen malgutasuna agerian

Kausatzaileak bere oinordetza antolatzekeo hainbat negozio juridiko ditu eskura. Modu ezberdin eta, printzipioz, bateragarrietan, erabaki dezake, bizirik dagoela, bere ondarearen post mortem eszenatokiaren dimentsioa. Bere kabuz diseina dezake bere ondasunen eta erlazio juridikoen heriotzaz geroztiko patua eta malguntasun hori, aukera aniztasun hori, euskal oinordetza sistemen altorra dela ezin daiteke ukatu. Espainiako eta Frantziako Kode zibilak, nahiz eta oso pixkanaka Europako aire berriei egokitzen saiatu, askoz ere zurrungoak dira eremu honetan. Ez dute hirugarren bidezko ordenazio orokora onartzen; testamentu mankomunatu edo ermandadekoa debekatu egiten dute, baita oinordetza ituna ere (salbuespen urri batzuk kenduta). Askoz ere murriztagoak dira aukerak kausatzailearentzat bi lege testu hauetan. Eta, zentzu horretan, gure sistemak askoz ere aurrerakoiagoak, plastikoagoak eta moldagarriagoak direla azpimarratu behar da, Europako tendentzia berrietara askoz ere hobeto egokitzen direnak, alegia.

Kausatzailearen oinordetza, *a priori*, era bitara antola daiteke: *bere borondatearen arabera* (sailkapen horretan, hirugarrenaren bitartezko antolaketa barne izanik) eta, horrelakorik ezean, *legez*. Eman daiteke ere, dagokionean, *de cuius*-aren oinordetza antolaketa *mistoa*, neurri baten borondatezkoa eta beste baten legezkoa. Bana dezagun, beraz, azpiatal horren garapena, batez ere, legezko edo oinordetzaren eta oinordetza antolatzekeo borondatezko eren arteko bereizkuntzaren oinarritan, azken hauetatik hasita.

2.1. Oinordetzaren borondatezko antolaketa

Euskal Oinordetza zuzenbidearen berezitasuna, edo, zehatzago esateko, euskal lurraldeetako oinordetza sistemetariko bakoitzarena, lehenengoz eta behin, espainiar Kode zibilarekin berarekin alderatuz gero, kausatzaileak bere oinordetza antolatzekeo erabil ditzakeen tresna motetan datza, hau da, bere jaunsleak edo legatidunak izendatzeko tresnak. Euskal ordenamenduen azterketan, gai zehatz horri dagokionez, gutxi arakutzen hasita ere, ordenamenduen

arteko hurbiltasun handia sumatzen da, elkarren antzekoak diren erakunde-sorta erraz topatuz. Gainera, taxu erromatarra duten ordenamenduek arbuizaten dituzten tresnak dira ein handi batean eta; horra hor, gure ordenamenduen (orobat, sistema pirenaikoen) eta kutsu latindarra dutenen arteko ezberdintasun nabarmena. Egia esan behar badugu, *testamentu mankomunatua*, *oinordetza-itunak* edo *komisario-bidezko ordenazioa* bezalako figura juridikoak Zuzenbide zibil propiodun euskal lau lurraldeetako araudietakoak ditugu; eta, azken finean, aipatutako tresna juridikoen tratamendu juridikoa –eta eurei dagozkien irtenbide tekniko zehatzak ere– ezberdina izan daitekeen arren, xedapen batzuen eta bestearten arten egon baitaitezke, tresnok, eremu jakin honetan, antzerako oinarrietan sortzen dira. Kontrara, Espainiako zein Frantziako Kode zibilen oinarri juridikoa Zuzenbide erromatarretik dator eta, puntu honetan, oso nabarmena da bi moldeen arteko distantzia. Beraz, jabearen eta gerora kausatzailea izan daitekeenaren eskura bere heriotza uneaz geroztik bereak diren harreman juridikoen eta ondasunen norabidearen diseinua bideratzeko euskal lege testuek jartzen dituzten tresna juridikoak asko dira. Testamentua, bere mota ugarietan, eta ituna dira, komisario-fiduziario bidezko oinordetza antolaketaz batera, kausatzailearen eskura bere oinordetza zehazteko euskal arauak jartzen dituzten mekanismoak.

a) Testamentua

Testamentua kausatzaileak bere heriotza gertatu ostean sortzen den egoera juridikoa, ondare-harremanei zein ondarezkoak ez diren harremanei dagozkienetakoak ere, arautzera datorren azken borondateko negozio juridikoa da. 1889ko Espainiako Kode zibilaren esparru arautzailean, testamentua beti da, eta edozein kasutan ere, negozio juridiko *aldebakarreko* eta *pertsonabakarrekoa*, eta, ondorioz, ezinbestean, testamentugileak egin beharrekoa eta, gainera, berak bakarrik. Tresna *formala* dugu, funtsean errebokagarria eta heriotza geroztiko [*post-mortem*] ondorioduna, ez baitu testamentugilea hil arte inolako ondorio juridikorik sortzen. Hiru dira estatu-legegileak eskaintzen dituen oinarritzko *testamentu-erak*: testamentu irekia, *itxia* eta *eskuz idatzia (olografoa)*. Testamentu irekia testamentugileak bere azken borondatea ospakizuna baimendu behar duten beste pertsona batzuk aurrean dituela emandakoa da, pertsona horiek testamentuan zer ezartzen denaren jakitun geldituz; *itxian*, aldiz, testamentugileak, bere azken borondatea zein den adierazi gabe, bere egitea baimendu behar duten pertsonen aurkeztutako pleguan dagoela bere azken borondatea adierazten du; eta *eskuz idatzia*, testamentugileak berak idatzi eta sinatutakoa da, ematen dueneko data zehatza bertan adierazi beharrez. Lehenengo biak notarioaren aurrean egin beharrekoak dira, testamentu irekia batzuk salbu, egoera apartekoetan egiten baitira: hiltzeko arriskuan eta izurrite kasuetan. Azkenik, estatu-legegileak

beste hiru testamentu berezi ere aurreikusten ditu: *militarra*, *itsasokoa* eta *espainiarrak atzerriko herrialdean emandakoa*.

Testamentua egiteko, Nafarroako Foru Berrian zein Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legean ere aipatzen diren azken borondatea emateko beste modalitate berariazko batzuek eskura izateaz gain, Espainiako Kode Zibilak aurreikusten dituen testamentu-era haiek guztiak ere euskal edo nafar auzotasun zibila duten testamentugileen eskura daude. Hegoaldeko euskaldunok, beraz, Espainiako Kode zibilak arautzen dituen testamentu-era guztiak eskura daukagu gure oinordetzaren diseinua aurrera eramateko. Eta, gainera, gureak diren beste tresna batzuk ere, Espainiako Kode zibilean debekatu egiten direnak. Azken hauen artean, nabarmendu beharrekoa da, bere dimentsio eta sustrai historikoagatik, *testamentu mankomunatua*, lege testu biak onetsi eta berariaz arautzen duten testamentu mota dugula. Erabat debekatua espainiar Kode zibilaren esparru normatiboan, testamentu mankomunatua pertsona bik eta agiri bakar batean, euren heriotzaz gerorako euren ondasun eta harreman juridikoez biek batera xedatzea dakar. 2015eko EAEko araudiak modernoagoa eta malguagoa ematen duen arren, ez da hala inola ere. Auzotasun zibil autonomikoa duten hiritar guztien esku jartzen da, lehenengo aldiz, EAEn (24.3. art.), baina Nafarroan testamentugile nafar ororen eskura dago 1973tik (200. legea) Jada ez da derrigorrez ezkontideen edo bikotekideen artean egiletsi beharreko testamentua EAEn (24.1 art.); ezta senitartekoen artean emandakoa ere. Edozein bi pertsona batu daitezke berau egiteko, inolako ahaidetasun harremanik gabe. Nafarroako araudian horrela da 1973tik (199. legea).

Testamentu mankomunatua lau motatakola izan daiteke, definizioz: 1) *Al-diberekoa*: testamentugile bakoitzak bere kabuz ordenatzen du bere oinordetza, beste testamentugilearekin inolako konexiorik ezarri gabe (batasun instrumentala gutxiengo komuna bilakatzen da); 2) *Gurutzatua*: Testamentugileek, bata bestea, oinordeko izendatzen dute; 3) *Bateratua*: Bi testamentugileek hirugarren baten alde xedapenen bat egiten dute edota bata bestea komisario izendatzen du; 4) *Mistoa*: Bien arteko izendapenak eta hirugarrenen aldeko xedapenak nahastuak agertzen dira. Azken hiru motetan, halaber, *elkarrekiko klausulak* egon daitezke txertatuak. Aukera bat da, ez da derrigorrezkoa. Elkarrekiko klausula hauek bata bestearen mendekoak direla adierazten dute; hots, testamentugile bakoitzak bere xedapena egin duela beste testamentugileak egin duenaren arabera. Baten xedapenak bestearen xedapenetan daukala kausa edo oinarria. Eta, nolabait, elkarri lotuak jaio direla.

Testamentu mankomunatua, beraz, hegoaldeko euskal kausatzaile guztiek dute eskura, nafarrek eta EAEkoek. Lehendabizikoentzat, ermandade testamentuak, idatzizko testamentua salbuetsiz, Nafarroako Foru Berriak onartzen duen beste edozein itxura edo forma izan dezake (199. legea), beti ere mota bakoi-

tzarentzat aurreikusitako betekizunak betetzen diren heinean. Izatez, berehalako heriotza-arriskuarekiko egoera nahikoa izango da testamentugile baten bakarrik agertzea. EAekoentzat, aldiz, forma irekia derrigorrezkoa da, notario aurrean egiletsi behar den testamentu mota baita (24.6 art.). Eta, derrigorrez, bi testamentugileak emantzipatuta egon behar dute, gutxienez 16 urte izanik (24.5 art.).

Testamentugileak bikote bateko kide edota senar-emazteak baldin badira, arau nafarrak zein euskal autonomiari dagokionak ezkontza deuseztatzeko, dibortziatu edo banatzeko epaiek (zein izatezko bikotea hausteko erabakiek), ezkontideek testamentu mankomunatuan elkarri eta elkarren mendean egindako xedapenak bertan behera uzten ditu (201. Legea; 28. art.). Puntu honetan, harri-garria da EAeko 2015ko Legeak 28.3 artikuluan aurreikusten duen salbuespena: xedapen guztiek galduko dute eraginkortasuna bi testamentugileek adintxikia edo ezgaia den seme-alaben onuran egindakoek izan ezik. Ez da ondo ulertzen salbuespen hori, batez ere kontuan hartuta lege bereko 27.3 artikuluaekin nolabaiteko kontraesanean jausten dela. Azken atal honek dio bizirik daudela bi testamentugileak batek xedapenen bat aldatu edo errebokatu egiten badu testamentuak dituen xedapen guztiak eraginez bilakatuko direla. Beraz, badirudi 2015eko Lege berriak ez duela aurreikusten testamentu mankomunatua partzialki aldatzeko edo errebokatze aukera, beste guztia indarrean utziz. Oso erabaki gogorra da araudi berriak hartzen duena, testamentu mankomunatuaren etorkizunari mesede lar egiten ez diona, alegia.

Testamentugileen bizitzan, ermandadean edo elkarrekin egindako testamentua ezeztatu edo aldatu egin dezakete testamentugileek biek batera, eman zenerako eskatutako formalitate bertsuekin edo eskribau aurrean egindako beste testamentu edo oinordetza-itun batez (201. legea; 27.1 art.). Bada ere, testamentugile batek bere kabuz ermandade-testamentua ezeztatzea ere, beti ere borondate hori besteari modu egiazkoan jakinarazita. Ezberdintasun bat dago, puntu honetan, bi araudien artean: EAekoan jakinarazpen horren faltak ez dio eraginik egingo errebokazioari; Nafarrokoan, aldiz, errebokazioak ez du eraginik izango beste guztiek errebokazioaren berri dutela egiaztatu daitekeen arte.

Testamentugile bat hil egiten baldin bada, Nafarroako araudiari begira testamentu mankomunatua errebokaezina da, ez baldin bada testamentuan bertan, kasu horretarako, besterik ezarri. Salbuespen gisa, hala ere, Nafarroako legegileak dio 202. legean, bizirik dirauenak berriz ordena ditzakeela edo errebokatu jada hilik dagoen edo ezgai geratu den pertsona baten alde bere garaian egindako xedapenak, baita bere jaraunspen propioari dagozkionak beste testamentugilearen xedapenen mendekoak ez badira. EAeko araudian, kasu horretan, bizirik dagoen testamentugileak ezingo ditu errebokatu ezta aldatu ere bestearen mendeko edo elkarrekiko klausulak; eta, gainera, besterik jarri ezean testamentuan bertan, bizirik dagoen testamentugileak ezin izango ditu doan xedatu elka-

rrekiko klausulen objektu diren ondasunak, onuradunak diren pertsonen alde ez bada. Hala ere xedatzen baditu, kaltetuak bi urte izango ditu testamentugile hori hiltzen denetik kontatuta, dohaintza hartzaileei ondasun horien balio eguneratua galdatzeko (28.2 art.). Antzeko taxuz, Nafarroako Foru Berriaren 204. legea. Bai, NFBk behin testamentua egin ondoren *testamentugileek euren ondare propioari buruzko ahalmen xedatzaileaz* arau batzuk eskaintzen ditu. Lege-testu biak debekatzen dute beste testamentugileetarikoa bat hiltzerakoan bizirik gelditzen denak elkarrekikoak diren xedapenetan sartutako ondasunak doako izaezaz xedatzea. Debeku horren salbuespen bezala, NFBk testamentuaren kontrako zentzuko klausula eta gainontzeko testamentugileen adostasuna jartzen ditu. EZZLk, aldiz, salbuespena, elkarrekiko edo ermandadeko testamentuan atribuzio horien onuradun edo onuradunak bezala izendatuak izan diren pertsona edo pertsonen alde bizirik dirauen testamentugilearengandiko xedapenean kokatzen du. Edozein kasutan, NFBk ermandade edo elkarrekiko testamentugile guztiei euren dagozkien ondasunak kostubidez erabiltzeko ahalbidea ematen die, beste gainerako testamentugile guztiak edo eurretarikoa baten bat hil izatekotan ere, testamentuak aurkako klausularen bat eduki edota adieraztera eman izan arren.

Espainiako Kode zibilak, orotara, araututako testamentu-moduez gain, EAeko 5/2015 Legeak, halaber, duela gutxi arte bizkaitar forudunen eskura egondako *hil-buruko testamentua* jartzen du, orain, autonomia erkidegoko auzotasun zibila duten biztanle guztien eskura. Legeak berak dioen bezala, hil zorian egon daitekeen orok (euskal auzotasun zibila badu), hiru lekukoren aurrean, bai ahoz bai idatziz eman dezakeen testamentua dugu. Notarioaren esku-hartzerik gabe egiten dena eta notarioaren falta justifikatzeko galdatzen ez duena, alegia. Testamentu hori indarrrik gabe geratuko da egilea hiltzeko arriskutik atera eta bi hilabete igarotzean. Testamentugile hori epe horren barruan hil izango balitz ere indarrrik gabe geratuko da testamentua, baldin eta heriotzaren ondorengo hiru hilabeteren barruan egiaztatzen eta protokolizatzen ez bada, jardunbide-legeek agintzen duten eran. Testamentugilea hiltzeko arriskutik atera baina beste testamentu bat egiteko ezgai geratu izan balitz, egiaztatzeko epea hiru hilabetekoa izango litzateke, testamentua egin zenetik kontatzen hasita. Testamentua epailearen batek egiaztatzen ondoren notarioaren protokoloan jasoaraziko da.

Hil zorirako salbuespen hipotesia, NFBn ere jasota gelditzen da, nahiz eta kutsu elizkoi eta zaharkitua daukan suposamenduak berak, gaurko egoerari erreparatuta. Legegile nafarrak testamentugilea hil zorian egonik Notarioaren bertaratzea lortu ezin izaterik legokeen kasuetarako *Erretorearen aurreko testamentua* ezartzen du. Tokiko erretorearen edo Abade bezala ordenatutako beste Elizgizonen baten aurrean testamentua eman ahal izango da, eta edozein kasutan ere bi lekukoren presentzia izanez. Kasu horretan bertan, hala ere, Erretorerik edo Abade lez ordenatutako beste Elizgizonen bat izaterik ez balitz, hiru lekuko-

ren aurrean testamentua eman ahal izango da. Testamentu bi horiek idatziz eman beharko dira, urtearen, hilaren eta egunaren aipamen zehatzak eginaz, ekitaldian bertan edota testamentugileak borondatezko bere azken xedapen-hitzen bitartez adierazitakoak esan ondoren. Testamentugileak eta ekitaldian bertan parte hartu dezaketenek ere ezinbestean izenpetu beharrekoak izango dira.

Hildakoaren azken borondatearen tresna bideratzaile bezala, testamentutik at, legegile nafarrak *kodiziloa* eta *testamentu memoriak* ere arautzen ditu. Kodiziloa (NFB 194 eta 195. legeak), aurretik emandako testamentua indargabetu gabe, zerbait gehitu edo bere xedapenak aldatzera datorren azken borondatezko negozioa da. Testamentuentzat aurreikusitako edozein formatan eta euri eskatzen zaizkien betekizun berdinetan ematen dira. Kodiziloak azken borondatearen edozein xedapen eduki ahal izango du, oinordekoaren izendapena, oinordetza-ordezkoak, batzuen eta besteen aldaketak, jaraunspengabetzak eta abar. Bestalde, aurreko testamentu baten zuzenketa edota osagarri lez testamentu memoriak ere eman daitezke (NFB 196-198. legeak), beti ere testamentugileak/ek horietakoak emateko ahalmena eurentzako gordez gainera, aldi berean, memoriari eragingarritasunerako izan beharko lituzketen ezaugarri, zeinu eta beste betekizun batzuk zehaztuzko balituzkete. Testamentugileak/ek orri guztiak izenpetu beharko ditu/zte eta zeinu edo ezaugarriak izan beharraz gain testamentuan aurreikusitako gainerako betekizunak ere bete beharra dute. Memoriok azken borondatezko beste edozein egintzaren osagarri gisa ere eman daitezke. Egiaztaraziak eta protokolizatuak izan behar dute.

b) Oinordetza-Ituna

Testamentuaren aldera, ituna oinordetza antolaketarako aldeko tresna da; bere baliozkotasunari begira, beraz, gutxienez borondate biren arteko adostasunaren beharra izanez. Hipotesi ezagunenean, kausatzaileak bere oinordetza-diseinua gauzatzen du, edota zatiren batena, oinordeko bezala izendatutakoarekin, nahiz eta itunak berak oinordekoari legez legozkioken eskubideei uko egiteko balio izan ere, kausatzailearekin hitzartuz gero. Oinordekoa kontratuaren zati izan gabe *kontratu* horren onuradun izatea ere gerta daiteke kausatzaileak eta beste pertsona batek hala adosten badute, edota kausatzailearen onarpenarekin oinordeko batek hirugarren baten alde bere oinordetza eskubideak uztea adostea ere. Edozein kasutan ere, ituna eskritura publikoan egilestea ezinbestekotzat jotzen da bi araudietan, efektu horietarako ezkontza-hitzarmenarena erabili daitekeen arren. Ordezkaritza bidez eman ahal izango da, beti ere kausatzailearen beraren borondatea argi eta garbi adierazi dadin ahalorde berariazkoaren bitartez gauzatzen baldin bada. Kausatzaileak, halaber, bere ondasunak xedatu ahal izango ditu ituna dela medio, izendatutako oinordekoaren alde, titulu unibertsa-

lez zein partikularrez, adostuko liratekeen moduak, erretserbak, ordezkotzak, lehengoratzeklausulak, zamak eta betebeharrak ere ezarriz.

EAEEn 2015eko Legeak tresna guztiak auzotasun zibil autonomikoa duten biztanle guztien eskura jarri dituenetik, bi araudiok parekatu dira eremu honetan: nafarra eta EAeko. Oinordetza ituna, duela gutxi arte, ez zen EAeko biztanle guztiek euren oinordetza diseinatzeko aukera zezaketen tresna, forudunen esku bakarrik baitzegoen. 2015eko urriak 3tik aurrera, oinordetza ituna Hegoaldeko euskal biztanle guztiek erabil dezakete diseinu hori gauzatzeko, bertan auzotasun zibila badute. Nafarroako araudia konplexuagoa da momento honetan; izan ere, oinordetza itunak, *mortis causa* dohaintzak eta *propter nuptias* dohaintzak bereizten baititu Foru Berrian eta hirurek dute izaera bera. Eguneratzeko prozesu batean murgilduta daudenez Nafarroako Legebiltzarrean, oinordetza itunaren araudi dispertsoen metaketa egitea ondo legokeela nabarmendu daiteke, ildo horretan. Edozelan ere, lege testu bietan aurreikusten da itun positibo prototipikoa arautzean, tresnaren eskema edo eskeletoa bera dela. Kausatzaileak oinordekoari honi dagokion oinordetza asignazioa presentekoz eskualdatu ahal izatea edo, alderantziz, heriotz unera arte geroratuaz. Ondasunak *unean bertan eskualdatzeko egiten den oinordeko-izendapenak* ondasunon jabetza ematen dio oinordekoari, alde biak hitzartutako muga-baldintzekin. Edonolako xedapen edo karga-ekintzak bere baliozkotasunerako kausatzailearen eta izendatutakoaren arteko adostasun baterakoa beharko du, izendatzaileak berak ondasun jakin batzuei buruzko erabilera-ahalmena beretzako gorde izan duen kasuetan ezik, horretarako, printzipioz, oinordekoaren onarpenik behar ez baita.

Alderantziz, ondasunen egungo eskualdatzerik gabeko oinordetza-itunek bahitezina eta besterenezina izango den kontratu-oinordekoaren nolakotasuna bakarrik ematen dute. Kausatzaileak bere heriotzara arte bere ondasunen jabetza izango du, baina ondasun horiek izendatutakoaren adostasunik gabe kostubidez besterik ezin izango ditu banatu. Ituna, printzipioz, errebokaezina izango da. Aldez aurretiko testamentu bitartez egindako edonolako ondasun-banaketa indarririk gabe utziko du, bere *corpusean* kontrakorik esaten edota negozio biotan ezarritakoaren bateragarritasun soila ondorioztatzen ez bada. Oinordetza-itunean egindako izendapena, izendatzailearen eta izendatuaren arteko itun berri baten bitartez, edo izendatutakoaren ondorengoekin, edo kontratuan bertan ezarritako zioengatik edo gure lege testu bi horietan aurreikusitakoengatik besterik ezin izango da indargabetu edo aldatu. Aipatutako baliogabetez-zio horiek, funtsean, hurrengoak dira: izendatutakoa oinordegabetze eta duintasunik ezarekiko zioetan erori izatea, hitzarmenean jarritako zama eta baldintzen ez betetze larria egin izana, izendatutakoak familiakoen eguneko elkarbizitza galaraziz jardun izana euren artean bizitza komunitatea ezarri izandako kasuetan, eta izendatutakoaren ezkontzaren banantze, baliogabetez edo dibortzioa gertatu izana, oinordetza-i-

tuna bikotearen harremanagatik edo ezkontza horren arabera egindakoa izan denean. Halaber, euskal lege testuek, izendapena baldintzaten duen baldintza suntsiarazlea jaso denerako, izendatutakoa ondorengorik gabe hil denerako zein ondorengoak egonik ere kausatzaileak hauei ordezkatzeko eskubidea kendu badie, oinordetza-itunaren suntsiaraztea jasotzen dute.

c) Komisario edo fiduziario bidezko ordenazioa

Testamentuaren izaera erabat pertsonalari buruz espainiar Kode zibilak aldarrikatzen duena ez bezala, euskal lege-testuak kausatzaileei bere heriotzaz geroztiko eszenatokiaren antolaketa eskuorde (komisario-fiduziario) bat edo batzuen esku uztea ahalbidetzen diete (NFB 281. legea; EZZL 30. art.). Zalantzarik gabe, elkarren arteko eskuordetzea egin daiteke, senar-emazteen edo izatezko bikotekideen artekoa izanik hedapen handiena duena (Bizkaian, *alkar-poderoso* izenez ezagutzen da). Hala ere, nabarmendu behar da komisarioak ez duela zergatik kausatzailearen ezkontidea, bikotea edo senitartekoa izan behar. Ez du zergatik ahaidetasun loturarik izan behar. Konfiantzazko izendapena da kausatzaileak hipotesi honetan egiten duena, bera hilik dagoenean beste pertsona batek bere ordez bere oinordetza antolatzeko. Edozein kasutan, komisarioaren eskumena oinordekoen izendapenera, legatuak xedatzera eta ondasunen banaketa egitera ere iritsi daiteke, beti ere kausatzaileak emandako ahalordetzan berariazkotasunez ezarri duenari jarraiki. Ez badu kausatzaileak inolako argibiderik eman eskuordetzan, printzipioz, komisarioak hark dauzkan eskumen berberak izango ditu haren oinordetzaren diseinuan.

Eskuordekoaren ordenazioari dagokionez, egia esan NFBk eta EZZLk, arlo jakin batzuetan desberdintasunak dituztela adierazi beharra dago. Edozein kasutan, eskuordearen izendapena izendatzaileak notario aurrean egindako testamentu irekiz edo eskritura publikoz egin behar da, horretarako ezkontza-hitzarmena erabili ahal izanez. Printzipioz, izendatzaileak emandako ahalordetza egikaritzarakoan eskuordeko izendatutakoak ordenazio-egintza emateko beharrezko gaitasuna izan beharra du (EZZL 32.1 art.). NFBren argitan, adinez nagusia izan behar da, ezkontidea izatean ezik; kasu horretan, nahikoa izango da testamentua egiteko ahalmena izatea (NFB 284. legea). Egia esan, azken arau honek ere gaurkotua izan beharko du, kontuan hartuta Kode zibilak ezkontzeko adina 16 urtera igo duela aurretiazko emantzipazioa galdatuz ezkontideei, jadanik ez baita onartzen 14 urterekin eta epailearen dispentsarekin ezkontzea. Beraz, ezkontideek, hemendik aurrera, derrigorrez 16 urte izango dituzte, guxtienez, eta emantzipatuak egon ezkondu aurretik.

EZZLk, eragilearen heriotzatik eskuordearen aldetik ahalordetzaren egikaritzara arte, zabaltzen den zintzilikako aldia arautzen du. Kausatzailea hiltzen

unetik edo epaileak hildakotzat jo dezanetik sei hilabeteko epean, eskuordeak oinordetzan dauden ondasun, eskubide, karga eta betebeharrak guztien inbentarioa egin beharko du, eta oinordeko izan daitezkeenei horren edukiaren berri eman beharko die. Oinordetzaren delazioa gauzatu eta jaraunspena onartzen den arte, kausatzaileak horretarako izendatu duen pertsonak administratuko du ondasuntza. Inor izendatu ezean, ezkontideak edo bikotekideak hartuko du eginkizun hori, eskuordeak berak hartuko du eginkizun hori. NFBk, gainera, eskuordeari, izendatzailearen ezkontide edo aurre ahaide izanik oraindik xedatu gabeko ondasunei buruzko xedatzeko-ahalmenak ematen dizkio. Eta orain, EZZLk ere xedapen ahalmenak ematen dizkio komisarioari ezkontidea edo bikotekidea bada; baimendu badio aldez aurretik kausatzaileak, jaraunspenaren kargak edo zorrak ordaindu behar baditu edota beste ondasun batzuegatik ordezkatzeari egoki iruditzen bazaio. Senipartedunak baleude eta komisarioak xedatu nahi dituen ondasunak higiezinak badira, edota balore mobiliarioak edo ezohiko baliok duten objektuak jarduteko gaitasun osoa duen senipartedun baten baimena beharko du hark xedapen hori burutzeko. Senipartedunek ez badute jarduteko gaitasun osoa, orduan epailearen baimena beharko du komisarioak (EZZL 43.4 eta 5 art.).

De cuius-ak epe jakin bat jar diezaioteko eskuordeari bere ahalordea burutu dezan. Eskuordea ezkontidea litzatekeen kasuetarako, ahalordetza mugarik gabeko epez edo bere bizitza guztirako epez eman ahalko litzaioke, EZZLren adierazitakoaren arabera (41.1 art.). Mugaketarik izan ezean, epea urtebetekoa izango da kausatzailea hiltzen denetik edo epaileak hildakotzat jotzen duenetik hasita, oinordeko izan daitezkeen guztiak adin nagusiak balira; bestela, oinordeko guztiek hemezortzi urte betetzen dituztenetik hasita. Azken ondorio horretarako, ez da nahikoa izango emantzipatua egotea oinordekoa.

Komisarioaren aldetik eskuordea egikatzeari dagokionez, euskal testuak dokumentu-agiri gisa eskritura publikoa zein testamentua azaltzearen alde agertzen zaizkigu: lehenena, komisarioak kausatzailearen jaraunspena haren izenean ordenatu duenetik errebokaezina izango da eta bigarrena (EZZLren arabera, eskuordekoa alarguna edo bizirik dirauan bikotekidea baldin bada eta bien seme-alaba eta ondorengoen alde banatu nahiez gero, bere testamentu propioan egikaritu dezake eskuordea), eskuordekoa hil arte errebokaegarria izango dena. Puntu honetan nahasmena sorrarazten jarraitzen du EZZLk, izan ere eskritura publikoaren aukera eta ezkontidearen testamentua aipatuz gero askoz ere argiago izango baitzen. Jarraitzen du *inter vivos* eta *mortis causa* bideak bereizten eta, egitan, komisarioak egikaritzen duen boterea kausatzailearen oinordetza diseinatzekeenez bere egintza guztiak *mortis causa* liriateke. Hobe jarri izan balu eskritura publiko errebokaezinaren aukera eta ezkontidea izanik bere testamentu propioarena. EAEko legegileak ez du erakusten, puntu honetan, teknika garbie-

gia, egia esan. Nafarroako lege testua askoz ere zaharragoa izanik, gardenagoa da hainbat aspektutan.

Ahalordea, hala ere, EZZLren argitan honakootan iraugita geldituko da (45. art.): a) Gauzatzeko jarri zaion epea bukatzean; b) Eskuordekoaren heriotz, ezintasun edo ezgaitasun eratorriagatik; c) Eskuordeko-ekontidea izanik, behin testamentu-ahalordea egindakoan ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzio-eskea izatean (Erroldan bikoteen izen-ematearen ezeztapen-eskabi-dea parekotzat jo behar da); d) Eskuordeko-ekontidea berriz ezkontzean, (edo Erroldan izatezko bikote gisa erroldatu denean), beste batekin ezkontza-bizimodua daramanean edo ezkontzatik kanpo seme-alabarik izatean, testamentugileak berariazotasunez beste aurkakorik adierazi eztean; e) Uko eginagatik; f) Jaraunsteko ezduintzen duten zioen bat eskuordekoak kausatzaileari edo bere ondorengoei eginagatik; g) Ahalordemaileak ezeztatzearen.

Azkenez, eskuordezko ordenazioaren antzeko erakunde bezala, EZZLn, Aiarako lurraldeari begira, *ahalorde osoko gozameduna* izenekoa arautzen da. Horrek, gozamedunari, gozamen-eskubidearen berezko edukiari dagokionaz gain, gozamen-eratzailaren seme-alaba edo ondorengo guztien alde *mortis causa* oinordetza ordenatzeko eskumena ematen dio, beti ere gozamen-eratzailak ahalordea ematean adierazitako aipamenean arabera. Egia esan, eskuordekoarekin eta testamentu mankomunatuarekin gertatzen denaren antzera, *sendi-lokarrria* da –zeharkaezineko baldintza subjektibo bezala, indarrean dauden lege-xedapenetan, formalki difuminatuta badago ere– norbere oinordetzaren diseinua eta ondasunen xedapena beste hirugarren baten esku uzteko erabakiaren oinarria, espainiar Kode zibilaren pertsonalismo zurrunaren porrotaren isla, alegia. Familia-ekonomiaren kudeaketaren norbanakoaz gaindiko ikuspegia eta ondare horren zuzendaritza bereganatuko duen jaraunse bakarria hautatzeko erantzukizun nagusiaren eramaile den bikotea belaunaldi-tandem bezala aintzat hartzea dira, funtsean, aipatutako Zuzenbide pirenaikoa osatzen duten ordenamendu guztien elementu komunak; eta zalantzarik gabe euskal eremuko lege sistemak Zuzenbide horretakoak dira.

2.2. Oinordetzaren legezko ordenazioa

Oinordetzaren legezko ordenazioa, testamenturik gabekoa edo *ab intestato* izenekoa, testamentugileak bere borondatez, osorik edo zatiren baten, hura diseinatu ez izatean bideratzen da. Hipotesi horretan, beraz, *de cuius*aren oinordetza nola banatu beharko denari buruzko irizpideak legegileak eskainiko ditu. Nafarroak bere Foru Berriaren XIV. Tituluan (300. eta hurrengo legeak) jasotzen ditu arauok, ondasunak tronkalekoak diren ala ez bereiziz. Eta lehenengo aldiz,

Autonomia Erkidego osorako, EZZLk ere bere laugarren kapituluan jasotzen ditu, ondasunak tronkalekoak ala ez diren ezberdinduz (110 eta hurrengo art.). Bi araudietan, beraz, tronkalitatea presente dago legezko oinordetzan. Bizkaian, gainera, tronkalitateak presentzia handiagoa dauka, izan ere, bertako derrigorrezko oinordetzaren parte baita, senipartea moldatuz. Nafarroan, ostera, legezko oinordetzan besterik ez dugu aurkitzen tronkalitatearen aztarna.

Nafarroan eta EAEn dagoen legezko oinordetzari buruz esan beharra dago, lehenbizi, berau oinordetzaren borondatezko ordenazioarekin bateragarria izan arren, ordenamendu biek eragilearen eskura bere *post mortem* [hil osteko] ondare-eszenatokia «askatasunez» diseinatu dezan jartzen dituzten tresna ugariak gogoan hartuz, *salbuespen izaera* duela. Halaber, lege-testu biotan, NFB eta EZZL, oinordetzaren legezko antolaketak abiapuntu bezala jaraunspeneko ondasunak osatzen duten ondarearen *izaera tronkala edo ez tronkala* hartzen du, datu horrek oinordetza jaso beharko duten pertsonen taldea, ondasuna datorren belau-lerroari dagokion ala ez dagokionaren arabera, baldintzatzen baitu.

3. Derrigorrezko oinordetza

Estatuaren ordenamendu zibilaren aurrean euskal lege-testuek euren berariazotasuna agertzen duten bigarren esparrua derrigorrezko oinordetzari buruzkoa da. Oinordetza mota baten tankera duen arren ez du bokazio independente bat osatzen. Derrigorrezko oinordetzak kausatzailearen mortis causa xedatzeko askatasuna mugatu edo murriztu egiten du –materialki edota formalki– senitarteko batzuk bere jaraunspeneko ondasunetan portzentaje jakin bat jasotzeko duten eskubideen alde. Egia esan, derrigorrezko oinordetzaren diseinua edozein oinordetza-erregimenetan erabat garrantzitsua da, ondorengorik, aurrekorik edo ezkontiderik (edo beste ahaiderik) izan dezakeen kausatzailearen xedapen-askatasunaren tartearen mugaketak ekonomia- eta gizarte-arloan garrantzi sakona duen gaia delako. Oinordetzarekiko antolaketaren tresnei dagokienean euskal ordenamenduek azaltzen zuten hurbiltasunaren aldera, derrigorrezko oinordetzari dagokionez apur bat aldentzen dira: beraz, Kode zibilarekiko aldea bakarrik ezeze, elkarren artean ere badute ezberdintasunik. EAeko 5/2015 Legea aldarrikatu baino lehen, onartu behar da alde hori askoz ere handiagoa zela. 2015eko urriak 3tik aurrera, ezberdintasuna ez da hain esanguratsua, EAeko legeria egokitu baita Europatik datozen haize berrietara eta, hala, baita ere Nafarroan indarrean dagoen sistemara. Laburra izango da, beraz, oinordetza zuzenbide propiodun euskal lurraldeetariko bakoitzean indarrean dagoen erregimenaren azterketa, kasu honetan banakako aurkezpena egitearen alde ekinaz.

3.1. Aiara

Aiarako Foruaren ezaugarririk bereizgarriena, 2015ko EZZLko II Kapituluko laugarren atalean bildutakoa, zalantzarik gabe, testamentu-askatasuna –edo hobeto esanda, oinordetza antolatze askatasuna– da, aiarar auzotasun zibila dutenek, Legearen argitan (89.1 art.), *ondasunak askatasun osoz xedatu ditzake-teelako, testamentuz, dohaintza bidez edota oinordetza ituna dela medio, titulu unibertsalez edo partikularrez, derrigorrezko oinordekoak baztertuz askorekin edo gutxirekin. Hau da, gutxi gora behera, Aiarako 1373ko Foruan jasotzen zen formula zaharraren egungo bertsioa. Aiarako auzotasuna duten kausatzaileek ez dute jasaten seniparte materialik. Ez dago jaraunspenaren portzentaje bat derrigorrez senipartedunentzat joan behar dutenik. Edozelan ere, 89.1 artikuluko kausatzaileak senipartedunak baztertu ditzakeela esaten duenean, derrigorrezko oinordekotzat jo behar dira, 89.2 artikulua arabera, EZZLko 47 artikuluan aipatzen direnak; hots, EAEn senipartedunak direnak, alegia: *Senipartedunak dira: seme-alabak edo ondorengoak, edozein gradutan; eta alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea, horren gozamen-kuota dela bide, eta, betiere, beste jaraunse-mota guztiekin batera.**

Esan bezala, Aiarako Foruak jada XIV. mendean heriotzaz gerorako kausatzaile aiarrak bere ondarea banatzerakoan zeukan erabateko askatasuna ezartzen zuen. EZZLk araudi hura ez du funtsean aldatu. Aiarar herritarrarengan ez dago bere ondare-eszenatokiaren diseinuari buruzko inolako *post mortem* murrizketarik: derrigorrezko oinordekoek, beraz, ez dute *de cuius*aren jaraunspeneko ondasunen zati jakinik hartzeari buruzko inolako itxaropenik ezta esku-biderik ere: ez materialik ez formalik. Izatez, *de cuius*ak baztertu egin ditzake, *askorekin edo gutxirekin*, ez baitago kausatzailea legez bere jaraunspenaren zati bat bere inolako ahaideren alde ematera behartuta. Aipatutako askatasuna ari da aiarar kausatzailearengan ondarea osatzen duten *ondasun guztiez*, euroi dago-kien izaera, jatorri edo kokapena kontutan hartu gabe. Eta, halaber, oinordetza antolatze *de cuius*ak dituen modu desberdinak aipatzen ditu, Kode Zibilaren esparrutik eurentariko batzuk jasotzen duten betoaz landa.

EZZLk testamentugileari ezarri nahi dion murrizketa bakarra derrigorreko oinordekoek, edo eurentariko batzuk, benetan bere oinordetzatik kanporatu nahi baditu, *baztertu* beharrekikoa da. Egia esan, alde batetik «testamentu-askatasunaz» hitz egitea eta, aldi berean, legeak derrigorrezko oinordekoek jardutea, nolabait kontraesankorra da, kausatzaileari autonomia hori ematen baldin bazaio, senipartedunik ez dagoelako da. 1373ko testu aiarrak ez eukan inolako bazterterik. 1487ko akordioa izan zen beharrian hori gehitu zuena, behar bada, gaztelar Zuzenbidearen eraginez, non senipartea erabat errotuta dagoen eta hurbilekoenak diren ahaideak gogoan hartu beharra ezartzen den. Eta derrigorrezko

oinordekoen oroitzapen hori da, hain zuzen ere, formalki eta sinbolikoki kausatzaileak bere oinordetza-antolaketan baztertzearen bitartez gauzatu behar duena. Ez du inolako formula berezirik eskatzen oinordetzatik «baztertutakoak» banantzeko *de cuius*aren borondatea argi azaldu dadin bitartean. Izatez, hori dio EZZLko 90 artikulua: *1. Bazterketa esanbidezkoa nahiz isilbidezkoa izan daiteke, banakakoa nahiz baterakoa. 2. Bazterketa ez egiteak sortuko ditu 48.3 artikuluan ezarritako ondoreak.* Erremisioz, EZZLko 48.3 artikulua zera dio, baztertzea ez egiteari buruz: *Bazterketarik ez egitea eta isilbidez baztertzea parekoak dira.* Berariazkoa edo adierazi gabekoa, norbanakotua edo taldekakoa izan daiteke, orduan, baztertze hori. Oinordekoen intentziorik zein ez intentziorik preterizioak, halaber, baztertze izaera izango du (EZZLko 48.4 art.). Hori bai: *Nahitaezko jaraunsle guztiak preterituz gero, horrek berarekin dakar ondare izaerako oinordetza-xedapen guztien deuseztasuna* (EZZLko 51.2 art.). Bukatzeko, aipatu beharra dago *nahitaezko jaraunslea, esanbidez edo isilbidez, baztertua izan bada, eta testamentuak seniparte kolektiboari kalte egiten badio, orduan jaraunsle horrek eutsi egiten die hirugarrenen aurka dituen eskubideei* (51.3 art.).

3.2. Nafarroa

Legelari nafarrak *testamentua egiteko askatasunarekiko mugak* NFBko II. Liburuko X. Idazpuruan arautzen ditu. Lehendabiziko atalean senipartea arautzen du. *De cuius*aren *mortis causa* banaketari inolako murrizketa kuantitatiborik ezartzen ez dion Aiaran dagoen bezalako seniparte formalak, alegia:

«La legítima navarra consiste en la atribución formal a cada uno de los herederos forzosos de cinco sueldos “febles” o “carlines” por bienes muebles y una robada de tierra en los montes comunes por inmuebles. Esta legítima no tiene contenido patrimonial exigible ni atribuye la cualidad de heredero, y el instituido en ella no responderá en ningún caso de las deudas hereditarias ni podrá ejercitar las acciones propias del heredero (NFBko 267 legea)».

Areago, alderantziz, seniparte formalak kausatzaileari bere ondasunak askatasun osoz xedatzea ahalbidetzen dio, muga formal bakar bat betez gero: senipartedunak izendatu behar ditu; ez zerbait emateko, ezer utzi izan ez arren, gogoan izan dituela ziurtatzeko baino [NFBko 268 legea: *El testamento y pactos sucesorios deberán ser instituidos en la legítima foral: 1. Los hijos matrimoniales, los no matrimoniales y los adoptados con adopción plena. 2. En defecto de cualquiera de ellos, sus respectivos descendientes de grado más próximo.* Izatez, formalismo horren helburua, aiarar eta bizkaitar baztertzearen parekidea, ez da kausatzailearen borondateari egitasuna ematea, senipartedunari nolabaiteko zati edo ondasun-ematerik eza hori ahanztura edo errakuntzaren edo euren existentziarekiko ezjakintasunaren ondorioa ez dela adieraztea baino [NFBko

269 legea: *La institución en la legítima foral podrá hacerse para todos los legitimarios en forma colectiva*]. Hala ere, ez da aipamen sinboliko edo ohorezko hori beharrezko izango kausatzaileak senipartedunei *mortis causa* liberaltasunik eman izan balie, hoiek haren jaraunspenari uko egin izan baliote, edo aldez aurretik senipartea jasotzeko ondorengo eskubidedunik utzi gabe hilko balira (NFBko 270 legea).

Hortik dator senipartedunek jaraunspenetik zerbait eskuratzeko izan dezaketen asmoa aurrera eramateko bide bakarra: testamentua edo oinordetza ituna aurkatzea, senipartearen aipamenik ezak NFBren esparruan jaraunse izendapenaren deuseztasuna dakarren neurrian (NFBko 271 legea). Ondorio horietarako, NFBk senipartekotzat *ezkontzako seme-alabak*, *ezkontzaz kanpokoak* eta *adopzio osoko seme-alabatzat hartuak* ditu [azken kasu horretan, 1987ko Kode zibilaren eraberritzeaz aurretik seme-alaba osotzat hartutakoak eta aldaketa horren ondorioz seme-alabatzat hartutako guztiak direla ulertzen da; hala ere, bereizketa soberan dagoela estima daiteke]. Aurretik esandakoen ezean, senipartedunak euren gradu hurbileneko ondorengoak izango dira.

Seniparteari dagokion araudiaz batera, halaber, legegile nafarrak kausatzailearen xedatzeko askatasunari beste muga mota batzuk ezartzen dizkiola ohartarazi beharra dago: aurreko ezkontzako seme-alaben eskubideak, bigarren ezkontutako ezkontidearen erreserba, ondasunen lehengoratzeta eta alargunaren fideltasunarekiko lege gozamina.

3.3. Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba

EAEan, Nafarroan ez bezala, orain arte, derrigorrezko oinordetzari dagokionez, lau estatutu juridiko ezberdin egon izan dira arautuak 1992ko EHFZZLan: a) Bizkaitar forudunari dagokiona; b) Aiararrari dagokiona; c) Gipuzkoako auzotasun zibila eta baserri baten jabetza duenari dagokiona; d) Espainiako Kode zibilak araututakoa. Lortu du, 2015eko ekainak 25eko Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legeak, azkenean, autonomi erkidego ia osorako berdintzea derrigorrezko oinordetzaren erregimena. Aldaketa sakona suposatu du araudi berri honek; bai ordu arte Espainiako Kode zibilaren mende geratzen ziren euskaldunontzat, baita Bizkaiko edo Gipuzkoako erregimenpean zeudenez ere. Hala, ia EAEko auzotasun zibila duten guztiek, 2015eko urriak 3tik aurrera, seniparte kolektiboa izango dute euren xedatzeko askatasunaren mugarri. Horrela, senipartedunek ez dute bakarka eskubide materialik izango kausatzailearen jaraunspenarekiko. Taldeak berak izango du, oinordeko bakarraren sistemari eutsiz baztertzeko aukera mantenduz (EZZLko 48.2 art.). Eta, gainera, ondorengoak eta ezkontide edo bikotekidea izango dira senipartedun soilik, aurreko ahaideak ez baitira, jada, kausatzailearen derrigorrezko

oinordeko (EZZLko 47 art.)¹³. Ondorengo senipartea jaraunspenaren herenak osatzen du (EZZLko 49 art.); kausatzailearen aurretik hildako edo jaraunspengabetutako seme-alabak euren ondorengoek ordezkaturako dituzte (EZZLko 50 art.). Nahiz eta gurasoak bizirik egon, kausatzaileak senipartea iloben alde xeda dezake (EZZLko 51.1 art.). Bere aldetik, ezkontide alargunaren edo bizirik dirauen inskribaturako izatezko bikotekidearen senipartea jaraunspenaren erdiaren gozamenak osatuko du, kausatzailearen ondorengoekin batera bada senipartedun. Ondorengorik ez badago, orduan gozamina jaraunspena osatzen duten ondasunen bi herenetara igoko da (EZZLko 52 art.).

Seniparteari dagokion erregimen honek salbuespen bat dauka, hots, *Aiarako auzotasun zibila duten herritar euskaldunei aplikatzen zaien erabateko xedatzeko askatasuna* (EZZLko 89 art.), aurreko ataletan azaldu bezala. Baina, gainera, beste elementu batek ere modulatu du EAEko biztanle ia guztiei aplikatzen zaien seniparteari dagokion araudi berria: *tronkalitatea*. Instituzio hau Bizkaiko Lur Lauan dauden onibarrei soilik zaie aplikagarri:

1. Tronkalitatearen ondoretarako, onibarrak dira jabetza eta gainerako gozatzeko eskubide errealeak, baldin eta lurzoruaren gainekoak badira, edo bertan eraiki, landatu eta ereiten den guztiaren gainekoak.
2. Onibar gisa hartuko dira ondasun higigarriak, baldin eta aurreko paragrafoan aipaturako ondasunetarako destinatzen badira edo horiei lotuta badaude, salbu eta, kalterik eragin gabe banantzeko modukoak izanik, modu independientean eskualdatzen direnean.
3. Fruituak eta landareak, banantzeko modukoak izanik, lurzorutik bereizita eskualdatzen badira, ez daude tronkalitate-printzipioaren mende, ezta zuhaitzak ere, horiek mozteko besterentzen badira (EZZLko 64 art.),

babestu beharreko tronkaleko senideak dauzkanean onibar horien jabeak (EZZLko 63.2 art.). Ondarearen familia izaera babesten du tronkalitateak (EZZLko 62.1 art.) eta onibar horien jabeak soilik xeda ditzake ondasunok tronkaleko senideen eskubideak errespetatuz (EZZLko 62.2 art.).

Onibarrak badaude jaraunspenean eta kausatzaileak tronkaleko senideak badauzka:

- Senide tronkeroak dira, odolkidetasunez zein adopzioz: 1. Beheranzko zuzeneko lerroan, seme-alabak eta gainerako ondorengoak. 2. Goranzko lerroan, onibarra zein lerrotatik etorri eta lerro horretako aurrekoak, eskuraketa-titulua edozein izanik ere. Bi ezkontideek ezkontza bitartean eskuratutako onibarrei dagokienez, edo izatezko bikotekideek bikotearen indarraldian zehar eskura-

¹³ GALICIA AIZPURUA, G., La sucesión forzosa: planteamiento general, *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros, Jornadas celebradas en Bilbao los días 2 y 3 de noviembre de 2015*, Bilbo: Parlamento Vasco. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 387 eta hurrengo orrialdeak.

tutako onibarrei dagokienez, tronkero dira bi ezkontideak edo izatezko bikotekide biak. Nahiz eta ondasun horiek seme-alabei edo ondorengoei eskualdatu, ezkontide edo izatezko bikotekide eskuratzailleek eusten diote goranzko lerroan tronkero izateari, ondorengo titularrekin duten senidetahun-gradua edozein izanik ere. 3. Alboko lerroan, laugarren gradurainoko albokoak, betiere onibarra zein lerrotatik etorri eta lerro horretan (EZZLko 66 art.),

ezin ditu, nolana, ondorio juridikorik gabe, ondasunok nahi bezala xedatu. Kontuan hartu behar da, nahitaez, EZZLko 70.1 artikulua ezartzen duena: *Tronkalitate-eskubideak gailentzen dira, seniparteari begira*. Beraz, pertsona bera, aldi berean, oinordeko tronkeroa eta seniparteduna baldin bada, tronkero gisa dagozkion ondasunak haren seniparteari egotziko zaizkio (EZZLko 70.2 art.). Tronkalitateak, bada, lehentasuna dauka senipartearikiko. Tronkaleko ondasun guztiek, kausatzailea hiltzean, lehentasunezko senide tronkeroen eskuetara joan beharko dute. Derrigorrez. Horregatik, ondasun tronkalak *mortis causa* xedatzen baditu kausatzaileak kanpokoan mesederako edo lehentasunezkoak ez diren senide tronkeroen onurarako, egintzok deusezagarriak izango dira, lau urteko epean, xedatze egintzaren berri izan dutenetik eta, edozein kasutan ere, Jabetza Erregistroan inskribatu direnetik (EZZLko 69.2 art.). Gauza bera gertatuko da *inter vivos* eta doan xedatzen diren ondasun tronkalekin (EZZLko 69.1 art.). Kostubidezkoa bada xedatzea, ostera, senide tronkeroek lehentasunez eskuratzeko eskubidea egikaritu ahal izango dute nahi izanez gero, EZZLko 72 eta hurrengo artikuluek ezartzen dutenari jarraiki¹⁴.

IV. ONDORIO GISA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako oinordetza sistemak, ñabardurak gailenduz, ordenamendu hurbilak direla esan daiteke. Enbor bere-tik datoz, Zuzenbide pirenaiakoaren isla dira. Familiaren ondarearen babesa dute helburu, oinordeko bakarraren sistemaren magalean. Helburu hori ardatz dutela ezin uka daiteke, legezko oinordetzan bietan baitirau tronkalitate printzipioak (Bizkaian, gainera, derrigorrezko oinordetzari dagokion araudiaren parte ere izanik). Gainera senipartea formala izateak (Nafarroan eta Aiaran) edota materiala, laburra eta kolektiboa (EAEn), ahalbidetzen du, berriz ere, oinordeko bakarraren sistema eta, hala, familia ondareak zatiezina familia barruan irautea. Kausatzaile euskaldunek bere oinordetza diseinatzeko eskura diztuen tresnen

¹⁴ GOROSTIZA VICENTE, J. M., El futuro de la institución troncal, *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros, Jornadas celebradas en Bilbao los días 2 y 3 de noviembre de 2015*, Bilbo: Parlamento Vasco. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 273 eta hurrengo orrialdeak.

aniztasunak eta erregimenak egoera ezberdinei egokitzeko euren malgutasuna eta egokitasuna adierazten du, gainera.

2. Oinordetzaren eremuan, beste inguruko Zuzenbide autonomikoak ere antzeko printzipioekin mugitzen dira, batez ere Aragoiko ordenamendu zibila. Senipartean ezberdintasun gehiago egon daiteke baina erreforma berri guztiak bide beretik datoz: ezkontidearen posizio juridikoa indartzea, ondorengoen senipartea murriztea eta aurreko ahaideak senipartedun gisa baztertzea. Bestalde, oinordetza antolatzekeo tresnei dagokionez, aniztasuna ageri dute ordenamendu autonomiko hauek ere, geuren ildotik.

3. Espainiako Kode zibilak baino erregulazio malguagoa eta egokiagoa dute gure ordenamenduek. Etorkizuna dute, gizartearen beharrezanetara egokitzen diren heinean. Oraindik ere tronkalitateari buelta bat eman behar zaio; ondasunen foru-komunikazioari eta, oro har, Erdi Aroko landa gizarte bati larlotuak dauden instituzioei, alegia. Baina argi dago gure ordenamenduak Europan finkatzen diren ildotik doazela eta, oinordetzari dagokionez, asebetetzen dituztela biztanleriaren beharrak.

V. BIBLIOGRAFIA

- ALKORTA IDIAKEZ, I. eta KARRERA EGIALDE, M., *Euskal Zuzenbide zibilaren oinarriak*, EHU, 2007 (argitalpen elektronikoa).
- ALLENDE SALAZAR, A., El dualismo en la legislación civil de Vizcaya, *RGLJ*, 54 (1879), 60. eta hurrengo orrialdeak.
- ANGULO LAGUNA, D., *Derecho privado de Vizcaya*, Bilbo, 1903.
- ARGUINZONIZ, A. M., *Sinopsis histórica de la Villa de Durango y noticia biográfica de sus hombres más célebres*, Durango: Museo de Arte e Historia, 1989.
- ARECHEDERRA ARANZADI, L. I., Testar a la Navarra; Derecho consuetudinario guipuzcoano o descodificación, *RJNav*, 1 (1986).
- ASÚA GONZÁLEZ, C. I., GIL RODRÍGUEZ, J. eta HUALDE SÁNCHEZ, J. J., Situación actual y perspectivas de futuro del Derecho civil vasco, *Derechos Civiles de España*, I, Rodrigo BERCOVITZek eta Julián MARTÍNEZ-SIMANCASEk zuzendua, Iruñea: Aranzadi, 1999.
- BALPARDA Y DE LAS HERRERÍAS, G., *El Fuero de Vizcaya en lo civil*, Bilbo, 1903.
- BELLO JANEIRO, D., *El ejercicio de la competencia en materia civil por la Comunidad Autónoma Gallega: La Ley 4/1995, de 24 de mayo*, Madrid: Montecorvo, 1999.

- BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, R., Derecho Civil Foral, *Aranzadi Civil*, 18/2001, 11. eta 12. or.
- BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, R., La conservación, modificación y desarrollo de los derechos civiles forales o especiales allí donde existan, *Derecho Privado y Constitución*, 1 (1993), 15-82. or.
- CHALBAUD Y ERRAZQUIN, L., *La troncalidad en el Fuero de Bizcaya*, Bilbo, 1898.
- DELGADO ECHEVERRÍA, J., Los derechos Civiles Forales en la Constitución, *RJC*, 3 (1979), 145 eta hurrengo orrialdeak.
- DÍEZ DE UNZUETA, I., Comentario jurídico al Fuero Antiguo de la Merindad de Durango, *Cuaderno de Historia Duranguesa*, Bilbo: Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1983.
- GACTO FERNÁNDEZ, E., ALEJANDRE GARCÍA, J. A. eta GARCÍA MARÍN J. M., *Manual Básico de Historia del Derecho*, Madril: Dykinson, 2013.
- GALICIA AIZPURUA, G., La sucesión forzosa: planteamiento general, El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros, *Jornadas celebradas en Bilbao los días 2 y 3 de noviembre de 2015*, Bilbo: Parlamento Vasco. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 387 eta hurrengo orrialdeak.
- GARCÍA CANTERO, G., Por una interpretación del artículo 10.5 del Estatuto Vasco, *Primer Congreso de Derecho Vasco: Actualización del Derecho civil, celebrado de 16 al 19 de diciembre de 1982*, Oñati, 1983, 289 eta hurrengo orrialdeak.
- GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A., ARIZAGA BOLUMBURU, B., RÍOS RODRÍGUEZ, M. L. eta DEL VAL VALDIVIESO, I., *Bizcaya en la Edad Media*, IV. liburukia, Donostia, 1985.
- GETE-ALONSO Y CALERA, M^a. C., La Codificación civil, *Manual de Derecho Civil*, I, *Introducción y Derecho de la persona*, 3. edizioa, Madril: Marcial Pons, 2001.
- GIL RODRÍGUEZ, J., Qué son los Derechos civiles forales, *La Tierra de Ayala, Actas de las Jornadas de Estudios Históricos en conmemoración del 600 Aniversario de la construcción de la Torre de Quejana*, Arabako Foru Aldundia, 2001, 285. eta hurrengo orrialdeak.
- GIL RODRÍGUEZ, J. eta HUALDE SÁNCHEZ, J. J., Prólogo a la *Ley del Derecho civil foral del País Vasco*, 2. argitalpena, Madril: Tecnos, 1999.
- GOROSTIZA VICENTE, J. M., El futuro de la institución troncal, El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros, *Jornadas celebradas en Bilbao los días 2 y 3 de noviembre de 2015*, Bilbo: Par-

- lamento Vasco. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 273 eta hurrengo orrialdeak.
- HORMAECHE, R., *Leyes civiles de Vizcaya*, Bilbo: Tipografía Católica de José de Astuy, 1891.
- ITURRIZA Y ZABALA, J. R., *Historia de Vizcaya: general de todo el Señorío y particular de cada una de las anteiglesias, villas, ciudad, concejos y valles, desde su fundación hasta 1885* (1897. urtera arte J. R. de Iturriza y Zabalak idatzia eta, gaur egun arte, Manuel de Azcárraga y Régilek zabaldua), Bilbo, 1885.
- JADO Y VENTADES, R., *Derecho civil de Vizcaya*, Bilbo, 1900 (2. edizioa, Bilbo, 1923).
- LABAYRU Y GOICOECHEA, E. J., *Historia General del Señorío de Bizcaya*, II. liburukia, Bilbo: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, 1968.
- LARRAZABAL BASAÑEZ, S., *Derecho público de los territorios forales*, Oñati: IVAP, 2004.
- LECANDA MENDIETA, M., *Memoria de las instituciones civiles de Vizcaya*, Liburutegi Judizialean Bizkaiari dagokion liburukian argitaratua, Madril, 1888.
- MARTÍN OSANTE, L. C., *El régimen económico matrimonial en el Derecho vizcaíno*, Madril: Marcial Pons, 1996.
- MARTÍNEZ DE AGUIRRE ALDAZ, C., Notas para la interpretación del inciso «... allí donde existan» del artículo 149.1.8 de la Constitución, *Primer Congreso de Derecho Vasco: Actualización del Derecho Civil*, celebrado de 16 al 19 de diciembre de 1982, Oñati, 1983.
- MONREAL ZIA, G., Desarrollo histórico de las Juntas Generales del Señorío de Bizkaia hasta 1841. ZENBAITEN ARTEAN, *Las Juntas Generales de Bizkaia*, Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1986, 36. eta hurrengo orrialdeak.
- NAVAJAS LAPORTE, A., Aproximación a la historia de la formación del Derecho territorial del País Vasco, *Saileko Koadernoak. Zuzenbidea*, 1 (1984), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 17-32. or.
- PLAZA Y SALAZAR, C., *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1902.
- PUIG I FERRIOL, L., El denominado problema foral desde la perspectiva de un Centenario, *Centenario del Código Civil* (Asociación de Profesores de Derecho Civil), II, Madril, 1990, 1.205.-1.229. or.
- SOLANO Y POLANCO, J., *Estudios jurídicos del Fuero de Bizcaya*, Bilbo: Casa de misericordia, 1918.

URIARTE LEBARIO, L. M., *El Fuero de Ayala*, Madril: M. G. Hernanezen Semeen Inprenta, 1912.

VICENTE ZAVALA, S. J., *La Villa de Durango*, Temas vizcaínos bilduma, XX. Urtea, 235-236 zkia, uztaila-abuztua, Bilbo, 1994.

ZAMÁCOLA, J. A., *Historia de las Naciones Vascas de una y otra parte del Pirineo Septentrional y cosas del mar Cantábrico desde los primeros pobladores hasta nuestros días*, III. liburukia, Auch, 1818.

Euskal Zuzenbide Zibileko legearen auzotasun zibila. Europar Zuzenbide eta nazioarteko Zuzenbide pribatuaren ikuspegiak

Unai Belintxon Martin

Aurkibidea

I. TESTUINGURUA. II. ESPAINIAR SISTEMAREN ESKUALDE ARTEKO ZUZENBIDEAREN ERREFORMA ETA EUROPAR BATASUNAK BULTZATURIKO LEGEGINTZA-HARMONIZAZIO PROZESUA. III. AUZOTASUN ZIBILAREN INGURUKO HAINBAT AIPAMEN EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILEAN ETA NAFARROAKO FORU ZUZENBIDE ZIBILEAN. 1. Euskal auzotasun zibila. 2. Denbora-arte gatazkentzako konponbideak. 3. Auzotasun zibilaren inguruko pre-suntzioak. 4. Euskal Herri barnean eta kanpoan testamentu erkidetua emateko gaitasunaren inguruko arauak. 5. Nafarroako foral zibilaren izaera. 6. Nafarrak atzerrian. 7. Pertsona juridikoen foru izaera. IV. ONDORIOAK. V. BIBLIOGRAFIA.

I. TESTUINGURUA

Europar Zuzenbideak izan duen garapena, baita honek espainiar sistema-
ren Eskualde arteko Zuzenbidean izan duen eragina ondorengo hausnarketaren
hari eroalea dugu. Gure gogoeta nazioarteko ikuspegi pribatista batetik landu
eta jorratu da. Lan honen bitartez, Nafarroako Foru Zuzenbidea bezala, gure he-
rrialdeko Zuzenbide erkidearekin batera existitzen diren ordenamendu zibil fo-
ral ugarien nazioarteko Zuzenbide pribatuen europeartze prozesuaren garapen,
eboluzio, modernizazio eta egokitzapenean bereizgarri diren gaiak identifikatu
eta analizatu nahi ditugu.

Gure sistema juridiko estatala ordenamendu konplexu edo legegintza
-anitzeko taldean kokatzen da. Sistema juridiko honen bereizgarri nagusiak
lurralde-legegintza sistema anitzen elkarbizitza, baita eskualde-arte izaera
duten gatazkak ditugu¹. Hain berezi eta erakargarria den Zuzenbide pribatuari

¹ Errealitate juridiko honen inguruan, ikus: IRIARTE ÁNGEL, J.L., Propiedad y Derecho inter-
nacional, *Los conflictos internos en el sistema español*, Fundación registral (Colegio de registradores

aplikagarri zaion marko legala aztertzea gaur egun Europar Batasuneko araei erreferentzi egitea eskatzen du. Hortaz gain, arau bloke ezberdinen (europarra, estatala, erkidegokoak, lokalak eta nazioartekoak) uneoroko elkarrekintzagatik eskualde-arte harreman juridikoetan agertzen diren gatazka zehatzak nazioarte mailan identifikatu eta islatzea ahalbidetzen duen azterketa sakon bat egitea beharrezkoa dugu.

Beren ikerlan eta azterlanaren objektuari dagokionean, eskualde-arte Zuzenbideak eta gure ordenamendu pribatuak onartzen dituzten gerturapen anitzak, gure diziplinaren ikuspegi *iusprivatista* baten mugapen lan bat egitea eskatzen du. Beti ere, egungo nazioarteko Zuzenbide pribatuaren berezko ezauzgarrien (sektoreen araberako espezializazioagatik hain bereizgarri dena)² araberrako erantzun analitiko bat eskaini nahi badugu, ez dugu ahaztu behar gainerako ikuspegiak kontuan hartu beharko ditugula.

Ondorengo ikerlan honen gogoetak gure nafar ordenamendu foralari etorkizuneko ikuspuntu eta ikuspegi baten ekarpena egin nahi dute. Era berean, tesuinguru juridiko, ekonomiko eta global batean beharrezkoa eta eraginkorra den arau-tresna juridiko baliagarria bultzatzen duten eta oraindik zintzilik dauden modernizazio lanak egitearen garrantzia adierazten duten zenbait klabe analizatu nahi dituzte. Azterlan diren arau-tresna juridiko hauek egun Zuzenbide pribatuaren europeartzeagatik (jatorria Amsterdameko Hitzarmenean³ duena, eta Lisboako Hitzarmena⁴ indarrean jarri zenetik indarturik atera dena)⁵ mugatua dagoen nazioarteko arautegi berdintasun prozesuaren errealitateari erantzun juridiko bat eman beharko diote⁶.

de la propiedad y mercantiles de España), 2007, 133-163 orr.; ÁLVAREZ RUBIO, J.J., *Las normas de derecho interregional de la ley 3/1992 de 1 de julio, de derecho civil foral del país vasco*, Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1995.

² Zentzu honetan ondorengo autoreen argudioak ikus itzazu: GONZÁLEZ CAMPOS, J.D., *Diversification, Spécialisation, Flexibilisation et Materialisation des règles de Droit International Privé*, *RdesC*, t. 287, 2002, 156 eta hurrengoak orr.; ÁLVAREZ RUBIO, J.J., *Las Lecciones Jurídicas del Caso Prestige: Prevención, Gestión y Sanción frente a la contaminación marina por hidrocarburos*, Iruña: Aranzadi, 2011, 13-32 orr.

³ Ikus, CALVO CARAVACA, A.L., *El Derecho internacional privado de la Comunidad Europea*, *Anales de Derecho*, Murcia: Universidad de Murcia, 21, 2003, 49-69 orr.

⁴ GUZMÁN ZAPATER, M., *Cooperación civil y tratado de Lisboa: ¿Cuánto hay de nuevo?*, *La Ley*, 7479, 2010, 713 eta hurrengoak orr.

⁵ BORRÁS, A., *La Comunitarización del Derecho Internacional Privado: pasado, presente y futuro*, *Cursos de Derecho Internacional de Vitoria-Gasteiz (2001)*, Vitoria-Gasteiz: Servicio de Publicaciones de la Universidad del País Vasco, 2002, 285-318 orr.

⁶ Zentzu honetan ikus ezazu, FERNÁNDEZ ROZAS, J.C., *La comunitarización del Derecho internacional privado y Derecho aplicable a las obligaciones contractuales*, *RES*, 140, 2009, 600- ... orr.

Arau eszenatoki hau gatazka harmonizazio eta materialari dagokionean abiadura oso ezberdinetan aurreratzen du. Gatazka harmonizazioa materiala baino askoz ere aurreratuagoa doa, hau oztopo gehigarri bilakatuz. Guzti honek ordenamendu juridiko nazional bakoitzean dauden arauak ordezkaturiko dituzten arauak sortzeko akordioak lortzeko konplexutasuna dakar⁷.

Espainiar Konstituzioa gure ordenamendu juridikoko herrialde-arteko trafiko juridikoaren inguruko kasuak, zeinen gaiaren araberrako zedarritzeak familia Zuzenbidearen (oinordetza eta ezkontzak), ondare Zuzenbidea eta Zuzenbide publiko ekonomikoa bezalako sektore espezifikoeetan ardatzutako eremu bezala ikusten direnen oinarri eta euskarria dugu⁸. Gainera, europar azpisistemaren eraginak, Lisboako Hitzarmenarekin indartuta geratu dena⁹, bere ekintza eremua gure herrialde-arteko Zuzenbide sisteman ditugun instituzio foralen esparru zentraletara zabaltzearen ondorioz, garrantzi berezia hartzen du. Europar Batasunean dugun arau-muntadura konplexuak espainiar sistemako nazioarteko Zuzenbide pribatuan eragin zuzena du. Gaur egun Europar Batasunetik hartu den joerak Estatu kideetan dugun arau aniztasunaren murrizketa inposatu nahi du, alegia, arautegi esparruan harmonizazio eta bateratzea du helburu.

Europar Zuzenbidearen eragina eta garrantzia gure ordenamenduko sistema iturrietan ditugun aldaketetan hauteman dezakegu. Berezi, europako egoera eta harreman guztiak zuzenean europar integrazio prozesu printzipioaren eraginpean geratuz¹⁰. Europar instituzioen protagonismo honek eskuduntza handiagoak eskuratzeko etengabeko zabalkuntza prozesu eta joera islatzen dute, ohiko ogasun Zuzenbideaz gain, gainerako sektoreetan ere sartuz, pertsonaren Zuzenbide eremuan besteak beste¹¹.

⁷ Europar Zuzenbide pribatuaren errealitate hau behatzeko ikus ezazu: BELINTXON MARTÍN, U., *Derecho europeo y transporte internacional por carretera*, Cizur Menor: Editorial Aranzadi, 2015, 26 eta hurrengoak orr.

⁸ ÁLVAREZ RUBIO, J.J., Una renovada dimensión de los conflictos internos: nuevos Estatutos de Autonomía y Desarrollo Normativo, *JADO Aldizkaria*, Bilbo, VII urtea, 18 zk., 2009ko Abendua, 21-51 orr.

⁹ Ildo honetan ikus, ÁLVAREZ RUBIO, J.J., La incidencia del Tratado de Amsterdam en el sistema español de Derecho interregional, *Anales de la Facultad de Derecho*, 18, 2001eko Azaroa, 65-78 orr.

¹⁰ Zuzenbide pribatuaren europeizazio eta nazioarteko Zuzenbidea integrazioarantz europar esparruko eboluzio juridikoaren inguruan ikus ezazu: DE MIGUEL ASENSIO, P.A., Integración Europea y Derecho Internacional Privado, *RDCE*, bol. 2, 1997, 413-445 orr.

¹¹ Zentzu honetan, besteen arte ikus ondorengo europar arauak: Europar Batzordearen 2000ko maiatzaren 29ko 1347/2000 (EB) Erregelamendua indargabetzen duen ezkontza eta guraso erantzukizun materiako eskuduntza, ebazpen judizialen errekonozimendu eta exekuzioen inguruko Europar Batzordearen 2003ko azaroaren 27ko 2201/2003 (EB) Erregelamendua (DOUE, 2003ko Abenduaren 23a, L 338/1); elikagaien betebeharren materiako eskuduntza, lege aplikagarri, ebazpenen errekonozimendu

Egun, erantzun anitz eta kontrajarriak ematen dituzten bi ordenamendu juridiko edo gehiago parte hartzen duten harreman juridikoen maiztasunak nazioarteko Zuzenbide pribatua izateko arrazoia azaltzen dute. Munduko banaketa politiko eta juridiko konplexuak, eta nazioarteratze elementuak sartzearekin batera atzerritar testuinguruan ematen diren harreman pribatuen ugaritzeak, nazioarteko Zuzenbide pribatuak erantzun nahi dituen arazo zehatzak aurkezten dituzte¹².

Alegia, nazioarteratze/heterogeneitate elementu baten existentzia ordenamendu juridiko anitzen elkarbizitzagatik erasan diren egoera guztiak, baita Estatu barnean ematen direnak ere, estaltzen dituela ulertu beharra dugu. Azaldu dugun arautegien aniztasunak, legegile nazional, autonomiko, europar eta nazioartekoei arautegi baten sorkuntzarako aukera ezberdinak aztertzea ahalbidetu beharko die. Horretarako, legegileek etorkizunera begira bideratzen den azterketa egin beharko dute, ezinbestean, Zuzenbide pribatuko sektorearekin koordinatuz.

II. ESPAINIAR SISTEMAREN ESKUALDE ARTEKO ZUZENBIDEAREN ERREFORMA ETA EUROPAR BATASUNAK BULTZATURIKO LEGEGINTZA-HARMONIZAZIO PROZESUA

1978ko Espainiar Konstituzio espainiar eskualde-arteko Zuzenbidean kontuan hartu behar dugun lehen arautegia dugu. Espainiar nazioarteko Zuzenbide pribatu sistemaren egituraketan agindu konstituzionalen garrantzia nagusitasun hierarkiko eta eraginkortasunagatik dago adierazita. Kontuan izan ezazue, alde batetik, legegintza zibileko materialen Estatu eta Autonomia-erkidegoen arteko eskuduntza mugaketa eta banaketan eragin osoa duela; bestalde, espainiar sistemako nazioarteko Zuzenbide pribaturen arautegi eta edukiek osatzen dituzten balore juridikoak osatzen ditu¹³.

eta exekuzio, eta kooperazio inguruko 2008ko abenduaren 18ko 4/2009 (EB) Erregelamendua (DOUE, 2009ko azaroaren 10a, L7/1); dibortzio eta banatze judizialaren lege aplikagarri esparruan kooperazio sendotua ezartzen duen Europar Batasuneko 2010eko abenduaren 20ko 1259/2010 (EB) Erregelamendua (DOUE, 2010eko abenduaren 29a, L 343/10); *mortis causa* oinordetza eta europar oinordetza ziurtagiri sorkuntza materialen eskuduntza, lege aplikagarri, ebazpenen errekonozimendu eta exekuzio, dokumentu publikoen onarpen eta exekuzio inguruko 2012ko uztailearen 4ko Europar Parlamentu eta Batzordearen 650/2012 (EB) Erregelamendua (DOUE, 2012ko uztailearen 27a, L 201/107).

¹² Barne egoera edo juridikoki homogeneoak, eta juridikoki heterogeneoak diren egoerak edo atzerrikoen arteko ezberdintasuna aztertzeke ikus: GONZÁLEZ CAMPOS, J.D., *Derecho Internacional Privado. Introducción*, Madrid: Universidad Autónoma (Xerocopia), 1984, 11 orr.

¹³ ÁLVAREZ RUBIO, J.J., *La necesaria reforma del sistema español de Derecho interregional, Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz*, Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 1997, 289 eta hurrengoak orr.

Espainiar ordenamendu juridikoko arau goreneko 149.1.8 artikulua gure ordenamendu juridikoan ditugun Zuzenbide zibil foralen edo berezien existentzia bermatzen du, aitzitik, Autonomia-erkidegoen eta Estatuaren arautegi eskumenen esparrua mugatzen ditu. Hots, aipaturiko agindu konstituzionalean agerturiko klausulak Autonomia-erkidegoen autonomia politikoaren bitartez foraltasun zibila bermatzen du.

Hala nola, Auzitegi Konstituzionalak 1993ko martxoaren 12ko 88/1993 Epaian¹⁴ agertzen duen interpretazioa ikus daiteke, bere lehen oinarri juridikoko (b) hirugarren paragrafoan, berme hori ondorengo hitzetan zehazten du,

«El citado precepto constitucional, tras atribuir al Estado competencia exclusiva sobre la “legislación civil”, introduce una garantía de la foralidad civil a través de la autonomía política, garantía que no se cifra, pues, en la intangibilidad o suprallegalidad de los Derechos civiles especiales o forales, sino en la previsión de que los Estatutos de las Comunidades Autónomas en cuyo territorio aquéllos rigieran a la entrada en vigor de la Constitución puedan atribuir a dichas Comunidades competencia para su “conservación, modificación y desarrollo”».

Hitz berdinekin agertzen da Auzitegi Konstituzionala 1993ko maiatzaren 6ko 156/1993 Epaian bere lehen oinarri juridikoan (a) honakoa diolarik,

«El art. 149.1.8 de la Constitución, tras atribuir al Estado competencia exclusiva sobre la “legislación civil”, introduce una garantía de la foralidad civil a través de la autonomía política, garantía que no se cifra en la intangibilidad de los Derechos civiles especiales o forales, sino en la previsión de que los Estatutos de las Comunidades Autónomas en cuyo territorio aquéllos rigieran a la entrada en vigor de la Constitución puedan atribuir a dichas Comunidades competencia para su “conservación, modificación y desarrollo”».

Agindu konstituzional honek doktrina interpretazio anitzak ekarri ditu, bereziki, arau orokor batez osaturiko arau konplexua dela azalduz, arau orokor horren salbuespena, eta azkenik, salbuespenaren hainbat salbuespen izanik¹⁵. Konplexutasun honek Zuzenbide zibil foral edo bereziei¹⁶, Zuzenbide horien

¹⁴ 1993ko martxoaren 12ko, Konstituzio Auzitegiaren 88/1993 Epaia, (RTC/1993/88). Aranzadi.

¹⁵ ESTRUCH ESTRUCH, J., Criterios de aplicación del Derecho civil valenciano, Universidad de Valencia, Lección 6, 1-33 orr.

¹⁶ Honen inguruko interpretazioari dagokionean, besteak beste, 1992ko irailaren 28ko Auzitegi Konstituzionalako 121/1992 Epaiko lehen oinarri juridikoan ondorengo jasotzen du: «[...] *El amplio enunciado de esta última salvedad («Derechos civiles forales o especiales») permite entender que su remisión alcanza no sólo a aquellos Derechos civiles especiales que habían sido objeto de compilación al tiempo de la entrada en vigor de la Constitución, sino también a normas civiles de ámbito regional o local y de formación consuetudinaria preexistentes a la Constitución [...]*». (RTC/1992/121). Aranzadi.

garapenaren irisgarritasunari¹⁷ eta Zuzenbide zibil foralen arteko berdintasunari (Zuzenbide komuna besteak beste)¹⁸, erreferentzia egiten dien «*allí donde existen*» esamoldearen inguruan interpretazio eta zehaztapen sakona egitea eskatu du.

Nafarroako Zuzenbide Zibilaren berrikuntza eta legegintza garapenaren inguruko beharrezko eta handinahizko proiektuak, beti ere arautegi bateratze prozesua europar instituzioengatik sustatua dela ulertuz¹⁹, barne Zuzenbidearen bateratzen prozesuaren inguruko analisi sakona eskatzen du, baita espainiar sistemako eskualde-arteko Zuzenbidearen eraldatzearen ingurukoa ere. Kontuan izan ezazue Europar Batasunaren integrazio politiko, ekonomiko, sozial eta juridiko handiago batek, neurri handiago edo txikiago batean, bertan bizi diren ordenamendu juridiko ezberdinen arteko gerturapen bat dakarrela. Honek ez du esan nahi sistema juridiko anitzeko Estatu batek berezko ohitura juridikoak ukatu behar dituenik, hala ere, europar eraikuntza prozesuan zehar legeri aniztasuna mugaz bestaldeko harremanentzat traba bilakatzen den ala ez aztertu beharra dago.

Espainiar nazioarteko Zuzenbide pribatua giltzatzen diren egitura, dimentsio eta maila ezberdinek, errealitate diferenteak dakartzaten gatazken elkarbizitza egonik (lurrealde barneko gatazkak, edota europar barneko zein kanpoko gatazkak), legegile desberdinen (autonomiko edota estatalak) ulerpen maila handia eskatzen du erantzun juridiko egoki bat eman ahal izateko²⁰.

Era berean, arautegi bateratze prozesu horretan europar legegileak ordenamendu eta gizarte bakoitzarekin loturik dauden ohitura eta kultura legalak lantzen hasi dela azpimarratu beharra dugu. Besteak beste, familia eta oinordetza Zuzenbidearen azterketa eginik, ogasun Zuzenbide eta betebeharrak Zuzenbi-

¹⁷ 1993ko martxoaren 12ko Auzitegi Konstituzionaleko 88/1993 Epaia (RTC/1993/88). Aranzadi.

¹⁸ 1993ko uztailaren 8ko Auzitegi Konstituzionaleko 226/1993 Epaiko, bigarren oinarri juridikoak honakoa dio: «[...] que la Constitución -su art. 149.1.8, específicamente- viene sólo a posibilitar una posición de paridad, si así quiere decirse, entre los Derechos especiales o forales, y entre ellos y el Derecho Civil general o común, por vía de la atribución en exclusiva al Estado de la competencia sobre las «normas para resolver los conflictos de leyes», competencia que en principio asegura –como hemos dicho en la reciente STC 156/1993 (RTC 1993\156)– «un igual ámbito de aplicación de todos los ordenamientos civiles» (fundamento jurídico 3.º). Tan sólo en estos términos, y con las reservas dichas y las salvedades que se harán, cabría hablar de paridad entre ordenamientos civiles, paridad resultante, en definitiva, de la uniformidad de régimen en materia de Derecho interregional privado que la Constitución inequívocamente dispuso». (RTC\1993\226). Aranzadi.

¹⁹ Europar Zuzenbide komun pribatuaren tratamenduari dagokionean ikus: FERNÁNDEZ ROZAS, J.C., Derecho internacional privado y Derecho comunitario, *RIE*, bol. 17, 1990, 785-824 orr.

²⁰ Beste askoren artean, ikus: IRIARTE ÁNGEL, J. L., La armonización del Derecho internacional privado por la Unión Europea, *Jado: boletín de la Academia Vasca del Derecho*, 9, 2006, 47-73 orr.

deetatik urrunduz. Gainera, etorkizunean ezkontza-araubide ekonomikoarekin erlazioa duten gaiak arautzeko desioa ere agertzen du. Bateratze prozesu horren hedapenaren zergatia europar barne merkataritza irekierarekin guztiz loturik dago. Europar barne merkatuaren irekierak langileen lurraldez bestaldeko desplazamenduak, baita beren familiarena ere, ahalbidetzen du, europar esparruan, teoriarik behintzat, langileen zirkulazio librea bermatuz.

Hots, hesi nazionalen ezabatze²¹, askatasun, segurtasun eta justizia espazio²², eta pertsona, merkantzia, zerbitzu eta kapitalen zirkulazio askatasunaren bermeren²³ ondorioz, europar Zuzenbidearen joera barne eta nazioarteko gatazken arteko gerturapen eta identifikazio handiago batetara bideratzen da. Kontuan izan, askatasun, segurtasun eta justizia espazio baten lorpenerako²⁴, Tampere-ko Europar Batzordean harturiko ondorio garrantzitsuenetariko batek, benetako Europar Justizia Espazio batean Estatu kideen sistema juridiko eta administrazioen bateraezintasunak pertsona eta enpresei beren eskubideak ezin dietela galarazi azpimarratu zuen²⁵.

Behin aurreko guztia esanda, eta nahiz eta, gure gatazka sistemak nazioarteko, zein nazio barneko gatazkek arautzeko izaera bikoitza izan, egun,

²¹ Nazioarteko merkataritza baldintzatzen duten eta merkataritza ekintzan nazionalitateagatik be-reizketa egiten duten oztopo nazionalen inguruan ikus: FERNÁNDEZ ROZAS, J.C., *Sistema de Derecho económico internacional*, Cizur Menor (Nafarroa): Thomson Civitas, 2010, 55 eta hurrengoak orr.

²² Zehaztasun gehigo izateko, ikus: FERNÁNDEZ ROZAS, J.C., *El Espacio de libertad, seguridad y justicia consolidado por la Constitución Europea*, *La Ley*, D-195, 2004, 16 orr.

²³ Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuan jasotako bermeak, 2007ko Lisboako Tratatuarekin finkatua eta indartuak izan direnak: merkantzien zirkulazio librea (28 eta 29. artikulua); eta pertsona, zerbitzu, kapital zirkulazio librea eta ezarpen askatasuna (45. artikulutik 66. artikulura bitarte).

²⁴ Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuaren 67. artikulua araberaz: «1) *La Unión constituye un espacio de libertad, seguridad y justicia dentro del respeto de los derechos fundamentales y de los distintos sistemas y tradiciones jurídicas de los Estados miembros.* 2) *Garantizará la ausencia de controles de las personas en las fronteras interiores y desarrollará una política común de asilo, inmigración y control de las fronteras exteriores que esté basada en la solidaridad entre Estados miembros y sea equitativa respecto de los nacionales de terceros países. A efectos del presente título, los apátridas se asimilarán a los nacionales de terceros países.* 3) *La Unión se esforzará por garantizar un nivel elevado de seguridad mediante medidas de prevención de la delincuencia, el racismo y la xenofobia y de lucha en contra de ellos, medidas de coordinación y cooperación entre autoridades policiales y judiciales y otras autoridades competentes, así como mediante el reconocimiento mutuo de las resoluciones judiciales en materia penal y, si es necesario, mediante la aproximación de las legislaciones penales.* 4) *La Unión facilitará la tutela judicial, garantizando en especial el principio de reconocimiento mutuo de las resoluciones judiciales y extrajudiciales en materia civil.*».

²⁵ Modu progresibo batean askatasun, segurtasun eta justizia espazio bat ezartzeko beharrari dagokionean, ikus itzazue ondorengo autoreak agertzen dituen gogoetak: DE MIGUEL ASENSIO, P., *La evolución del Derecho internacional privado comunitario en el Tratado de Amsterdam*, *REDI*, bol. L, Znb. 1, 1998, 373-376 orr.

Lisboako Tratatua indarren jartzearen ondorioz zenbait sektoreetan EBk duen arautegi irakinaldiari esker, sistema dual baterantz bideratu gara. Sistema bi-koitza nazioarteko gatazkei aplikagarri zaien gatazka arauen, eta nazional edota barne gatazkei aplikagarri zaien gatazka arauen arteko desberdintasun argiagatik eman da.

Dualtasun honek, neurri handi batean behintzat, bi arau bloke horien bizikidetzak orekatsua oztopatzen du. Bereziki, doktrinak urteak baitaramatza gatazka legeak konpontzeko gure sistemak ematen dituen erantzunak²⁶, Kode Zibileko Aurretiazko Tituluko IV kapituluak jasotzen direnak, europar Zuzenbidea, materia arrazoitzat dituzten espezializazio irizpideei erantzuteko, ematen dituen teknika eta ebazpen modernoan aurrean zaharkiturik geratu direla ohartarazten ari baita²⁷.

Gatazken ebazpenerako gure barne sistemak, lege berezia den eskualde-arteko Zuzenbidea falta duenak, azalduko IV kapitulu eta Kode Zibileko 14.1 eta 16.1 artikuluen menpe agertzen da. Artikulu horien oinarritzko lerroak nazioarteko Zuzenbide pribatuko arauetara bideratzen dituen printzipioan oinarritzen dira, baita auzotasun zibilaren zehaztasuna konexio puntu bezala eta ordenamendu juridiko zibil ezberdinen lotura pertsonalaren irizpide printzipiora ere²⁸. Modu honetan, lege pertsonala zehazterako garaian auzotasun zibila konexio puntu bezala aplikatzeko irizpidea azpimarratu beharra dugu, baita europar arau modernoan aplikagarritasun eremuan bere baliagarritasun eta irisgarritasuna baliogabeturik geratzen den ere. Besteak beste, Europar Batasuneko 650/2012 Erregelamenduak²⁹ erabiltzen duen ohizko bizilekuaren irizpidea agertzen zaigularik³⁰.

²⁶ Sakontzeko ikus ezazu: CELAYA IBARRA, A., Conflictos de leyes civiles, *JADO Aldizkaria*, Bilbo, VII urtea, 18 zk., 2009ko Abendua, 7-20 orr.

²⁷ Guzti honen inguruan, ikus: IRIARTE ÁNGEL, J.L., Ámbito material y personal y normas conflictuales, *Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Bilbo: Eusko Jaurlaritza, 2016, 135-161 orr.

²⁸ ZABALO ESCUDERO, E., BETEGON SANZ, C. eta CALATAYUD SIERRA, A., Conflictos interregionales en materia de Derecho sucesorio aragonés, *Décimos encuentros del Foro aragonés. Actas*, Zaragoza: Justicia de Aragón, 2004, 105-132 orr.

²⁹ IRIARTE ÁNGEL, F.B., La unidad de la sucesión después de la sentencia del Tribunal Supremo de 28 de abril de 2014; efectos en los conflictos internos, *Jado. Boletín de la Academia Vasca de Derecho*, Znb. 26, 2014, 389 eta hurrengoak orr.

³⁰ *Mortis causa* oinordetza eta europar oinordetza ziurtagiri sorkuntza materiako eskuduntza, lege aplikagarri, ebazpenen errekonozimendu eta exekuzio, dokumentu publikoen onarpen eta exekuzio inguruko 2012ko uztailaren 4ko Europar Parlamentu eta Batzordearen 650/2012 (EB) Erregelamendua (DOUE, 2012ko uztailaren 27a, L 201/107).

Ildo beretik, gainerako europar Zuzenbidearen soluzio modernoan artean, Erroma I Erregelamenduak³¹, 1980ko Erromako Hitzarmenaren ordezkia, eskaintzen dizkigun irizpide eta erantzun berriak azpimarratu behar ditugu. Nazioarteko Hitzarmen aplikagarri edota arau espezifiko bat egon ezean, Erroma I Erregelamendua kontratu betebeharren materiako gatazka legeak arautzera sartzen da. Alegia, Erroma I Erregelamen hau kontratu betebeharren lege aplikagarria zehazteko iturririk garrantzitsua bilakatu da³². *Erga omnes* edo baliagarritasun unibertsala duen Erregelamendu honek, mota honetako betebeharretan aplikagarri ziren nazioarteko Zuzenbide pribatuko arau nazionalak alde batera uzten ditu³³.

Arautegi honek, EBko testuinguruan ematen diren nazioarteko eztabaida batean lege aplikagarri materiari jarraitu beharreko lehen pausoa aldean arteko lege hautaketa edo pakto klausula dagoen ala ez aztertu beharra da. Honela jasotzen du Erroma I Erregelamenduak bere 3. artikuluan aldean arteko kontratua arautzeko legearen hautaketa askatasuna azaltzen duenean³⁴. Aldeei ematen zaion borondate autonomia mailaren adierazle gorena dugu, Europar erakundeek hautaketa askatasunean oinarri duen kontratu betebeharren materiako gatazka lege inguruko arau sistema bat osatzeko xedea dutelarik³⁵.

Era berean, europar arau honek ordenamendu juridiko bat baino gehiago duten Estatuengun inguruan egiten duen aurreikuspena azpimarratu beharra dugu. Alde batetik, lurralde horietan eragina duten barne gatazka legeei, nazioarteko kasuetan kontratu betebeharreri aplikagarri zaion legea zehazteko soluzioak ezartzeko aukera ematen die. Bestalde, europar Erregelamenduak zehazten duen moduan Estatu bat osatzen duten eta kontratu betebeharreri materiari berezko arau juridikoak dituzten lurralde guztiak herrialdeetat hartzeko aukera ahalbidetzen du, arau horiek zuzenki aplikagarri bilakatu.

³¹ Kontratu betebeharreri aplikagarri zaion legearen inguruko 2008ko ekainaren 17ko Europar Parlamentu eta Batzordearen 593/2008 (EB) Erregelamendua (DOUE, 2008ko uztailaren 4a, L 177/6).

³² Honen inguruan, ikus: DE MIGUEL ASENSIO, P.A., Contratación internacional: La evolución del modelo de la Unión Europea, *Revista mexicana de Derecho internacional privado y comparado*, Znb. 29, 2011ko iraila, 67-89 orr.

³³ Besteak beste: GUZMÁN ZAPATER, M., El reglamento CE núm. 593/2008, del Parlamento Europeo y del Consejo, sobre ley aplicable a las obligaciones contractuales: régimen general, contratos de consumo y contrato individual de trabajo, *Aranzadi civil*, Znb. 2, 2009, 2257-2286 orr.

³⁴ Erroma I Erregelamenduko 3.1 artikulua honako dio: «*el contrato se regirá por la ley elegida por las partes. Esta elección deberá manifestarse expresamente o resultar de manera inequívoca de los términos del contrato o de las circunstancias del caso. Por esta elección, las partes podrán designar la ley aplicable a la totalidad o solamente a una parte del contrato*».

³⁵ Beste askoren artean, ikus: CARRASCOSA GONZÁLEZ, J., La autonomía de la voluntad conflictual y la mano invisible en la contratación internacional, *La Ley*, Znb. 7847, 2012ko apirilaren 27a.

Sistema juridiko anitzak dituen Estatu baten inguruan Erroma I Erregelamenduko 22. artikulua honakoa adierazten du,

1. Cuando un Estado se componga de varias unidades territoriales cada una de las cuales tenga sus propias normas jurídicas en materia de obligaciones contractuales, cada unidad territorial se considerará como un país a efectos de la determinación de la ley aplicable en virtud del presente Reglamento.
2. Un Estado miembro en el que las distintas unidades territoriales tengan sus propias normas jurídicas en materia de obligaciones contractuales no estará obligado a aplicar el presente Reglamento a los conflictos de leyes que afecten únicamente a dichas unidades territoriales.

Arau honen bitartez europar legegileak igorpen zuzenaren eredia jasozten du. Honela, fikzio legal baten bitartez Estatuak eta lurraldeak parekatzen dituelarik, gatazka arauak zuzenean lurralde Zuzenbideari erreferentzia egitea ahalbidetuz, bide batez, lege anitzak dituen ordenamenduari dagokion eskualde Zuzenbidea saihestuz³⁶. Gainera, barne gatazka legeei europar Erregelamenduan agertzen diren arauak aplikatzeko aukera zabalik uzten da, beti ere, dagokion Estatu kideak onetsiz gero.

Bestalde, nazioarteko oinordetza materian, Europar Batasuneko 650/2012 Erregelamenduak³⁷ ez bezala, gure Zuzenbide komuna heriotzagatik oinordetzarako lege aplikagarria zehazteko nazionalitatearen irizpidea jasotzen du (Kode Zibileko 9.8 artikulua)³⁸, eta ondorioz, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren ikuspegitik Foru Berriagatik (148 Legea)³⁹ arautzen den nafar auzotasun zibila

³⁶ Zentzu honetan, ikus: QUINZA REDONDO, P. y CHRISTANDL, G., Ordenamientos plurilegislativos en el Reglamento (UE) de sucesiones con especial referencia al ordenamiento jurídico español, *InDret. Revista para el Análisis del Derecho*, 3, 2013ko Uztaila, 8-10 orr.

³⁷ Ikus ondorengo autoreen Europar Batasuneko 2012ko uztailaren 4ko 650/2012 Erregelamendua- ren inguruko ikerlana: BONOMI, A. eta WAUTELET, P., *El Derecho europeo de sucesiones. Comentario al Reglamento (UE) nº650/2012, de 4 de julio de 2012*, Cizur Menor: Editorial Aranzadi, 2015, 239 eta hurrengoak orr.

³⁸ Kode Zibileko 9.8 artikulua honakoa dio: «*La sucesión por causa de muerte se regirá por la ley nacional del causante en el momento de su fallecimiento, cualesquiera que sean la naturaleza de los bienes y el país donde se encuentren. Sin embargo, las disposiciones hechas en testamento y los pactos sucesorios ordenados conforme a la ley nacional del testador o del disponente en el momento de su otorgamiento conservarán su validez aunque sea otra la ley que rija la sucesión, si bien las legítimas se ajustarán, en su caso, a esta última. Los derechos que por ministerio de la ley se atribuyan al cónyuge superviviente se regirán por la misma ley que regule los efectos del matrimonio, a salvo siempre las legítimas de los descendientes*».

³⁹ Donazio eta Oinordetza inguruko Foru Berriaren 148 Legea: «*Ley aplicable. Las donaciones y actos de disposición mortis causa otorgados por disponentes de condición foral se regirán por la presente Compilación. Sin embargo, para que la sucesión se ordene conforme a este Compilación se requerirá la condición foral del causante al momento de su fallecimiento, sin perjuicio de la validez de los actos en cuanto a su forma según el Derecho a que se hallaren sometidos al tiempo de su celebración*».

heriotzagatiko oinordetza auzotasun zibilaren legea aplikatuz. Europar Zuzenbi-deak ordea, nazioarteko oinordetzetarako erantzun modernoagoa eta egunerako egokituagoa eskaintzen du. Alegia, heriotzagatiko oinordetza hiltze momentuan duen ohiko bizilekuko legeagatik arautzen du (21. artikulua)⁴⁰.

650/2012 Erregelamenduko 21. Artikuluko lehen paragrafoan arau oro-kor bezala honakoa adierazten du,

«Salvo disposición contraria del presente Reglamento, la ley aplicable a la totalidad de la sucesión será la del Estado en el que el causante tuviera su residencia habitual en el momento del fallecimiento».

Era berean, Erregelamenduko 22. artikulua lege aplikagarriaren hautaketa ahalbidetzen du, beti ere, hautaketa edota heriotza momentuan interesatuak duen nazionalitateko Estatuko legera baldintzatuz. Lege hautaketa hori *mortis causa* edo antzeko xedapenean espresuki islaturik azaltzen da⁴¹. Azkenik, Erregelamenduak sistema anitzak dituzten Estatuetan eta beren lurraldeko gatazka legeetan aplikagarri diren hiru xedapen jasotzen dituela azaldu beharra dugu. Hori dela eta, aurretik agertu ditugun kontratu betebeharrak inguruko Erroma I Erregelamenduan azaltzen diren antzeko soluzioak, baino berdinak ez direnak, ahalbidetzen dituen igorpen misto sistema erabiltzen du (36, 37 eta 38. artiku-luak)⁴².

⁴⁰ Besteen artean ikus: ÁLVAREZ TORNE, M., La regulación de la competencia internacional en el Reglamento de la UE en materia sucesoria: un nuevo escenario frente al sistema español de DIPr. Forner Delagya, J., González Beilfuss, C. eta Viñas Farre, R. (koord.), *Entre Bruselas y La Haya*, Madril: Marcial Pons, 2013, 109-111 orr.

⁴¹ 650/2012 Erregelamenduko 22. artikulua arabera: «1. *Cualquier persona podrá designar la ley del Estado cuya nacionalidad posea en el momento de realizar la elección o en el momento del fallecimiento. Una persona que posea varias nacionalidades podrá elegir la ley de cualquiera de los Estados cuya nacionalidad posea en el momento de realizar la elección o en el momento del fallecimiento.* 2. *La elección deberá hacerse expresamente en forma de disposición mortis causa, o habrá de resultar de los términos de una disposición de ese tipo.* 3. *La validez material del acto por el que se haya hecho la elección de la ley se regirá por la ley elegida.*».

⁴² 36. artikulua: «*Estados con más de un sistema jurídico – conflictos territoriales de leyes. 1. En el caso de que la ley designada por el presente Reglamento fuera la de un Estado que comprenda varias unidades territoriales con sus propias normas jurídicas en materia de sucesiones, las normas internas sobre conflicto de leyes de dicho Estado determinarán la unidad territorial correspondiente cuyas normas jurídicas regularán la sucesión.* 2. *A falta de tales normas internas sobre conflicto de leyes: a) toda referencia a la ley del Estado a que hace referencia el apartado 1 se entenderá, a efectos de determinar la ley aplicable con arreglo a las disposiciones relativas a la residencia habitual del causante, como una referencia a la ley de la unidad territorial en la que este hubiera tenido su residencia habitual en el momento del fallecimiento; b) toda referencia a la ley del Estado a que hace referencia el apartado 1 se entenderá, a efectos de determinar la ley aplicable con arreglo a las disposiciones relativas a la nacionalidad del causante, como una referencia a la ley de la unidad territorial con la que el causante hubiera tenido una vinculación más estrecha; c) toda referencia a la ley del Estado a que hace referencia el apartado 1 se entenderá, a efectos de determinar la ley aplicable con arreglo a cualesquiera*

Hala ere, eskualde Zuzenbideko edota barne gatazken inguruko nazioarteko gatazken lege aplikagarria zehazteko europar Zuzenbideak erabiltzen duen ohiko bizilekuaren irizpidea erabiltzea interesatzen zaigun ala ez galdetzea bestelako gauza dugu.

Aurrekoaren haritik, Nafarroako Zuzenbide zibilaren eguneratze eta garrantze prozesuko eskuduntza Espainiar Konstituzioko 149.1.8 artikuluko eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoko (LORAFNA) 48. artikulua menpe agertzen da. Artikulu horietan gure autonomia erkidegoari Foru Foru Zuzenbide Zibilaren mantentze, eraldatze eta garapenerako legegintza-eskuduntza bermatzen dute. Alabaina, ez dugu ahaztu behar azalduko xedapen konstituzionalak *lege gatazka ebazteko arau* materiaren Estatuaren eskuduntza eskusiboa gordetzen duela, gure diziplinaren materialak diren nazioarteko, eskualde-arteko edota lurralde-arteko gatazken ebazpenei zuzenduriko nazioarteko Zuzenbide pribatuko arauetan besteak beste.

Hots, xedapen konstituzionalak bi berme sustatzen ditu: alde batetik, Zuzenbide zibil foral edo berezien aniztasuna; eta bestetik, Autonomia Erkidegoen eta Estatuaren lege eskumen esparrua. Era honetan eskualde-arteko Zuzenbide zibilaren sistema uniformearen alde agertuz⁴³.

149.1.8 artikulua honakoa adierazten digu,

«El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias: Legislación civil, sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan. En todo caso, las reglas relativas a la aplicación y eficacia de las normas jurídicas, relaciones jurídico-civiles relativas a las formas de matrimo-

otras disposiciones relativas a otros elementos que sean factores de vinculación, como una referencia a la ley de la unidad territorial en la que esté ubicado el elemento pertinente. 3. No obstante lo dispuesto en el apartado 2, toda referencia a la ley del Estado a que hace referencia el apartado 1 se entenderá, a efectos de determinar la ley pertinente con arreglo al artículo 27 y a falta de normas sobre conflicto de leyes en ese Estado, como una referencia a la ley de la unidad territorial con la que el testador o las personas cuya sucesión sea objeto de un pacto sucesorio hubieran tenido una vinculación más estrecha. 37. artikulua: Estados con más de un sistema jurídico – conflictos interpersonales de leyes. Toda referencia a la ley de un Estado que tenga dos o más sistemas jurídicos o conjuntos de normas aplicables a diferentes categorías de personas en materia de sucesiones se entenderá como una referencia al sistema jurídico o al conjunto de normas determinado por las normas vigentes en dicho Estado. A falta de tales normas, se aplicará el sistema jurídico o el conjunto de normas con el que el causante hubiera tenido una vinculación más estrecha. 38. artikulua: Inaplicación del presente Reglamento a los conflictos internos de leyes. Los Estados miembros que comprendan varias unidades territoriales con sus propias normas jurídicas en materia de sucesiones no estarán obligados a aplicar el presente Reglamento a los conflictos de leyes que se planteen exclusivamente entre dichas unidades territoriales».

⁴³ Zentzu honetan, ikus, IRIARTE ÁNGEL, J.L., Conflictos de leyes internos. Notas fundamentales de la situación actual, *Jado: boletín de la Academia Vasca del Derecho*, 18, 2009ko abendua, 55-93 orr.

nio, ordenación de los registros e instrumentos públicos, bases de las obligaciones contractuales, normas para resolver los conflictos de leyes y determinación de las fuentes del derecho, con respeto, en este último caso, a las normas de derecho foral o especial».

LORAFNAko 48. artikuluari dagokionean, honakoa dio,

«1. Navarra tiene competencia exclusiva en materia de Derecho Civil Foral.
2. La conservación, modificación y desarrollo de la vigente Compilación del Derecho Civil Foral o Fuero Nuevo de Navarra se llevará a cabo, en su caso, mediante ley foral».

Zentzu honetan, eskualde-arteko Zuzenbide zibilaren sistema uniforme bezala izendatzeari dagokionean, Auzitegi Konstituzionalak bere 156/1993 epaian egiten duen interpretazioa aztertu beharra dugu, bere hirugarren oinarri juridikoan honakoa azaltzen duelarik,

«Hemos de partir de la firme premisa de que la Constitución reserva a la exclusiva competencia del Estado la adopción de las “normas para resolver los conflictos de leyes” [...] atribución competencial esta cuyos contornos o límites no es preciso definir ahora de manera acabada, porque no hay duda alguna de que se integra en todo caso en ella la adopción de las normas de conflicto y la definición de cada uno de sus elementos, entre los que se cuenta, y con la mayor relevancia, la determinación de los puntos de conexión que lleven a la aplicación, en supuestos de tráfico jurídico interregional, de uno de los ordenamientos civiles que coexisten en España. La Norma Fundamental –siguiendo en esto el precedente del art. 15.1.º de la Constitución republicana (RCL 1931\1645)– optó, inequívocamente, por un sistema estatal y, por tanto, uniforme de Derecho civil interregional y excluyó, en la misma medida, que pudieran las Comunidades Autónomas establecer regímenes peculiares para la resolución de los conflictos de leyes, ya por la vía de articular puntos de conexión diversos a los dispuestos en la legislación general ya, en otra hipótesis, por medio de la redefinición, alteración o manipulación de tales puntos de conexión. Esta es, en definitiva, una materia enteramente sustraída por el art. 149.1.8º a la acción normativa de las Comunidades Autónomas y atribuida “en todo caso” a la legislación del Estado».

Foru Zuzenbide Zibilaren kontserbazio, eraldatze eta garapen eginkizuna Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa (Foru Berria)⁴⁴ onartu zuen martxoaren 1eko 1/1973 Legeagatik partzialki landu zen, baita Foru Berria eraldatu duten hainbat lege foral bereziengatik ere⁴⁵. Aitzitik, oraindik ere ego-

⁴⁴ BOE. 57-63, 1973ko martxoaren 7, 8, 9, 10, 12, 13 eta 14a; BOE. 129 Znb., 1974ko maiatzaren 30a.

⁴⁵ DURÁN RIVACOBÁ, R., La doctrina estatutaria en el fuero nuevo de navarra, *Revista jurídica de Navarra*, 15 Zk., 1993, 121-143 orr.

kitzapen eta garapen⁴⁶ eginkizuna lantzea falta da. Egokitzapen eta garapen lan honek egungo gizartera moldatzen den Foru Zuzenbide Zibila eskatzeaz gain, legeak behar berri, gizarte aldaketa eta lege tekniken aurrerapenei egokitzea exijitzen du⁴⁷.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren Arrazoen Azalpean etengabeko eguneratze eta garapen jarraitua ezinbestekoak direla ohartarazten gaituzte, egungo gizarterako behar eta teknikei egokitzeko lana aldarrikatuz.

Ikuspegi historiko batetik Foru Zuzenbide guztien eraikuntzan landamundu baten gailentasuna susma daiteke, halere, honek ez die besteen artean katalan, aragoitar eta euskaldunei, neurri batean behintzat, ondorengo ekintzak oztopatu: 1) beren biztanleri osoari aplikagarri diren legeri zabalak egituratu eta sortu, instituzioak eduki sozialez hornituz, ohitura eta printzipioak baliozko tresna bezala eraldatuz; 2) Foru Zuzenbidea ikerlan objektu juridiko-arkeologiko sinple bezala ulertu; 3) sistema juridiko anitzez osaturiko Estatuaren berezitasunak zehaztu, eskatu eta bermatu.

Prozesu hau egin behar den arren, ez da ahaztu behar nazioarteko gatazka legeei aplikagarria den europar Zuzenbide aplikagarria kontuan hartzea. Horretarako, gatazka legeak konpontzeko legegile estatalaren eskumen osoa kontuan izanik, Nafarroa bezala, Zuzenbide Zibil Forala edo Bereziak dituzten Autonomia-erkidegoak legegile estatalari europar Zuzenbidea erreferentzia bezala izatea sustatu behar diote⁴⁸.

III. AUZOTASUN ZIBILAREN INGURUKO HAINBAT AIPAMEN EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILEAN ETA NAFARROAKO FORU ZUZENBIDE ZIBILEAN

1. Euskal auzotasun zibila

Euskal auzotasun zibilaren atribuzioa izendatzen den 5/2015 Legeko zazpigarren xedapen iragankorrek ondorengoa dio:

⁴⁶ Besteen artean, Foru Berriarekin loturiko hainbat materien eraldatzen inguruan ikus, JIMENO ARANGUREN, R., *El régimen económico matrimonial en el Derecho navarro (1839-2015). Hacia una revisión legislativa*, Cizur Menor: Thomson Aranzadi, 2015, 267-274 orr.

⁴⁷ ÁLVAREZ RUBIO, J.J., El futuro del Derecho Foral Vasco: la necesaria modernización de nuestro ordenamiento privado, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Donostia: RSBAP/EAE, 2010, LXVI-2, 775-795 orr.

⁴⁸ Hausnarketa honen inguruan ikus ÁLVAREZ GONZÁLEZ, S., Derecho internacional privado europeo, plurilegislación civil española y Derecho interregional (o ¿para quién legisla el legislador autonómico de Derecho Civil?), *Dereito*, bol. 15, Znb. 1, 2006, 264-285 orr.

«Desde la entrada en vigor de esta ley, quienes gocen automáticamente de la vecindad civil en cualquiera de los territorios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, adquirirán automáticamente la vecindad civil vasca y la vecindad civil local, en su caso, les corresponda».

Era berean, Lege bereko 10.1 artikulua *Euskal Herriko Autonomi Erki-degoko Zuzenbide zibila euskal auzotasun zibila duten pertsona orori aplikagarri zaiola* dio.

Bi xedapen hauen aplikazio bateratua egin ostean bi ondorio hauek atera ditzakegu: alde batetik, Legea indarrean jarri zen unean Kode Zibilaren menpe zegoen euskal lurraldean auzotasun zibila zuenak, bere auzotasuna komuna zena, euskal auzotasun zibila izatera pasa zen, Euskal Zuzenbide Zibilaren menpe geratuz. Adibide moduan, Bilbon auzotasun zibila zuenak, euskal ordenamenduagatik arautzen den auzotasun berri bat izatera pasa da, honek dituen ondorio guztiak kontuan izanik (oinordetza materian besteak beste). Bestetik, auzotasun zibila berezko Zuzenbide duen euskal lurraldean duenak, Legearekin batera euskal auzotasun zibila izatera pasa da, baita honi dagokio lekuko auzotasun zibila ere⁴⁹. Ondorioz, lekuko auzotasunari dagokion Foru Zuzenbideagatik arautua izango da, baita Euskal Zuzenbide Zibilean agertutakoaren arabera ere.

Euskal auzotasun zibilaren sorrerak, eta honek subjektu askoentzako lege aplikagarriaren aldaketak ekarri dien ondorioak denbora-arte gatazketan arazo handiak ekarri dituzte, baita konstituzionaltasun inguruko zalantza ugariak ere.

2. Denbora-arte gatazketzako konponbideak

5/2015 Legeak, zuzenean edota igorpenean, legea indarrean jarri unean sorturiko, eta euskal auzotasun zibila ezartzearekin, baita auzotasun berriarekin egin beharreko ordenamendu aplikagarriaren aldaketarekin batera agerturiko denbora-arte gatazka konpontzeko hainbat soluzio proposatzen ditu.

Xedapen indargabetzaileak 5/2015 Legea indarrean jartzearekin batera 3/1992 Legea (Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibileko Legea) eta 3/1999 Legea (Gipuzkoako Foru Zibilaren inguruko legea) indargabeturik geratzen direla zehazten du, baita Lege berri honen aurka agertzen den beste edozein lege ere.

⁴⁹ Ikus itzazu 10.3, 61 eta 88 artikulua.

Zazpigarren xedapen iragankorreko bigarren paragrafoan ezkontza erregimen ekonomikoaren inguruko soluzio zehatza agertzen du honakoa esanik:

«la nueva legislación que les resulte aplicable, de acuerdo con lo establecido en la disposición, no alterarán el régimen económico matrimonial o patrimonial, en el caso de las parejas de hecho, salvo que se acuerde en capitulaciones matrimoniales o pacto. En lo relativo a las relaciones personales y sucesorias, se estará a lo dispuesto en la disposición transitoria primera».

Bestalde, lehen xedapen iragankorrek Kode Zibileko 1^º, 2., 3., 4. eta 12. aurre xedapen iragankorretara igortzen gaitu. Arau horiek aurretik indarrean zeuden legeriekin bat eginiko ekintzen eta negozio juridikoen baliagarritasun atzeraezintasun eta mantentze printzipioetan oinarritzen dira⁵⁰. Aurretik azaldu ditugun xedapenak ezin baditugu ezarri, 5/2015 Legeko lehen xedapen iragankorrek ondorengo dio: «*se tendrán en cuenta que las variaciones introductorias en esta ley no deben perjudicar los derechos adquiridos conforme a la legislación anterior*».

3. Auzotasun zibilaren inguruko presuntzioak

Lege berri honen 11. artikulua Euskal Herrian ezarritako tresna publikoetan emailearen euskal auzotasun zibila eta lekuko auzotasun zibila agertu behar dela zehazten du, baita eragina izanez gero, bere ezkontza edo izatezko bikotea arautzen duen ondasunen erregimena ere. Era berean, eta zalantza izanez gero, xedapenak aurkako proba onartzen duten bi presuntzio azaltzen ditu⁵¹.

Lehenik eta behin, auzotasun zibila interesatua jaio den lekuari dagokiola ulertuko da. Kode Zibileko 14.6 artikuluaekin bat egiten duen soluzio zuzena dugu, gainera, kasu gehienetan, lege bereko 14.3 artikuluan agertzen denaren errealitatearekin bat egiten du⁵².

⁵⁰ Xedapen iragankorren inguruan, beha ezazu, CORBAL FERNÁNDEZ, J., Disposiciones Transitorias. Sierra Gil de la Cuesta, I. (koord.), *Comentario del Código Civil*, 2. arg., 10. alea, Bartzelona, 2006, 899 eta hurrengoak orr.

⁵¹ Presuntzio hauen baliagarritasunari dagokinean, berriro ere, Estatuko Batzordearen 1537/92 Txostena kontuan hartu beharra dago, II atalean azaltzen diren paragrafoak bereziki.

⁵² Guzti honi 2007an Erregelamendu Notarialaren eraldaketarekin (urtarrilaren 19ko 45/2007 Errege-dekretua; BOE 2007ko urtarrilaren 29a) euskal legegileak estatalak baino zorrotzasun eta kalitate tekniko handiagoa erakutsi duela batu behar zaio, ondorengo azalduz: «*Respecto de españoles la nacionalidad y su identidad se acreditarán por el pasaporte el documento nacional de identidad y la vecindad civil por el lugar de otorgamiento, salvo que manifieste el interesado otra cosa [...]*». Logikoki azpimarratuta agertzen den lerroa, 2008ko maiatzaren 20eko auzi baten bitartez Auzitegi Gorena-

Bigarrenik, ondasun erregimenari dagokionean, azken bizileku komuna izango dela ulertuko da. Datu hau izan ezean, ezkontza edo izatezko bikoteetan ondasun banaketa ospatu den lekua. Era beran, onargarria den soluzioa ere bada, nahiz eta formalki ez izan, Kode Zibileko 9.2 artikulua 9.3 artikularen inguruan dioena aldera uztearena⁵³. Aitzitik, Borondatezko Jurisdikzioko uztailaren 2ko 15/2015 Legea indarrean jartzearekin batera⁵⁴, bere hamaikagarren azken xedapenaren bitartez, ezkontza legalaren erregimen ekonomikoaren nabaritasun-aktaren tramitazioa azaltzen duen Notariotza Legearen 53. artikularen erreforma ekarri du. Logikoki, ezkontza ondasun erregimen materialian, tresna honek presuntzioen praktika gututz ordezkatuko du, eta ondorioz, euskal Lege berriaren 11. artikulua dioena ere.

4. Euskal Herri barnean eta kanpoan testamentu erkidetua emateko gaitasunaren inguruko arauak

Testamentu erkidetua izendatzen den 5/2015 Legeko 24. artikulua, kontzeptuaren definizioa egin ostean, bere 3. eta 4. paragrafoetan ondorengoa dio:

«3. Quienes ostenten vecindad civil en el País Vasco pueden testar de mancomún aun fuera de esta Comunidad Autónoma.

4. También podrán testar mancomunadamente, dentro y fuera de su comunidad autónoma, en unión con otro causante cuya ley personal no le prohíba hacerlo de mancomún».

Hots, euskal auzotasun zibila duten pertsonak, lekuko auzotasun zibil espezifikorik ez dutenak, testamentu erkidetua Euskal Herritik kanpo eska dezakete, baita atzerrian ere. Era berean, Autonomi Erkidego barnean edo kanpoan, baita atzerrian ere, testamentu erkidetua eska dezakete batzen den beste pertsonaren lege pertsonala honakoa debekatzen ez dion bitartean. Kode Zibileko 16.1.1^{go} artikulua esaten duen moduan, espainiar nazionalitatea duten norbanakoen lege pertsonala eta barne gatazka kasuetan auzotasun zibila edota lekuko auzotasun zibila izango da oinarri.

gak indargabetu zuen (BOE, 2008ko uztailaren 16a). Indargapetze hau ez zen soilik praktikan soluzio irrazionala izategatik izan, maila goreneko arau batek esaten zuenaren aurka jotzeagatik baizik, Kode Zibilek 14.6 artikulua alegia.

⁵³ IRIARTE ÁNGEL, J.L., Conflictos internos de leyes en materia de regímenes económicos matrimoniales, Gimeno y Gómez-Lafuente, J.L. eta Rajoy Brey, E. (koord.) *Regímenes económico-matrimoniales y Sucesiones. Derecho común, Foral y Especial*, Cizur Menor: Thomson Aranzadi, 2008, I. alea, 565 eta hurrengoak orr.

⁵⁴ BOE, 2015eko uztailaren 3a.

5. Nafarroako foral zibilaren izaera

Nafarroako foral zibilaren izaera izendatutako Foru Berriaren⁵⁵ aurre liburuko II. Tituluak 11-16 Legeak pilatzen ditu. Bertan, modu korapilatsu batetan, nafar auzotasun zibilaren inguruko hainbat puntu arautzen ditu. Alegia, orain arte arazoaren arautze partziala besterik ez da egin. Besteak beste, Konpilazioan agertzen ez diren materietan, 11. legeak Kode Zibileko 14 eta 15 artikuluetara igortzen gaitu. Era berean, Lege berak elkarrekikotasun printzipioaren aldarrikatzen du.

Agertu ditugun legen baliagarritasunari dagokionean, Hobekuntzaren 5.3 artikulua dioena kontu izan beharra dugu. Alegia, «*la adquisición, conservación, pérdida y recuperación de la condición civil foral navarro se regirá por lo establecido en la Compilación de Derecho Civil Foral o Fuero nuevo de Navarra*». Gainera, kontuan izan behar dugu indarrean jarri berria den Euskal Zuzenbide Zibilaren inguruko ekainaren 25eko 5/2015 Legea auzotasun zibil berri bat sortu duela, euskal auzotasun zibila alegia. Auzotasun zibil berri hau automatikoki auzotasuna ez zuten pertsonen esleitzen zaie, ordenamendu berri baten menpe utziz, alabaina, Estatuak ez du ekintza hau konstituzioren aurkakotzat hartu.

11. legea eta ondorengoak Foru Berrian barneratu izana ulertzeko sexu-gatiko diskriminazio ezaren printzipioaren aplikazioa egiten zuen Kode Zibileko erreformaren inguruko urriaren 15eko 11/1990 Legearen, eta nazionalitate materiako Kode Zibilaren erreformaren inguruko abenduaren 17ko 18/1990 Legearen promulgazio arte Legeari honek auzotasun zibil bereziak edo foralak gutxien zituela esan beharra dago, beti ere, auzotasun zibil komunaren alde agertzen baitzen. Modu berean, legeri estatalak ez ikusiarena egiten zuen esparru honetako hainbat arazo praktikoko garrantzitsuen aurrean. Guztiz zentzuzkoa da, egoera guzti honen aurrean, Nafarroatik Foru Berria eraikitzerako garaian auzotasun zibil foralaren gutxiagotze posizioa orekatzeko lana sustatu izana.

Agertzen ari garen guzti honek Kode Zibilean dagoen auzotasun zibilaren erregimena eraldatzeko ez du inolako oztoporik jartzen.

Puntu hau amaitu aurretik, Nafarroako foral zibil izaera bestelako kontzeptuetatik bereiztea beharrezkoa dugu. Bereziko *foral izaeraren eraginak* izendatzen den 16 legeko lehen esaldietan egiten duen zoritxarreko aipamena: «*La condición foral navarra de una persona, somete a ésta al Derecho Civil y a*

⁵⁵ Ikus TORRES LANA, J. A., Ley 253, Rubio Torrano, E. (Zuz.), *Comentarios al Fuero Nuevo. Compilación del Derecho Civil Foral de Navarra*, Cizur Menor: Thomson Aranzadi, 2002, 748-749 orr.

las disposiciones administrativas y fiscales de Navarra». Xedapen korapilatsu honek kontzeptu juridiko ezberdinen erreforma argia eskatzen du. Zentzu honetan auzotasun zibilaren aurrean aurkitzen ditugun ulerpen ezberdinak bereiztea ezinbestekoa dugu. Alde batetik, auzotasun zibila Kode Zibileko 14.1 artikulua- ren arabera espainiar bakoitzak Zuzenbide Zibil Komun edo Foru Zuzenbide edo Bereziarekin lotura zehazten duen konexio puntu da. Bestetik, auzotasun zibilari ematen zaion izaera politikoa dugu, non Hobekuntzaren 5.1 artikuluan honakoa agertzen duen: «*A los efectos de la presente Ley Orgánica, ostentarán la condición política de navarros a los españoles que, de acuerdo a las leyes generales del Estado, tengan vecindad administrativa en cualquiera de los municipios de Navarra*». Alegia, auzotasun zibila eta auzotasun administratiboagatik zehazten den izaera politikoa bi irudi ezberdin dira, bakoitzak bere erregimen juridiko eta ondorioak dituelarik. Era berean, Nafarroako xedapen fiskalek be- rezko erregulazio ezberdin bar ere badute.

Agertu digun xedapenak presente izan behar ditugu Aurre Liburuko II. Tituluak eta Foru berriak zehaztaperen falta handia agertzen baitute *nafar izaera foral, Nafarroako foral zibilaren izaera edota nafar esamoldeekin*.

6. Nafarrak atzerrian

Nafarrak atzerrian izendaturiko 12. Legeak honakoa dio:

«Los navarros residentes en el extranjero no perderán su condición foral en tanto conserven la nacionalidad española. Los que adquieran nacionalidad extranjera sin perder la española, conservarán también la condición foral navarra.

Los navarros que hubieran perdido la nacionalidad española, al recuperarla recobrarán también su condición foral».

Arauk beraz, bi erregela zehazten ditu. Lehenik eta behin, atzerrian bizi diren nafar auzotasun zibila duten pertsonak espainiar nazionalitatea mantendu bitarte auzotasuna galduko ez dutela arautzen da. Onargarria den soluzioa ematen duen erregela dugu. Auzitegi Goreneko 1928ko urtarrilaren 26ko auziaren jurisprudentzia zuzenki islatzen duen soluzioa delarik.

«... D. Francisco Bengoechea, a pesar de su larga vecindad en América, quiso conservar la nacionalidad de origen. [...] Consideranco: Que D. Francisco Bengoechea conservó su cualidad de aforado vizcaino porque arreglos con el art. 15 CC no ganó necindad en provincia en que rija el Derecho común, no residiendo nunca en España en los citados territorios. [...] Considerando: Que con arreglo al art. 9 del CC (1889) [...] y armonizado este precepto con el art. 10 del mismo, D. Francisco Bengoechea, no obstante su residencia en el extranjero continuó sometido en cuanto a bienes sitios en la tierra llada de Vizcaya a

la Ley 15, Tit. 20 del Fuero de esta provincia y no pudi disponer de los bienes adquiridos de de sus finados padres que constituían tronco común para él y los actores a favor de persona que no ostentara el carácter de tronquero en grado que le diera preferente derecho porque los bienes inmuebles sitos en territorio sometido al fuero siguen el principio de troncalidad...».

Bestalde, bigarren erregela bezala, xedapenak nafar auzotasun zibila iza-nez gero, eta espainiar nazionalitatea galduz gero, berriz ere espainiar nazionalitatea errekuperatzeko garaian Nafarroako foral zibilaren izaera berreskuratzen duela agertzen du. Arrazoizko soluzioa dugu, gainera, Kode Zibileko 15.3 artikulua zehazten duenarekin guztiz bat egiten du.

7. Pertsona juridikoen foru izaera

15 Legeak honakoa dio: «*La condición foral navarra de las personas jurídicas se determinará por su domicilio*». Hots, Nafarroako eskumenaren menpekoak diren arautegia duten eta Foru-erkidegoko lurraldean helbideratuak dauden pertsona juridiko oro izaera forala izango dute. 15 Legeko erregimen legala Kode Zibileko 9.11 eta 28 artikuluetan esaten duenarekin funtsean bat egiten du.

IV. ONDORIOAK

Espainiar sistemako eskualde-arteko Zuzenbideak berritze sakon bat exijitzen du. Berritze prozesuak, Amsterdameko Hitzarmenarekin hasitako eta Lisboako Hitzarmenarekin indartua izan den nazioarteko Zuzenbide pribatuko europeartze prozesuagatik baldintzatua dagoen barne lege gatazka sistemak ematen dituen erantzunak gainditu behar ditu. Doktrina lege aplikagarria zehaztuko duen eskualde-arteko Zuzenbidearen inguruko lege bat eraikitzearen alde agertzen da, beti ere, Europar Batasunak sustatzen duen aurreikuspen eta segurtasun juridikoaren irizpideekin bat egiten duen legea izanik.

Europar instituzioek sustatzen ari diren arautegi bateratze prozesuak, orain arte legegintza geldotasun jarrera izan duten eta hain bereziak diren familia Zuzenbide bezalako sektoreetan sartzan ari dena, bi galdera mahaigaineratzen ditu: alde batetik, legegintza sorreren iturrien eskema tradizionalaren aldaketa Europar Batasuneko Estatu kideen subiranotasunekin begirunea duen ala ez. Eta bestetik, arautegi bateratze prozesua aurretik dauden ohitura eta instituzio juridikoen galera automatikoa dakarren ala ez.

Era berean, nazioarteko lege gatazkentzako europar Zuzenbideagatik arauturiko soluzio tekniko eta modernoak eskualde-arteko Zuzenbideko arautegi

moduan aplikagarri izan daitezkeen edo ez aztertu beharra dugu. Aukera honek, europar nazioarteko Zuzenbide pribatuaren bitartez eskualde-arteko sistemaren modernizazio ekarriko luke. Aurreko ataletan landutako hainbat europar arauk europar legegileak nazioarteko auzietan Foru Zuzenbide Zibilak egon badirela ikusi baitugu.

Azkenik, gure aburuz, gatazka juridiko bateratze handiagoa sustatzeko egunean aurki daitezkeen interes ezberdinen arteko oreka egoki bat lortu beharra dago. Are gehiago, bigarren maila batean, Europar Batasuneko integrazio politiko, ekonomiko, sozial eta juridikoa sustatzen duen bateratze materiala bermatu beharra dago. Zentzu honetan, bateratze prozesuan parte diren ekintzaile juridiko eta politikoen arteko adostasunak Europar Batasuneko kide diren Estatu guztien barne ordenamendu anitzetan ematen diren egoera juridiko-pribatu guztiak kontuan hartu behar direla uste dugu. Egoera oro kontuan izatearen arrazoia egun ditugun europar ordenamendu pribatu ezberdinen arautegiaren pluraltasuna bermatzea da, era honetan, gure Nafarroako ordenamendu zibilarren jadanekotasuna ahalbidetu eta babestuz.

IV. BIBLIOGRAFIA

ÁLVAREZ GONZÁLEZ, S., Derecho internacional privado europeo, plurilegislación civil española y Derecho interregional (o ¿para quién legisla el legislador autonómico de Derecho Civil?), *Dereito*, Bol. 15, Znb. 1, 2006, 264-285 orr.

ÁLVAREZ RUBIO, J.J., *Las normas de derecho interregional de la ley 3/1992 de 1 de julio, de derecho civil foral del país vasco*, Oñati: Instituto Vasco de Administración Pública, 1995.

-La necesaria reforma del sistema español de Derecho interregional, *Cursos de Derecho Internacional y Relaciones Internacionales de Vitoria-Gasteiz*, Gasteiz: Servicio de Publicaciones de la Universidad del País Vasco, 1997, 289 eta hurrengoak orr.

-La incidencia del Tratado de Amsterdam en el sistema español de Derecho interregional, *Anales de la Facultad de Derecho*, 18, 2001ko azaroa, 65-78 orr.

-Una renovada dimensión de los conflictos internos: nuevos Estatutos de Autonomía y Desarrollo Normativo, *Jado Aldizkaria*, Bilbo, VII urtea, 18 zk., 2009ko Abendua, 21-51 orr.

-El futuro del Derecho Foral Vasco: la necesaria modernización de nuestro ordenamiento privado, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Donostia: RSBAP/EAE, 2010, Znb. LXVI-2, 775-795 orr.

- Las Lecciones Jurídicas del Caso Prestige: Prevención, Gestión y Sanción frente a la contaminación marina por hidrocarburos*, Iruña: Aranzadi, 2011 13-32 orr.
- El nuevo Derecho privado europeo y sus repercusiones en el Derecho Civil Vasco, *Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Bilbo: Eusko Jaurlaritza, 2016, 167-185 orr.
- ÁLVAREZ TORNE, M., La regulación de la competencia internacional en el Reglamento de la UE en materia sucesoria: un nuevo escenario frente al sistema español de DIPr. Forner Delaygua, J., González Beilfuss, C. eta Viñas Farre, R. (koord.), *Entre Bruselas y La Haya*, Madril: Marcial Pons, 2013, 109-111 orr.
- BELINTXON MARTÍN, U., *Derecho europeo y transporte internacional por carretera*, Cizur Menor: Editorial Aranzadi, 2015.
- BONOMI, A. eta WAUTELET, P., *El Derecho europeo de sucesiones. Comentario al Reglamento (UE) n° 650/2012, de 4 de julio de 2012*, Cizur Menor: Editorial Aranzadi, 2015.
- BORRÁS, A., La Comunitarización del Derecho Internacional Privado: pasado, presente y futuro, *Cursos de Derecho Internacional de Vitoria-Gasteiz (2001)*, Gasteiz: Servicio de Publicaciones de la Universidad del País Vasco, 2002, 285-318 orr.
- CALVO CARAVACA, A.L., El Derecho internacional privado de la Comunidad Europea, *Anales de Derecho*, Murcia: Universidad de Murcia, Znb. 21, 2003, 49-69 orr.
- CARRASCOSA GONZÁLEZ, J., La autonomía de la voluntad conflictual y la mano invisible en la contratación internacional, *La Ley*, Znb. 7847, 2012ko apirilaren 27a.
- CELAYA IBARRA, A., Conflictos de leyes civiles, *Jado Aldizkaria*, Bilbo, VII urtea, 18 zk., 2009ko Abendua, 7-20 orr.
- CORBAL FERNÁNDEZ, J., Disposiciones Transitorias. Sierra Gil de la Cuesta, I. (koord.), *Comentario del Código Civil*, 2. arg., 10. alea, Bartzelona, 2006.
- DE MIGUEL ASENSIO, P.A., Integración Europea y Derecho Internacional Privado, *RDCE*, Bol. 2, 1997, 413-445 orr.
- La evolución del Derecho internacional privado comunitario en el Tratado de Amsterdam, *REDI*, Bol. L, Znb. 1, 1998, 373-376 orr.
- Contratación internacional: La evolución del modelo de la Unión Europea, *Revista mexicana de Derecho internacional privado y comparado*, Znb. 29, 2011ko iraila, 67-89 orr.

- DURÁN RIVACOBIA, R., La doctrina estatutaria en el fuero nuevo de navarra, *Revista jurídica de Navarra*, 15 zk., 1993, 121-143 orr.
- ESTRUCH ESTRUCH, J., Criterios de aplicación del Derecho civil valenciano, Universidad de Valencia, Lección 6, 1-33 orr.
- FERNÁNDEZ ROZAS, J.C., Derecho internacional privado y Derecho comunitario, *RIE*, Bol. 17, 1990, 785-824 orr.
- El Espacio de libertad, seguridad y justicia consolidado por la Constitución Europea, *La Ley*, D-195, 2004, 16-20 orr.
 - La comunitarización del Derecho internacional privado y Derecho aplicable a las obligaciones contractuales, *RES*, Znb. 140, 2009, 600 eta hurrengoak orr.
 - Sistema de Derecho económico internacional*, Cizur Menor: Thomson Civitas, 2010.
- GONZÁLEZ CAMPOS, J.D., *Derecho Internacional Privado. Introducción*, Madril: Universidad Autónoma (Xerocopia), 1984.
- Diversification, Spécialisation, Flexibilisation et Materialisation des régles de Droit International Privé, *RdesC*, t. 287, 2002, 156 eta hurrengoak orr.
- GUZMÁN ZAPATER, M., El reglamento CE núm. 593/2008, del Parlamento Europeo y del Consejo, sobre ley aplicable a las obligaciones contractuales: régimen general, contratos de consumo y contrato individual de trabajo, *Aranzadi civil*, Znb. 2, 2009, 2257-2286 orr.
- Cooperación civil y tratado de Lisboa: ¿Cuánto hay de nuevo?, *La Ley*, Znb. 7479, 2010, 713 eta hurrengoak orr.
- IRIARTE ÁNGEL, F.B., La unidad de la sucesión después de la sentencia del Tribunal Supremos de 28 de abril de 2014; efectos en los conflictos internos, *Jado. Boletín de la Academia Vasca de Derecho*, Znb. 26, 2014, 389 eta hurrengoak orr
- IRIARTE ÁNGEL, J.L., La armonización del Derecho internacional privado por la Unión Europea, *Jado: boletín de la Academia Vasca del Derecho*, Znb. 9, 2006, 47-73 orr.
- Propiedad y Derecho internacional, *Los conflictos internos en el sistema español*, Fundación registral (Colegio de registradores de la propiedad y mercantiles de España), 2007, 133-163 orr.
 - Conflictos internos de leyes en materia de regímenes económicos matrimoniales, Gimeno y Gómez-Lafuente, J.L. eta Rajoy Brey, E. (koord.) *Regímenes económico-matrimoniales y Sucesiones. Derecho común, Foral y Especial*, Cizur Menor: Thomson Aranzadi, 2008, I. alea, 565 eta hurrengoak orr.
 - Conflictos de leyes internos. Notas fundamentales de la situación actual, *Jado*:

boletín de la Academia Vasca del Derecho, 18, diciembre de 2009, 55-93 orr.
-Ámbito material y personal y normas conflictuales, *Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Bilbo: Eusko Jaurlaritzza, 2016, 135-161 orr.

JIMENO ARANGUREN, R., Derecho Civil Navarro y Codificación general española, *AHDE*, LXXXII, 2012, 269-283 orr.

-*El régimen económico matrimonial en el Derecho navarro (1839-2015). Hacia una revisión legislativa*, Cizur Menor: Thomson Aranzadi, 2015, 267-274 orr.

TORRES LANA, J.A., Ley 253, Rubio Torrano, E. (Zuz.), Comentarios al Furo Nuevo. Compilación del Derecho Civil Foral de Navarra, Cizur Menor: Thomson Aranzadi, 2002, 748-749 orr.

QUINZA REDONDO, P. eta CHRISTANDL, G., Ordenamientos plurilegislativos en el Reglamento (UE) de sucesiones con especial referencia al ordenamiento jurídico español, *InDret. Revista para el Análisis del Derecho*, 3, 2013ko uztaila, 8-10 orr.

ZABALO ESCUDERO, E., BETEGÓN SANZ, C. eta CALATAYUD SIERRA, A., Conflictos interregionales en materia de Derecho sucesorio aragonés, Décimos encuentros del Foro aragonés. Actas, Zaragoza: Justicia de Aragón, 2004, 105-132 orr.

Ezkontza eta izatezko bikoteak

Roldán Jimeno Aranguren

Aurkibidea

I. SARRERA. II. EZKONTZAREN ONDASUN-ERAENTZAREN EZAUGARRIAK. III. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EZKONTZAREN ONDASUN-ERAENTZA. 1. Uztailaren 1eko 3/1992 Legetik ekainaren 25eko 5/2015 Legea. 2. Ondasunen foru-komunikazio-ko eraentza. IV. NAFARROAKO FORU BERRIKO EZKONTZAREN ONDASUN-ERAENTZA. 1. Ezkontza-iturak. 2. *Propter nuptias* dohaintzak. 3. Konkisten ezkontide-sozietatea. 4. Konkisten familia-sozietatea. 5. Ondasunen komunitate unibertsaleko eraentza. 6. Ondasunen banaketa. 7. Ondasun-eraentza bigarren ezkontzetan edo geroagoko ezkontzetan. IV. IZATEZKO BIKOTEAK. 1. Izatezko bikoteei buruzko Nafarroako Legea. 2.1. *Lege moztua*. 2.2. *Bikote egonkorra osatzea: baldintzak*. 2.3. *Bikotearen barruko eraentza*. 2.4. *Foru Legeak ematen dituen eskubideak*. 2.5. *Iraungitzeko kausak*. 2.6. *Ezkontzaren eta izatezko bikoteen elkarbizitza-hausturaren ondorioen arauketa*. 3. Euskal Autonomia Erkidegoko izatezko bikoteen Legea. 3.1. *Izatezko bikoteak arautzen dituen 2/2003 Legea*. 3.2. *Ezkontzaren eta izatezko bikoteen arteko 5/2015 Legearen berdintasuna*. V. BIBLIOGRAFIA.

I. SARRERA

Duela gutxi egindako Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak¹ ia ez du berritasun garrantzitsurik sartu ezkontzaren ondasun-eraentza arautzen duten legeen inguruan (Euskal Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legea), ez eta bikote egonkorren ondasun-eraentza arautzen duten legeen inguruan ere (izatezko bikoteak arautzen duen 2/2003 Legea)². 1992ko berrikuntza baliatuz, Euskal Autonomia Erkidegoak bere foru zuzenbide zibila pragmatismotik eguneratzen jakin izan zuen. Horretarako, aintzat

¹ 124 zenbakidun EHAA/BOPV, 2015eko uztailaren 3koa, eta 176 zenbakidun EAO/BOE, 2015eko uztailaren 24koa; akatsen zuzenketa, 84 zenbakidun EHAA/BOPV, 2016ko maiatzaren 5koa.

² 100 zenbakidun EHAA/BOPV, 2003ko maiatzaren 23koa eta 284 zenbakidun EAO/BOE, 2011ko azaroaren 25koa.

hartu zuen une horretan gizarteak bizi zuen egoera, baina erakundeen nortasun historikoarekiko errespetu arduratsua mantendu zuen beti.

Kritika tekniko eta juridiko jakin batzuk salbu, doktrinak oso balorazio positiboa egin zuen 1992ko Legean ezarritako euskal ezkontzaren ondasun-eraentzaz. Gaian erabateko espezialistak diren Adrián Celayak³ eta Luis Carlos Martín Osantek⁴ egin zuten balorazioa, baina beste ikertzaile batzuk ere gaira hurreratu dira. Garrantzitsuenak aipatuko ditugu: Gabriel García Cantero⁵, Itziar Monasterio⁶, Mikel Karrera⁷, Ainhoa Gutiérrez eta Óscar Monje⁸ eta Clara Asúa, Jacinto Gil eta Jose Javier Hualde Sánchez⁹. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko legea berriki agertzeak jende ugari jarraitzen duen doktrina bat sortu du urte bat baino pixka bat gehiagoan, ezkontzaren eta izatezko bikoteen ondasun-eraentza arautzeari buruz. Horren inguruan, ekarpenik nabarmengarrienak egin dituzte

³ CELAYA IBARRA, A., *Derecho civil vasco*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1998. *Euskadiko Foru Zuzenbide Zibilaren Legeari buruzko iruzkina, M. Albaladejo (zuz.), Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales, XXVI. liburukia, Madril: EDERSA, 2005.*

⁴ MARTÍN OSANTE, L. C., *El régimen económico del matrimonio. La comunicación foral de bienes*, Madril: Eusko Jaurlaritz-Marcial Pons, 1996; *Conflictos de leyes en materia de régimen económico del matrimonio desde la perspectiva del Derecho Vizcaíno, Conflictos de leyes en el desarrollo del Derecho Civil Vasco*, Bilbo: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, 1999, 199-260. or.; *Comunicación foral de bienes, Añamendi Eusko Entziklopedia*, Donostia-San Sebastián: Eusko Media Fundazioa, 2010. <http://www.euskomedia.org/aunamendi/152181> (2016ko ekainean kontsultatu da). SEISDEDOS MUIÑO, A. eta MARTÍN OSANTE, L. C.: *La troncalidad y el régimen económico del matrimonio en la Ley del Derecho Civil Foral del País Vasco*, J. Martínez-Simancas Sánchez eta Rodrigo Bercovitz Rodríguez-Cano (koordinatzaileak), *Derechos Civiles de España*, Madril; Banco Santander-Central Hispano; Aranzadi argitaletxea, 2000, 1. bol., 235-275. or.

⁵ GARCÍA CANTERO, G., *La comunicación foral como régimen supletorio en la Ley del Parlamento Vasco de 1 de julio de 1992*, *Revista Jurídica de Navarra*, 16 (1993), 45-60. or.

⁶ MONASTERIO ASPIRI, I., *La condición jurídica de la mujer en el Derecho Civil-Foral de Bizkaia, Iura Vasconiae*, 3 (2006), 249-282. or.; *La familia en Bizkaia y su régimen jurídico, Jado*, 3. bol., 5. zen. (2005), 31-64. or.

⁷ EGUSQUIZA BALMASEDA, M^a A. eta KARRERA EGIALDE, M., *Usufructo legal de fidelidad y derecho de igualación de los hijos de anterior matrimonio en Navarra y derechos sucesorios de la pareja superviviente en el País Vasco, Tratado de Derecho de Sucesiones. Código civil y normativa civil autonómica: Aragón, Baleares, Cataluña, Galicia, Navarra, País Vasco*, Zizur Txikia: Civitas-Thomson Reuters, 2011, 2. bol., 2351-2400. or. Bereizita agertzen ez diren arren, lehenengo autoreak Nafarroari buruzko ikerketa egiteko ardura hartu zuen, eta Mikel Karrera Euskal Autonomia Erkidegoari buruzkoa.

⁸ GUTIÉRREZ BARRENENGOA, A. eta MONJE BALMASEDA, O., *La atribución voluntaria de ganancialidad en el régimen económico matrimonial de comunicación foral de bienes, Jado*, 12. bol., 24. zen. (2013), 145-167. or. MONJE BALMASEDA, O., *El concurso de acreedores y el régimen económico matrimonial de comunicación foral, Revista Vasca de Administración Pública/Herri-Arduraltzarako Euskal Aldizkaria*, 87-88 (2010), 843-866. or.

⁹ ASÚA GONZÁLEZ, C. I., GIL RODRÍGUEZ, J. eta HUALDE SÁNCHEZ, J. J., *El ejercicio de la competencia en materia civil por parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco, Derecho Privado y Constitución*, 2 (1994), 9-34. or.

Luis Felipe Alamillos Granadosek¹⁰, Óscar Monjek¹¹, Jose Ramón Manzanok¹², Jokin Babazek¹³, Susana Serranok¹⁴ eta Gorka Galiciak¹⁵.

Nafarroako Foru Erkidegoak bizi duen egoera Euskal Autonomia Erkidegoak bizi duenaren erabat ezberdina da. Nafarroako Foru Berriaren (1973an¹⁶ aldarrikatua eta 1987an aldatua) bereizgarriak tradizionalismoa eta historizismoa dira oraindik ere, eta horiek ez dute zentzurik XXI. mendean; izan ere, garapen praktikorik ez duten industria aurreko gizarteko ezkontzaren ondasun-eraentzako ezarpen ugari ditu. Doktrina zaharkitze hori denuntziatzen ari da azken urteetan, baita zalantzazko konstituzionaltasuneko hainbat agindu ere. Horren harira, nabarmendu behar dira Elsa Sabateren¹⁷ eta Ana Clara Villanuevaren¹⁸ lanak. Horiei gaiaren inguruan argitaratu ditugun lanak gehitu beharko litzazkieke¹⁹.

¹⁰ ALAMILLOS GRANADOS, L. F., Título III. Del régimen de bienes en el matrimonio. Capítulo I. Del régimen legal (artículos 125 a 128). A. M. Urrutia Badiola, *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco: Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Bilbo: Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia; Dykinson, 2016, 187-192. or.

¹¹ MONJE BALMASEDA, O., Título III. Del régimen de bienes en el matrimonio. Capítulo II. Del régimen de la Comunicación foral de bienes. Sección primera. De la Comunicación foral de bienes (artículos 129 a 139). A. M. Urrutia Badiola, *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco: Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Bilbo: Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia; Dykinson, 2016, 193-210. or.; El régimen económico matrimonial en la Ley 5/2015, de Derecho Civil Vasco: La comunicación foral de bienes, *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco, 2016, 455-484. or.

¹² MANZANO MALAXECHEVARRIA, J. R., Título III. Del régimen de bienes en el matrimonio. Capítulo II. Del régimen de la Comunicación foral de bienes. Sección segunda. De la disolución del régimen de Comunicación bienes (artículos 140 a 146). A. M. Urrutia Badiola, *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco: Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Bilbo: Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia; Dykinson, 2016, 211-218. or.

¹³ BABAZE AIZPURUA, J., La tributación en IRPF de la liquidación de la sociedad foral de comunicación de bienes por causa de divorcio, *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco, 2016, 505-518. or.

¹⁴ SERRANO GAZTELUURRUTIA, S., Perspectiva desde la multidisciplinaridad de la configuración foral vasca: aspectos tributarios, *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco, 2016, 519-536. or.

¹⁵ GALICIA AIZPURUA, G. H., Notas a la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho civil vasco, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 4 (2016), 303-320. or.

¹⁶ 57. zenbakidun EAO/BOE, 1973ko martxoaren 7koa; akats-zuzenketa, 1973ko maiatzaren 30eko EAO/BOE.

¹⁷ SABATER BAYLE, E., La casa navarra (a propósito de las leyes 48 y 75 del Fuero Nuevo de Navarra), *Iura Vasconiae*, 10 (2013), 635-658. or.; Derecho de Familia, *Derecho civil navarro. II. Derecho de familia. Donaciones y sucesiones*, Madrid: Marcial Pons, 2014, 25-180. or.

¹⁸ VILLANUEVA LATORRE, A. C., Derecho de Familia, *Iura Vasconiae*, 13 (2016), 209-230. or.

¹⁹ JIMENO ARANGUREN, R., *El régimen económico matrimonial en el Derecho navarro (1839-2015). Hacia una revisión legislativa*, Zizur Txikia: Thomson Reuters-Aranzadi, 2015; Evaluación

Ezkondu gabeko bikote egonkorren inguruko legeak laurogeita hamarreko hamarkadaren bukaera aldera egiten hasi ziren, Konstituzioko 149.1.8. artikulua arabera, horiek arautzeko eskumena zuten zenbait autonomia-erkidegotan. Nafarroak bikote egonkorren lege-berdintasunerako uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen²⁰ bitartez arautu zituen. Euskal Autonomia Erkidegoak, berriz, gauza bera egin zuen hiru urte geroago, martxoaren 7ko 2/2033 Legearen bidez²¹. Autonomia-erkidegoen xedapenei Gizarte Segurantzako gaiei buruzko neurrien inguruko abenduaren 4ko 40/2007 Legea gehitu zitzaizkien. Horrek araubide orokorreko alargun-pentsioa jasotzeko eskubide subjektiboa aitortu zion ezkondu gabeko bikote baten bizirik dagoen bizikideari²².

Foru Berriak ez bezala, uztailaren 3ko Foru Legeak lege-arauketa Nafarroako milurteko berriko gizarte-egoerara moldatzea bilatu zuen. Foru Lege horrek Foru Berrian jasotako hainbat arauen esanahia aldatu zuen, eta, aldi berean, sexu-orientazioa alde batera utzita, ezkondu gabeko bikoteei zenbait eskubide aitortu zizkien: familiakoak, oinordetzakoak, zergakoak eta Zuzenbide publikokoak.

Doktrinak ia aho batez –ideologia-jarrera batzuetatik salbuetsita ez zeuden xehetasunekin– kritikatu zituen lege-testuaren sartze-okerrak. Hasteko, 2.3. artikulua xedatu zuen Foru Legeko xedapenak bikote egonkorrei aplikatuko zitzaizkiela, baldin eta kideetako batek auzotasun zibil nafarra bazuen. Hori Estatuari dagozkion legegintzako eskumenen inbasioztat jo zen. Zibilariek huts tekniko garrantzitsuak adierazi zituzten, Foru Berrian araututako zenbait familia- eta oinordetza-ezarpen batzuei aurka egiteagatik, zehazki, fideltasun-goza-menari, aurreko ezkontzako seme-alaben eskubideei eta bigarren ezkontzetako araubideari. Nafarroako Legea arreta handiz aztertu dutenen artean honako hauek nabarmenduko ditugu: Cristina González Beilfuss²³, José Arregui Gil²⁴,

ción del proceso de compilación/codificación del Fuero Nuevo: doctrina y praxis del Derecho, *Iura Vasconiae*, 13 (2016), 9-55. or. Lan horietan, baita Elsa Sabater eta Ana Clara Villanuevari buruzko aurreko oharretan aipatutakoetan ere, gaiaren inguruko bibliografia eta jurisprudentzia anitza jasotzen dira. Hortaz, ez dugu hemen berriz jarriko.

²⁰ 82 zenbakidun BON/NAO, 2000ko uztailaren 7koa eta 214 zenbakidun EAO/BOE, 2000ko irailaren 6koa.

²¹ 100 zenbakidun EHAA/BOPV, 2003ko maiatzaren 23koa eta 284 zenbakidun EAO/BOE, 2011ko azaroaren 25ekoa.

²² Elkartasunak gutxienez 5 urte iraun zitzaizkion eskatzen du, baita haren ekonomia prekariora izateko ere, eragilearenarekin alderatuta (% 50 baino txikiagoa), edo termino zehatzetan (lanbide arteko gutxieneko soldataren zati bat eta erdi baino gutxiago jasotzea). Abenduaren 4ko Gizarte Segurantzaren gaietako neurriei buruzko 40/2007 Legeko 174. artikulua.

²³ GONZÁLEZ BEILFUSS, C., Recurso de inconstitucionalidad contra la Ley Foral 6/2000, del Parlamento de Navarra, para la igualdad jurídica de las parejas estables, *Revista Española de Derecho Internacional*, 52. bol., 2. zen. (2000), 620-694. or.

Julio Gaviria Sánchez²⁵, Natividad Goñi Urriza²⁶, Javier Nanclares Valle²⁷, Julio Quijada Linares eta Juan Gutiérrez Alonso²⁸, Jose Javier Castiella Rodríguez²⁹, Elsa Sabater Bayle³⁰, Jose Luis Iriarte Ángel³¹, María Ángeles Egusquiza Balmaseda³² eta Clara Asúa³³. Nafarroako bikote egonkorrentzako erregistro baka-
rretik eratorritako arazoari heldu diogu berriki³⁴.

Urriaren 7ko 5297/2000 konstituzio-kontrakotasuneko Errekurtsoak Foru Legea aurkaratu zuen ere. Union del Pueblo Navarro parlamentuko taldeak ez ezik, Alderdi Popularreko 83 diputatuk³⁵ sustatu zuten errekurtsoa. Horri Nafa-

²⁴ ARREGUI GIL, J., *Adendum*. Sobre la Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables, M. Albaladejo (zuz.), *Comentario al Código civil Compilaciones forales. XXXVII. liburukia, 2. bolumen. Leyes 253 a 345 de la Compilación o Fuero Nuevo de Navarra*, Madrid: EDERSA, 2001, 1623-1645 or.

²⁵ GAVIRIA SÁNCHEZ, J. V., Las uniones libres en la Ley Foral navarra de Parejas Estables, *Actualidad Civil*, 2 (2001), 605-643. or.

²⁶ GOÑI URRIZA, N., La Ley navarra para la igualdad jurídica de las parejas estables, A. L. Calvo Caravaca eta J. L. Iriarte Angel (zuz.), *Mundialización y familia*, Madrid: Colex, 2001, 375-385. or.

²⁷ NANCLARES VALLE, J., La adopción por parejas homosexuales en derecho navarro. Comentario crítico al artículo 8 de la Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, *Aranzadi Civil*, 8 (2001), 15-57. or.

²⁸ QUIJADA LINARES, J. eta GUTIÉRREZ ALONSO, J. J., La Ley Foral de Navarra 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables: hacia un nuevo modelo de familia y adopción, *Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad de Granada*, 5 (2002), 573-596. or.

²⁹ CASTIELLA RODRÍGUEZ, J. J., La ley foral navarra para la igualdad jurídica de las parejas estables, *Revista Jurídica del Notariado*, 47 (2003), 65-83. or.

³⁰ SABATER BAYLE, E., Ley Foral 6/2000, de 3 de junio, para la igualdad de las parejas estables, en el Derecho de Navarra: problemas planteados, *Anales de Derecho. Huarte de San Juan*, 5 (2004), 193-216. or.; Derecho de Familia, *op.cit.*, 155-170. or.

³¹ IRIARTE ÁNGEL, J. L., Parejas de hecho, Constitución y conflictos de leyes internos. Reflexiones acerca de la cuestión de inconstitucionalidad 228-2003, M. Vargas Gómez-Urrutia eta A. Salinas de Frias (koord.). *Soberanía del Estado y Derecho internacional. Homenaje al profesor Juan Antonio Carrillo Salcedo*, Sevilla: Sevillako Unibertsitatea, 2005, 2. bol. 721-731. or.; Parejas de hecho, Constitución y conflictors de leyes internos. Reflexiones acerca de la Sentencia del Tribunal Constitucional de 23 de abril de 2003 (recurso de inconstitucionalidad 5297-2000), *Boletín Jado*, XII, 24 (2013), 169-183. or.

³² EGUSQUIZA BALMASEDA, M. A., Cambio de rumbo legislativo de las parejas estables: SSTC 81/2003, de 11 de abril de 2013 y 93/ 2003, de 23 de abril de 2013, *Aranzadi civil-mercantil. Revista doctrinal*, 2. bol., 5. zk. (2013ko iraila), 75-115. or.

³³ ASÚA GONZÁLEZ, C. I., La STC 93/2013, de 23 de mayo, y la regulación del régimen interno de las convivencias no matrimoniales en la Comunidad Autónoma del País Vasco, *Revista Vasca de Administración Pública/Herri-Ardularitzako Euskal Aldizkaria*, 103 (2015), 17-54. or.

³⁴ JIMENO ARANGUREN, R., La inscripción de las parejas estables españolas: la necesidad de un registro único en cada comunidad autónoma, *Revista Boliviana de Derecho*, 22 (2016), 64-79. or.

³⁵ 2000ko azaroaren 15eko EAO/BOE. Jose Luis Iriartek gogoratzen duenez, Foru Lege osoari egindako aurkaratzea egiteko, «muturreko beste egoera batzuen artean, alegatu zen lege horretako aipatutako 2.3. artikulua ez zuela errespetatzen Konstituzioko 149.1.8. artikulua Estatuari baino ematen ez dion eskumena, lege-gatazkak konpontzeko arauak emateko. Horren harira, esaten zutenek, aginduak LORAFNAko (aipatutako gaiaren gainean Estatuak bakarrik duen eskumena aitortzen du) 2.2. eta 43.

rroako Auzitegi Nagusiaren 2002ko abenduaren 30eko autoa gehitu zitzaion, eta horrek zalantzan jarri zuen jadanik aipatu dugun Foru Legeko 2.3. artikulua konstituzionaltasuna. 2013ko apirilaren 23an Konstituzio Auzitegiak emandako epai latzak³⁶ ebatzi zuen errekurtsua, eta epai horrek³⁷ autoaren xedeari eragin zion. Hala ere, konstituzio-kontrakotasuneko gaia azkendutzat jo zen, xede hori bat-batean desagertu baitzen.

Nafarroan presaz egin zen izatezko bikoteei buruzko Legea, eta horrek kontraste handia egiten du Euskal Autonomia Erkidegoan arauketa egin zuten zorrotasunarekin. Lege horren proiektuaren izapideak egiteko urte eta erdi behar izan zen gutxi gorabehera. Legeak ukitzen zituen alor ezberdinetan lan egiten duten talde eta agente sozial, publiko zein pribatu, ugariren ekarpenak bildu ziren, eta arreta eman zitzaion Europako legediaren, doktrinaren eta jurisprudentziaren azterketa kritikoari. Kontuan hartu ziren Nafarroako legeko akatsik handienak, akats berdinak ez egiteko. Halere, legeak ezin izan zuen osagarriko lege-markoaren bidez eskualde-arteko eta nazioarteko lege-gatazketatik eratorritako arazoak konpondu, zeharkakotasun-bokazio nabari batetik egiteko saiakera egin arren. Nafarroako legeri gertatu zitzaion bezala, EAEkoak ere konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua bat izan zuen ere. Kasu honetan, Espainiako Gobernuak aurkeztu zuen. Errekurtsua horren irismena mugatuagoa zen, Legeko 8. artikuluari, adopzioari buruzkoari, baino ez ziolako eragiten. Konstituzio Auzitegiak artikulua izapideak onartzea eta kautelazko galarazpena jartzea erabaki zuen. Izatezko bikoteak arautzen dituen 2/2003 Legeari buruzko azterketa garrantzitsuenak Txema Gonzalo³⁸, Xabier Aurrekoetxea³⁹ eta Iñigo

artikuluak hausten zituen. Bere tesia babesteko, gero aipatuko dugun konstituzio-jurisprudentziaren bat aipatu zuten. Errekurtsogileek aitortu zuten gure sistema juridikoan ez dagoela izatezko bikoteei aplikatu behar zaien legea zehazteko berariazko araurik (ez zuen bestela izaterik), baina adierazi zuten Kode Zibileko 9.2. artikulua (ezkontzaren ondorioak arautzen dituen araubidea xedatzen du) zenbait konponbide ezartzen dituela, Foru Legeko aginduek ezartzen dituztenekiko nabarmenki ezberdinak direnak. Horrez gain, esan zuten estatu-gatazkari buruzko araurik ezak ez ziola baimenik ematen Nafarroako Parlamentuari Estatuak bakarrik duen eskumen bat inbaditzeko, beren arabera Foru Legeko 2.3. artikulua egiten zuen bezala. Tesi horrekin bat egin zuen Estatuko abokatuak». IRIARTE ÁNGEL, J. L., Parejas de hecho, ... recurso de inconstitucionalidad 5297-2000, *op.cit.*, 172-173. or.

³⁶ Konstituzio Auzitegiaren 093/2013 Epaia, apirilaren 23koa (2013\93 KAE). 2013ko maiatzaren 23ko EAO/BOE.

³⁷ Konstituzio Auzitegiko 093/2013 Epaia, apirilaren 23koa, *in fine* seigarren epaitza judiziala.

³⁸ GONZALO, Tx., Ley 2/2003, de 7 de mayo, Reguladora de Parejas de hecho, *Euskonews&Media*, 233 zb. (2003ko abenduaren 5koa). <http://www.euskonews.com/0233zkbk/gaia23303es.html> (2016ko ekainean kontsultatu da).

³⁹ AURREKOETXEA, X., Las parejas de hecho en la Comunidad Autónoma del País Vasco, ante el poder testatorio y la nueva regulación del artículo 831 del Código civil, *Derecho sucesorio: El poder testatorio y la nueva regulación del artículo 831 del Código Civil*, Bilbo: Academia Vasca de Derecho/ Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2004, 187-217. or.

Iruretagoiena, Beatriz Lasa eta Nerea Magallónen⁴⁰ eskutik egin dira. 2015eko Legearen ostean, izatezko bikoteei buruzko azterketarik osatuenak Alkain Oribe⁴¹ eta Elixabete Piñolek eta Nieves Paramaiok⁴² egin dituzte.

II. EZKONTZAREN ONDASUN-ERAENTZAREN EZAUGARRIAK

Ezkontide-harreman batek egoera ekonomiko berri bat sortzea dakar, hain zuzen ere, *ezkontzaren ondasun-eraentza* izenez ezagutzen duguna. Espainiar Estatuan, eraentza hori orokorrean aplikatzen zaie ezkontza-loturei. Legearen barruan osatutako izatezko bikoteei ere aplika dakieke, bikotea bizi den erkidegoan horren inguruko berariazko araudirik egotearen arabera. Zehazki, ezkontza ekonomia-arabiderik hautatu gabe egiten bada, irabazpidezko ondasunen eraentza aplikatuko da automatikoki, honako hauetan izan ezik: Katalunian, Balear Uharteetan, Valentzian, Aragoin, Nafarroan eta Bizkaiko Lur Lauan zein Laudio eta Aramaio arabar udalerrietan.

Ezkontzaren ondasun-eraentzak ezkontzaren ondasun-eraginak arautzen ditu, eta, horregatik, oso garrantzitsua da ezkontzaren bizirako; are gehiago, ezkontzaren desegite-unerako. Ezkontza ondare-sozietatea da, seme-alaben eta ezkontideen familia-beharrei euskarri ekonomikoa emateko xedea duena; horixe da ezkontzaren ondasun-eraentzaren helburua.

Errealitatean, ezkontide-harremanak garrantzi ekonomiko handia izan arren, ezkontide gutxik planteatzen dute harreman hori xedatzeko erabakia hartzea. Eta ohikoa da bikote-harremana desegiten den unean kideak ohartzea ezkontzaren ekonomia-itunak agian konpon ditzakeela harremanaren alderdi ekonomikoa desegitean sortzen diren arazo neketsuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko foru-eskubide zibilak deskribatzen hasi baino lehen, araubide komuneko funtsezko ezaugarriak azaldu nahi ditugu; izan ere, euskaldunok horri ere hel diezaiokegu.

⁴⁰ IRURETAGOIENA AGIRREZABALAGA, I., LASA BELLOSO, B. eta MAGALLÓN ELOSEGUI, N., Análisis de la Ley Vasca 2/2003 de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho: una aproximación internacional-privatista, *Revista Vasca de Administración Pública/Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 67 (2003), 301-328. or.

⁴¹ ORIBE MENDIZABAL, A., Las parejas de hecho tras la entrada en vigor de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco, 2016, 485-504.

⁴² PIÑOL OLAETA, E. eta PARAMAIO JUNQUERA, N., Disposiciones adicionales. Disposiciones transitorias. Disposiciones derogatorias y Disposición final, A. M. Urrutia Badiola, *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco: Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Bilbo: Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia; Dykinson, 2016, 219-238. or.

Ezkontzaren ondasun-eraentza mota bi daude. Alde batetik, komunitateko eraentzak daude, eta horietan, ondare komuna sortzen da. Mota horretakoen artean, irabazpidezko eraentza jasotzen dutenak dira ohikoenak. Eraentza horren ezauzgarri nagusia da funts ekonomiko komuna ezartzen dela. Funts hori lanbidetik eratorritako ondasunez edo ezkontzaren ostean kostu-bidez lortutakoez osatzen da. Funts hori bi ezkontideen jabegokoa izango da, elkarrekin eta berdintasunez kudeatuko dute eta familiaren kargei aurre egingo die. Funtsa elkarrekin kudeatzeko oinarritik abiatuta, etxeko edo premiazko xedapenak ezkontide bakar batek egin ditzake. Funtseko ondasunak saltzeko, ezkontide biek ados egon behar dute. Funts komun horretatik at geratzen dira ondasun pribatiboak. Horiek ezkontzaren aurretik ezkontide bakoitzak zituen ondasunak dira, baita dohainik eskuratutakoak ere, hala nola jaraunspenak edo dohaintzak. Ezkontideek ezkontzaren ondasun-erantzarik hitzartzen ez badute, irabazpidezko eraentza aplikatuko da.

Beste aldetik, banaketako eraentzak daude. Horien ezaugarri nagusia ondasunen banaketa da. Eraentza horren abiapuntua ezkontideen ia erabateko independentzia da, alor ekonomikoari dagokionez. Ezkontide bakoitzak ezkongabe zegoenean zituen ondasunen jabetasun osoa mantentzen du. Gainera, nahi duenean eskura eta kudea ditzake. Horrez gain, ezkondu eta gero jasotzen dituen ondasunen jabegoa ere mantentzen du; esaterako, soldatena, ondasunen edo kapitalaren etekinean, jaraunspenena eta dohaintzena, etab. Ezkontide biek ondasun bat elkarrekin erosten badute, bakoitzak bere zatia sal dezake, beste kidea aintzat hartu gabe. Baina beste kideak erosteko lehentasuna izango du. Independentzia horri dagokionez, xehetasun bat aipatu behar da: bi ezkontideek familiaren gastuak ordaintzera behartuta daude beren gaitasun ekonomikoaren arabera. Hau da, ezkontide batek lana egiten badu, eta besteak ez, lana egiten ez duena bestearen ardurapean egongo da ekonomikoki.

Gainera, komunitate eta banaketa motaren bat duten ekonomia-araubideak egon daitezke. Ohikoena irabazien parte-hartzea da. Kasu horretan, ondasunak bananduta daude ezkontza iraun bitartean eta ezkontza desegiten den unean ezkontideen irabaziak kalkulatu dira, erdibana banatzeko. Parte-hartzeko eraentzaren oinarria ekonomia-autonomia da, baina ez hori bakarrik. Eraentza hori senar-emazteen arteko elkartasunean oinarritzen da, eta, beraz, biek partekatzen dituzte familiaren ekonomiaren emaitzak, aldekoak izan edo ez. Eraentza hori da errealitatean gutxien erabiltzen dena.

Kode Zibilak askatasun-sistema bat ezartzen du, ezkontza-itunetan ezkontideei nahi duten ekonomia-araubidea hitzartzeko aukera ematen diena. Itun horiek ezkongaei edo jadanik senar-emazteek ezkontzaren aurretik edo ostean egin dezaketen kontratua da, beren ezkontzaren alderdi ekonomikoa arautuko duten arauak askatasun osoz finkatzeko. Hala ere, derrigorrezko arau batzuk errespetatu behar dira. Legeen edo ohitura egokien kontrako edo ezkontideen

arteko berdintasunaren aurkako hitzarmenak egiten badira, baliogabe geratu-ko dira hitzarmen horiek. Itunak nahi beste aldiz alda daitezke, ezkontide biak ados badaude. Aldez aurretik esan bezala, itunik ezean, zuzenbide komuneko eraentza orokor osagarria irabazpidezko sozietatea da. Hortaz, hori da ohikoena Estatuan, ezin baita egon ekonomia-araubiderik gabeko ezkontzarik. Ezkontza-aren ondasun-eraentza aldatzeko askatasuna ezkontzak iraun bitartean egongo da. Eraentzari edozein aldaketa egin ahal izango zaio; eta, hirugarren pertsonak lortutako eskubideei kalterik sortzen ez zaion bitartean, eraentza batetik bestera aldatzeko aukera egongo da.

Kode Zibilak Erregistro Zibilaren bitartez iragartzen du ezkontzaren on-dare-eraentza, eta, zorrak izatekotan, iragarpen hori funtsezkoa da zor horiek ordaintzera behartzeko. Kode Zibileko 1333. artikulua adierazten du ezkontzako izen-emate guztietan aipatu behar direla emandako ezkontza-itunak, baita hitzarmenak, ebazpen judizialak eta ezkontzaren ondasun-eraentza aldatzen duten gainerako gertakizunak ere. Aldaketek ondasun higiezinaren titulartasunari eragiten badiete, jabetza-erregistroan jaso beharra dago.

Ezkontzari aplikatzen zaion legea senarrek ezkontzerakoan duten lege pertsonal komuna izango da. Lege hori gabe, edozein ezkontideren lege pertsonala edo ohiko bizilekua izango da, ezkontza ospatu baino lehen emandako dokumentu publiko baten bidez biek aukeratu behar dutena. Aukeraketarik ezean, ezkontza ospatu eta berehalako ohiko bizileku komuneko legea aplikatuko da, eta, bizileku hori ezean, ezkontza ospatzen den lekuko legea aplikatuko da.

III. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EZKONTZAREN ONDASUN-ERAENTZA

1. Uztailaren 1eko 3/1992 Legetik ekainaren 25eko 5/2015 Legea

Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak ia ez du berritasun garrantzitsurik sartu ezkontzaren ondasun-eraentzaren inguruan, **uztailaren 1eko 3/1992 Legeari dagokionez**. Ondo dator gogoratzea Lege horretan, 93. artikulutik 111. artikulura bitartean arautzen zela ezkontzaren ondasun-eraentza. Zehazki, eraentza ezkontideek eskritura publiko bidez, ospakizunaren aurretik edo ostean, libreki hitzartzen zutena zela hizpatzen zuen. Itunik ezean, legezko ekonomia-araubide osagarria ondasunen foru-komunikazioa zen (bi ezkontide bizkaitar forudunen arteko ezkontzen kasuan aplikagarria zen) edo, auzotasun erkiderik ezean, ohiko bizileku komuna Lur Lauan ospatu eta berehala ezartzen bazuten, eta, ohiko bizilekurik ezean, bertan ezkontzaren ospakizuna egin baldin bazen. Foru-komunikazioaren ondorioz, komun bihurtuko lirateke, erdibana senar eta emaztearen artean –ezkontza homosexuala onartu zenetik sexu bereko ezkontideen artean–,

ondasun higigarri edo onibar guztiak, duten jatorria dutela, edozein titulugatik, ezkontza iraun bitartean emandakoak zein jasotakoak eta erroak egiten dituzten lekua alde batera utzita. Foru-komunikazioan, irabazitako ondasunen eta ezkontide batek ekarritako ondasunen arteko bereizketak irabazpidezko ondasunei eta ondasun pribatiboei buruzko legedi zibil orokorreko arauetara moldatu behar zuen. Ondasunak xedatzeko ekitaldiek ezkontide bien adostasuna behar zuten, eta, ondorioz, baita baimen judiziala ere. Dena den, edozein ezkontidek bere kabuz eskura zitzakeen bere izenean zegoen dirua edo balio higiezinak. Kudeaketa-egintzei dagokienez, irabazitako ondasunak bi ezkontideek kudeatu behar zituzten, Merkataritzako Kodean horretarako ezarritakoari eraginik sortu gabe. Ezkontide bakoitzak ekarritako ondasunak berak bakarrik kudeatu behar zituen.

Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak ezkontzaren ondasun-eraentza bere gain hartzen du hirugarren tituluan. Lehenengo kapituluak ezkontzaren ondasun-eraentza askatasunez hautatzeko sistema bat ezartzen du, ezkontza baino lehenagorako edo ezkontzaren osterako; eta, ezkontza-itunik ezean, Kode Zibilean araututako irabazpidezko ondasunen eraentzak zuzentzen ditu legezko eraentza osagarri gisa.

Ezkontzako ondasun-eraentza ezkontideek ezarriko dute **ezkontza-itunetan**. Zehazki, 125. artikulua honako hau ezartzen du: «ezkontideek ezkontzaren ondasun-eraentza ezarriko dute ezkontza-itunetan, baldintzak espresuki hizpatuz edo lege honetan edo beste batzuetan ezarritako edozein sistema ekonomikori erreferentzia eginez». Horrela, hautatzeko askatasuna ematen zaie, eta, gainera, beste lege batzuetakoa hautatzeko aukera dute. Hala, ezkontideek Kode Zibilean araututako edozein eraentza erabaki dezakete. Horrez gain, forudunek Euskal Zuzenbide Zibileko Legean araututako ondasunen foru-komunikazioko eraentza erabaki dezakete.

Askatasun horrekin ere, 126. artikulua eraentza aldatzeko aukera jasotzen du; izan ere, ezkontzaren ondasun-eraentza ezkontza-itun berriak emanez aldatu ahal izango da, bai hitzartutakoa, bai eta legezkoa ere.

Itunik ezean, edo itun horiek nahikoak ez direnean edo baliogabeak direnean, Kode Zibilean (127. art.) arautzen diren **irabazpidezko ondasunen sozietatearen** arauak zuzenduko dute ezkontza.

Aipatu beharra dago, azken berritasun adierazgarri gisa, 128. artikulua bidez egiten den **izen-ematearen** arauketa. Ezkontzaren ondasun-eraentzako aldatetek ondorioak eragingo dizkiete hirugarren pertsoneri, baina bakarrik Erregistro Zibilean erregistratuak izan direnetik aurrera; eta, hala balegokio, Jabetza Erregistroan edo Merkataritza Erregistroan.

2. Ondasunen foru-komunikazioko eraentza

Ondasunen foru-komunikazioko eraentzaren arauketa berria ekainaren 25eko 5/2015 Legeko hirugarren tituluko bigarren kapituluan jasotzen da. Aurreko arauketan bezala, eraentza horrek ezkontideen arteko ondasunen komunitate-modalitate unibertsala osatzen du, ezkontzaren bidez sortzen dena eta ezkontide bat (seme-alaba edo ondorengo komunak daudela) hiltzeagatik desegiten den unean finkatzen dena. Ezkontzaren ondasun-eraentza horretan komun bihurtzen dira bi ezkontideen ondasunak, eskubideak eta ekintzak, ezkontza ospatu aurrekoak nahiz ezkontuta egon bitartean lortutakoak. Berdin du horien jatorria eta errotzen diren lekua. Hala, ezkontu aurretik ezkontideak inguru berean bizi ez baziren, aintzat hartuko da bizileku komuna finkatzen duten udalerria.

Dagoeneko esan bezala, ezkontideen auzotasun zibila Bizkaiko Lur Lauan⁴³ edo Audio eta Aramaio arabar udalerrietan baldin badago, itunerako aplikatu behar den eraentza ondasunen foru-komunikaziokoa izango da (129. art.) Ondo dago gogoraraztea lurralde-mugaketa hori Bizkaiko eta Arabako 1959ko Foru Zuzenbide Zibileko Bilduman ezarri zela. Bestalde, iturri horrek 1526ko Bizkaiko Foru Berrian jasotakoari moldatzeko saikera egin zuen.

Foru-komunikazioa indarrean dagoen bitartean, ezkontide bakoitzaren irabazpidezko ondasunen eta ondasun pribatiboen arteko bereizketa irabazpidezko ondasunen sozietatearen arauetara egokitzen da, eta, ezkontza desegiten bada, arau horiek aplikatuko dira. Hala ere, ezkontza desegiten bada ezkontideetako bat hiltzen delako, eta seme-alaba edo ondorengo komunik badago, ondasunen komunitatea finkatuko da. Beraz, ezkontideen ondasun guztiak, ezkontide bien ondasun pribatiboak zein irabazpidezkoak –kostu bidez eskuratutakoak nahiz dohainik eskuratutakoak–, erdibana banatuko dira ezkontide alargunaren eta bestearen jaraunsleen artean. Azken arau hori ez da aplikatuko baldin eta hiltzean seme-alaba edo ondorengo komunik ez badago.

Foru-komunikazioaren irismenari dagokionez, gogoratu behar dugu 129. artikulua arabera, foru-komunikazioaren ondorioz, komun bihurtuko direla (erdibana senar eta emaztearen artean) ondasun, eskubide eta ekintza guztiak, duten jatorria dutela, bata edo bestearenak direla, edozein titulugatik, ezkontza iraun bitartean emandakoak zein jasotakoak eta erroak egiten dituzten lekua alde batera utzita. Halere, 130. artikulua adierazten du foru-komunikazioak, ezkontzak iraun bitartean, Foru horretan aurreikusitako irismen eta mugak dituela.

⁴³ Bizkaian bi lurralde bereizten dira: hiribilduak eta Lur Laua. Hauek dira hiribilduak: Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete, Orduña eta Bilbo. Bestalde, Lur Laua gainerako lurraldeaz eta Arabako Audio eta Aramaiona udalerriez osatzen da.

132.1. artikulua zehazten du foru-komunikazioa ezkontzaren bidez sortzen dela, baina ezkontza desegitean finkatzen dela, ezkontide bat (seme-alaba edo ondorengo komunak daudela) hiltzeagatik. Aurrekoak esan nahi du ezkontzak iraun bitartean, «komunikazio posible» bakarria dagoela eta hori ez dela ezkontza desegin arte finkatuko. Hala, Bilboko Auzitegi Nagusiak 2011ko maiatzaren 31n emandako Epaian adierazitako doktrina jasotzen da. Epaia horren bidez, airtortu zen ezkontzari emandako etxebizitza pribatiboa, ez dela komuna % 50ean, foru-komunikaziopeko ondasuna izan arren. Izan ere, foru-komunikazioa finkatzen ez den bitartean, ez du eragin hori sortzen.

Bestalde, 132.2. artikulua ezartzen duenez, foru-komunikaziopeko ondasuntzat hartuko dira ezkontza desegin arte edozein ezkontidek jasotzen dituen ondasunak, eskubideak eta ekintzak, baina ez pertsonari atxikita daudenak, ez eta ezkontideetako baten heriotzaren ondoren lortutakoak ere. Halaber, igorrezinak diren ondasun eta eskubideak eta erabilera pertsonalekoak ez dira jakinaraziko.

Hala, 132. artikulua ezarritakoaren arabera, foru-komunikazioa ezkontide bat hiltzeagatik ezkontza desegiten den unean finkatuko da, baldin eta seme-alaba edo ondorengo komunak badago. Hortaz, foru-komunikazioak, ondasunak erdibana bereiziz, ezkontide bat hiltzen denean eta seme-alaba edo ondorengo komunak daudenean soilik izango du eragina.

Foru-komunikazioan, ezkontide bakoitzak kudeatu eta antolatu behar ditu bere jatorriko ondasunak (berak bakarrik). Dena den, orokorrean, ondasunak xedatzeko ekitaldiek bi ezkontideen adostasuna behar dute. Hala ere, kausatzailak komisariorik izendatuko balu, ondasunak komunitatean mantenduko lirateke ezkontidearen –gozamen-eskubidearekin eta ondasunak kudeatuz, testamentugileak bestelakorik esaten ez badu– eta haren ondorengoan artean, ondorengoa izendatu arte.

Ezkontzak iraun bitartean, irabazitako ondasunen eta ezkontide bakoitzetik etorritako ondasunen arteko bereizketa irabazpidezko ondasunei eta ondasun pribatiboei buruzko legedi zibileko arauetara moldatuko da (133. art.).

Legeko 130. artikuluar jarraikiz, ondasunen foru-komunikazioa automatikoki eten egingo da honako kasuetan: ezkontideak banantzeko epaiagatik, ezkontza deuseztatzeagatik edo dibortzioagatik, edo ezkontza-itunak emateagatik, ezkontideek izaera ezberdineko ezkontzaren ondasun-eraentzari heltzen diotenean. Edonola ere, foru-komunikazioa eten daiteke erabaki judizial bat dela eta, edo ezkontide batek eskatuta, honako kasuetan: beste ezkontidea judizialki ezgaitua izan bada, absentetzat jo bazaio edo hartzekodunen konkurtsoa deklaratu bazaio; beste ezkontideak xedapen- edo kudeaketa-ekintzak eskatzailearen eskubideen kalterako edo iruzurrerako egin baditu; eta ezkontideek izatez urte bat

baino gehiago bananduta badaramate, biak ados badaude ere. Bestalde, komunikazio-eraentza desegin ostean ezkontza ez bada desegiten, ezkontideak Kode Zibilean aurreikusitako ondasunen bananketako eraentzari heldu beharko diote, kontrakoa hitzartzen ez badute.

Bestetik, 145. artikulua agintzen du foru-komunikazioa ezkontide bat hiltzeagatik iraungitzen bada, edo banaketa-, deuseztasun- edo dibortzio-epaia dela eta iraungitzen bada, eta ondorengo komunik ez badago, irabazpidezko ondasunen eraentzako sistemaren antzeko sistema bati jarraitzen zaiola, eta bakoitzak bere zatia eta irabazien erdia eramaten duela.

IV. NAFARROAKO FORU BERRIKO EZKONTZAREN ONDASUN-ERAENTZA

1. Ezkontza-itunak

Ezkontza-itunak Foru Berriko 78. legetik 80. legera bitartean araututa daude. Ezkontideek ezkontza-itunetan hitzartuko dute ekonomia-araubidea, dokumentu hori baliagarria izateko eskatzen diren ahalmen eta formako baldintzei jarraikiz. Baina emateko beharrik ez dagoenez, hitzarmenik ezean, konkisten ezkontide-sozietateko ekonomia-eraentzak arautuko du Nafarroan. Ezkontzen kasuan baino ez da konkista-eraentza inposatzen. Bikote egonkorrek ez dute berez ekonomia-araubiderik, edo, behintzat, ez zaie senar-emazteei bezala aplikatzen. Edonola ere, 6/2000 Foru Legeak gai horren inguruko zenbait alderdi jasotzen ditu, aurrerago ikusiko dugunez.

Gainera, Foru Berriak beste eredu batzuk eskaintzen ditu, betiere ezkontideek hautatu eta itunetan hitzartzen badituzte. Hauexek dira, zehazki: konkisten familia-sozietatea, komunitate-eraentza unibertsala eta ondasunen bananketako eraentza. Halaber, ezkontza-itunetan Kode Zibilak edo beste ordenamendu batzuek ezarritako beste eraentza batzuk aukera ditzakete.

Ezkontza-itunei buruzko eraentza nafarraren bereizgarria da itun horiek ez direla ezkontzaren ondasun-eraentza ezartzeko aurreikusi, normalean jarraunspen-hitzarmenak eta mota ezberdineko dohaintzak ere badituzte. Batzuetan eduki horiek bereizi nahi dira, azken xedapen-ekintza horiek jasotzen dituzten «kapituluak» aipatuz (funtsean, *inter vivos* eta *mortis causa* xedapenak dira), eta «itun arruntak» aipatuz (horiek ezkontzaren ondasun-erantzari buruzko itunak jasotzen dituzte soilik).

Itunak edozein unetan eman daitezke, ezkontza ospatu aurretik nahiz ondoren, interesdunek egokitzat jotzen duten bakoitzean. Ezkondu baino lehen ematen dira, eta, ezkontzarik ez badago, ez dute eraginik. Baina Nafarroan ez

da gehieneko denbora-mugarik jartzen ezkontzeko. Kode Zibileko 1334. artikulua, berriz, urte bat ezartzen du Estatuko Zuzenbiderako.

Gaitasunari dagokionez, ezkongaiak edo ezkontideek zein familiako beste kide batzuek eman ditzakete itunak. Azken horiek, normalean, ekitaldira doazen aurreko ahaideak dira, ezkontideen aldeko xedapen-egintzak egiteko. Ezkontideak edo ezkongaiak adinez txikiak badira, printzipioz ezkontzeko eskatzen zaien gaitasun bera eskatzen zaie, hau da, kontzientzia-askatasuna.

Nafarroako itunen bereizgarria eduki-aniztasuna da. Ezkontzaren ondaren-eraentzaren inguruko hitzarmenak jaso ez ezik, ondasunen xedapen-egintzak egiteko zenbait modu jaso ditzakete, adibidez, *propter nuptias* dohaintzak, ezkonsariak eta zuzkidurak, ezkontideen arteko dohaintzak, jaraunspen-hitzarmenak eta fideltasun-gozamenari buruzko xedapenak. Itunek ere seme-alabak aitortzeko bide gisa balio dezakete.

Baliagarriak izan daitezten, itunak notarioaren aurrean formalizatu behar dira eskritura publikoaren bidez. Bertan hirugarren pertsonari egindako dohaintzak jasotzen badira, dohaintza osatzen duten ondasunen zerrenda jaso behar da, katalogo, zerrenda edo «errolde» baten bidez.

Itunak edozein unetan alda daitezke. Baina, horretarako, aurreko itunak eman dituzten eta bizirik dauden pertsona guztiak bertaratu behar dira. Xedapen berezi batzuk –ezkontideen arteko botere-emakida bereziki– baldintza formal horiek errespetatu gabe ezeztatu daitezke. Hala, elkarrekiko jaraunspen-hitzarmenak alda daitezke, aurreko itunetako gainerako emailek bertaratu behar izan gabe.

Horren eraginkortasunari buruz, adierazi behar da ezkontideen, eta, hala badagokio, itunetara bertaratzen diren familiako kideen arteko hitzarmenak hirugarren pertsonen aurrean alegatu ahal izateko, itunen eskriturari iragapen-mekanismoaren bat eman behar zaiola. Mekanismo hori erregistro zibilean, jabetza-erregistroan eta merkataritza-erregistroan izena ematea izango da, kasuan kasu. Itunak baliaezinak izan daitezke jatorriz, forma edo gaitasuneko hutsuneak direla eta. Eraginik eza epai irmo batek ezkontza baliogabekotzat jo duenean gertatzen da (Foru Berriko 78.2. legea), baina eraginik eza horrek ez dio seme-alaben aitortpenari eragiten.

2. *Propter nuptias* dohaintzak

Propter nuptias dohaintzak dira, ezkontza dela eta, edonork egiten dituen eskuzabaltasun-egintzak. Normalean familiako kideek egiten dituzte, ezkontideen mesedetan. Ezkontza aurretik edo ostean egin daitezke. Foru Berriko 112. legetik 127. legera bitartekoetan arautzen dira, eta, horiek ezean, inter vivos

dohaintzen arau orokorretan. Printzipioz, arau horiek ez zaizkie bikote egonkorrei aplikatzen.

Kode Zibilean agertzen diren ezkontzagatiko dohaintzek ez bezala –egin-tza horiek ezkontideek osatutako familiaren arreoaren osatzera zuzentzen dira–, propter nuptias dohaintzek funtsezko laguntza eman dute familia-etxearen jarraitasuneko eta batasuneko printzipioa betetzeko, datozen belaunaldien bidez, haren egonkortasuna eta iraunkortasuna ziurtatzeari dagokionez. Familiaren ondarea belaunaldiz belaunaldi transmititzeko era izan dira.

Dohaintza horiek dohaintza-emailearen ondasun guztiez edo zati batez osa daitezke, baita dohaintza-emailearen gaur egungo zein etorkizuneko ondasunez ere, edo hura hil eta gero geratzen direnez bakarrik. Ondasunen dohaintza unibertsalak dohaintza-emailearen jaraunle bihurtzen du dohaintza-hartzailea. Ondasun guztiak dohaintzan ematen dituenean ere, dohaintza-emaileak bere beharrak asetzeko ondasun nahikoak gorde behar ditu; bestela, murrizketa-akzio bat egikaritu ahal izango da dohaintza-emailearen edo haren jaraunleen aurka. Familia-etxea edo beste ondasun batzuk transmiti daitezke, baita jabari osoa zein jabetza soila ere. Dohaintza egitean, dohaintza-emaileek hainbat klausula ezar ditzakete: errebokatzeko klausula, ondasunak itzultzeko klausulak, jaraunspen-deietako klausula, etxean bizitzeko eskubidea ezartzeko klausula eta etxea uzteko zuzkidurak jasotzeko klausula. Gainera, hitzarmen ezberdinak ere ezar ditzakete. Konkistako eraentzapean ezkontideen alde egiten direnean, dohaintzan emandako ondasunak ondasun pribatiboak dira eta bi ezkontideenak dira erdibana, dohaintza-emaileak kontrakoa ezartzen ez badu (Foru Berriko 83.3. legea).

Propter nuptias dohaintzak ezkontza aurretik edo ostean egin daitezke, baina ezkontza dela medio baino ezin dira eman. Eskritura publikoaren bidez egin behar dira. Eskritura publikoa kapituluz edo ezkontza-itutuz osa daiteke, edo independentea den beste batez. Notarioaren aurrean egin behar da beti, eta dohaintza-emaileek dohaintza-hartzailei transmititzen dizkieten ondasunak zehatz-mehatz deskribatu behar dira.

Dohaintza-hartzaileek eskritura horretan bertan edo beste batean onar ditzakete dohaintza horiek, dohaintza-emailea bizirik egon bitartean edo hil ondoren. Adinez txikiek ere, zehazki, 14 urtetik gorakoek, dohaintzak onartzeko ahalmena dute, baita emantzipatuek ere, dohaintzak obligaziorik ekartzen ez badie. Hala izatekotan, horien legezko ordezkariaren laguntza eskatuko litzateke. Dohaintza onartzen ez den bitartean, dohaintza-emaileak edo haren jaraunleek atzera botatzeko aukera izango dute; baina onarpena dohaintza-emaileari notarioak dei egiten dion saio berean egin daiteke. Dohaintza-emaileek dohaintza onartu dela dakitenean dohaintza errebokaezina izango da; izan ere, adierazpen

horrek errezeptizio-izaera du. Hau da, onartzen den unean perfektionatzen da dohaintza, eta dohaintza-emaileak onarpenaren jakinaren gainean dagoenean errebokaezina da.

Ondorioak zehaztasunez deskribatzen dira Foru Berriko 115. legean. Ezaugarri nagusietako batzuk nabarmenduko ditugu: gaur egungo eta etorkizuneko ondasun guztien dohaintza unibertsalak jaraunsele bihurtzen du dohaintza-hartzailea; hori dela eta, dohaintzaren aurretik dohaintza-emaileak zituen zorrak bere gain hartzen ditu, baita etxearen mesederako dohaintza-emaileek egindako zorrak ere, ez, ordea, dohaintza-emaileen beste zor pertsonal batzuk. Gaur eguneko ondasunei dagokienez, gaur eguneko zein etorkizuneko ondasunen dohaintza unibertsalak *inter vivos* dohaintza baten ondorioak sortzen ditu, eta, etorkizuneko ondasunei dagokienez, *mortis causa* dohaintza batenak. Azken horien kasuan, dohaintza-hartzaileak ez ditu ondasunak jasoko dohaintza-emailea hil arte. Dohaintza-emaileek ondasun batzuk gordeko balituzkete, askatasunez erabil ditzakete, bai *inter vivos*, bai *mortis causa*. Hala ere, dohaintza-hartzaileak ondasunak jasoko lituzke dohaintza-emaileak haien xedatze-eskubidea baliatu gabe hilko balira. Dohaintza-emaileek gozamen-eskubidea eta dohaintzan emandako ondasunak kudeatzeko eskubidea gordetzen badituzte, ulertuko da batera egingo dela bientzat eta osorik bizirik irauten duenarentzat. Kontrakoa hitzartzen ez bada, dohaintza-hartzaileak ordaindu beharko ditu dohaintza-emailearen edo -emaileen gastuak, lekuko ohiturei eta etxearen estatusari jarraikiz. «Hiltzean geratzen zaiona» dohaintzan ematen duenak bere ondasunak *inter vivos* egintzaren bidez edo kostu bidez bakarrik erabili ahal izango ditu. Dohaintza-emaileek ezar dezakete dohaintzan emandako ondasunak edo horien zati bat bizirik dauden zenbait pertsonaren alde kontserbatzeko edo itzultzeko, baita etorkizunearan jaioko direnen alde ere, baina kasu horretan lau deira arteko muga errespetatu beharko dute (Foru Berriko 224. legea), eta mugatik harago doazen horiek egin gabetzat joko dira. Dohaintza-hartzaileak, dohaintza-hartzaile diren senar-emazteen ezkontza barruko seme-alabek, eta, hurrenez hurren, dohaintzan emandako ondasunak jaraunsten joan diren horien ondorengoek dohaintzan emandako ondasunak erabili ahal izango dituzte kostu bidez. Irabazteko asmoekin, dohaintza-hartzaileak, dohaintza-hartzailearen ezkontzako seme-alabek eta dohaintza-hartzailearen seme-alaben ondorengoek erabili ahal izango dituzte soilik.

Propter nuptias dohaintzen eraginkortasunik eza zenbait kausa dela eta gerta daiteke: ezkontzaren baliogabetasuna adierazteagatik, ezkontza egin ez delako, edo dohaintza baliogabetu delako. Azkeneko hori, besteak beste, dohaintza-eskirituran hitzartutako kausak direla eta gerta daiteke, edo dohaintza-hartzaileari ezarritako kargak ez betetzeagatik.

3. Konkisten ezkontide-sozietatea

Konkisten ezkontide-sozietatea Foru Berriko 82. legetik 91. legera bitartean arautzen da. Araubide horren ondorioz, ezkontideak bi ondare izatera pasatzen dira. Bata pribatiboa da, bakoitzarena, eta, bestea, biona da, erdibana. Nolanahi ere, aldeak ezin dira bete legezko kausak direla medio desegin arte. Ondare bakoitza legeak deskribatutako zenbait ondasunez osatua dago, eta zenbait zorrez arduratzen da. Zor komunak ondasun pribatiboekin ordaintzen badira, edo zor pribatiboak ondasun komunekin ordaintzen badira, dagozkion ondareen aldeko kreditu bat sortzen da bestearen kontra, eta legezko kausak direla medio desegin ondoren konkisten sozietatea likidatzeko unean ordainduko da. Hartze-kodunen aurrean, printzipioz, zorra egin zuen ezkontidearen ondareak hartzen du ardura. Etxeko ahala dela medio egindako zorren kasuan, ondare komunak hartzen du ardura, hau da, ezkontide bien kargura diren gastuak ordaintzeko. Batzuetan dirua itzultzeko eskubidea ekar dezake horrek.

Beste ezer baino lehen, konkisten ezkontide-sozietatea irabaziak ezkontide bientzat izatea lortu nahi duen eraentza da. Irabazi horiek dira ezkontide biek beren ahaleginaz edo lanaz lortutako ondasunak. Eraentza horrek, aldiz, ezkontza hastean bakoitzak dituen ondasunak pribatibo gisa mantentzeko aukera ematen du, baita ezkondu ondoren irabazi-kontzeptutik at lortutakoak ere.

Ondasun komunak edo konkistakoak eta pribatiboak 82. legeko bigarren zatian eta 83. legean araututa daude, hurrenez hurren. Antolakuntza zenbait irizpide orokorren arabera egiten da, baina kasu bereziak egon daitezke. Irizpide orokorrak honakoak izan daitezke:

- a) Jasotzeko unearen arabera, pribatibotzat (ezkontideenak) jotzen dira ezkondu baino lehen bakoitzak zituen ondasunak.
- b) «Irabazi» izaeragatik, konkista-ondasun gisa ezkontideentzako komun bihurtzen dira bietako edonork ezkontza bitartean lortutakoak, betiere lana eginez, ahaleginduz edo industriaren bidez lortu baditu. Irabazitzat ere hartuko dira, ezkontideen ondasun komunek zein pribatiboek sortzen dituzten etekinak. Ezkontza ospatu eta gero lortutakoak, irabazi-izaerarik ez dutenak, ondasun pribatiboak dira, hau da, ezkontideek dohaintzetatik edo jaraunspenetatik jasotzen dituztenak.
- c) Subrogazio errealeko aldaketa edo printzipioagatik, beste ondasun batzuen truke lortzen diren ondasunek horien baldintzak jarraitzen dituzte. Hala, diru arruntez erositakoa arrunt bihurtzen da, eta diru pribatiboz erositakoa pribatibo bihurtzen da.
- d) Akzesiogatik (balio-handitzea, gainbalioak), ezkontideen ondasunen balio-handitzeek ondasunaren egoerari jarraitzen diote. Hala, esaterako, finka

pribatibo batek 100 balio bazuen ezkontza ospatzean, eta bi urte geroago 150 balio badu, 50eko handitze hori ondasun pribatiboa da. Baina balioa hobekuntza-obrak direla eta handitu bada eta obra horiek beste ezkontidearen diruarekin ordaindu badira, edo konkisten ondareko diruarekin, gastu horiek ondareen artean dirua itzultzeko eskubidea sortzen dute.

Mota ezberdineko kasu bereziak egon daitezke. Adibidez, ezkontzaren aurretik familia-etxe bat erosten bada, baina gero epeka ordaintzen bada ezkontideen funts komun edo pribatiboekin, etxea ondare komun edo konkistako ondarearena izango da, baita ezkontidearena, edo ezkontideena ere, bakoitzak egindako ekarpenaren balioaren arabera. Kasu bereziak dira baita ere «errentari-eskubideak», hau da, beste ezkontideak bere kasa sinatutako errendamendu-kontratuen subrogazioa ondasun komun edo konkistakotzat jotzen dira. Halaber, konkistako ondasuntzat hartzen da jokoaren bidez irabazitakoa. Edonola ere, joko-zorrek pribatiboak dira, jokalariaenak, eta haren diruarekin ordaindu behar dira, ez funts komunekin.

Lege-presuntzioari dagokionez, zalantzan badago ondasun batek izaera komuna edo pribatiboa duen, komun edo konkistakotzat hartuko da.

Karga pribatiboen eta konkista-kargen inguruan, esan beharra dago familia mantentzeko beharrak asetzeko eta seme-alaba komun en edo ezkontide baten aurreko ezkontza bateko seme-alaben hezkuntzako eta elikadurako gastuak ordaintzeko likidazioa egin baino lehen egin diren zorrek konkista-sozietatearenak izango direla. Horrez gain, konkista-sozietatearen zorrek izango dira ondasun komunak kudeatu edo xedatzeko egin direnak ere, nahiz eta zorrek ezkontide batek bakarrik egin (Foru Berriko 86. legearen arabera hori egiteko legitimatua egon arren). Foru Berriko 105. legearen arabera, aurreko konkista-sozietatearen likidazioa egin eta gero, karga pribatiboak dira aurreko ezkontza bateko seme-alaben elikagaiak eta hezkuntza ordaintzeko gastuak. Edozein ezkontidek ezkontzatik at izandako seme-alaben eta ezkontideetako batek bere kasa adoptatutako seme-alaben (beste ezkontideak adopzioa onartu badu ere) elikadurako eta hezkuntzako gastuak ere karga pribatiboak dira, baita joko-zorrek ere.

Zor pribatiboak ordaintzeko ezkontide baten hartzekodunek ondasun komunak enbargatzen badituzte, zorra ez duen ezkontideak enbargoa onar dezake edo aurka jar daiteke. Aurka baldin badago, konkista-sozietatea desegiteko legekausetako bat gertatuko da, eta, hortik aurrera, ondasunen banaketako eraentzak arautuko du ezkontza.

Konkista-sozietatea honako lege-kausengatik desegingo da (Foru Berriko 87. legea): ezkontideek itunetan adierazitako borondateagatik; heriotzagatik; heriotza-adierazpen edo dibortzioko epai irmoagatik; judizialki xedatutako ezkontza deuseztatzeagatik; judizialki xedatutako banaketagatik; ezkontideek ez-

gaitze-kasuetan eskatutako epaiagatik; iruzurrezko egintzengatik; urte bat baino gehiagoko egitatezko banantzeagatik edo beste ezkontidearen obligazio pertsonalak direla eta konkista-ondasunen enbargoagatik.

Azken kausa hori interes bereziko da (konkista-ondasunen enbargoa beste ezkontidearen obligazio pertsonalak direla eta), eta honako kasu honetan gertatzen da: ezkontide batek zor pertsonalak ditu eta bere ondare pribatiboaren bidez ordaindu behar ditu, baina bere hartzekodunek ondasun komunak, hau da, konkista-ondareko ondasunak, enbargatzen dituzte. Egoera horretan, zorra ez duen ezkontideak honako aukera hauetako bat hauta dezake: a) enbargoa onar dezake eta prozesuak aurrera egingo luke; b) aurka jar daiteke; kasu horretan, zorra duen ezkontideak nahiko ondasun dituela adierazi behar du, hartzekodunek zorra ondasun komunekin ordaintzea eskatzeari uzteko; c) zordunaren ondasunak adierazten ez baditu, prozesuak aurrera egingo du, eta ondasun komunak enbargatuko dira, baina zorra ez duen ezkontideak eska dezake enbargatzen diren ondasun komunak ezkontide zordunari konkista-sozietatean dagokion zatiarengatik aldatzeko; kasu horretan, konkista-sozietatea legeak aginduta desegingo litzateke (Foru Berriko 85. legea), eta, ezkontza-itunetan beste eraentzarik hitzartzen ez badute, ezkontideak ondasunen banaketako eraentzara pasatuko lirateke.

Konkista-sozietatea desegiten denean likidazioa egin behar da, honako etapei jarraikiz: inbentarioa prestatzea, zorrak ordaintzea sozietateari, hartzeko zatigarria zatitzea, eta ezkontideei esleitzea, Foru Berriko 91. legeak ezartzen dituen lehentasunen arabera.

4. Konkisten familia-sozietatea

Konkisten familia-sozietatearen eraentzak aurreikusten duenez, aurreko jabeek familia-ondarea dohaintzan eman dute, edo seme-alabetako bat jaraunse unibertsal bat izendatu dute (hura ezkondu denean); edo seme-alaba ere ezkondu da; edo aurreko jabeen –seme-alabari familia-ondarea transmititu diote– eta jabe gazteez osatutako senar-emazte berrien arteko elkarbizitza hitzartu dute.

Normalean, ulertzen da eraentza hori existitzen dela ezkontza-itunetan ezkontideei ondasunak dohaintzan eman zaizkienean, eta dohaintza-emaileen eta dohaintza-hartzaileen arteko elkarbizitza hitzartu dela. Baina familia-sozietatea ere alde batera utz daiteke, dohaintza hori egin arren. Kasu horretan, argi eta garbi jasota geratu behar da.

Jabe zaharren eta jabe gazteen artean familia-komunitate bat eratzen da, eta horiek bakarrik parte hartzen dute. Familiako beste kide batzuek etxearen gaineko eskubideak izan ditzakete, hala nola bertan bizitzeko, zuzkidurak edo ezkonsariak jasotzeko eta abar. Edonola ere, ondare komunean parte hartzerik ez dute.

Familia-sozietate horren arauketari dagokionez, adierazi behar da sozietate horretan ondare komun bat dagoela, ezkontideen eta dohaintza-emaile edo institugileen (jabe zaharrak) jабegokoa dena. Horrez gain, ezkontideenak diren (eta institugileenak ondasun batzuk gorde ahal izan badituzte) beste ondare pribatibo batzuk daude. Ondare-egoera zail hori itunetan hitzartutakoak arautzen du lehenik eta behin. Hori dela eta, parte-hartzaileen borondateak garrantzia berezia du gatazkak egotekotan aplikatu beharreko eraentza xedatzeko. Bigarrenik, ohiturak eta Foru Berriko 92. legetik 10. legera bitartean xedatutakoak arautzen dute; eta, osagarri gisa, konkisten ezkontide-sozietaterako xedatutakoak (ondasun komunei buruzko 82. legeak eta ondasun pribatiboei buruzko 83. legeak).

Konkisten familia-sozietatearen ondasun komunak kudeatzeari eta xedatzeari dagokienez, printzipioz, jabe zaharrek dute ahalmen hori. «Familia-autoritaterako printzipio» bat dago. Gaur egun, sozialki ez dago oso onartua; izan ere, jabe gazteek parte-hartze handiagoa eskatzen dute etxearen gobernu-gaiei dagokienez. Autoritarismo gogor hori arintzeko, konponbide judizialak proposatzen dira. Gainera, autoritarismo horrek ez du onartzen ondasun komun horiek kudeatzeko eta xedatzeko ekintza bateratuko printzipioa.

Hauek dira Foru Berriko 97. legean jasotzen diren konkisten familia-sozietatea desegiteko kausak: ezkontza-itunetan ezarritakoak, parte-hartzaile guztiek bat egitea Foru Berriko 81. legean adierazitako zenbait formaltasuni buruz, izendatutako ezkontzaren deuseztasuna adieraztea (familia-sozietatearen osaera juridikoaren oinarria osatzen duten *propter nuptias* dohaintzen deuseztasuna dakar horrek), eta ezkontideak banatzea, haietako inork izendatzaileekin elkarbizitzen jarraitu gabe.

97. legeak ez du aipamenik egiten gazteen dibortzioari buruz, baina autoren batzuek ezkontideak banatzearen maila berean jartzen dute kausa hori, familia-komunitatearen oinarritzko aurrekontuetako bat, ezkontza, desagerrarazten baitu.

Banandu ostean, edo, ezkontide bat hil ostean, besteak izendatzaileekin etxean elkarbizitzen jarraitzen badu, hau da, familia-sozietateari jarraipena ematen badio izendatzaileekin, familia-sozietatea konkisten ezkontide-sozietate bihurtuko da, bidezkoa izan daitekeen likidazio partzialari kalterik eragin gabe.

Konkisten familia-sozietatearen likidazioa konkisten ezkontide-sozietatearen antzekoa da. Likidazio guztietan bezala, honako bi fase hauek ditu: lehenik, ondasunak eta sozietatearen kargura doazen zorrak deskribatzeko inventario bat egin behar da. Jarraian, sozietatearen kargura doazen ordaindu gabeko zorrak ordaindu behar dira, eta, ondoren, soberakin likidoaren dedukzioa egin behar da. Azkenik, parte-hartzaileei esleipena egiten zaie, hitzartutako proportzioan.

5. Ondasunen komunitate unibertsaleko eraentza

Ondasunen komunitate unibertsaleko eraentzan, ezkontideentzako komun bihurtzen dira ezkondu aurretik eta ondoren dituzten ondasun guztiak, baita etorkizunean lortuko dituztenak ere, inolako bereizketarik gabe. Egoera horretan ondare bakarra dago, bi ezkontideena dena, eta ondare pribatiborik ez dago. Ezkontideen ondasun eta zor guztiek bat egiten dute ondare komun bakar horretan.

Ondasun-komunitate horretan ez dago hirugarrengeoi transferitu ahal zaizkien kuotarik. Komunitateak iraun bitartean, bereizteko ere ezin da eskatu. Zor komuneko eta zor pribatiboko kontzeptuak ere ez dira existitzen, eta ondasun-masa komunak du ezkontideen zor komunak edo pribatiboak ordaintzeko ardura. Itunetan xedapen horiek zehatz daitezke.

Komunitate unibertsala hitzartutakoak arautzen du, eta, ezer hitzartu ez bada, Foru Berriko 101. eta 102. legeetan xedatutakoak arautzen du. Ondasun komunak kudeatu eta xedatzeko, konkisten ezkontide-sozietaterako aurreikusitako arauak hartu behar dira kontuan. Ondorioz, ezkontideen jarduketa bateratuko printzipio bat dago, jarduketa horiek baliagarriak izateko baldintza gisa. Beste printzipio bat ere aplikatzen da, hain zuzen ere, ezkontide bakar batek ondare komuna arriskuan jartzen dituen xedapen-jarduketak bere kasa egiteko aukera ematen duena.

Komunitate hori desegiteko kausak honakoak dira: itunetan hitzartutakoak; ezkontza desegitea, judizialki banantzea eta deuseztapen-adierazpena; eta, ezkontide batek eskatzea, beste ezkontideari ezgaitutzat edo absentetzat jo bazaio, edo hartzekodunen konkurtsoan badago.

Zorrak likidazioan ordainduko dira, eta, soberakin likidorik badago, bi ezkontideen artean edo haien jaraunsean artean banatuko da zati berdinetan.

6. Ondasunen banaketa

Ondasunen banaketako eraentzan, ezkontzak ez du ezkontideen ondare -egoera aldatzen. Ezkontide bakoitzak bere ondare pribatibo propioa kontserbatzen du. Ondare hori ezkondu baino lehen zituen ondasunez eta ezkondu ondoren lortutakoez, edozein titulurengatik, irabaziak edo doako lorpenak (jaraunspena eta dohaintza) izan, edo bere ondasun propioak ordezkatzegatik, osatzen da. Baina, oinarritzko ekonomia-araubidearen ondorioz, ezkontide biek ezkontzaren kargak ordaindu beharko dituzte, ezkontza-itunetan hitzartutako eran, eta, hitzarmenik egin ez bada, diru-sarreraren arabera. Diru-sarrerarik ez balute, beren ondasunen balioaren arabera. Foru Berriak etxeko lana karga komuentza-

ko ekarpenzat jotzen ez badu ere, jurisprudenziak hala interpretatu du zenbait kasu partikularretan.

Ezkontide batek zorrak egiten baditu ezkontzaren kargak ordaintzeagatik, lehenik haren ondareak hartuko du ardura, eta subsidiarioki zorra ez duen ezkontidearen ondareak. Ezkontza-eraentza horrek ez du galarazten batzuetan ezkontideek ondasunak elkarrekin erostea. Adibidez, erdibana, edo beste proportzio batean, erositako auto batek egoera hori osatuko luke. Kasu horretan, ondasuna ezkontide biena izango da, jabekidetasun komuneko edo *pro indiviso* eraentzan. Eraentza horrek kuotak ditu, eta gauza komuna eraentza desegin aurretik banatzeko eskatzen du.

Ondasunen banaketako eraentza hartzekodunen eskubideei iruzurra egiteko erabili da batzuetan. Horregatik, legegileak mesfidantza izan du harekiko. Hori dela eta, garrantzitsua da oroitzea konkista-eraentza ondasunen banaketako eraentzagatik aldatzen bada –eraentza horretan, adibidez, familia-etxea zorrik ez duen ezkontide bati transferitzen zaio, jabego pribatiboan–, aldaketek ez dietela eraginik egingo ezkontza-itunak (aldaketa bertan egin zen) egin aurretik jasotako eskubideei.

Desegiteko kausak ezkontza-itunetan aurreikusten dira. Horiez gain, kausa orokorrak daude: ezkontide baten heriotza edo heriotza-adierazpena, dibortzioa eta ezkontzaren deuseztapena edo banantzea.

Ondasunak banantzea ebazpen judizial batetik ere erator daiteke honako kasu hauetan: a) Beste ezkontideari ezgaitutzat edo absentetzat jo bazaio edo hartzekodunen konkurtsoan dagoela adierazi bada; b) Iruzurrezko egintzak, egintza kaltegarriak edo arriskutsuak egin baditu, konkisten ezkontide-sozietatea desegiteko eskatzea dakartenak; c) biak ados daudela, urte bat baino gehiagoko egitatezko banantzeagatik; d) etxea arrazoirik gabe uzteagatik; e) konkisten ezkontide-sozietateko ondasun komunak enbargatzeagatik, ezkontide zordunaren hartzekodunek egina.

Bi ezkontideen ondareen artean kreditu- edo zor-zerrendak sortu ahal izan dira, adibidez, batek gastu komun bat ezkontza-kargatzat hartzeagatik bakarrik ordaindu badu. Kasu horietan dirua itzultzeko eskubide bat sortuko da, eta eraentza desegitearen osteko likidazioan izango du eragina. Edonola ere, eskubide hori bizirik egon bitartean erabili beharko da, hildako ezkontidearen jaraunsleei ez baitzaie transmititzen.

7. Ondasun-eraentza bigarren ezkontzetan edo geroagoko ezkontzetan

Nafarroako Foru Berrian lege-aurreikuspenak ezartzen dira, ezkontide bat lehen ezkontzako (ezkontza horretako seme-alabak dituela) ezkontide-sozietatea

likidatu aurretik berriz ezkontzen den kasurako. Hala, «bigarrenez ezkonduetako ezkontide» bihurtuko litzateke.

Arau horiek bi xede dituzte, eta Foru Berriko 105. legetik 111. legera bitartean jasota daude. Alde batetik, aurreko konkista-eraentzaren likidazioa egin gabe (seme-alaba edo jaraunsle komunak izanda) bigarrenez edo geroago ezkontzen denari zehatzea. Bestetik, aurreko ezkontzako seme-alaben ondare -eskubideak babestea.

Hauek dira eraentza horretan aplikatzekoak diren aurreikuspenak: ezkontide alarguna berriz ezkontzea; aurreko ezkontzako seme-alaba edo jaraunslarik egotea, hil den aurreko ahaidearen (aita edo ama) jaraunspen-eskubideak dituztenak; aurreko ezkontzan ondasunen komunitate osoko edo partzialeko eraentza egotea; likidatu gabeko ondasunak egotea; hildakoak pertsona bati jaraunse unibertsal izendatu ez izana; bigarrenez ezkonduetako ezkontideak ezkontide-sozietateko ondasunak likidatzeko betebeharra bete ez izana; ezkontidearen heriotzagatik desegitea.

Aurreko ezkontzako seme-alabek eska dezakete beren hildako aitaren edo amaren jaraunspeneko eskubideak likidatzea. Bigarrenez ezkonduko den aurreko ahaideak betebeharrak hori betetzen ez badu, seme-alabek hurrengo ezkontzako konkisten heren batean parte hartzeko eskubidea dute.

Ondorengoak dituzten aurreko ezkontza batzuen konkista-sozietateen likidazioa Foru Berriko 106. legean jasota dago. Funtsean, arau horrek xedatzen du seme-alabek oinordetza duten aurreko ezkontzetan sortutako konkista-sozietate guztien likidazio bereizi eta jarraituko eskubidea izango dutela. Ezkontza zaharreneko seme-alabek lehentasuna izango dute. Bigarrenik, seme-alabek eskubidea izango dute hurrengo ezkontzaren ondorengo konkisten heren batean parte hartzeko. Hartzeko horretan seme-alaba guztiak bilduko dira, bereizketarik egin gabe, aurrez hildako seme-alaben oinordekoen aldeko ordezkari -eskubidearekin.

IV. IZATEZKO BIKOTEAK

1. Izatezko bikoteei buruzko Nafarroako Legea

2.1. Lege moztua

Ezkondu gabeko elkarbizitzako egoerei aplikatu behar zaien zuzenbideko araubide juridiko nafarra uztailaren 3ko Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikorako 6/2000 Foru Legean dago. Arau horrek bikote homosexualen egoera juridikoa aldatu zuen, ordura arte adoptatzeko aukerarik ez baitzitzaien onartzen. Kronologikoki, hori izan zen homosexualen adoptatzeko aukera

eman zien autonomia-lege sortako lehenengoa; izan ere, 1998an Katalunian eta 1999an Aragoian egindako legeek ez zuten onartzen. Horregatik, kritika handiak jaso zituen, baita beste arrazoi batzuegatik ere. Horietatik, nagusia gai tekniko baten ingurukoa da: Foru Legeko 2.3. artikuluan ezartzen da Foru Lege horretako xedapenak bikote egonkorrei aplikatuko zaizkiela baldin eta haietako batek, gutxienez, auzotasun zibil nafarra badu. Edonola ere, araudi nafarrari edo Estatukoari heltzeko irizpideak xedatzeko legegintzako eskumena Estatuko legegileari dagokio (Espainiako Konstituzioko 149.1.8. artikuluko amaierako zatia).

Aldarrikatu eta gutxira, 6/2000 Foru Legea aurkaratua izan zen, urriaren 7ko 5297/2000 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsuaren aldetik. Errekurtso horrek Foru Legearen agindu guztiak aurkaratu zituen, eta haren sustatzaileak UPN parlamentuko taldea eta PPeke (Alderdi Popular) 83 diputatu izan ziren. Errekurtsoa 2013ko apirilaren 23an Konstituzio Auzitegiak emandako Epaiaren bidez ebatzi zen, eta Foru Legeko 12 artikulutik 8 konstituzio-kontraktat jo ziren⁴⁴.

Bestalde, Nafarroako Auzitegi Nagusiak, 2002ko abenduaren 30eko autoaren bidez, zalantzan jarri zuen Foru Legeko 2.3. artikulua konstituzionaltasuna, legegile nafarrak ustez Estatuko eskumenak inbaditzeagatik. Zalantza auzotasun erkideko emakume batek aurkeztutako erreklamazio baten ondorioz sortu zen. Haren bitartez, bikote egonkortzat jo ziezaiola eskatu zuen, bai eta Nafarroako Legeari heltzea ere. Haren mutil-laguna, auzotasun zibil nafarra zuena, hil ostean eskatu zuen hori. Ágredan (Soria) bizi ziren biak. Emakumeak eskatu zuen foru-arauari heldu ahal izatea adierazteko, auzotasun zibil nafarreko bere mutil-laguna hil ostean. Epaitegiak eta probintzia-azitegiak irizpide ezberdina izan zuten arazoa ebazterakoan. Ondorioz, kasazioko foru-errekurtsoa jarri zen Nafarroako Auzitegi Nagusiaren aurrean. Auzitegi Nagusiak ohartarazi zuen Foru Legeak eskualde-arte zuzenbideko gaiei heltzen ziola, eta gai horiek Estatuko legegilearen eskumenekoak zirela Konstituzioko 149.1.8. artikulua arabera⁴⁵. Hori dela eta, espedientea bertan behera utzi zuen eta Konstituzio Auzitegiari kontsulta egin zion.

Bestalde, doktrina foruzaleak Foru Legeko alderdi garrantzitsuetan jarri zuen arreta. Arau berria bidezko familiaren edo ezkontzan oinarritutako printzipio tradizionalaren aurkakoa zela nabarmendu zuen. Horrez gain, Nafarroa-

⁴⁴ 123 zenbakidun EAO/BOE, 2013ko maiatzaren 23koa, «Konstituzio Auzitegiaren Osagarria» atala, 46-82. or.

⁴⁵ IRIARTE ÁNGEL, J. L., Izatezko bikoteak, ... 228-2003 konstituzio-kontrakotasuneko zalantza, *op.cit.*, 721-732. or.; Izatezko bikoteak, ... 5297-2000 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua, *op.cit.*, 173-174. or.

ko familia- eta oinordetza-zuzenbidean alde zuzenetatik zeuden beste familia- eta oinordetza-erakunde batzuekin ere ez zela behar bezala bateratu nabarmendu zuen.

Oinarritudun gaitzespen horien berri ez zuela, Foru Legeak ez du jasotzen bikote egonkorraren osaera, desagertzea eta eraentza soilik, bikoteei ere zenbait eskubide ematen dizkie (11. artikulutik 13. artikulura). Eskubide horiek zerga-arabideari eta administrazio edo funtzio publikoko arabideari buruzkoak dira. Gainera, legegilearen asmoa iragartzen du, ezkondu gabeko bikoteak ezkondu-takoen maila berean jartzeko, gizarte-prestazioei dagokienez, legearen arazoien adierazpenean jasotzen denez. Beraz, oso lege permisiboak da bikoteei ezkondu gabe elkarrekin bizitzeko mota guztietako eskubideak aitortzeari dagokienez, beren sexu-orientazioa alde batera utzita. Hala ere, Konstituzio Auzitegiaren Epaia, lehen esan bezala, 6/2000 Foru Legearen 13 artikuluetatik 8 deuseztatu zituen. Erabaki horrek eragina izango zuen Epaia eman ostean osatutako biko-teengan. Hortaz, trataera juridiko ezberdina eman zaie bikoteei, noiz osatu ziren aintzat hartuta.

2.2. Bikote egonkorra osatzea: baldintzak

Foru Legeari helduta, bikote egonkorreko lege-estatusa izateko, adina-ren⁴⁶, askatasunaren⁴⁷ eta ahaidetasunaren⁴⁸ inguruko zenbait baldintza betetze-ko eskatzen zaie bizikideei. Ondorio horietarako, ez du garrantzirik bikoteko kideen sexu-orientazioak, bikote heterosexualak edo homosexualak osatzea onartzen baita, biek eskubide berberak izanik. Gainera, Foru Legeko 2.3. arti-kuluak eskatzen du bikoteko kide batek, gutxienez, auzotasun zibil nafarra izan behar duela.

Beste baldintza bat da ezkontza-elkarbizitza, ezkontideen afektibitate berdintsuari dagokienez; gutxienez, urte bateko epea etenik gabe mantenduta. Epe hori ez da eskatuko baldin eta, dokumentu publiko bidez, bikote egonkorra osatzeko nahia adierazten bada. Bikoteak seme-alaba komunak izan baditu ere ez da eskatuko. Aurretik beste ezkontza-harremanak izan dituzten pertsonen kasuan, ezkontza-deuseztasuneko edo dibortzioko epaia jaso aurreko ezkontza-elkarbizitzako denbora zenbatuko da Foru Legeari helduz dion bikote egonkor gisa aitortua izateko arauak eskatzen duen elkarbizitzako urtean.

⁴⁶ Adinez nagusia edo emantzipatua izatea.

⁴⁷ Aldez aurretik, ezkondu ez egotea edo bikote egonkorreko harremanik ez izatea.

⁴⁸ Bere artean odol-ahaidetasunik ez izatea, ezta marra zuzeneko kideetasunik ere, edo bigarren mailara arte albokoan.

Foru Legea oso permisiboa da baldintza formalei dagokienez, ez baititu eskatzen, eta, gainera, zuzenbidean onartutako froga mota guztien bidez baldintza hori egiazta daitekeela ezartzen duelako. Bikote egonkorrak erroldatzeko edo erregistroren batean izena emateko Nafarroako udal gehienetan sortutako baldintzak ez dira osagarriak, estatuko zenbait arauk eta enpresako zenbait hitzarmen kolektibok bikoteei gizarte-eskubide batzuk aitortzeko eskatzen duten arren. Nafarroako Auzitegi Nagusiak 2011ko uztailaren 21ean emandako epai batek, alargun-pentsio bat zenbait arrazoirengatik ukatu zuenak, azpimarratu zuen erroldatzeak *iuris tantum* elkarbizitza-presuntzioa⁴⁹ bakarrik xedatzen duela. Halere, Iruñeko Lan-arloko 3. Epaitegiaren 2009ko apirilaren 6ko Epaiaren arabera⁵⁰, alargun-pentsioa eskatzeko elkarbizitza frogatzeko, nahikoa zen erroldatzearekin, bikote egonkorren erregistroetan izenik ez eman arren.

Orokorrean, lan-araudian eta Gizarte Segurtasunekoan bakarrik agintzen da erroldatzea, ezkondu gabeko bikoteei mota horretako eskubideak aitortze aldera, baina familia edo oinordetzako beste eskubide batzuk aitortzeko ez da eskatzen.

Konstituzio Auzitegiak 2013ko apirilaren 23an emandako Epaiaren ostean, etorkizunean bikoteak eskritura publikoa emanaz osatu ahal izango dira. Haren bitartez, bikote egonkorra osatu nahi dutela adierazi behar dute. Nolanahi ere, zuzenbideak onartutako beste edozein bideren bidez egiazta dezakete elkarbizitza. Epaiak 6/2000 Foru Legeko 2. eta 3. artikulua partzialki deuseztatzen ditu. Artikulu horiek beste lege-irizpide automatiko edo faktiko batzuk ezartzen zituzten.

2.3. Bikotearen barruko eraentza

Foru Legea mesedegarria da bizikideek bikotearen barruko eraentza ezartzeko. Eraentza hori ezkontzarako aurreikusitako bat izan daiteke, edo bi alderdiek dokumentu publiko edo pribatuan ezartzen duten beste bat. Hitzarmenik ez badago, edo dagoena nahikoa ez bada, Foru Legeak honako arau hauek ezartzen ditu: bikotea osatzen duten kide bakoitzak gastu komunak ordainduko ditu diru-sarreraren proportzioaren arabera, edo bere ondarearekin; etxean egin beharreko lana, edo beste kidearen jardueretan laguntzea, diruz ordainduta ez badaude, edo diru nahikoaz ordainduta ez badaude, gastu komunei egindako ekarpen zat hartuko da ondore horietarako.

⁴⁹ Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2011ko uztailaren 21eko Epaiak (lan-arloko sala, 1. atala).

⁵⁰ Iruñeko Lan Arloko 3. Epaitegiaren 2009ko apirilaren 6ko Epaiak.

Legeak ez du ezer adierazten zenbait gastu komunetik eratorritako zoren inguruko ondare-erantzukizuneko gaiari buruz, suposatzen baitu muturreko egoera hori bikotea osatzeko dokumentuan aurreikusi duela bikoteak. Baina eskritura horiek ematea ohikoa ez denez, epaitegiei gai batzuk planteatu zaizkie, bikoteak errentan hartutako etxebizitzako errentaren ordainketatik eratorritako zorraren izaera mankomunatuaren⁵¹ edo solidarioaren⁵² inguruan.

Foru Legeko 7. artikulua ondare-erantzukizunaren izaera solidarioa ezartzen du hirugarren pertsonen aurrean, etxea mantentzeko eta seme-alaba komunak elikatzeko gastuei aurre egiteko hartutako obligazioengatik.

Zalantza horiek desagertu dira Konstituzio Auzitegiak emandako Epaia-
ren ostean, 6/2000 Foru Legeko 7. artikulua erabat deuseztatua izan baita. Artikulu horrek gai hori arautzen zuen, eta interesdunei beren elkarbizitza-harremanak arautzen uzten zien.

2.4. Foru Legeak ematen dituen eskubideak

Foru Legeak bikotekideei elkarrekin adoptatzeko ahalmena ematen die, ezkondua dauden bikoteen eskubide eta eginkizun berdinekin. Hori ezartzen duen aginduak (Foru Legeko 8. artikulua) alde batera uzten du heterosexualtasuneko baldintza. Baldintza hori Nafarroako legearen aitzindariak diren uztailaren 15eko Kataluniako 10/1998 Legearen eta martxoaren 26ko Aragoiko 6/1999 Legearen jatorrizko bertsioetan jasota zegoen. Hori dela eta, testu hori Espainian zein Europan homosexualak adoptatu ahal izateko aukera eman zuten lehen lege-testuetako bat izan da.

Nafarroako legea aldarrikatu eta gutxira, lehen adopzio-eskaera iritsi zen epaitegietara.

Bi neskatxa bikiren (laguntza bidezko giza ugalketako tekniken bidez sortuak izan ziren) amaren neska-lagun lesbiana batek formulatu zuen, eta horrek 2004ko urtarrilaren 22an lehen auzialdiko 3. epaitegiak emandako auto entzute-tuaa ekarri zuen. Auto horren doktrina adingabeen interes nagusiaren printzipioa aplikatzeko eman zen eta, aurrerago, baztertua izan zen. Konstituzio Auzitegiko Epaia 6/2000 Foru Legeko artikulua horren konstituzionaltasuna aitortu du. Horregatik, indarren dago oraindik.

Bestalde, 6/2000 Foru Legeko 11. artikulua Foru Berriko zenbait lege aldatzen ditu, oinordetzako alderdiak jasotzen dituztenak. Hain zuzen ere, Foru

⁵¹ Nafarroako Probintzia Auzitegiaren (3. atala) 2002ko apirilaren 23ko Epaia (2002\173606 JB).

⁵² Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2003ko azaroaren 26ko Epaia (2003\2211 JB).

Berriko 253., 304. eta 341. legeak dira, eta horiek, hurrenez hurren, honakoak arautzen dituzte: fideltasuneko lege-gozamenaren emakida, lege-oinordetzako oinordetza-ordena eta ezkontidearen jaraunspenean kontulari banatzaile postua betetzearen bateraezintasuna. Aldaketek bikote egonkorren bizirik dagoen kidearen egoera ezkontidearekin berdindu baino ez dute egiten.

Zenbait galarazpen jarri zaizkio agindu horien erreforma horri. Izan ere, adierazi da horiek aldatuz ez direla aldaketa horiek planteatzen ditzaketen gai tekniko guztiak konpontzen. Horrez gain, esan dute aldaketek Foru Berrian araututako oinordetzako erakunde hauengan eta beste batzuegan izango dituen eraginaren inguruko azterketa xehea egin behar izan zutela. Adibidez, fideltasun-gozamenari dagokionez, 253. legea baino ez da aldatu. Lege hori eskubidearen titularrei buruzkoa da; ez, ordea, instituzioa arautzen duten gainerako aginduei buruzkoa. Horrekin lotuta, 261. legeak ezartzen du berriz ezkonduz gero, eskubidea galduko dela, baina ez du ezer esaten bikote egonkorreko harreman berriaren inguruan. 259. edo 258. legeek ere ez dute ezer esaten. Lehenengoak obligazioak jartzen dizkio gozamedunari («ezkontide» izena ematen dio), eta bigarrenak gozamedun «ezkontidearen» eskubideak zenbatzen ditu; esanguratsuenak aipatzearen.

Gainera, Foru Berriko beste xedapen batzuk berrikusi behar izan ziren, benetan sartu nahi izanez gero bikote egonkorrek familia-erantzaren ezkontzekin berdintzeko printzipioa, orokorrean hartuta. Hala, egoera deigarri batzuk aipatzearen: aurreko ezkontzako seme-alaben eskubideen erantzaren, ez ziren Foru Berriko 272. eta 274. legeak aldatu; eta horiek, hurrenez hurren, ezartzen dituzte bigarren ezkontzako seme-alabekin edo ezkontidearekin berdintzeko eskubidea eta hilik dagoen aurreko ahaidearen aldetik datozen ondasun jakin batzuk gordetzeko eskubidea. Hortaz, eskubide horiek ezkontzako seme-alabei soilik ematen zaizkie, eta ez bikote egonkorrek izandakoei. Legegileak ez zuen hori aipatu, eta irizpide ona izanda jurisprudenziak gainditu du, bikote egonkor batek izandako seme-alabei Foru Berriko 271. eta 274. legeak aplikatu dizkie eta⁵³.

Konstituzio Auzitegiko Epaiak erabat baliogabetu ditu 6/2000 Foru Legeko 11. artikulua jasotzen zituen bikote egonkorren oinordetza-eskubideak.

Zergei dagokionez Nafarroak dituen eskumenak erabiliz, 6/2000 Foru Legeak orokorrean ezartzen du bikote egonkor baten kideak ezkontideekin berdintzeko printzipioa zerga-legedian aurreikusitako ondoretarako; errendimendua zenbatzeari eta kenkariak eta salbuespenak aplikatzeari buruzkoak. Printzipio hori aplikatuz gero, bikoteak ezkontideen maila berean daude oinordetzen eta

⁵³ Nafarroako Probintzia Auzitegiaren (3. atala) 2006ko otsailaren 15eko Epaiak (2007/327 AC).

dohaintzen gaineko zergaren araubidean, baita PFEZko zenbait alderditan ere. Nafarroako Auzitegi Nagusiak 2001. urtean emandako epai batek zerga-onura horiei heltzea ezeztatu zion bikote egonkor bati, legeak atzeraeraginezko eragin-kortasunik ez zuelako.

Funtzio publikoaren inguruko eskubideei dagokienez, 6/2000 Foru Legeko 13. artikulua xedatzen duenez, bikote egonkorak ezkontidetzat hartuko dira Nafarroako Administrazio Publikoetan lan egiten duten langileen estatu-tuan aurreikusitako ondorioetarako; lizentziei, baimenei, administrazio-egoerei, lanpostu-hornidurari, familia-laguntzari eta eskubide pasiboiei dagokienez. Printzipio hori aplikatuz, ezkontza-baimeneko lizentziak eman zaizkie bikote egonkorrei. Lizentzia horiek 15 eguneko baimen ordaindua ematen dute, bikoteak erregistro batean izena eman duenetik hasita⁵⁴.

Foru Legeak ez die gizarte-eskubiderik aitortzen bikote egonkorrei, autonomia-legegileak ez baitu horretarako eskumenik. Hala ere, eztabaidatu da lan-baimen ordainduak eman behar zaizkien edo ez⁵⁵.

Esan beharra dago Konstituzio Auzitegiaren epaiak erabat baliogabetu zuela 6/2000 Foru Legeko 6. artikulua. Artikulu horrek aldizkako pentsioak eskatzeko eskubidea ematen zien bikote egonkorrei, bai eta elkarbizitza hausteagatik desegin eta gero bikote egonkorrentzako diru-konpentsazioa eskatzeko eskubidea ere.

2.5. Iraungitzeko kausak

Bikote egonkorraren harremana honako kausa hauengatik iraungi daiteke: bizikide bat hiltzeagatik edo hil dela adierazteagatik, bikotekide bat ezkontzeagatik, bikotekideek erabakitzeagatik, batek nahi duelako eta besteari fede emanez jakinarazi diolako, urte batez baino gehiagoz iraun duen elkarbizitza benetan gelditzeagatik, eta bizikideek eskritura publikoan aurreikusitako kausengatik. Horien artean, garrantzi berezia du bikotekide baten nahian oinarritzen den horrek, bestearen nahiaren aurka. Kasu horietan planteatzen dira harremana amaitzearen ondorioak zein diren, aurreko egoeraren inguruan, etxebizitza erabiltzeari eta seme-alaba adingabeak zaintzeari dagokienez. Egoera horiek sortutako kalteak arintzeko, diru-konpentsazioak eskatzeko demanda ugari egin dira. 6/2000 Foru Legeak arrazoirik gabeko aberaste-figuran subsumitu ditu, eta, egoeraren karakterizazio horretatik abiatuta, ezartzen du hausturako kasurako bizikideek ezer hitzartu ez badute, «aldizkako pentsio» bat eskatu ahal izango

⁵⁴ Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2004ko urtarrilaren 30eko epaia (lan-arloko aretoa, 1. atala).

⁵⁵ Zentzu negatiboan eman zuen 2002ko ekainaren 20ko Epaia Iruñako Lan-arloko 3. Epaitegiak.

dela, baita «diru-konpentsazioa» ere, 6/2000 Foru Legeko 5. eta 6. artikuluetan ezarritako egoerak ematen badira.

5. artikulua arabera, aldizkako pentsioa eman beharko da baldin eta kide batek behar badu, honako kausa hauek direla eta: a) diru-sarrerak lortzeko lehen zuen gaitasuna txikitzea; edo b) seme-alaba komunak bere kargura geratzeagatik, bere lan-jardueraren garapena galaraztea edo asko oztopatzea. Halaber, desorekagatiko pentsioa jaso beharko da bizikide bat bidegabe aberastu bada, besteak egindako lana dela medio. Bi pentsioak urte bateko epean eska daitezke, elkarrekin bizitzeari uztetik hasita. Behin eman direla, pentsioak ez dira betiko izango, Foru Legeko 6. artikulua gehieneko epe batzuk finkatu ditu eta.

Hausturaren ondorioak arautzeko Foru Legearen neurritasuna ikusita, Nafarroako auzitegiek aztertu dute familia-etxebizitzako emakidaren jatorria. Horren harira, Nafarroako Auzitegi Nagusiak 2006ko azaroaren 8an emandako Epaiak adierazi zuenez, ezkontzen hausturetarako hori ezartzen duen Kode Zibileko 96. artikulua aplikatzekoa dela, 6/2000 Foru Legeak jasotzen ez duen arren. Edonola ere, artikulua hori ez da aplikatu behar ezkontza-eraentzen arteko antzagatik, baizik eta, aplikatuko ez balitz, ezkondata izandako seme-alaben eta ezkondu gabe izandako seme-alaben arteko diskriminazioa izango litzatekeela, eta hori seme-alaben berdintasuneko printzipioaren kontrakoa da.

2.6. Ezkontzaren eta izatezko bikoteen elkarbizitza-hausturaren ondorioen arauketa

Elkarbizitza-hausturako gaia bere gain hartu du legegile nafarrak, 2010eko maiatzaren 31n Nafarroako parlamentuari aurkeztutako Zaintza partekatuko Legearen proposamenaren bidez. Lege horrek nahiko era zabalean jasotzen zuen gaia, honako alderdi jakin hauek barne: «familia-harremanetako ituna», «familia-etxebizitza erabiltzeko emakida», seme-alabentzako elikagaiak eta «esleipen konpentsagarria». Edonola ere, testuak parlamentuan zehar pasa ahala izandako zuzenketek xedearen eta tituluaren aldaketa ekarri zuten. Titulua hauxe izan zen ordutik aurrera: 37/2011 Foru Legea, martxoaren 17koa, gurasoen elkarbizitza haustekotan seme-alaben zaintzari buruzkoa. Legea murriztu ondoren, hiru artikulua eta zenbait xedapen gehigarri zituen. Funtsean, xedatzen dute ezkontideen zein bikote egonkorren elkarbizitza haustekotan, seme-alaba adingaberik badago, epaileak erabakiko du, adingabearen intereserako, zaintza indibiduala edo partekatua hitzartu beharra dagoen. Horretarako, ez du Zerga Ministerioaren aldeko txostena behar, eta, prozesuan zehar, entzunaldia eman beharko dio horri. Zaintza indibiduala erabakitzen badu, epaileak finkatuko du beste gurasoaren bisita-eraentza. Zaintza partekatua erabakiz gero, guraso bakoitzaren eta seme-alaben arteko elkarbizitza-eraentza bat finkatuko du, baldintzetara egokituko

dena. Legea indarrean sartu baino lehenago (Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 3 hilabetera sartu zen indarrean) hasi diren prozesuei ez zaie Legea aplikatuko.

Legeak berak adierazi zuen parlamentuari familia-bitartekaritzako Legearen proiektu bat aurkeztuko zitzaioela sei hileko epean, Foru Legetik hasita. Lege-proposameneko testuak jasotzen zituen gainerako gaiak (etxebizitza-erabilera, konpentsatzeko pentsioa, etab.) «Nafarroako familia-zuzenbideko erreforma osoa» egingo zen unera atzeratu zen. Erreforma horren berri eman beharko du Nafarroako Foru Zuzenbide Zibileko batzordeak, Nafarroako Foru Berria aldatzea dakarrelako. 3/2011 Foru Legeak agintzen du erreforma hori urte bateko epean egin behar dela, indarrean sartzen denetik hasita. Bost urte igaro diren arren, antza denez, erreforma horri orain ari zaie ekiten.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko izatezko bikoteen Legea

3.1. Izatezko bikoteak arautzen dituen 2/2003 Legea

Euskal Autonomia Erkidegoko izatezko bikoteak arautzen dituen 2/2003 Legeak printzipio orokor bat sartzen du, bakoitzak hautatzen duen familia-eredua edo sexu-orientazioa direla medio edozein diskriminazio debekatzen duena. Era horretan, Nafarroako Legeak zabalduetako doktrinarekin bat egin zuen.

Izatezko bikoteei aplikatzekoa den araubide juridiko osoa arautzen du Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenen eremuaren barruan eskubideak berdintzeko ikuspegitik. Gainera, lehen xedapen gehigarriak xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren lege- eta araudi-arauen barruan 2/2003 Legea egin aurretik ezkontzari buruz egin diren erreferentziak izatezko bikoteentzat ere izango direla.

Nafarroako legeak sortutako benetako arazo handietako bat izan zen ez zutela bikoteentzako erregistro nafarrik sortu. Irizpide hobea izanda, 2/2003 Legearen 3. eta 4. artikuluetan Bikoteen Autonomia Erregistro bat jaso zen. Erregistro horretan izena emateko, gutxienez, bikoteko kide batek administrazio-auzotasuna EAEko lurraldean izan behar du. Bikotekide batek administrazio-auzotasuneko baldintza izatezko bikoteei buruzko beste autonomia-lege batzuek finkatutako irizpidetik urruntzen da. Bikote mistoen kasuan, zenbait lege-gatazka sortzen ditu horrek, eta, ondorioz, harreman horien segurtasun juridikoa oso eskasa da.

Bikoteek izen-ematea eskatu eta dagokien ziurtagiria jaso dezakete. Horrela, jadanik erregistroa zuten udal guztietan egindako izen-emateak baliagarriak izango dira. Legeak izen-ematearen izaera osagarriko printzipioa ezartzen

du, sistema osoari beharrezkoa den segurtasun juridikoa ematen diona. Edozein arrazoi dela eta lege horretatik at (bertan jasotzen den eskubide eta obligazioetako eraentzari heldu nahi ez izateko kasuan) geratu nahi duten bikoteen nahia errespetatzeko, askatasun zibila babestuta dago. Halaber, bikoteek debekatuta dute izen-emateak bertan behera uztea, eta, ondorioz, osatutako izatezko bikotea desegitea. Izatezko bikoteen erregistroaren araudia ekainaren 22ko 124/2004 Dekretuaren bidez onartu zen⁵⁶.

Zenbait autonomia-legedi ez bezala, 2/2003 Legeak ez du eskatzen alde zuzenetik elkarrekin bizitzeko; izan ere, legegileak ulertu zuenez, diskriminazioa izango litzateke hori ezkontzarekin alderatuta. Bikote-harremaneko edukia bikote bakoitzak erabakitzen du, bien eskubide eta obligazioak arautzeko itun bat Erregistroan aurkeztuz. Itun propiorik izan ezean, lege orokorrak ezartzen duenari hel diezaiokete. Horrek alde bien egoeraren oreka eta egoera ahulena duen babesa bilatzen ditu.

Legeak zenbait xedapen jasotzen ditu, Euskadiko zuzenbide zibileko eremuan, testamentuan bikoteek beren ondasunak beste bikotekideari ematea xedatu ahal izateko, eta ezkontutako bikoteen baldintza berdinetan jarauntsi ahal izateko. Oinordetzako araubidearen inguruko 9. artikulua ezartzen du «uztailaren 1eko Euskadiko Foru Zuzenbide Zibileko 3/1992 Legearen ondoretarako izatezko bikoteak ezkontutako bikoteen maila berean egongo direla». Hori dela eta, izatezko bikoteen oinordetza-araubidea Euskadiko Foru Zuzenbide Zibileko 3/1992 Legean jasota dagoen ezkontzen oinordetza-araubiderek berdin da. Gauza bera esan behar da ondasun komun guztien gozamenari buruz, testamentu mankomunatuari buruz eta komisario bidezko testamentu errepikakorrari buruz; izan ere, 9. artikuluan jasotako berdinketa 3/1992 Legeak oinordetza-araubideari buruz ezarritako guztian ondorioztatzen da. Atalek zalantzaren bat sortuko balute, bigarren xedapen gehigarriak jasotzen du «lege horretan espre-suki araututa ez dauden gai guztiei dagokienez, izatezko bikoteak ezkontzarekin berdinduta egongo direla Euskadiko administrazio publiko ezberdinekin ezar ditzaketan harreman juridikoetan». Horrela, izatezko bikoteak ezkontutakoekin berdintzen dira alde zuzeneko autonomiako lege- eta araudi-arauetan, eta, ondorioz, 3/1992 Legea osatzen duten eta ezkontza-egoera arautzeko helburua duten xedapen guztietan. Salbuespen bat dago, Izatezko bikoteen Legean ezin-go direlako aplikatu 3/1992 Legeko ezkontzako ondasun-eraentzari buruzko eta foru-komunikazioko xedapenak; izan ere, 2/2003 Legean bertan jasotzen diren eta harremana eta ekonomia-araubidea arautzen dituzten aginduengatik aldatuak izango dira.

⁵⁶ 133 zenbakidun EHAA/BOPV, 2004ko uztailaren 14koa, 13698-13710. or.

Horrez gain, adingabeak hartu edo adoptatzeko sexu bereko bikoteen eskubidea jasotzen du Legeak (7. eta 8. artikulua). Era horretan, amaiera ematen dio oraindik ere araubide juridikoan zegoen diskriminazio nabarmenari.

Legeak xedapen sorta bat jasotzen du IV. kapituluaren eta horrek zuzenbide publikoko gaietan berdintasuna bilatzen du. Honako hauek dira, besteak beste: bikoteari nahiz bikoteak osatzen duen familiari eragiten dion zerga-ordainketa, administrazio publiko guztietako eta erakunde-administrazioari (zuzenbide zabalean) eremuko lan-eskubideak, osasuna, hiltzeko kasuan egin beharreko administrazio-izapideak, familia-bitartekaritza, etab. Nafarroak bezala, Euskal Autonomia Erkidegoak ez du lan-eskubideen eta Gizarte Segurantzaren inguruko arauketa-eskumenik. Baina 2/2003 Legeko 17. artikulua ezkonduko bikoteen eta izatezko bikoteen arteko berdintasun osoa xedatzen du, gizarte gaietan dituen eskumenen barruan laneko eta Gizarte Segurantzaren arauak aplikatzeko.

Legearen V. kapituluaren elkartasun egonkorra desagertzeari buruzkoa da. Bertan ezartzen dira desagertzeko kausak eta horien ondorioak. Nabarmengarria da biek adostutako desagerpena edo bikotekide batek elkartasunari amaiera emateko erabakia hartzeagatik desagerpena. Horretarako, prozedura azkar eta erraza jasotzen da, baina segurtasun juridikoari arreta kendu gabe.

3.2. Ezkontzaren eta izatezko bikoteen arteko 5/2015 Legearen berdintasuna

3/1992 Legeak izaera orokorra eta subsidiarioa zuen, lege bereizi gisa ari zen Izatezko bikoteen 2/2003 Legeari zegokionez. 2/2003 Legea indarrean sartu aurreko arau guztietan izatezko bikoteak ezkondukoekin berdintzeak ez zuen etorkizuneko planteamendua konpontzen. Une horretan, 3/1992 Legea erreformatuko zuen Euskal Zuzenbide Zibileko Legearen aurreproiektua planteatzen ari ziren jadanik. Gaia egoki konpondu da. Euskal Zuzenbide Zibileko 5/2015 Legeak izatezko bikoteen egoera juridikoa ezkontzarenarekin berdintzen du. Izatezko bikotetzat hartuko dira izatezko bikoteak arautzen dituen martxoaren 7ko 2/2003 Legeko 4. artikulua sortutako Izatezko Bikoteen Erregistroan izena eman dutenak soilik.

Izatezko bikoteen eraentza ekainaren 25eko 5/2015 Legeko bigarren xedapen gehigarrian ezartzen da. Haren lehen zenbakian adierazten da legean izatezko bikoteei egindako aipamenak egintzat joko zaizkiela «izatezko bikoteak arautzen dituen martxoaren 7ko 2/3002 Legeko 4. artikuluan ezarritako erregistroan izena eman dutenei». Bigarren zenbakian 2/2003 Legeko 2. eta 5. artikulua aldatzen dira. Idazketa berriaren bidez, izatezko bikotetzat joko dira: adinez nagusiak diren edo emantzipatuak dauden bi pertsonen elkartzetik

sortutakoak, gaitasun osoa badute, odol-ahaidetasunik ez badute edo lerro zuzeneko adopzio-ahaideak ez badira edo alboko bigarren mailako odolkidetasunik ez badute, eta afekzioko eta sexuko harreman batez lotuak badaude. Berdin du genero berekoak edo ezberdinekoak badira. Halaber, bikotekide biek bete behar-koto dute beste pertsona batekin ezkontuta ez egoteko edo izatezko bikotekiderik ez izateko baldintza.

Izatezko bikotekideek beren elkarketatik eratorritako harreman pertsonalak eta ondarekoak dokumentu publiko edo pribatu baten bidez arautu ahal dituzte. Bertan, bakoitzari dagozkien eskubideak eta betebeharrak adierazi behar dituzte, baita bikotea desegiteko kasuan jasoko lituzketen diru-konpentsazioak ere. Ezin izango da aldi baterako izatezko bikote bat osatu, ezta baldintzekin osatu ere. Administrazio publikoek ez dituzte erregistroan sartuko kideen oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen aurka doazen itunak. Itun espresik ezean, erregistratutako izatezko bikoteen ekonomia- eta ondare-eraentza izango da Kode Zibilean ezarritako ondasunen banaketako eraentza. Azken hori asma-tze handia da, izatezko bikoteen benetako gizarte-egoerarekin bat egiten baitu. Azken batean, haientzako egokiagoa da ondasunen banaketako eraentza irabaz-pidezko sozietatekoa baino (eraentza hori ezkontzei aplikatzen zaie gehigarri gisa).

V. BIBLIOGRAFIA

ALAMILLOS GRANADOS, L. F., Título III. Del régimen de bienes en el matrimonio. Capítulo I. Del régimen legal (artículos 125 a 128). A. M. Urrutia Badiola, *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco: Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Bilbao: Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia; Dykinson, 2016, 187-192. or.

ARREGUI GIL, J., *Adendum*. Sobre la Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables, M. Albaladejo (arg.), *Comentario al Código civil Compilaciones forales. XXXVII. liburukia, 2. bolumena. Leyes 253 a 345 de la Compilación o Fuero Nuevo de Navarra*, Madril: EDERSA, 2001, 1623-1645 or.

ASÚA GONZÁLEZ, C. I., GIL RODRÍGUEZ, J. eta HUALDE SÁNCHEZ, J. J., El ejercicio de la competencia en materia civil por parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco, *Derecho Privado y Constitución*, 2 (1994), 9-34. or.

ASUA GONZÁLEZ, C. I., La STC 93/2013, de 23 de mayo, y la regulación del régimen interno de las convivencias no matrimoniales en la Comunidad

- Autónoma del País Vasco, *Revista Vasca de Administración Pública/Herri-Ardularitzako Euskal Aldizkaria*, 103 (2015), 17-54. or.
- AURREKOETXEA, X., Las parejas de hecho en la Comunidad Autónoma del País Vasco, ante el poder testatorio y la nueva regulación del artículo 831 del Código civil, *Derecho sucesorio: El poder testatorio y la nueva regulación del artículo 831 del Código Civil*, Bilbo: Academia Vasca de Derecho/Zuzenbi-dearen Euskal Akademia, 2004, 187-217. or.
- BABAZE AIZPURUA, J., La tributación en IRPF de la liquidación de la sociedad foral de comunicación de bienes por causa de divorcio, *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco, 2016, 505-518. or.
- CASTIELLA RODRÍGUEZ, J. J., La ley foral navarra para la igualdad jurídica de las parejas estables, *Revista Jurídica del Notariado*, 47 (2003), 65-83. or.
- CELAYA IBARRA, A., *Derecho civil vasco*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1998.
- EGUSQUIZA BALMASEDA, M. A., Cambio de rumbo legislativo de las parejas estables: SSTC 81/2003, de 11 de abril de 2013 y 93/ 2003, de 23 de abril de 2013, *Aranzadi civil-mercantil. Revista doctrinal*, 2. bol., 5. zk. (2013ko iraila), 75-115. or.
- EGÚSQUIZA BALMASEDA, M^a A. eta KARRERA EGIALDE, M., Usufructo legal de fidelidad y derecho de igualación de los hijos de anterior matrimonio en Navarra y derechos sucesorios de la pareja supérstite en el País Vasco, *Tratado de Derecho de Sucesiones. Código civil y normativa civil autonómica: Aragón, Baleares, Cataluña, Galicia, Navarra, País Vasco*, Zizur Txikia: Civitas-Thomson Reuters, 2011, 2. bol., 2351-2400. or.
- GALICIA AIZPURUA, G. H., Notas a la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho civil vasco, *Actualidad jurídica iberoamericana*, 4 (2016), 303-320. or.
- GARCÍA CANTERO, G., La comunicación foral como régimen supletorio en la Ley del Parlamento Vasco de 1 de julio de 1992, *Revista Jurídica de Navarra*, 16 (1993), 45-60. or.
- GAVIRIA SÁNCHEZ, J. V., Las uniones libres en la Ley Foral navarra de Parejas Estables, *Actualidad Civil*, 2 (2001), 605-643. or.
- GOÑI URRIZA, N., La Ley navarra para la igualdad jurídica de las parejas estables, A. L. Calvo Caravaca eta J. L. Iriarte Ángel (zuz.), *Mundialización y familia*, Madril: Colex, 2001, 375-385. or.
- GONZÁLEZ BEILFUSS, C., Recurso de inconstitucionalidad contra la Ley Foral 6/2000, del Parlamento de Navarra, para la igualdad jurídica de las parejas

- estables, *Revista Española de Derecho Internacional*, 52. bol., 2. zen. (2000), 620-694. or.
- GONZALO, Tx., Ley 2/2003, de 7 de mayo, Reguladora de Parejas de hecho, *EuskoNews & Media*, 233 zb. (2003ko abenduaren 5ekoa). <http://www.eusko-news.com/0233zbbk/gaia23303es.html> (2016ko ekainean kontsultatu da).
- GUTIÉRREZ BARRENENGOA, A. eta MONJE BALMASEDA, O., La atribución voluntaria de ganancialidad en el régimen económico matrimonial de comunicación foral de bienes, *Jado*, 12. bol., 24. zen. (2013), 145-167. or.
- IRIARTE ÁNGEL, J. L., Parejas de hecho, Constitución y conflictos de leyes internos. Reflexiones acerca de la cuestión de inconstitucionalidad 228-2003, M. Vargas Gómez-Urrutia eta A. Salinas de Frías (koord.). *Soberanía del Estado y Derecho internacional. Homenaje al profesor Juan Antonio Carrillo Salcedo*, Sevilla: Sevillako Unibertsitatea, 2005, 2. bol. 721-731. or.
- Parejas de hecho, Constitución y conflictos de leyes internos. Reflexiones acerca de la Sentencia del Tribunal Constitucional de 23 de abril de 2003 (recurso de inconstitucionalidad 5297-2000), *Boletín Jado*, XII, 24 (2013), 169-183. or.
- IRURETAGOIENA AGIRREZABALAGA, I., LASA BELLOSO, B. eta MAGALLÓN ELÓSEGUI, N., Análisis de la Ley Vasca 2/2003 de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho: una aproximación internacional-privatista, *Revista Vasca de Administración Pública/Herri-Ardurularitzako Euskal Aldizkaria*, 67 (2003), 301-328. or.
- JIMENO ARANGUREN, R., *El régimen económico matrimonial en el Derecho navarro (1839-2015). Hacia una revisión legislativa*, Zizur Txikia: Thomson Reuters-Aranzadi, 2015.
- Evaluación del proceso de compilación/codificación del Fuero Nuevo: doctrina y praxis del Derecho, *Iura Vasconiae*, 13 (2016), 9-55. or.
- La inscripción de las parejas estables españolas: la necesidad de un registro único en cada comunidad autónoma, *Revista Boliviana de Derecho*, 22 (2016), 64-79. orr.
- MANZANO MALAXECHEVARRÍA, J. R., Título III. Del régimen de bienes en el matrimonio. Capítulo II. Del régimen de la Comunicación foral de bienes. Sección segunda. De la disolución del régimen de Comunicación bienes (artículos 140 a 146). A. M. Urrutia Badiola, *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco: Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Bilbo: Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia; Dykinson, 2016, 211-218. or.

- MARTÍN OSANTE, L. C., *El régimen económico del matrimonio. La comunicación foral de bienes*, Madril: Eusko Jaurlaritzza-Marcial Pons, 1996.
- Conflictos de leyes en materia de régimen económico del matrimonio desde la perspectiva del Derecho Vizcaíno, *Conflictos de leyes en el desarrollo del Derecho Civil Vasco*, Bilbo: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, 1999, 199-260. or.
 - Comunicación foral de bienes, *Aunamendi Eusko Entziklopedia*, Donostia
 - San Sebastián: Eusko Media Fundazioa, 2010. <http://www.euskomedia.org/aunamendi/152181> (2016ko ekainean kontsultatu da).
- MONASTERIO ASPIRI, I., La condición jurídica de la mujer en el Derecho Civil-Foral de Bizkaia, *Iura Vasconiae*, 3 (2006), 249-282. or.
- La familia en Bizkaia y su régimen jurídico, *Jado*, 3. bol., 5. zen. (2005), 31-64. or.
- MONJE BALMASEDA, O., El concurso de acreedores y el régimen económico matrimonial de comunicación foral, *Revista Vasca de Administración Pública/Herri-Arduralaritzarako Euskal Aldizkaria*, 87-88 (2010), 843-866. or.
- Título III. Del régimen de bienes en el matrimonio. Capítulo II. Del régimen de la Comunicación foral de bienes. Sección primera. De la Comunicación foral de bienes (artículos 129 a 139). A. M. Urrutia Badiola, *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco: Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*, Bilbo: Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia; Dykinson, 2016, 193-210. or.
 - El régimen económico matrimonial en la Ley 5/2015, de Derecho Civil Vasco: La comunicación foral de bienes, *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco, 2016, 455-484. or.
- NANCLARES VALLE, J., La adopción por parejas homosexuales en derecho navarro. Comentario crítico al artículo 8 de la Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, *Aranzadi Civil*, 8 (2001), 15-57. or.
- ORIBE MENDIZABAL, A., Las parejas de hecho tras la entrada en vigor de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco, 2016, 485-504. or.
- PIÑOL OLAETA, E. eta PARAMAIO JUNQUERA, N., Disposiciones adicionales. Disposiciones transitorias. Disposiciones derogatorias y Disposición final, A. M. Urrutia Badiola, *La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco: Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y for-*

- mulario notarial*, Bilbo: Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia; Dykinson, 2016, 219-238. orr.
- QUIJADA LINARES, J. eta GUTIÉRREZ ALONSO, J. J., La Ley Foral de Navarra 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables: hacia un nuevo modelo de familia y adopción, *Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad de Granada*, 5 (2002), 573-596. or.
- SABATER BAYLE, E., La casa navarra (a propósito de las leyes 48 y 75 del Fuero Nuevo de Navarra), *Iura Vasconiae*, 10 (2013), 635-658. or.
- Derecho de Familia, *Derecho civil navarro. II. Derecho de familia. Donaciones y sucesiones*, Madril: Marcial Pons, 2014, 25-180. or.
- Ley Foral 6/2000, de 3 de junio, para la igualdad de las parejas estables, en el Derecho de Navarra: problemas planteados, *Anales de Derecho. Huarte de San Juan*, 5 (2004), 193-216. or.
- SEISDEDOS MUIÑO, A. eta MARTÍN OSANTE, L. C.: La troncalidad y el régimen económico del matrimonio en la Ley del Derecho Civil Foral del País Vasco, J. Martínez-Simancas Sánchez eta Rodrigo Bercovitz Rodríguez-Cano (koordinatzaileak), *Derechos Civiles de España*, Madril: Banco Santander-Central Hispano; Aranzadi, 2000, 1. bol., 235-275. or.
- SERRANO GAZTELUURRUTIA, S., Perspectiva desde la multidisciplinariedad de la configuración foral vasca: aspectos tributarios, *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI: de la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*, Vitoria-Gasteiz: EuskoLegebiltzarra/Parlamento Vasco, 2016, 519-536. or.
- VILLANUEVA LATORRE, A. C., Derecho de Familia, *Iura Vasconiae*, 13 (2016), 209-230. or.

PARTEHARTZAILEAK

ALKORTA IDIAKEZ, Itziar

UPV/EHUko Zuzenbide Zibileko irakasle titularra da. Irakasle gonbidatua izan da Hastings Center for Bioethics-en (New York), Bioethics Center (Pennsylvania University) eta Université de Bordeaux-en. Ikerketa lerroa eta publikazio lan nagusiak bioetikaren eta medikuntzaren zuzenbidearen gainekoak dira, nahiz eta datuen babesa eta obra kontratuari buruzko artikulua ere kaleratu dituen. Egun, Eusko Jaurlaritzako Pertsona, Familia eta Ondareari buruzko ikerketa talde kontsolidatuaren kide da. Horrez gain, Europako ikerketa programa markoko hainbat ikerketa partzuergoetan aritutakoa da, eta baita Espainiako ikerketa proiektuetan. Euskadiko Bioetika Batzordeko kide da. Eusko Ikaskuntzako *Eleria* aldizkariaren sortzaile izan zen. Ardura instituzionalei dagokienez, Eusko Ikaskuntzako Idazkari Orokor izan zen 2008 urte arte. Ondoren, *Jakiundeko* Idazkari Orokor izan zelarik. UPV/EHUko Berrikuntza eta Kalitate Errektoreorde bezala aritu zen, harik eta 2012. urtean Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa Sailburu orde izendatu zuten arte. Egun *Iura Vasconiae* Fundazioko presidenteorde da.

BELINTXON MARTIN Unai

Nafarroako Unibertsitate Publikoan nazioarteko Zuzenbide pribatuko Irakasle Laguntzaile Doktorea eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuan jarduneko abokatua da. Belintxon Irakaslearen ikerkuntza arloa bereziki merkantzia eta bidairi esparruetan errepide bidezko europar edota nazioarteko garraio Zuzenbidean, nazioarteko Zuzenbide pribatuan, nazioarteko itsas garraio Zuzenbidean, nazioarteko Zuzenbide prozesal zibilean, garraio sektoreko Lehiakortasun Zuzenbidean, giza Eskubideak eta nazioarteko negozioetan, eta eskualde-arteko Zuzenbide eta barne gatazketan dihardu. 2013 eta 2015 urteetan ISDC *Institut Suisse de Droit Compare*-n (Lausana-Suitza), eta 2016 urtean *International Institute For The Unification of Private Law*-en (Erroma-Italia) ikerkuntza esantziak egin ditu. Gainera, *Revista de Derecho del Transporte, terrestre, marítimo, aéreo y multimodal* eta *Anuario Español de Derecho Internacional Privado (AEDIPR)* aldizkarietan kolaboratzailea eta ebaluatzailea da.

GOROSTIZA VICENTE, José Miguel

Abokatua, 1985etik jardunean. Foru-zuzenbide arloko espezialitate-ikasketak egin ditu. Doktorego-tesia prestatzen ari da tronkalitateari eta familia-onda-

reari buruz. Irakasle gisa kolaboratu du Bizkaiko Abokatuen Elkargoko Praktika Juridikoaren Eskolako ikastaroetan. Bizkaiko Abokatu Kolegioaren Foru Zuzenbide Zibilaren Azterlan Taldearen Idazkaria. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Zuzendaritza Batzordeko kidea da. Euskalerriko Adiskideen Elkarteko eta Eusko Ikaskuntzako kidea da.

IMAZ ZUBIAUR, Leire

UEUko kide (1995etik). Zuzenbidean Lizentziatua Deustuko Unibertsitatean (1997). Abokaturza Masterra Bizkaiko Abokatu Bazkunean (1997-1998). Abokaturza, Bizkaiko Abokatu Bazkunean kolegiatua (1998tik). Eusko Jaurlaritzako Doktorego Beka (1999-2001). UPV-EHUko Zuzenbide zibileko irakasle Zuzenbide Fakultatean (2001tik). Zuzenbidean Doktore UPV-EHU (2005). Ikerketa lerroak: Oinordetza zuzenbidea, Euskal zuzenbide zibila, generoa, genero identitatea, irakaskuntza berrikuntza. Berrogeita hamar argitalpen baino gehiago. UPV-EHUko Zuzenbide Fakultateko Klinika Juridikoaren Zuzendaritza Kontseilukide (2016). Eusko Legebiltzarreko Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordekide (2017tik). UPV-EHUko Berdintasunerako Zuzendari (2017tik).

JIMENO ARANGUREN, Roldán

Zuzenbidean lizentziatua UNEDetik eta Historian lizentziatua Nafarroako Unibertsitatetik. Historian doktorea Nafarroako Unibertsitatetik, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan doktorea Euskal Herriko Unibertsitatetik, eta Zuzenbidean doktorea Deustuko Unibertsitatetik. Zuzenbidearen Historiako Irakasle Titularra Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Aurretik, Nafarroako Unibertsitatean eta Pabe eta Aturriko Unibertsitateko Baionako Fakultatean irakaslea izandakoa da. Iura Vasconiae Fundazioko zuzendaria da. Hamabost liburu eta ehun bat artikulu eta liburuen kapituluak egilea. Bere azken argitalpenen artean hauexek azpimarratuko ditugu: *El régimen económico matrimonial en el Derecho navarro (1839-2015)*. *Hacia una revisión legislativa* (Thomson Reuters-Aranzadi, 2015), eta *Matrimonio y otras uniones afines en el Derecho histórico navarro (siglos VIII-XVIII)* (Dykinson, 2015).

KARRERA EGIALDE, Mikel

Zuzenbide zibilean doktore eta Zuzenbide Zibileko Irakasle Titularra UPV/EHU. Euskal zuzenbide zibilari buruzko ikerketan lan esanguratsu ugari argitaratu ditu: nekazal eremuko errentamenduak, historikoak nahiz oraingoak, aztertu ditu hainbatetan; Gipuzkoako zuzenbide zibilaren garapena eta gorabeherak zehaztu eta bertako erakunde nagusien analisi sakonagoa ere gauzatu du, bereziki lurrari eta lurraren ustiapenari lotutako erakunde juridikoak; oinor-

detza kontuetan ere aritu da hainbat lan eta txosten argitaratuz. Halaber, idazkari -zereginetan aritu izan da UPV/EHUko Zuzenbide Zibila Sailean, Zuzenbide Fakultatean eta Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzan.

MONREAL ZIA, Gregorio

Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidean eta Ekonomian lizentziatua (1966); Complutense Unibertsitatean Zuzenbidean Doktore (1973). Irakasle atxikia 1967 eta 1976 bitartean Deusto, UPV/EHU eta Valladolideko Unibertsitateetan. Irakasle Agregatua 1976tik 1979ra Extremadura, Complutense eta UPV/EHUko Unibertsitateetan. 1980tik aurrera Zuzenbidearen Historiaren Katedraduna UPV/EHUan, eta 1995tik aurrera Nafarroako Unibertsitatean. Visiting Scholar, University of Nevada, Reno eta University of California, Berkley (1985-1986). 1991-2000 bitartean Paris XIIan Irakasle Bisitaria. UPV/EHUko Errektore (1981-1985). Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascosekoko Presidente (1992-1996). *Distinguished Scholarship William A. Douglass* University of Nevada (2005-2006). Eusko Ikaskuntza y Caja Laboral Euskadiko Kutxako Humanitate, Kultura, Arte eta Zientzien Saridun 2007; Eusko Jaurlaritzako Euskadi Ikerketa Saridun 2013. *Revista Internacional de los Estudios Vascosekoko* zuzendari (1998-2005), *Notitia Vasconiae. Revista de Derecho histórico de Vasconia*ko zuzendari (2002-2003), eta 2004tik *Iura Vasconiae. Revista de Derecho histórico y Autonomicoko* zuzendari. Jakiunde, Zientzia, Letra eta Arteen Akademiako kide da.

OSÉS ABANDO, Josu

Eusko Legebiltzarreko legelaria 1990az geroztik. Barne Araubidearen eta Langileen zuzendaria 1992tik 1996ra, eta Legebiltzarreko Gaiak Kudeatzeko zuzendaria 1996az geroztik. Euskal Zuzenbide Zibilaren alorrean, Eusko Legebiltzarren eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen arteko hitzarmenaren jarraipena egiteko Batzordeko kide izan da, zeinak 5/2015 Legeari buruzko lau jardunaldi antolatu dituen. Gaiari buruzko ondoko ekarpenak argitaratu ditu: «Parlamento Vasco y Derecho Civil Foral: balance y perspectivas», *Jado, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria*, 21. zk. (2011); «Comentario a la exposición de motivos» liburu honetan: «La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco. Comentarios Breves, texto de la Ley, antecedentes legislativos y formulario notarial», Andres M. Urrutia Badiola, Dykinson, 2016; «Autogobierno y Derecho Civil Vasco: el rol del Parlamento Vasco», honen barruan: «El Derecho civil vasco del siglo XXI: de la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros» Eusko Legebiltzarra - Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, 2016; «El ‘nuevo’ Derecho civil vasco: presente y futuro», *Iura Vasconiae*, 13 (2016).

*Euskal Zuzenbide Zibil konparatuari
buruzko azterketak, 2016*

liburuaren inprimaketa 2017ko
urrian burutu zen.

